los instrumentos básicos de protección y de evaluación del patrimonio arqueológico, como es el inventario arqueológico del País Vasco, y se declararon numerosas Zonas de Presunción Arqueológica. De esta forma fue posible evaluar en términos cuantitativos y cualitativos la importancia de este tipo de yacimientos en Álava. El esfuerzo realizado en estos años ha sido enorme, de tal forma que han sido decenas los despoblados catalogados en el territorio alavés recopilando noticias orales, toponímicas y topográficas que, en muchas ocasiones, se han ido perdiendo o erosionando con el tiempo. Sin embargo, uno de los principales problemas a los que se han tenido que enfrentar los catalogadores ha sido el de la escasa o nula visibilidad material de estos yacimientos. Una cosa es ubicar, de forma más o menos precisa, el topónimo de una localidad conocido gracias a la documentación medieval y otra cosa es, en cambio, establecer una delimitación precisa y concreta de estos yacimientos.

Es cierto que en muchas ocasiones, como ya señaló en su día López de Guereñu, se han conservado las iglesias de los antiguos pueblos como el último testimonio de estos poblados, lo que indudablemente ha ayudado en ocasiones a centrar su localización. Pero la mayor parte de los despoblados no conservan estas 'ermitas testigo', ni tampoco ha sido fácil determinar si los pueblos se ubicaban en el entorno inmediato de estas iglesias o cubrían espacios más amplios. Y aunque desde los años noventa se han llevado a cabo intervenciones preventivas que han sacado a la luz parte de estos yacimientos[7], la realidad es que su conocimiento en estos años era aún muy parcial. Por este motivo, la mayor parte, si no la totalidad de los despoblados medievales alaveses han sido declarados como Zonas de Presunción Arqueológica.

Por otro lado, la documentación escrita no cubre de forma homogénea todo el territorio alavés, de tal forma que sectores como la Rioja alavesa, por ejemplo, están subrepresentados en el inventario arqueológico y es muy posible que haya un amplio número de despoblados medievales que no puedan ser identificados por las limitaciones de los textos medievales.

Con el cambio de milenio se han producido toda una serie de innovaciones significativas. La excavación en extensión realizada en la Catedral de Santa María mostró por primera vez la materialidad de las arquitecturas domésticas que habían sido hasta el momento casi invisibles a los investigadores[8]. Algunos años después la realización de excavaciones extensivas en los despoblados de Zornoztegi, Aistra, Zaballa o Bagoeta ha permitido repensar problemas como la noción misma de despoblado, las formas de protección de un patrimonio abundante pero frágil, y

[7] Uno de los primeros reconocidos fue el de Mostrejón, F. J. Fernández Bordegarai, 1993, «Necrópolis medieval de Mostrejón (Salvatierra-Agurain)», *Arkeoikuska* 1993, pp. 271-284. A lo largo de estos años se ha intervenido en más de medio centenar de despoblados.

[8] A. Azkarate, J. A. Quirós, 2001, «Arquitectura doméstica altomedieval en la Península Ibérica. Reflexiones a partir de las excavaciones arqueológicas de la catedral de Santa María de Vitoria-Gasteiz», *Archeologia Medievale. Cultura Materiale, Insediamenti, Territorio* XXVII, pp. 25-60.

hauek hobe zehazteko xedean beharrezkoak diren irizpideen inguruan gogoeta egiteko.

Esparru teorikoa eta metodologikoa

Arabako Erdi Aroko herri hustuetan eta eremu zabaletan burura eramandako esku-hartze arkeologikoek izan duten ondorio garrantzitsuenetako bat izan da aztarnategi arkeologikoaren kontzeptu bera berriro ere formulatu behar izatea. Funtsean monumentuen, hileta multzoen eta etxeko hondakinen azterketan espezializatutako jarduera arkeologikoak aztarnategiaren kontzeptua espazio mugatuetara murriztea ekarri du, gisa honetako aztarnen dentsitatea esanguratsua den espazioetara murriztea. Hala eta guztiz ere, Zaballa bezalako landa eremuko okupazioetan luze-zabalean egindako esku-hartzeek aukera eman dute laborantzari emandako espazioak bereizteko eta herri hustuen azterketetara espazio populatuak eta ustiatutako eremuak biltzeko. Orain formulazio teoriko berri honetatik eratorritako ondorio guztiei ezin aurre egin dakiekeen arren, argi dago, alde batetik, aztarnategiaren beraren kontzeptua ahuldu egin dela eta indartu egin dela paisaia aintzat hartzen duen kontzeptu integralagoa. Bestetik, ondarearen ikuspuntutik askoz ere garrantzitsuagoa den izaera praktikoko arazo bat planteatzen da: non amaitzen dira aztarnategiak? Egiazki aztarnategi asko daude ala modu integralean aztertu behar da paisaia? Hirugarrenik, gure garaiko lursail zatikatze prozesu bizietatik libratu diren Erdi Aroko laborantza lurren eta larreen aurkikuntzak eskatzen du ondare izaerako entitate hauek zerrenda arkeologikoetara biltzea. Laugarrenik, aztarnategi batzuetan eta etxebizitzetatik gertu, modu intentsiboan landutako Erdi Aroko terrazak eta taulenak identifikatu ahal izan dira[9]. Gisa honetako aurkikuntzen maiztasunak kontuan harturik, hauek Arabako Erdi Aroko herri hustuak zehaztasun handiago batez kokatzeko eta mugatzeko orduan izaera erabakigarria izan zezaketela pentsatu zen. Azken batean, Goi Erdi Aroko herri hustuetako egiturak gainazalean ikusezinak direla egiaztatu eta gero[10], landa izaerako arkeologiari ireki zaizkio ateak herri hustu hauen egitura eta sistema ulertzeko funtsezko tresna gisa.

Behin lanean hasteko esparru teorikoa zehaztu eta gero, egoki iritzi genion herri hustuetako eremu landuak eta laborantza intentsiboa garatzeko terraza sistemak tele-hautemateko teknika berriak baliatzeari, haien kokalekua eta banaketa planimetriaren ikuspuntutik aztertu ahal izateko xedean. Horretarako 2008. urtean zehar Eusko Jaurlaritzak Arabako eta Bizkaiko lurraldeetan egindako hegaldietan jasotako LiDAR (*Light Detection and Ranging*) datuak baliatu ditugu. Aipatu teknologiak, laser-izpien bidezko tele-hautematean oinarrituak, aukera ematen du eremuaren eredu digitalak (MDT) kalitate handi batez osatzeko, gutxi gorabehera

[9] J. A. Quirós, 2009, «Arqueología de los espacios agrarios medievales en el País Vasco», *Hispania* 233, 619-652. orr.

[10] J. A. Quirós, 2011, «¿Por qué excavar en grandes extensiones? Arqueología de los despoblados alaveses y el estudio de la aldea de Zornoztegi (Salvatierra)», *Agurain 1256-2006. Congreso 750 aniversario de la fundación de la villa de Salvatierra*, Vitoria-Gasteiz, 379-402. orr.

los criterios necesarios para llevar a cabo una delimitación más precisa de estos yacimientos.

Marco teórico y metodológico

Una de las principales consecuencias que ha tenido la realización de las intervenciones arqueológicas en grandes extensiones en los despoblados medievales alaveses ha sido la de reformular el concepto mismo de yacimiento arqueológico. Una práctica arqueológica que se había especializado sustancialmente en el estudio de monumentos, conjuntos funerarios y residuos domésticos ha terminado por acotar el concepto de yacimiento a espacios delimitados y caracterizados por una densidad significativa de este tipo de evidencias. Sin embargo, las intervenciones extensivas realizadas en ocupaciones campesinas como Zaballa han permitido reconocer los espacios de producción agrarios e integrar en el estudio de los despoblados los espacios habitados y los espacios explotados. Sin poder abordar en esta ocasión todas las consecuencias que se derivan de esta reformulación teórica, lo que resulta evidente es que por un lado se ha diluido la noción misma de yacimiento a favor de un concepto más integral de paisaje. En segundo lugar, se plantea un problema de orden práctico mucho más relevante en términos patrimoniales: ¿dónde se acaban los yacimientos? o ¿hay en realidad muchos yacimientos o el paisaje debe ser tratado de forma integral? En tercer lugar, el hallazgo y el reconocimiento de campos y espacios de cultivo medievales que han escapado de los intensos procesos de concentración parcelaria reciente obligan a integrar estas entidades patrimoniales en los inventarios arqueológicos. En cuarto lugar, se ha podido identificar la existencia de bancales y terrazas medievales cultivadas de forma intensiva y ubicadas en proximidad de las viviendas en varios yacimientos[9]. La frecuencia de estos hallazgos ha llevado a considerar que podrían tener un carácter diagnóstico a la hora de definir con mayor precisión la ubicación y la delimitación de los despoblados medievales alaveses. En definitiva, una vez que se ha verificado de forma fehaciente que las estructuras altomedievales de los despoblados son prácticamente invisibles en superficie[10], se ha recurrido a la arqueología agraria como instrumento básico para comprender en términos sistémicos la estructura de estos despoblados.

Una vez definido el marco teórico de acción se creyó oportuno recurrir a nuevas técnicas de teledetección de los espacios cultivados y los sistemas aterrazados de cultivo intensivo situados en los despoblados con el fin de analizar planimétricamente su ubicación y distribución. Para ello se han utilizado a nivel experimental los datos LIiDAR (*Light Detection and Ranging*) del vuelo realizado por el Gobierno Vasco en los territorios de Álava y de Bizkaia durante el año 2008. Dicha tecnología, basada en la teledetección por rayos Laser, permite la elaboración de modelos digitales del terreno (MDT) de muy alta calidad, con resoluciones de aproxi-

[9] J. A. Quirós, 2009, «Arqueología de los espacios agrarios medievales en el País Vasco», *Hispania* 233, pp. 619-652.

[10] J. A. Quirós, 2011, «¿Por qué excavar en grandes extensiones? Arqueología de los despoblados alaveses y el estudio de la aldea de Zornoztegi (Salvatierra)», en *Agurain 1256-2006. Congreso 750 aniversario de la fundación de la villa de Salvatierra*, Vitoria-Gasteiz, pp. 379-402.

1m-ko pixelen erresoluzioarekin eta 20 zentimetroko altuera aldeekin. Gainera, datu hauek egokiro baheturik eta kontuan izanik erresoluzioa bi puntukoa dela metro karratuko, lurrazalaren morfologia aztertu ahal izan da baita gisa honetako egituren identifikazioa zailtzen duten landare geruza trinkoak edo ikusgarritasun eskasa nagusi diren tokietan. SIG plataformetan eredu digital hauek erabilita aztarnategi garrantzitsu batzuen kartografia zehatza osatu ahal izan dugu, eta aldi berean, beste erregistro batzuk, esate baterako lursail zatikatzeak burura eraman aurreko ortoargazkiak, 1957koak ('Hegaldi amerikarra'), modu kritiko batez aztertzera eraman gaituzte aipatu eredu digitalek.

Azkenik, tresna teoriko eta metodologiko hauetatik abiaturik, gainazalaren miaketa 'ez konbentzionala' eraman genuen burura. Horretarako nazioarteko lan talde baten laguntza izan genuen, taldea osatzen zuten ikerlariek eskarmentu handia baitzuten ikusgarritasun arazoak planteatzen zituzten beste espazio europar batzuetan, eta Arabako sektorean aurkitutakoetan ere antzeko arazoak planteatzen zirelako. Hiru lanaldi hauetan egituratu zen lan prozesua: a. Diagnostikoa egiteko aldia (kartografia biltzea, LiDAR datuen tratamendua eta argazkien aurreko interpretazioa); b. Landa-lanak (ahozko iturriak, gainazala bertatik bertara miatu, GPS bidez zehaztu, gainazaleko materialak bildu); c. Informazioa osatu eta aztertu (SUG garapena, zerrendako fitxen biltzea). Aurrez bereiziriko miaketa izanik, oso txikia izan da zerrendara bildutako aztarnategien kopurua; izan ere, dagoeneko ezagunak diren herri hustuak xehetasun osoz aztertzeko ahaleginak egin ditugu oraingoan.

Esku-hartze arkeologikoaren emaitzak

Guztira ehun eta hirurogeita hamabi herri hustu aztertu eta miatu dira Arabako kuadrilla guztietan (Añanako Kuadrilla 33, Aiarako Kuadrilla 9, Arabako mendialdeko Kuadrilla 21, Arabako Errioxako Kuadrilla 25, Aguraingo Kuadrilla39, Gasteizko Kuadrilla 17, Zuiako Kuadrilla 18). Aztarnategi hauetatik gehienak Arabako Lautadan, bereziki ekialdean, eta Añanako Kuadrillan daude. Dentsitate handiago hori, sektore hauei buruzko iturri idatziak oparoagoak izanik, herri kopuru handiago bat identifikatzeko aukera izan delako gerta daiteke, edo prozesu historikoen beren ondorioa izan daiteke. Aitzitik, askoz ere herri hustu gutxiago identifikatu eta aztertu dira Kantauri aldean. Eta hauei buruzko Erdi Aroko dokumentazioa urriagoa bada ere, lurralde honek segur asko isla txikiegia duela esan behar dugu. Beste horrenbeste iradoki liteke Arabako Errioxari bagagozkio, gure garaiko laborantza lanek zeharo baldintzatu baitute materialaren erregistroaren ikusgarritasuna.

Ondarearen ikuspuntutik proiektu honek aukera eman du gisa honetako aztarnategi arkeologikoen erregistroa nabarmen hobetzeko. Berriro ere mugatu dira aztertutako aztarnategi ia guztiak, berriro ere zehaztu da aztarnategi kopuru garrantzitsu baten kokalekua, eta gainditu egin dira Arabako herri hustuen zerrenda arkeologikoan zeuden zehaztasun eza batzuk. Eta proiektuaren ahalegin handiena dagoeneko zerrendaratuta dauden herri hustuen miaketa orokorrerantz bideratu

madamente 1m de píxel y diferencias de altura de 20 centímetros. Además, mediante el adecuado filtrado de estos datos y teniendo en cuenta que su resolución es de dos puntos por metros cuadrados, ha sido posible analizar la morfología de la superficie terrestre, incluso allí donde las cubiertas vegetales o la escasa visibilidad dificultaban la identificación de este tipo de estructuras. El empleo de estos modelos digitales en plataformas SIG ha permitido, además, construir cartografías de detalle de algunos de los principales yacimientos y utilizar críticamente otros registros, como es el caso de las ortofotos del año 1957 (el 'Vuelo americano') realizadas antes de la concentración de la red parcelaria.

Por último, se ha llevado a cabo una prospección de superficie 'no convencional' a partir de estos instrumentos teóricos y metodológicos. Para ello se ha contado con un equipo de trabajo internacional formado por investigadores que han trabajado en otros espacios europeos que presentan problemas de visibilidad similares a los hallados en el sector alavés. El proceso de trabajo se ha articulado en las siguientes tres etapas de trabajo: a. Fase de diagnóstico (recopilación cartográfica, tratamiento datos LiDAR y fotointerpretación); b. Trabajo de campo (fuentes orales, reconocimiento superficie, delimitación GPS, recogida de material de superficie); c. Elaboración y tratamiento de la información (desarrollo SIG, compilación fichas de inventario). Al tratarse de una prospección selectiva y orientada, el número de nuevos yacimientos incluidos en el inventario ha sido muy reducido, mientras que el principal esfuerzo se ha puesto en el estudio de detalle de los despoblados ya conocidos.

Los resultados de la intervención arqueológica

Se han analizado y revisado un total de ciento sesenta y dos despoblados distribuidos por todas las cuadrillas alavesas (Cuadrilla de Añana 33, Cuadrilla de Ayala 9, Cuadrilla Montaña alavesa 21, Cuadrilla Rioja Alavesa 25, Cuadrilla de Salvatierra 39, Cuadrilla de Vitoria-Gasteiz 17, Cuadrilla de Zuya 18). En términos espaciales, la mayor parte de los yacimientos se localizan en la Llanada Alavesa, y en particular en el sector oriental, y en la Cuadrilla de Añana. Esta mayor densidad puede atribuirse tanto a la densidad de la documentación escrita relativa a estos sectores, que ha permitido identificar un mayor número de localidades, como a los propios procesos históricos. En cambio, en el sector cantábrico es donde se han detectado y estudiado un menor número de despoblados. Y aunque la documentación medieval relativa es más parca, este territorio probablemente está infrarepresentado. Lo mismo podría sugerirse para el caso de la Rioja alavesa, en donde la visibilidad del registro material está muy comprometida por las tareas agrarias recientes.

En términos patrimoniales el proyecto ha permitido mejorar sustancialmente el registro de este tipo de yacimientos arqueológicos. Se han redelimitado la casi totalidad de los yacimientos analizados, se ha reubicado un número muy importante de ellos y se han logrado resolver algunas inexactitudes existentes en el inventario arqueológico de los despoblados de Álava. Y aunque el esfuerzo principal del proyecto se ha orientado hacia la revisión completa de los despoblados ya



Proiektu honetan aztertutako Arabako Erdi Aroko herri hustuen planimetria.

Planimetría de los despoblados medievales alaveses que han sido analizados en este proyecto.

bada ere, zerrenda arkeologikora bildu diren beste aztarnategi batzuk aurkitu ditugula esan behar dugu.

Era berean proiektu honi esker egiaztatu ahal izan dugu aztertutako herri hustuen %70-80tan kontserbatu egiten direla ustez Erdi Aroan kokatu behar diren taulenak, terrazak eta laborantza lanetarako espazioak. Eta esku-hartze sakonik gabe egitura hauen kronologia zehazterik ez badago ere[11], egiturok paisaien artifizialtze maila handiaren erakusgarri direla esan behar dugu, geuk egiaztatu ahal izan dugunez jarduera horiek biziki eta sistematikoki garatu baitzuten hain zuzen ere herri hustuak dauden aldeetan. Herri hustu asko zoru txiroetan daude, lodiera eskaseko lurretan, XX. mendean zehar lursail zatikatzeen ondorioz sortutako laborantza sistemetara soilik partzialki bilduak izan direnetan, eta beraz, kontserbatu egin dira etxebizitzetatik gertu zeuden eta modu biziagoan landuak izan ziren espazioak. Hala eta guztiz ere saihestu egin beharko litzateke gisa honetako aztarna materialen izaera erabakigarria, ez baitira Erdi Aroaz geroztik gure garaira arte modu egonkorrean mantendutako elementu fosilduak. Aistrako kasuan, esate baterako, argi eta garbi ikusi ahal izan da nola Goi Erdi Aroan eraikitako terraza sistema aldatua eta handitua izan zen Erdi Aro osteko garaietan. Eta laborantzarako espazioaren eta haren egitura nagusiaren diseinua gerora abandonatutako Erdi Aroko herrixka bizirik egon zen ga-

[11] Induskatu eta Erdi Aroan datatu dira Zaballa, Zornoztegi, Aistra, Trebiñu, Bagoeta eta La Dehesilla aztarnategietako taulen eta terraza sistema batzuk. Ikus, esate baterako, J. A. Quiros, 2010, De la Arqueología Agraria a la Arqueología de las aldeas medievales, H. Kirchner (ed), *Por una arqueología agraria. Perspectivas de investigación sobre espacios de cultivo en las sociedades medievales hispánicas*, Oxford, 11-23. orr.

inventariados, se han hallado nuevos yacimientos que han sido incluidos en el inventario arqueológico.

Otra de las principales aportaciones de este proyecto ha sido constatar que en un 70-80 % de los despoblados analizados se conservan bancales, terrazas y espacios de cultivo que presuntamente pueden atribuirse a cronologías medievales. Y aunque en ausencia de intervenciones intensivas no es posible establecer una cronología precisa de estas estructuras[11], son indicadores de un alto grado de artificialización de los paisajes que, según se ha podido constatar, se han desarrollado con intensidad y de forma sistemática precisamente allí donde se localizan los despoblados. Muchos despoblados se ubican en suelos pobres, de escasa potencia que no han sido integrados más que parcialmente en los sistemas de cultivo creados a lo largo del siglo XX como resultado de la concentración parcelaria, de tal forma que los espacios cultivados de forma más intensiva situados en proximidad de las viviendas se han mantenido. Sin embargo debería de evitarse la cosificación de este tipo de evidencias materiales puesto que no son elementos fosilizados que se hayan mantenido de forma estable desde la Edad Media hasta nuestros días. Por ejemplo, en el caso de Aistra se ha podido observar que el sistema de terrazas construido en la Alta Edad Media ha sido modificado y ampliado en el período postmedieval. Y aunque el diseño del espacio de cultivo y su estructura principal sí se puede atribuir al período en que estuvo en uso el poblado medieval luego abandonado,

[11] Se han excavado y fechado en época medieval varios sistemas de bancales y terrazas en los yacimientos de Zaballa, Zornoztegi, Aistra, Treviño, Bagoeta o La Dehesilla. Ver p. e. J. A. Quiros, 2010, De la Arqueología Agraria a la Arqueología de las aldeas medievales, en H. Kirchner (ed), *Por una arqueología agraria. Perspectivas de investigación sobre espacios de cultivo en las sociedades medievales hispánicas*, Oxford, pp. 11-23.

raikoa izan daitekeen arren, haren iraupen luzeko esparruan aztertu eta interpretatu behar da.

Historiaren ikuspuntutik ere oso garrantzitsuak izan dira proiektu honetan lortutako emaitzak. Eta indusketa sakonik gabe kontu jakin batzuk ezin argitu baditzakegu ere, etorkizuneko lana bideratzeko moduko iradokizun eta arrasto asko dauzkagu.

Datu interesgarrienetako bat da mendebaldeko haranetako neurri handiko aztarnategi motaren presentzia. Hauek, Arabako beste alde batzuetan ez bezala, ustezko barruti harresitu batez hornituta zeuden (esate baterako, Carastakoa eta Dulantokoa). Eta induskatu gabe eraikin hauen –LiDAR datuetan eta gainazalean ezagutuak– kronologia eta ezaugarriak zehazterik ez baditugu ere, gainazalean egindako miaketa lanetatik abiatuta Erdi Aroan koka daitezkeela esan behar dugu. Gisa honetako aztarnategiak, gazteluak eta gazteluei lotutako herrixkak gizartearen konplexutasunaren eta oso artikulatuta egongo zen lurralde egituraren adierazle direnaren hipotesitik abiatzen baldin bagara, oso interesgarria da gehiengehienak Goi Erdi Aroan Lantarongo konderria eta Valpuestako eliz barrutia biltzen zituen sektorera biltzen direla esatea. Nolanahi ere den, azterketa xeheak egin beharko dira aztarnategi hauetan aipatu iradokizunen baliotasuna egiaztatzeko.

Proiektu honetan egiaztatu ahal izan dugun beste datu interesgarria da herri hustuen hedadura, ezaugarri eta tamainaren inguruan gertatzen diren aldeak, zein eskualdetan dauden. Eskuarki gehiago dira neurri txiki (<15 Ha) eta ertaineko (15-40 Ha) herri hustuak, eta handiagoak (> 40 Ha) batez ere mendebaldeko haranetan eta, hein apalagoan, Arabako Mendialdean biltzen dira. Lautadan, Zuian eta Aiaran oso gutxi dira gazteluak eta gazteluei lotutako herrixkak, baina gehiago dira Mendebaldeko Haranetan, Arabako Errioxan eta Arabako Mendialdean. Azken datu hau oso aintzat hartzekoa da Trebiñuko Konderrian, Trebiñu eta Argantzungo gazteluetan, berriki dokumentatutako *incastellamento* ereduaren hedadura baloratzeko garaian.

Bestalde, merezi du herri hustuen dentsitatearen eta herriak husteko prozesuen aurreko gogoeta egitea. Oso deigarria da gisa honetako aztarnen kontzentrazioa ekialdeko Lautadan eta erregek fundatutako hiribilduen inguruan. Urte hauetan herri hustuetan burura eramandako esku-hartze arkeologikoei esker badakigu iraganeko azalpenetan baliatutako argudioek funtsik ez dutela eta herriak husteko prozesuak eta arrazoiak askotarikoak eta konplexuak direla. Halatan, Aguraingo Hiriaren fundazioarekin lotu daiteke Zornoztegiko herrixkaren abandonatzea, nahiz eta Behe Erdi Aroko azken mendeetan puntualki berriro okupatu zuten; Zaballako kasuan jada XIII. mendean berregituratu zuten herrixka osorik, baina XV. mendearen erdialdera abandonatu zuten, nahiz eta berpizkunde garaian berriro ere partzialki okupatu zuten; aitzitik, Aistra askoz ere lehenago abandonatu zutela ematen du. Finean ugari dira Erdi Aroan Arabako landa izaerako paisaia moldatzera eraman duten arrazoiak. Ondo-

su análisis e interpretación ha de realizarse en el marco de la larga duración.

En términos históricos los resultados obtenidos en este proyecto han sido igualmente muy importantes. Y aunque en ausencia de excavaciones intensivas no es posible realizar determinado tipo de inferencias, disponemos de numerosas sugerencias e indicios a partir de los cuáles poder orientar el trabajo en el futuro.

Uno de los datos más interesantes que se ha observado es la existencia en los valles occidentales de un tipo de yacimiento de grandes dimensiones dotado de presuntos recintos amurallados (como p. ej. Carasta o Dulanto) no existentes en otros sectores alaveses. Y aunque en ausencia de excavaciones no podemos aún establecer la cronología ni las características de estas construcciones –reconocibles tanto en los datos LiDAR como en superficie– a partir de las prospecciones en superficie se puede sugerir que podrían ser atribuidos al período medieval. Si partimos de la hipótesis de que este tipo de yacimientos, los castillos y los pueblos asociados a castillos pueden ser considerados como indicadores de complejidad social y de una estructura territorial muy articulada, resulta de interés señalar que su mayor concentración se sitúa en el sector en el que se ubicaba en la Alta Edad Media el condado de Lantarón y el obispado de Valpuesta. No obstante, será preciso llevar a cabo estudios detallados sobre estos yacimientos para verificar la validez de estas sugerencias.

Otro dato de interés que se ha podido verificar a lo largo de este proyecto es el de la existencia de importantes diferencias subregionales en lo que se refiere a la extensión, características y dimensiones de los despoblados. En general son más numerosos los despoblados de pequeñas (<15 Ha) y medianas dimensiones (15-40 Ha) mientras que los despoblados de mayores dimensiones (> 40 Ha) se localizan sustancialmente en los valles occidentales y en menor proporción en la Montaña Alavesa. Los castillos y aldeas asociadas a castillos son muy escasos en la Llanada, Zuia y Ayala, mientras que su incidencia es más notable en los Valles occidentales, la Rioja Alavesa y la Montaña Alavesa. Este último dato es de gran interés a la hora de valorar la extensión del modelo de *incastellamento* que ha sido documentado recientemente en el Condado de Treviño en los castillos de Treviño y Arganzón.

Otro aspecto sobre el que merece la pena reflexionar es el relativo a la densidad de los despoblados y a los procesos de despoblación. Es muy llamativa la concentración de este tipo de evidencias en la Llanada oriental y en proximidad de villas de fundación real. Sabemos, gracias a las intervenciones arqueológicas que se han ido realizando en los despoblados a lo largo de estos años que, frente a las explicaciones manejadas en el pasado, los procesos y las causas de los abandonos son muy variadas y complejas. Así por ejemplo el abandono de Zornoztegi se puede relacionar con la fundación de la villa de Salvatierra, aunque mantuvo una ocupación puntual en los últimos siglos de la Baja Edad Media; en el caso de Zaballa la aldea fue profundamente redimensionada ya en el siglo XIII, pero el abandono efectivo solamente tuvo lugar a mediados del siglo XV, aunque se reocupó parcialmente en la época renacentista; en Aistra, en cambio, parece que el abandono fue mucho más precoz. En definitiva, hay una multiplicidad de causas que han contribuido a mo-



Erdi Aroko Aima (Urizaharra) herri hustuko laborantzarako espazioaren interpretazioa, LiDAR 3D oinarri hartuta.

Interpretación del espacio agrario medieval del despoblado de Aima (Peñacerrada) sobre base LiDAR 3D.

rioz, herri hustu asko gertatu dira, eta hauek landa eremuko gizarteak arkeologikoki aztertzeko laborategirik onenetakoak direla esan behar dugu.

Konklusioak

Azken urteetan Arabako herri hustu batzuetan burura eramaten ari diren esku-hartze arkeologikoak informazio oso garrantzitsua eskaintzen ari dira Erdi Aroan herri eta herrixka hauetan gertatutako aldaketen inguruan, eta agerian uzten ari dira eraldatze prozesuak oso bestelakoak izan direla herri batzuetatik besteetara. Bestela esanda, herri hustuen kontzeptuak historiaren ikuspuntutik oso bestelakoak diren errealitateak biltzen ditu, nahiz eta errealitateok erronka oso antzekoak planteatzen dituzten ondarearen eta arkeologiaren babesaren ikuspuntitik. Zerrendara jasotako aztarnategien kopurua oso handia bada ere, ia berrehun baitira, ez dira gutxi azken urtetako obren eraginez kalte larriak jasan eta erabat suntsituak izan direnak. Hala eta guztiz ere, intentsitate apalekoak izan arren, urtetik urtera errepikatzen diren laborantza lanak izan dira eta dira gisa honetako aztarnategietako depositu arkeologikoen kontserbazioa arriskuan jartzen dutenak. Aztertu ditugun ia leku guztietan egiaztatu dugu nola jatorrizko kotak arian-arian beheratuak izan diren laborantza lanen ondorioz. Beraz, oso litekeena da aztarnategi hauen ikusgarritasuna urte gutxi batzuen buruan oso aldatu izana.

Proiektu arkeologiko honek ez ditu aintzat hartu herri hustu guztiak, bai ordea ezagutzen diren aztarnategi guztiak. Kontuan eduki behar da testuetan aipatu eta López de Guereñuk bildutako herri asko eta asko ezin izan direla fisikoki aurkitu. Herri edo herrixka horietatik asko 'Reja de San Millàn' dokumentuan aipatzen dira, baita dokumentu zaharragoetan ere, baina gero ez dira iturri idatzietan aipatzen, ez dute izenaren arrastorik utzi, eta oso zailak dira aurkitzen. Baina horrek ez du esan nahi ezinezkoa denik. Adibide bat jarriko dugu.

delar el paisaje rural alavés en la Edad Media, uno de cuyos resultados más inmediatos ha sido la formación de un gran número de despoblados que siguen siendo uno de los mejores laboratorios para explorar arqueológicamente las sociedades rurales.

Conclusiones

Las excavaciones arqueológicas que se están realizando en los últimos años en varios despoblados alaveses están proporcionando informaciones muy relevantes sobre las transformaciones que han tenido lugar en estos pueblos y aldeas en la Edad Media, mostrando procesos muy distintos entre sí. Dicho de otra forma, el concepto de despoblado agrupa realidades muy heterogéneas en términos históricos aunque siguen planteando retos muy similares en términos patrimoniales y de protección arqueológica. Aunque el número de yacimientos recogido en el inventario es muy amplio, puesto que se acerca a los dos centenares, son varios los despoblados que han sido afectados de forma severa por distintos tipos de obras en los últimos años de manera que han sido completamente destruidos. No obstante, han sido y son las tareas agrarias intensivas las que comprometen la conservación de los depósitos arqueológicos de este tipo de yacimientos mediante procesos de baja intensidad pero que se repiten año a año. En la práctica totalidad de los lugares en los que se ha intervenido se ha constatado que las cotas originales han sido progresivamente rebajadas por estas prácticas agrarias, de tal forma que es posible que en pocos años la visibilidad de estos yacimientos se haya modificado profundamente.

Este proyecto arqueológico no ha tomado en consideración todos y cada uno de los despoblados pero sí la casi totalidad de los yacimientos conocidos. Hay que tener en cuenta que hay toda una serie de localidades mencionadas en los textos y recogidas por G. López de Guereñu que no se han podido localizar físicamente. Muchas de estas localidades son lugares que se mencionan en la «Reja de San Millán» e incluso en documentos más antiguos y que no vuelven a citarse en la documentación ni han dejado huella toponímica, por lo que su localización es muy compleja. Pero ello no quiere decir que su localización sea imposible. Pongamos un ejemplo.

Zaballan (Iruña Oka) egin dugun azterketaren esparruan egiaztatu dugu nola, 'Reja de san Millán' dokumentuaren arabera, Subilla eta Billoda herrien artean *Elheni uilla*, Luperho eta Zaballa izeneko lekuak zeuden[12]. Zaballa eta Lupierro (nahiz eta kasu honetan hura zehatz mugatzeko arazoak dauden) arazorik gabe aurkitu bagenituen ere, López de Guereñuk ezin ezagutu edo aurkitu daitekeen herri hustuen artean kokatzen du *Elheni uilla*, leku-izenen memoria betikoz galdua baitzegoen. Real Chancilleríaren artxiboan kontserbatzen diren Zaballako lekuari buruzko XVI. mendeko auzi batzuetan Ynyvilla edo Ynybilla edo Nibillako gune hezeak aipatzen dira harren barrutia mugatzen zuten zedarrien artean. Itxura batean ez dago zalantzarik leku-izen honek bat egiten duela 1025eko dokumentuan aipatzen den *Elehni uilla*rekin. Hala eta guztiz ere, egun ezinezkoa da leku-izen hori topografikoki kokatzea, ez dago horretarako bidea emango lukeen ahozko memoriarik, baina aipatu auzietan aipatzen diren zedarrien banaketak aukera ematen du padura hauek Zadorra ibaitik gertu, Zaballako herriaren ipar-mendebaldeko muturrean, egongo zirela pentsatzeko. Egun Alto de Paulejas eta Barranco Paulejas leku-izenak kontserbatzen dira Instituto Geográfico Nacional erakundean eta Arabako Katastroan, Zadorra ibaiak marrazten duen meandro batetik gertu, Zaballa herriaren ipar-mendebaldean. Gainera, Alto de Paulejastik gertu dago Sanzorni edo Sanzornil izeneko lekua, non Erdi Aroko zeramika aurkitu den eta itxura guztien arabera Erdi Aroko hilerria izan den. Aztarna hauek guztiak kontuan izanik, baliteke bertan egokitu izana *Elehni uilla*, eta Sanzorni izeneko eliza eduki izana. Eta halako dokumentu esanguratsuak beti ez dauden arren, berpizkundeko dokumentazio gehiena artean transkribatu eta ikuspuntu honetatik aztertua izan ez den arren, Sanzorniko adibideak baikor izateko arrazoiak ematen dizkigu etorkizunean Erdi Aroko beste herri hustu batzuk identifikatzeko modua eskainiko duten lanei ekiteko garaian.

Txosten hau amaitzeko esan dezagun gure lan taldearen ahaleginak Arabako eremura mugatu direla, eta beste lurralde historikoetako herri hustuei buruzko informazio gutxi dugula[13]. Beraz, egokia litzateke datozen urteetan Kantauri aldean lan egitea, protokoloak eta ikerketa teknikak moldatuz, aztarnategiak babesteko tresnak eta ebaluazio arkeologikoa hobetu ahal izateko.

En el marco del estudio que hemos realizado en Zaballa (Iruña de Oca) se ha podido constatar que, según la «Reja de San Millán», entre las localidades de Subijana y Villodas se localizaban los lugares de *Elheni uilla*, Luperho y Zaballa[12]. Mientras que no hemos tenido ninguna dificultad en localizar Zaballa o Lupierro (aunque también en este caso sigue habiendo dificultades en su delimitación precisa), *Elehni uilla* es uno de los muchos lugares que menciona López de Guereñu como despoblado no reconocible o no localizable porque se ha perdido completamente la memoria toponímica. En varios pleitos del siglo XVI relativos a Zaballa conservados en el archivo de la Real Chancillería, se mencionan entre los mojones que delimitan su término los paúles de Ynyvilla o Ynybilla o el valle de Nibilla. Parece indudable que este topónimo se puede identificar con la *Elehni uilla* mencionada en el año 1025. Sin embargo, en la actualidad no resulta posible ubicar topográficamente este microtopónimo ni hay memoria oral que así lo permita, pero la propia distribución de los mojones mencionados en estos pleitos permite pensar que estos paúles o zonas pantanosas se hallaban en proximidad del río Zadorra, en el límite noroeste del término de Zaballa. En la actualidad sí se conserva el topónimo Alto de Paulejas y Barranco Paulejas en la cartografía del Instituto Geográfico Nacional y en el Catastro de Álava en la zona en proximidad de un meandro del Zadorra y al noroeste de Zaballa. Además, en proximidad de este Alto de Paulejas se encuentra el término de Sanzorni o Sanzornil, en el que se ha recuperado cerámica medieval y lo que parece que ha sido un cementerio medieval. Con todos estos indicios se podría sugerir que en este lugar se pudo localizar la *Elehni uilla* y que tuvo una iglesia titulada Sanzorni. Y aunque no siempre se conservan documentos tan elocuentes y la mayor parte de la documentación renacentista aún no ha sido transcrita y analizada desde esta perspectiva, el ejemplo de Sanzorni nos permite ser optimistas a la hora de poder abordar, en el futuro, nuevos trabajos que permitan identificar otros despoblados medievales.

Por último querríamos concluir estas notas señalando que, aunque de momento el esfuerzo de nuestro grupo de trabajo se ha concentrado únicamente en el área alavesa y que contamos con pocas noticias sobre los despoblados de otros territorios históricos[13], será oportuno trabajar en los próximos años en el sector cantábrico adaptando los protocolos y las técnicas de investigación para poder mejorar los instrumentos de protección y de evaluación arqueológica.

J.A. Quirós Castillo

[12] J. A. Quirós Castillo (dir), 2012, *Arqueología del campesinado medieval. La aldea de Zaballa*, Bilbo.

[13] I. García Camino, 2002, *Arqueología y poblamiento en Bizkaia, siglos VI-XII. La configuración de la sociedad feudal*, Bilbo, 253 or. eta hurrengoak; N. Sarasola, A. Moraza, 2011, *Erdi Aroko Arkeologia Gipuzkoan = Arqueología Medieval en Gipuzkoa*, Donostia, 91. or. eta hurrengoak.

[12] J. A. Quirós Castillo (dir), 2012, *Arqueología del campesinado medieval. La aldea de Zaballa*, Bilbao.

[13] I. García Camino, 2002, *Arqueología y poblamiento en Bizkaia, siglos VI-XII. La configuración de la sociedad feudal*, Bilbao, pp. 253 ss.; N. Sarasola, A. Moraza, 2011, *Erdi Aroko Arkeologia Gipuzkoan = Arqueología Medieval en Gipuzkoa*, San Sebastián, pp. 91 ss.

A. ARABA / ÁLAVA

A.1. ALEGRÍA-DULANTZI

A.1.1. Dulantziko San Martin aztarnategia

Zuzendaritza: Javier Niso Lorenzo
Finantziazioa: Dulantziko Udala; Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila; Arabako Foru Aldundia

A.1.1. Yacimiento de San Martín de Dulantzi

Dirección: Javier Niso Lorenzo
Financiación: Ayuntamiento de Alegria-Dulantzi; Departamento de Cultura del Gobierno Vasco; Diputación Foral de Álava

The results obtained during the archaeological intervention carried out at the San Martín de Dulantzi site enabled the recreation of a long chronological sequence ranging from prehistoric times to the present day. The most interesting remains are those corresponding to the Late Antiquity and Late Medieval periods. The main discoveries consist of a large religious building dating from the second half of the 6th century AD and a cemetery which was in use for many years, and which covers the whole area and overlaps with a large number of both negative and constructed structures. In this cemetery, various graves have been discovered which bear a direct relationship to the religious building and which present unique characteristics, including the presence of utensils and deposits, some of a clearly continental influence.

Dulantziko Udalak Nuestra Señora de Aiala eta San Martin kaleak, biak Hirigune Historikotik kanpora baina Dulantziko herrian bertan, berriro urbanizatzeko hartutako erabakiaren ondorioz, premiazko eskuhartze arkeologiko bat eraman behar izan zen burura San Martin kalearen iparraldea Ustezko Eremu Arkeologikora biltzen delako eta inguruetan Dulantziko San Martin baseliza zaharra dagoelako.

Hasieran zundaketa batzuk egitera eta obren gaineko kontrol lanetara mugatu genituen egiteko arkeologikoak, baina gero, hautemandako hondakinen garrantzia ikusirik, eremua luze-zabalean induskatzen hasi ginen, guztira 800 m² aztertzeko.

Aztarnategi honetako sekuentzia historikoa ezagutaraztea du xede txosten honek, ikerketak bizi duen prozesu honetan behin-betiko emaitzak eskaintzeko moduan baikaude. Besterik gabe, aurkikuntzen aurreko interpretazioa eskainiko dugu, izaera orokorreko testuinguru historikoan sakondu gabe. Dena erraz uler dadin, zortzi aldi historiko bereizi ditugu:

1. aldia. K.a. bigarren milurtekoa

Geruza geologikoan induskatutako egitura sorta bat, oinplano irregularreko eta neurri handiko balizko etxola-hondoak eta haiek amortizatzen dituzten betegarriak, dira lekukotasun aspaldikoenak. Zail da haien datazioa zehaztea, oso urriak baitira berreskuratutako aztarnak. Nolanahi ere den, Brontze Arokoak direla uste dugu guk.

La decisión del Ayuntamiento de Alegría-Dulantzi de reurbanizar las calles de Nuestra Señora de Ayala y de San Martín, ambas fuera del Casco Histórico y dentro del propio barrio de Dulantzi, propició la realización de una intervención arqueológica de urgencia debido a que la zona norte de la calle San Martín estaba declarada Zona de Presunción Arqueológica, por encontrarse en sus cercanías la antigua ermita de San Martín de Dulantzi.

En un primer momento, los trabajos arqueológicos se limitaron a la apertura de sondeos y control de las obras, pero posteriormente y a consecuencia de la importancia de los restos detectados, se pasó a una excavación en área, en la que se ha intervenido un total de 800 m².

El objeto de este artículo es dar a conocer la secuencia histórica del yacimiento, en un momento en el que el proceso de investigación ya permite ofrecer unos resultados definitivos. Únicamente se pretende ofrecer la interpretación de los hallazgos sin entrar en una contextualización histórica de carácter general. Para facilitar su comprensión, se han establecido ocho fases históricas:

Fase 1. Segundo milenio a.C.

Los testimonios más antiguos son una serie de estructuras excavadas en el estrato geológico a modo de posibles fondos de cabaña de planta irregular y de grandes dimensiones y sus rellenos de amortización. Su datación plantea problemas ya que son muy pocas las evidencias recuperadas. No obstante, la cronología más probable es la Edad del Bronce.

2. aldia. K.o. I. - IV. mendeak

Henaioko kastro edo herrixka gotortua nahikoa hurbil dagoela kontuan izanik, benetan harrigarria da hemen Burdin Aroan kokatu beharreko aztarna bakar bat ere dokumentatu ez izana, halako jauzi bat gertatzen baita erromatarren Goi Inperioaren garaira arte. Azken garai honek presentzia nabarmena du aztarnategian, baina gaineko estratigrafiak kaltetuta daude bertako aztarnak, eta batzuk ezin behar bezala aztertu edo irakurri daitezke.

Nolanahi ere den, bi finkamendu bereizi ahal izan dira bertan, lehenengoa induskatutako egituretan (paldoei leku egiteko zuloak eta erretenak) oinarritua, material galkorrekin altxatutako hormekin, eta bigarrena, geroagokoa, kale baten inguruan antolatutako harrizko hormak dituen egiturak osatua. Arabako erromatarren garaiko beste aztarnategi batzuetan azaldutako joerarekin bat eginik, aldaketa garrantzitsu hau K.o. I. mendearen amaieran edo hurrengo mendean gertatuko zen. Aurrez zeuden finkamenduak eraikuntza programa berri batez aldatzeko erabakia hartu zuten orduan. Aztarnategi honetan hirigintza berri honen ezaugarri batzuk bereizi ahal izan ditugu, eraikinak sare moduan baitaude antolatuta. Aurkitutako egitura guztiak elkarrengandik tarte handira dauden arren, denak norabide berari jarraitzen zaizkio (ipar-mendebaldetik hego-ekialdera eta ipar-ekialdetik hego-mendebaldera).

Geroago, K.o. III.-IV. mendeetan, ez dago aztarnategiko eremu honetako hirigintzari jarraipena emango liokeen eraikin egitura garrantzizkorik. Lekukotasun isolatu gutxi batzuk baino ez, esate baterako, putzu bat eta berau amortizatzen duen betegarria, 405. UEa, C14ri esker II.-III. mendean datatua dena (1 σ (%68) K.o. 120-220 eta 2 σ (%89) K.o. 80-240 artean kalibratutako datazioa[14]), eta depositu kopuru ez txikia, seguru asko alde hau berdintzeko erabiliak izan zirenak; azken hauek IV. mendekoak ere izan litezke.

Bukatzeko, ezin aipa gabe utz dezakegu berriro ere erabilitako erromatarren garaiko hilarri multzo esanguratsua. Multzo hau testuingurutik kanpora zegoen, geroagoko aldietan, batez ere antzinaroko eliza handian. Inguruan erromatarren Goi Inperioaren garaiko nekropoli bat behar duela adierazten diguten hilarri hauek.

Hurrengo aldien garapenarekin aurrera egin baino lehen, komenigarria da hausnarketa txiki bat egitea tradizioz *Tullonium mansio*-aren eta ondoko Henaioko kastro edo herrixka gotortuaren oinetan dagoen Angostinako aztarnategiaren arteko parekatzearen inguruan. Dulantzi eta *Tullonium* izenen arteko lotura agerikoa da, bigarrenetik eratorria baita lehenengoa. Horrexegatik, eta auzoko etxandiekiko tartea Ibilbidean zehaztutakoarekin gutxi gorabehera bat zetorrelako, leku honetatik gertuen dagoen aztarnategi erromatarra hartu zen gogoan, hots, Angostina. Hala eta guztiz ere, esku-hartze honetan, sekuentzia historiko luze eta oso konplexuan, erromatarren garaiko aztarna kopuru garrantzitsua dokumentatu dugu, aurreko planteamenduak eraldatzen dituena eta *Tullonium* Du-

[14] C14 bidezko azterketa analitikoak CSICen «Rocasolano» Kimika eta Fisika Institutuko Geokronologia laborategian eta Uppsalako Unibertsitateko (Suedia) laborategian eginak dira. Bereziki Antonio Rubinos Perezi eman nahi dizkiogu eskerrak, eman digun laguntza guztiagatik.

Fase 2. Siglo I d.C. - IV d.C.

Sorprendentemente, sobre todo si se tiene en cuenta la relativa cercanía con el castro de Henayo, no se ha documentado ningún resto adscribible a la Edad del Hierro, sino que existe una salto hasta la etapa romana altoimperial. Este periodo tiene bastante presencia en el yacimiento, si bien sus testimonios están muy afectados por la estratigrafía superior, en algunos casos impidiendo establecer una lectura muy nítida de ellos.

De todos modos, se ha podido detectar un primer poblamiento basado en estructuras excavadas (agujeros de poste y rozas) de carácter rupestre y levantes en materiales perecederos y uno posterior con estructuras murarías pétreas en torno a una calle. Siguiendo con la tónica ya vista en otros yacimientos romanos alaveses, este importante cambio parece darse en los últimos años del siglo I d.C. o ya en la siguiente centuria. En este momento, se decide modificar el poblamiento precedente con un nuevo programa edilicio. En este yacimiento, se ha podido ver alguna de las características de este nuevo urbanismo como es su disposición en retícula. Todas las estructuras localizadas, aunque se encuentren a mucha distancia entre ellas, siguen una orientación exacta (noroeste-sureste y noreste-suroeste).

En momentos más avanzados, siglo III-IV d.C., se observa una falta de estructuras edilicias de entidad que manifiesten la continuidad en el urbanismo de esta área del yacimiento. Únicamente se detectan algunos testimonios aislados como un pozo cuyo relleno de amortización, U.E.405, se ha fechado gracias al C14 en el siglo II-III (datación calibrada a 1 σ (68%) 120-220 d.C. y a 2 σ (89%) 80-240 d.C.[14]), así como un significativo número de depósitos, posiblemente para nivelar la zona, que pueden llegar hasta el siglo IV.

Finalmente, merece la pena destacar la aparición, aunque de forma descontextualizada en fases posteriores, sobre todo en la gran iglesia tardoantigua, de un significativo conjunto de estelas funerarias romanas reutilizadas. Su mera aparición está indicando la presencia de una necrópolis altoimperial en las cercanías.

Antes de proseguir con el desarrollo de las siguientes fases, conviene realizar una breve reflexión sobre la equiparación que tradicionalmente se ha dado a la *mansio* de *Tullonium* con el cercano yacimiento de Angostina a los pies del castro de Henayo. La vinculación toponímica entre los nombres de Dulantzi y *Tullonium*, siendo el primero una derivación lógica del segundo, era evidente. Por ello y porque la distancia con las *mansiones* vecinas cuadraba más o menos con la establecida en el Itinerario, se pensó en el yacimiento romano más cercano a esta localidad, que, hasta el momento, no era otro que el de Angostina. Sin embargo, en esta intervención dentro de una secuencia histórica muy dilatada y de gran complejidad se ha documentado un significativo número de

[14] Las analíticas de C14 han sido realizadas en el laboratorio de Geocronología del Instituto de Química Física «Rocasolano» del CSIC y en el laboratorio de la Universidad de Uppsala (Suecia). Especialmente queremos agradecer a Antonio Rubinos Perez toda la ayuda prestada.



2., 3. eta 4. aldiko planoak (Iterbide S.C.).

Planos de las Fases 2, 3 y 4 (Iterbide S.C.).

lantzirekin berarekin lotzen duena. Gainera, Angostina eta Dulantzi elkarrengandik gertu daudenez, badago hedadura handiagoko aztarnategi bakarra izan daitekeela planteatzea, inguruko beste etxandi batzuen antzera, esate baterako, ondoko Arkaia/*Suestatium* finkamenduaren modura.

3. aldia. K.o. V. mendea - VI. mendearen lehen erdialdea

Erromatarren mundutik antzinaroko mundurako jauzian aipagarria da hondakinen absentzia, agian egitura galkorretan oinarritutako finkamendua izan zelako edo, aurreneko lekukotasunek adierazten duten bezala, espazio honi nekropoliaren erabilera eman ziotelako.

Erromatarren azken garaiko ustezko herrixka aztarnategi osoan zehar han eta hemen induskatutako egitura sortan (etxola-hondoak, paldoei leku egiteko zuloak, erretenak, depositua) antolatzen da. Egitura hauek ez dute harreman estratigrafiko erabakigarririk, eta horrexegatik kokatzen ditugu IV. eta VIII. mende bitartean. Kronologia mugatzeko xedean, egiturak amortizatzen dituzten betegarrietako zeramikazko hondakinak aztertu behar dira. Deigarria da berez antzinarokoa den zeramika lakarraren presentzia eta IV.-VI. mendeetako[15] zera-

[15] José Luís Solaun Bustinza ari da antzinaroko eta Erdi Aroko zeramika aztertzen. Eskerrak ematen dizkiogu eskainitako laguntzagatik.

evidencias de cronología romana, que modifican los planteamientos anteriores y que permiten vincular a *Tullonium* con el propio núcleo de Dulantzi. Además, la cercanía entre el término de Angostina y el de Dulantzi plantea la posibilidad de que se tratase de un único yacimiento con una extensión mayor, similar al de otras mansiones del entorno como pudiera ser la cercana Arcaya/*Suestatium*.

Fase 3. Siglo V d.C. - primera mitad del VI d.C.

El paso entre el mundo romano y tardoantiguo se caracteriza por una singular ausencia de restos, quizás enmendada por un poblamiento basado en estructuras perecederas o por los primeros testimonios del uso de este espacio como necrópolis.

El presumible poblamiento romano tardío se sustenta en una serie de estructuras excavadas (fondos de cabañas, agujeros de poste, rozas, cubetas) repartidas por todo el yacimiento y que carecen de unas relaciones estratigráficas concluyentes, razón por la que sitúan entre los siglos IV y VIII. Para intentar acotar su cronología hay que acudir a los restos cerámicos de sus rellenos de amortización. En ellos, llama la atención la presencia de cerámica grosera típicamente tardoantigua y la ausencia de cerámica fina característica de los siglos IV-VI.[15] Por

[15] El estudio de la cerámica tardoantigua y medieval está siendo realizado por José Luís Solaun Bustinza a quien agradecemos su colaboración.

mika finaren absentzia. Beraz, zentzuzkoagoa da egitura multzo hau data aurreratuago batean kokatzea, erregistratutako hurrengo aldi historikoan kokatzea.

218. zenbakiko ehorzketa C14ren bidez datatuta zehaztu ahal izan da kronologia honetako hilerri txikiaren presentzia (1 σ (%68) K.o. 430-540 eta 2 σ (%95,4) K.o. 410-550). Arku kronologiko zabala da, V. mendean datatu liteke, baina baita VI. mendearen lehen erdian ere. Hala eta guztiz ere, harreman estratigrafikoei dagokienez, induskatutako egitura batek aipatu ehorzketa ebakitzen duela esan behar dugu, eta jakin badakigu egitura hori VI. mendeko antzinaroko eraikin handiaren aurrekoa dela; beraz, guk uste dugu arestian adierazitako datarik aspaldikoenean kokatu behar dela hilerria.

Garai bereko beste ehorzketen gabezia da ehorzketa hau aurreneko hilerriarekin identifikatzeko orduan sortzen den arazo handiena. Bi arrazoik azal lezakete aipatu absentzia.

Lehenengoa, induskatzeko prozesuaren baldintzak berak. Premiazko esku-hartzea izan zenez, irizpide zientifikoek ez baizik eta kaleak berriro ere urbanizatzeko lanek mugatu zituzten ukitutako aldeak. Horrexegatik geratu ziren aztertu gabe aztarnategiaren atal handi batzuk. Horien artean, lehenengo nekropoli honi leku egin ziezaioketenak.

Bigarrena, lehenengo hilerri honen dentsitate apala. Lehenengo arrazoia kontuan izanik, nekropoliaren ondorengo aldi batzuetan, zirkunstantzia berdinetan, handiagoa da berreskuratutako ehorzketa kopurua. C14ren bidezko azterketa analitikoen bidez egiaztatu ahal izan da fenomeno hori. Ezaugarri sorta bati (harreman estratigrafikoak, tipologia, haiek amortizatzen dituzten betegarrietako zeramikazko materiala, kokapena) erreparatuta aspaldikoak ziruditen ehorzketak aztertu ziren C14ren bidez, baina guztiek eskaini dituzte antzinaroko edo Goi Erdi Aroko datak, bakar batek ere ez aurreko datarik.

181. zenbakiko ehorzketa da antzeko kronologia (1 σ (%68) K.o. 380-540 eta 2 σ (%95,4) K.o. 340-540), eskaintzen duen bakarra: antzinaroko eraikineko absideko pribilegiozko hilobiaren barruan aurkitu genuen, bigarren kokalekuan baina. Arku kronologiko zabalaren barruan badira 218. zenbakiko ehorzketarekin bat datozen denbora tarteak, eta beraz, garai berekoak izan litezke, V. mendekoak edo VI. mende hasierakoak. Hala eta guztiz ere, oso berezia izanik, datorren aldi historikoan sakon aztertuko den bezala, hura paralelismorik egiteko ez baliatzea aholkatzen dugu guk.

Hitz gutxitan esateko, otoitz egiteko eraikinaren aurreko gutxienez ehorzketa bat azaldu izanari esker hitz egin dezakegu nekropoli txikiari buruz. Nekropolitik abiatuta eraikiko zuten konplexu handi hau. Hutsaren hurrengoa da nekropoliari buruzko informazioa, ez baitakigu aztarnategian zer leku zehatz hartzen zuen, ez baitakigu haren neurriak zein ziren, norantz hedatzen zen. Haren kronologia ere ez da erabakigarria, erradiokarbonoaren bidezko datazioak arku kronologiko oso zabala eskaintzen baitu (V. mendea edo VI. mendearen lehen erdialdea). Nolanahi ere den, haren presentziak une honetatik aurrera aztarnategian gertatuko ziren lehenengo aldaketa sakonak iradokitzen ditu. Aldaketa hauek lehen adierazitako eraikin erlijioso handiaren eraikuntza ekarriko dute, eta ordura arte bazter

lo tanto, parece más sensato atribuir a este conjunto de estructuras una datación más avanzada, ya dentro de la siguiente fase histórica registrada.

La presencia de un pequeño cementerio de esta cronología está basada en la datación de C14 del enterramiento 218 (a 1 σ (68%) 430-540 d.C. y a 2 σ (95,4%) 410-550 d.C.). Su horquilla cronológica es amplía, pudiéndose datar en el siglo V, pero también en la primera mitad del VI. Sin embargo, sus relaciones estratigráficas, este enterramiento está cortado por una estructura excavada, que a su vez sabemos con seguridad que es anterior al gran edificio tardoantiguo del siglo VI, sugieren la elección de sus intervalos más antiguos.

El mayor problema a la hora de identificar esta inhumación con el primer cementerio es la falta de otras inhumaciones coetáneas. Esta ausencia se pudiera explicar por dos razones.

La primera, las propias circunstancias del proceso de excavación. Al ser una intervención de urgencia, la superficie intervenida venía dada por las zonas afectadas por la obra de reurbanización y no por criterios científicos. Por ello, gran parte del yacimiento se quedó sin intervenir. Entre ellas, áreas en las que pudiera haberse localizado esta necrópolis primigenia.

La segunda, la escasa densidad de ese primer cementerio. Teniendo en cuenta la primera causa, observamos que para otras fases posteriores de la necrópolis con las mismas circunstancias, el número de enterramientos recuperados es mayor. Este fenómeno se ha podido comprobar con las analíticas de C14. Un buen número de ellas se realizaron a enterramientos que por una serie de características (relaciones estratigráficas, tipología, material cerámico de sus rellenos de amortización, localización), parecían bastante antiguos, sin embargo, todos han dado fechas tardoantiguas o altomedievales, nunca anteriores.

El único enterramiento con una cronología similar (a 1 σ (68%) 380-540 d.C. y a 2 σ (95,4%) 340-540 d.C.), es el enterramiento 181, localizado de forma secundaria dentro de la tumba de privilegio del ábside del edificio tardoantiguo. Dentro de su amplia horquilla cronológica, existen varios intervalos comunes con el enterramiento 218, por lo que perfectamente pudieran ser coetáneos y fechados en el siglo V o la primera mitad del VI. Sin embargo, su excepcionalidad, de la que se hablará en profundidad en la siguiente fase histórica, aconseja no usarlo para establecer ningún tipo de paralelismo.

En definitiva, la aparición de, al menos, un enterramiento anterior al edificio de culto permite hablar de una pequeña necrópolis a partir de la cual se puede levantar este gran complejo. La información sobre ella es mínima, ya que se desconoce su situación exacta en el yacimiento, su tamaño, su dispersión, etc. Su cronología tampoco es concluyente, ya que la horquilla cronológica que presenta su datación radiocarbónica es muy amplía (siglo V o primera mitad del siglo VI). En cualquier caso, su presencia está indicando los primeros atisbos de una serie de profundos cambios que se van a dar en el yacimiento a partir de este momento y que desembocarán en la ya comentada construcción del gran edificio religioso y en la cada vez mayor importancia de esta área hasta ahora mar-

izaera zuen alde hau gero eta garrantzi handiagoa edukitzea. Aipatu bazter izaerak azaltzen du aldi hau zehazten zuten hondakinen absentzia. Izan ere, aztarnategian aztertutako azalera osoan ezin hobe ikusten den ezaugarria da lekukotasunen pixkanakako murriztea K.o. I. mendearen amaierako edo II. mendeko goralditik aurrera. *Tullonium mansio*-aren eraldaketari erantzungo dio segur asko fenomeno honek, espazio hau kudeatzeko orduan aldaketa garrantzitsuak izango baitziren.

4. aldia. K.o. VI. mendearen bigarren erdialdea - VII. mendea

Aurreko aldian ez bezala, handia da lodiera arkeologikoa, batez ere eraikin erlijioso handiaren eraikuntzak agerian uzten duen moduan, hari lotutako nekropoliarekin baina baita aztarnategi osoan barrena banatzen diren beste egitura xumeago askorekin batean. Alde honetan kristau izaerako aurreneko hilerri hau egokitu zutenez geroztik gertatutako aldaketen ondorioa da aztarna kopuru handi hau.

Ez gara eraikin erlijioso handiarekin hasiko lekukotasun hauek guztiak errepasatzen, aurreko aldian aipatzen genituen egitura induskatuekin baizik. Azkenean, datatzeko garaian arazoak izan arren, aldi honetan kokatzen genituen, edo ondorengo garaietan. Baina badago xehetasun kronologiko berri bat eskaintzeko aukera ematen duen egituraren bat, harreman estratigrafiko zehatzagoak eskaintzen dituena. Esate baterako, jakin badakigu gutxienez egitura bat nekropoliaren ostekoa dela eta eraikinaren aurrekoa. Izan ere, 218. zenbakiko ehorzketa ebakitzen du, bataiategiaren ekialdeko horma ehorzketa amortizatzen duen betegarriaren gainean egokitzen den bitartean. Beraz, gutxienez bi jarduera antropikoren aztarnak bereiz daitezke gerora eliza eraikiko zuten aldean. Lehenik nekropoli gisa baliatu zuten espazio hau, eta geroago egitura batzuk induskatu zituzten bertan. Erabilera hauen amaierak bat egingo zuen elizaren eraikuntzarekin.

Aztarnategiaren gainerakoan ere tipologia askotako egitura negatiboen kopuru handia dokumentatzen da (paldoei leku egiteko zuloak, deposituak, erretenak, etxola-hondoak). Arrazoiak arrazoi, oso urriak dira haiei buruzko datuak. Hasteko ez dago harreman estratigrafikorik egitura hauen eta hobe ezagutzen diren beste elementu batzuen artean, ez dago multzo biak harremanetan jartzeko elementurik. Bigarrenik, haietatik asko eta asko guztiz txikituta daude, ez dago haien jatorrizko itxura zein zen asmatzerik. Hirugarren arrazoia induskatutako azalera bera da, ez baitu haren banaketa espaziala ezagutzeko modurik eskaintzen. Bukatzeko, haiek amortizatzen dituzten betegarrien arku kronologiko zabala da, VI. mendea eta VII. mendea, beste arrazoia. Honenbestez, aldi honetan aztarnategiaren azalera osoan okupazio garrantzitsua gertatu zela baizik ezin dugu ziurtatu.

Aurrerago helduko diogu berriro ere induskatutako egituren gaiari, baina orain egungo San Martin kalearen ipar-mendebaldean egokitutako otoitz egiteko eraikin handia deskribatuko dugu. Jatorrizko eraikin hartatik hormen zimentarria baizik ez da kontserbatzen atal batzuetan, eta hormako aurreneko ilarak beste ginal. Esta marginalidad explica la ausencia de restos que definía esta fase. De hecho, la paulatina disminución de testimonios, desde el momento de mayor auge a finales del siglo I o en el siglo II d.C., es una característica perfectamente visible en toda la superficie intervenida del yacimiento. Posiblemente este fenómeno responda a la propia transformación de la *mansio* de *Tullonium*, que motivará importantes cambios a la hora de gestionar el espacio.

Fase 4. Segunda mitad del siglo VI d.C. - siglo VII d.C.

Al contrario de lo que ocurre en la fase anterior, se define por su gran potencia arqueológica, fundamentalmente visible en la construcción de un gran edificio religioso, con su necrópolis asociada, pero también en otras muchas estructuras de menor entidad, repartidas por toda la extensión del yacimiento. Este elevado número de evidencias es consecuencia de las transformaciones acontecidas en el yacimiento desde que se ubica en esta zona este primer cementerio de carácter cristiano.

El repaso a todos estos testimonios no se va a comenzar con el gran edificio religioso sino con las estructuras excavadas de las que ya hacíamos referencia en la fase anterior. Finalmente y a pesar de los problemas a la hora de datarlas, las ubicábamos dentro de esta fase o en momentos posteriores. Ahora bien, existe alguna estructura con unas relaciones estratigráficas más definidas que permiten establecer un nuevo matiz cronológico. Por ejemplo, sabemos con seguridad que, al menos una de ellas, es posterior a la necrópolis y anterior al edificio. En concreto, está cortando al enterramiento 218, mientras que el muro este del baptisterio está realizado en su relleno de amortización. Así pues, en la zona donde posteriormente se va a construir la iglesia se puede definir la huella de un mínimo de dos actividades antrópicas. Un primer uso del espacio como necrópolis y otro posterior con estructuras excavadas, cuyo final probablemente coincidiera con su construcción.

En el resto del yacimiento también se documentan un buen número de estructuras negativas de muy variada tipología (agujeros de postes, cubetas, rozas, fondos de cabaña). Los datos sobre ellas son muy escasos por varios motivos. En primer lugar, la falta de relaciones estratigráficas entre estas estructuras y otros elementos mejor conocidos que permitan su interrelación. En segundo, el grado de arrasamiento que han sufrido un buen número de ellas y que impide conocer su aspecto original. En tercero, la propia superficie excavada que impide ver en extensión su distribución espacial. Por último, la importante horquilla cronológica, segunda mitad del siglo VI y siglo VII, en la que se datan sus rellenos de amortización. En consecuencia, sólo se puede atestiguar la importante ocupación de toda la superficie del yacimiento en esta fase.

El tema de las estructuras excavadas se retomará posteriormente, pero ahora queremos centrarnos en la descripción del gran edificio de culto, situado en la esquina noroeste de la actual Calle San Martín. Se trata de una construcción de la que apenas se conserva, en algunos tramos, la cimentación de sus mu-

atal batzuetan; beste atal batzuk betikoz galduak dira ondorengo arpilatze eta suntsitzeen ondorioz. Suntsiketa hori, hein handi batean bederen, gerora espazio hau berriro ere zenduak harri xabalezko hilobietan ehorzteko erabili izanari egozten ahal zaio, batez ere Erdi Aro betean (XII.-XIII. mendetan). Baina ez da ahantzi behar haren parte bat gure garaiko etxebizitzen azpian, batzuk eraiki berriak diren etxebizitzen azpian, dagoela.

Hala eta guztiz ere, basilika itxuraren oinplanoa iradokitzen dute erregistratutako hondakinek. Eraikin hau ekialdetik mendebaldera luzatzen da, eta honako gela hauek bereiz daitezke bertan:

Ekialdera gela bat, zuzena kanpoko aldera eta absidе formakoa barrukora, gutxi gorabehera 16 m²-koa. Haren erdigune geometrikoan eta zoruan sartua sekzio koadroko hilarri erromatar bat (0,35 metroko aldearekin) geratu zen agerian; guk uste dugu aldare gisa berrerabili zutela. Elementu honen eta gelaren iparraldeko hormaren artean pribilegiozko hilobi bat egokitzen da (181. ehorzketa). Hilobi angeluzuzena da (1,80 m ekialdetik mendebaldera eta metro bete iparraldetik hegoaldera, zoruaren mailatik kontatzen hasita metro beteko sakoneran, landu gabeko harrizko paretekin eraikia, hilobiaren alboetako paretak eta oinarria tonu arrosa eta laranjazko oreaz zarpiatuak eta estaliak. Paretaren batek kalitate handiagoko estukatzea izango zuen segur asko, kolore hori, beltz, berde eta gorriko marrazkien bidez apaindutako oinarri zurixka. Kontua da pareta ez dagoela jatorrizko lekuan, hilobiaren oinarriaren gainera erorita baizik. Ondorioz, ez dago non zegoen zehazterik, ez eta zer motibo osatzen zuen jakiterik ere.

Haren barruan, hego-mendebaldean, emakume baten eskeletoa geratu zen agerian, lotura anatomikorik gabe, eta atxikiriko depositurik edo ostilamendurik gabe. Gizakiaren hezurrezko hondakinekin batean orkatz baten burezurraren atal bat azaldu zen, adar bien abiapuntuekin[16]. Horregatik uste dugu pertsonaia garrantzitsua izango zela, leku berezian egokitu baitzuten, jatorrizko hilobitik ekarrita, agian prestigiozko hilobi honetan ohoratua izateko xedean.

Haren datazioa ere guztiz berezia da, C14ren bidez aztertu direnen artean kronologia zaharrena eskaini duen ehorzketa baita. Honatx emaitza: 1 σ (%68,2) K.o. 380-540 eta 2 σ (%95,4) K.o. 340-540. Ikusten denez, zabala da haren arku kronologikoa, IV. mendetik VI. mendera bitarteko tartean datatu baitaiteke, baina inoiz ere ez azken mende horretako bigarren erdialdean. Garrantzitsua da datu hau, aurrerago azalduko dugun bezala VI. mendearen bigarren erdialdetik aurrera hasi baitziren hildakoei eraikinaren barruan lur ematen.

Gela honen mendebaldeko hormak, egituraren ikuspuntutik beste hormen antzekoa denak (kota maila berean partekatzen du zimentarria eta teknika), igarobide baten modura egokitutako gainazala du, 1 x 0,40 metroko lauza bereziki lau eta leunez eratua. Gela honetako zoruak bat egingo zuen sarrera honekin eta, seros, en otros, las primeras hiladas del alzado; mientras que hay zonas que están completamente perdidas, a causa de saqueos y arrasamientos posteriores. En buena parte se puede culpar de esta destrucción a la utilización posterior del espacio para nuevas fases de enterramientos, fundamentalmente los plenomedievales de lajas (siglos XII-XIII), pero tampoco debe olvidarse que parte de él se encuentra bajo viviendas de la moderna Alegría-Dulantzi, alguna de muy reciente construcción.

Aun así, los restos registrados sugieren una planta basilical, con orientación este-oeste, de la que pueden reconocerse las siguientes estancias:

Al este, una sala, recta al exterior y absidiada al interior, con unas dimensiones de unos 16 m². En su centro geométrico, e hincada en el suelo, apareció una estela funeraria romana de sección cuadrada (0,35 m de lado), que consideramos fuera reutilizada como altar. Entre este elemento y el muro norte de la sala se localiza un enterramiento de privilegio en fase (ent.181). Se trata de una tumba rectangular (1,80 m este-oeste y 1 m norte-sur, 1 m de profundidad desde el suelo) construida mediante muros de mampostería, revestidos con un enfoscado de tono rosáceo anaranjado tanto en sus laterales como en su base. Posiblemente, alguna pared tendría un estucado de mayor calidad, con una base blanquecina decorada mediante dibujos en amarillos, negros, verdes y rojos. El problema es que no se ha documentado en posición, sino caída sobre la base de la tumba, por lo que no es posible determinar dónde se localizaba y qué motivo formaba.

En su interior, lateral suroeste, se inhumó el esqueleto de una mujer, sin conexión anatómica, y sin ningún depósito ni ajuar asociado. Tan sólo aparecieron junto a sus restos óseos parte del cráneo con el arranque de ambas astas de un corzo[16]. Lo que induce a considerar que se trata de un personaje importante que, dado que fue situado en un lugar especial, trasladado desde su enterramiento original, quizá para ser honrado en esta tumba de prestigio.

Su datación también es excepcional, siendo el enterramiento que ha ofrecido una cronología más antigua, de aquellos a los que se les ha efectuado analítica de C14. Su resultado es a 1 σ (68,2 %) 380-540 d.C. y a 2 σ (95,4 %) 340-540 d.C. Como se puede ver la horquilla cronológica que presenta es amplía, pudiéndose datar desde el siglo IV al siglo VI, pero nunca pasando a la segunda mitad de esta centuria. Este dato tiene bastante importancia, ya que como se explicará más adelante, los enterramientos inhumados dentro del edificio se datan a partir de la segunda mitad del siglo VI.

El muro occidental de esta estancia, si bien similar al resto en cuanto a su obra, (comparte la técnica y cimienta hasta la misma cota), presenta una superficie acondicionada como paso mediante unas losas especialmente planas y lisas, de 1 x 0,40 m. El suelo de esta sala debería coincidir con este acceso y, po-

[16] Idoia Grau Sologestoa ari da azterketa zooarkeologikoa egiten. Eskerrak ematen dizkiogu eskainitako laguntzagatik.

[16] El estudio zooarqueológico está siendo realizado por Idoia Grau Sologestoa a quien agradecemos su colaboración.



5. Eraikin erlijiosoaren oinplano orokorra antzinaroan, dagozkion ehorzketekin. 1. Abside formako gela, pribilegiozko hilobiarekin. 2. Erdiko areto handia. 3. Abside formako gelaren hegoaldeko gela. 4. Bataiategia (Iterbide S.C. y Enklabe Koop.S.Txikia).

Planta general del edificio religioso en la fase tardoantigua con los enterramientos asociados. 1. Sala absidiada con tumba privilegiada. 2. Gran aula central. 3. Sala al sur de estancia absidiada. 4. Baptisterio (Iterbide S.C. y Enklabe Koop.S.Txikia).

gur asko, aldi honetako hilobietako estalkiak eratzen zituzten lauzekin, baina ez dugu horrelakorik erregistratu.

Gela honi mendebaldetik atxikirik espazio handi bat bereizten da; haren ekialdeko eta hegoaldeko alboak ezagutzen ditugu, beste biak herriko egungo etxeen azpian galtzen baitira. Eta ezin izan dugu gela luze eta handi (10 metroko luzera eta 5 metroko zabalera kontserbatu ditu) honetako zorua erregistratu, baina badago haren kota zein zen hautematea, zuzeneko lotura baitu ekialdeen dagoen gelarekin. Zimentarri gisa zeiharrean egokitutako eta buztinez batutako harri landu gabeak dituen eskailera maila da, harri xabal oso lau eta finez osatutako zoruari leku egiten diona.

Eskailera maila honen hegoaldean, burualdeko hormarekin bat eginik, erdialdeko eta hegoaldeko habeartea bereizteko aurreneko zutarriko zimentarria dokumentatzen da. Ez ditugu beste zutarriak dokumentatu, eta beraz, ez dakigu areto handi honetan non ez eta zenbat ziren ere. Aitzitik, kontserbatu den euskarri bakarra berritu egin zutela hautematen da, segur asko eraikinari egonkortasun handiagoa emateko xedean.

Areto handi honetan hamar hilobi identifikatu ditugu, guztiak ekialdetik mendebaldera egokituak bat izan ezik, azken hau erabat biratua. Hilobiok espazioaren parte handian barreiatzen dira. Hobi soilak dira, zurezko hilkutxei leku egingo zizkietenak, egiturako iltzeak kontserbatu baitira, baita ostilamenduak eta atxikiriko beste depositu batzuk ere. Ahoz gora daude eskeletoak, zangoak beti luze jarrita, besoak batzuetan bularrean gurutzaturik, besteetan aldaken parean eta beste batzuetan luze jarrita.

Areto honen hego-ekialdeko bazterrean ate baten atalasea dokumentatu dugu. Erromatarren garaiko hilarri bat baliatu zuten hori egiteko. Xede horretan pieza honen kanpoko aldeko muturrean erreten aski sakona induskatu zuten, seguru asko bertan atea egokitzeko. Itxura guztien arabera burualdearen ekialdean eta hesiblemente, con las losas de la cubierta del enterramiento en fase, pero no se ha registrado.

Imbricándose con esta sala, en su lado oeste, se localiza un gran espacio del que se conocen sus laterales este y sur, quedando los otros dos debajo de las casas actuales del pueblo. De esta gran estancia alargada (tiene una longitud conservada de unos 10 m y una anchura conservada de 5 m) tampoco se ha podido registrar el suelo, si bien se puede adivinar su cota, ya que existe una relación directa con la sala más oriental. Se trata de un escalón constituido con una cimentación de mampuestos oblicuos trabados con barro, con un suelo de pequeñas lajas muy finas y planas.

Al sur de este escalón y trabado con el muro testero, se documenta la cimentación de la primera pilastra divisoria de la nave central y sur. El resto de pilares no se han detectado, por lo que no es posible conocer su situación y número total en la gran aula. En cambio, sí se ha podido observar una reforma en el único apoyo conservado, posiblemente para darle mayor estabilidad al edificio.

En esta gran aula se han documentado una total de diez enterramientos con orientación este-oeste, a excepción de uno, girado completamente, que se distribuyen por buena parte del espacio. Se trata de tumbas de fosa simple, con ataúdes de madera en los que se conservan los clavos para su armazón, dotadas de ajuares y depósitos asociados. Los esqueletos están colocados en posición decúbito-supino, siempre con las piernas estiradas, y alternando la disposición de sus brazos, en algunos casos cruzados a la altura del pecho, otros a la de las caderas y otros estirados.

En la esquina sureste de este recinto se ha documentado el umbral de una puerta, realizado a partir de una gran lápida funeraria romana. Para ello, en el extremo externo de esta pieza, se abre una roza bastante profunda, previsiblemente, para encajar la puerta. Este vano parece conectar el gran espacio con

goaldean dagoen gela txikiago bat eta espazio handia batzen ditu sarrera honek.

Tamalez, oso datu gutxi dauzkagu konplexu honetako hego-ekialdeko muga eratuko zuen barrutiaren inguruan, ondorengo aldietako hilobiratzeek guztiz nahasita dagoelako eta kaleko egungo zerbitzuetarako erretenek kaltetu dutelako. Horregatik guztiagatik soilik ekialdeko eta mendebaldeko hormak dokumentatu ahal izan dira, ekialdekoak, iparraldetik hegoaldera, burualdekoarekin bat egiten duela, eta mendebaldekoa, areto handiaren hego-ekialdeko bazterretik abiatuta, norabide berean luzatzen dela. Espazio hau hegoaldetik itxiko lukeen horma falta da. Eta ezin izan genuen erabilerarako zorua identifikatu. Gela honetan ere hiru hilobiratze bereizi genituen, arestian deskribatutako hilobien ezaugarri bertsuak dituztenak.

Bukatzeko, konplexuaren hego-mendebaldeko muturrean, habearteko horma partekatuz, oinplano angeluzuzeneko gela bat dago, 4 metro luze eta 3,5 metro zabal, erdian zutarri bat duela. Oso arpilatuta dagoen arren, badago haren morfologia hautematea. Oinplano koadroko egitura da, 1,60 metroko aldearekin eta 0,80 metroko sakonera mailarekin, bertara iristeko eskailera maila sorta batekin. Egitura hau guztia, absideko pribilegiozko hilobia bezalatsu, kolore arrosako zarpiatze batez egongo zen estalita.

Soilik gela honetan dokumentatu ahal izan dugu zorua, harri koskoez eta karez osaturiko gainazala. Era berean, hormako estalduraren hondakinak *in situ* kontserbatu dituen gela bakarra da, halakoak kontserbatu baitira iparraldeko, ekialdeko eta mendebaldeko hormen barruko aldeko aurpegietan.

Laburbilduta, basilika baten itxurako oinplanoa duen eraikin erlijiosoa da, ekialdetik mendebaldera luzatzen dena. Haren absidea, habeartea, bataiategia eta hegoaldera begira dagoen gela bereizi dira.

Landu gabeko harriak eta harri xabalak baliatu zituzten hura eraikitzeko, harriak kareore zurixkaz batuak. Baina eraikineko elementu garrantzitsuenetan aurreko garaietako materialak baliatu zituztela esan behar dugu, batez ere erromatarren garaiko hilarrien hondakinak. Absideko aldarearen euskarria eta areto handiaren eta absidearen hegoaldeko gelaren arteko sarrerako atalasea dira elementu aipagarrienak[17].

Era berean, ex novo egindako piezak izango zituen eraikineko funtsezko atal batzuetan egokitzeko, baina hauek sekula ere ez ditugu jatorrizko lekuetan topatu, baizik eta espazio honen azken erabilera aldiei dagozkien siloak amortizatzeko betegarrietan. Esate baterako, baoetan jartzeko eta lumakelan landutako piezak identifikatu dira, arkuetarako ziri-harriak, batzuk lokarri izaerako motiboekin apainduak, leihoak estaltzeko xareta zatiak, bat grafitoekin, eta zutabe baten ardatz bat. Ondo zehaztutako pieza hauekin batean itxura batean halako funtziorik izango ez zuten baina eraikinaren atala osatuko zuten beste pieza batzuk dokumentatu ditugu. Aipagarriak dira pintura gorriz estalitako lumakelazko zati batzuk, eraikinaren atalen bat pintatuta egongo zela iradokitzen dutenak; agian zarpiatuta egongo ziren landu gabeko harrizko hor-

[17] Egoitz Alfaro Suescun ari da azterketa arkitektonikoa egiten. Eskerrak ematen dizkiogu eskainitako laguntzagatik.

otro de menor tamaño situado al este y al sur de la cabecera.

Desgraciadamente, de este recinto que conformaría el límite sureste del complejo, apenas se tienen datos, por estar totalmente afectado por enterramientos de etapas posteriores y por las zanjas de los servicios actuales de la calle. Por esta razón, sólo se han podido documentar el muro este que, con dirección norte-sur, se imbrica con el de la cabecera y el oeste que, con la misma dirección, arranca desde la esquina sureste de la gran aula, faltando el muro que cerraría este espacio por el sur. Tampoco se ha podido localizar el suelo de uso. En esta estancia también se han documentado tres enterramientos en fase, compartiendo las mismas características que los descritos anteriormente.

Finalmente, en el extremo suroeste del complejo, y compartiendo muro con la nave, se abre una habitación de planta rectangular de 4 m de largo y casi 3,5 m de anchura, con una pila central. Aunque muy saqueada se puede adivinar su morfología. Se trata de una estructura de planta cuadrada de 1,60 m de lado y una profundidad de 0,80 m, con una serie de escalones para su acceso. Toda ella se encontraría revestida con un enfoscado rosáceo similar a la de la tumba de privilegio del ábside.

De este recinto es el único en la que se ha podido documentar su suelo, formado por una superficie de cal y cantos. También es la única estancia en la que se ha conservado *in situ* restos de revestimiento parietal, concretamente en la cara interna de los muros norte, este y oeste.

En resumen, se trata de edificio religioso de planta basilical y orientación este-oeste, de la cual se ha localizado el ábside, la nave, el baptisterio y una sala abierta al sur.

Su técnica constructiva es de mampostería y lajas trabadas con un mortero de argamasa blanquecina, aunque también se observa la reutilización de materiales anteriores, sobre todo restos de estelas funerarias romanas, para elementos destacados del edificio. Los casos más evidentes son el tenante de altar del ábside y el umbral de acceso entre la gran aula y la sala al sur del ábside[17].

También debía tener piezas realizadas *ex novo* para otras partes básicas del edificio, sin embargo, éstas nunca se han encontrado en su posición original, sino en los rellenos de amortización de los silos correspondientes a los últimos momentos de uso de este espacio. Por ejemplo, se han constatado distintas piezas en lumaquela para vanos, dovelas para arcos, algunas decoradas con motivos cordiformes, varios fragmentos de celosías para cubrir ventanas, una de ellas con grafitos y un fuste de columna. Junto a estas piezas bien definidas también se han documentado otras sin una funcionalidad aparente pero que también formarían parte del edificio. Destacan unos fragmentos de lumaquela revestidos con pintura roja que sugieren que alguna parte del edificio estuvo pintada, tal vez la parte de mampostería estuviera enluci-

[17] El estudio arquitectónico está siendo realizado por Egoitz Alfaro Suescun a quien agradecemos su colaboración.

mak, eta pintatuta harlanduzkoak. Lumakelan ere landua, ustezko kapitel bat dugu aipagarri, oso kontserbazio egoera kaskarrean dagoena bera, eta pieza koadro bat, sei aurpegiak landuta dituena eta erdialdean beheragune bat.

Urri dira haren eraikuntza uneari buruzko zuzeneko lekukotasunak. Zaku-teknikaren arabera eginak ziren hormetako zimentarrirako erretenak, eta hauek ez dute hondakin materialik eskaini. Eta eraiki zuten garaiko betegarririk, alde hau berdintzeko baliatuko zuten betegarririk ere ez da. Beraz, erregistro estratigrafikotik etorritako beste datu batzuk bilatu behar dira. Esate baterako, obra honek guztiak erromatarren kronologia aurreratuko betegarriak (III. eta IV. mendeetakoak) ebakitzen ditu. Gainera, egitura batzuk daude depositu hauetan induskatuta, eta haien amortizazioak antzinaroan kokatu behar dira. Egituretako baten gainean bataiategiko horma altxatu zuten, eta beraz, badakigu hau haren ondorengoa dela. Era berean, 218. zenbakiko ehorzketak ebakitzen du zulo hau. C14ren bidezko kronologiak 1 σ (%68,2) K.o. 430-540 eta 2 σ (%95,4) K.o 410-550 bitarteko data eskaintzen badu, eraikina, edo gutxienez bataiategia, aipatu datatik aurrera eraiki zutela esan behar dugu.

Abside aldeko pribilegiozko hilobiak (181. zenbakiko ehorzketa) ere kronologiari buruzko informazio baliotsua eskaintzen du. C14ren bidezko datazioak 1 σ (%68,2) K.o. 380-540 eta 2 σ (%95,4) K.o. 340-540 kronologiak eskaintzen ditu, eta estratigrafiari esker badakigu tenplua eraikitzen amaitu eta berehala eraiki zutela hura. Izan ere, barruti honen iparraldearen eta aldearearen euskarriaren artean egokitu zuten. Honenbestez, hilobi hau eta, beraz, baita gela hau ere, aipatu daten ostean eraiki zituztela esan behar dugu.

Azkenik, eraikinari atxikiriko hainbat hilobiri (190., 197., 198., 204. eta 212. zenbakiko hilobiak) aplikatutako C14ren bidezko azterketa analitikoek eta haietan topatutako ostilamenduek eskainitako informazio kronotipologikoek aukera ematen dute eliza K.o. VI. mende amaierarako eraikita zegoela ziurtatzeko. Edo gauza bera dena, eraikina zutik zegoenean eman zietela lur zendu hauei.

Planteatu litezkeen zalantzak zalantza, eraikin hau egiteko erlijiosoei emana zegoela babesten dugu guk.

Ekialdetik mendebaldera egokituta dago, helburu hau bete behar duen eraikinaren zentzuzko eskemari jarraitzen zaio beraz. Ekialdean dago absidea, eta erdian aldearearen euskarria du. Mendebaldeko muturrean egongo zen sarrera, eta eskailera maila batzuek habeartearekin lotuko zuten. Antza areto handi hau da espazio osoa egituratzen duena, absidearen hegoaldeko gelarekin eta segur asko bataiategiarekin egingo baitzuen bat, nahiz eta azken harreman hau ezin dokumentatu izan dugun ondorengo ebakien ondorioz. Ez dirudi burualdeko gela biak komunikatzen direnik. Kanpoko aldetik ere ez dugu sarrerarik dokumentatu. Zentzuzkoena sarrera habeartearen bidez egingo zela pentsatzea da; sarrera hori agian oinaldean egongo zen, baina ez da kontserbatu.

Konplexuko gelek habeartearen inguruan hartzen duten lekuak eta sarreren kokalekuak espazio bakoitzaren funtzioari buruzko informazio osagarria eman deda y la de sillería pintada. Asimismo y también en lumaquela, un posible capitel en muy mal estado de conservación y una pieza cuadrada con seis caras trabajadas y un rebaje en el centro.

Pocos son los testimonios directos sobre el momento de su construcción. Las zanjas de cimentación de los muros estaban realizadas a saco, sin que hayan dado ningún resto material y tampoco existen rellenos de nivelación claros del momento de su levantamiento. Luego, es necesario buscar otros datos procedentes del registro estratigráfico. Por ejemplo, toda la obra está cortando a rellenos de cronología romana avanzada (siglos III y IV). Además, hay una serie de estructuras excavadas en estos depósitos cuyas amortizaciones se datan en época tardoantigua. Sobre una de ellas se dispuso el muro este del baptisterio, por lo tanto sabemos que es posterior a éste. Asimismo, el enterramiento 218 está cortado por este agujero. Si su cronología de C14 da a 1 σ (68,2 %) 430-540 d.C. y a 2 σ (95,4 %) 410-550 d.C. el edificio, o al menos el baptisterio, se tuvo que construir a partir de esa fecha.

El enterramiento de privilegio del ábside (ent.181) también aporta valiosa información cronológica. Su datación de C14 ha dado como resultado a 1 σ (68,2 %) 380-540 d.C. y a 2 σ (95,4 %) 340-540 d.C. y sabemos, por su estratigrafía, que es inmediatamente posterior a la construcción del edificio. De hecho, se colocó en el espacio existente entre el lateral norte de este recinto y el tenante de altar. Por lo tanto, se puede asegurar que esta tumba y por ende, esta sala se realizó con posterioridad a estas fechas.

Finalmente, las analíticas de C14 efectuadas a varios de los enterramientos asociados al edificio (ent.190, ent.197, ent.198, ent.204, ent. 212), unido a la información cronotipológica que ofrecen sus ajuares, han permitido aventurar, con cierta seguridad, que la iglesia estaba ya en pie a finales del siglo VI d.C. Momento en el que todos los enterramientos se realizan en relación con el edificio, algunos en su interior y otros inmediatamente al exterior. O, lo que es lo mismo, estos individuos se inhuman una vez que el edificio estaba ya en pie.

A pesar de las dudas que puedan plantearse, hemos venido defendiendo la funcionalidad religiosa de este edificio.

Su perfecta orientación este-oeste y su distribución, siguiendo un esquema lógico para un edificio con este propósito. El ábside está ubicado al este y tiene en su centro el tenante de altar. A él se accedería desde su extremo occidental, a través de unos escalones que lo comunican con la nave. Esta gran aula parece ser el centro vertebrador de todo el espacio, ya que también conectaría con la sala al sur del ábside y posiblemente con el baptisterio, si bien esta última relación no se ha podido documentar, a causa de los cortes posteriores. Las dos salas de la cabecera no parecen comunicarse. Tampoco se ha documentado ninguna entrada desde el exterior. Lo más lógico es pensar que también se diera a través de la nave, quizás en la zona de los pies, no conservada.

La disposición de las distintas salas del complejo en torno a la nave y la situación de los accesos pueden dar información adicional sobre la funcionalidad

zakete. Hala eta guztiz ere, gai honetan gehiegi ez sakontzea aholkatzen du hondakinen partzialtasunak. Nolanahi ere den, eraikin honek itxura guztien arabera kronologia honetako edozein tenplu kristauren oinarrizko egiturak edukitzea da garrantzitsuena: absidea aldarearekin, habeartea eta bataiategia.

Honi guzti honi zalantzarik gabe izaera liturgikokoak diren elementuen presentzia gehitu behar zaio. Funtsean absidearen erdigune geografikoan *in situ* aurkitutako aldarearen euskarriaz eta bataiategian dokumentatutako bataiarriaz ari gara.

Eta ezin aipa gabe utz ditzakegu soilik testuinguru erlijiosoetan ez baina batez ere horietan izan ohi diren hondakin arkitektoniko batzuk. Hauen artean aipagarri dira xareta puska batzuk, haietako bat hainbat grafitorekin. Hauek eta berreskuratutako beste eraikuntza hondakin batzuek (zutabeko danborra, baoak irekitzeko harlanduak, arkuetako ziri-harriak, balizko erlaitzak, lumakelan landutako piezak, pintura arrastoak dituztenak eta ustezko kapitela) eraikinaren monumentaltasuna uzten dute agerian, areago garai bereko beste eraikinak zurezkoak zirenean eta, geroago, zurezkoak eta harrizkoak. Eta mugitzen ari garen testuinguruan geuk babesten dugun funtzioari baizik ez dakioke egotzi eraikinaren monumentaltasuna.

Era berean, aipamen berezia merezi du absidean topatutako hilobi monumentalak; bertan utzi zituzten, bigarren egokieran baina, emakume garrantzitsu bati zegozkion hondakinak. Hartzen duen lekuak eta monumentaltasunak eraikinaren barruan zuen garrantzia uzten dute agerian, baina erantzuten zail diren galdera berriak planteatzen ditu, esate baterako, zein zen hilobi honetan utzitako pertsonaia, zer egiteko zuen haren presentziak eraikineko liturgian eta beste batzuk.

Eta bukatzeko, haren barruan hilerri garrantzitsu baten presentzia izatea. Eraikinarekin zuzenean lotuta hamazazpi hilobiratze dokumentatzen dira *in situ* (kopuru horri bigarren egokieran dauden beste sei gehitu behar zaizkio). Hauek ezaugarri jakin batzuk dituzte, aztarnategian dokumentatutako beste hilobietatik bereizten dituztenak. Alde nagusia, zurezko hilkutxen presentzia, burdinazko iltzeekin eta, batez ere, ostilamendu eta deposituekin. Ekialdetik mendebaldera daude egokituta, burua betiere ekialderantz, alderantzizko eskema duen bakarra izan ezik. Hilobi hauei dagokienez, hainbat kontu dira aipagarri.

Hasteko, haien kokalekua. Eraikinari lotuta ageri dira hilobi guztiak. Barruko aldera, hamabi lagun, hamar habeartean eta bi hego-ekialdeko gelan. Bakar bat ere ez dugu dokumentatu absidean nahiz bataiategian. Kanpoko aldera, berriz, bataiategiaren eta hego-ekialdeko gelaren arteko espazioan beste bost lagun. Hilobi guztiek errespetatzen dituzte eraikinaren hormak, edo gauza bera dena, hilobi hauek eraikina jada zutik zegoenean lurperatu zituzten.

Habeartean, absideranzko igarobidean izan ezik, espazio osoan barrena banatzen dira hamar ehorzketak, hiru banakako hobitan eta beste hiru anitzetan. Azken hauetatik bik aurreko ehorzketak errespetatzen dituzte, hilobiak elkarren gainean egokituta baitaude. Aitzitik, aurreko norbanakoa ebakitzen du besteak. Ehortzitakoen erdiek baizik ez zituzten haiekin batera ostilamendua de cada espacio. No obstante, la parcialidad de los restos aconseja no profundizar en este tema. En cualquier caso, lo más importante es que este gran edificio parece presentar los componentes estructurales básicos de cualquier templo cristiano de esta cronología: Ábside con altar, nave y baptisterio.

A todo esto debe añadirse, la presencia de elementos indudablemente litúrgicos. Fundamentalmente, nos referimos al tenante de altar localizado *in situ* en el centro geográfico del ábside, o a la pila bautismal de inmersión localizada en el baptisterio.

Asimismo, no podemos dejar de mencionar la aparición de una serie de restos arquitectónicos que sin bien no son exclusivos de contextos religiosos si suelen aparecer más en ellos. Sobre todo, incluimos varios fragmentos de celosías, una de ella con varios grafitos. Éstos, como otros restos constructivos recuperados (tambor de columna, sillares para aperturas de vanos, dovelas de arcos, posibles cornisas, piezas en lumaquela con restos de pintura, posible capitel) hablan de la monumentalidad del edificio en un momento en que el resto de construcciones coetáneas están elaboradas mediante arquitectura lignaria o, posteriormente, mixta. Una monumentalidad que sólo puede ser atribuida, en el contexto en el que nos movemos, a la función que estamos defendiendo.

También debe hacerse especial mención a la localización en el ábside de la tumba monumental en la que se depositaron, de forma secundaria, los restos de un personaje femenino de relevancia. Tanto su posición como su monumentalidad dan idea de su importancia dentro del edificio si bien plantea nuevas cuestiones de difícil respuesta, quién fue la persona depositada en esta tumba o qué papel pudo tener su presencia en la liturgia del edificio, etc.

Finalmente, la presencia de un cementerio de prestigio en su interior. En relación directa con el edificio se documentan diecisiete enterramientos *in situ* (a este número habría que sumarle otros seis localizados en posición secundaria) con unas características específicas, que los distinguen del resto de enterramientos localizados en el yacimiento. Esta diferencia radica en la presencia de ataúdes de madera con clavos de hierro y, sobre todo, de ajuares y depósitos. Su orientación es este-oeste, con la cabeza siempre mirando a oriente, a excepción de un caso en el que se invierte el esquema. Sobre estos enterramientos hay varios aspectos a destacar.

En primer lugar, su ubicación. Todos los enterramientos se localizan en relación con el edificio. Al interior doce individuos, diez en la nave y dos en la habitación sureste. No se ha documentado ninguno ni en al ábside ni en el baptisterio. Al exterior, en el espacio existente entre el baptisterio y la sala sureste, cinco individuos. Todos los enterramientos respetan los muros del edificio o lo que es lo mismo, se inhumaron cuando éste estaba ya en pie.

En la nave, los diez enterramientos se distribuyen por todo el espacio, a excepción de la zona de paso con el ábside, en tres tumbas individuales y tres múltiples. De éstas tres últimas, dos respetan a los enterramientos anteriores, colocando un ataúd encima de otro. En cambio, otra corta a un individuo anterior. Sólo la mitad de los inhumados llevaban ajuar o de-

1. Absidearen argazki zenitala, pribilegiozko hilobiarekin, aldarearen euskarriaren kokalekuarekin eta 6. aldiko siloen kokapenarekin. 2. Pribilegiozko hilobiaren xehetasunak, bigarren egokieran dagoen emakumearen hondakinekin. 3. Aldarearen euskarriaren xehetasunak hura induskatzeko prozesuan zehar. 4. Bataiarria (Iterbide S.C. eta E. Alfaro).

1. Foto cenital del ábside con la tumba de privilegio, la ubicación del tenante de altar y silos de la Fase 6. 2. Detalle de la tumba de privilegio con los restos de la mujer en posición secundaria. 3. Detalle del tenante de altar durante el proceso de excavación. 4. Pila bautismal (Iterbide S.C. y E. Alfaro).

edo deposituren bat gordetzen. Zulo guztiak oso sakon induskatuta daude, eraikina hilobiratze hauek egin baino lehenagokoa dela agerian utzirik.

Hego-ekialdeko gelan hiru hilobi baizik ez daude. Haietatik bi gizaki helduek okupatzen dute, jatorrizko egokieran daude. Bestea haur biren hondakinek, bigarren egokieran, okupatzen dute. Soilik hilobi batek gordetzen du ostilamendua. Hauek habeartekoak baino sakonera maila apalagoan daude.

Azkenik beste bost ehorzketa bereizi genituen eraikinaren kanpoko aldean, bataiategiaren eta hego-ekialdeko gelaren artean. Talde bitan banatzen dira. Lehenengoan ehorzketa bi ageri dira jatorrizko egokieran eta ostilamenduarekin. Bigarrenean hiru norbanako bereizten dira, eta bakar batek du ostilamendua atxikirik. Hego-ekialdeko gelako ehorzketak bezala, habeartekoak baino sakonera maila apalagoan daude hauek.

Laburbilduta, izaera orokorreko ondorioren bat atera dezakegu orain arte azaldutako guztitik. Batetik, nekropoliaren kokapena bera, eraikineko barruti batzuetan. Badira lur ematen ez diren bi barruti, bataiategia eta absidea, baina paradoxikoki azken honetan kokatzen da hilobi garrantzitsua. Bestetik, hilobiak agertzen diren kota edo sakonera mailaren aldeak dira aipagarri, habeartean, hego-ekialdeko gelan edo kanpoan, non dauden. Beraz, gela jakin batean edo eraikinaren kanpoko aldean lur emateko orduan bestelako sakonera mailak induskatu behar izan zituzten hobiak egiteko.

Bestetik ostilamenduen eta deposituen kontua dugu. Aldi honetako hamazazpi hilobiratzeetatik soilik bederatzik zuten alboan objektu motaren bat.

pósito. Todas las fosas están excavadas a gran profundidad, lo que corrobora que el edificio es anterior a estos enterramientos.

En la sala sureste sólo hay tres enterramientos. Dos de ellos con individuos adultos en posición primaría y otro con dos infantiles en posición secundaria. Tan sólo, un enterramiento tiene ajuar. Todos están enterrados a menor profundidad que los de la nave.

Finalmente, cinco son los enterramientos localizados al exterior del edificio, entre el baptisterio y la sala sureste. Se encuentran en dos grupos. En el primero aparecen dos enterramientos fundacionales, ambos con ajuar. En el segundo, tres individuos de los que sólo uno tiene ajuar. Al igual que los enterramientos de la sala sureste, están enterrados a menor profundidad que los de la nave.

A modo de resumen, podemos extraer de todo lo expuesto hasta ahora alguna consideración de carácter general. Por un lado, la disposición de la necrópolis sólo en algunos de los recintos del edificio. Existen dos ambientes en los que no se entierra: el baptisterio y el ábside, en el que paradójicamente se ubica la tumba de relevancia. Por otro, la diferencia de cotas a las que aparecen los enterramientos según se sitúen en la nave, en la sala sureste o fuera, que está indicando que, en función de su localización en una determinada sala o al exterior del edificio, la profundidad a la que se debía excavar la tumba era distinta.

En segundo lugar, la cuestión de los ajuares y depósitos. De los diecisiete enterramientos de esta etapa, sólo nueve iban acompañados de algún tipo de objeto.

Eskeletoen egoeraren ondorioa izan liteke aipatu absentzia, lau baizik ez baitira osorik kontserbatu, bakar bat ere ez areto handian (areto honetan gerora ireki zituzten siloen presentzia masiboa izan daiteke horren arrazoia). Nolanahi ere den, lau eskeleto osoetatik hiruk ostilamendu edo depositu bana zuten atxikirik, baina batek ez, guztiek horrelakorik izaten ez zutela agerian utziz. Beraz, beste arrazoi batzuk bilatu behar dira hori azaltzeko, esate baterako, gizarte izaerako abantaila.

Berreskuratutako ostilamendu eta depositu hauetatik abiaturik iruzkin batzuk egin daitezke.

Eskeletoen oinetan mota askotako ontziak jarri zituztela ikusten da, esate baterako beirazko gopor bat, brontzezko pertz bat, zurezko ontzien metalezko armazoiak eta zeramikazko suilen bat. Eskeletoetako bik metalezko koilaratxo bana zeukaten eskuetan, bata zilarrezkoa, mitologia motiboez dekoratua eta izenarekin (*ACREGI*) eta bestea brontzezkoa, eta besteak borroka egiteko aizkora jaurtigarriari eusten zion. Hatzetan hiru eraztun zeuzkaten, urrezko bat aipagarri. Aldaka aldean, giltzurrunen formako gerriko belarriak dokumentatu genituen, tipologia askotako aplikeekin. Arestian adierazitako aizkoraz gainera, hiru lantza mutur dokumentatu genituen gorpuzkien beste hainbeste puntutan.

Hilerri garrantzitsu honen ezaugarriei buruzko informazio baliotsua eskaintzen dute deposituek eta ostilamenduek, pertsona hauek gizartean hartzen zuten lekuari, beren nortasunari eta beren bizimoduari buruzkoak aurreratzeko modua eskaintzen baitigute.

Habeartearen erdialdean kokatutako lau lagunentzako hilobi kolektibo bateko jatorrizko ehorzketa biren kasua da (199. eta 212. zenbakiko ehorzketak). Biek koilaratxo bana dute, brontzezkoa bata eta zilarrezkoa bestea, eskuarki kristau liturgiarekin lotzen diren objektutzat hartuak biak ala biak; ez gara hemen hori zalantzan jartzen hasiko. Gainera, zilarrezko koilaratxoa duenak, urrezko eraztun handi bat du hatz luzean. Aitzitik, hilobi honetan hilobiratutako bi lagun modernoenek ez dute ostilamendu mota bakar bat ere eurekin batean.

Era berean, aipagarria da armen presentzia eraikinaren nola barruko hala kanpoko ehorzketetan. Izan ere, lagun birentzako hilobietako bateko jatorrizko beste eskeleto batek (197. ehorzketa) lantza mutur bat du berekin batean. Beraz, ez dirudi zendua otoitz egiteko leku batean lurperatu ahal izateko armak uzteko debekua zegoenik.

Azkenik, objektu batzuen tipologiak, itxuraz kontinentearen eragina dutenen antzekoak, esate baterako, ondoko San Pelaioko nekropolian eta Aldaietako nekropoli ezagunean hautemandako ostilamenduen antzekoak baitira, hilerri hauetan lurperatutako gizakien antzekoak zirela adierazi dezake[18].

Deposituen eta ostilamenduen azterketatik ateratako informazioak komunitate honen nortasunari eta eraikinarekiko harremanari buruzko kontsiderazioren

[18] Azkarate Garai-Olaun A., 2005, «Sobre los orígenes cronológicos de los cementerios cispirenaicos de época tardoantigua», *Munibe (antropología-arkeologia) 57. Homenaje a Jesús Altuna,* 404-417. orr.

Esta ausencia se puede deber al estado en que se encontraban los esqueletos, de los cuales sólo cuatro han llegado completos, ninguno dentro de la gran aula (este hecho se puede relacionar por la masiva presencia de los silos posteriores, en esta estancia). En cualquier caso, de los cuatro enterramientos completos, tres llevaban ajuar o depósito y uno no, lo que apunta a que no todos tendrían. Por lo tanto, se deben buscar otro tipo de razones como puede ser la de preeminencia social.

A partir de estos ajuares y depósitos recuperados pueden hacerse, también, algunos comentarios.

Se observa cómo, a los pies de los esqueletos, se colocan distintos tipo de recipientes tales como un cuenco de vidrio, un caldero de bronce, los armazones metálicos de cubos de madera y alguna vasija cerámica. En las manos, dos de ellos llevaban sendas cucharillas metálicas, una de plata con decoración mitológica y el nombre (*ACREGI*) y otra de bronce, mientras el tercero empuñaba un hacha de combate arrojadiza. En los dedos, tres tenían anillos, destacando uno de oro. En la zona de la cadera, se han documentado hebillas de cinturón arriñonadas con apliques de distinta tipología. Además del hacha empuñada, las armas estaban representadas por tres puntas de lanza localizadas en distintos puntos anatómicos.

El tema de los depósitos y ajuares proporciona una valiosa información sobre las características de este cementerio de prestigio, ya que permite aventurar la forma en que estas gentes representaban su posición social, su personalidad o su modo de vida.

Es el caso de dos enterramientos fundacionales (ent.199 y ent.212) de una tumba colectiva de cuatro individuos situada en la zona central de la nave. Ambos portan sendas cucharillas, una de bronce y otra de plata, generalmente admitidas, no queremos entrar en la discusión, como objetos relacionados con la liturgia cristiana. Además, el individuo con la cucharilla de plata también lleva un gran anillo de oro en su dedo corazón. Contrariamente, los dos miembros más modernos de esta misma tumba no tienen ningún tipo de ajuar.

También merece la pena destacar la presencia de armas en enterramientos tanto al interior como al exterior del edificio. De hecho, otro de los enterramientos fundacionales (ent.197) en una tumba de dos individuos también dentro de la nave del edificio, tiene una punta de lanza. Por lo tanto, no parece que el hecho de situarse en relación a un lugar de culto impida la deposición de armas.

Finalmente, la tipología de alguno de los objetos de aparente filiación con ajuares de influencia continental como los detectados en la cercana necrópolis de San Pelayo o en la conocida necrópolis de Aldayeta, puede indicar una cierta semejanza con los individuos inhumados en esos cementerios[18].

La información extraída del análisis de los depósitos y ajuares sugiere alguna consideración sobre la personalidad de esta comunidad y su relación con el

[18] Azkarate Garai-Olaun A., 2005, «Sobre los orígenes cronológicos de los cementerios cispirenaicos de época tardoantigua», *Munibe (antropología-arkeologia) 57. Homenaje a Jesús Altuna,* pp.404-417.

bat egiteko parada eskaintzen du. Garrantzi handieneko norbanako bik koilaretxo bana izateak sendotu egiten du geure hipotesia, hots, eraikin hau egiteko erlijiosoei emana zegoenaren hipotesia. Gainera, haietako batek daraman urre trinkoko eraztunak agerian uzten du pertsonaia honek gizartean zuen kategoria. Era berean, armen absentzia, eraikinaren nola kanpoko aldean hala barrukoan lurperatutako batzuek armak baitzituzten, are bereziago egiten du.

Hirugarrenik, ehorzketa hauen ezaugarri antropologikoak ditugu. Gehien-gehienak gizon helduak dira. Jatorrizko egokieran dauden bi eta bigarren egokieran dauden beste bi, absideko pribilegiozko hilobian lurperatutako pertsonaiaz gainera, baizik ez dira gizonezko helduak. Talde osoak lertzoaren presentzia handia ageri du, haragitan aberatsa zuten elikaduraren erakusgarri dena[19].

Azkenik, euren kronologia dugu. Dokumentatutako ostilamenduen eta deposituen tipologiak VI. mendearen bigarren erdialdean eta VII. mendean kokatzen zuten nekropoli hau. C14ren bidezko azterketek berretsi egiten dute eraikinaren aldi bereko hilerriari emandako datazio erlatiboa. Baina ehorzketa hauetako batzuen datazio kalibratuak haien arteko alde batzuk utzi dituzte agerian[20]. Habearteko jatorrizkoak, 197. eta 212. zenbakiko ehorzketak, dira kronologia zaharrenak eskaintzen dituztenak. Lehenengoak 1 σ (%68,2) K.o. 545-605 eta 2 σ (%93,8) K.o. 530-650, eta bigarrenak 1 σ (%61,6) K.o. 530-600 d.C. eta 2 σ (%95,4) K.o. 430-610. Datazio hauek eta dagozkien ostilamenduei esleitutakoak harremanetan jarrita VI. mendearen bigarren erdialdean kokatu behar ditugu.

Hegoaldeko gelakoak, 204. ehorzketa (1 σ (%68,2) K.o. 605-655 eta 2 σ (%95,4) K.o. 570-665) eta 212. zenbakiko ehorzketa lurperatu zen hilobi kolektiboaren gaineko 198. zenbakiko ehorzketa (1 σ (%68,2) K.o. 580-650 eta 2 σ (%95,4) K.o. 540-660) zertxobait geroagokoak direla ematen du, VII. mendearen lehen erdikoak.

Bukatzeko, eraikinaren kanpoko aldean, VII. mendearen erdialdeko urteetan koka genezake 190. zenbakiko ehorzketa (1 σ (%68,2) K.o. 640-675 eta 2 σ (%92,2) K.o. 600-700).

Honenbestez, hilerri honen sekuentzia kronologikoa aurreratzeko moduan gaude. Lehenik habeartea okupatuko zuten aurreneko ehorzketekin. Geroago hilobi handiak okupatuko zituzten bigarren ehorzketa aldiarekin, eta hego-ekialdeko gelan lur ematen hasiko ziren, eta azkenik eraikinaren kanpoko aldean emango zieten lur zenduei.

[19] Teresa Fernández Crespo egin zuen azterketa antropologikoa, eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak finantzatu zuen. Fernández Crespo, T. (2011): *Estudio arqueo-antropológico de las inhumaciones tardorromanas, tardoantiguas y altomedievales de la necrópolis de San Martín de Dulantzi (Álava)*. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zentroarentzat egindako txosten argitaratu gabea.

[20] Egia da bilakaera kronologiko honen zehaztapenak arrisku batzuk dakartzala berekin batean, sigma bitan egiten diren datazio guztiak ezkutatu egin baitaitezke, baina alde txiki horiei leku egin nahi izan diegu 1 σ-ko datazioaren bidez. Xehetasun kronologiko txiki hauek oso lagungarriak izan litezke hilerri honetako kronologiaren sekuentzia azaltzeko.

edificio. La presencia en dos de los individuos de mayor relevancia de sendas cucharillas fortalece la hipótesis que veníamos desarrollando de un ambiente cristiano para el edificio. Además, el anillo de oro macizo que porta uno de ellos indica la alta categoría social de ese personaje. Asimismo, la ausencia de armas, presentes en otros individuos enterrados tanto al interior como al exterior del edificio, no hace sino recalcar su singularidad.

En tercer lugar, las características antropológicas de estos enterramientos. La mayor parte son individuos adultos masculinos. Tan sólo dos en posición y otros dos secundarios, además del personaje enterrado en la tumba de privilegio del ábside, no lo son. Todo el grupo tiene una alta presencia de sarro, consecuencia de una alimentación rica en carne[19].

En último lugar, su cronología. La tipología de los ajuares y depósitos documentados databa esta necrópolis en la segunda mitad del siglo VI y el siglo VII. Los estudios de C14 han confirmado esta datación relativa atribuida al cementerio en fase con el edificio. Ahora bien, las dataciones calibradas de alguno de estos enterramientos han puesto de manifiesto algunas diferencias entre ellos[20]. Los fundacionales de la nave, enterramiento 197 y enterramiento 212, son los que dan cronologías más antiguas. El primero a 1 σ (68,2 %) 545-605 d.C. y a 2 σ (93,8 %) 530-650 d.C. y el segundo a 1 σ (61,6 %) 530-600 d.C. y a 2 σ (95,4 %) 430-610 d.C. Estas dataciones puestas en relación con las relativas de sus ajuares permiten fecharlos en la segunda mitad del siglo VI.

El de la habitación al sur, enterramiento 204, (a 1 σ (68,2 %) 605-655 d.C. y a 2 σ (95,4 %) 570-665 d.C.) y el superior, enterramiento 198, (a 1 σ (68,2 %) 580-650 d.C. y a 2 σ (95,4 %) 540-660 d.C.), de la tumba colectiva en el que se inhumó el enterramiento 212 parecen ser algo más tardíos, ya de la primera mitad del VII.

Por último, al exterior del edificio, el enterramiento 190, (a 1 σ (68,2 %) 640-675 d.C. y a 2 σ (92,2 %) 600-700 d.C.), pudiera datarse en los años centrales del siglo VII.

Por lo tanto, es posible aventurar una secuencia cronológica en este cementerio. Primeramente, se ocuparía la nave con los enterramientos fundacionales. Posteriormente, se completaría las grandes tumbas con la deposición de una segunda fase de individuos y se empezaría a enterrar en la habitación sureste y finalmente, se inhumaría al exterior del edificio.

[19] El estudio antropológico fue llevado a cabo por Teresa Fernández Crespo y financiado por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco. Fernández Crespo, T. (2011): *Estudio arqueo-antropológico de las inhumaciones tardorromanas, tardoantiguas y altomedievales de la necrópolis de San Martín de Dulantzi (Álava)*. Informe inédito elaborado para el Centro de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.

[20] Es cierto que establecer esta evolución cronológica tienen sus riesgos, ya que todas las dataciones a dos sigmas se pudieran solapar, pero hemos querido dar lectura a esas pequeñas diferencias en su datación a 1 σ Estos pequeños matices cronológicos podrían ayudar a explicar la secuencia cronológica de este cementerio.

Ehorzketa hauetaz gain ez dugu «herri» izaerako nekropoli baten presentzia iradokiko luketen elementu esanguratsuez hornituriko beste ehorzketarik. Bi arrazoi egon litezke gabezia hau azaltzeko.

Lehenengo arrazoia, berriro ere esango dugu, burura eramandako esku-hartzearen konplexutasuna izan da, ezinezkoa izan baita eraikin multzo handiaren ondoko eremua guztiz induskatzea. Ildo honetatik, baliteke «herri» hilerria induskatu gabeko lekuren batean egokitzea.

Bigarren arrazoia izan liteke aztarnategiaren alde honetan horrelakorik ez izatea. Hasiera batean talde txiki bat baizik ez zuten lurperatu eraikin erlijioso berriaren esparruan, itxura batean gizartean halako garrantzia zutenak izango ziren haiek, eta herriko beste biztanleak bazterreko hilerri batean lurperatuko zituzten, artean aurkitu ez dugun hilerrian.

Laburbilduta, prestigiozkoa da eta eraikinarekin zuzeneko harremana duena, aldi honetan dokumentatutako nekropoli bakarra. Oro har ezaugarri bertsuak dituzte norbanako guztiek, baina badira gizarte eta kronologia izaerako alde batzuk iradokitzen dituzten xehetasunak. Batetik, ostilamenduen eta deposituen presentzia edo absentzia hilobi batzuetan. Bereziki deigarriak dira habearteko hilobi kolektiboa lehenengoz okupatu zuten norbanako birekin batean aurkitutakoak eta deigarria ere da hilobi bereko goiko aldean gerora lurperatu zituzten beste biek halakorik ez izatea. Bestalde, kokapenaren araberako kronologia ezberdinak ditugu. Ildo honetatik, kronologia berandueneko norbanakoa ez zuten eraikinaren zuzeneko babespean lurperatu, baizik eta eraikinaren kanpoko aldean; ekintza hau, agian, komunitate honetako ohituretan gertatzen ari ziren aurreneko aldaketen isla da.

Aldi honen hasieran eta eraikinarekin estu loturik, induskatutako egituraren baten presentzia aipatzen genuen, eraikin erlijiosoa eraiki aurreko jardueraren erakusgarri. Baina aztarnategiaren gainerakoan ere egitura kopuru garrantzitsua dokumentatu genuen, tipologia askotakoak (paldoei leku egiteko zuloak, deposituak, erretenak, etxola-hondoak); hala eta guztiz ere, haiei buruzko datu gutxi dauzkagu hainbat arrazoirengatik. Hasteko, egitura hauen eta hobe ezagutzen ditugun beste elementuen arteko harreman estratigrafikorik eza oztopo da euren arteko harremana zehaztu ahal izateko. Bigarrenik, egitura horietako asko eta asko txikituta daude erabat, eta beraz, ezin asmatu daiteke zein zen haien jatorrizko itxura. Hirugarrenik, induskatutako azalera bera, egitura hauek espazioan izango zuten banaketa luze-zabalean ikusteko oztopo dena. Eta bukatzeko arku kronologiko zabala dugu, VI. mendearen bigarren erdialdea eta VII. mendea, azken data hau eskaintzen baitute egiturak amortizatzen dituzten betegarriek. Beraz, aldi honetan aztarnategiaren azalera guztiak okupazio handia bizi izan zuela baizik ezin dugu ziurtatu, baina ez dakigu egitura horiek zer funtzio betetzen zuten eta zein zen eraikin handiarekin zuten harremana.

5. aldia. K.o. VII. mende amaiera - K.o. IX. mendearen bigarren erdialdea

VII. mende amaieran edo jada VIII. mendean lekuz aldatu zuten nekropolia, ordutik aurrera ez zuen zuzeneko harremana izango eraikinarekin. Leku aldaketa

Al margen de estos enterramientos no se han localizado otros sin esos elementos de prestigio que sugieran la presencia de una necrópolis de carácter «popular». Este vacío se puede deber a dos razones.

La primera vuelve a incidir en el tipo tan complejo de intervención desarrollado y que imposibilitó la excavación total del área inmediata al gran complejo edilicio. En este sentido, pudiera caber la posibilidad de que el cementerio «popular» se localizara en alguna zona no excavada.

La segunda es que realmente no existiese en esta zona del yacimiento. En un primer momento, sólo se entierran en el ámbito del nuevo edificio religioso un pequeño grupo, aparentemente individuos de cierta relevancia social, mientras que el resto de la comunidad, se inhumarían en un cementerio al margen, no localizado.

En definitiva, la única necrópolis documentada en esta fase es la de prestigio en relación directa con el edificio. En general, todos los miembros comparten unas mismas características, no obstante, existe algunos matices que pueden estar indicando algunas diferencias tanto sociales como cronológicas. Por un lado, la presencia o ausencia de ajuares y depósitos en algunas inhumaciones. En particular, llaman la atención los importantes objetos en los dos individuos fundacionales de la tumba colectiva de la nave y la ausencia en los dos superiores de esa misma tumba. Por otro, las distintas cronologías en función de su situación. En este sentido, el individuo con una cronología más reciente ya no se entierra bajo el amparo directo del edificio sino que se ubica inmediatamente al exterior, lo que, tal vez, está mostrando los primeros cambios en las costumbres de esta comunidad.

Al inicio de esta fase ya hacíamos referencia a la presencia de alguna estructura excavada en relación directa con el edificio, que manifestaba la presencia de una actividad inmediatamente anterior a su construcción. Ahora bien, en el resto del yacimiento también se documenta otro buen número de estructuras, de muy variada tipología (agujeros de postes, cubetas, rozas, fondos de cabaña) y de las que apenas tenemos datos por varios motivos. En primer lugar, la falta de relaciones estratigráficas entre estas estructuras y otros elementos mejor conocidos que permitan su interrelación. En segundo, el grado de arrasamiento que han sufrido un buen número de ellas y que impide conocer su aspecto original. En tercero, la propia superficie excavada que impide ver en extensión su distribución espacial. Por último, la importante horquilla cronológica, segunda mitad del siglo VI y siglo VII, en la que se datan sus rellenos de amortización. En consecuencia, sólo se puede atestiguar la importante ocupación de toda la superficie del yacimiento en esta fase, sin poder determinar su funcionalidad y su relación con el gran edificio.

Fase 5. Finales del siglo VII d.C. - segunda mitad del siglo IX d.C.

A finales del siglo VII o ya en el siglo VIII la necrópolis deja de ubicarse en el entorno directo del edificio y se traslada a otras zonas del yacimiento. Este

hau pixkana-pixkana gauzatu zuten, lurperatu beharreko norbanakoen kopuruaren arabera espazioak okupatuz. Hileta izaerako espazio honen aldaketak, era berean, aldaketa garrantzitsuak eragin zituen aztarnategiaren paisaian.

Eraikinaren ingurutik kanpoko ehorzketa aspaldikoenak tenpluaren burualdetik gutxi gorabehera 20-30 metrotara daude, ipar-ekialdera, egungo Nuestra Señora de Aiala kalearen erdialdera. Gutxi gorabehera 50 ehorzketez osatutako multzo oparoa da, ekialdetik mendebaldera luzatzen diren hobi handiekin eta hilkutxak sendotzeko iltzeen presentziarik gabe. Zenduak ahoz gora etzanda daude, hutsean utziak, ostilamendurik eta depositurik gabe. Beste ezaugarri komuna da hilobi hauen guztien artean gordetzen den errespetua eta espazioan duten banaketa bikaina, haien artean korridoreak antolatzen baitira.

Haien arteko harreman estratigrafikoek ez zuten informazio kronologikorik ia batere eskaintzen, erromatarren garaiko estratigrafia ebakitzen dutelako eta, aldi berean, gure garaiko obrek kaltetuta daudelako. Hobi bakaneko tipologiak eta ostilamenduen eta deposituen absentziak ere ez dute informazio gehiago eskaintzen. Haiek amortizatzen dituzten betegarrietan azaldutako zeramikazko materiala da datu kronologiko zehatza eskain dezakeen bakarra. Itxuraz aspaldiko materiala da, erromatarren moldeak nagusi, baina tartean bada ore lakarrez egindako zeramikaren bat. Beraz, eraikin handiaren eta hari atxikiriko ehorzketen aurrekoak edo aldi berekoak baina beste ezaugarri batzuekin, izan zitezkeela ondorioztatu zen.

Hala eta guztiz ere, haietatik hiru C14ren bidez aztertuta –46. zenbakiko ehorzketa (1 σ (%68) K.o. 680-810 eta 2 σ (%95,4) K.o. 680-880), 50. zenbakikoa (1 σ (%68) K.o. 640-685 eta 2 σ (%90) K.o. 600-710) eta 72. zenbakikoa (1 σ (%62,6) K.o. 690-820 eta 2 σ (%95,4) K.o. 680-880)– VII. mendearen azken urteen eta IX. mendearen arteko arku kronologikoa zehaztu ahal izan da. Beraz, okerra zen Vasconia en la Alta Edad Media[21] artikuluan argitara eman genuen lehen lan hipotesia, aztarnategiaren alde honetako ehorzketak eraikin handiari atxikirikoen ondorengoak baitira.

Laburbilduta, lur emateko espazio handia duen hilerria da, egiteko liturgikoari eusten dion eraikin erlijiosoaren babesa bilatzen ez duena. Bertan egokitzen da antropologikoki osoa den komunitatea, bertan ematen zaie lur helduei, gazteei eta haurrei, gizon nahiz emakumeei, euren gizarte maila salatuko lukeen prestigiozko elementurik gabe baina.

Kronologiari dagokionez, garrantzitsua da hiru datazio absolutuen artean dauden aldeak azpimarratzea. Aspaldikoenak VII. mendean kokatzen du nekropoli hau. Beste biak hurrengo bi mendeetan koka litezke, nahiz eta zentzuzkoena den haien artean halako tartea ez zegoela pentsatzea, izan ere, ezaugarri bertsuak dituzte eta elkarren arteko errespetua zaintzen dute.

[21] Loza Uriarte, M. eta Niso Lorenzo, J. (2011), «Resultados preliminares de la intervención arqueológica de San Martín de Dulantzi (Alegría-Dulantzi, Álava), J.A. Quirós (arg.), *Vasconia en la Alta Edad Media 450-1000, poderes y comunidades rurales en el Norte Peninsular, Documentos de Arqueología Medieval 2,* 236. or, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo..

traslado va a desarrollarse de forma gradual, ocupando distintos espacios en función del número de individuos que haya que inhumar. Esta modificación del espacio funerario causara importantes cambios en el paisaje del yacimiento.

Los enterramientos más antiguos fuera del entorno directo del edificio se localizan a unos 20-30 metros al Noreste de su cabecera, en el tramo central de la actual calle de Nuestra Señora de Ayala. Se trata de un amplio conjunto de unas 50 inhumaciones con fosas en grandes bañeras orientadas este-oeste y sin presencia de clavos para armar ataúdes, en la que se depositan individuos en posición decúbito-supino, colocados en vacío, y sin ajuares y depósitos. Otra característica común es el respeto existente entre todas estas tumbas y su perfecta distribución espacial que permite crear pasillos entre ellas.

Sus relaciones estratigráficas apenas aportaban información cronológica, ya que cortaban la estratigrafía romana y estaban cortados, a su vez, por arrasamientos contemporáneos. Su tipología de fosa simple, y la ausencia de ajuares y depósitos, tampoco añadían más información. El único dato cronológico con el que se contaba era el material cerámico que aparecía en sus rellenos de amortización; de apariencia antigua y con un gran predominio de producciones romanas, más alguna cerámica grosera. Por lo tanto, se concluía que pudieran ser anteriores al gran edificio y a sus enterramientos asociados o coetáneos a éstos pero con otras características.

Sin embargo, las analíticas de C14 de tres de ellos: enterramiento 46, (a 1 σ (68 %) 680-810 d.C. y a 2 σ (95,4 %) 680-880 d.C.), enterramiento 50, (a 1 σ (68 %) 640-685 d.C. y a 2 σ (90%) 600-710 d.C.) y enterramiento 72, (a 1 σ (62,6 %) 690-820 d.C. y a 2 σ (95,4 %) 680-880 d.C.), han posibilitado su datación en una horquilla cronológica entre los últimos años del siglo VII y el siglo IX. Lo que significa que, nuestra hipótesis de trabajo previa, publicada en el artículo de Vasconia en la Alta Edad Media[21], era errónea y los enterramientos de esta zona del yacimiento eran posteriores a los asociados a la gran edificación.

En resumen, se trata de un cementerio con amplio espacio para sus inhumaciones, sin interés por buscar el amparo del edificio religioso, que sigue desarrollando su funcionalidad litúrgica, representado por una comunidad antropológicamente completa, en la que están presentes tanto individuos adultos como jóvenes y niños, en masculinos y en femenino, sin elementos de prestigio que marquen su condición.

Respecto a su cronología, es importante recalcar la diferencia existente entre las tres dataciones absolutas. La más antigua fecha esta necrópolis en el siglo VII. Las otras pueden prolongarse a las dos centurias siguientes, aunque lo más lógico es pensar que no se llevaran tanto tiempo, ya que comparten las mismas características y se respetan entre ellas.

[21] Loza Uriarte, M. y Niso Lorenzo, J. (2011), «Resultados preliminares de la intervención arqueológica de San Martín de Dulantzi (Alegría-Dulantzi, Álava), en J.A. Quirós (ed.), *Vasconia en la Alta Edad Media 450-1000, poderes y comunidades rurales en el Norte Peninsular, Documentos de Arqueología Medieval 2,* p. 236, Universidad del País Vasco, Bilbao.

Noiz zehazterik ez badago ere, baliteke espazio osoa aldi berean okupatu izana. Nekropolia hegoalderantz luzatuko zen Nuestra Señora de Aiala eta San Martin kaleen arteko egungo bidegurutzearen alde osoa okupatzeko, eta egungo San Martin kalearen erdialderantz ere luzatuko zen apur batean. Ehorzketa kopuru garrantzitsua bereizi genuen alde honetan[22], aurrekoen ezaugarri bertsuak dituztenak. Multzo honek planteatzen duen arazo larriena datu estratigrafikoen gabezia da, datu horiek gabe ezin zehazta baitaiteke hilerriaren sekuentziaren zein unetakoak diren. Jakin bagenekien aurreko aldian induskatutako egituren amortizazioen –VI. mendearen bigarren erdialdekoak edo VII. mendekoak– ondorengoak direla, baina ez genuen ante quem data bat eskainiko ligukeen harreman bat ere identifikatu. Beraz, ezinbesteko genituen C14ren bidezko azterketa analitikoak kronologia zehaztu ahal izateko.

Guztira sei dira VII. eta IX. mende artean datatutako ehorzketak. Haietatik bi egungo Nuestra Señora de Aiala eta San Martin kaleen bidegurutzean. Batetik 83. zenbakikoa dugu (1 σ (%61,4) K.o. 640-690 eta 2 σ (%95,4) K.o. 630-780), 50. zenbakikoa baino apur bat geroagokoa. Bestetik 90. zenbakiko ehorzketa dugu (1 σ (%68) K.o. 685-775 eta 2 σ (%95,4) K.o. 660-820), 46. eta 72. zenbakikoak baino apur bat lehenagokoa. Eskuarki VII. mendearen bigarren erdialdean edo VIII. mendean koka litezke, eta iparraldeen daudenen aldi berekoak izan litezke. Beste lauak egungo San Martin kalearen erdialdean geratu ziren agerian, eraikin erlijiosotik gertuago beraz: 124. zenbakiko ehorzketa (1 σ (%61,9) K.o. 770-870 eta 2 σ (%95,4) K.o. 690-890), 126. zenbakikoa (1 σ (%68,2) K.o. 690-860 eta 2 σ (%95,4) K.o. 680-880), 162. zenbakikoa (1 σ (%68,2) K.o. 775-880 eta 2 σ (%86,6) K.o. 760-900) eta 188. zenbakikoa (1 σ (%68,2) K.o. 770-890 eta 2 σ (%85,5) K.o. 760-900). VIII. eta IX. mendeetan kokatzen da multzo honen datazio orokorra, eta beraz, aurrekoak baino geroagokoak direla esan behar dugu.

Beraz, K.o. VII. mendearen bigarren erdialdetik aurrera eraikin erlijiosotik kanpora egokitu zen nekropolia, aurreko hileta erabileraren arrastorik ez zuen aztarnategiko eremuan, nahikoa eremu zabalean aurrekoak kaltetu behar izan gabe hobi berriak irekitzeko. Zaila da nekropoli honen sekuentzia berreraikitzea. Egungo Nuestra Señora de Aiala kalean egokitutako ehorzketa bik zehazten dute VII. mendearen bigarren erdialdeko edo VIII. mende hasierako hilerri berri honen erabilera. Gainerakoek ondorengo kronologiak eskaintzen dituzte, baina sekula ez IX. mendetik haratagokoak. Ildo honetatik, esanguratsua da datazio aurreratuenak dituztenak egungo San Martin kalearen erdialdean, eta beraz eraikinetik gertuago, egokitu izana. Antza, hasierako kokapenetik eta etengabean hazten zelako, hego-mendebalderantz luzatu zen nekropolia, berriro ere eraikin handiaren inguruetaraino iristeko.

[22] Ez dago kopuru zehatz bat eskaintzerik, ezinezkoa gertatu baita ehorzketa guztiak bakantzea, eta baliteke batzuk, a priori nekropoli honen aldi honetakoak direnak, geroagokoak izatea, eta alderantziz, geroagoko aldira bildutako batzuk egiazki aldi honetakoak izatea.

Sin poder concretar cuándo, incluso cabe la posibilidad de que todo el espacio se ocupará a la vez, la necrópolis avanza hacia el sur para ocupar toda la zona del actual cruce entre la calle Nuestra Señora de Ayala y la de San Martín e incluso extenderse ligeramente hacia la zona central de la actual calle San Martín. Se trata de un significativo número de inhumaciones[22] con unas características similares a los anteriores. El mayor problema para este conjunto era la falta de datos estratigráficos, que impedía concretar a qué momento de la secuencia del cementerio correspondían. Sabíamos que eran posteriores a las amortizaciones de las estructuras excavadas de la fase anterior, datadas en la segunda mitad del siglo VI o el siglo VII pero no existía ninguna relación que marcará un término *ante quem*. Por lo tanto, las dataciones de las analíticas de C14 se hacían imprescindibles para poder concretar su cronología.

En total, son seis los enterramientos datados entre el siglo VII y IX. Dos en el cruce entre las actuales calles de Nuestra Señora de Ayala y de San Martín. Por un lado, el enterramiento 83, (a 1 σ (61,4 %) 640-690 d.C. y a 2 σ (95,4 %) 630-780 d.C.), ligeramente más reciente que el enterramiento 50. Por otro, el enterramiento 90, (a 1 σ (68 %) 685-775 d.C. y a 2 σ (95,4 %) 660-820 d.C.), algo anterior a los enterramientos 46 y 72. En general, se pudieran datar en la segunda mitad del siglo VII o en el siglo VIII y pudieran ser perfectamente coetáneos a los más septentrionales. Cuatro en la zona central de la actual calle San Martín, más cerca del edificio religioso: enterramiento 124, (a 1 σ (61,9 %) 770-870 d.C. y a 2 σ (95,4 %) 690-890 d.C.), enterramiento 126, (a 1 σ (68,2 %) 690-860 y a 2 σ (95,4 %) 680-880 d.C.), enterramiento 162, (a 1 σ (68,2 %) 775-880 d.C. y a 2 σ (86,6 %) 760-900 d.C.) y enterramiento 188, (a 1 σ (68,2 %) 770-890 d.C. y a 2 σ (85,5 %) 760-900 d.C.). La datación general de este conjunto se sitúa en el siglo VIII y IX, por lo que es ligeramente posterior a la de los anteriores.

En definitiva, a partir de la segunda mitad del siglo VII d.C. la necrópolis se localiza fuera del edificio religioso, en un área del yacimiento sin huellas de un anterior uso funerario y con la suficiente amplitud para abrir nuevas fosas sin tener que alterar otras anteriores. La secuencia de esta necrópolis es difícil de recrear. Dos enterramientos situados en la actual calle Nuestra Señora de Ayala marcan el comienzo de este cementerio en la segunda mitad del siglo VII o principios del VIII. El resto ya dan cronologías más recientes que nunca llegan a pasar el siglo IX. En este sentido, es significativo que los enterramientos con una datación más avanzada se sitúen en la zona central de la actual calle San Martín y por lo tanto, más cerca del edificio. Parece ser que desde su primera ubicación y debido a su propio crecimiento, la necrópolis se va desplazando hacia el suroeste, hasta llegar de nuevo a las inmediaciones del gran edificio.

[22] No es posible determinar una cifra exacta, ya que ha sido imposible individualizar todos los enterramientos y es posible que algunos *a priori* correspondientes a esta fase de la necrópolis sean posteriores o, al contrario, otros incluidos en la fase posterior realmente fueran de ésta.

Hobi bakaneko nekropolia garatzen zen aldi berean, zenduei lur emateko modu berri bat azaldu zen, ondo zehaztutako ezaugarriak zituena bera. Hogeiren bat hilobi dira, paretekin egituratuak eta lauza handiekin estalirik. Hasieran aztarnategiaren hegoaldeko muturrean egokitu zituzten horrelakoak. Berriro ere aurrez ehorzketarik izan ez zuen eremu zabal bat bila zuten. Aurreko hilerriarekin gertatu bezala, aztarnategiko beste eremu batzuetara hedatuz joan zen jatorrizko kokalekua.

Plaza aldeko hobi bakuneko hilobien aldi berekoa da hilerri honen kronologia. Kasu honetan nola harreman estratigrafikoek hala C14ren bidezko azterketa analitikoek eskaintzen dituzte datuak. Harreman estratigrafikoei dagokienez, badakigu ebaki egiten dituztela VIII. mendean datatutako egitura induskatuak amortizatzen dituzten betegarriak, eta gutxienez bat IX. mende amaierako edo X. mende hasierako betegarriak, zoruaren maila berdintzeko betegarriak, estalita dagoela, eta beste bat ondorengo aldiko 20. zenbakiko hilobiak, X. mende ondorengoak, ebakitzen duela. C14ren bidezko azterketa analitikoei dagokienez, hiru datazio egin zirela esan behar dugu. Guztiak zeuden aztarnategiaren hegoaldean: 14. zenbakiko ehorzketa (1 σ (%68) K.o. 780-970 eta 2 σ (%95,4) K.o. 770-980), 144. zenbakikoa (1 σ (%68,2) K.o. 700-870 eta 2 σ (%95,4) K.o. 680-890) eta 168. zenbakikoa (1 σ (%68,2) K.o. 770-880 eta 2 σ (%95,4) K.o. 690-950). Uste bezala, ezkutatutako data hauek K.o. 770. eta 880. urte bitarteko datazio orokorra iradokitzen dute ehorzketa guztiontzat.

Laburbilduta, honako hau litzateke aldi honetako nekropoliaren sekuentzia.

VII. mende amaieran, beste eremu batera aldatu zuten ordura arte eraikin erlijioso handiari atxikita egondako nekropolia, eraikinarekin inolako loturarik ez zuen eremura. Hilobiak lehenik egungo Nuestra Señora de Aiala kalearen iparraldeko atal osoan zehar egokituko zituzten, baina gero hego-mendebalderanzko bidea egingo zuten eraikinaren inguruetara iristeraino. Hobi bakunetan antolatuta zeuden hilobiok, hilkutxek ez zuten iltzerik, ez zuten ostilamendurik ez eta depositurik ere, eta espazioan ondo banatuta zeuden. Hilerri eredu hau nagusitu zen VIII. eta IX. mendeetan, eta seguru asko harrizko hilobiek ezaugarritutako nekropoli eredu berriaren aurreneko uneekin bat egingo zuten. Hilobi hauek ere aztarnategiaren hegoaldeko leku zehatz batean egokitu zituzten, baina geroago hegoaldeko beste leku batzuetara hedatuko ziren. Agerikoa da plan baten arabera jardun zutela puntu batzuk okupatzeko eta beste batzuk ez okupatzeko garaian. Leku zabalak aukeratu zituzten, nahikoa azalera zutenak hilobiak espazio izaerako arazorik gabe egokitzeko. Ildo honetatik, berriro ere azpimarratuko dugu ehorzketa guztien artean gordetzen den errespetua, horrek agerian uzten baitu orduko biztanleek ondo zekitela aurrekoak non zeuden, eta haiek ez kaltetzeko interesa zutela.

Nekropoliaren kokapen berriak baldintzatu egingo zuen eraikin handiaren inguruan garatzen ari zen bizitokia. Amortizatu egin zituzten aurreko aldian erabiltzen zituzten egitura negatibo batzuk. Eta beste egitura berri batzuk agertzen dira hilerriak artean okupatu ez zituen eremuetan. Haien ondoan lehenengo aldiz ageri dira harrizko horma hondakinak, soilik aurreneko errenkada kontserbatzen dituztenak. Eraikin

Al mismo tiempo que se está desarrollando la necrópolis de fosa simple, aparece un nuevo tipo de inhumación con unas características muy bien definidas. Se trata de una veintena de enterramientos con estructuras de muretes y cubiertas formadas por grandes losas. En principio, este nuevo conjunto de tumbas se localizan en la zona más al sur del yacimiento. De nuevo, se busca un espacio amplio y carente de inhumaciones previas. Al igual que ocurre con el cementerio anterior desde su ubicación original se ira desplazando a otras zonas del yacimiento.

Su cronología es coetánea a las tumbas de fosa simple de la zona de la Plaza. En este caso, los datos los proporcionan tanto sus relaciones estratigráficas como las analíticas de C14. Sobre sus relaciones, sabemos que están cortando a rellenos de amortización de estructuras excavadas datados en el siglo VIII y que, al menos una de ellas, está cubierta por un relleno de nivelación datado a finales del siglo IX o principios del X y otra está cortada por el enterramiento 20 de la fase posterior, ya fechada a partir del siglo X. Respecto a las analíticas de C14, se realizaron tres dataciones. Todas correspondían a individuos situados en la zona sur del yacimiento: enterramiento 14, (a 1 σ (68 %) 780-970 d.C. y a 2 σ (95,4 %) 770-980 d.C.), enterramiento 144, (a 1 σ (68,2 %) 700-870 d.C. y a 2 σ (95,4 %) 680-890 d.C.) y enterramiento 168, (a 1 σ (68,2 %) 770-880 d.C. y a 2 σ (95,4 %) 690-950 d.C.). Tal y como se pensaba, el solapamiento de estas fechas sugería una datación global para todas ellas entre los años 770 y el 880 d.C.

En resumen, la secuencia de la necrópolis durante esta fase sería la siguiente.

A finales del siglo VII la necrópolis, hasta ese momento asociada al gran edificio religioso, se desplaza a una nueva área sin relación con aquel. Estas tumbas se ubicarían primeramente por todo el tramo norte de la actual calle Nuestra Señora de Ayala y por la intersección entre ésta y la calle San Martín, para posteriormente ir avanzando hacia el suroeste hasta llegar a las inmediaciones del edificio y se definirían por su tipología de fosa simple, la falta de clavos de ataúdes, la ausencia de ajuares y depósitos y su perfecta distribución espacial. Este modelo de cementerio funcionaría durante los siglos VIII y IX y posiblemente conviviría con los primeros momentos de un nuevo tipo de necrópolis caracterizado por las tumbas de muretes. Estas inhumaciones se localizan también en una zona concreta al sur del yacimiento, para irse desplazando paulatinamente a otras zonas del mismo. Parece evidente una planificación a la hora de ocupar algunos puntos y respetar otros. Se eligen zonas amplías en las que exista una superficie suficiente para poder distribuir las tumbas sin problemas de espacio. En este sentido es importante volver a destacar el respeto existente entre todas las inhumaciones, que indica un conocimiento de las anteriores y un interés en no alterarlas.

La nueva ubicación de la necrópolis va a condicionar el hábitat que se iba desarrollando alrededor del gran edificio. Algunas estructuras negativas en uso durante la fase anterior son amortizadas. Además, aparecen otras nuevas en zonas todavía no ocupadas por el cementerio. Junto a ellas aparecen por primera vez restos murarios de piedra, de los que apenas se conserva su primera hilada. Son construcciones po-

txiroak dira, buztinez batutako harri landu gabeekin altxatutako hormekin, eraikin handiaren ekialdetik mendebalderako eta iparraldetik hegoalderako ardatzari jarraitzeko ahaleginak egiten dituztenak. Oso zaila da eraikin hauek nolakoak ziren aurreratzea, ez dugu nahikoa daturik guztiz harriz eginak ziren ala zokaloen gainean material galkorrez altxatutako paretak zituzten eraikinak ziren esateko. Eta ez da erraza harrizko zimentarri hauek garai hartan berean induskatutako beste egiturekin, elkarrekin egitura handiagoak osatu zitzaketenekin, harremanetan jartzea.

Hondakin hauen guztien presentziak, nola hondakin negatiboen ala eraikitakoen presentziak, espazioa biziki okupatu zutela adierazten digu. Hala eta guztiz ere egoera kaskarrean kontserbatzen dira, eta kasu askotan egon badaudela baizik ezin dugu esan. Gisa honetan, hondakinen eta nekropoliaren arteko garapen diakronikoa bereizi ahal izan dugu, baina ezin izan dugu hondakinei buruzko interpretaziorik eskaini.

Bukatzeko otoitz egiteko eraikina izango dugu hizpide. Hartan ez da aldaketa nabarmenik gertatu, hileta espazio izateari utzi ziola kontuan hartzen ez badugu. Beraz, ez dirudi haren egiteko erlijiosoan aldaketarik izan zenik.

6. aldia. K.o. X. mendearen lehen erdia - K.o. XII. mendea

Hala eta guztiz ere, aldaketa handia bizi izan zuen eraikin erlijiosoak IX. mende amaieran edo X. mende hasieran. Zoruaren maila berdintzeko betegarri bik, X. mendekoak, amortizatu zituzten bataiategia eta bataiarria. Agian amortizatu ere zuten hego-ekialdeko gela, baina oso-oso datu gutxi dauzkagu prozesu honen inguruan. Eraikinaren gainerakoak, baina, zutik jarraituko zuen, nahiz eta honek ere aldaketa garrantzitsu bat ezagutuko zuen. Izan ere, silo asko eta asko ireki zituzten nola areto nagusian hala absidean.

Zaila da biltegiratzeko egitura hauek noiz induskatzen hasi ziren zehaztea. Antza X. mendean bertan amortizatu zituzten aurreneko siloak, eta horrexegatik uste dugu guk siloak bataiategia eta hego-ekialdeko gela amortizatzen zituzten aldi berean irekiko zituztela. Siloak gutxienez XII. mendera arte egokitu zituzten bi gela hauetan, orduan estaliko baitzuten ireki edo induskatutako azken multzoa. Seguru asko haren amaierak bat egingo zuen eraikin erlijioso handienarekin, siloak amortizatu zituzten une berean berdindu baitzuten eraikin handiko gainazal osoa. Pentsatzekoa da zoruaren maila berdindu aurretik eraikina arpilatzen hasiak izango zirela. Izan ere, baliteke arpilatze honetarik etorritako soberakinak irekitako azken siloak amortizatzeko baliatu izana. Horren erakusgarri da betegarrietako batean aurkitutako hondakin arkitektonikoen puskak. Geroago nekropoli gisa baliatu zuten espazio hau guztia eraikin erlijioso berriaren babespean.

Laburbilduta, eraikinak aldaketa garrantzitsua bizi izan zuen, aldaketa hori ondo asko hautematen da gela biren amortizazioan eta zutik jarraitzen zuten geletan irekitako silo kopuru handian.

Bataiategiaren amortizazioa ondo egiaztatuta dago, eta gainera zentzuzko prozesu bati erantzuten diola ematen du, bataioaren erritoa uretan murgiltzetik bres con un aparejo de mampostería trabado con barro, con orientaciones que intentan seguir el eje este-oeste y norte-sur del gran edificio. Su alzado es muy complicado de recrear pues ni siquiera tenemos los datos suficientes para hablar de zócalos con levantes en otros materiales perecederos o de paredes íntegramente erigidas en piedra. Tampoco resulta sencillo relacionar estas cimentaciones de piedra con otras estructuras excavadas de este mismo momento con las que podían conformar otras mayores.

La presencia de todos estos restos, tanto negativos como construidos, indica que durante esta fase hay una ocupación intensa del espacio. Sin embargo, su mala conservación ha motivado que en muchos casos sólo sea posible atestiguarla, sin poder ir mucho más allá. Así, se ha podido observar el desarrollo diacrónico entre los distintos restos y la necrópolis, pero no ha sido posible realizar ningún tipo de interpretación sobre ellos.

Finalmente, hay que hablar del edificio de culto. En él no se evidencia ninguna modificación destacable, más allá del ya referido abandono como espacio funerario, por lo que su funcionalidad religiosa no parece sufrir ninguna variación.

Fase 6. Primera mitad del siglo X d.C. - siglo XII d.C.

Sin embargo, en los últimos años del siglo IX o los primeros del siglo X, el edificio religioso sufre una fuerte trasformación. El baptisterio y su pila bautismal son amortizados por dos rellenos de nivelación, datados en el siglo X. Quizás, la sala sureste también se amortizó, sin embargo apenas existen datos sobre este proceso. El resto del edificio, en cambio, sigue en pie, aunque también va a experimentar una novedad importante. Ésta es la apertura de un gran número de silos tanto en la gran aula como en el ábside.

Resulta difícil de precisar en qué momento se empiezan a excavar estas estructuras de almacenaje. Parece ser que los primeros silos están amortizados ya en el siglo X, por lo que consideramos que su apertura pudo ser una acción coetánea a la amortización del baptisterio y la sala sureste. Su presencia en estas dos salas está constatada hasta, al menos, el siglo XII cuando se colmata el último conjunto abierto. Posiblemente su final coincide con el del gran edificio religioso, pues a la vez que se rellenan, toda la superficie del gran edificio es nivelada. Es de suponer que previamente a esta nivelación el edificio ya empezaría a ser saqueado. De hecho, pudo utilizarse parte de los sobrantes de este saqueo en la amortización de los últimos silos abiertos. Ejemplo de ello es la gran cantidad de restos arquitectónicos fragmentados que se han localizado en alguno de sus rellenos. Posteriormente, todo este espacio se utilizará como necrópolis al amparo de un nuevo edificio religioso.

En definitiva, el edificio sufre una importante modificación perfectamente visible en la amortización de dos de sus salas y en la apertura de un gran número de silos en el suelo en las que siguen estado en pie.

La anulación del baptisterio está perfectamente constatada y además parece responder a un proceso lógico, motivado por el cambio en el ritual del bautis-



5. eta 6. aldiko planoak. (Iterbide S.C.).

Planos de las Fases nº 5 y 6 (Iterbide S.C.).

urez ihinztatzera aldatu baitzen. Arazo gehiago planteatzen ditu beste aretoaren amortizazioak. Era berean abandonatua izan zela pentsatzera eramaten duen datu bakarra haren barruan silorik ez izatea da. Hala eta guztiz ere, ezagutzen ez ditugun beste arrazoi batzuek eragin zezaketen aipatu absentzia.

Antza gela biak amortizatu zituzten une berean hasi ziren lehenengo silo multzoa induskatzen. Geroago eta prozesu diakronikoari jarraiki, silo sorta berriak ireki zituzten XII. mendera arte, eraikina guztiz abandonatzeko erabakia hartu zuten arte. Silo bakoitza bete zuten unearen arabera ezaugarri batzuk edo bestetzuk izango zituzten betegarriek. Gaingiroki esan dezagun silo zaharrenetan ia ez dagoela zeramikazko hondakinik ez eta eraikuntza hondakinik ere, eta silo berrienetan ugari direla nola zeramikazko hondakinak hala eraikuntza izaerakoak. Beste datu garrantzitsu bat da silo guztiek errespetatu egiten dituztela eraikinari eusteko funtsezko aldeak (hormak, zutarrien euskarriak, absidera iristeko eskailera maila) eta eraikineko liturgia aldea (pribilegiozko hilobia, aldarea), eta horrek guztiak eraikinak bere izaera erlijiosoari eusten ziola iradokitzen digu. Beraz okerra da Vasconia en la Alta Edad Media23 artikuluan planteatzen genuen hipotesia, hots, eraikina biltegi edo cellaria gisa berrerabili zutenaren eta silo multzo honen presentzia errenta biltzeko eta zoru sakratuan biltegiratzeko prozesuarekin lotuta behar zuenaren hipotesia.

[23] Loza Uriarte, M. eta Niso Lorenzo J. (2011), *op.cit.*, 240-242. orr.

mo que pasaría de inmersión a aspersión. Más problemas plantea la amortización de la otra sala. El único dato que permite pensar en qué también se abandonó es la ausencia de silos en su interior, sin embargo esta ausencia pudo estar motivada por otras circunstancias desconocidas.

La apertura del primer conjunto de silos parece producirse en el mismo momento de la amortización de las dos salas. Posteriormente y en un proceso diacrónico, se van abriendo nuevos conjuntos de silos hasta el siglo XII cuando se decide abandonar completamente el edificio. Según el momento en que se va colmatando cada silo, sus rellenos tienen unas características específicas. A grandes rasgos, los más antiguos apenas dan restos cerámicos ni constructivos, mientras que los más recientes tienen un gran volumen de restos tanto cerámicos como constructivos. Otro dato importante es que todos los silos respetan a las partes elementales para la sustentación (muros, apoyos de los pilares, escalón de acceso al ábside) y la liturgia (tumba de privilegio, altar) del edificio lo que da a entender que se seguiría manteniendo su carácter religioso. Este hecho supone que la hipótesis que planteábamos en el artículo de Vasconia en la Alta Edad Media[23], de la reutilización del edificio como almacén o *cellaria* era errónea y que la presencia de este conjunto de silos debía estar relacionada con el proceso de captación de renta y su almacenamiento en suelo sagrado.

[23] Loza Uriarte, M. y Niso Lorenzo J. (2011), *op.cit.*, pp. 240-242,

Nekropoliak ia ez du aldaketarik ezagutuko aldi honetan. Ehorzketek ezaugarri bertsuak ageri dituzte, eta horrek izugarri zaildu du zein aldiri dagozkien zehaztea. Izan ere soilik C14ren bidezko azterketa analitikoek eman dute haietako askoren kronologia zehazteko aukera. Guztira bost dira aldi honi dagozkion ehorzketak: 13. zenbakiko ehorzketa (1 σ (%68) K.o. 890-975 eta 2 σ (%89) K.o. 860-1020), 20. zenbakikoa (1 σ (%61) K.o. 810-970 eta 2 σ (%95,4) K.o. 770-980), 47. zenbakikoa (1 σ (%68) K.o. 895-990 eta 2 σ (%95,4) K.o. 880-1020), 81. zenbakikoa (1 σ (%68) K.o. 990-1035 eta 2 σ (%95,4) K.o. 970-1150) eta 183. zenbakikoa (%68,2) K.o. 890-985 eta 2 σ (%95,4) K.o. 880-1020).

Bost ehorzketa hauek aztertu eta aurreko aldiaren ondoan aldaketa txikiren bat hauteman daiteke. Funtsean deigarria da hauek aztarnategiko eremuetan oso barreiatuta azaltzea. Une honetan izango zen nekropolia zabalen. Bi ehorzketa dokumentatu genituen, iparraldean bata (13. zenbakikoa) eta hegoaldean bestea (183. zenbakikoa) bien artean gutxi gorabehera laurogei metro gordeta lerro zuzenean. Aurreko aldiaren amaiera aldean ehorzketen kontzentraziorik handiena eraikin handiaren inguruetan egokitu zutela ikusten bagenuen, oraingoan argi eta garbi ikusten dugu nola berriro ere eraikinetik urrutira dauden lekuetan eman zieten lur hauei, lehendik ere zenduak lurperatu zituzten eremuetan. Agian espazioaren txikiak eragin zuen aztarnategiko beste eremu batzuetara aldatu izana, errespetatu egin nahiko baitzituzten hartan lurperatuak. Lehendik ehorzketaren bati leku egin arren (esate baterako aurreko aldiko 54. eta 87. zenbakietako ehorzketak ebakitzen ditu 47. zenbakikoak) , oroitzapenak lausoagoak diren lekuak bila zituzten.

Nekropoliarekin batean, egitura negatiboen eta eraikien sail batek agerian uzten du aldi honetan espazioaren okupazio garrantzitsua. Aipatu egitura guztiak zenduei lur emateko eremu berean daude, eta beraz, gehien-gehienek ehorzketekin estu lotuta daudela esan behar dugu. Aldi honetan estu lotuta jarraitzen dute hileta munduak eta habitatak, ez dago bien arteko hausturarik, baizik eta ageriko harremana. Kontua da espazio osoa okupatzea, nola zenduei lur emateko hala bestelako jarduera motak garatzeko.

Esate baterako, oso deigarria da ehorzketa batzuen eta etxola-hondo baten modura erdi induskatutako egituraren eta hiru siloen arteko harremana. Alde batetik, etxola-hondoak 90. zenbakiko ehorzketa (aurreko aldian VIII. mendean datatua) ebakitzen du, eta silo batek 83. zenbakikoa (aurreko aldian VII. mende amaiera eta VIII. mende artean datatua). Bestetik, 81. zenbakiko ehorzketak (aldi honetan XI. mendean datatua) etxola-hondoa amortizatzen duten betegarriak ebakitzen ditu. Kasu honetan, hileta okupazio handiko une biren artean ustezko habitat alde batek eta biltegiratzeko gune batek osatutako bizitoki bat eraikitzeko erabakia hartu zutela ematen du. Multzo hau X. mendekoa izan daiteke, eta beraz, eraikinaren barruko aurreneko siloak induskatu zituzten garai berekoa izan liteke.

Bestelako adibidea da hainbat ehorzketek itxura batean errespetatzen duten egituraren bat. Buztinez batutako harri landu gabeez egindako horma bi dira,

La necrópolis apenas va a sufrir novedades en esta fase. Los enterramientos siguen presentando las mismas características, lo que ha provocado que en muchos casos sea muy complicado diferenciar a qué fase corresponden. De hecho, tan sólo las analíticas de C14 han permitido determinar la cronología de muchos de ellos. En total, cinco son los enterramientos correspondientes a esta fase, con los siguientes resultados: enterramiento 13, (a 1 σ (68 %) 890-975 d.C. y a 2 σ (89 %) 860-1020 d.C.), enterramiento 20, (a 1 σ (61 %) 810-970 d.C. y a 2 σ (95,4 %) 770-980 d.C.), enterramiento 47, (a 1 σ (68 %) 895-990 d.C. y a 2 σ (95,4 %) 880-1020 d.C.), enterramiento 81, (a 1 σ (68 %) 990-1035 d.C. y a 2 σ (95,4 %) 970-1150 d.C.) y enterramiento 183, (a 1 σ (68,2 %) 890-985 d.C. y a 2 σ (95,4 %) 880-1020 d.C.).

El análisis de estos cinco enterramientos permite observar alguna pequeña diferencia respecto a la fase anterior. Fundamentalmente, llama la atención su localización en áreas muy dispersas del yacimiento. Ahora es cuando la necrópolis alcanza una mayor extensión, habiéndose documentado dos enterramientos, uno al norte (ent.13) y otro al sur (ent.183), a una distancia de unos ochenta metros en línea recta. Si en los últimos momentos de la fase anterior, se observaba como la mayor concentración de enterramientos se localizaba en las inmediaciones del gran edificio, ahora se puede ver como se vuelve a enterrar en zonas más alejadas del mismo, en las que ya se había inhumado con anterioridad. Quizás la falta de espacio, al querer respetar a los enterramientos allí presentes, motiva este nuevo traslado a otras áreas del yacimiento. Se busca zonas en las que, a pesar de existir algún enterramiento (por ejemplo el ent.47 corta al ent.54 y ent.87 de la fase anterior), el recuerdo es menor.

Junto a la necrópolis, una serie de estructuras tanto negativas como construidas ponen de manifiesto la importante ocupación del espacio durante esta fase. Todas ellas se localizan en la misma área en la que se está inhumando, por lo que la gran mayoría tienen alguna relación con los enterramientos. En esta fase el mundo funerario y el de hábitat siguen estrechamente relacionados, sin que exista una división entre ambos sino una visible interrelación. Lo que interesa es ocupar todo el espacio ya sea para enterrar a los muertos o para desarrollar otro tipo de actividades.

Begi bidezko miaketa lana behar bezala egiteko hiru espaziotan banatu genuen ikertu beharreko eremua, betiere lurzoruaren berezko egokieraren arabe-

El interés en el estudio de este emplazamiento estaba basado en las entradas bibliográficas que se tenían sobre él que indicaban la existencia de materiales arqueológicos en superficie datables entre el Bronce Final/Edad del Hierro I y la Romanización, sin que, en principio, hubiese continuidad de poblamiento. A estos materiales se sumaba la existencia de espacios aterrazados y terraplenes que podían constituir defensas en un espacio físico situado en un punto de control entre la Llanada Alavesa y el acceso al Territorio Histórico de Gipuzkoa por Bergara.

A este planteamiento inicial, original de los años 70 y 80, se había añadido, en los años 90, una posible relación con los hallazgos de Aldaieta y Espikulatxe, lo que aumentaría el desarrollo cronológico del asentamiento.

Para mejorar el conocimiento del espacio se planteo una campaña de valoración mediante tres métodos complementarios: prospección visual, sondeos estratigráficos y prospección mediante magnetometría.

La prospección visual nos hizo dividir nuestra área de investigación en tres espacios distintos, respondiendo a la disposición natural. El monte de Aldaia presenta,

ra. Aldaia mendia oso malkartsua da mendebaldetik, baina iparraldean, ekialdean eta hegoaldean aldapak aski leunak dira, terraza txikiekin, nahiz eta ertz batek ixten dituen berriro ere aldapa malkartsuaren sentsazioa areagotuz. Mendiaren hegoaldean ibarbide bat dago, egungo Arroiabeko kontzejua eta urtegia batzen dituena. Ibarbide hau terrazetan banatuta dago, eta sarrera egiten dio Espikulatxeko eremuari; beste ebaki batek bereizten ditu biak.

Hiru espazioek duten ezaugarri komunari dagokionez, esan dezagun Aldaia mendiko baso aldeek eta gainerako eremuetako zuhaixkek eta belar espezie haziek oso mugatzen zutela ikusgaitasuna, eta horrek oso baldintzatu zituela gainazala miatzeko lanak. Eta horri gehitzen badiogu miatutako eremua aspaldidanik dagoela landu gabe, gainazalean material arkeologikorik aurkituko ez genuela ondorioztatu daiteke, baina hilarri baten zati bat topatu genuen mendi honetan iristen zaila den leku batean.

Bestalde, miaketa lanek aukera eman ziguten Aldaia eta ibarbidea bereizten dituen ertza landua izan zela egiaztatzeko, landua bertako babesteko gaitasuna emendatzeko xedean. Airetiko irudiak eta batez ere LiDAR-etik etorritakoak azterturik, eta ertz honen baitan hilarria aurkiturik, alde honetan egin beharreko zundaketak planteatu genituen.

Espazio honetako giza okupazioa egiaztatzeko saioari erantzuten zioten zundaketek, gizakien okupazioa noraino iristen zen eta denboran zenbat iraun zuen jakin nahi genuen.

Aldaia mendian 5 zundaketa egin genituen, hiru goiko aldean, bat tarteko terraza batean eta azkenekoa ertzean. Mendiaren goiko aldean azpiko harri naturalaren perfilak azaleratzen dira, angelu ortogonalak eratuz, nola haustura bertikaletan hala horizontaletan, eta horrek toki hauek etxebizitza erdi harpetar gisa antolatu zezaketela pentsatzera eraman gintuen. Hiru zundaketak induskatuta aukera izan genuen espazio hau II. eta I. Burdin Aroko okupazio une batekin lotu litekeen zeramikazko aztarna kopuru ez txiki bat berreskuratzeko, baina ez ziguten tokiko habitatari buruzko hasierako hipotesia egiaztatzeko modurik eskaini. Zirkunstantzia bera egiaztatzen da mazelaren erdialdera irekitako zundaketan.

Aitzitik, horma egitura baten presentzia egiaztatzeko modua eskaini zigun ertzean induskatutako zundaketak. Horma hori gutxi gorabehera bi metro zabal da, eta lur jotako harriak ditu atxikirik nola kanpotik hala barrutik. Alde biak induskatuta hormako betegarria identifikatu genuen, baina ezin izan genuen egiaztatu alde bakar batean ere haren aurpegia.

Hormaren barruko aldera eroritako harriak altxatuta, tornuan landutako zeramikak biltzen zituen maila geratu zen agerian. Zeramikak ore argiez eginak dira, zeltiberiar moldekoak dira, eta harri naturalaren gainean egokitzen dira.

Lau zundaketen bidez aztertu genuen ibarbidea, eta espazio hau terrazetan moldatu dela egiaztatu genuen, segur asko haiei laborantza erabilera emateko. Bi zundaketek emaitza positiboak eskaini zituzten. Batean paldoari leku egiteko zulo bat erregistratu genuen. Zuen su lado oeste, un potente cortado, mientras que por sus lados norte, este y sur forma una pendiente más o menos suave, con pequeñas terrazas, que aparece cerrada por un reborde en el que se vuelve a acrecentar la sensación de cortado. Al sur del monte se plantea una vaguada que permite la comunicación entre la actual localidad de Arroiabe y el pantano, dividida en distintas terrazas, y, además, da acceso a la zona de Espikulatxe, de la que está separado por un nuevo cortado.

Como característica común a los tres espacios hay que decir que los trabajos de reconocimiento de superficie se vieron afectados por la escasa visibilidad que permite tanto la cubierta boscosa del monte de Aldaia como el crecimiento de especies arbustivas y herbáceas en el resto. Si a esta situación añadimos que la zona prospectada hace tiempo que no está en cultivo se podrá deducir que la recuperación de materiales arqueológicos en superficie fuese nula, salvo por la localización de un fragmento de estela en una parte poco accesible del monte.

Por otro lado, los trabajos de prospección sí que nos permitieron verificar que el reborde que separa Aldaia de la vaguada podría haber sido trabajado para mejorar sus capacidades defensivas. El repaso de las imágenes aéreas, pero sobre todo de las procedentes de LiDAR, y la localización de la estela al interior de este reborde, nos sirvieron para plantear los sondeos en la zona.

La apertura de sondeos respondió al intento de verificar la ocupación humana del espacio, tanto en su vertiente horizontal, o de extensión física, como vertical, o de extensión temporal.

En el interior del monte de Aldaia se abrieron 5 sondeos, tres en la parte más alta, 1 en una terraza intermedia, y el último sobre el borde. En la parte superior del monte asoman los perfiles de la roca natural subyacente, formando ángulos ortogonales, tanto en sus roturas verticales como horizontales, lo que nos llevó a pensar en un posible acondicionamiento de estos lugares como espacios de viviendas semirupestres. La excavación de los tres nos permitió recuperar un número no pequeño de evidencias cerámicas relacionables con un momento de ocupación del espacio durante la Edad del Hierro II y I, pero no verificar la hipótesis de partida sobre el hábitat del lugar. Esta misma circunstancia se verificó en el sondeo abierto a media ladera.

El sondeo abierto en el reborde, sin embargo, nos permitió verificar la existencia de una estructura muraría, de unos dos metros de anchura, a la que se habían adosado, tanto por su lado exterior como interior, los derrumbes de la misma. La excavación de ambos lados nos ayudó a identificar el relleno del muro sin que pudiésemos comprobar que este presentase caras en ninguno de los dos lados.

El levantamiento del derrumbe interior produjo la exhumación de un nivel que contenía cerámicas realizadas a torno con pastas claras, de factura celtibérica, y que situaba por encima de la roca natural.

La valoración de la vaguada, mediante cuatro sondeos, nos permitió verificar que el espacio se ha ido aterrazando, probablemente para usos agrícolas. Dos de los sondeos arrojaron resultados positivos, en uno de ellos por la localización de un agujero de poste que ha-



Aldaiako finkamendua. Airetiko argazki bertikalekin eta LiDAR sistemaren bidez, ezkutuko elementuak aurkitzeko, esate baterako herriko harresia aurkitzeko, lortutako emaitzak.

Asentamiento de Aldaia. Resultados obtenidos con la fotografía aérea vertical, y mediante el uso del LiDAR en lo que se refiere a la localización de elementos ocultos, como la muralla del poblado.

loa eskuz eta tornu motelez egindako zeramikazko piezak biltzen zituzten lurrezko deposituek estalita zegoen. Aipatu piezak Brontze Aroaren amaieraren eta Burdin Aroaren inguruan kokatu behar dira.

Espazio honetan egindako beste zundaketa positiboan, laborantzari emandako egungo gainazalaren azpian, terraza zahar baten aurreko aldea ikusi dugu sekuentzia estratigrafikoan. Terraza hau muinoan dagoen hormatik behera etorritako harriekin edo zuzenean hormatik ateratako harriekin osatua egongo da segur asko. Egitura berri honek estali egiten du eskuz eta tornu motelez egindako zeramikazko material oparoari leku egiten dion maila, behera etorritako harriek eratua eta garai berekoa. Depositu honek erabilerarako zoruaren maila zigilatzen zuen; zoru hau zanpatutako buztinez osatua da, eta landareak erabili zituzten haren trinkotasuna emendatzeko. Zoru honetan haur bat lurperatzeko ebaki bat zegoen. Metodo antrakologikoak erabili eta haurraren eskeletoa berreskuratuta material organikoak lortu genituen, C-14ren bidez eta OxCal bidez datatuak eta kalibratuak izan direnak. Honatx emaitzak: haurra K.a. 400. eta 190. urte bitartean zendu zen (2 sigma eta %95,4), eta zorua K.a. 760. eta 400. urte bitartean egin zuten (2 sigma eta %95,4; lagina K.a. 600-400 urte bitartean kokatzen da %57,8rekin, nahiz eta %24,9an K.a. 760-680 urte bitartean kokatzen den eta %12,8an K.a. 670-610 urte bitartean).

Espikulatxera bidean irekitako beste zundaketei dagokienez, esan dezagun esku-hartzearen gainerakoan berreskuratutako zeramikazko materialekin bat datozen materialak berreskuratzeko aukera izan dela positiboena.

Ildo honetatik, materialei dagokienez, aipagarria da azaleratik hurbilen dauden mailetan TSH zatiak aurkitu izana, erregistroan sakondu ahala desagertu egiten baitira.

Bukatzeko, eta magnetometriaren bidezko miaketari dagokionez, miaketa mota hau zundatutako lursail batzuetan burutu genuela esan behar dugu, ibarbidean zehazki, eta lortutako emaitzak berretsi egin zirela, egungo terrazen aurreko terrazaren presentzia

bía quedado cubierto por depósitos de tierra en los que se contenían piezas cerámicas realizadas a mano y a torno lento, de posible adscripción cronológica en el entorno del final de la Edad del Bronce y la Edad del Hierro.

En el otro sondeo positivo abierto en este espacio hemos visto en la secuencia estratigráfica la existencia, bajo la superficie actual de cultivo, el frente de una antigua terraza formado, muy probablemente, por materiales pétreos recuperados bien del derrumbe del muro localizado en el cerro o bien extraídos directamente de allí. Esta nueva estructura cubre lo que nos parece un nivel de derrumbe en el que hemos recuperado abundante material cerámico realizado a mano y con torno lento, con la misma adscripción cronológica. Este depósito estaba sellando un nivel de uso/suelo formado por arcillas apisonadas en los que se había utilizado material vegetal para mejorar su compacidad y que presentaba un corte para la inserción de un enterramiento infantil. La práctica de métodos antracológicos y la recuperación del esqueleto infantil han propiciado la recuperación de materiales orgánicos que han sido datados por C-14, y calibrados mediante OxCal, obteniendo que la muerte del infante tuvo lugar entre el 400 y 190 Cal BC (a dos sigmas y al 95,4%), mientras que el suelo pudo hacerse entre el 760 y el 400 Cal BC (a dos sigmas y al 95,4%, la muestra se orienta hacia el 600-400 Cal BC con un 57,8%, aunque al 24,9% estaría entre el 760-680 Cal BC, y al 12,8% entre 670-610 Cal BC).

Del resto de sondeos abiertos, en dirección a Espikulatxe lo más positivo que podemos decir es que nos han permitido la recuperación de materiales cerámicos en consonancia con los recuperados en el resto de la intervención.

En este sentido, en relación con los materiales, cabe destacar que en los niveles más superficiales se han localizado fragmentos de TSH que desaparecen del registro una vez que se profundiza en él.

Finalmente, y en lo que se refiere a la prospección por magnetometría, hay que decir que ésta se ha efectuado en algunas de las parcelas sondeadas, en concreto en la vaguada, confirmando los resultados obtenidos, pudiendo verificar la presencia de la terraza previa a las

egiaztatu ahal izan baitzen eta horma egiturei legozkiekeen lerrokadura batzuk identifikatu baitziren. Eta puntu jakin batzuetan suaren erabilera bizia identifikatu ahal izan genuen, sutegiak dauzkaten espazio eraikien aurrean gaudelako aukerarekin espekulatzeko bidea ematen duena. Gainera hori bat letorke Burdin Aroko haurren ehorzketen presentziarekin.

Teknika hori bera erabili genuen zundatu gabeko lursail batzuetan, eta egiturekin identifikatu litezkeen lerrokadurak topatu genituen; ezinbestekoa da horiek induskatzea hobe zehaztuko badira.

Lanen konklusio gisa, esan dezagun I. Burdin Aroan zehar osatutako lehenengo finkamenduarekin egin dugula topo Arabako Lautadari sarrera egiten dion ibarbidean; eguzki ordu asko dituen tokian dago, eta inguru naturala probesturik babesteko gaitasunak ere baditu. Agian toki honen hazkundeak ekarriko zuen hura txiki gelditzea eta biztanleak Aldaiako muinora aldatzea, eta hura harresi bat eraikita gotortu behar izatea Bigarren Burdin Aroan zehar biztanleak haren baitan babesteko, eta Erromaren etorrera izatea erromatarren Goi Inperioaren garaian zehar desagertu izanaren arrazoia. Data horren ostean, kronologia zehatza eskaintzeko aukerarik gabe baina, terrazetan antolatutako eremu bihurtu zen espazio hau, laboreak hazteko egokia oso.

Guk uste dugu esku-hartze honek bete egin dituela hasietan planteatutako helburuak. Orain arte baino hobe ezaugarritu ahal izan ditugu lekuaren funtzioa eta kronologia, eta administrazioen inbentarioetan proposatzen dena baino espazio apur bat handiagoa okupatu zutela egiaztatu ahal izan dugu. Honenbestez hobe babestuko dugu aztarnategi garrantzitsu hau.

actuales, y localizando algunas alineaciones que se pueden corresponder con estructuras murarías y algunos puntos en los que la acción del fuego es intensa y muy localizada, lo que permite especular con la posibilidad de que estemos ante espacios construidos en los que existen hogares, lo que iría en consonancia con la presencia de enterramientos infantiles de la Edad del Hierro.

También se ha utilizado esta técnica en parcelas donde no hemos sondeado, localizando alineaciones que podrían identificarse con estructuras, pero que necesitarán de un proceso de excavación para su definición más concreta.

Como conclusión a los trabajos vamos a proponer que nos hemos encontrado con un emplazamiento inicial, creado durante la Edad del Hierro I, en una vaguada que se abre a la Llanada Alavesa, con buena insolación y posibles capacidades defensivas aprovechando el entorno natural. Quizás el crecimiento de este emplazamiento hizo que se quedase pequeño y que se produjese el traslado de población al cerro de Aldaia, y que esté tuviese que fortificarse mediante la erección de una muralla que cobijase en su interior a la población durante la Segunda Edad del Hierro, y que la llegada de Roma fuese la responsable de su desaparición durante el Alto Imperio Romano. Con posterioridad a esa fecha, pero sin poder ofrecer una cronología concreta, el espacio se va convirtiendo en un lugar aterrazado propicio para el cultivo.

Entendemos que la intervención ha cumplido con los objetivos planteados en su inicio. Se ha podido proponer una caracterización cronológica y funcional del lugar mayor que la que teníamos hasta el momento, y definir un área de ocupación del espacio ligeramente más amplia que la que se incluía en los inventarios administrativos, consiguiendo una mejor protección de este importante yacimiento.

F.R. Varón Hernández

A.7. **AIARA / AYALA**

A.7.1. **Zubiete dorrea (Lanteno)**

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños
Finantziazioa: Carlos de Palacio y de Oriol

A.7.1. **Torre de Zubiete (Llanteno)**

Dirección: F. Javier Ajamil Baños
Financiación: Carlos de Palacio y de Oriol

The archaeological intervention carried out in Zubiete tower and its adjacent palace has enabled its historical evolution to be charted. The building does not date back further than the 15th century, and underwent major alterations during the 17th century (the period in which the palace was added) and throughout the 19th century. However, the use and internal distribution of the ground floor remained unchanged for centuries, with an area set aside for storage and another for a stable in which the inhabitants kept small animals for domestic consumption. During the 19th century, the ground floor of the palace was also turned into an animal pen, while the first floor was used for storing agricultural products.

Aiara udalerriko Lanteno auzoko Zubiete dorrea deitua birgaitzeko proiektu bat aurkeztu zutenez, jarduera arkeologiko bat eraman dugu burura, eta do-

Debido a la existencia de un proyecto de rehabilitación de la denominada torre de Zubiete, en Llanteno, municipio de Ayala /Aiara, se ha realizado una actuación

rrearen barruko azalera osoa induskatu dugu, jauregiaren barruko aldean zundaketa arkeologiko bat egin dugu, dorrearen eta jauregiaren hormen irakurketa egin dugu eta multzo arkitektonikoaren kanpoko aldean egindako lanen gaineko kontrol arkeologikoa egin dugu.

Hasteko, dorrearen barruko aldean garbitu egin genuen induskatu beharreko eremua, eta horrek eman zigun aurreneko ustekabekoa, «galburu» baten modura egokitutako harriek eraturiko harzola baten hondakinak geratu baitziren agerian. Zoladura honek zuzeneko harremana zuen lehenengo solairura igotzeko egungo eskailerekin, eskaileren egiturari atxikitzen baitzitzaion. Zoru hau higatuta, harzolaren atal batzuk galduta, harrizko lauzekin, lur harroekin eta, aspaldi ez dela, baita zementuarekin ere berritu zuten. Baina hau induskatu beharreko eremuaren aurre aldeko herenean gertatzen bazen, gure garaiko kronologiako deposituek okupatzen zuten dorrearen behe oineko erdialde eta gibelalde ia osoa. Depositu hauek lehenengo solairura igotzeko eskaileraren aurreneko bi mailak hartzen zituen lur eremuko sakonunea betetzen zuten. Eskaileraren oinetan aska bat aurkitu genuen, harrizko bloke batean landua, eta aipatutako deposituak altxatuta ukuilu bateko harzola geratu zen agerian; zoladura honen erdiko ardatza guztiz lurperatuta zegoen geruza geologikoan. Dorrearen alboan zegoen ukuilurako sarrera, ukuilua sortu zenean ireki zuten hura, baina itxi egin zuten gero, espazio hau animaliak edukitzeko ukuilu izateari utzi zionean.

Aurreko aldeari dagokionez, lauzez eta harri koskoez osatutako zoladura altxa ondoren, zoladuraren oinarriarena egiten zuen depositua induskatu genuen, eta bertan paldoei leku egiteko zulo batzuk eta zurezko ostiko batzuk bereizi genituen, azken hauek ukuilu aldetik oso gertu. Era berean, behe oinean lehendik aurreko harzolaren antzeko beste bat egokitzen zela hauteman ahal izan genuen. Depositu honek zorua berdintzeko beste betegarri bat estaltzen zuen. Betegarri honen azpian hiru mailez osatutako geruza naturala ageri zen: goikoa ibai hondoaren idortzetik eratorritako harea finez eratua; erdikoa neurri askotako errekarriz osatutako alubioizko depositua; eta azpian harriaren deskonposiziotik etorritako kareharriak eta tuparri kareharridunak. Lehen adierazi dugun lur eremuaren jangune artifizialaren ondorioz ez dira gibelaldean arestian adierazitako aurreneko bi mailak ageri.

Iragan mendeko azken hamarraldian berritu zutenez gero, zeharo baldintzatuta egon zen une oro dorrearen kanpo aldeko irakurketa estratigrafikoa. Harri landu gabeen ertzak estaltzen dituen kareorezko zarpiatuak ezinezko egin zuen haren fatxadan burura eramandako aldaketak plano batean egokiro islatzea. Beraz, Zubiete dorrea aipatzen duten dokumentazio bibliografiko urriak eta hormetan irekitako baoen arteko eraikuntza aldeak aintzat hartu behar izan genituen eraikinaren bilakaera historikoa zehazteko. Hala eta guztiz ere, goiko solairuetara iristeko eskailerak kontserbatu izanari esker, dorrearen hormen barruko atalak aztertu eta horiek grafikoki dokumentatu ahal izan genituen. Gisa honetan argi eta garbi bereizi genituen leihoak irekitzeko xedean hormetan egindako ebakiak, baita bere garaian, XVII. mendean, dorrea inguratzen zuten eraikinetarako sarrerak ere. Era berean, gutxienez beste barne banaketa baten arrastoak bereiarqueológica que ha abarcado la excavación de la totalidad de la superficie del interior de la torre, la realización de un sondeo arqueológico en el interior del palacio, una lectura de las unidades edificatorias de la torre y el palacio y el control arqueológico de las obras que se han realizado en el exterior del conjunto arquitectónico.

La excavación del interior de la torre se inició con la limpieza inicial de la zona de excavación, lo que deparó la primera sorpresa al quedar al descubierto los restos de un empedrado de cantos dispuestos «en espiga». Este pavimento estaba claramente relacionado con las actuales escaleras de acceso a la primera planta a cuya estructura se adosaban. El desgaste de este suelo, con la desaparición de partes del empedrado motivó que se reparara con losas de piedra, tierra batida e incluso, recientemente, con cemento. Pero si esto ocurría en el tercio delantero del área de excavación, casi toda la parte central y trasera de la planta baja de la torre estaba ocupada por depósitos de cronología reciente que rellenaban un rebaje en el terreno que afectaba incluso a las dos primeras gradas de la escalinata de acceso al primero piso. Al pie de las escaleras se encontró un pesebre tallado en un solo bloque de piedra y, tras retirar los depósitos mencionados apareció el empedrado de una cuadra cuyo nervio central estaba totalmente inserto en el sustrato geológico. El acceso a esta cuadra se hacía por el lateral de la torre, abierto cuando se creó ésta y tapiado una vez deja de usarse este espacio para guardar a los animales.

Respecto a la parte delantera, desmontada la solera de losas y cantos, se excavó el depósito sobre el que ésta asentaba, en el que se distinguieron algunos agujeros de poste y de puntales de madera, éstos muy cerca de la zona destinada a cuadra y evidencias de que con anterioridad se extendía por la planta baja un empedrado similar al anterior. Este depósito cubría un nuevo relleno de nivelación bajo el que ya afloró el estrato natural, compuesto de tres niveles, uno superior de finas arenas producto de la desecación del fondo fluvial, sobre un depósito aluvial de cantos rodados de diferentes tamaños y, finalmente, las calizas y margocalizas de descomposición de la roca. El hecho de que en la parte trasera no aparecieran los dos primeros es por el rebaje artificial del terreno al que hemos aludido antes.

La lectura estratigráfica de los exteriores de la torre estuvo en todo momento condicionada por su reciente rehabilitación, en la última década del siglo pasado. El enfoscado de argamasa que rebosa los bordes de los mampuestos hizo imposible reflejar fielmente sobre el plano la mayor parte de las modificaciones efectuadas en su fachada. Tuvimos que atender, por tanto, a la escasa documentación bibliográfica que hemos hallado sobre la torre de Zubiete y a las diferencias constructivas de los vanos abiertos en los lienzos para determinar su evolución histórica. No obstante, gracias a que aún se conservaban las escaleras de acceso a los pisos superiores, tuvimos la posibilidad de analizar y documentar gráficamente los paños internos de la torre. De este modo se advirtieron con claridad los cortes efectuados en los muros para abrir ventanas y accesos a las edificaciones que rodearon en su día a la torre en el siglo XVII. También se identificaron restos

zi genituen, XIX. mendean zehar berriro ere berrituko baitzuten, modu integralean berritu ere, multzo arkitektoniko osoa.

Dorreko indusketa arkeologikoa amaituta zundaketa bat egin genuen atxikiriko jauregian. Hasteko, haren barruan metatutako zaborra eta landaredia atera genituen. Erdi iparraldeko gainazaleko mailak pakete buztintsu bat estaltzen zuen, zalantzarik gabe geruza naturalaren azaleratzea zena bera, baina sakontzen jarraitu genuen kontu hori ziurtatzeko, eta jada dorrearen barrunbean hautemandako tuparri kareharridunen geruzaraino iritsi ginen. Jauregiaren hegoaldean, berriz, dorrearen mendebaldeko fatxadari atxikiriko behe oinaren erdialdetik zabaltzen zen lauzadura bat bereizi genuen. Oso ondo landutako kareharrizko lauzak dira, 8 eta 12 cm bitarteko lodierarekin, gutxi gorabehera eskuairan antolatutako harri eta harlanduen lerrokadura baten gainean egokiturik. Lerrokadura honek garaiera erregular bat eratzen zuen haren gainean zolata egokitzeko. Egitura honen alboak neurri askotako errekarriek eta teila zati ez gutxik osatutako deposituek betetzen zuten. Espazio biak bereizita eta behe oina bi gelatan banatu eta zeiharrean luzatuta, 80 cm garai eta gutxi gorabehera 65 cm zabal den horma bat topatu genuen, landu gabeko harriz egina. Horma honen muturrean gela biak komunikatzen zituen atalasea zegoen, 1,40 bider 0,55 metroko kareharrizko bloke bakar batek osatua: muturretan zulo bana ageri zuen zurezko ate zangoei leku egiteko.

Hori guzti hori ikusirik, Zubiete dorrearen egungo egitura jatorrizkoa dela esan dezakegu, hau da, ez dela aurreko egitura baten hondakinen gainean egokitzen. XV. mendean koka genezake, Micaela Portillak dioenaren arabera Lantenon bizi baitziren mende horretarako Murgatarrak. Gainera, indusketa lanetan zehar berreskuratutako material arkeologiko urriaren artean, batez ere zeramikazko ontzien zatien, faunaren hezur hondakinen, eraikuntza materialen hondakinen, burdinazko iltzeen eta txanpon baten artean, ez genuen aurreko garaietako ezertxo ere aurkitu. Nolanahi ere den, Juan Manuel González Cembellínen dagoeneko aurreratu egin du dorreak, salbuespenak salbuespen, XIV. mendearen lehenengo herenean hasi zirela eraikitzen, eta hurrengo mendean hedatu zela gisa horretako eraikinen eraikuntza.

Jatorrian, patin batek bide emanda, lehenengo solairuaren mailan eta ekialdean irekitzen den arku apur bat zorrotzeko baoak egiten zion sarrera dorrearen barruko aldeari. Soilik lehenengo solairutik irits zitekeen biltegiari eta sotoari leku egiten zien behe oinera, garai honetako dorreetan guztiz ohikoa zena. Harri koskoez eraturiko zolata bat eduki zuela dokumentatu ahal izan dugu, baina geruza naturaleraino iristen diren zuloak, ostikoei leku egitekoak, dokumentatu ere ditugu, baita beste aztarna batzuk ere harzolaren azpian egokitutako betegarrian, eta horiek denek jatorrizko zorua lurrezkoa izango zela iradokitzen dute. Lurrean txertatutako ostikoek behe oin honetan dorreko biztanleak elikatzeko animalia txikientzako ukuilutxoren bat egongo zela iradokitzen digute.

XVII. mendetik aurrera eraman zuten burura dorrearen egituraren aurreneko eraberritze garrantzitsua. Behe oinean hegoaldeko atea ireki zuten, barruan de, al menos, otra redistribución interna, ya que durante el siglo XIX pudo producirse una nueva reforma integral del conjunto arquitectónico.

Tras la excavación arqueológica de la torre realizó el sondeo en el palacio anexo, que comenzó con la retirada del escombro y la vegetación acumulada en su interior. Así, se pudo constatar que en la mitad norte, el nivel superficial cubría un paquete arcilloso que se trataba, sin duda alguna, del afloramiento del estrato natural, aunque se siguió profundizando para asegurar este extremo, llegando a alcanzar el sustrato de margocalizas que ya se advirtió en el interior de la torre. En la parte sur del palacio se localizó un enlosado que se extendía por la mitad de la planta baja, anexa a la fachada oeste de la torre. Se trataba de losas de piedra caliza muy bien labradas de entre 8 y 12 cm de grosor que asentaban sobre una alineación de sillares y piedras más o menos escuadradas que servía para mantener una altura regular sobre la que extender esta solera. El espacio restante a los lados de esta estructura estaba relleno por un depósito de cantos rodados de diverso tamaño entre el que menudeaban los fragmentos de teja. Separando ambos espacios se halló, atravesando de forma transversal la planta baja en dos estancias, un muro de mampostería de 80 cm de altura y unos 65 cm de anchura. En el extremo este del muro se situaba el umbral de la puerta que comunicaba ambas estancias, compuesto por un solo bloque de piedra caliza de 1,40 por 0,55 metros de lado, que contaba con sendos orificios en los extremos para las jambas de madera.

En vista de todo ello, podemos concluir que la estructura actual de la Torre de Zubiete es la original, es decir, no se levanta sobre los restos de una anterior. Podríamos datarla del siglo XV, ya que Micaela Portilla ofrece el dato de que los Murga ya estaban afincados en Llanteno en esta centuria. Además, entre el escaso material arqueológico recogido durante la excavación, principalmente pequeños fragmentos de recipientes cerámicos, de restos óseos de fauna, de material constructivo, clavos de hierro y una moneda, no se encontró nada que pudiera considerarse anterior. De todos modos, Juan Manuel González Cembellín ya apunta que salvo algunas excepciones anteriores las torres hicieron su aparición en el primer tercio del siglo XIV, para difundirse durante el resto de la centuria.

Al interior de la torre se accedería originalmente, mediante un patín, por el vano con arco ligeramente apuntado que se abre al este, a la altura de la primera planta. La planta baja, destinada a almacén y bodega, sólo tendría acceso desde el primer piso, solución arquitectónica común en las torres de este periodo. Hemos podido documentar que tuvo una solera con empedrado de cantos, si bien se han localizado agujeros para puntales de madera que alcanzan el estrato natural y algunos otros indicios en el relleno que se extendía bajo el empedrado que apuntan a que el piso original sería de tierra. La existencia de estos puntales insertos en el suelo hace pensar que, además, pudo ubicarse en esta planta baja algún tipo de recinto para pequeños animales con destino a la alimentación de los habitantes de la torre.

Es a partir del siglo XVII cuando se produce la primera reforma importante en la estructura de la torre. Se abre la portada sur a la altura de la planta baja,

Zubiete dorrearen eta atxikiriko jauregiaren itxura esku-hartze arkeologikoan zehar.

Aspecto de la Torre de Zubiete y de su palacio adosado durante la intervención arqueológica.

harrizko eskailera eraiki zuten, eta haren bigarren mailak bat egin zuen iparraldeko fatxadako gezi leihoekin, hauek itsutuz. Aldi berean, «galburu» gisa antolatutako harri koskoez eraturiko harzola bat egokitu zuten. Mende berean gehituko zioten dorreari jauregia, mendebaldeko fatxadari atxikirik, multzo arkitektoniko bakarra osatuz. Ate nagusiaren ezaugarriek, arku eskartzanoa barruko aldetik eta ateburuduna eta harlanduzko alboekin kanpokotik, bat egiten dute jauregira sartzeko bi ate berrien, behe oinean bata eta lehenengo solairuan bestea, eta ate nagusiaren gainean luzatzen den balkoiaren ezaugarriekin. Gainera, oso antzekoak dira jauregiaren mendebaldeko sarrera eta hegoaldeari begira dauden leihoak eta dorrekoak. Aitzitik, fatxada nagusiko eta ekialdeko fatxadako leiho angeluzuzenak, kanpoko aldetik harlanduzko piezek inguratuta egon arren, ez dute arestian deskribatutakoekin inolako antzik. Barruko aldetik zurezko leihoburuak dituzte, eta inguruak dorretik ateratako eraikuntza material berberaz berdinduta dituzte. Horrexegatik uste dugu geroagoko eraberritze lanen emaitza direla, segur asko XIX. mendean burututako eraberritzeen emaitza. Orduan ireki zuten beste sarrera bat jauregiko lehenengo solairuan.

Behe oinean harzolak piezak galtzen zituen erabileraren erabileraz, eta haiek ordezkatzeko harrizko lauzak jarri zituzten atearen eta eskaileraren artean eta dorrearen hondoko lur harroaren gainean. Izan ere, aurreko mendeetatik iritsitako ohiturari eusten zioten, eta espazio txiki bat gorde zuten animalia txikiak edukitzeko, zurezko oholesi baten gibelaldean, hesiko zurezko ostikoei leku egiteko zuloek agerian uzten dutenez. Eta eskema honi eutsi zioten iragan mendean dorrea betikoz abandonatu zuten arte, dorrearen ia ekialde osoa hartzen zuen ebaki bat bereizi baitugu. Ebaki hau galtzadarrizko eta lauzazko harzola bat eraikitzeko prestatu zuten, harzolak geruza naturalean ondo sustraitutako er-

construyéndose en el interior una escalinata de piedra cuyo segundo tramo coincide con las saeteras de la fachada norte, cegándolas. A la vez, se extiende un nuevo empedrado de cantos dispuestos «en espiga». Sería durante este mismo siglo cuando se añadiría el palacio a la torre, adosado a su fachada oeste, formando un mismo conjunto arquitectónico. Las características de la puerta principal, con arco escarzano por su parte interna y adintelada por el exterior y con jambas de sillería, coinciden con los dos nuevos vanos que dan acceso al palacio, tanto en la planta baja como en la primera y con el balcón situado sobre la portada. Además, la entrada a éste por el oeste y las ventanas que se abren a poniente, son similares a los de la torre. Respecto a las ventanas rectangulares de la fachada principal y la de la fachada este, si bien cuentan con recercos de sillería por el exterior, no guardan similitud con los vanos anteriormente descritos. Por el interior tienen dintel de madera y los recercos se han regularizado con el mismo material constructivo extraído de la torre cuando se habilitaron. Es por ello que creemos que podrían ser parte de una reforma posterior, seguramente en el siglo XIX, cuando se crea un nuevo acceso también a la primera planta del palacio.

En la planta baja, el empedrado va perdiendo piezas por el uso, sustituyéndose por losas de piedra entre la puerta y la escalinata y por tierra batida al fondo de la torre. Esto es porque aún se conserva la costumbre heredada de siglos anteriores reservándose un espacio para corral de pequeños animales, tras una pequeña empalizada de madera que también ha dejado su impronta mediante agujeros para puntales de madera. Este esquema se repetirá hasta el abandono definitivo de la torre durante el siglo pasado, ya que se ha localizado un corte en el terreno que afectaba a casi toda la zona oriental de la torre. Corte realizado para construir un empedrado de adoquines y losas con un nervio central bien asentado en el estra-

diko ardatza zuela. Harzola honek aziendarentzako ukuiluaren espazio osoa hartuko zuen, eta haren gainean bermatuko zuten harrizko aska, horretarako eskaileraren hainbat maila desmuntatu behar izan bazituzten ere. Zurezko hesi soil batek bereiziko zuen ezkaratzetik, eta ekialdeko fatxadan irekitako ateak egingo zion sarrera.

Atxikiriko jauregiaren behe oineko zoruaren mailan aurkitutako aztarnak ere XIX. mende amaierakoak dira beranduenez. Hegoaldeko lauzaduraz eta espazio hau eta erdi iparraldekoa bereizten dituen hormaz, askoz ere kota beheragoan dagoenaz, ari gara. Argazkiei eta dorrean bertan beren arrastoa utzi duten aztarna batzuei esker badakigu iparraldeko fatxadan eraikin bat izan zuela atxikirik, eta haren espazioa emendatu egin zela jauregiaren erdi iparraldeko lur eremua induskatu eta kota berrira egokitu ondoren. Zeharkako hormak ukuilua eta jauregiaren beste erdia bereiziko zituen habeetako baten altueran, egun soilik horma-zuloak kontserbatu diren altueran. Jauregiaren behe oineko alde honek lauzadura bat izango zuen jatorrizko kotan. Dorrearen hormaren ondoan irekitako ate batek lotuko zituen espazio biak, eta bien arteko altuera aldea zurezko eskailera batez gainditukо zen segur asko, guk ez baitugu egitura sendoago baten arrastorik bat ere aurkitu.

to natural. Este empedrado, sobre el que se apoyaba un pesebre de piedra para cuya colocación se desmontó parte de las gradas de la escalinata, ocupará todo el espacio destinado a cuadra de ganado. Quedaría separado del zaguán por una simple valla de madera y se entraría por una puerta abierta en la fachada este.

Los restos descubiertos a nivel del suelo de la planta baja del palacio anexo datarían también de finales del siglo XIX como fecha más temprana. Nos referimos al enlosado de la mitad sur y al muro que divide este espacio del situado en la mitad norte, a una cota sensiblemente más baja. Según sabemos por fotografías y algunas evidencias que han dejado su impronta en la propia torre, ésta tuvo adosada una edificación a su fachada norte y, como consecuencia también a la mitad norte del palacio. Esta construcción tuvo habilitada su planta baja para corral de ganado, que aumentó su espacio a base de rebajar el terreno de la mitad norte del palacio y acomodarla a la nueva cota. El muro transversal separaría la cuadra de la otra mitad del palacio a la altura de una de las vigas de la que hoy sólo quedan los mechinales. Este lado de la planta baja del palacio contaría con un enlosado a la cota original. La comunicación entre ambos espacios se hacía a través de una puerta habilitada junto al muro de la torre, salvando la diferencia de altura posiblemente mediante una escalera de madera, ya que no se han hallado evidencias de una estructura de mayor empaque.

F.J. Ajamil Baños

A.8. BARRUNDIA

A.8.1. Maranchona herrixka eta Maria Magdalena tenplua. Zadorra ibaiaren emaria neurtzeko estazioa, Eturan

Zuzendaritza: Markel Gorbea Pérez
Finantziazioa: URA, Ur Agentzia

A.8.1. Poblado de Maranchona y Templo de Mª Magdalena. Estación de aforo en el río Zadorra, en Etura

Dirección: Markel Gorbea Pérez
Financiación: URA, Agencia Vasca del Agua

Archaeological survey and excavation of surveys during renovations to the gauging station on the River Zadorra.

Miaketa arkeologiko sakonak egin eta zundaketa arkeologikoak induskatu dira Barrundiako (Araba) udal barrutiko Eturako kontzejuko Zadorra ibaiaren emaria Neurtzeko Estazioaren proiektu berrituak ukitutako Historia eta Arkeologia Ondarea ebaluatzeko eta baloratzeko Azterketa Arkeologikoaren baitan, betiere URA Ur Agentziak (Eusko Jaurlaritza) sustatutako lanen arabera.

Hasteko, miaketa arkeologiko sakona egin genuen Zadorra ibaiaren emaria Neurtzeko Estazioaren eraikuntza Proiektuak hartzen duen eremuan, eta

La prospección arqueológica intensiva y excavación de sondeos arqueológicos se llevan a cabo dentro del Estudio Arqueológico de evaluación y valoración del Patrimonio Histórico Arqueológico afectado por el proyecto reformado en Estación de Aforo en el río Zadorra (Álava), que afecta a la localidad de Etura, en el término municipal de Barrundia. A tenor de las obras promovidas por la Agencia Vasca del Agua –URA– (Gobierno Vasco).

En primer lugar se ha llevado a cabo una prospección arqueológica intensiva de la zona que comprende el Proyecto de realización de la Estación de Aforo

berretsi egin genuen proiektu hau Eusko Jaurlaritzak 1997ko maiatzaren 26an hartutako erabakiaren arabera, uztailaren 9ko 130. zenbakiko EHAAn argitaratua, Barrundia udalerriko 2. Zenbakiko Fitxa: «Maranchona herrixka tea Maria Magdalena tenplua» gisa kalifikatutako Ustezko Eremu Arkeologikoan dagoela. Beraz, zundaketa arkeologiko batzuk egingo genituen obren gaineko kontrol lanak egiteaz gainera.

Zadorra ibaiaren bazterrean dago esku-hartzearen xede izandako espazioa, Eturako herriaren hegomendebaldean, 800en bat metrotara, eta Gebara herriaren hego-ekialdean, 880 metrotara. Zadorra ibaiaren emaria neurtzeko estazioa eraiki eta jarraian adierazten diren lursailetan jada badagoen bidea berritu behar zituzten –bidea handitu eta urak husteko arekak eta zeharkako erretenak ireki–:

- 3. Poligonoko 90050. lursaila
- 152., 155., 156., 158., 168. eta 169. lursailak eta 4. Poligonoko 90605. lursaila

Miaketa arkeologikoa

Barruti honetan guztira 51 dira ustezko eremu arkeologikoak, eta 2.a, hots, «Maranchona herrixka eta Maria Magdalena Tenplua» zuzenean dago Zadorra ibaiaren emaria Neurtzeko Estazioaren proiektuaren eraginpean. Micaela J. Portillak zuzendutako bilduman aipatzen da leku hau: VV:AA. (1982): *Catálogo monumental Diócesis de Vitoria. Tomo V La Llanada alavesa oriental y valles de Barrundia, Arana, Arraya y Laminoria una catequesis a través del arte.* Araba. Gasteiz.

Ildo honetatik, esan dezagun miaketa arkeologikoa aztarnategiaren iparraldeko muturrean eraman genuela burura, gutxi gorabehera 8 hektareako azaleran. Honako hauek mugatzen dute miatutako atala: iparraldetik Zadorra ibaiaren ezkerraldeak; ekialdetik Zadorra ibaiaren adar Etxabarri errekak; hegoaldetik «La Ermita» izeneko muinoaren goiko plataformak; eta mendebaldetik 4. poligonoko 170. lursailak eta hegomendebalderantz luzatzen den bideak.

Miaketa arkeologikoek aukera eman ziguten lur eremuko gainazalean eraikuntza hondakin batzuekin batean –teila arabiarraren zatiak eta kareharri txikiak eta ertainak– zeramika arruntaren zati txikiak, tornuan eginak, ore laranjekin eta beiratuekin, identifikatzeko. Esan behar dugu ez genuela material arkeologikorik jaso, ez baikenuen miaketa prozesuan zehar elementu esanguratsurik –alderdi teknologiko nahiz morfologikoei dagokienez edota dekorazio motiboei dagokienez– aurkitu, eta ez genuelako espazio honetan finkamenduaren gainazaleko lekukotasun urriak areago murriztu nahi.

Zundaketa arkeologikoen indusketa

Arestian adierazitakoari jarraiki eta dokumentazio arkeologikoa osatzeko gure lanaren prebentziozko izaeraren arabera, proiektuak ukitzen duen aldean dokumentazio arkeologiko sakonagoa egiteko erabakia hartu genuen. Honenbestez 2 x 10 metroko 20 zundaketa estratigrafiko egin genituen aipatu proie-

en el río Zadorra, en la que se confirma que el proyecto se desarrolla dentro del área calificada por el Gobierno Vasco como Zona de Presunción Arqueológica Ficha Número 2 del municipio de Barrundia: «Poblado de Maranchona y Templo de María Magdalena», según la Resolución de 26 de mayo de 1997 publicada en el BOPV nº 130 de fecha 9 de julio. Por lo que se amplía la intervención a sondeos arqueológicos y el control de obras.

El espacio objeto de actuación se localiza en la vega del río Zadorra, al SO del casco urbano de Etura, que dista unos 800 m, y al SE de la localidad de Gebara, distante 880 m. La actuación comprende la realización de la estación de aforo en el río Zadorra junto con una reforma de un camino ya existente –ampliación, cunetas y caños de cruce para desaguar-, en las parcelas siguientes:

- Parcela 90050 del Polígono 3
- Parcelas: 152, 155, 156, 158, 168, 169 y 90605 del Polígono 4

Prospección arqueológica

En este término hay registrados un total de 51 zonas de presunción arqueológica, encontrándose la número 2 «Poblado de Maranchona y Templo de María Magdalena» directamente afectada por el desarrollo del proyecto de Estación de Aforo en el río Zadorra. Este lugar aparece reseñado en la obra compendio dirigida por Micaela J. Portilla: VV:AA. (1982): *Catálogo monumental Diócesis de Vitoria. Tomo V La Llanada alavesa oriental y valles de Barrundia, Arana, Arraya y Laminoria una catequesis a través del arte*. Alava, Vitoria.

En este sentido, la prospección arqueológica se ha centrado en el extremo septentrional del yacimiento, en una superficie cercana a 8 ha. El tramo prospectado se encuentra delimitado al N por el río Zadorra, en su margen izquierda; al E por el arroyo Echavarri, subsidiario del anterior; al S por la plataforma superior del cerro denominado «La Ermita"; y al O por la parcela 170 del polígono 4 y un camino de concentración con dirección SO.

La prospección arqueológica ha permitido identificar en la superficie del terreno algunos restos constructivos –fragmentos de teja curva y piedras calizas de pequeño/mediano tamaño– junto con restos muy fragmentarios de cerámica común elaborada a torno, de pastas anaranjadas y vidriadas. En este punto, consideramos oportuno señalar que se ha desestimado la recogida selectiva de materiales arqueológicos, al no haber identificado durante el proceso de prospección elementos significativos -en sus aspectos tecno-morfológicos y/o en sus detalles decorativos-, y a fin de no alterar la ya de por si precaria representatividad superficial de este asentamiento en este espacio.

Excavación de sondeos arqueológicos

A tenor de lo señalado con anterioridad y atendiendo al carácter eminentemente preventivo de nuestro trabajo de documentación arqueológica, se decidió llevar a cabo una documentación arqueológica más intensiva en el área afectada por el desarrollo del proyecto. Dicha documentación ha consistido en

ktuak alde honetan dagoen aztarnategi arkeologikoan izan zezakeen eragina zehaztu ahal izateko.

20 zundaketa egin genituen, 17 berritu beharreko bidearen paraleloan, haren iparraldean eta hegoaldean. Beste 3ak eraiki beharreko Estaziotik gertu, «Maranchona herrixka eta Maria Magdalena Tenplua» aztarnategiaren ipar-ekialdeko muturrean. Lehenengo 17 zundaketak mendebaldetik ekialdera ireki genituen, bidearen ardatzaren paraleloan eta haien artean 35 metroko tartea gordez. Beste 3 zundaketetatik 2 iparmendebaldetik hego-ekialdera, eta hirugarrena bi horien artean, mendebaldetik ekialdera, euren artean 5 metroko tartea gordez, betiere Neurtzeko Estazioaren proiektu berriaren eta lur eremuko topografiaren arabera. Kasu guztietan negatiboak izan ziren lortutako emaitzak, hau da, 20 zundaketetatik bakar batean ere ez genuen aztarna arkeologikorik dokumentatu.

Horrek guzti horrek, gainazaleko aztarnak han eta hemen barreiaturik aurkitu izanak eta zeramikazko zatiek ageri duten «higadura» nabarmenak eramaten gaituzte gainazaleko aztarna hauek beren jatorrizko lekuetatik alde honetara ekarriak izan direla pentsatzera. Agian «Maranchoa herrixka eta Maria Magdalena Tenplua» aztarnategiaren hegoaldetik ekarriak dira.

la realización de 20 sondeos estratigráficos de unas dimensiones de 2 X 10 m que permitieran determinar la incidencia real del citado proyecto sobre el yacimiento arqueológico existente en esta área.

Se realizaron 20 sondeos, 17 de ellos paralelos al camino a reformar, al N y S del mismo, mientras que los 3 restantes se localizan en las proximidades de la Estación de Aforo a realizar, coincidiendo con el extremo NE del yacimiento «Poblado de Maranchona y Templo de María Magdalena». La disposición de los primeros 17 sondeos mantiene una orientación O/E, manteniéndose su trazado de forma paralela al eje del camino, variando la separación entre ellos 35 m. De los 3 sondeos restantes, 2 presentan una orientación NO/SE, entre los que se dispone otro con orientación O/E, distantes entre sí unos 5 m, según las circunstancias del proyecto reformado de Estación de Aforo y topografía del terreno. Los resultados obtenidos en todos los casos han sido negativos, es decir, en ninguno de los 20 sondeos se han documentado evidencias arqueológicas.

Esto, unido a la documentación de evidencias superficiales, de manera dispersa, y al considerable «rodamiento» que presentan los galbos cerámicos, nos lleva a plantear la posibilidad de considerar dichos restos superficiales desplazados de su posición original, procediendo tal vez de la zona meridional hacia la que se proyecta el yacimiento «Poblado de Maranchona y Templo de María Magdalena».

M. Gorbea Pérez

A.9. **BERNEDO**

A.9.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

A.9.1.1. **Harresiak. II. atala**

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños
Finantziazioa: Arabarri

A.9.1.1. **Murallas. Tramo II**

Dirección: F. Javier Ajamil Baños
Financiación: Arabarri

Stretch II of the Bernedo walls is located on the north-western side of the walled perimeter, and is the stretch that best preserves its original appearance. Before the restoration work began, two sondages were carried out, with two important discoveries: the outward movement of the structure and the existence of a defensive turret on the western corner. This was the basis upon which the restoration of the stretch was carried out, under archaeological supervision.

Lehen eskola zaharrei eta egun *Udalekuri* toki egiten dion Administrazio Batzordearen jabetzako eraikinaren gibelaldean dago Bernedoko harresien II. atala, Las Cárcavas kaletik ikus daitekeenez. Horma atal hauxe zen hiribilduko jatorrizko harresiaren itxura ongien kontserbatzen zuena, bere 46 metroko luzeran ez baitzuen etenik bat ere, kontuan ez baditugu XX. mendearen azken laurdenean haren mendebaldeko muturrari atxikita eraikiriko adreiluzko eta hormigoizko egiturak eragindakoak. Batez beste 4 metro garai eta 1,30 metro zabal zen. Ondo asko

El tramo II de las murallas de Bernedo es el que se localiza a lo largo de la parte trasera del edificio de las antiguas escuelas y actual *Udaleku* propiedad de la Junta Administrativa, visible desde la calle Las Cárcavas. Este alzado era el que mejor conservaba el aspecto original de la muralla de la villa, ya que a lo largo de sus 46 m no presentaba interrupción alguna, salvo las producidas por el adosamiento a su estructura en el último cuarto del siglo XX de un muro de ladrillo y hormigón levantado en su extremo occidental. Con una altura media de 4 m contaba con una anchura media de 1,30 m, donde era

Bernedoko harresiak.
Aurkitutako babes-dorrearen hondakinak.

Murallas de Bernedo.
Restos del torreón defensivo descubierto.

ikusten zen landu gabeko harriz egina zela, neurri askotako kareharrizko blokeekin, soilik kanpoko atalak kareztaturik, eta neurri askotako eta forma irregularreko harrizko betegarriarekin, harriok hareaz eta kolore okreko kareorez batuak. Baina atal hau eraiki zenetik beti egon denez klima agenteen eraginpean, denboraren joanean hondatu egin zen haren egitura, batez ere galdu egin zuelako hormako harri landu gabeak batzen zituen kareorea. Gainera likenak eta zuhaixkak hazi ziren, eta hauek kalte mekaniko garrantzitsuak sorrarazi zituzten egituran, horma atalaren zati bat kanpoko alderantz makurraraziz.

Harresi atal hau berritu baino lehen, bi zundaketa arkeologiko induskatu genituen proiektuaren erredakzioaz arduratuko ziren arkitektoek lanetan zehar hartu beharreko neurri egokienak har zitzaten. Lehenengo zundaketa, oinplanoan 1,5 m zabal eta 5 m luze, harresiaren barruko aurpegiaren oinetan ireki genuen, harresiaren eta *Udalekuren* artean. Eskuz induskatu genuen, eta puntu honetan harresiaren barruko aurpegiaren kontserbazio egoera zein zen aztertzea zuen helburu zundaketak, zuhaitzen sustraiek eta gailurrean hazitako huntzak eragindako presioaren ondorioz haren egitura kanpoko alderantz makurtzen zela hauteman baikenuen. Hondeamakina bat lagun, bigarren zundaketa bat ireki genuen harresi atalaren mendebaldeko muturraren kanpoko aldean, honakoa 8,50 x 7 metrokoa. Zundaketa honek harresiaren puntu honetako hondakinak aurkitzea eta identifikatzea bila zuen, izkinan dorre bat ba ote zegoen egiaztatzeko edo, bestela, aukera hori baztertzeko.

1. zundaketa induskatuta agerian geratu zen harresiaren hormaren 2 metrotik gorako altuera, eta gailurraren eta zundaketaren kota beherenaren artean 17 cm-ko inklinazioa zegoela egiaztatu genuen; beraz, metroko bakoitzeko 8,5 cm-ko desbideratzea

claramente visible su fábrica de mampostería ordinaria, con bloques de piedra caliza de diferentes tamaños simplemente careados en sus paños exteriores y un relleno de piedras de diferentes tamaños y formas irregulares trabadas con un mortero de arena y cal de color ocre. Sin embargo, la exposición continuada de este tramo a los agentes climatológicos desde su construcción provocó una seria degradación de su estructura, principalmente con la pérdida del mortero de rejunteo de los mampuestos de su fábrica. Además contribuyó al crecimiento de líquenes y vegetación arbustiva que causó importantes daños mecánicos en su estructura, habiendo desplazado hacia el exterior parte del paño.

Como intervención arqueológica previa a la restauración de este tramo se excavaron dos sondeos para que los arquitectos encargados de redactar el proyecto concretaran las medidas más adecuadas a adoptar durante las obras. El primero de ellos, con unas medidas en planta de 1,5 m de ancho y 5 m de longitud, se situó a los pies del paño interno de la muralla, entre ésta y el edificio del *Udaleku*. Su excavación se hizo manualmente y el objetivo de este sondeo era propiciar el análisis del estado de conservación del paño interno de la muralla en el punto en el que se advertía un desplazamiento hacia el exterior de su estructura como consecuencia del empuje de las raíces de los árboles y el crecimiento de una hiedra sobre su cumbrera. En la parte externa del extremo occidental del tramo se abrió, con ayuda de una excavadora, un segundo sondeo de 8,50 por 7 m de lado. El objetivo de este sondeo era la localización de los restos de la muralla en este punto y su identificación para constatar la existencia de un torreón que hiciera esquina o, por el contrario, desestimar esta posibilidad.

Con la excavación del sondeo 1 quedaron visibles hasta 2 m de su alzado interno, comprobándose que tenía una inclinación de 17 cm entre su cumbrera y la cota más baja del sondeo, lo que suponía una desviación hacia el exterior respecto a su eje vertical de 8,5 cm por

Harresiak. Harresi atal honen itxura eraberritze lanak amaitu eta gero.

Murallas. Aspecto final de este tramo de muralla tras su rehabilitación.

gertatzen zen kanpoko alderantz eta ardatz bertikalarekiko. Gainera, are inklinazio handiagoa ageri zuten kontserbatutako azken hiru errenkadek, batez ere zundaketaren mendebaldeko muturrean. Esan beharra dago ia ez zela harriei eusten zien kareorerik kontserbatzen, guztiz harrigarria zena kontuan badugu harresi atal hau ustez estalita eta, beraz, babestuta egon dela agente atmosferikoek eragiten duten higaduratik. 2. zundaketan oso sakonera maila apalean azaldu zen geruza geologikoa, eta horri esker dorrearen oinarriaren hondakinak dokumentatu ahal izan genituen. Dorrearen parte bat urak husteko kutxeta baten egituraren azpian azaldu zen, harresiari lotutako hormaren azpian, induskatutako eremuaren ertzaren azpian galtzen zen hormaren azpian. 1,60 eta 1,70 m bitarte zabal zen zimentarri baten gainean egokitutako egitura hau, eta harresiaren lerrotik 2,10 eta 2,40 m bitarte irteten zen. Landu gabeko harriz egina zen, kanpoko aurpegian kareharrizko bloke handiak, kareorez estalirik besterik gabe ertzak desagerrarazteko, eta barruko aurpegian neurri askotako eta forma irregularreko harriak, hareaz eta okre koloreko kareore ugariz batuak.

Harresiaren beharrak eta haren mendebaldeko muturreko jatorrizko egitura ezagutu eta gero, harresi atala eraberritzen hasi ginen, eta lubaki bat induskatu genuen barruko aurpegiaren oinetan bertan ura drainatzeko hodi bat ipintzeko. Era berean, kanpoko aldera makurtutako harresi atala desmuntatzen hasi baino lehen, harrien artean hazten ziren huntzak eta beste landareak erauzi genituen harresiaren gailurretik, eta ondoren, kendutako harriekin eta egituratik beretik ateratako beste harriekin berreraiki genuen hura. Bukatzeko, berdindu egin genuen Erdi Aroko harresiaren atal honetako gailurra ekialdeko muturrean kontserbatzen zuen altueraraino. Lan hau egiteko orduan bere garaian harresikoak ziren baina behera etorri ziren harriak baliatu genituen, eta

cada metro de altura. Sin embargo, las tres últimas hiladas conservadas tenían una inclinación aún mayor, sobre todo en lo que al extremo oeste del sondeo se refiere. Al margen de todo ello, era obligado aludir a la falta casi total de mortero que sujetaban las piedras, algo que sorprendía al considerar que este paño de muralla ha estado cubierto y, por lo tanto, protegido de la erosión producida por los agentes atmosféricos. En el sondeo 2, el afloramiento del sustrato geológico a escasa profundidad facilitó la documentación de los restos de la base del torreón, que finalmente apareció en parte bajo la estructura de una arqueta de desagüe, el muro que se adosaba a la muralla hasta desaparecer bajo el cantil de la zona excavada. Se trataba de una estructura de entre 1,60 y 1,70 m de anchura, sobresaliendo un total de entre 2,10 y 2,40 m respecto a la línea de muralla y que contaba con zanja de cimentación. Su fábrica era de mampostería ordinaria y estaba construido con grandes bloques de piedra caliza, simplemente careados para evitar aristas, colocados en los paños externos mientras que su interior es una amalgama de piedras de diferentes tamaños y formas irregulares trabadas con abundante argamasa de arena y cal de color ocre.

Una vez conocidas las necesidades de la muralla y el remate original en su extremo oeste se procedió a la restauración del tramo, en el que se excavó una zanja a lo largo del paño interno para colocar una tubería de drenaje. También se procedió a limpiar su cumbrera de hiedras y otras plantas que crecían entre las piedras, antes de desmontar la parte de la muralla desplazada hacia el exterior, reconstruyéndose después con las mismas piedras retiradas y otras, procedentes de la propia estructura. Finalmente se regularizó la cota de coronación de este tramo de la cerca medieval, hasta alcanzar la altura que conservaba en su extremo este. Estos trabajos se hicieron mediante la recolocación de las piedras caídas que en su día pertenecieron a la

gabioiak elkarren gainean egokitu genituen egituraren erdialdetik mendebalderantz, alde honetan agerikoa baitzen harresiak altueran gehiago galdu zuela. Gisa honetan elementu honen presentzia sendotuko genuen, Bernedoko Hirigune Historikoko hiri ehuna mugatzen duen elementu gisa. Eta horri aurkitutako beste elementua gehitu zitzaion, ipar-mendebaldeko dorrea, alegia.

Gure ekimenari jarraiki nahiz lanen arduradunak eskatuta ondoz ondo etorritako bisitaldi teknikoen bidez eraman genuen burura obren gaineko kontrol arkeologikoa. Beste ikustaldi batzuek obren bisitaldiekin egin zuten bat, eta ondorioz esku-hartze honetako arkeologo zuzendariaren gomendioak aintzat hartu ziren prozesu osoa zehatz-mehatz dokumentatzen zen aldi berean. Jarraipen lan honek aukera eman zigun dorrearen egitura hasieran uste genuen ez bezalakoa zela egiaztatzeko. Dorrearen alboko hormek gainditu egiten dute harresiaren lerroa barruko alderantz, eta harresiaren aurpegiak hari begira zeuden. Horrek esan nahi du babesteko kubo hau harresia eraiki aurrekoa dela ezinbestean. Datu hauek barruti harresituaren gainerakoan aplikatzen baditugu zalantzarik gabe esan dezakegu, XV. mendean harresia sendotzeko lanak bazter utzita, harresiaren eraikuntza dorreetatik hasi zutela, eta gero harresiaren aurpegiak altxa zituztela dorreekin bat egiteko. Beraz, lanek aurrera egin ahala, egitura hau berreraikitzeko proiektua aldatu behar izan zen, eta gabioiak marrazki berriaren arabera egokitzeko erabakia hartu zen.

Azken emaitza izan da Bernedoko jatorrizko harresiaren hondakin gehienak kontserbatzen zituen harresi atalari halako balioa ematea. Atal honi betikoz desagertu den dorrearen neurriak irudikatzen dituen egitura erantsi zaio, gogoan eduki behar baita dorrearen hondakinak agerian geratu zirela harresia eraberritzeko lanetatik eratorritako lan arkeologikoetan zehar. Honek guztiak, betiere monumentuaren bilakaera historikoa errespetatuz eta harresiaren berreraikuntza idealetik ihes eginda, oso ondo irudikatzen du Erdi Aroan zehar nolakoak izango ziren hiribilduko babes egitura ikaragarri sendoak.

muralla y con la superposición de gaviones desde la mitad de la estructura hacia el oeste, donde la pérdida de altura de la muralla era más evidente. Con ello se conseguiría reforzar la presencia de este elemento como delimitador de la trama urbana del Casco Histórico de Bernedo. Al que se le añadió el nuevo elemento descubierto, el torreón noroeste.

El control arqueológico de las obras se llevó a cabo mediante sucesivas visitas técnicas, tanto por iniciativa propia como por aviso del encargado de la obra. Otras se hicieron coincidir con las visitas de obra de modo que se fueron recogiendo las recomendaciones del arqueólogo director de la intervención a la vez que se documentaba todo el proceso de forma exhaustiva. Este seguimiento sirvió también para constatar que la estructura del torreón era diferente a lo que pensábamos en un principio. Las paredes laterales de éste sobrepasan la línea de muralla hacia el interior y los lienzos de la cerca venían a dar a éstas, por lo que la construcción del cubo defensivo tuvo que ser por fuerza anterior a la muralla. Si hacemos extensivos estos datos al resto del recinto amurallado podríamos asegurar que, exceptuando las obras de refuerzo de la muralla en el siglo XV, la construcción de la muralla comenzaría por los torreones, levantando posteriormente los lienzos de la muralla hasta unirlos con ellos. En consecuencia, sobre la marcha, tuvo que modificarse el proyecto de reconstrucción de esta estructura, con la previsión de colocar los gaviones según el nuevo dibujo.

El resultado final ha sido la puesta en valor del tramo de las murallas de Bernedo en el que se conservaban más restos de la muralla original de la villa. A éste se le ha añadido la estructura que reproduce las dimensiones del torreón desaparecido, cuyos restos se han descubierto durante los trabajos arqueológicos derivados de las obras de rehabilitación de la muralla. Todo ello ofrece una visión muy cercana a lo que serían las imponentes defensas de la villa durante la Edad Media, siempre respetando la evolución histórica del monumento, lo que se ha logrado huyendo de la reconstrucción ideal de las murallas.

F.J. Ajamil Baños

A.9.1.2. **De Abajo kalea, 9**

Zuzendaritza: Kepa Cabrerizo Benito
Finantziazioa: Eladio Marañón San Vicente

A.9.1.2. **De Abajo, 9**

Dirección: Kepa Cabrerizo Benito
Financiación: Eladio Marañón San Vicente

Intervention carried out throughout the site, leaving no room for further investigation, since the results proved to be of scarce historical-archaeological interest.

5 x 2, 5 x 3 eta 9 x 2 metroko hiru zundaketatan oinarritutako esku-hartzea izan zen. Lehenengo bi zundaketak En Medio kaleari ematen dion orubean eta hirugarrena De Abajo kaleari begira dagoen orubean, orubearen azaleraren herena hartuta. Emaitzak ez ziren batere interesgarriak izan historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik.

Intervención desarrollada en base a tres sondeos de 5 x 2, 5 x 3 y 9 x 2 metros, los dos primeros en el solar con salida a la calle de En medio y el tercero en el de la calle De Abajo, abarcando un tercio de la superficie del solar. Los resultados de la misma han sido de escaso o nulo interés histórico-arqueológico.

K. Cabrerizo Benito

A.9.1.3. **Sarrea kalea, 5**

Zuzendaritza: José Cardoso Tostado
Finantziazioa: David Hermosa Rodríguez

A.9.1.3. **Sarrea, 5**

Dirección: José Cardoso Tostado
Financiación: David Hermosa Rodríguez

Intervention carried out throughout the site, leaving no room for further investigation, since the results proved to be of scarce historical-archaeological interest.

Orube osoa hartu zuen esku-hartze arkeologikoak. Agortu egin genituen bertan beste ikerketa bat abiarazteko aukerak oro, emaitzak negatiboak izan baitziren historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik.

Intervención desarrollada en toda la extensión del solar, agotando la posibilidad de nueva investigación en éste, siendo los resultados de la misma de escaso o nulo interés histórico-arqueológico.

J. Cardoso Tostado

A.10. **ELTZIEGO / ELCIEGO**

A.10.1. **Valdefrailes gaztelua**

Zuzendaritza: Natalia Bartolomé Sáenz
Finantziazioa: Eltziegoko Udala

A.10.1. **Castillo de Valdefrailes**

Dirección: Natalia Bartolomé Sáenz
Financiación: Ayuntamiento de Elciego

This archaeological intervention was carried out in Valdefrailes Castle, located two kilometres south of Elciego, in line with the River Ebro. The intervention revealed the castle's floor plan and morphology.

Eltziegoko udal barrutian, «Mahasti artean» ibilbidearen baitan, behatoki turistiko bat eraikitzeko proiektuak eragin zuen esku-hartze arkeologiko hau.

Eltziegoko herritik gutxi gorabehera bi kilometrotara dago lan hauen xede izandako tokia, Errioxako Komunitate Autonomoaren iparraldeko mugatik oso gertu. Leku estrategikoa da, Ebro ibaitik hurbil dago, eta bertatik Errioxako Cenicero herria eta Arabako Eltziego eta Guardia herriak ikusten dira. Valdefrailes izenaz ezagutzen den alde honetan dago eraikin gotortu bat, esku-hartze honi ekin baino lehen soilik oinarrizko formak ezagutzen zitzaizkion eraikin gotortua.

Esku-hartze arkeologikoa

Miaketa eta garbitze lanak egiteaz gainera, zundaketa bat induskatu genuen esku-hartze honetan.

Sakon miatu genituen gazteluaren inguruak bertan izaera historikoko beste egiturarik ba ote zegoen jakiteko. Eta emaitza positiboa izan zen, gazteluari leku egiten dion muinoaren hegoaldeko mazelan, gazteluko atetik hurbil, neurri handiko gutxienez egitura bat baitago, babesteko funtzioa izan zezakeen egitura. Eta ezer gutxi gehiago aurreratu dezakegu, bertan hazi den landaredia trinkoa eragozpen gaindiezina baita hura behar bezala mugatzeko.

Gainera gaztelutik etorritako eraikuntza material asko dago alde honetan. Adibide erakusgarrienak,

La presente intervención arqueológica vino motivada por la construcción de una atalaya turística, en el término municipal de Elciego, que forma parte del recorrido paisajístico «Entre viñas».

El lugar donde se han desarrollado estos trabajos se encuentra a unos dos kilómetros de la población de Elciego, inmediatamente al norte del límite con la Comunidad Autónoma de La Rioja. Se trata de un punto estratégico en las cercanías del paso el río Ebro, desde donde se divisan la población riojana de Cenicero y las alavesas de Elciego y Laguardia. En esta zona, conocida como Valdefrailes, se encuentra una construcción fortificada de la que apenas se conocían sus formas básicas antes de la presente actuación.

La intervención arqueológica

En la intervención se realizaron labores de prospección, limpieza y excavación de un sondeo.

Se ha realizado una prospección intensiva de las zonas aledañas al recinto del castillo a fin de determinar si pudieran existir otras estructuras cercanas de carácter histórico. En este caso el resultado ha sido positivo, al poder observar que en la ladera sur del cerro en el que se sitúa el castillo, junto a la puerta del mismo, existe al menos una estructura de gran envergadura, que pudiera tener un carácter defensivo. Poco más podemos decir, ya que la abundante vegetación existente impide su correcta delimitación.

Además en esta zona existen abundantes materiales constructivos provenientes del castillo. Quizás el



Valdefrailes gazteluaren plano zehatza.

Plano detallado del castillo de Valdefrailes.

antza gazteluko sarrera-ateari dagozkion burua eta alboak dira.

Miaketa lan hauei esker gaztelua inguratzen duen lubanarroaren morfologia ikusi ahal izan genuen. Itxura guztien arabera lurzoru naturalean induskatutako espazioa da, egituraren iparraldea baizik ukitzen ez duena. Horren arrazoia, muino batean egotea, eta aldapa gogorreneko aldea hegoaldean egotea, alde honetan ez baitzen lubanarro bat egiteko beharrik izango.

Beste aldean, Ebro ibaiaren ebakiari begira dagoen aldean, 4 x 2,20 metroko egitura txiki bat topatu genuen, landu gabeko harriz egina, harriak kareorez batuak. Ibaiko igarobidearen gaineko zaintza postu txiki bat izan liteke, baina hau hipotesi bat baizik ez da.

Gaztelua garbitzeko eta bertako landareak erauzteko lanetan eman genuen denbora gehiena, baina lan horiei esker lortu genituen emaitza interesgarrienak.

Egitura estaltzen zuten zuhaixkak erauzi eta hormak suntsitzeraino iristen ziren sustraiak atera genituen. Lan hauetan ikusi genuen nola landarediak eraikinaren alde batzuk desagerrarazi zituen.

Ahalegin berezia egin genuen hormen gailurrak eta ezkutuan zeuden aldeak agerian uzteko, eraikinaren forma zehaztu nahi baikenuen. Baina hormak berak ez genituen utzi agerian, ez hondatzeko, izan ere, epe laburrera bederen, ez dago eraikina sendotzeko eta eraberritzeko proiekturik. Beraz, esku-hartze ahalik eta leunena eraman genuen burura.

ejemplo más evidente sean las jambas y dintel de lo que parece la puerta de acceso al castillo.

En estas tareas de prospección también se ha podido observar la morfología del foso que rodea al castillo. Por lo que parece se trata de un espacio excavado en el terreno natural, que solo afecta a la parte norte de la estructura. Esto parece explicarse con la sencilla razón de que al hallarse el castillo en un altozano, la ladera con un desnivel más pronunciado se encuentra en el lado sur, por lo que no seria necesaria la existencia de un foso en esta zona.

Por otro lado en la zona que se corresponde al cortado sobre el río Ebro se ha podido constatar la existencia de una estructura de pequeña envergadura de 4 x 2,20 m, realizada en mampostería trabada con mortero. Esta podría corresponderse con un pequeño puesto de vigilancia sobre el paso del río, aunque se trata solo de una hipótesis.

Las labores de limpieza y desbroce del castillo han ocupado la mayor parte del tiempo invertido en este trabajo, proporcionando los resultados más interesantes.

Esta limpieza ha consistido en la retirada de las plantas arbustivas que cubrían la estructura, y la eliminación de las raíces que estaban afectando a los muros destruyéndolos. Durante estas labores se pudo comprobar como la vegetación había conseguido hacer desaparecer algunas zonas del edificio.

Se ha puesto especial atención en dejar vistas la parte superior de los muros y descubrir los que permanecían ocultos, con el fin de definir la forma exacta del edificio. Así mismo no han sido destapados los alzados de los muros para evitar su degradación, ya que a corto plazo no hay previsto un proyecto de consolidación y restauración del edificio, por lo que se ha realizado una intervención lo menos agresiva posible.

Ekialdeko zundaketa gazteluaren barruan egin genuen, arma patioaren ekialdeko bazterrean. Eraikinaren morfologiari egokituta, 6 metroko aldea zuen triangeluaren itxura hartu zuen zundaketak. Zundaketa induskatuta eraikinaren hormatik behera etorritako atalak geratu ziren agerian, landu gabeko harriak, adreiluak eta kareorea.

Tamalez ez zen hondakin material interesgarririk azaldu. XIX. mendeko zeramikazko zati batzuk baino ez, egitura hau gutxienez garai hartara arte erabili zutela agerian utzirik.

Gaztelua

Garbitu eta gero osorik ikus dezakegu egitura, eta eraikinaren oinplano osoa bereiz dezakegu. Airetiko argazkian ikusitakoaren arabera eta 1989. urtean *Apuntes para la historia de Elciego* argitalpenean argitaratutako planoan azaltzen zen bezala, itxura triangeluarrekoa zen, baina garbitu ostean oinplano osoa agerian geratu eta gero hala ez dela egiaztatu dugu. Trapezoide itxurakoa da eraikinaren oinplanoa, eta leku egiten dion muinoaren orografiari egokitzen zaio.

Oinarrizko hiru elementutan banatu dezakegu espazio hau. Batetik arma patioa dugu, alde honen parterik handiena hartzen duena eta, lehen ere esan dugun bezala, trapezoide itxurakoa dena. Bestetik ingurabidea dago, ekialdeko eta mendebaldeko muturretan kubo eta dorre bana dituena hurrenez hurren; gisa honetan gotortuta zeuden eraikinaren muturrak. Eta hirugarrenik, gazteluaren hegoaldean, neurriz antzekoak diren bi gela daude, antza bi uraska dira. Haietatik batek, ekialdekoak, kolore arrosako igeltsuztatuaren arrastoak kontserbatzen ditu barruko aldean.

Konklusioak

Esku-hartze honi esker urrats garrantzitsua egin dugu orain arte oharkabean pasa den egitura hau ondo ezagutzeko.

Zorionez, lan hauek burura eramanda, gazteluaren oinplano osoa ezagutu ahal izan dugu, eta ezin gezurtatuzko datuekin lan egin dezakegu haren morfologia zehazteko. Hala eta guztiz ere, indusketa sakonago bat egin beharra dago gazteluan haren benetako historia ezagutuko badugu.

En cuanto al sondeo este se ha ejecutado en el interior del castillo, en la esquina este del patio de armas. Adaptándonos a la morfología del edificio, este ha tomando forma de un triángulo de 6 m de lado. En la excavación del sondeo se ha podido ver el derrumbe de los muros del edificio compuesto por mampuestos, ladrillos y argamasa.

Lamentablemente no aparecieron restos materiales de interés, salvo algunos fragmentos cerámicos del s. XIX que nos hablan del uso de esta estructura hasta al menos esa época.

El castillo

Tras la limpieza realizada, tenemos una visión completa de la estructura y podemos hablar de la totalidad de la planta del edificio. Esta parecía de forma triangular a tenor de lo observado en la fotografía aérea, y tal y como se mostraba en el plano que en 1989 se publicaba en *Apuntes para la historia de Elciego,* sin embargo una vez vista la planta al completo tras su limpieza, se ha podido comprobar que no es así. La planta del edificio es de forma trapezoidal, adaptándose a la orografía del cerro que lo alberga.

Podemos dividir este espacio en tres elementos básicos. El patio de armas, que ocupa la mayor parte de la zona, de forma trapezoidal como ya se ha comentado. El paso de ronda, que esta flanqueado en sus extremos este y oeste por un cubo y un torreón en cada lado, quedando fortificados los extremos de la construcción. Por último, en la parte sur del castillo existen dos habitaciones de dimensiones similares que parecen corresponderse con dos aljibes. Una de ellas, la localizada al este, conserva restos de enlucido de un evidente color rosáceo en su interior.

Conclusiones

A partir de esta intervención se ha dado un importante paso para conocer esta estructura que hasta ahora había pasado inadvertida.

Afortunadamente tras la ejecución de estos trabajos, podemos contar con el conocimiento de la planta total del castillo y trabajar sobre datos fehacientes sobre su morfología. Pero no será hasta que se realice una excavación más amplia en el castillo cuando podamos efectuar un recorrido certero por su historia.

N. Bartolomé Sáenz

A.11. ELVILLAR / BILAR

A.11.1. San Lorenzo Quintanillakoa

Zuzendaritza: José Ángel Apellániz González
Finantziazioa: Arabako Foru Aldundia

The excavation of various graves discovered on the slopes of a vineyard in the Rioja-Alavesa town of Elvillar revealed the survival of a medieval cemetery with two different burial levels, as well as the structural remains of the San Lorenzo church and/or chapel, associated with the site. The oldest graves are covered with large sandstone slabs and date from the mid-medieval period (11th to 13th century), although they may also have been used subsequently (high medieval) for funerary purposes. All elements can be considered the remains of more significant structures from the settlement of Quintanilla, which was abandoned at the beginning of the 15th century.

Arabako Errioxako Bilar udalerriko bazter batean hondakin antropologikoak aurkituta premiazko eskuhartze arkeologiko bat abiarazi eta hondakinak jaso genituen, agerian zeudelako. Hezurrezko hondakin horiek ezponda edo terraza baten ertz txiki batean zeuden, eta beraz metodo arkeologikoak baliatuta induskatu beharra zegoen haiei atxikiriko testuinguru guztiak aztertzeko xedean. Era berean, ezpondan agerian zeuden aztarna arkeologikoen kalitatea eta nolakotasuna aztertu nahi genituen eta aztarnategi arkeologiko bat osatzen ote zuten egiaztatu nahi genuen.

San Lorenzo, Quintanilla edo *Quintanillas* izeneko eremuan egin zuten aurkikuntza, A-3228 errepideko bihurgune itxi baten hegoaldera gutxi gorabehera 250 metrotara, Bilar herritik kilometro eskasera, haren udal barrutian. Mahasti baten mendebaldeko muga eratzen zuen ezponda baten erdialdera pilatzen ziren hondakinak, 2,5 metroko garaieran eta 61 metroko luzeran, iparraldetik hegoaldera.

Ezpondaren ebakiak betikoz desagerrarazi zituen aztarnategiko leku zehaztu gabe bateko hondakin antropologikoak, materialak eta egiturazkoak. Lubaki hau iragan mendeko 60. edo 70. urteetan irekiko zuten ondoko finka mahasti bihurtzeko xedean eremu hau prestatu zutenean.

Hileta izaerako egiturak

Ezpondaren oinetan zortzi hilobi bereizi genituen bi plano edo mailatan egokiturik: bost beheko planoan; horien gainean bestelako morfologia ageri duten beste hiruak. Beraz, leku honetan egiaztatu egiten da bi erabilera aldi bizi izango zituen nekropoli baten presentzia. Hala eta guztiz ere, ez dakigu hileta izaerako egitura honek zer nolako dentsitatea izan zuen, noraino hedatzen zen, nahiz eta espazioa nola aprobetxatu zuten ikusirik, hilobiak elkarren gainean egokitu baitzituzten, denboran gutxi iraun ez zuela pentsa genezakeen. Ezpondak (1. UE) zeharka ebakitzen ditu dokumentatutako hilobi guztiak, horrexegatik ageri dira denak ebakita: behekoak ehortzitakoen oinen aldetik edo behe herenetik; goikoak, itxuraz bederen, goiko aldetik edo ehortzitakoen buru aldearen herenetik.

A.11.1. San Lorenzo de Quintanilla

Dirección: José Ángel Apellániz González
Financiación: Diputación Foral de Álava

El descubrimiento de restos antropológicos en un paraje del municipio riojano-alavés de Elvillar, supuso la urgente puesta en marcha de una pequeña intervención arqueológica que atendiera a su documentación y recogida, dada su exposición a la intemperie. Dichos restos óseos se encontraban semienterrados en un talud o pequeño escarpe de terraza, por lo que se hacía necesaria su excavación con método arqueológico, al objeto de estudiar también todos los contextos asociados. También justificaba esta intervención la comprobación de la calidad y cualidad de las evidencias arqueológicas expuestas en el talud y su definición como integrantes de un yacimiento arqueológico.

El hallazgo se localizaba en el término de *San Lorenzo, Quintanilla* o *Quintanillas*, a unos 250 m al S. de una curva cerrada de la carretera A-3228 (de Laguardia a Elvillar), a 1 km escaso de la localidad de Elvillar y dentro de su jurisdicción municipal. Los restos se presentaban en la parte central de un ribazo de unos 2,5 m de altura y 61 m de longitud en dirección general N.-S., que hacía de límite occidental de un viñedo.

El corte del talud hizo desaparecer para siempre los presumibles restos antropológicos, materiales y estructurales de una zona indeterminada del yacimiento. Se debió de practicar en las décadas de los años 60 ó 70 del pasado siglo, en las obras de preparación del terreno de la finca contigua para su conversión en viñedo.

Estructuras funerarias

Se han detectado en la base del talud un total de ocho sepulturas de inhumación en dos planos o niveles: cinco en el plano inferior; sobre las anteriores, otras tres de morfología algo diferente. Tal hecho supone la confirmación de la existencia de una necrópolis, con dos momentos de práctica funeraria diferenciadas en el lugar. Sin embargo, se desconoce la extensión y densidad del fenómeno funerario en la zona, aunque podría considerarse cierta perduración en el tiempo en función del aprovechamiento del espacio que implica la superposición de tumbas. Todas las sepulturas documentadas han sido cortadas transversalmente por el talud (U.E. 1), de ahí que se hayan hecho visibles mostrándose seccionadas: las del plano inferior por la mitad o el tercio cercano a los pies de las inhumaciones; las del nivel superior, aparentemente por el tercio de las cabeceras.

Beheko hilobiak (1., 2., 3., 4. eta 5. Ehorzketak deituak) eremuan azaleratzen den geruza geologikoko hareharrian (35. UE) induskatuta eraiki zituzten. Harrian induskatutako hutsarte edo hobi hauek denak joera angeluzuzenekoak dira, ardatz nagusiak ekialdetik mendebaldera –burua mendebaldeko muturrean– luzatzen direla, baina badago berezitasunen bat: hobietako batean joera erdizirkularra ageri du burualdeak (2. Ehorzketa, 24. UE); beste hilobi batean erdialdea hondoratuta dagoela nabari da, agian zenduaren burua bertan egokitzeko eta hari eusteko bera (1. Ehorzketa, 20. UE). Beheko hilobi hauek hegoaldetik iparraldera egiten duen lerroan egokitzen dira bata bestearen jarraian, kasuren batean alboak partekatuz. Bost hilobiok hareharrizko lauza handiekin zigilatuta zeuden (17., 21., 25., 29. eta 31. UEak), baina hauek ere hautsi egin ziren ezponda irekitzeko lanetan zehar.

Beheko hilobien mailan eta haietako hiruren (1., 2. eta 5. Ehorzketak, hurrenez hurren) gaineko betegarrietan hondakin antropologikoak hauteman genituen (18., 22. eta 32. UEak), eta 3. eta 4. Ehorzketetako betegarrietan (26. eta 29. UEak) zegozkien eskeletoen hondakinak aurkituko genituela aurreikusi genuen. Behe mailako hilobietako eskeletoak estaltzen zituzten betegarriak ehundura hareatsu eta fineko lurrez osatuak ziren, baina ez zituzten hilobietako hutsarte guztiak estaltzen. Eskeletoak aurkitzeko xedean betegarriak induskatu bagenituen ere, ez genuen objektu edo hondakin material interesgarri bakar bat ere aurkitu (ez zeramikarik, ez metalik, ez ezer).

Egoera nahikoa kaskarrean zeuden 1. eta 2. Ehorzketetan kontserbatutako eskeletoak (19. eta 23. UEak), biak pelbisaren mailan ebakiak; beraz, zangoak betikoz galduak zituztela esan behar dugu. Biak lurperatu zituzten ahoz gora, ekialdera begira –burua hilobiaren mendebaldeko muturrean–, nekropoli kristauetan ohi den bezala. Lehenengo azterketa antropologikoaren arabera, eskeleto biak beste hainbeste emakumeri zegozkien, heldutasunean zendutako bi emakumeri.

Goiko mailako hilobiei dagokienez (6., 7. eta 8. Ehorzketak), antza hauek ez zuten estalkiarena egingo zuen lauzarik. «U» sekzioko hobi bakanek (9., 12. eta 15. UEak) eratuta egongo ziren, eta beheko hilobietako baino lur buztintsuago eta trinkoago batez estaliko zituzten (8., 10. eta 13. UEak). Nabarmentzekoa da hilobi hauen hondoa azpiko hilobien estalkietako lauzek eratu izana. Goiko mailako hilobi hauek guztiak geruza homogeneo lodi baten (7. UE) azpian ageri ziren, eta geruza hau nekropoliak izango zuen eraikin erlijiosoaren eraispenetik etorria dela uste dugu guk.

Eraikin izaerako egiturak

Hainbat eraikin egituraren hondakin oso partzialak dokumentatu ditugu, eta haietatik batzuk, hilobiak bezalatsu, ezpondak ebakiak direla esan behar dugu. Aipatu ezpondan hegoaldeen dagoena ekialdetik mendebaldera luzatzen den horma bat da, landu gabeko harriz egina, zeharka ebakia (4. UE), bertan eraiki zuten eraikin baten zimentarriaren hondakina; segur asko aipatu eraikinaren hegoaldeko horma izango zen. Lau errenkada baizik ez ditu kontserbatzen (50

Las tumbas del plano inferior (denominadas como Enterramientos 1, 2, 3, 4 y 5) fueron construidas practicando un rehundido sobre el afloramiento del estrato geológico de roca arenisca (U.E. 35). Estos huecos o fosas en la roca tienen en todos los casos planta tendente a rectangular, con los ejes mayores en sentido E.-O. –la cabecera en el extremo O.– y con alguna particularidad de interés: en un caso, la fosa de la cabecera tiende a ser semicircular (Enterramiento 2; U.E. 24); en otro, se observa un rehundido central para la posible colocación y sujeción de la cabeza del difunto (Enterramiento 1; U.E. 20). Estas sepulturas inferiores se disponen en una hilera continua de dirección S. a N., compartiendo sus laterales en algún caso. Las cinco tumbas se sellan con grandes losas de cubierta en piedra arenisca (UU.EE. 17, 21, 25, 28 y 31), que también fueron rotas por el corte del talud.

Del plano inferior de sepulturas, se detectaron restos antropológicos en los rellenos de inhumación (UU. EE. 18, 22 y 32) de tres de ellas (Enterramientos 1, 2 y 5, respectivamente), presuponiendo la permanencia de los correspondientes esqueletos en los rellenos (UU. EE. 26 y 29) de los Enterramientos 3 y 4. Los rellenos que colmataban los esqueletos de las tumbas del nivel inferior, se formaron con tierras de textura muy arenosa y fina, que no llegaban a rellenar del todo el hueco de las sepulturas. En la excavación de estos rellenos para el descubrimiento de los esqueletos, no se halló ningún tipo de objeto o resto material de interés (cerámico, metálico o de cualquier otra índole).

Los esqueletos conservados (UU.EE. 19 y 23) de los Enterramientos 1 y 2 se encontraban bastante deteriorados, ambos seccionados a la altura de la pelvis, por lo que no contaban con sus respectivas extremidades inferiores. Ambos fueron inhumados en posición de decúbito supino y orientados mirando hacia el E. –con la cabeza en el extremo O. de cada sepultura–, tal y como es preceptivo en las necrópolis cristianas. En principio, los dos esqueletos corresponderían a personas de género femenino y que fallecieron en edad adulta, según un primer examen antropológico.

Por lo que respecta a las sepulturas del nivel superior (Enterramientos 6, 7 y 8), estas se conforman aparentemente sin losas de cubierta. Parecen estar constituidas por sencillas fosas simple de sección en «U» (UU.EE. 9, 12 y 15), que se rellenaban de tierras más arcillosas y compactas que las tumbas inferiores (uu. ee. 8, 10 y 13). Conviene destacar que el fondo de estas sepulturas lo formaban las caras superiores de las losas de cubierta de las inhumaciones del nivel subyacente. Todas las sepulturas de este nivel superior quedaban a nivel subyacente de un potente estrato homogéneo (u.e. 7), presumiblemente formado a partir de la ruina del edificio religioso que sirvió a la necrópolis.

Estructuras edificatorias

Se han documentado restos muy parciales de varias estructuras constructivas, algunas también seccionadas por el corte del talud, al igual que las sepulturas. La más meridional en el citado corte se corresponde con un paramento de mampostería de dirección longitudinal E.-O. y seccionado transversalmente (U.E. 4), que se ha atribuido con los restos de la cimentación de un edificio erigido en el lugar, posiblemente la correspondiente a su pared S. Tan sólo conservaba un alza-

cm-ko altuera), errenkadak forma askotako hareharri irregularrez osatuak eta gutxi gora behera 80 cm lodi. Ageriko bi aurpegiak altxa eta bien artean lurra eta harri koskor txikiak pilatu zituzten. Hartatik gutxi gorabehera bost metroko tartera eta paraleloan ustezko beste zimentarri baten hondakinak (6. UE) hauteman genituen; baliteke eraikinaren zabalera 5 metrokoa izana.

Hegoaldeko horma honi dagokionez azpimarratzekoa da behe mailako hilobietako baten (1. Ehorzketa) gainean egotea, eta haren zimentarria (5. UE) goiko mailako beste hilobi bat (6. Ehorzketa) luzeran ebakitzea. Nolanahi ere den, argi eta garbi dago hileta izaerako egiturak eraikina eraiki aurrekoak direna.

Bukatzeko, aipagarri dira terrazaren goiko partean aurkitutako hareharrizko bi lauza handiak. Bata lekuz kanpora zegoen, kolokan, ezpondaren goiko aldeko sastrakadian nabarmen. Beste lauza (3. UE) goiko mailako hilobiak estaltzen zituen amortizazio geruzaren (7. UE) gainean egokitzen zen horizontalean. Pieza luze eta lau handia da, 2,20 metro luze iparraldetik hegoaldera, 63 cm zabal eta 13 eta 17 cm bitarte lodi. Izkinak ondo eskuairatuta ditu eta alboetako ageriko gainazalek haiek landu izanaren arrasto trauskilak ageri dituzte. Ez dakigu zer funtzio betetzen zuen, baina baliteke hemen eraikitako eraikineko zoladuraren parte bat izatea, kota garaiago batean egon arren arestian adierazitako hormen zimentarrien artean azaldu delako.

Testuinguru historikoa

Eri Aroko nekropoli batetik eta bertan eraiki zuten *San Lorenzo* tenplu edota baselizarik kontserbatutako hondakinak dira azterketaren xede izan diren aztarna arkeologikoak. Eraikin erlijiosoaren zimentarriak eta dokumentatutako nekropoliko hilobiak Quintanilla herri desagertuaren ondare elementu esanguratsuenen aztarnak dira, bertako zorupean bostehun urtetik gora kontserbatu direnak. Ezpondako estratigrafiaren azterketak 3 aldi edo osaera edota erabilera unetan bereizitako sekuentzia eskaini du:

I. aldia: Erdi Aroa

Tokiari eman zioten hileta erabilera luzean bi une bereizten dira, bakoitzari dagozkion hondakinek estratigrafian hartzen duten lekuak ere berretsia: bietan aspaldikoenera (I. Aldia-A) bildu behar ditugu beheko mailan dauden bost hilobiak, eta denboran gertuago dagoen unera (I. Aldia-B) goiko mailako hiru hilobiak eta dokumentatutako tenpluaren edota baselizaren hondakinak.

Aztertutako estratigrafian dokumentatutako aldi aspaldikoena (I. Aldia-A) Erdi Aro Betean kokatu behar da (XI. mendetik XIII. mendera arte), baina ez dugu baztertu behar lehendik ere toki honi hileta erabilera eman izana. Nekropoli hau Erdi Aro Betean kokatzeko

do de cuatro hiladas (50 cm de altura) de mampuestos irregulares en arenisca de formatos variables y una anchura de unos 80 cm. Se construyó con dos fachadas exteriores cara vista y un relleno interior de tierra y pequeños ripios pétreos entre ambos forros. Se detectaron restos de otra posible cimentación paralela (U.E. 6) a unos cinco m de distancia de la primera, pudiendo constituir esa cifra el ancho de la edificación.

Un dato a reseñar en el muro meridional es su posición a nivel suprayacente de una de las sepulturas del nivel inferior (Enterramiento 1), quizá con su fosa de cimentación (U.E. 5) cortando longitudinalmente otra tumba del nivel superior (Enterramiento 6). En todo caso, parece clara la anterioridad de parte del fenómeno funerario a la construcción del edificio.

Por último, conviene mencionar la existencia de dos grandes losas en arenisca en la parte superior de la terraza. Una se encontraba desplazada y muy basculada, destacando de entre la maleza de la parte superior del talud. La otra losa (U.E. 3) asienta horizontalmente sobre el estrato de amortización (U.E.7) que cubría las tumbas del nivel superior. Se trata de una enorme pieza alargada y plana –de planta rectangular: de 2,20 m de longitud en sentido N.-S., 63 cm de anchura observable y grosores que van de los 13 a los 17 cm.–, que aparece con sus esquinas escuadradas y con parte de las superficies laterales expuestas con aparentes marcas toscas de labra. Si bien su funcionalidad es desconocida, podría tratarse de una parte del pavimento del edificio erigido aquí, al presentarse además contenida entre las cimentaciones de muro citadas anteriormente (aunque a una cota superior).

Contexto histórico

Las evidencias arqueológicas que han sido objeto de estudio se atribuyen a los restos conservados de una necrópolis medieval, así como a los del templo y/o ermita de *San Lorenzo* que se edificó en el mismo lugar. Tanto las cimentaciones del edificio religioso como las sepulturas de la necrópolis documentada se pueden considerar vestigios de los elementos patrimoniales más signicativos del desaparecido pueblo de *Quintanilla*, que han pervivido en el subsuelo de este lugar desde hace más de medio milenio. El análisis estratigráfico del talud ha dado como resultado una configuración secuencial básica determinada por 3 fases o momentos formativos y/o de uso diferenciados:

Fase I: Edad Media

Se distiguen dos momentos diferenciados en el dilatado uso funerario del lugar, también corroborados por la posición estratigrafica de los restos que se hacen corresponder a cada uno de ellos: uno antiguo (Fase I-A), identificado con los restos de las cinco sepulturas más inferiores; y otro algo más cercano en el tiempo (Fase I-B), al que pertenecerían los restos de las tres sepulturas superiores y los restos estructurales del templo y/o ermita documentados.

El periodo más antiguo documentado en la estratigrafía analizada (Fase I-A) ha de centrarse en el periodo plenomedieval (siglos XI a XIII), sin descartar un uso funerario en el lugar anterior. La adscripción de la necrópolis a la Plena Edad Media se realiza en base a criterios

orduan irizpide soilik tipologikoetan oinarritzen gara, betiere kontuan izanik hilobi mota honen ezaugarriak: lur harritsuan induskatuak dira, estalkiarena egiten duten lauza handiekin, banakako ehorzketak estaltzen dituzten lauzekin. Ezaugarri bertsuko nekropoliak hauteman ere dira *Quintanilla*tik gertu[39]. Guk uste dugu nekropolia leku hau Erdi Aroan populatzen hasi ziren unetik egongo zela. Beraz, oso litekeena da *Quintanilla* jada XII. menderako herrixka izatea, 1164. urtean Nafarroako errege Santxo VI. Jakintsuak Guardiako hiriari hiri-gutuna eman zionean.

Oso litekeena da lauzazko estalkiak zituen nekropoli zaharraren amortizaziotik nekropoli hartako hilobien gainean berriro ere lur emateko beharra (I. Aldia-B) sortu zen unera arteko denbora tartean jatorrizko tenplua handitzeko erabakia hartu izana. Badira «*Quintaniella*»-ko parrokiari buruzko 1332. urteko albiste batzuk: antza zegokion funtzioa betetzen zuen, eta kapilau, sakristau edo apaiz bat bizi zen bertan[40]. Goiko mailako hilobiak tenpluaren barruko zorupean geratuko ziren, eta ez dugu baztertzen lur emate kolektibo bateko hobiak izatea. Gainera, zendu batzuk azpiko hilobietako estalkietako lauzen gainean egokitu izanak agerian uzten du espazioaren beharrean zeudela zenduei lur emateko garaian, seguru asko herria hazten ari zen garaian, nahiz eta ez dugun baztertzen hilkortasun tasa handiko une baten emaitza izatea[41]. Beraz, oso litekeena da 1. Aldia-B honetan kokatutako hondakin arkeologikoen jatorria Behe Erdi Aroko une batean egotea (XIII. edo XIV. mendea).

II. aldia: Aro Modernoa

Sonsierra Navarra eskualdeko (egungo Arabako Errioxa) biztanle kopuruaren mailakako beherakada izango zen Guardiako jurisdikzio zaharreko landa-herrixken huste gutxi gorabehera azkarraren eragile nagusia. Ikerlari batzuen arabera «*Quintanieylla*» hustuta zegoen XV. mendearen lehenengo laurdenerako, eta izurriak eragindako hilkortasun tasa handia aipa-

[39] Bilarreko udal barrutiko hilerri aspaldikoenen artean aipatzen da *Panaderos*, non «*…había sepulturas en tierra con tapa de tierra a doble vertiente, también en San Martín y en San Lorenzo (despoblado de Quintanilla).*». López de Ocáriz Alzola, José Javier; «*Las iglesias más antiguas de la Rioja Alavesa: Arte Prerrománico y Románico*», *Actas de las Segundas Jornadas de Estudios Históricos de la Rioja Alavesa (Cultura, Arte y Patrimonio)* agirietan (AFAren Kultura, Gazteria eta Kirol Sailak argitaratuta), 83. or, Vitoria-Gasteiz, 2004.

40 Salvador Velilla Córdoba jaunak eskainitako informazioa. Sáinz Ripa, Eliseo; eta Hernáez Iruzubieta, Venancio; «*Documentación calagurrtana del Siglo XIV*», *Archivo Catedral de Calahorra*-n. 1. lib.(Instituto de Estudios Riojanosek argitaratua), 229. or., Logroño, l995.

[41] 1330 eta 1427 urte bitartean biztanleen kopuruak behera egin zuen etenik gabe Guardian eta inguruko herrixketan –horien artean zegoen *Quintanilla*–. Hasierako urteetako beherakada hori «*… 1348-49ko eta 1362ko izurrien ondorioari*» egozten zitzaion. Gainera, «*1348ko Izurri Beltzak - Guardiako kasuan eta hurrengo bi urteetan gertatutako kazkabar erauntsi handiekin batean- eragingo zuen beherakadarik handiena.*» Díaz de Durana Ortiz de Urbina, José Ramón; Álava en la Baja Edad Media. Crisis, Recuperación y Transformaciones Socioeconómicas (C. 1.250-1.525) (AFAren Argitalpen Zerbitzua), 106.-110. orr., Vitoria-Gasteiz, 1986.

estrictamente tipológicos, dadas las características de este tipo de sepulturas: excavadas en el terreno rocoso y con grandes losas de cubierta que sellan cada una de las inhumaciones individuales. Necrópolis de similares características también se han detectado en otros lugares muy próximos a Quintanilla[39]. Se ha de suponer la existencia de la necrópolis desde los primeros momentos de ocupación o hábitat humano en el lugar durante la Edad Media. Por tanto, es posible que Quintanilla ya existiera a mediados del siglo XII, cuando se dio fuero o carta de población a la villa de Laguardia, otorgado por el monarca navarro Sancho VI El Sabio en 1164.

Es muy probable que en el intervalo de tiempo que fue desde la amortización de la necrópolis antigua con cubiertas de losas y la necesidad de volver a practicar inhumaciones encima de aquellas (Fase I-B), se decidiera ampliar el templo original. Hay noticias referidas a la parroquia de «*Quintaniella*» en el año 1332: al parecer estaba vigente y en uso por parte de algún capellán, sacristán y sacerdote[40]. Las inhumaciones del nivel superior quedarían en el subsuelo del interior del templo, no habiéndose descartado la posibilidad de su atribución con una fosa de inhumación colectiva. Además la presencia de inhumaciones sobre las losas de cubierta de sepulturas subyacentes, explicaría una necesidad de espacio para el rito funerario, probablemente en momentos de expansión demográfica, sin descartar también un episodio puntual de alta mortandad que también lo requiriera[41]. Por tanto, sería plausible que los restos arqueológicos detectados y atribuidos a esta Fase 1-B, tuvieran su origen en algún momento centrado en la Baja Edad Media (siglos XIII ó XIV).

Fase II: Edad Moderna

El paulatino descenso poblacional en la comarca de la Sonsierra Navarra (actual Rioja Alavesa), sería la principal causa del, también más o menos rápido, abandono de algunos pequeños núcleos rurales en la antigua jurisdicción de Laguardia. Según algunos investigadores, «*Quintanieylla*» ya se encontraría despoblada en el primer cuarto del siglo XV, aludiendo a la motandad por epide-

[39] Como zonas cementeriales antiguas en la jurisdicción de Elvillar, se citan *Panaderos*, donde «*…había sepulturas en tierra con tapa de tierra a doble vertiente, también en San Martín y en San Lorenzo (despoblado de Quintanilla).*». López de Ocáriz Alzola, José Javier; «*Las iglesias más antiguas de la Rioja Alavesa: Arte Prerrománico y Románico*», en *Actas de las Segundas Jornadas de Estudios Históricos de la Rioja Alavesa (Cultura, Arte y Patrimonio)* (ed. Departamento de Cultura, Juventud y Deportes de la D.F.A.), pág. 83, Vitoria-Gasteiz, 2004.

[40] Información proporcionada por cortesía de D. Salvador Velilla Córdoba. Sáinz Ripa, Eliseo; y Hernáez Iruzubieta, Venancio; «*Documentación calagurrtana del Siglo XIV*», en *Archivo Catedral de Calahorra*, vol. 1 (ed. Instituto de Estudios Riojanos), pág. 229, Logroño, l995.

[41] Entre 1330 y 1427 la población de la villa de Laguardia y sus aldeas –entre las que se encontraba *Quintanilla*– sufrió un descenso poblacional contínuo que se achaca en los primeros años a «*…las consecuencias de la peste de 1348-49 y la de 1362*». Además, «*La incidencia de la Peste Negra de 1348 acompañada en el caso de Laguardia por tormentas de granizo en los dos años siguientes supuso, seguramente, el descenso más espectacular*». Díaz de Durana Ortiz de Urbina, José Ramón; Álava en la Baja Edad Media. Crisis, Recuperación y Transformaciones Socioeconómicas (C. 1.250-1.525) (Servicio de Publicaciones de la D.F.A.), págs. 106 a 110, Vitoria-Gasteiz, 1986.

San Lorenzo Quintanillakoa. Behe mailako hilobien zerrenda, estalkiko lauzak puskatuta.

San Lorenzo de Quintanilla. Alineación de las sepulturas del nivel inferior, con sus losas de cubierta seccionadas.

tzen dute herrixka uzteko arrazoi nagusi gisa[42]. 1427. urteko dokumentu batek hustutzat dauzka Sonsierrako herrixka batzuk, tartean *Quintanilla*. Era berean, XIV. eta XV. mendeetan eskualde honetako herrixkak mendean edukitzeko xedean Gaztelako eta Nafarroako erresumen artean gertatutako gerrek ekarritako emigrazioak ere herrixka batzuen hustea eragingo zuen. Izan ere, 1461. urtean Gaztelako Enrike IV.ak Guardiako hiria konkistatu zuen, eta horrek halako gabeziak ekarriko zizkion hiriari eta bertako herrixkei.

XIV. mendetik aurrera tokiko biztanle gehienek abandonatu egin zuten herrixka, eta ondorioz San Lorenzo parrokiak bere kategoria galduko zuen, landa izaerako baseliza bihurtzeko. Baina oraingoz ez dago zehazterik kategoria aldaketa horrek aurreko tenpluaren murriztea eta fisonomia aldaketa eragin zuen ala ez. Burura eramandako lanei buruzko 1729. urteko erreferentzia bat baizik ez dago: «*…en la hermita de San Lorenzo, por estar distante, se haga un pórtico, con sus pies de piedra o madera y dentro de ella, sobre la mesa altar, una bobeda de ladrillo y yeso, para preservar de tierra y polvo*» [43].

III. aldia. Aro Garaikidea

Aurreko baseliza XVIII. mende amaieratik aurrera eta hurrengo mendean zehar hondatuko zen betikoz.

[42] «*En 1427 se hallaba ya desierto,… Parece que su desaparición completa fue motivada por una epidemia,..*». López de Guereñu Galárraga, Gerardo; *Toponimia alavesa, seguido de mortuorios o despoblados y pueblos alaveses*, en *Onomasticon Vasconiae*, 5. zenb. (Euskaltzaindia arg.), 572. or (203. zenb.), Bartzelona, 1989. «*Y en 1427 se despueblan Zurriarte, Navaridas de Suso, Quintanilla, San Millán, y Esquide.*». García Fernández, Ernesto; «*Economía y sociedad de la Comunidad de Villa y Tierra de Laguardia durante la Baja Edad Media*», en *La Formación de Álava. 650 Aniversario del pacto de Arriaga (1332-1982)* (Congreso de Estudios Históricos Kongresuko komunikazioak) I. lib. (AFAren Argitalpen Zerbitzua), 397. or., Vitoria-Gasteiz, 1985.

[43] Salvador Velilla Córdoba jaunak eskainitako informazioa. *Archivo Diocesano, Libro de Fábrica, 1729/83*.

mia como causa principal del abandono[42]. Así, un documento de 1427 da por despobladas algunas aldeas de la Sonsierra, entre las que se encontraría *Quintanilla*. Otros hechos como la emigración provocada por los conflictos bélicos entre los reinos de Castilla y Navarra por el control de las villas de esta comarca en los siglos XIV y XV, también pudieron influir en el despoblamiento de algunos núcleos. De hecho, la conquista de la villa de Laguardia en 1461 por Enrique IV de Castilla hubo de conllevar ciertas penurias no soló a la villa sino también a sus aldeas.

El progreesivo abandono de la mayor parte de la población del lugar a partir del siglo XIV, pudo traer como consecuencia la pérdida de categoría de su parroquia de San Lorenzo, que pasaría a contemplarse como simple ermita rural. Ahora bien, por el momento no es posible determinar si este cambio de categoría pudo suponer la reducción y cambio de fisonomía del templo parroquial anterior. Tan sólo se cuenta con una referencia del año 1729, respecto a obras «*…en la hermita de San Lorenzo, por estar distante, se haga un pórtico, con sus pies de piedra o madera y dentro de ella, sobre la mesa altar, una bobeda de ladrillo y yeso, para preservar de tierra y polvo*»[43].

Fase III: Edad Contemporánea

La ruina progresiva y definitiva de la anterior ermita debió acontecer a partir de finales siglo XVIII y du-

[42] «*En 1427 se hallaba ya desierto,… Parece que su desaparición completa fue motivada por una epidemia,..*». López de Guereñu Galárraga, Gerardo; *Toponimia alavesa, seguido de mortuorios o despoblados y pueblos alaveses*, en *Onomasticon Vasconiae*, núm. 5 (ed. Euskaltzaindia), pág. 572 (nº 203), Barcelona, 1989. «*Y en 1427 se despueblan Zurriarte, Navaridas de Suso, Quintanilla, San Millán, y Esquide.*». García Fernández, Ernesto; «*Economía y sociedad de la Comunidad de Villa y Tierra de Laguardia durante la Baja Edad Media*», en *La Formación de Álava. 650 Aniversario del pacto de Arriaga (1332-1982)* (Comunicaciones del Congreso de Estudios Históricos) vol. I (ed. Servicio de Publicaciones de la D.F.A.), pág. 397, Vitoria-Gasteiz, 1985.

[43] Información proporcionada por gentileza de D. Salvador Velilla Córdoba. *Archivo Diocesano, Libro de Fábrica, 1729/83*.

Izan ere, 1763. urtean baziren bertan bizi ziren auzo batzuk, baina ez zen herrixkatzat hartua. Urteen joanean tokiko paisaiatik desagertu egin ziren Quintanilla herri hustuko etxe hondakinak eta baseliza, hormak desmuntatu eta bertako harriak erabiliko baitzituzten azkar hazten ari zen ondoko Bilar herriko eraikinetan baliatzeko. Era berean, laborantza lanek (batez ere mahastiak eta laboreak) zuzeneko eragina izango zuten Erdi Aroko herrixkari dagozkion aztarnak fisikoki desagerrarazteko orduan. Aipagarria da herri hustuaren pareko mazelaren parte bati izena ematen dion *Casas Caídas* toponimo edo leku izena[44].

XIX. mendearen erdialdean artean gogoan zuten bertako auzoen memoria kolektiboan iraganeko Erdi Aroko herrixkaren oroitzapena. Baina, tamalez, geldoen zabortegi gisa erabili da ezpondako terraza alde hau, *San Lorenzo de Quintanilla* toki eder eta enblematiko honetako historia, arkeologia eta ondarearen gaineko ezagutza eza agerian utzita.

rante la siguiente centuria. De hecho, hacia 1763 todavía debía de haber vecinos habitando el lugar, pero sin considerarse como pueblo. Con el paso de las décadas, las ruinas de casas y de la ermita del despoblado de *Quintanilla* irían desapareciendo del paisaje del lugar, probablemente gracias al desmonte de paredes para el acarreo de piedra necesaria para el crecimiento de la pujante y cercana villa de Elvillar; además la intensificación de cultivos (viñedo y cereal, sobre todo) también incidiría en esta desaparición física de los vestigios del poblamiento medieval. Es de destacar el topónimo menor de *Casas Caídas*[44] que da nombre a una zona de ladera frente al despoblado.

Aún a mediados del siglo XIX no se habría perdido del todo en la memoria colectiva de los vecinos de la zona, el recuerdo de la existencia pasada de la aldea medieval. Pero por desgracia, en los últimos decenios, el lugar de la terraza del talud ha sido utilizado como vertedero de inertes, reflejo del desconocimiento de la carga histórica, arqueológica y patrimonial de este emblemático y bello lugar de *San Lorenzo de Quintanilla*.

J.A. Apellániz González

A.12. IRUÑA OKA / IRUÑA DE OCA

A.12.1. **Iruña/Veleia**

II. kanpaina (EHU)
Zuzendaritza Julio Núñez Marcén
Finantziazioa: Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila

A.12.1. **Iruña/Veleia**

II Campaña (UPV)
Dirección Julio Núñez Marcén
Financiación: Gobierno Vasco, Departamento de Cultura

During 2011, the excavation work begun during last season in sector 22 continued. Also, and as in the first intervention, in addition to the archaeological excavation itself, archaeological work linked to the monitoring of the restoration work, landscaping, topographic documentation and, of course, education / guided tours (which this year have increased notably) was also carried out. Obviously, all this work has affected both sector 22 and the old excavated zones inside the «oppidum» and wall.

2011. urtean zehar aurrera jarraitu dugu iazko kanpainan 22. sektorean hasitako indusketa lanekin. Era berean, lehenengo esku-hartze hartan bezala, indusketa arkeologikoa bera egiteaz gainera, eraberritzeko lanen gaineko kontrola, paisaia eta topografia dokumentatu ditugu, eta nola ez, arlo didaktikoarekin lotutako egitekoak –bisitaldi gidatuak– eraman ditugu burura, aurten, zorionez, nabarmen egin baitu gora bisitarien kopuruak. Aurtengo lan hauek guztiek, zentzuzkoa denez, 22. sektorea, «oppidum»-en barruan lehendik induskatutako aldeak eta bertako harresia, izan dute xede.

Durante el año 2011 se han continuado los trabajos de excavación comenzados en el sector 22 en la campaña del pasado año. También y, del mismo modo que en la primera intervención, se han realizado, además de la excavación arqueológica propiamente dicha, labores arqueológicas relacionadas con el control de la restauración, el paisajismo, la documentación topografía y, como no de la didáctica –visitas guiadas– que este año afortunadamente han aumentado notablemente. Todas estas últimas labores han afectado, lógicamente, tanto al sector 22, como a las antiguas zonas excavadas en el interior del «oppidum» y en la muralla del mismo.

[44] González Salazar, José Antonio; *Cuadernos de Toponimia 3: Toponimia Menor de la Rioja Alavesa* (AFAren Argitalpen Zerbitzua), 48. eta 49. orr, Vitoria-Gasteiz, 1986.

[44] González Salazar, José Antonio; *Cuadernos de Toponimia 3: Toponimia Menor de la Rioja Alavesa* (ed. Servicio de Publicaciones de la D.F.A.), págs. 48 y 49, Vitoria-Gasteiz, 1986.

22. sektorearen indusketa (hego-ekialdea)

4 hilabetetan zehar eraman genituen burura indusketa arkeologikoari zegozkion lanak. Gutxi gorabehera 745 m²-ko azalera aztertu genuen, 2010. urtean induskatutako gutxienez 2 gela, 1. eta 2. Barrutiak deituak, argitalpen honetan bertan egindako komunikazioan jada aztertuak, biltzen zituen eraikuntza multzo berean –dokumentatutako 3etan erdiko terrazaren ipar-ekialdean–.

2011. urterako proiektatutako jarduerarekin halako koherentzia eman nahi genien induskatutako elementuei, haiei leku egiten zien eraikinaren neurriak zehaztu nahi genituen eta, gisa horretan, eraikina bere osotasunean ulertu nahi genuen, hori guzti hori bere izaera eta funtzioa zehaztu ahal izateko, eraikuntzaren data zehazteko, erabilera aldiak eta abandonatze aldiak zehazteko, eraikuntza aldiak zehazteko, eta eraikin honek hurbileko esparru eraikiekin zituen harremanak ulertzen hasteko xedean.

Guztira aipatutako eraikinari dagozkion beste 12 «gelatan» lan egin dugu (4., 5., 6., 7., 8., 9., 10., 11., 12. eta 13. barrutiak, erdiko patioa eta peristiloa), eta 2 eraikuntza aldi garrantzitsu bereizi ahal izan ditugu bertan, eraikinaren fundazio uneari dagokiona bata eta hura berritu zuten garaiari dagokiona bestea. Elementu hauek hainbat gelatan dokumentatu dira, eta materialaren ikuspuntutik Goi Inperioaren garaian kokatu behar ditugu. Gainera, munta txikiagoko konponketak egin zituzten bertan, eta erromatarren azken garaian eraikin multzoari berriro ere erabilera handia eman ziotela egiaztatzen da. Bukatzeko, pixkana-pixkana abandonatu egin zutela ikusi dugu, egiturak kolapsatu egin zirela sute baten ondorioz, baina lehendik eraikuntza materialak arpilatu egin zituztela esan behar dugu, betiere erromatarren azken garaian ari garela.

Eraikinaren jatorrizko egituraren azpian aurrez zeuden egitura batzuk dokumentatu genituen. Induskatutako multzo arkitektonikoa fundatu zuten unean amortizatu zituzten arestian aipatutako egiturak.

Induskatutako eraikinaren eraikuntza, funtzionamendu eta abandonatze aldiak

Eraikin arkupedunaren eraikuntza

2010eko eta 2011ko kanpainetan zehar induskatutako eraikin handiak K.o. I. mendearen eta II. mendearen erdialde arteko une oraindik zehaztu gabean du jatorria.

Indusketa eremuaren ekialdean dokumentatutako XXXIV bide atalaren mendebaldean dago, eta ekialdean dauzkan gelen bidez egiten du bat harekin. Oinplano koadroko patio arkupedun handi baten inguruan egituratzen da eraikuntza multzo hau. Gutxi gorabehera 130 m²-ko azalera duen patioaren inguruan 3 m zabal den korridorea dago, multzoa artikulatzen duena, iparraldeko, hegoaldeko, ekialdeko eta mendebaldeko gelek korridore honi begira baitaude.

La excavación del sector 22 (sudeste)

Los trabajos estrictamente de excavación arqueológica realizados se llevaron a cabo durante 4 meses, y han sido desarrollados sobre una superficie de aproximadamente 745 m², extensión que forma parte del mismo complejo edilicio –situado al noreste de la terraza central de las 3 documentadas– al que pertenecerían al menos 2 de las estancias excavadas en 2010, los denominados Recinto 1 y 2, ya analizados en nuestra comunicación anterior en esta misma sede.

Con la actuación proyectada para el 2011 se pretendía dar coherencia a los elementos ya excavados, delimitando la extensión exacta del edificio al que pertenecían y conseguir, de este modo, una comprensión global del mismo, todo ello, para intentar definir su carácter y funcionalidad, así como tratar de datar su construcción, las etapas de funcionamiento y abandono, las diferentes fases constructivas, y también comenzar a comprender las relaciones de esta edificación con los ámbitos constructivos más inmediatos a él.

En total, se ha intervenido sobre 12 nuevas «estancias» pertenecientes al mencionado edificio (Recintos 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, patio central y peristilo) que han permitido documentar 2 importantes momentos constructivos, uno correspondiente al de la fundación del edificio y otro, al de una importante reconstrucción posterior del mismo, documentada en varias de sus habitaciones, ambos datables, desde el punto de vista material, en la etapa altoimperial. Además, se han observado reparaciones y refacciones de menor índole durante su funcionamiento, y una fase de notable reutilización en época tardorromana. Por último, se ha identificado su paulatino abandono hasta el colapso total de las estructuras a causa de un incendio, con posterioridad al que se documentan sucesivos expolios y saqueos de materiales constructivos que en ningún momento parecen ir más allá del periodo romano tardío.

Bajo la construcción original del mismo edificio, se documentaron también una serie de estructuras preexistentes que, evidentemente, resultaron amortizadas en el momento fundacional del conjunto arquitectónico excavado.

Fase de construcción, funcionamiento y abandono del edificio excavado

Construcción del edificio porticado

El gran edificio excavado durante las campañas de 2010 y 2011 tendría su origen en un momento aún indeterminado entre mediados del siglo I d.C. y mediados del siglo II d.C.

Se sitúa al oeste del tramo de la vía XXXIV documentado en la zona oriental de la zona de la zona de excavación, y se comunica con la misma a través de las habitaciones situadas en su lateral oriental. Este complejo constructivo se distribuye en torno a un gran patio porticado de planta cuadrangular, de unos 130 m² de superficie, al que rodea un pasillo, de 3m de anchura, que actúa como elemento articulador del complejo, ya que las estancias situadas al norte, sur, este y oeste tienen sus accesos abiertos hacia él.

Jada iazko esku-hartzean agerian geratu zen eraikuntza alde nabarmenak zeudela eraikinaren zimentarriari dagozkion hormen (22111., 22045., 22047., 22049., 22048., 22470., 22192., 22856., 22168., 22663., 22740., 22030., 22016. eta 22028. UEak) eta hormako zokaloen, hau da, ageriko obraren, artean (22041. eta 22036. UEak).

Egitura guztiak buztinez batutako harri landu gabeez eginak badira ere, zimentarriak askoz ere modu trauskilagoan eginak dira, landu gabeko kareharri margatsuak erabili zituzten, eta hauek hormei leku egiteko lubakitan «*zaku*» delako teknikaren arabera metatu zituzten. Gainera, neurriei dagokienez, handiak dira zimentarriko eta hormetako harrien arteko aldeak, eta zimentarriko errenkadak irregularrak dira ondorioz, «*zaku*» teknikaren arabera egokituta zimentarriko hormaren kanpoko aurpegia baizik ez baitu kareztaturik. Hormetako zokaloak mota bereko harriekin eginak badira ere, askoz ere uniformeagoak dira, harriei ertzak kendu eta honenbestez neurri erregularreko piezak erabili baitzituzten. Hormak askoz ere modu zainduago batean altxa zituzten, errenkadak erregularrak ziren eta hormen aurpegi biak kareztaturik zeuden. Itxura guztien arabera eraikuntza izaerako ezberdintasun hauen arrazoia soilik ageriko elementuei eman nahi zieten itxura ederragoan bila behar dugu, ez baitugu jarraikitasun soluziorik dokumentatu zimentarriaren eta jatorrizko hormen artean.

Berreraikuntzak eraikinean

Hala eta guztiz ere, eraikineko gela batzuk erabat berritu zituztela ikusi ahal izan dugu. Berreraikuntza lan hauek agian gelak bestela banatzeko proiektu bati erantzuten diote, edo beharbada lur eremuaren ezegonkortasunak kalteak eragingo zituen eraikinaren hainbat puntutan, nahikoa larriak gela horiek erabat berreraikitzeko, kalteak konpondu beharrean. Azken hipotesi honek azalduko luke 3. barrutiko zimentarriaren neurriz kanpoko sakonera –2 metrotik gorakoa– (iazko kanpainan induskatua); sakonera maila horretan egokituko zuten zimentarria eutsi beharreko kargari hobe eusteko eta, gisa honetan, eraikinaren egonkortasuna sendotzeko. Aurten ikusi dugu nola gela hau ez den arestian azaldutako moduko zimentarria duen bakarra. Antzeko oinarriak[45] dokumentatu ditugu (22470. eta 22168. UEak) 5., 6., 7. eta 8. geletako eta patioko hormei leku egiteko lubakietan (22402., 22407. eta 22420. UEak).

Zehatz esateko, 4., 5. 11. eta 12. barrutiak eta segur asko baita 3. barrutia ere, nola berreraiki zituzten dokumentatu ahal izan dugu, aurrez zeuden hormen gailurrak eraikuntza materialarekin berdindu baitzituzten horma berriko egitura bertan egokitzeko. Era berean, jatorrizko hormen aldean, beste orientazio bat eman zietela nabari da, edo zuzenketa batzuk egin zi-

[45] Egia da ez dugula 3. Barrutiko zimentarrien sakonera maila handiaren pareko beste maila sakonik dokumentatu, baina gela hauetan hormei leku egiteko lubakien mailaraino baiziik ez dugu induskatu, eta ondo asko ikusten da nola zimentarriek beherago egeten duten..

Ya durante la intervención del pasado año se observaron evidentes diferencias constructivas entre los muros correspondientes a la cimentación del edificio (UUEE 22111, 22045, 22047, 22049, 22048, 22470, 22192, 22856, 22168, 22663, 22740, 22030, 22016, 22028) y los zócalos del alzado, es decir la obra vista (UUEE 22041, 22036).

A pesar de que todas las estructuras se realizaron en mampostería trabada con arcilla, la obra de las fundaciones es mucho más descuidada, realizada con calizas margosas sin ningún tipo de tratamiento y colocadas a «*sacco*» en la zanja constructiva de los muros. Además, las diferencias de tamaño entre los mampuestos de cimentación y alzado resultan también considerables, dando como consecuencia unas cimentaciones con hiladas muy irregulares, ya que al haber sido colocadas a «*sacco*» solo presentan careadas la superficie exterior del muro de cimentación. Los zócalos de los alzados, aunque se realizaron utilizando el mismo tipo de piedra, son mucho más uniformes, puesto que los mampuestos utilizados se desbastaron convenientemente consiguiendo, de este modo, piezas de tamaño regular. La puesta en obra de los alzados se realizó de una forma mucho más cuidada, aparejada en hiladas regulares y careando ambas facetas de los muros. Parece de esta forma, y lógicamente, que estas diferencias constructivas responden únicamente a una más cuidada ejecución de los elementos visibles, ya que no se ha podido documentar ninguna solución de continuidad entre la cimentación y el alzado de la obra original.

Reconstrucciones en el edificio

No obstante, sí se ha podido reconocer la reconstrucción total de algunas habitaciones del edificio, reconstrucción que obedece, quizás, simplemente a un nuevo proyecto de distribución de las mismas, o porque la inestabilidad del terreno provocó en ciertos puntos de la construcción los suficientes daños como para plantearse una refacción completa de esas estancias, en lugar de la simple reparación de los desperfectos. Esta última hipótesis, explicaría el porqué de la descomedida profundidad –más de 2 m– en la cimentación del recinto 3 (excavada en la pasada campaña), que se cajearía con tanta profundidad con la intención de contrarrestar mejor las cargas portantes, intentando de este modo fortalecer la estabilidad del edificio. Durante este año, hemos podido comprobar cómo esta habitación no es la única cimentada de este modo. En las zanjas de robo (UUEE 22402, 22407 y 22420) de los muros de los recintos 5, 6, 7, 8 y del patio se han documentado fundaciones[45] semejantes (UUEE 22470, 22168).

Más en concreto, hemos podido documentar como fueron reconstruidos los recintos 4-5 - 11 y 12, y probablemente también el 3, ya que se observan nivelaciones realizadas con rellenos constructivos en las cumbreras de los muros preexistentes para asentar los muros de nueva fábrica, así como algunas reorientaciones o correcciones en la dirección de los

[45] Es cierto que en ningún caso se ha documentado tanta profundidad en las cimentaciones como en las del Recinto 3, pero en estos recintos sólo se ha excavado hasta el propio nivel de robo, y se observa como las cimentaciones continúan en profundidad.

Iruña/*Veleia*. Eraikin multzoaren oinplanoa, 2010ean eta 2011n aztertutako eremuarekin.

Iruña/*Veleia*. Planta del conjunto edilicio con la zona intervenida en 2010 y 2011.

tuztela. Gainera, 11. eta 12. gelak berriro ere egokitu zituzten, lehenengoa handiagoa izango zen eta bigarrena txikiagoa.

Moldatutako barruti hauetako horma berriak landu gabeko harriz eginak ziren, aurreko egituren zimentarrietan egokituak ziren, baina horma hauek multzoko jatorrizko hormen eraikuntzan baliatu zuten teknika baino askoz ere teknika landuago batez altxatuko zituzten. Bertako kareharri margatsuko harri xabalei ertzak kendu eta haiek berdindu zituzten, eta honenbestez aski errenkada erregularretan altxa zituzten hormak, ondo kareztatuak gainera.

Konponketa txikiak

Aztertutako puntu guztietan garai berean eginak diren artean ez dakigun arren, eraikina baliatzen zuten artean konponketa txiki batzuk egin zituztela dokumentatu dugu. Batez ere geletara iristeko sarbideekin zerikusia duten aldaketak dira. Era berean beste gelaren bat bitan banatu zuten. Munta txikiagoko konponketa hauek 4., 5. eta 8. barrutietan dokumentatu ditugu.

Abandonatzea

Aldi honetan jatorrizko diseinuari erantzuten zion funtzioa betetzeari utzi zion eraikinak. Honenbestez abandonatu egin zuten eraikin multzoa, baina oraindik goiz da luzaroan abandonatuta egon ote zen ala denbora tarte labur batean baino ez zehazteko. Aldi honetan arpilatutako unitate batzuk dokumentatzen dira (22529., 22667., 22727. eta 22742. UEak), baina oso modu puntualean, agerikoa baita ondorengo berrerabilpenek suntsitu edo ezkutatu egin dituztela une honi dagozkion unitate estratigrafiko asko. Hurrengo aldian islatuko den bezala, ondo asko dokumentatzen da eraikuntza elementuen desmuntatzea, baina ez daki-

nuevos muros respecto a los originales. Además, las estancias 11 y 12 fueron redistribuidas, dando como resultado la ampliación espacial de la primera y la reducción de superficie en la segunda.

Los nuevos muros, de estos recintos modificados, se levantan en mampostería sobre la cimentación de las estructuras anteriores, pero con una técnica mucho más depurada que la empleada en la que sería la construcción original del alzado del complejo. Las lajas de caliza margosa local, en estos casos, fueron correctamente desbastadas y regularizadas, levantando de este modo muros de hiladas bastante regulares y bien careados.

Pequeñas reparaciones

Aunque todavía desconocemos si pertenecen a un momento coetáneo en todos los puntos comprobados, se han documentado una serie de pequeñas reformas durante el uso del edificio, reformas que, sobre todo, responden a cambios relacionados con la distribución de los accesos a las diferentes estancias, así como a la compartimentación de alguna de ellas. Concretamente estas reparaciones menores han podido ser reconocidas en los recintos 4-5 y también en el 8.

Abandono

En esta fase el edificio dejó de ser utilizado para la función que respondía al diseño original. De esta forma, el complejo edilicio se abandonó, pero todavía es pronto para determinar si fue durante un largo periodo de tiempo o, simplemente, por un corto lapso temporal. Durante esta etapa se documentan algunas unidades de saqueo (UUEE 22529, 22667, 22727 y 22742), aunque de manera muy puntual ya que resulta evidente que las reutilizaciones posteriores han destruido o enmascarado buena parte de las UUEE, correspondientes a este momento. Como se verá reflejado en la fase posterior, el desmonte de elementos

Iruña/*Veleia*. Indusketaren ikuspegi panoramikoa.

Iruña/*Veleia*. Vista panorámica de la excavación.



gu desmuntatze lan horiek egitura berriak eraikitzeko baliatu zituzten hala eraikina arian-arian biluztuko zituzten lapurretak egin ote zituzten denbora luzearen joanean. Lur jotako atalak dokumentatu ez ditugunez, guk uste dugu denbora laburrean edukiko zutela abandonaturik, baina pentsatzekoa da, era berean, eraikina berriro ere erabiltzen hasi zirenean lur jotako atalak jasoko zituztela, edo bertako eraikuntza materiala berriro ere probestuko zutela.

Berriro ere erabiltzeko aldia: jatorrizko funtzioaren galtzea

Dokumentatutako unitate batzuen ezaugarriei eta horien kokalekuei erreparatuz gero, esan dezagun eraikinari jatorrikoa ez bezalako erabilera eman ziotela aldi honetan. Proiektatu zen jatorrizko funtzioa betetzeari utzi zionean, geletako batzuk etxeko jardueretarako eta segur asko baita artisautza lanetarako erabiliko zituzten, izan ere, bi labe dokumentatu ahal izan ditugu, 11. barrutian bata eta erdiko patioan bestea (22753.=22788., 22789. eta 22796. UEak). Labe hauek eraikitzeko orduan desmuntatu egin zituzten gela batzuetako euskarri-egiturak (22037. eta 22172. UEak).

Behin-betiko abandonatzea

Abandonatzea

Eraikina erabili zuten azken aldiaren eta egituren behera etortzearen artean kokatu behar dugu fase hau. Eraikina abandonatu ostean prozesu bikoitza gertatuko zen: alde batetik, berez, ez erabiltzeagatik, hondatuko ziren eraikuntza elementuak, eta bestetik eraikuntza materiala lapurtuko zuten, eraikineko egiturak behera etortzea azkartuko zutenak (22393., 22491., 22496. eta 22604. UEak). Guk pentsatzen

constructivos queda perfectamente documentado, lo que desconocemos, es si el mismo se realiza ex profeso para la edificación de nuevas estructuras, o si se van produciendo robos durante un tiempo más prolongado que van desmembrando paulatinamente el edificio. La inexistencia de derrumbes, nos podría llevar a pensar en un abandono muy reducido en el tiempo, pero es de suponer, que en el momento en que el edificio se vuelve a reutilizar, estos derrumbes se retirasen, e incluso que el material constructivo que contenían fuese reaprovechado.

Fase de reutilización: pérdida de la función original

Se han podido documentar algunas unidades que dadas sus características, y en muchos casos su ubicación, nos indican un uso del edificio de índole diversa a la que este debió de tener en origen. Parece que una vez producido el cese en el uso del complejo edilicio con la funcionalidad original con la que se proyectó, algunas de sus estancias se reaprovecharon para actividades domésticas y posiblemente, también artesanales, ya que se han podido documentar 2 hornos, uno en el recinto 11 y otro en el patio central (UUEE 22753=22788, 22789 y 22796). Para la construcción de ambos, se desmontaron estructuras portantes de algunas de las estancias (UUEE 22037 y 22172).

Abandono definitivo

Abandono

Esta fase está encuadrada entre el último periodo de uso del edificio y el derrumbe de las estructuras. Una vez abandonado, se produciría un doble proceso: por un lado los elementos constructivos fueron deteriorándose de forma natural por el desuso y por otro, se sucederían una serie de robos de material constructivo, que en muchos casos precipitaron la ruina de las construcciones (UUEE 22393, 22491,

dugu prozesu honek luze joko zuela denboran, espazioak behin eta berriro erabili baitzituzten, eta gainera ez dugu uste prozesua berdin gertatuko zenik eraikinaren bazter guztietan.

Suntsitzea

Eraikinaren gutxienez iparraldea behera etorri zela dokumentatu ahal izan dugu. Une jakin batean etorri zen behera, ez zen denboran luzatutako ekintza, eta segur asko alde hau eraso zuen suteak eraginda erori zela esan behar dugu. Ondorioz, behera etorritako unitate handi bat sortu zen (22222. UE), 8., 9., 10., 11. eta 12. geletan, iparraldeko korridorean eta ekialdekoaren parte batean eta eraikinaren ekialdeko bidearen atal batean hedatuko zena. Behera etorritako egituren hondakinek osatzen dute depositu hau, eta kolore oso heterogeneoak erakusten ditu (gorriak, laranjak, horiak, marroiak eta beste), biltzen dituzten eraikuntza materialen eta suarekin izandako harremanaren arabera betiere. Dokumentatutako buztina segur asko buztinezko edota adobezko hormetatik behera etorritakoak dira, landu gabeko harriak zokaloetakoak izango dira. Deposituek, era berean, paretak eta paretetako eta sabaietako habe kiskaliak estaltzen zituzten estalduren eta pinturen hondakinak dauzkate.

Konplexua abandonatu zuten aldian zehar dokumentatutako lapurreta-lubaki batzuk (22492., 22493., 22510., 22516. eta 22593. UEak) sute unitate handi honek eta berak eragindako lur jotze unitateak amortizatuta egon dira, eta beraz, gutxienez lapurreta aldi bat eraikin osoa behera etorri baino lehen gertatu zela esan behar dugu.

Lapurretak eta arpilatzeak

Aztarnategiaren sektore honetan identifikatu ahal izan dugun une gertukoenak eraikuntza konplexuaren behin-betiko suntsiketaren ostean gertatu ziren lapurreta sorta bati (22455., 22482., 22498., 22504. eta 22677. UEak) erantzuten dio. Bitxikeria gisa, esan dezagun hormetako harri landu gabeei leku egiten zieten lubaki hauek induskatuta haietako askotan ikusi dugula nola hormetako estaldurek jatorrizko lekuan jarraitzen zuten, ukitu gabe. Eta hori soilik azaldu daiteke esanez arpilatzeak gertatzen ari ziren unerako gelak behera etorritako egituren hondakinez estalita zeudela, izan ere, euskarriarena egingo zuen horma aterata pinturen euskarriarena egingo baitzuen aipatu unitateak.

Arpilatze aldi honen garai bertsukoak dira paldoei leku egiteko zulo batzuk (22414., 22417., 22446., 22458. eta 22523. UEak). Hauek, zalantzarik gabe, eraikuntza materialen lapurretarekin zerikusia duen egitura motaren bati dagozkio. Lehen ere esan dugun bezala, oraingoz ezin dakieke K.o. V. mendetik honantzagoko data eman sektore honetako material arkitektonikoen azken aprobetxamenduen arrasto hauei.

Konklusioak

Aztertutako eraikinaren konplexutasunak eta estratigrafiaren lodierak ez dute indusketa amaitutzat jotzeko aukerarik eman, eta beraz, ezinbestekoa da bertan lanean jarraitzea eraikuntza multzoa egokiro

22496, 22604). Suponemos, que debido a las diferentes reutilizaciones de los espacios este proceso se prolongaría en el tiempo y además, no se desarrollaría de forma homogénea en todas las zonas del edificio.

Colapso

Se ha podido documentar el desplome de al menos la zona norte del edificio, en un momento puntual, sin dilación temporal, causada casi con toda seguridad por el incendio de este sector. Esta acción se ha traducido en una gran unidad de derrumbe (UE 22222) que se extiende por las estancias 8, 9, 10, 11, 12, el pasillo norte y parte del este y un tramo de la vía, al este del edificio. Este depósito está formado por restos de las estructuras desmoronadas y presenta tonalidades muy heterogéneas (rojos, naranjas, amarillos, marrones, etc.) que obedecen a la variedad de los materiales constructivos que contienen y a su desigual contacto con el fuego. La cantidad de arcilla documentada posiblemente pertenezca a alzados de tapial y/o adobe de las paredes, los mampuestos pertenecerían a los zócalos y contiene también restos del revestimiento y pintura que cubrirían las paredes, e incluso las vigas carbonizadas de paredes y techos.

Algunas de las zanjas de expolio (UUEE 22492, 22493, 22510, 22516 y 22593) documentadas durante la fase del abandono del complejo se han encontrado amortizadas por esta gran unidad de incendio y derrumbe por lo que podemos afirmar que al menos una etapa de robo se desarrollo con anterioridad a la ruina del edificio.

Expolios y saqueo

El momento más reciente que se ha podido reconocer en este sector del yacimiento, responde a una serie de robos (UUEE 22455, 22482, 22498, 22504 y 22677) que se seguirían produciendo con posterioridad al colapso definitivo del complejo constructivo. Como peculiaridad, una vez excavadas estas zanjas de robo de los mampuestos de los muros, en muchas de ellas se ha documentado como los revestimientos parietales permanecieron intactos en su lugar original. Este fenómeno sólo puede explicarse, si en el momento del saqueo, las estancias se encontraban colmatadas por la unidad de derrumbe, que actuaría como sujeción de las pinturas una vez extraído el muro que les servía de soporte.

De forma simultanea, a estos periodos de saqueo, se han podido registran algunos agujeros de poste (UUEE 22414, 22417, 22446, 22458 y 22523) que, con toda seguridad, tengan que ver con algún tipo de estructura relacionada con las acciones del robo de materiales constructivos. Como ya hemos avanzado, estos últimos signos del reaprovechamiento de los materiales arquitectónicos de este sector, no se pueden datar por el momento más allá del siglo V d.C.

Conclusiones

La complejidad y potencia estratigráfica que presenta el edificio estudiado no ha permitido dar por finalizada su excavación, por lo que para la correcta interpretación del conjunto constructivo es estrictamente necesaria la

interpretatzeko. Dokumentatutako aldien multzoa, ondoz ondo etorritako jardueren emaitza, ondo kokatu ahal izan da kasu batzuetan, baina elementu batzuen iraunkortasunak eta konponketek, eta baita lapurreta ugariek eragindako informazioaren galerak ere, aipatu berri dugun estratigrafiaren konplexutasuna eragin dute, aldi guztiak egokiro azaldu ahal izateko beharrezkoa den informazioa ezkutaturik.

Artean induskatu gabe dauden unitate batzuk funtsezkoak dira laborategian datuak sistematizatzeko garaian eta estratigrafiaren sekuentzia osoa ulertzeko garaian. Horrexegatik 2011ko bera izango da hurrengo kanpainan aztertu beharreko azalera, izan ere, eraikina erabat induskatu eta haren interpretazioa egin nahi dugu. Hala eta guztiz ere, argi eta garbi esan behar dugu ondo asko dakigula zer eraikin motaren aurrean gauden –berez oso ondo ezagutzen dugu nolakoa den–, baina nahiago dugu erabat induskatzen amaitu.

Itxura guztien arabera funtzio publikoa beteko zuen konplexu garrantzitsu bat da aztertzen ari garen eraikin hau, horixe iradokitzen digute haren neurriak eta banaketak, gela jakin batzuetan erabilitako eraikuntza material batzuek, berreskuratutako material higikor batzuek, denbora tarte luze batean etenik gabe erabili izanak (gutxienez K.o. I. mendearen amaieratik K.o. IV. mendera arte) eta eraikinaren ekialdeko gelek (12. eta 13. Barrutiak) bidearekin duten zuzeneko harremanak. Orain arte deskribatutakoak, bistan da, aukera ematen digu eraikin honen jatorrizko funtzioaren inguruan hipotesiak egiteko –izan ere ziur gaude funtzio publikoa betetzen zuela–, baina guk uste dugu lan arkeologikoak amaitu arte itxaron egin behar dugula.

Beste jarduera batzuk

Lan arkeologikoak aurrera eramateaz gainera, aztarnategi honetan burura eramandako beste jardueren gaineko jarraipen arkeologikoa egin dugu. Zehatz esateko, harresiaren mendebaldeko ataleko 03 eta 02 kuboak garbitzeko, sendotzeko eta eraberritzeko lanen gaineko kontrol lanak egin ditugu; azaroan eta sarrera-aparkalekuan paisaia zaintzeko lanak egin ditugu, hegoaldeko atearen ondoko harresi atalak eta *oppidum* barruko zuhaitz aldea garbitu ditugu, azken hau Erdi Aroko eraikinari leku egiten diona –azkenean aurkitu egin dugu–, eta aztarnategiko kartel eta seinale berriak jartzeko lanen gaineko kontrola egin dugu. Bukatzeko, 2011ko bisitaldi gidatuek gure kudeaketaren parte bat hartu zutela esan beharrean gaude.

continuidad de los trabajos en el mismo. El conjunto de fases documentadas, resultantes de la sucesión de distintas actividades, ha podido ser bien encuadrada en ocasiones pero la perdurabilidad y refacción de algunos elementos, así como la pérdida de información originada por los abundantes expolios, ha ocasionado la complejidad estratigráfica a la que nos referíamos, ocultando y opacando la información necesaria para la explicación satisfactoria de todas las etapas.

Algunas de las unidades que restan por excavar, se han revelado imprescindibles durante la sistematización de los datos en laboratorio para la correcta comprensión de toda la secuencia estratigráfica, por ello, la superficie a intervenir planificada para la próxima campaña será la misma que la del 2011 con la intención de completar la excavación del edificio de forma completa y conseguir la interpretación del mismo, sí bien, como podrán suponer, tenemos muy claro a qué tipo de construcción nos enfrentamos –de hecho lo sabemos con certeza-, pero preferimos esperar hasta su excavación completa.

A pesar de todo ello, parece que la construcción sobre la que se ha trabajado responde a un importante complejo de funcionalidad pública, ya que sus dimensiones y distribución, algunos de los materiales constructivos utilizados en ciertas estancias, parte del material mueble recuperado, su continuidad de uso durante un largo lapso de tiempo (al menos desde fines del Siglo I d.C. al IV d.C.), y la comunicación directa de las habitaciones localizados en la zona más oriental del edificio (Recintos 12 y 13) con la vía, así parecen indicarlo. Obviamente, lo descrito hasta ahora, nos permitiría hipotetizar sobre el carácter funcional del edificio ante el que nos encontramos –de hecho estamos seguros de ello– pero consideramos que lo lógico es esperar a su completa definición arqueológica.

Otras actividades

De forma paralela al desarrollo de los trabajos arqueológicos, se han realizado también las tareas de seguimiento arqueológico imprescindibles en el resto de actividades llevadas a cabo en el yacimiento. En concreto, se han supervisado las labores de limpieza, consolidación y restauración de los cubos 03 y 02 del lienzo occidental de la muralla; las tareas de paisajismo llevadas a cabo en el mes de noviembre en el área de acceso-aparcamiento, los lienzos de muralla adyacentes a la puerta sur y la zona boscosa del interior de oppidum, donde se sitúa el predio medieval -por fin localizado-; y el control de la colocación de la nueva cartelería y señalización del yacimiento. Por último es necesario señalar que las visitas guiadas también formaron parte de nuestra gestión durante 2011.

J. Núñez Marcén; G. Dilla Rabilero; D. Martínez Izquierdo; P. Pardo Fuentes; S. Saiz Alonso

A.13. KUARTANGO

A.13.1. San Pedro eliza (Zuhatzu Kuartango)

Zuzendaritza: Etor Telleria Sarriegi
Finantziazioa: Gasteizko Elizbarrutiko Apezpikutza

A.13.1. Iglesia de San Pedro (Zuazo de Kuartango)

Dirección: Etor Telleria Sarriegi
Financiación: Obispado de la Diócesis de Vitoria

The opening up of a perimeter trench around San Pedro church revealed various child graves underneath the eaves, as well as a series of adult graves, probably dating from the contemporary era. Another series of structures belonging to a building which predates the current church were also found.

San Pedro Elizaren perimetroan «aireztatzeko zulo» bat induskatzeko proiektua aurkeztu zuten. Zulo edo erreten hau Elizaren burualdearen iparraldetik eta ekialdetik luzatuko zen eta hegoaldetik, tenpluari atxikiriko hilerrian barrena, sakristiak eta eliz atariak bat egiten duten punturaino iritsiko zen. Guztira gutxi gorabehera 30 metro zuzen izango zituen.

Horregatik lehenik beharreko esku-hartze arkeologikoa eraman genuen burura, eta bitarteko mekanikoak baliatuta ireki genuen ukitutako ondasunaren perimetroko erretena. Irekitako erretenaren hasierako zabalera 40 cm-koa izan bazen ere, hondakin arkeologikoak behar bezala dokumentatzeko beharrezkoa izan genuen gutxieneko zabaleran induskatu genuen hura. Hortik aurrera eskuz jarraitu genuen induskatzen harria edo haren gaineko geruza geologiko arkeologiaren ikuspuntutik antzua jo arte.

Honako sektore hauek aztertu genituen:

Iparraldeko sektorea

Elizaren iparraldeko lubakia eginda agerian geratu ziren modu irregularrean egokitutako kareharri formaz koadroko hainbat harri xabal. Beraz, erretenean aurreikusitako 40 cm-ko zabalera emendatu egin genuen, hondeamakinak gainazala ateratzean harri xabal hauen inguru osoa agerian gera zedin.

Eskuz induskatu eta harriak aterata depositu hori bat geratu zen agerian, buztintsua eta kareharrizko blokeekin eta deskonposatutako gai margatsuekin. Depositu honetan zeramikazko material ugari zegoen, estaldurarik gabeko zeramika, su oxidatzailean errea. Segur asko Erdi Aroko materiala da (XIII.-XV. mendeak).

Depositu honen azpian bi horma bereizi genituen, bata tenpluari atxikirik, kareharrizko bloke handiz egina, eta bestea «L» formakoa, elizaren eraikinak ebakia. Beraz, espazio honetan eta eliza eraiki baino lehen, beste eraikin batzuk izango zirela esan behar dugu.

Ekialdeko sektorea

Elizaren ekialdea, burualdearekin eta absidearekin bat egiten duen aldea, hilerriko hormak bereizita dago, eta beraz bi ataletan ireki genuen lubakia.

Las obras que se pretendían acometer en la Iglesia de San Pedro consistían en la excavación de un «pozo de ventilación», una zanja perimetral abarcando el tramo correspondiente a la cabecera de la Iglesia por los lados norte y este, llegando hasta la unión de la sacristía con el pórtico por el lado sur, por el interior del cementerio adosado al templo. En total llegaría aproximadamente a los 30 m lineales.

Por todo ello se realizó previamente la intervención arqueológica pertinente, abriendo por medios mecánicos la zanja perimetral en la zona del bien afectado. Aunque la anchura inicial de la zanja practicada fuera de 40 cm, ésta fue definida por la extensión mínima necesaria para la documentación completa de los restos arqueológicos. A partir de ahí, se continuó la excavación arqueológica de forma manual hasta llegar a la roca o al sustrato geológico arqueológicamente estéril que le precedía.

Los sectores intervenidos fueron los siguientes:

Sector norte

La apertura de la zanja en el lado norte de la iglesia, ha hecho posible el hallazgo de varias lajas de caliza de formato cuadrangular dispuestas de una forma irregular, lo cual hizo que se ampliará los 40 cm de anchura prevista, para que el decapado superficial de la máquina dejara a la vista la totalidad del contorno de estas lajas.

Tras la excavación y retirada manual de éstas, se ha localizado un depósito amarillento de composición arcillosa e inclusiones de bloques de caliza y materia margosa descompuesta que contenía abundante material cerámico, sin revestir, de cocción oxidante que probablemente podamos adscribir a la época medieval (siglos XIII-XV).

Por debajo de este depósito se han hallado dos muros, uno de ellos se adosa al templo y está construido a base de grandes bloques calizos y el otro en forma de «L» probablemente cortado por la construcción de la iglesia. Lo cual nos hace pensar en edificaciones anteriores a la erección de la iglesia en este espacio.

Sector este

El lado este de la iglesia, el que se corresponde con el cabecero-abside, está separado por el muro del cementerio, por lo que la apertura de la zanja se ha hecho en dos partes.

San Pedro Elizaren perimetroko erretenaren sektoreetan egindako aurkikuntzak. 1. Haur baten ehorzketa hegoaldeko sektorean. 2. Hormak iparraldeko sektorean. 3. Erretena ekialdeko sektorean.

Hallazgos en los diferentes sectores de la zanja perimetral de la Iglesia de San Pedro. 1. Inhumación Infantil en el Sector sur. 2. Muros en el Sector norte. 3. Atarjea en el Sector este.

- Ekialdeko sektorea, 1. 40 cm zabal zen erretena ireki genuen, baina landare geruzaren azpian harri naturala azaleratzen zela ikusi genuen.
- Ekialdeko sektorea, 2. Alde honetan, landare geruza altxatuta, depositu hori eta trinko bat topatu eta eskuz induskatu genuen forma askotako kareharriak ikusi genituelako. Halatan ekialdetik mendebaldera luzatzen den horma baten abiapuntua aurkitu genuen; itxura guztien arabera elizako kaperarekin egiten du bat. Bestalde kanalizazio edo ubide txiki bat identifikatu genuen. Harriaren deskonposizioaren mailan bertikalean iltzatutako harri xabalez egina da, kareharrizko lauza batek estalita dago, eta kaperaren hormaren azpian galtzen dela hautematen da.

Hegoaldeko sektorea

Alde honetako lubakiaren indusketak bat egin zuen San Pedro elizako hilerriaren espazioarekin, eta beraz, alde honetan era eta kronologia askotako ehorzketak identifikatuko genituela pentsatzen genuen. Iragan mendera arte erabili zuten espazio hau abandonatu egin zuten elizatik hurbil hilerri berria antolatu zutenean. Gaur egun ere hilerri berrian ematen diete lur zenduei.

Landare geruza altxatuta nahasitako hezur hondakinak bil zitzaketen depositu batzuk hauteman genituen, eta beraz, depositu batzuk eskuz induskatzeko bereizi genituen; eta hego-mendebaldean emendatu egin genuen induskatu beharreko azalera, hilobiratze batzuen guztizko zabalera agerian uzteko xedean.

- Sector este 1: Se abrió una zanja de 40 cm en la que se halló la roca natural directamente bajo la cubierta vegetal.
- Sector este 2: En esta zona de la iglesia, tras retirar la capa vegetal hallamos un depósito amarillento y compacto que decidimos excavar manualmente por contener un aporte de piedras calizas heterogéneas, lo cual nos llevó al hallazgo de un arranque de muro en dirección este-oeste que parece adosarse a la capilla de la iglesia. Por otra parte también se ha hallado una canalización o atarjea realizada a base de lajas verticales hincadas en el horizonte de descomposición de la roca y cubierta con una losa caliza y se percibe que se encuentra bajo el muro de la capilla.

Sector sur

La excavación de la zanja perimetral en esta zona ha coincidido con el espacio cementerial de la iglesia de San Pedro, por lo que se presumían en este área hallazgos de inhumaciones de distinta índole y cronología. Este espacio que estuvo en uso hasta mediados del siglo pasado, fue abandonado al habilitarse un nuevo cementerio en las cercanías de la iglesia, continuándose a día de hoy con dicho ritual funerario.

Tras la retirada de la capa vegetal se percibieron ciertos depósitos que podían ser susceptibles de albergar restos óseos revueltos por lo que se dejaron algunos depósitos para ser excavados manualmente y en la zona suroeste se amplió la superficie a excavar para despejar la anchura total de unas inhumaciones.

Depositu hauek induskatuta haurren ehorzketa batzuk identifikatu genituen. Elizaren teilatu hegalaren azpian lurperatutako haurrak dira, betiere teilatu hegalaren lerroari jarraituz, eta ez kristauen lurperatzeko erituak berezko duen ekialdetik mendebalderako norabide klasikoan. Jaioberriak izango ziren edo bataiatu gabeak, eta berariaz hemen utziak izan ziren eraikin erlijioso baten babesean egon zitezen. Jada Azken Brontze Aroan-Bigarren Burdin Aroan dokumentatutako usadioa da, haurrak etxe inguruan lurperatzen baitzituzten orduan. Ohitura hau iragan mendera arte egon zen ondo sustraituta, etxeko erlijio eredu batzuk hautematen baitira, kasu honetan tenplu kristaura eramanak badira ere.

Ehorzketa guztietan zurezko hilkutxaren hondakinak ikusten dira, eta inguruan burdinazko iltze kopuru handia. Baina haurren hilobi hauek aurreko hilobietako harri xabalak partzialki ebakitzen dituztela esan behar dugu. Haurren ehorzketez gainera, heldu batena ere topatu genuen: espazio honi XX. mendearen erdialdera eman zioten azken hilerri erabileran kokatu behar dugu, hezurkiekin batean ehunen hondakinak eta bestelakoak (plastikozko botoiak, oinetakoak eta beste) aurkitu baikenituen.

Aipatu hobiak induskatuta harri naturalaren maila jo genuen, eta elizaren zimentarriaren mailaraino iritsi ginen (nola sakristian hala kaperan). Egungo tenpluaren hormetako zimentarriak agerian geratu zirenean ikusi genuen nola aurrez zeuden elementu batzuk (hilobiak edo ubide txikiak eratzen zituzten harri xabalak, bertikalean jarriak) elizaren zimentarriaren mailaren azpitik galtzen ziren, baita sakristiaren hormako ostikoaren azpitik ere, eta beraz, azken hauek haien gainean eraikiak direla esan behar dugu.

Lehen konklusioak

Azaldutako guztia azalduta, esan dezagun agerian utzitako ehorzketa gehien-gehienak hilerri espazio honi gutxi gorabehera XIX.-XX. mendeetan emandako erabileraren arabera lurperatuak direla. Espazio hau behin eta berriz erabili izan dutenez (horixe uzten dute agerian elizaren teilatu hegalaren azpiko haurren ehorzketek eta helduen beste ehorzketa batzuek), azpiko mailak kaltetuta gertatu dira (segur asko Erdi Aroko hilerria), eta tenpluan egindako handitze lanek eta egiturazko aldaketek ere nahasi egin dute zenduei lur emateko espazio hau.

Bestalde, azterketa sakonago bat egiten ez den artean, elizaren iparraldeko hormak XIII. mendeko tenplua eraiki aurreko eraikinak ukitzen dituela esatera ausartuko gara. Tenpluaren zimentarriak ebakitako hormetako bat eta Erdi Aroko kronologiako zeramika dira gure hipotesiaren oinarri.

La excavación de estos depósitos, ha dado como resultado el hallazgo de inhumaciones infantiles. Se trata de enterramientos infantiles que se sitúan debajo del alero de la iglesia, siguiendo siempre la delineación del alero y no la orientación clásica este-oeste propia de ritual de enterramiento católico. Serían neonatos o individuos infantiles no bautizados, con el fin de que descansaran al amparo o protección de un edificio religioso. Se trata de una costumbre ya documentada en el Bronce Final-Segunda Edad del hierro, donde hay enterramientos infantiles en entornos domésticos. Esta costumbre se mantiene hasta bien entrados en el pasado siglo donde se observan ciertas pautas de religiosidad doméstica, trasladada en este caso al templo cristiano.

En todas ellas se observan restos del ataúd de madera y gran cantidad de clavos de hierro en su perímetro. En cualquier caso estas inhumaciones infantiles, afectan de lleno a las lajas de las sepulturas anteriores, cortándolas parcialmente. Aparte de las inhumaciones infantiles también hallamos, un individuo adulto; un enterramiento que se corresponde con el último uso cementerial de este espacio a mediados del siglo XX, ya que hemos hallado junto con los restos óseos, restos de tejidos, complementos (botones de plástico, zapatos, etc.).

Tras la excavación de dichas fosas, se ha alcanzado la roca natural alcanzando el nivel de cimentación de la iglesia (tanto de la sacristía como la de la capilla). Al quedar al descubierto la cimentación de los muros que conforman el actual templo hemos podidos observar que ciertos elementos preexistentes (tales como lajas verticales de sepulturas o atarjeas) se prolongan por debajo del nivel de cimentación de la iglesia incluso por debajo del contrafuerte del muro de la sacristía, construyéndose por encima de ellos.

Conclusiones Preliminares

Tras lo arriba expuesto podemos dilucidar que, la mayoría de los enterramientos exhumados, pertenecen a un uso de cronología contemporánea aproximadamente siglos XIX-XX de este espacio sepulcral. El uso sucesivo de este espacio (así los atestiguan los enterramientos infantiles bajo el alero del edificio así como otras inhumaciones adultas) ha hecho que se afecte a niveles infrayacentes (probablemente de un espacio sepulcral medieval) y las ampliaciones y modificaciones estructurales del templo también han contribuido en esta misma línea de alteración del espacio sepulcral.

Por otra parte en el lado norte, nos aventuramos a decir, a falta de un estudio más pormenorizado que el muro norte de la iglesia afecta edificaciones anteriores a la construcción del templo del siglo XIII. Uno de los muros cortados por la cimentación del templo y la cerámica de cronología medieval nos encamina en esta línea argumental.

E. Telleria Sarriegi: J. Ajamil Baños

A.14. LABASTIDA / BASTIDA

A.14.1. BASTIDAKO HIRIGUNE HISTORIKOA
CASCO HISTÓRICO DE LABASTIDA

A.14.1.1. **Sopalacio, z/g**

Zuzendaritza: Fran Zumalabe Makirriain
Finantziazioa: Bastidako Udala

A.14.1.1. **Sopalacio, s/nº**

Dirección: Fran Zumalabe Makirriain
Financiación: Ayuntamiento de Labastida

As a result of recent rains in the region, the high part of Sopalacio Street suffered a series of landslides which forced the local council to build a retaining wall in the historical quarter of Labastida.

Eustorma bat altxatzeko lubakia irekitzeko lanen gaineko kontrol arkeologikoa. Iparraldetik hegoaldera luzatzen zen eta 12 X 1,80 X 0,50 metroko neurriak zituen baloraziorako erreten honek ez zuen emaitza positiborik eskaini historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik.

Control arquelógico de los trabajos de ejecución de una zanja para construcción de un muro de contención. Esta zanja de valoración, cuyas dimensiones eran de 12 X 1,80 X 0,50 m, dirección N-S, dió resultados de nulo interés histórico-arqueológico.

F. Zumalabe

A.15. LAGUARDIA

A.15.1. **San Kristobal harpea**

V. kanpaina
Zuzendaritza: Javier Fernández Eraso
Diru-laguntza emailea: Arabako Foru Aldundia; Zientzia eta Teknologia Ministerioa

A.15.1. **Abrigo de San Cristóbal**

V Campaña
Dirección: Javier Fernández Eraso
Subvención: Diputación Foral de Álava; Ministerio de Ciencia y Tecnología

During 2011, the fourth season of archaeological excavations was conducted in San Cristóbal cave (Laguardia-Álava), reaching levels pertaining to the Late Neolithic era. Said cultural period has previously been located in other caves on the southern slopes of the Cantabrian Mountain Range, such as Los Huso I and II and Peña Larga. In San Cristóbal, the stratigraphic sequence discovered was similar to that found in the aforementioned caves. Following a Chalcolithic period characterised by accumulations of different layers of ash from stable formations, a series of Neolithic layers were discovered, all of which had identical characteristics which can only be distinguished by the level at which the various utensils were found.

Kokalekua

San Kristobal harpea Guardiako udal barrutian dago, Payo de los Cabrones izeneko lekuan. Honakoak dira haren UTM koordenatuak: X=531936; Y=4716202; Z=921 metro itsas mailatik gora.

Ez da oso harpe handia, 11,75 m ditu ekialdetik mendebaldera eta 6 m iparraldetik hegoaldera, hegoaldeari begira dago eta mendialdeko kretazikoko kareharrizko labarretan irekitzen da.

Situación

Se sitúa en el término municipal de Laguardia en el sitio denominado Payo de los Cabrones. Sus coordenadas son UTM 30. X=531936; Y=4716202; Z=921 metros sobre el nivel del mar.

Se trata de un abrigo de no muy grandes dimensiones 11,75 m de este a oeste y 6 de norte a sur, orientado al sur y abierto en las calizas cretácicas del escarpe de la sierra.

San Kristobal harpearen kokalekua (Instituto Geográfico Nacional instritutuak eskainitako argazkia. IBERPIX).

Situación del abrigo de San Cristóbal (Foto Instituto Geográfico Nacional. IBERPIX).

Ermita gisa erabilia izan zen, eta inguruan egun lur jotzeko arriskuan dagoen eraikin multzo bat du. Eraikin hauek denek gutxienez XVII. mendera arte baliatu zuten multzo eremutar bat osatzen zuten, Guardiako San Joan parrokian gordetzen den dokumentazioaren arabera ordura arte hamarrenak ordaindu baitzizkion multzo eremutarrak aipatu parrokiari.

Aurrekariak

1999. urtean kata bat hasi genuen bertan eta oso nahasita zegoen maila bat egiaztatu ahal izan genuen; hartan giza hezurrak zeuden metro beteko lodiera hartzen zuen errautsezko depositu handi baten ondoan. Haren azpian azkeneko maila bat erregistratu genuen, gune zenbaitetan oinarriko harriaren gainean egokitzen zela.

Indusketa lanak 2007ko uztailean abiarazi ziren, eta egun aurrera jarraitzen dute. Hasieran 9 m^2-ko azalera induskatzea planteatu zen.

Indusketa prozesuan zehar, harpeko paretatik gertuen dauden laukietan, zundaketan zehar testuingurutik kanpora zeuden giza hezurrak topatu genituen aldean, gorpu bati lur emateko hobi bat hauteman genuen. Hegoaldera zoruan bertikalean iltzatutako hiru lauzek osatutako errenkada batek mugatzen zuen, eta iparraldera harpeko paretaraino luzatzen zen. Induskatutako eremuan, zuloa mendebaldetik eta indusketa eremutik kanpora luzatzen baita, bi metro luze da hobia, ekialdetik mendebaldera egokitzen da, eta metro bete da zabal, iparraldetik hegoaldera. Haren barruan giza hezur asko bereizi genituen, baita eskuz egindako tresnak ere, zurezko aleak, tornuan landutako zeramika puskak eta txanponak, txanpon guztiak gure aldiko XVII. mendekoak.

Hobi honetaz gainera, silo zahar baten hondakinak aurkitu genituen. Hobiak puskatuta zegoen, eta beraz, siloa hobia baino lehenagokoa dela esan behar dugu. Siloaren barrunbea ere oso nahasita zegoen, hobian aurkitutako material berdina topatu baikenuen hartan. Hori bai, siloan soilik goiko aldean azaldu ziren giza hezurrak.

Fue utilizado como ermita y tiene a su alrededor una serie de edificaciones, hoy en ruina, que formaban parte de un complejo eremítico que estuvo en funcionamiento al menos hasta el siglo XVII ya que, según la documentación existente en la parroquia de San Juan de Laguardia, hasta esa fecha pagó diezmos a la citada parroquia.

Antecedentes

En el año 1999 practicamos una cata en la que se pudo constatar la existencia de un nivel, muy revuelto, que contenía huesos humanos, que se encontraría junto a un gran depósito de cenizas de más de un metro de espesor. Bajo él un último nivel que descansaba, en algunas zonas, sobre la roca de base.

Las excavaciones que dieron comienzo en el mes de julio de 2007 se plantearon en una extensión de 9 metros cuadrados.

Durante el proceso de excavación, en los cuadros más próximos a la pared del abrigo en la zona en la que durante el sondeo se habían localizado huesos humanos descontextualizados, de detectó una fosa de enterramiento por inhumación. Hacia el sur estaba delimitada por una hilera de tres losas clavadas verticalmente en el suelo y, hacia el norte, se prolongaba hasta la pared misma del abrigo. En la zona excavada, ya que la fosa se prolonga por el oeste fuera del campo de la excavación, mide dos metros de larga, en dirección este-oeste, por un metro de anchura, en dirección norte-sur. De su interior se recuperaron abundantes huesos humanos, así como restos de artefactos manufacturados, cuentas de madera, fragmentos de cerámicas a torno y monedas datadas todas en los siglos XVI y XVII de nuestra era.

Además de la fosa se localizaron, también, los restos de un antiguo silo. Estaba roto por la fosa lo cual indica que su realización fue anterior a aquella. Su interior también estaba revuelto recogiendo los mismos materiales que en el interior de la fosa. Si bien es cierto que aquí sólo aparecieron huesos humanos en la parte más elevada.

2008., 2009. eta 2010. urteetako kanpainetan zehar VIII. mailaraino induskatu genuen, eta agerian utzi genituen Kalkolito Aroko ukuiluei zegozkien errautsezko geruza batzuk.

2011ko kanpaina

2011ko ekainaren 27tik uztailaren 20ra arte luzatu ziren lanak.

VIII. maila induskatzen jarraitu genuen, lur kolorez marroi ilunak (10YR3/1), oso trinkoak, ehunduraz hareatsuak, osatua. Ikatz orban ugari ditu, eta ehunduraz errautsezkoak diren beste orban ez gutxi. Haren masan, beheko aldean, elkarren gainean egokitutako errautsezko hiru meta bereizten dira, erretako lur gorriko geruzek bereizirik.

Sukarrizko xafla eta zati ugari ditu, batzuk eskaileraren formako ukitu soilekin, Kalkolito Aroko multzoetan oso arrunta, harraskailu soilak eta labore-distirak osatzen dituztenak, nukleo ebaporitiko bat, eskuz egindako zeramika zatiak eta aurpegiak leunduta dituen moleta baten zati bat.

IX. maila

40 cm lodi da, eta beraz, kanpaina honetan induskatu ditugun maila guztietan lodiena. Kolore gorri/marroiko edo laranjako lur erreek bereizitako eta ondoz ondo egokitutako errautsezko hiru metak osatua da. Metarik ez den lekuetan marroi iluna da lurra, eta oso gogortuta dago. Horiek denek, errautsezko metek eta lur marroiak, 23 eta 27 cm bitarte lodi den geruza lodi oso gogorraren gainean hartzen dute atseden.

Haren baitan segur asko etxekotuak ziren apodunen hezur zati ugari identifikatu genituen. Tresnen artean, aipagarri dira sukarrizko xaflak, ebaporitikoak batzuk, lau trapezio, batzuk oso handiak, zizel txikiak eta dortsoko muturraren zati bat. Era berean, eskuz egindako zeramikazko zati asko aurkitu genituen, azal leunekoak, tenperatura baxuko labean erreak. Oina ebakita eta leunduta duen puntzoi bat aurkitu genuen hezurrean landua.

Tresna mota honi erreparatuz gero, azken garaiko Neolitoan koka genezake maila hau, eta horixe bera berresten dute gerora C-14ren bidez lortutako datazioek.

X. maila

Artean induskatzeko fasean dago, eta soilik 9 eta 24 cm bitarteko lodieran induskatu dugu, tokiaren arabera. 2011ko kanpainan induskatutako azkeneko maila izanik, induskatutako eremu osoan antzeko kota bat iristen saiatu ginen, baina ez genuen guztiz lortu. Maila honetan iritsi genuen ermitauen hobiaren oinarria. Honenbestez beste hiru metrotan handitu genuen indusketa eremua, 10 m^2 hartuko genituen.

Goiko mailari eusten dion geruza lodi eta gogorraren azpian dago, eta beraz, aipatu geruzak zigilatzen du erabat.

Durante las campañas de 2008, 2009 y 2010 se excavó hasta el nivel VIII, poniendo al descubierto una serie de capas de ceniza correspondientes a establos del Calcolítico.

Campaña de 2011

Se desarrolló entre los días 27 de junio y 20 de julio de 2011.

Se continuó excavando el nivel VIII formado por tierras de tonalidad marrón oscura (10YR3/1), muy compacta, de textura arenosa. Contiene abundantes manchas de carbón y otras grisáceas de textura cenizosa. En su masa, en la zona inferior, se diferenciaron hasta tres montones de cenizas superpuestos separados entre sí por capas rojizas de tierra rubefactada.

Contiene abundantes láminas y fragmentos de sílex, algunas con retoques simples escaleriformes, muy común en conjuntos de época Calcolítica, que conforman raederas simples y lustre de cereal, un núcleo evaporítico, fragmentos de cerámicas fabricados a mano y un fragmento de una moleta con sus caras pulidas.

Nivel IX

Presenta un espesor de 40 cm siendo el más grueso de todos los niveles excavados hasta esta campaña. Está formado por una sucesión de tres montones de ceniza separados por tierras rubefactadas de tonalidades rojiza/marrón o anaranjada. En las zonas en las que no existen montones la tierra adquiere una tonalidad marrón oscura y está fuertemente concrecionada. Todo ello, montones y tierra marrón, descansa sobre una gruesa capa de concreción fuertemente cementada que llega a alcanzar entre 23 y 27 cm de espesor.

De su interior se recuperaro abundantes fragmentos de huesos de ungulados, posiblemente domésticos. El ajuar estaba compuesto por láminas de sílex, algunos evaporíticos, cuatro trapecios algunos de grandes dimensiones, microburiles y un fragmento de punta de dorso. También se recuperaron abundantes fragmentos de cerámica fabricada a mano, de superficie lisa y horneada a fuego de baja temperatura. En hueso se localizó un punzón de base recortada y pulida.

Por el tipo de ajuar este nivel se debe corresponder con un Neolítico de fase tardía, cuestión que fue corroborada, a posteriori, con las dataciones C-14 obtenidas.

Nivel X

Se encuentra en fase de excavación y sólo se ha excavado en un espesor que oscila entre los 9 y 24 cm según las zonas. Siendo el último de los niveles que se excavó en la campaña del 2011, se intentó alcanzar una cota similar en todo el campo excavado, cosa que sólo se logró en parte. En este nivel se alcanzó ya la base de la fosa de los eremitas. De esta manera el campo de excavación se amplió en tres metros más, alcanzando ya los 10 m^2.

Se localiza bajo la gruesa capa de concreción sobre la que descansa el nivel suprayacente, por tanto está sellado por esa formación.



2011ko kanpainan berreskuratutako tresnak.

Útiles recuperados durante la campaña de 2011.

Kolore griseko lurrezko geruza da, hezea, ukitzean plastikoa, legar, klasto eta neurri handiagoko harri asko dituena. Haren baitan ikatzak eta errautsaren koloreko lur puskak daude. Lur mota honekin batean arestian deskribatutakoaren antzeko ezaugarri fisikoak dituen lur marroi iluna ageri da. Kasu guztietan sustraiak ageri dira, ez gutxi. «0» mailatik behera kontatzen hasita -361 cm-ko sakoneran, hegoaldeen dagoen zerrendan, errautsez osatutako orban zuri bat azaltzen hasten da, iparraldera egin ahala sakondu eta hondoratu egiten dena.

Haren baitan hezurrezko zati ugari aurkitu genituen, baita azal leuneko zeramikazko zatiak ere, eskuz eginak eta tenperatura baxuko labean erreak. Sukarrian landuak, xaflak, ukitu lakarrez landutako zirkulu segmentuak eta xafla baten muturreko hausturan landutako zizel bat aurkitu genituen. Maila honetako tresnak oso antzekoak dira mendialde berean hurbil dauden beste harpe batzuetan (Los Husos II aztarnategiko VI. maila) aurkitutakoen ondoan, eta beraz Neolito Aroaren erdialdean kokatuko gara. Gerora C-14ren bidez lortutako datazioek berretsi egin zuten proposatutako data.

Kronologia

Oraingoz, indusketa proiektu honi begira, hamalau datazio lortu dira Beta laborategian (Miami, AEB) AMS eta C-14ren bidez.

En principio se trata de una capa de tierra de color grisácea, húmeda, plástica al tacto que contiene abundantes gravas, clastos y piedras de mayor tamaño. Asimismo en su masa se contienen carbones y fragmentos de tierra cenizosa compactada. Junto a este tipo de tierra aparece otra marrón oscura de características físicas similares a la descrita anteriormente. En todos los casos aparecen raíces con cierta abundancia. A una profundidad de -361 cm bajo la línea «0» y en la banda más meridional comienza a aparecer una mancha blanca formada por cenizas que, en la medida que se avanza hacia el norte, se hunde adquiriendo una mayor profundidad.

De su interior se han recuperados abundantes fragmentos de hueso, fragmentos de cerámica de superficie lisa, fabricados a mano y horneados a fuego de baja temperatura. En sílex se recogieron láminas y segmentos de círculo fabricados mediante retoque abrupto y un buril sobre fractura en extremo de lámina. El tipo de ajuar que contiene el nivel es muy similar al exhumado en abrigos cercanos de la misma sierra (Nivel VI de Los Husos II) por lo que nos situamos en un Neolítico de fase Media, cuestión corroborada más tarde por las dataciones C-14 obtenidas.

Cronología

Para el conjunto de la excavación se han obtenido, hasta el momento, catorce dataciones C-14 todas mediante AMS y en el laboratorio Beta (Miami-USA)

Ondoko taula honetara jasotzen dira emaitzak

Los resultados se recogen en la siguiente tabla.

AZT. YAC.	MAILA NIVEL	BP. BP.	Cal. BC. Cal. BC.	LABORATEGIA LABORATORIO
ASC3	Ermitauen hobiak Fosa eremitas	450±40	1420-1490AD	Beta - 161188
ASC12	8. zerrendako Goiko zuloa. Sup. Hoyo Banda 8	3120±40	1460-1310	Beta - 288940
ASC14	4. 4. zerrendako Goiko zuloa. Hoyo Banda 4	3240±40	1610-1430	Beta - 288942
ASC4	II	3990±40	2580-2460	Beta - 252535
ASC15	8. 8. zerrendako Goiko zuloa. Hoyo Banda 8	4020±40	2630-2470	Beta - 288943
ASC6	IV	4030±40	2830-2820 2630-2470	Beta - 252437
ASC9	V Beh. V Inf	4080±40	2860-2800 2750-2710 2710-2550	Beta - 268468
ASC11	VI	4100±40	2870-2800 2780-2560 2520-2500	Beta - 268470
ASC10	VI	4170±40	2890-2620	Beta - 268469
ASC2	Zundaketa Sondeo	4260±40	2920-2870	Beta - 161187
ASC13	VIII	4470±40	3350-3020	Beta - 288941
ASC16bis	IX	4930±30	3770-3650	Beta - 310013
ASC17	X	4980±30	3890-3880 3800-3700	Beta - 307799
ASC18	X	5100±30	3970-3890 3880-3800	Beta - 307800

Konklusioak

San Kristobal harpean oraingoz hautemandako lehenengo okupazioa Neolito Aroko artzainena dela esan behar dugu, bertara biltzen baitzuten euren azienda urteko sasoi jakin batean. Bertan ukuilu bat antolatu zuten, aldiro-aldiro erreketen bidez garbitzen zutena.

Funtzio berari eutsi zion Kalkolito Aro osoan eta seguru asko baita garai gertuagoetan ere. Testuinguru arkeologikotik kanpora aurkitutako materialen artean aipagarri dira terra sigillata hispanica moldeko zeramika zatiak. Aitzitik, Kalkolito Aroaren amaiera eta Brontze Aroaren hasiera baino garai gertuagorik ez dugu aurkitu testuinguru arkeologikoan daudenen artean.

Gure garaiko XV. mende amaieran (horixe iradokitzen du hormaren oinean aurkitutako zilarrezko «Hardi» batek, Ingalaterrako Enrike IV.aren-Akitaniako Dukearen irudiarekin aurkian eta zitori horia eta lehoi ingelesa ifrentzuan) ermita bat eraikitzeko prestatu zuten harperen barruko aldea, eta beraz, desagerrarazi zituzten 3990 BP ondorengo sedimentu asko eta asko. Ondoren espazio sakratua mugatzen zuten horma bi eraiki zituzten eta dena inguruetatik ateratako trabertinoan landutako zirkulu erdiko ganga batez estali zuten. Iparraldean, harpeko hormari atxikirik, konplexu honetan zendu egiten ziren ermitauei lur emateko hobia induskatu zuten. Ondorioz erabat nahasi zuten alde honetako betegarri estratigrafikoa. Harpeko beste gune batzuetan, segur asko ermita eraiki baino lehen, historiaurreko sedimentua jada nahasita

Conclusiones

Por el momento se puede afirmar que la primera ocupación detectada hasta la fecha en el abrigo de San Cristóbal se debe a pastores neolíticos, que recogieron allí su ganado en determinada época del año. Allí construyeron un establo que fue periódicamente saneado mediante quemas.

Esta misma función la mantuvo el sitio durante todo el calcolítico y posiblemente aún en época más reciente. Entre los materiales recuperados sin contexto arqueológico destacan varios fragmentos de terra sigillata hispana. Sin embargo en contexto estratigráfico nada hemos encontrado más reciente que el final del Calcolítico y los comienzos del Bronce.

A finales del siglo XV de nuestra era (según parece desprenderse del hallazgo, en la base del muro, de un «Hardi» de plata acuñado con la efigie de Enrique IV de Inglaterra-Duque de Aquitania, al anverso, y la flor de lis junto con el león inglés, al reverso) el sitio fue acondicionado para construir en su interior una ermita, de forma que gran parte de los sedimentos posteriores al 3990 BP fueron arrasados. Así se levantaron sendos muros que delimitaban el espacio sagrado y todo se cubrió con una media bóveda fabricada en travertino que se obtenía de las proximidades. En el lado norte, pegado a la pared del abrigo, se excavó una fosa para enterrar allí a los ermitaños que fallecían en el complejo. Esta acción produjo la alteración total del relleno estratigráfico de esa zona. En otras partes del abrigo, posiblemente de época

zegoen ordurako, bertan gaiak biltegiratzeko siloak induskatu baitzituzten.

Harpetik gertu hareharrizko eta kareharrizko etxe bat eraiki zuten, eskantzuetan ondo landutako harlanduak zituela.

XVII. mendean behera etorri zen ganga, eta ermitauen konplexua, eliza eta etxea, betikoz abandonatu zituzten.

Honenbestez ahuldu eginda leku hau, isilpekoen bisitaldiak bizi izan ditu eta gero eta gehiago hondatu da. 2009ko neguan behera etorri ziren bertara sartzeko ateari eusten zioten ziri-harriak. Agerian geratu ziren hormaren erraiak, eta konplexu osoa behera etortzeko arriskuan geratu zen.

Esker onak

Indusketa kanpaina hau ezin burura eramango genuen Arabako Foru Aldundiren, Zientzia eta Teknologia Ministerioaren HAR2008-03976/HIST Ikerketa proiektuaren eta IT-288-07 ikerketa taldearen babesa izan ez bagenu.

anterior al levantamiento de la ermita, el sedimento prehistórico ya había sido removido al construir una serie de silos de almacenaje.

Junto al abrigo se levantó una casa fabricada en piedra de arenisca y caliza con las esquinas trabajadas en buena sillería.

Durante el siglo XVII la bóveda se hundió y el complejo eremítico, iglesia y casa, fueron abandonados de manera definitiva.

Así el sitio ha ido languideciendo, sufriendo la visita de incontrolados y acusando un deterioro cada vez mayor. En el invierno de 2009 las dovelas que conformaban y sustentaban la puerta de acceso al recinto se desplomaron dejando al descubierto toda la entraña del muro y poniendo en grave riesgo de derrumbe a todo el complejo sacro.

Agradecimientos

La presente campaña de excavaciones no habría sido posible sin el patrocinio de la Diputación Foral de Álava, el proyecto de investigación de Ministerio de Ciencia y Tecnología HAR2008-03976/HIST. Y el grupo de investigación IT-288-07.

J. Fernández Eraso

A.16. LANTARON / LANTARÓN

A.16.1. **Lantarongo gaztelua (Sobrón)**

I. kanpaina
Zuzendaritza: Juan Antonio Quirós Castillo
Finantziazioa: Arabako Foru Aldundia; Euskal Herriko Unibertsitatea (Ondarea eta Kultur Paisaiak ikertzeko Taldea)

A.16.1. **Castillo de Lantarón (Sobrón)**

I Campaña
Dirección: Juan Antonio Quirós Castillo
Financiación: Diputación Foral de Álava; Universidad del País Vasco (Grupo de investigación en Patrimonio y Paisajes Culturales)

During 2011, the first study season was carried out around Lantarón Castle. The aim of the project was to locate this fortress and analyse its spatial arrangement, as well as the different phases of its formation and decline. It is well known that Lantarón was a major power centre from 897 onwards, although historic references only refer to the presence of a castle during the 12th century. The site, which was the county seat from the 9th century onwards, later lost political ground to Término Castle (Santa Gadea del Cid) and the memory of its location and appearance gradually faded. In the 18th century, the site was mentioned as a simple abandoned settlement.

The work carried out during the 2011 season analysed the area around San Martín de Lantarón Church, using various diagnosis techniques including remote sensing instruments (Lidar, aerial photography), surface prospecting and GPR. Various remains have been found, which require further investigation in future seasons.

Sarrera

2011. urtean proiektu arkeologiko bat abiarazi da Sobrón aldean, Lantarongo gazteluaren kokapena identifikatzeko, gazteluak espazioa nola artikulatzen zuen ulertzeko eta gazteluaren eraikuntza, Erdi Aroko botere zentro gisa, aztertzeko xedean.

Introducción

En el año 2011 se ha iniciado un proyecto arqueológico en el área de Sobrón que tiene como fin identificar la localización, comprender la articulación espacial y analizar la emergencia del castillo de Lantarón como centro de poder en la Edad Media.

Oraindik ez ditugu behar bezala ezagutzen gure lurraldeko Goi Erdi Aroko osaera politikoen oinarrian dagoen botere egiturak (esate baterako, Arabako konderria, Gaztelako konderria eta Lantaróngo konderria) sortzeko prozesuen nondik norakoak: idatzizko dokumentazioa urria da eta berandu idatzia, eta materialen erregistroak ez digu argi askorik ematen. Salbuespenak salbuespen, Euskal Herrian ez dugu X. mende aurreko testuinguru arkeologikorik, eta ez dakigu lurralde honetako Goi Erdi Aroko gazteluen morfologia nolakoa zen.

Ugari dira Lantaróngo gaztelua eskuarki Sobrón aldean kokatu duten egileak, baina egia esateko oraindik ez da zehazki non den adierazi, eta ez dira haren ezaugarriak deskribatu. Horren arrazoia, besteak beste, milagarren urte inguruan Lantaróngo zentralismo politikoa eta administratiboa ondoko Término gaztelura, Santa Gadea del Cid herrira, aldatu izana da, ondorioz gainbehera etorri baitzen Lantarongo gaztelua eta denboraren joanean galdu egin baitzen haren memoria. Eta orain dela urte gutxi batzuk Bergonda eta Salcedo herriek bat egin zutenean leku-izena berreskuratu zen arren, lurraldearen eta administrazioaren ikuspuntutik halako etena dagoela esan behar dugu.

Azken batean, Arabako mendebaldean, Ebro ibaiaren ertzean, IX. eta XI. mende bitartean osatu eta desegin zen konderriaren prozesua aztertzea du helburu nagusi proiektu honek.

Erreferentzia historikoak

Dokumentazio idatziaren arabera botere gune bat bazen Lantarónen IX. mendeaz geroztik, baina 1175. urtekoa da gazteluari zuzeneko erreferentzia egiten dion lehengo dokumentua. 897. urtean Gonzalo Téllezen agintepean zegoen alde hau, Fernán Gonzálezen, garai hartan Asturiasko erresumaren ekialdeko sektoreko pertsonaia garrantzitsuenaren osabaren agintepean. Gonzalo Téllez Gaztela osoan agintzeko hautagai sendoa izan zen, lurralde zabal baten gaineko aginpidea izan baitzuen, Lantarónen ez ezik Cerezo, Lara eta Osman izan baitzen agintari. Aitzitik, ez zuen bere helburua bete, eta hurrengo urteetan beste pertsonaia batzuk biziko ziren Lantarónen, esate baterako, Fernando Díaz eta Álvaro Herrameliz. 935. urteko dokumentu baten arabera Fernán González zen Lantaróngo agintaria, eta kondeak hainbat konderri eta lurralde batu zituen Gaztelaren baitara eta Leongo erregearen babesarekin. Konderri izateari utzita, pixkana-pixkana gutxitu egin ziren Lantaróni buruzko aipamen idatziak, XI. menderako beste herrixka bat baizik ez baitzen. Leku honek erregearen esku jarraitu zuen 1290. urtean, Sobrón eta beste herrixka batzuekin batean, Gesaltza Añanako barrutira bildu zen arte. Eta XIV. mendeko aipamenen bat badagoen arren, une horretatik aurrera halako etena dago dokumentazioan, eta galdu egiten dira toki honen arrastoak eta memoria. XVIII. mendean herri hustu gisa gogoratzen da alde hau, eta soilik Lantaróngo San Martin baselizak eutsiko zion leku-izenari.

XIX. mendearen erdialdera Sobróngo bainuetxea inauguratu zuten. Bainuetxearen eraikuntzak zuzeneko eragina izan zuen 1861. urtean berreraiki zuten San Martin baselizari leku egiten dion eremuan, nahiz eta leku honek jasan dituen eraso larrienak Iberduerok

Aún desconocemos los procesos a través de los cuáles se ha gestado la estructura de poder que está en la base de las formaciones políticas altomedievales de nuestro territorio (p.e. el condado de Álava, el condado de Castilla o el condado de Lantarón): la documentación escrita es parca y tardía, y el registro material se muestra aún demasiado elusivo. Salvo excepciones puntuales, carecemos de contextos arqueológicos en los castillos del País Vasco anteriores al siglo X, y desconocemos la morfología de los castillos altomedievales en este territorio.

Son muchos los autores que han ubicado de forma genérica el castillo de Lantarón en el área de Sobrón, pero en realidad aún no se ha reconocido con precisión su localización ni se han descrito sus características. Ello se debe, entre otros motivos, a que poco después del año mil se desplazó la centralidad política y administrativa de Lantarón a favor del cercano castillo de Término, en Santa Gadea del Cid, lo que determinó el declive del centro anterior y que se perdiese su memoria con el tiempo. Y aunque el topónimo ha sido recuperado hace unos años tras la fusión de los municipios de Bergüenda y Salcedo, hay una clara discontinuidad territorial y administrativa.

En definitiva, la finalidad principal de este proyecto es la de estudiar el proceso de formación y colapso de un condado entre los siglos IX y XI en el occidente alavés, a orillas del río Ebro.

Referencias históricas

La documentación escrita menciona la existencia de un centro de poder en Lantarón desde el siglo IX, aunque la primera referencia explícita a un castillo es del año 1175. En el año 897 el lugar estaba en manos de Gonzalo Téllez, tío de Fernán González y uno de los personajes más relevantes en el sector oriental del reino astur en este período. Gonzalo Téllez fue un claro aspirante al dominio hegemónico sobre toda Castilla, puesto que ejerció su poder sobre un amplio territorio que incluía –además de Lantarón– Cerezo, Lara y Osma. Sin embargo no logró consolidar este proyecto, y en los años siguientes fueron varios los personajes que se recuerdan como residentes en Lantarón, como es el caso de Fernando Díaz o Álvaro Herrameliz. Un documento del 935 menciona a Fernán González como dominante en Lantarón, de tal forma que a partir de estos años el conde unificará varios condados y dominios bajo la única denominación de Castilla con el apoyo del monarca leonés. Con la pérdida de su identidad como condado, disminuyen progresivamente las menciones documentales relativas a Lantarón que figura durante el siglo XI como una tenencia más. El lugar siguió en manos del monarca hasta que pasó en el año 1290, con Sobrón y otras localidades, bajo el dominio de Salinas de Añana. Y aunque se conserva alguna referencia del siglo XIV, a partir de este momento hay un verdadero hiato en la documentación y se pierde la huella y la memoria del lugar. Ya en el siglo XVIII el lugar es recordado como un despoblado de tal forma que solamente la ermita de San Martín de Lantarón conserva el topónimo.

A mediados del siglo XIX se inauguró el balneario de Sobrón, lo que afectó notablemente al área donde se encuentra aún hoy en día la ermita de San Martín que fue reconstruida en 1861, aunque las mayores agresiones que ha sufrido este espacio se debieron a

Lantarongo San Martin baselizari leku egiten dion eremuaren ikuspegi orokorra; eskuinetara, erromatarren azken garaiko ustezko okupazioari leku egin zion muinoa.

Vista general del área donde se ubica la ermita de San Martín de Lantarón; a la derecha la colina en la que se ha hallado la presunta ocupación tardorromana.

iragan mendean, berrogeita hamargarren urteetan, eraikitako Sobróngo jauziak eragindakoak diren. Presaren, errepide berri baten, obrarako etxolen eta oro har azpiegitura guztien eraikuntzak zeharo eraldatu ditu lekuko topografia eta morfologia, eta depositu arkeologiko asko suntsiarazi ditu.

Esku-hartze arkeologikoa

Zirkunstantzia hauek kontuan izanik, honako hauek izan dira lehenengo kanpaina arkeologiko honen helburu nagusiak: batetik, sakon miatuko genuen alde hau, eta tele-hautemate teknikak baliatuta Lantaróngo gaztelua aurkitzeko xedean iradoki diren kokalekuen proposamenak egiaztatuko genituen; bestetik, Lantaróngo San Martin baselizaren inguruko depositu arkeologikoen lodiera ebaluatuko genuen, soilik leku honek eusten baitio Erdi Aroko leku-izen zaharrari eta gutxienez XVIII. mendeaz geroztik kontserbatzen baitu San Martin izena.

Lehenengo jarduera ildoari dagokionez, airetiko argazki historikoak, ahozko iturriak eta LiDAR irudiak aztertu eta gainazaleko miaketa lanak eginda baztertu egin behar ditugu gaztelua Peña Castillo, El Mazo eta Novalen kokatzen zuten aurreko proposamenak oro. Lantaróngo San Martin baselizaren mendebaldeko muino bat da arrasto interesgarri batzuk eskaini dituen leku bakarra. Landaredia trinkoak lekuko topografia xehetasunez aztertzeko aukerarik eman ez bazuen ere, muino honen aldapa egituratzen duten terrazetako batean jatorrizko egokieran aurkitu genituen erromatarren azken garaiko zeramika batzuk, horien artean aipagarri 704. motako eltze bat, ekialdeko Kantauri aldeko hainbat aztarnategitan IV.-VI. men-

la construcción, en los años cincuenta del siglo pasado, del salto de Sobrón por parte de Iberduero. La construcción de la presa, una nueva carretera, los barracones de obra y en general, de toda la infraestructura, han modificado la topografía y la morfología del lugar, destruyendo numerosos depósitos arqueológicos.

Intervención arqueológica

Teniendo en cuenta estas circunstancias, los objetivos prioritarios de esta primera campaña arqueológica han sido, por un lado, llevar a cabo una prospección exhaustiva del territorio verificando mediante distintas técnicas de teledetección la viabilidad de las distintas propuestas de localización que han sido sugeridas para localizar el castillo de Lantarón; en segundo lugar, se ha querido evaluar la potencialidad de los depósitos arqueológicos situados en el entorno de San Martín de Lantarón, único lugar que conserva el viejo topónimo medieval y cuya advocación está certificada al menos desde el siglo XVIII.

Por lo que se refiere a la primera de las líneas de actuación, el análisis de las fotografías aéreas histórica, las fuentes orales, las imágenes LiDAR y las prospecciones superficiales han permitido descartar las atribuciones precedentes que habían ubicado el castillo en Peña Castillo, El Mazo o en Noval. El único lugar en el que se han identificado indicios de un cierto interés se trata de una colina situada al oeste de la actual ermita de San Martín de Lantarón. Aunque la densa vegetación no ha permitido analizar con detalle la topografía del lugar, en una de las terrazas en las que se articula la pendiente de esta colina se ha hallado un reducido lote de cerámicas tardorromanas en posición primaria, entre las que destaca una olla tipo

de bitartean datatua. Eta okupazio honen garrantzia ezin zehaztasunez egiaztatu izan dugun arren, inguruko beste leku gotortu batzuen garai berekoa dela esan behar dugu, esate baterako, ibaian gora, gutxi gorabehera 20 kilometrotara, beste igarobide batean dagoen Tedeja gazteluaren garai berekoa.

San Martin aldean sakon miatu genuen gainazala, eta egiaztatu egin genuen Iberdueroren lanek leku honetan suntsipen garrantzitsuak eragin zituela. Era berean, San Martin baselizaren hormen irakurketa estratigrafikoa egin genuen. Laurogeigarren urteetan egindako eraberritze lanen ondorioz eraikinaren hormak ezkutuan geratu ziren arren, haien irakurketa zaila den arren, hegoaldeari atxikiko zioten baina egun suntsituta dagoen eraikin baten arrastoak bereizi genituen. Era berean, aurreko eraikuntza aldi baten arrastoak hauteman genituen.

Hala eta guztiz ere, San Martin inguruan egokitutako depositu arkeologikoen munta zehaztasun maila handiago batez ebaluatzeko xedean eta kontuan izanik leku honen ikusgarritasun eskasa, miaketa lanak egin genituen plataforman, airetiko argazki infragorriak, espektro ikusgaiak eta georradarra baliatuta. Bereziki georradarrari esker irregulartasun batzuk egiaztatu ziren baselizaren inguruan, agian hileta espazioaren presentziarekin identifikatu litezkeenak. Era berean, hainbat egitura hauteman genituen baselizatik gertu eta Iberduerok aztarnategia ebakiz eraikitako errepidean.

2012. urtean hainbat zundaketa egingo ditugu georradarraren bidez identifikatutako egitura hauen eta erromatarren azken garaiko materialak topatu genituen terrazen nondik norakoak egiaztatzeko xedean.

704 que se fecha entre los siglos IV-VI en varios yacimientos del Cantábrico oriental. Y aunque aún no se ha podido verificar con precisión la entidad de esta ocupación, resulta sugestivo señalar su contemporaneidad respecto a otros centros fortificados próximos, como es el caso de Tedeja situado unos 20 km río arriba en otra zona de paso.

En el área de San Martín se ha llevado a cabo una prospección intensiva de superficie, que no ha hecho sino certificar la entidad de las importantes destrucciones realizadas en el lugar por las obras de Iberduero. Asimismo se ha llevado a cabo una lectura estratigráfica de los paramentos de San Martín. Aunque el edificio es poco legible debido a que la restauración realizada en los años ochenta ha ocultado buena parte de las fábricas, se han podido detectar las huellas de un edificio anexo situado al sur y hoy arrasado, y la más que probable existencia de una fase constructiva anterior.

No obstante, con el fin de evaluar con mayor precisión la entidad de los depósitos arqueológicos situados en el entorno de San Martín y teniendo en cuenta la escasa visibilidad del lugar, se ha realizado una prospección mediante fotografía aérea infrarroja, espectro visible y georadar en la plataforma. Gracias especialmente al georadar se ha podido constatar la existencia de toda una serie de anomalías situadas en el entorno de la ermita, presuntamente identificables con la existencia de un espacio funerario, así como varias estructuras situadas tanto en proximidad de la ermita como de la carretera realizada por Iberduero cortando el yacimiento.

Se prevé llevar a cabo en el año 2012 varios sondeos con el fin de verificar la entidad de estas estructuras identificadas mediante el georadar y de las terrazas en las que se han hallado los materiales tardorromanos.

J.A. Quirós Castillo

A.16.2. **2. Poligonoko 735. lursaila (Bergonda)**

Zuzendaritza: Idoia C. Domínguez Beltrán de Heredia
Finantziazioa: Arabako Foru Aldundia

A.16.2. **Parcela 735 del polígono 2 (Bergüenda)**

Dirección: Idoia C. Domínguez Beltrán de Heredia
Financiación: Diputación Foral de Álava

Intervention carried out all over the site, leaving no room for further investigation, since the results proved to be of scarce historical-archaeological interest.

Orube honetan garbigune bat eraikitzeko proiektua aurkeztu zutenez, 1,20 metro zabalerako lubakiak egin genituen ipar-mendebaldetik hego-ekialderako norabidean. Emaitzak negatiboak izan ziren historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik, baina etorkizunean eta beharrezkoa denean babestutako eremuaren gainerakoa («Carrasquilloko finkamendua») ebaluatu beharko da.

Intervención desarrollada en base a zanjas de orientación NW-SE de 1,20 m de ancho a lo largo del solar que va a ser intervenido para la construcción de un punto limpio, siendo los resultados de la misma de escaso o nulo interés histórico-arqueológico, quedando pendiente de evaluar a futuro el resto del área protegida («Asentamiento de Carrasquillo») cuando sea necesario.

I.C. Domínguez Beltrán de Heredia

A.17. NAVARIDAS

A.17.1. Castejón gaina

Zuzendaritza: José Manuel Martínez Torrecilla
Finantziazioa: Arabako Foru Aldundia Herri Lan eta Garraio Saila

A.17.1. Alto de Castejón

Dirección: José Manuel Martínez Torrecilla
Financiación: Diputación Foral de Álava Departamento de Obras Públicas y Transportes

Archaeological excavation of two lower terraces and assessment sondages in the higher area of Alto de Castejón, a settlement dating from the 1st Iron Age.

Sarrera

Txosten honek 2009ko azaroaren eta 2011ko uztailaren arteko hilabeteetan Castejón Gaineko aztarnategian (Navaridas) burura eramandako lanen emaitzak jasotzen ditu. Lan arkeologiko hauek «A-3212 errepideko plataforma handitzeko eta bidea hobetzeko proiektuaren» ondorio dira, proiektu honek bete-betean hartzen baitzuen aztarnategia. Lan hauek Qark Arqueología S.L. enpresak eraman zituen burura.

Miaketak eta zundaketak

Hasieran Castejón Gaineko aztarnategiaren inguru arkeologikoki baloratzeko proiektua eraman genuen burura. Lehen balorazio arkeologiko honek hiru helburu zituen:

- Ondare honi buruzko informazio eskasa eguneratzea, haren estratigrafia eta kontserbazio egoera hobe ezaugarritzeko xedean, aztarnategia behin baino gehiagotan nahasi baitute, batez ere errepidea eraiki zutenean eta mahastiei leku egiteko alde hau guztia prestatu eta egituratu zutenean.
- Aztarnategiari babes inguru hobea eskaintzea.
- Errepidea handitzeko lanak burura eramateko garaian egoki irizten diren neurri zuzentzaileak proposatzea.

Xede horretan, aipatu helburuak betetzeko aukera emango liguketen hiru lan-aldi zehaztu genituen. Hasteko, aurreneko bi lanaldiak eraman genituen burura, eta hauetan lortutako emaitzek eraman gintuzten hirugarren lanaldia burura eramatera.

I. lanaldia. Miaketa arkeologikoa

Lehenengo lanaldi honetan miaketa arkeologikoa egin genuen aztarnategiaren eremu guztian, miaketa sakonagoa errepidearen inguruan. Miaketa hauetan Burdin Aroko zeramikazko materiala oso barreiatuta zegoela dokumentatu genuen. Era berean, aztarnategiaren iparraldean, *Terra Sigillata Hispanica* zeramika motaren kontzentrazio bat erregistratu genuen.

Introducción

El presente texto recoge los resultados de los trabajos desarrollados en el yacimiento del Alto de Castejón (Navaridas), entre los meses de noviembre de 2009 y julio de 2011. Estos trabajos arqueológicos son consecuencia del «*Proyecto de mejora de trazado y ampliación de plataforma de la carretera A-3212*», que incluían la afección directa al yacimiento.

Prospección y sondeos

En un inicio se realizó un proyecto de valoración arqueológica para el entorno al yacimiento del Alto de Castejón. Esta valoración arqueológica previa tenía una triple finalidad:

- Actualizar la escasa información que se tenía acerca de esta entidad patrimonial, adquiriendo una mejor caracterización de su estratigrafía y de su estado de conservación, ya que el yacimiento ha sufrido varias alteraciones diferenciales, sobre todo por la construcción de la carretera y por la actual configuración del paisaje, orientado al cultivo de la vid.
- Ofrecer un mejor entorno de protección del mismo.
- Estimar unas medidas correctoras adecuadas a la hora de ejecutar la obra de ampliación de la carretera.

Para ello se definieron tres fases de trabajo que nos permitiesen cumplir dichos objetivos. En un primer momento se ejecutaron las dos primeras fases, cuyos resultados nos llevaron a implementar y ejecutar la tercera.

Fase I. Prospección arqueológica

En esta primera fase se realizó una prospección arqueológica en toda el área del yacimiento, siendo más intensiva en el entorno de la carretera. En esta prospección se documentó una gran dispersión de material cerámico de la Edad de Hierro, hallando, además, una zona de concentración de cerámica *Terra Sigillata Hispanica* al norte del yacimiento.

Castejón gaina. Airetiko argazkia, eremuak bereizirik.

Alto de Castejón. Fotografía aérea con la delimitación de zonas.



II. lanaldia. Balorazioak egiteko lubakiak

Lanek gainazalean izango zuten eragina neurtu ostean, balorazioa egiteko bederatzi lubaki egin genituen. Emaitzak negatiboak izan ziren zazpi erretenetan, nahiz eta ia denetan zeramikazko zatiak aurkitu genituen (bazter izaerako aurkikuntzatzat hartu genituen); erretenetako batean sutegi eta zabortegi bana erregistratu genituen, eta bestean aspaldiko terraza sistema bat.

III. lanaldia. Indusketa arkeologikoa

Aurreko aldietan lortutako emaitzak kontuan izanik, indusketa arkeologikoa egin genuen egiturak dokumentatu genituen aztarnategiko bi eremuetan (1. eta 2. eremuak). Bestalde, zundaketak egin genituen beste bi eremutan (3. eta 4. eremuak) aurreko lanaldietan zehar lortutako datuak testuinguruan hobe kokatzeko xedean. Gisa honetan hobe ezaugarritu ahal izango genuen aztarnategia.

Emaitzen laburpena

Laburpen orokor gisa, esan dezagun hasieran uste baino hobe kontserbatu den eta uste baino estratigrafia aberatsagoa duen aztarnategiaren aurrean gaudela, eta funtzioaren ikuspuntutik ondo bereizten diren aldeak dituela (bizitokia, laborantza lurrak).

1. aldea

Alde honetan 378 m²-ko azalera induskatu genuen, eta kronologia berriko laborantza lurrez osatutako betegarri batzuk erregistratu genituen. Azterketa zehatzik egin ez bada ere, guk uste dugu terraza hau gutxienez XIX. mendetik XX. mendeko 70. urteak arte erabili izan dutela. Betegarri hauek mekanikoki induskatuta zeramikazko material asko berreskuratu genuen, oso zati txikitan eta oso higatuta baina.

Aspaldikoak ez diren betegarri hauen azpian aski suntsituta zegoen aspaldiko terraza bat identifikatu genuen partzialki; bestelako kotan zeuden bi geruzak osatzen zuten, bien artean eustorma baten hondakinak. Gutxi gorabehera 2 metroko sakonera mailan ge-

Fase II. Zanjas Valorativas

Una vez evaluado en superficie el grado de afección de la obra, se realizaron nueve zanjas valorativas. Los resultados fueron negativos en siete zanjas, aunque se recogieron fragmentos cerámicos en casi todas ellas (que se consideraron como hallazgos residuales); en una de las zanjas se registraron un hogar y un basurero, y en otra un sistema de terrazas antiguo.

Fase III. Excavación Arqueológica

Debido a los resultados de las fases anteriores se realizó una excavación arqueológica en las dos zonas del yacimiento donde se habían documentando estructuras (zonas 1 y 2) y, además, se realizaron sondeos en otras dos zonas (zonas 3 y 4) con el fin de contextualizar mejor los datos obtenidos durante los trabajos previos, permitiendo de esta manera una mejor caracterización del yacimiento.

Resumen de los resultados

A modo de resumen general, se puede decir que nos encontramos ante un yacimiento mejor conservado y con una complejidad estratigráfica mayor de lo que se estimaba en un inicio, con áreas diferenciales en cuanto a su funcionalidad (habitación, cultivo).

Zona 1

En esta zona se excavó una superficie de 378 m², registrando una serie de rellenos de cultivo de cronología reciente. A falta de los análisis específicos consideramos que esta terraza se vino utilizando, al menos, desde el siglo XIX hasta los años 70 del siglo XX. En la excavación mecánica de estos rellenos se recuperó gran cantidad de cerámica pero muy fragmentada y rodada.

Bajo los rellenos más recientes se identificó, parcialmente, una antigua terraza bastante arrasada, compuesta por dos estratos a diferente cota y, entre ellos, los restos de un muro de contención. Como nos encontrábamos a unos 2 metros de profundidad, se

undenez, terraza ebakiko zuen erreten bat egitea erabaki genuen, baina haren azpian materialik gabeko buztin garbiek osatutako maila identifikatu genuen.

Ikerketaren egungo egoeran ez dakigu zein den terraza honen erabilera aldia, ez dakigu zer leku hartzen zuen aztarnategiaren kronologia luzean, eta ez dakigu bertan zer aldatzen zuten.

2. aldea

Alde honetan 1000 m²-ko azalera induskatu genuen, eta oso ondo kontserbatu den herrixkaren parte bat estaltzen zuten betegarriak eta harrizko betelanak induskatu genituen. Bertan bi okupazio aldi bereizi genituen, denboran ezkutatzen diren bi habitat ereduri erantzuten dietenak.

1. aldia

Aldi honetan oinplano zirkularreko edo obaleko etxola batzuek osatzen zuten herrixka; etxola hauek gehienak aztarnategiaren hegoaldean egongo ziren. Etxolek harrizko zokaloak zeuzkaten, eta segur asko adobezko hormak izango zituzten. Barruko aldean antzeko banaketa eredua zuten denek, hainbat sutegi izango zituzten (erdian edota etxolaren hegoaldean), sutegien erabileratik eratorritako errautsezko hondakinak eta paldoei leku egiteko zuloren bat. Beraz, antolakuntza erradiala zen nagusi, etxeko egitekoak burura eramateko egiturarik gabeko espazio libre ugari utzita. Etxola zirkular hauek denak ez zituzten 2. Aldian abandonatu, edo pixkana-pixkana abandonatu zituzten, haien artean eraikin angeluzuzenak eraiki zituztelako edo, erdiko etxola zirkularraren kasuan ikusiko dugun bezala, bati edo besteari eraikin hauetako bat eratxiki ziotelako.

Aitzitik, ondorengo hirigintzak eragindako suntsiketaren ondorioz, ez da aldi honetako ia hondakinik kontserbatu aztarnategiaren iparraldean. Etxebizitza angeluzuzenetako baten atearen aurreko paldo batzuk baino ez, bizitoki hau eraiki baino lehen jardunean egongo zen zurezko egiturari legozkiokeenak, paldo hauek lur eremua berdintzeko betegarriak estalita baitaude. Gainera, iparraldeko etxebizitzaren ekialdeko hormaren azpian, etxola zirkular baten hondakinak diruditenak erregistratu genituen, baita haren barruko erdiko paldo handi baten eta kanpoko beste paldo baten hondakinak ere, guztiak etxebizitza angeluzuzena eta hedaduraz baita alde guztietako etxebizitzak eraiki aurreko errautsezko betegarriak estalirik. Hala eta guztiz ere agerian behar zuten hondakinek, horma zirkularraren atal bat etxeko sarrera antolatzeko probestu baitzuten.

Induskatutako etxola zirkularrak gutxi izan arren, esan dezagun habitat hau harrizko zokaloen gainean material galkorrez eraikitako etxolek osatzen zutela, eraikitako espazioaren indizea apala zela, eta etxebizitzen arteko espazio librea handia zela. Eskema honek aldaketak ezagutuko zituen denboraren joanean eta eraikuntza beharren arabera, hegoaldeko etxolan ikusten dugun bezala, izan ere, honakoa eraiki zutenean erreten txiki bat amortizatu zuten; erreten honek zuzeneko lotura izango zuen ondoan dituen betegarri batzuekin, erretako ikatz eta buztinak dituztenekin.

decidió realizar una zanja que cortase la terraza, identificando bajo ella un nivel de arcillas muy limpias y sin material.

En el momento actual de la investigación desconocemos la cronología de uso de esta terraza, su contextualización dentro de la amplitud cronológica del yacimiento, así como el tipo de cultivo.

Zona 2

En esta zona se excavó una superficie de 1000 m², excavando una serie de rellenos y nivelaciones de piedra que cubrían parte de un poblado muy bien conservado y donde se han delimitado dos fases principales de ocupación, establecidas en base a dos modelos de hábitat que se solapan en el tiempo.

Fase 1

En esta fase el poblado estaba formado por una serie de cabañas de planta circular u ovales, situadas fundamentalmente en la mitad sur de esta zona. Las cabañas se realizaban mediante la construcción de zócalos de mampostería y, posiblemente, muros de adobe. En su interior, casi todas responden al mismo patrón de distribución, con varios hogares (en el centro y/o en el lado sur de la cabaña), desechos de cenizas de su uso y algún agujero de poste, lo cual nos indica una disposición radial dejando mucho espacio libre de estructuras para poder desarrollar las actividades domésticas. No todas estas cabañas circulares fueron abandonadas en la Fase 2, o al menos lo fueron pero de forma progresiva, ya que se construyen edificaciones rectangulares entre ellas o, como vemos en el caso de la cabaña circular central, adosándole una de estas edificaciones.

Sin embargo, en la mitad norte apenas han quedado restos de esta fase, debido al arrasamiento producido por el urbanismo posterior. Se trata de varios postes situados delante del acceso a una de las viviendas rectangulares, correspondientes a una estructura lígnea que debió mantenerse en funcionamiento hasta la construcción de estas estancias, ya que se encuentran amortizados con el mismo relleno que sirve para nivelar el terreno. Además, bajo el muro de cierre oriental de la vivienda ubicada al norte encontramos lo que parecen ser los restos de una cabaña circular y de un gran poste central en el interior y otro al exterior, amortizados todos ellos por un cenizal antes de acometerse la construcción de la vivienda rectangular, y por extensión de todas las de esta zona. Sin embargo, las ruinas debían ser visibles ya que parte del muro circular se reaprovecha para la entrada a la casa.

A pesar de las pocas viviendas circulares excavadas, el hábitat parece definido por la presencia de ámbitos domésticos de cabañas erigidas con materiales perecederos sobre zócalos de piedra, con un bajo índice de espacio construido y una alta disponibilidad de espacio libre entre viviendas. Este esquema se va modificando a lo largo del tiempo, en función de las necesidades constructivas, como vemos en la cabaña ubicada al sur, que con su construcción amortiza una pequeña zanja, probablemente relacionada con varios rellenos de carbones y arcillas quemadas que hay a su lado.

2. aldia

Bigarren aldi honetan eta induskatutako eremuaren iparraldean, hirigintza sistema berri bat nagusitu zen, formaz aurrekoa ez bezalakoa. Alde honetan 4 etxebizitza angeluzuzen identifikatu genituen. Antzeko eredu edo espazioak banatzeko eskema eta erabilerak zituzten, arteko hormak eta gibelaldeko hormak partekatzen zituzten, eta beraz, eraikuntza ahalegin bat eta bera iradokitzen digute.

Segur asko etxebizitzak ziren, familia unitatetan bereizirik, bakoitzak bere sarrera eta sutegi nagusia dituelako eta haien arteko komunikaziorik ez dagoelako.

Oso antzekoa da hiru etxebizitzetako banaketa eskema: oinplano angeluzuzenekoak dira hiruak, espazioa bitan banaturik dute, sarrera hegoaldeko hormaren ekialdeko muturrean.

Banaketa hau erabatekoa da iparraldeen dagoen etxebizitzan. Bi gelatan banatuta dago, bien artean horma bat, baina biak unitate bati eta bakarrari dagozkio zalantzarik gabe, bigarren gelaren bidez iristen baita lehenengora.

Castejón Gaineko kasuan eragozpena da induskatutako etxebizitzen kopuru apala eredu orokor bat proposatzeko. Izan ere, barne banaketak faktore askori erantzun diezaieke eta erantzun behar die (azalera erabilgarria, etxebizitzetako aireztapena, jatorrizko aldaparen inklinazioa eta beste batzuk), baita etxebizitzak egokiro mantentzeko eta berritzeko ohiko prozesuari ere. Gainera ondo asko bereizten dira zoruan egindako egokitzapenak, eta egokitzapen hauek biztanleen beharren arabera birmoldatuko zuten barneko espazioa.

Une jakin batean berritze lan garrantzitsu bat eraman zuten burura etxebizitza angeluzuzenetako batean, eta haien hegoaldean terrazetan antolatutako azalera eratu zuten, aurreko aldiko egiturak amortizatuz eta bizitokia ez zen barruti bat sorraraziz, bertan bi labe egokitzeko xedean. Halako sakonera maila zuten zulo bik eratuta zeuden egitura hauek, adobezko paretekin eta, barruko aldean, ondoz ondo prentsatutako buztinezko xaflekin (labeetako batean 7 erregistratu genituen), xaflen artean labeen erabileratik eratorritako hondakinak bereizten zirela. Ikerketaren egungo egoeran ez dakigu haietan zer erretzen zuten, inguruetan ez baitugu dokumentatu zeparik, ez zeramikazko hondakinik ez teilarik.

3. aldea

Aztarnategiaren goi partean 4 bider 4 metroko hiru zundaketa egin genituen, eta hego-mendebaldeko eremuko azaleratze natural bati leku egiten zion tokia garbitu genuen; gainaren behe aldeko terrazaren hegoaldean 6 bider 4 metroko bi zundaketa egin genituen. Zundaketetako bat (3.c) negatiboa izan zen, baina besteetan egitura garrantzitsuak identifikatu genituen:

- 3.a zundaketan bi egitura handi dokumentatu genituen partzialki, zirkularra bata eta angeluzuzena bestea, biak adobe, erretako buztin, errauts eta ikatz hondakinek amortizaturik. Egitura angeluzuzenaren barruko horman erretako adobezko estaldura oso mehe bat geratu zen agerian. Egitura hauek induskatu gabe daude, baina labe motaren bat direla ematen du.

Fase 2

En esta fase se crea un nuevo sistema urbanístico, formalmente diferente al anterior, en la parte norte del área excavada. Aquí se han identificado 4 estancias rectangulares de un modelo o esquema de distribución de espacios y usos similar, con el uso compartido de medianiles y de un muro zaguero, lo que nos indica un mismo esfuerzo constructivo.

Corresponderían probablemente a ámbitos domésticos, con unidades familiares diferenciadas, ya que cada una de ellas tiene un acceso independiente, un hogar principal y carecen de comunicación entre ellas.

En tres de las viviendas el esquema de distribución es muy similar, tratándose de construcciones de planta rectangular divididas en dos espacios, con la entrada situada en el extremo oriental del muro sur.

Esta división es completa en el caso de la estancia ubicada más al norte, con una clara separación en dos habitaciones con un muro entre ellas, aunque ambas pertenecen sin duda a la misma unidad, ya que el acceso a la primera se hace a través de la segunda.

El escaso número de viviendas excavadas impide en el caso del Alto de Castejón proponer un modelo generalizado. De hecho la distribución interna puede y debe responder a una multiplicidad de factores (superficie disponible, ventilación de las casas, inclinación de la ladera original, etc.) y al habitual proceso de mantenimiento y reforma de las viviendas, documentado con claridad en los diferentes manteados de los suelos, que en algunos casos remodelaría el espacio interno en función de las necesidades específicas de sus habitantes.

En un momento dado se realiza una importante reforma en una de las estancias rectangulares, creando una nueva superficie aterrazada al sur de estas, amortizando estructuras de la fase anterior y creando un ámbito no doméstico donde se ponen en funcionamiento dos hornos. Estas estructuras estaban formadas por sendos agujeros de cierta profundidad, con paredes de adobe y, en su interior, una sucesión de placas de arcilla prensada (hasta 7 en uno de los hornos) con los respectivos restos de uso de los hornos entre las placas. En el momento actual de la investigación desconocemos la funcionalidad de los mismos, no habiéndose documentado en su entorno ni escorias, ni restos de cerámica ni teja.

Zona 3

En la zona más alta del yacimiento se abrieron tres sondeos de 4 por 4 metros, limpiando, además, una zona de afloramiento natural en el lateral sudoeste; en la terraza inmediatamente inferior al alto por el sur se excavaron dos sondeos de 6 por 4 metros. Uno de los sondeos fue negativo (3c), pero en el resto se identificaron importantes estructuras:

- En el sondeo 3a, se documentaron parcialmente dos estructuras de gran tamaño, una circular y otra rectangular, amortizadas por restos de adobe, arcilla quemada, cenizas y carbones. En el alzado interior de la estructura rectangular se empezaba a ver un revestimiento muy fino de adobes quemados. Estas estructuras no se han excavado pero parece que se puede tratar de algún tipo de horno.

Castejón gaina. Oinplanoa, bi okupazio aldi nagusiak bereizirik.

Alto de Castejón. Planta con las dos fases principales de ocupación.

– Estratigrafiaren ikuspuntutik 2.b izan zen zundaketa konplexuena, espazio honetan hainbat erabilera aldi erregistratu baikenituen. Lehenik buztin oso garbiek osatutako betegarriak amortizatutako zulo bat induskatu genuen, segur asko dekantaziorako zuloa bera. Zuloa irekitzen zen geruzaren azpian gutxi gorabehera zirkularrak ziren bi sutegiren hondakinak biltzen zituen maila bereizi genuen, baita errautsezko geruza batzuk ere. Era berean, paldoei leku egiteko ustezko bost zulotako betegarriak induskatu genituen; paldoak sutegien jardunarekin lotuta egongo ziren segur asko. Bukatzeko, 1,30 metroko sakonera mailan, gela baten arrastoak dokumentatu genituen: haren hegoekialdeko hormari eta ateari leku egiteko hutsartea zuen hormaren hondakinak. Barruan etxeko zoruaren eta sutegi obal baten hondakinak identifikatu genituen, sutegia formaz aurrekoak ez bezalakoa, honek bere forma mugatzen zuten adobezko pareta txikiak baitzituen eta ipar-ekialdeari irekitzen zitzaion hutsune bat.

– 3.d zundaketak ere estratigrafia konplexu samarra utzi zuen agerian, errauts eta ikatz hondakinak amortizatzen zituzten terrazako betegarriak eta partzialki mugatutako erreten bat. Zundaketaren mendebaldeko perfilean, modu partzialean ere, labe baten hondakinak induskatu genituen, 2. aldeko labeen antzekoa, ondoz ondoko buztinezko xaflek eratua, jangune baten barruan erabileratik eratorritako hondakinak bilduz. Egitura honen eta geruza kolorez gris baten azpian paldoei leku egiteko bost zulo identifikatu genituen, haietako bat oso sakona.

– Azkenik, 3.e zundaketan ere jarduera antropikoaren arrastoak identifikatu genituen, baina hauek aurreko zundaketetan identifikatutakoak baino askoz ere egoera kaskarragoan zeuden. Ustezko labe baten hondakinez eta errautsez ari gara, baita geruza naturalean egindako bost ebakiez ere, horietatik hiru segur asko paldoei leku egitekoak.

– El sondeo 3b resultó, estratigraficamente, el más complejo, registrándose varias fases de uso de este espacio. En primer lugar se excavó una fosa, posiblemente de decantación, amortizada por un relleno de arcillas muy limpias. Bajo el estrato en el que se abría la fosa, había un nivel con restos de dos hogares más o menos circulares, pero muy arrasados, así como varios estratos de cenizas. También se excavaron las amortizaciones de cinco posibles agujeros de poste, probablemente asociados a las actividades de los hogares. Finalmente, a 1,30 metros de profundidad se documentaron indicios de una habitación, de la cual se identificó el cierre sudeste, los restos de un muro con un hueco para el acceso. Hacia el interior había restos del suelo de la habitación y un hogar ovalado, formalmente diferente a los anteriores, ya que este presentaba unas pequeñas paredes de adobe delimitando su forma y dejando un hueco hacia el nordeste.

– El sondeo 3d también tenía cierta complejidad estratigráfica, con varios rellenos de terraza amortizando una serie de restos de cenizas y carbones y una zanja, muy parcialmente delimitada. En el perfil del lado oeste del sondeo se excavaron, también parcialmente, los restos de un horno, similar a los de la zona 2, compuesto por varias placas de arcilla sucesivas y sus respectivos restos de uso en el interior de un rebaje. Bajo esta estructura y un estrato grisáceo se identificaron cinco agujeros de poste, alguno de ellos de bastante profundidad.

– Por último, en el sondeo 3e se hallaron indicios de actividad antrópica, aunque mucho más arrasados que en los sondeos anteriores. Se trata de los restos de un posible hogar y restos de cenizas, así como cinco cortes en el sustrato natural, tres de ellos posiblemente agujeros de poste.

Castejón gaina. 2. eremuaren ikuspegi orokorra, aurrean 2. aldiko etxebizitzak.

Alto de Castejón. Vista general de la zona 2, con las viviendas de la fase 2 en primer término.

Azaleratze naturaleko eremua garbitzen ari ginela dorre koadro baten lur jotzea eta hondakinak dokumentatu genituen, baita harrian induskatutako hainbat erreten zirkular ere.

Bistan denez, elementu arkeologiko asko kontserbatu dira aztarnategiaren goiko partean, nahiz eta agente atmosferikoen erasoetatik babestuta ez dagoen eta aspaldi ez dela alde hau laborantza lanen esparrura biltzen zen. Beraz, espazio hau eta I. Burdin Aroan etenik gabe erabili zutela esan behar dugu, geuk jasotako zeramikazko hondakin kopuru handiak aldi horretara eramaten gaituelako eta, gainera, aztarnategiaren 2. eremuko aldi nagusiarekin antz handia duelako.

4. aldea

Egungo terraza modernoa osatzeko prozesua dokumentatu ahal izan dugu, herrixkaren garai bereko egitura arkeologikoak ez daudela egiaztatu dugu, eta terrazaren hormaren interes historikoa baloratu dugu, errepidea handitzeko lanek zuzenean ukitzen baitute hesi hau; lortu ditugun datuak eskura badakigu eustormarena egiteko eraiki zutela horma hau, eta aro modernoko zeramikak berreskuratu ziren betegarrian oinarritu zutela.

Azken balorazioa

Zalantzarik gabe guztiz berezia den aztarnategia dugu honakoa, oso ondo kontserbatzen delako, historiaren ikuspuntutik oso interesgarria delako eta etorkizunari begira ere aukera handiak eskaintzen dituelako. Esan bezala, bikain kontserbatzen da, eta agerian geratu dira etxolak eta gelak, osorik, kasuren batean adobezko hormak erorita.

Castejón Gaina herrixka handia izateaz gainera, leku nabarmena du paisaian, inguruko leku askotatik ikusten delako eta bertatik bideen gaineko kontrola erabatekoa delako. Aurreko garaietako aztarnategietan ikusten de bezala, inolako zalantzarik gabe bizirauteko irizpideak ez baizik eta irizpide estrategikoak hartu zituzten aintzakotzat herrixka bertan egokitzeko garaian.

En la limpieza del afloramiento natural se documentó el derrumbe y los restos de una torre cuadrangular, así como varios rebajes circulares realizados en la roca.

Como vemos, en la cima del yacimiento se han conservado gran cantidad de elementos arqueológicos, a pesar de estar en una zona muy expuesta a los agentes atmosféricos o actividades agrícolas más o menos recientes. Estas actividades nos muestran un uso continuo de este espacio a lo largo de la Edad de Hierro I, puesto que la gran cantidad de cerámica recogida nos remite a esta fase y es, además, muy similar a la de la fase principal del asentamiento de la zona 2.

Zona 4

Hemos podido documentar el proceso de formación de la moderna terraza actual, constatar la inexistencia de estructuras arqueológicas coetáneas al poblado y valorar el interés histórico del muro de aterrazamiento, ya que este espolón era una de las zonas de afección directa para la ampliación de la carretera; con los datos que hemos obtenido sabemos que el muro se construyó como contención, apoyándose sobre un relleno donde se recuperaron cerámicas modernas.

Valoración Final

Nos encontramos ante un yacimiento sin duda excepcional, tanto por su estado de conservación y su interés histórico, como por su potencial de futuro. Como hemos visto, su conservación es excelente ya que han quedado a la vista cabañas y habitaciones completas, con los muros de adobe caídos, en algunos casos.

El Alto de Castejón, además de ser un poblado de gran tamaño, es un lugar destacado en el paisaje puesto que es un lugar visible desde diferentes puntos de su entorno y desde el que se tiene un amplio control de las vías de tránsito. Sin duda, su elección como poblado responde a criterios estratégicos y no tanto de subsistencia, como se ve en los yacimientos de épocas anteriores.

Oraingoz ez daukagu datazio absoluturik, bai ordea zeramikazko bilduma oso homogeneoa. Zeramika hauek etxekoak dira funtsean, sukaldekoak eta gaiak biltegiratzekoak, gutxi gorabehera I. Burdin Arokoak. Zalantzarik gabe herrixka abandonatuta egongo zen II. Burdin Aroan, ez baitugu aldi horretara eramango gintuen materialik berreskuratu. Eta segur asko berariaz abandonatuko zuten, etxola zirkularretako batean izan ezik besteetan ez baitugu etxebizitzak sistematikoki eraitsi izanaren arrastorik; bestalde, funtsean zeramika arrunta da berreskuratutako materiala, ez dugu metalezko objekturik apenas topatu, ez apaingarririk ez sinbolorik. Ez dakigu noiz hasi ziren herrixka eraikitzen, baina testuinguru honi lotutako zeramikak finagoak dira, Brontze Aroaren amaierako uneetara eraman gaitzaketen perfilak, dekorazioak eta azken ukituak dituzte.

Bukatzeko, azpimarratzekoa da aztarnategiaren parte garaienean dagoen dorrea. Oinplanoari eta estekadurari erreparatuta herrixkaren okupazioaren ondorengoa dela esan behar dugu, baina ez dugu haren eraikuntza data zehazteko nahikoa daturik.

Por ahora no disponemos de dataciones absolutas, pero sí de un conjunto cerámico muy homogéneo que nos remite a ámbitos fundamentalmente domésticos, de cocina y almacenaje, con una cronología aproximada de la Edad de Hierro I. Sin duda, el poblado se encontraba abandonado en el Hierro II, ya que no se ha recuperado material alguno que nos remita a esta fase, y probablemente debido a un abandono intencionado porque, salvo en una de las cabañas circulares, no se han hallado indicios de destrucción sistemática de las viviendas; por otro lado, el material recuperado es fundamentalmente cerámica común, sin apenas objetos de metal, decorativos o simbólicos. Desconocemos cuándo se inició la construcción del poblado, pero las cerámicas asociadas a este contexto, más finas, tiene perfiles, decoraciones y acabados que pueden llevarnos a momentos finales de la Edad de Bronce.

Por último incidir en la presencia de una torre en la zona más alta del yacimiento que, por su planta y su aparejo nos remite a una cronología más tardía que la ocupación del poblado, aunque aún no tenemos datos para fijar la fecha de su construcción.

J.M. Martínez Torrecilla, L. Sánchez Zufiaurre y A. Rodríguez Costas

A.18. **OYÓN / OION**

A.18.1. LABRAZAKO HIRIGUNE HISTORIKOA
CASCO HISTÓRICO DE LABRAZA

A.18.1.1. **Kanpoko argiteria publikoaren instalazio elektrikoa**

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños
Finantziazioa: Labrazako Administrazio Batzordea

A.18.1.1. **Instalación eléctrica de alumbrado exterior público**

Dirección: F. Javier Ajamil Baños
Financiación: Junta Administrativa de Labraza

The results of the archaeological monitoring of the public lighting installation work in Labraza found nothing of interest, since the project mostly took advantage of pre-existing underground infrastructures.

Kanpoko argiteria publikoaren behe tentsioko instalazio elektrikoa egiteko lanek hiri sare osoa hartzen zuten, baita barruti harresituaren barruko aldea ere. Hala eta guztiz ere, zorupeko kanalizazioetan eta kutxetetan barrena bideratu dira argindar eroaleak, eta beraz, lanek ez dute eraginik izan zorupean. San Migel elizaren gibelaldean baizik ez zuten erreten berri bat ireki. Han ere negatiboak izan ziren lanen gaineko kontrol arkeologikoaren emaitzak.

Las obras de instalación eléctrica de baja tensión para el alumbrado exterior público abarcaban todo el entramado urbano de la villa, incluyendo el interior de su recinto amurallado. No obstante, la conducción eléctrica se ha hecho aprovechando las canalizaciones soterradas y las arquetas ya existentes, por lo que la afección al subsuelo ha sido nula. Sólo por la parte trasera de la iglesia de San Miguel se procedió a abrir una zanja nueva. Los resultados del control arqueológico aquí fueron igualmente nulos.

F.J. Ajamil Baños

A.19. PEÑACERRADA-URIZAHARRA

A.19.1. Urizaharreko Andra Maria Tenplua eta herrixka

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños
Finantziazioa: Kultura Ministerioa-Arkeologiarako Arabar Institutua

A.19.1. Poblado y Templo de Nuestra Señora de Urizarra

Dirección: F. Javier Ajamil Baños
Financiación: Ministerio de Cultura-Instituto Alavés de Arqueología

The Nuestra Señora de Urizarra chapel and abandoned settlement do not appear in any historical documents until the 17th century, and the castle of the same name is not mentioned until the beginning of the 19th century. This lies in sharp contrast to the importance of the remains discovered, which consists of a village covering 3.5 hectares, complete with its own church and a series of domestic and production-related structures scattered all over the hill. The settlement had large agricultural and livestock farming areas and a defensive system consisting of a castle, a moat and possibly also a parapet built from stone and wood. The village may date back to the 11th century, and was probably abandoned gradually during the second half of the 13th century, once Aflonso X, King of Castille, founded Peñacerrada between 1254 and 1256. In the rocky caves to the south of the rise, indications of human activity from the Early Neolithic period have been found, although they probably correspond to a temporary refuge for hunters located near hunting grounds around the River Inglares.

Ustezko eremu arkeologikoaren deskripzioa eta arkeologiaren perspektibak

Urizaharra udalerriko 6. zenbakiko ustezko Eremu Arkeologikoak: «Urizaharreko Andra Maria Tenplua eta Herrixka» Urizaharreko hiribilduaren ipar-ekialdean dagoen muinoaren parte bat hartzen du, Inglares ibaiaren beste aldean. Itxuraz eremu laua da, ekialdeko eta mendebaldeko aldapek eta hegoaldeko lur eremu malkartsuak mugatuta. Puntu gorenean egun Urizaharreko gaztelua deitua dena dago, Urizaharra udalerriko 7. zenbakiko Ustezko Eremu Arkeologikoa: «Urizaharreko Gaztelua».

XVIII. mendearen lehen laurdenekoak dira Urizaharrari buruzko aurreneko aipamen idatziak, Aita Francisco de Berganzak bere «Antigüedades de España» obran (1721) Peñacerradako eliza lehendik Urizaharreko Andra Maria eliza izen zela idatzi zuenekoa. Urizaharra Iruñeko errege Iñigo Aristak (820-852) fundatu zuen. Aitzitik, ez dago horrelakorik berresten duen daturik. Aipamen idatziek ere Urizaharreko Andra Maria elizan Montoriako jauntxoak lurperatzen zituztela diote, eta bertan eman zietela lur Nafarroako errege Gartzia Ramirez Berrezarlearen (1134-1150) anaia Sancho Ramirezi eta bere emazteari. Geroago, Peñacerradako hiria fundatu zutenean, Ama Birjinaren Jasokundea elizara eraman zituzten haien gorpuzkiak.

Peñacerrada hiria hiri-gutunaren jabe egin zutenean hasiko zen husten Urizaharra herrixka, 1254. eta 1256. urte bitartean. Peñacerradak Urizaharreko eta inguruko beste herrixka batzuetako biztanleak hartu zituen. Urizaharreko eliza agian ordurako Urizaharreko Andra Maria baseliza bihurtua, 1670. urteko dokumentu batean izen horrekin adierazten baita, zutik egon zen eta bere egitekoak betetzen 1836. urtean eraitsi zuten arte.

Gainazalean ikusten diren aztarna materialek, elizak berak, eta sedimentazio naturalaren ondorioz metatutako lurrek eta landareek erdi ezkutatzen dituzten harrizko meta nola isolatuek hala sarean antolatuta

Descripción de la zona de presunción y perspectivas arqueológicas

La Zona de Presunción Arqueológica nº 6 del municipio de Peñacerrada-Urizaharra: «Poblado y Templo de Urizarra», se extiende por parte del promontorio que se localiza al nordeste de la villa de Peñacerrada, al otro lado del río Inglares. Se trata de una zona aparentemente llana delimitada por una fuerte pendiente en sus lados este y oeste y por un terreno escarpado por el sur. En su punto más alto queda coronado por el denominado actualmente castillo de Urizarra, correspondiente a la Z.P.A. nº 7 del municipio de Peñacerrada-Urizaharra: «Castillo de Urizarra».

Las primeras noticias sobre Urizarra en las fuentes escritas datan del primer cuarto del siglo XVIII, cuando el Padre Francisco de Berganza, en su obra «Antigüedades de España» (1721), escribe que la iglesia de Peñacerrada fue antes la de Santa María de Urizarra, villa fundada por el Rey de Pamplona Iñigo Arista (820-852). Sin embargo, no hay datos que avalen tal afirmación. También se hace referencia a que en Santa María de Urizarra eran enterrados los caballeros de Montoria, además de Sancho Ramírez y su esposa, hermano él del Rey de Navarra García Ramírez, el Restaurador (1134-1150). Sus restos serían trasladados después a la iglesia de Nuestra Señora de la Asunción, con la fundación de la nueva villa de Peñacerrada.

El despoblamiento de la aldea de Urizarra comenzaría con la concesión del fuero a la villa de Peñacerrada, entre los años 1254 y 1256, que recibiría población de ésta y de otras aldeas cercanas. Su iglesia, reconvertida quizás ya desde entonces en la denominada Ermita de Nuestra Señora de Urizarra, que aparece citada de manera directa ya en 1670, se mantuvo en pie y ha mantenido el culto hasta su demolición en el año 1836.

La importancia que este poblado debió tener quedaba de manifiesto por las evidencias materiales visibles en superficie como, además de la propia iglesia, los montículos de piedras semiocultos por la vegeta-

Ezkerretara: baselizako elementu batzuk, hura eraitsi aurretik zoladuraren gainera jaurtiak izan zirenak. Eskuinetara: 7. zundaketan dokumentatutako barrutian aurkitutako hormak, lur jotako atalen hondakinak eta zoladura.

A la izquierda: algunos de los elementos pertenecientes a la ermita arrojados sobre el pavimento antes de su derribo. A la derecha: muros, restos de derrumbes y pavimento hallados en el recinto documentado en el sondeo 7.

daudenek –geroago ikusiko dugunez lur jotako egiturak baitziren– agerian uzten dute herrixka honek izango zuen garrantzia. Desagertu egin den herrixka honen garrantzia nabarmentzeko orduan oso argigarria da berau ekialdetik eta hein batean baita hegoaldetik babesten zuen lubanarroaren presentzia. Lubanarro honek muinoaren goiko partean, iparraldeko muturrean, dagoen gazteluarekin egiten du bat. Ez dugu gotorleku honen jatorriaren berri, honakoa ere 1802. urteaz geroztiko iturri idatzietan aipatzen baita. Bajo las Peñas lekuko harpe harritsuei dagokienez eta geografian hartzen duten lekua kontuan izanik, hauek potentzial arkeologiko handia izan zezaketela pentsatzen genuen, meteorologiaren gora-beheretatik babestuta daudelako eta hegoaldeari begira, Inglares ibaiaren ibilgutik oso gertu gainera.

Esku-hartze arkeologikoaren garapena eta emaitzak

Zortzi zundaketa induskatu genituen. Bat Urizaharreko Andra Maria baselizan, haren estratigrafiaren sekuentzia dokumentatzeko, baselizaren kanpoko nahiz barruko balizko nekropolia aurkitzeko eta, horrekin guztiarekin, haren jatorriaren berri izateko xedean. Lau zundaketa muinoan barrena azaleratzen diren beste hainbeste azaleratzetan egin genituen, egiturak hauek dokumentatu eta etxe, abeltzaintza eta nekazaritza, artisautza edo beste motatako erabilera eman zioten aztertzeko. Era berean, babesteko lubanarroan jardun genuen haren egiazko neurriak zehazteko eta babes hau osatuko zuen balizko harresi, hesi edo oholesirik bat ote zen egiaztatzeko xedean. Bukatzeko beste bi zundaketa induskatu genituen Bajo las Peñas izeneko eremuko beste hainbeste harpetan. Azken indusketa hauekin bertan giza okupaziorik izan ote zen egiaztatu nahi genuen, hala izatera Burdin Aroaren aurreko garaietan jarriko baikinateke, eta egiazki hala gertatu zela esan behar dugu. Zundaketa guztiak eskuz ireki genituen, eta zundaketa kanpaina amaitutzat eman genuenean,

ción y la tierra acumulada por la sedimentación natural tanto aislados como creando retículas que, como se comprobaría más adelante, no eran sino estructuras arruinadas. No menos clarificador a la hora de destacar la importancia de esta aldea desaparecida era la existencia de un foso que la defendía por su lado este y, en parte, por el sur. Foso que enlaza con el castillo que corona la parte más alta del cerro, en su extremo norte. De esta fortaleza tampoco se conoce el origen ya que, igualmente, no aparece citada en la fuentes escritas hasta el año 1802. Respecto a los abrigos rocosos del término de Bajo las Peñas, considerábamos que poseían un gran potencial arqueológico debido a su situación geográfica, protegidos de las inclemencias meteorológicas y orientados al sur, muy cerca, además, del cauce del río Inglares.

Desarrollo y resultados de la intervención arqueológica

Se excavaron ocho sondeos. Uno en la ermita de Nuestra Señora de Urizarra, con el objetivo de documentar su secuencia estratigráfica completa, de localizar su posible necrópolis tanto en el interior como en el exterior de la ermita y, con todo ello, intentar aclarar su origen. Cuatro sondeos se abrieron en otros tantos afloramientos de estructuras de los que se extienden por el cerro, destinados a documentar y analizar diferentes recintos para intentar discernir si su uso era doméstico, agroganadero, artesanal o de otro tipo. Se intervino también en el foso defensivo, con el objetivo de establecer sus dimensiones reales y recabar indicios de la existencia de una posible muralla, cerca o empalizada que complementara esta defensa. Para finalizar, también se excavaron dos sondeos en sendos abrigos del término de Bajo las Peñas. Su objetivo era el hallazgo de evidencias de ocupación humana en ellos, en cuyo caso, podía remontarnos a épocas anteriores a la Edad del Hierro, como así fue. Todos ellos se abrieron con metodología manual y una vez se dio por concluida la campaña de sondeos, se cu-

ateratako material beraz estali genituen den-denak. Metodologia honi esker, honako barruti hauek bereizi ahal izan genituen aztarnategiaren baitan:

Barruti erlijiosoa

Atal honetan Urizaharreko Andra Maria baseliza izango dugu aztergai. Landu gabeko harrizko hormak ditu baselizak, igeltseroen teknikaren arabera altxatuak dira, ingurutik atera eta landu gabeko kareharrizko harriekin, agian soilik kareztatuak eta kareorez batuak izango ziren harriekin. Hala eta guztiz ere, tarteka badira erdi landutako piezak, baina hauek berriro ere baliatutako piezak lirateke. Egiturak arrokaren beraren eta gainetik duen buztinezko geruzaren gainean hartuko zuen atseden, lehendik lur eremua prestatuko bazuten ere. Baina ez zuen zimentarrirako erretenik izango, ez bederen geuk dokumentatutako aldean. Honatx gainerako gorputzetik bereizten ez zen burualdea zeukan baselizaren neurriak: 20,22 metro luze eta 4,50 metro zabal, hau da, 91m^2. Gainazalean agerian dauden hondakinei erreparatuz gero, esan dezagun sarrera hegoaldean izango zuela, 1,30 metroko espazioa izango zuela, non ez den landare geruzari eusten dion lurrezko azaleko geruzaren artean horma ageri tenpluaren mendebaldeko muturretik 3,75 m-tara. Adreiluzkoa da egiaztatutako azkeneko zoladura, piezak «arrainaren hezurraren» arabera egokituak, alboak mota bereko adreiluzko errenkada zeihar banak mugatuta, hori guzti hori geruza naturalaren gainean hedatutako lurrezko eta karezko konglomeratu trinko batez berdindutako geruzaren gainean. Sakristiak, hegoaldean, burualdearen ondoan, 4,70 metroko espazioa hartuko zuen ekialdeko eta mendebaldeko hormen artean, mendebaldeko horma ermitauaren etxearenarekin partekatua. Adreiluekin eraikia dago zoladura, eta atalasearen ondoan zurezko ate zangoak ainguratzeko zuloak kontserbatzen dituen igeltsuzko geruza bat dago. Gisa honetako zoladura, baita baselizako habeartekoa ere, guztiz orokortzen hasi ziren XIX. mendearen lehenengo laurdenean.

1836. urtean baselizaren parterik handiena eraitsi zuten. Hainbat datuk esaten digute eraispena ustekabekoa ez baizik eta berariaz egindakoa izan zela: batetik, kontserbatutako hormen garaieraren erregulartasuna, 90 cm eta 1,10 metro bitartekoa, hormak desmuntatuak izan zirenaren erakusgarri da, eta bestetik, tenplua amortizatzen duen depositua osatzen duten eraikuntza materialen egokierak ere horixe adierazten digu. Beheko aldean, zoladuraren gainean, baselizako elementu arkitektonikoak eta segur asko bertako higigarriak topatzen ditugu, denak hareharrian landuak: hartzen duten lekua kontuan izanez gero, ez dago zalantzarik zorura jaurtiak izan zirela. Zurezko habeen erabateko absentziak, ez ordea zegozkien iltzeena, eta horma handienetako harrien gabeziak argi eta garbi adierazten digute baseliza honetatik lapurtu egin zituztela eraikuntza materialak, segur asko gaztelua sendotzeko xedean, 1838. urtean armada karlistak hura mendean hartu eta gero.

Bukatzeko, zundaketa honen indusketaren helburuetako bat zela aitortu arren, hilobirik aurkitu ez genuela esan behar dugu. Gure alde esan behar dugu nahiago izan genuela adreiluzko zolatak altxatu gabe beren horretan uztea, hauek ahalik eta zehatzenen dokumentatzeko eta aztarnategia bisitatzen dutenek

brieron con el mismo material extraído. Gracias a esta metodología pudimos diferenciar los siguientes ámbitos dentro del yacimiento:

El ámbito religioso

Nos referimos en este apartado a la ermita de Nuestra Señora de Urizarra. La ermita está construida con fábrica de mampostería ordinaria, con técnica de albañil, a base de piedras calizas irregulares, extraídas del entorno y sin trabajar, quizás sólo careadas y trabadas con mortero. No obstante, hay intercaladas algunas piezas semielaboradas, las cuales estarían reaprovechadas. Los muros tienen un grosor de 80 cm, estando enlucidos por la cara interna. La estructura asentaría sobre la propia roca y la capa de arcillas inmediatamente precedente habiéndose procedido previamente a la regularización del terreno, pero sin zanja de cimentación, al menos en la parte documentada. Las dimensiones de la ermita, con cabecera recta sin diferenciarse del resto, son de 20,22 m de largo por 4,50 m de anchura, lo que hace una superficie de 91m^2. Si nos atenemos a los restos que son visibles en superficie, el acceso se haría por el lado sur y podría tratarse de un espacio de 1,30 m en el que no aflora el muro entre la capa superficial de tierra que soporta la cobertura vegetal, a 3,75 m del extremo occidental del templo. El último pavimento constatado es una superficie de ladrillos, dispuestos en «espina de pez», enmarcado en los laterales por sendas alineaciones de ladrillos del mismo tipo colocados transversalmente, todo ello sobre una capa de regularización a base de un conglomerado tierra y cal muy compactada que se extendía sobre el estrato natural. La sacristía, localizada en el lado sur, a la altura de la cabecera, ocuparía un espacio de 4,70 m entre la pared este y la oeste, compartida ésta con la casa del ermitaño. El pavimento está constituido por ladrillos y junto al umbral de la puerta hay extendida una capa de yeso donde aún se conservan los agujeros para los anclajes de las jambas de madera. Tanto este tipo de pavimento como el de la nave de la ermita comenzaron a generalizarse en el primer cuarto del siglo XIX.

En el año 1836 la ermita es en su mayor parte demolida. La constatación de que se trata de un derribo intencionado y no de un derrumbe fortuito nos la ofrecen, por un lado, la regularidad de la altura de los muros conservados, entre 90 cm y 1,10 m, lo que indica que las paredes fueron desmontadas, y por otro, la disposición de los materiales constructivos que componen el depósito de amortización del templo. En la parte inferior, sobre el pavimento, encontramos elementos arquitectónicos y posiblemente del mobiliario de la ermita, todos de piedra arenisca, que por la posición que ocupan fueron indudablemente arrojados al suelo. La prácticamente total ausencia de vigas de madera, no así de los clavos de éstas, y de las piedras de las paredes de mayor tamaño indica que, además, la ermita sufrió el expolio de los materiales constructivos seguramente para el refuerzo del castillo tras la toma de éste por el ejército carlista en 1838.

Ya para finalizar, hemos de reconocer que no se han encontrado sepulturas, lo cual era uno de los objetivos de la excavación de este sondeo. En nuestro descargo comentar, sin embargo, que se prefirió no levantar las soleras de ladrillos para que quedaran éstas perfectamente documentadas y a la vista de las

ikusteko parada izateko. Barruan hilobiak baldin baditu, harrian induskatuak izango dira, sarkofagoarekin edo gabe, non oso litekeena den, idatzizko iturri batzuek diotenaren arabera, Sancho Ramirez eta bere emaztea eta Montoriako jauntxoak lurperatu izana. Baina hau ez dago jakiterik zoladura osoa altxatu gabe, eta betiere aipatu datua ondo neurtuz. Antzeko zerbait gertatzen da ustez tenpluaren inguruan behar zuen nekropoliarekin. Bertan emango zieten lur herrixkan hildakoei. Nekropoliaren parte bat sakristiaren azpiko aldean legoke, eta gainerako tenpluaren inguruko zaborraren azpian.

Etxe eta ekoizpenerako barrutia

Herrixka honetan barreiatuta egongo ziren etxeak, baina baziren elkartutako barruti multzo txiki batzuk, jatorrizko herrixka garrantzitsu baten presentzia iradokitzen digutenak. Batez ere muinoaren ekialde erdian hauteman daitezkeen goraguneak dira horren erakusgarri. Itxuraz ordenarik ez duten harri metaketak dira, ematen du harriak berariaz metatuak direla, eta gehien-gehienak zuhaixkek edo landare geruzari eusten dion lurrezko geruza meheak erdi ezkutaturik daudela esan behar dugu. Hala eta guztiz ere, lerro agerikoak eta oinplano koadroko eta angeluzuzeneko barrutiak marratzen dituzte lur eremuan.

Duen tipologiari erreparatuta, 2. zundaketan aurkitutako barrutia ia zalantzarik gabe etxebizitza bat dela esan behar dugu. Zundaketan hegoaldeko eta ekialdeko hormetako bi errenkada baizik ez ziren kontserbatzen, baina halere egituraren garrantziaren erakusgarri dira. Gutxi gorabehera 6 metroko aldea izango zuen, hormak 55 cm lodi izango ziren batez beste, eta batez ere, bai bederen beheko errenkadak, ondo eskuairatutako kareharrizko blokeez osatuta egongo ziren. Barrutia amortizatzen zuen depositua soilik hormetatik behera etorritako harriez osatuta zegoen, ez genuen adobezko zati bakar bat ere dokumentatu. Beraz, harrizkoak izango ziren gelako hormak, edo bestela, zurezkoak baina harrizko zokaloarekin. Aurkitutako teila puska bakarra gainazaleko lurrezko mailan topatu genuen, baina hori ez da harritzekoa kontuan badugu baseliza 65 metrotara baino ez dagoela. Beraz, material galkorrez eraikita egongo zen etxebizitza honetako estalkia.

Baina barruti honen ezaugarri nagusia bertako soto antzekoa izango zen. Soto hau etxebizitzaren hormak eraikitzeko xedean bertatik erauzitako azaleratze harritsuak utzitako espazioa gaitzean antolatuko zuten. Ez da espazio oso sakona, zundaketaren baitan agerian utzitako azalera urrian ez luke metro beteko garaiera izango, eta beraz, baliteke biltegi soil bat izana, paretak ere berdindu gabe baititu. Eta horregatik pentsatzen dugu oso litekeena dela barruti honetako zorua zurezkoa izana. Hala azalduko litzateke hura amortizatzen duen geruzan ia lurrik ez egotea, mendeen joanean harrien artean iragazi den lurra baino ez.

Oso bestelakoa da 7. zundaketan aurkitutako barrutia, ezaugarri tipologiko oso bestelakoak ageri ditu. Oinplano angeluzuzeneko barrutia da, gainazalean gutxi gorabehera 14,50 metro luze eta 6 metro zabal. Barrutia ekialdetik ixten duen horma da

personas que visitaran el yacimiento. De haber sepulturas en el interior, serían tumbas excavadas en roca, con o sin sarcófago, donde podrían haber estado enterrados, si nos atenemos a lo que dicen algunas fuentes escritas, Sancho Ramírez y su esposa y los caballeros de Montoria. Pero esto no lo podremos saber si no se levanta todo el pavimento y siempre tomando este dato con cautela. Algo similar ocurre con la necrópolis que suponemos existiría alrededor del templo, donde se enterraría a los vecinos de la aldea, quedando parte de ella bajo la sacristía y el resto bajo el escombro que se extiende alrededor del templo.

El ámbito doméstico/productivo

La aldea presentaría un poblamiento disperso, aunque con pequeños grupos de recintos agrupados, lo que nos está indicando la existencia de un núcleo poblacional importante. Las evidencias más claras de ello son los montículos sobrelevados que se pueden observar sobre todo en la mitad este del cerro. Son acumulaciones de piedras aparentemente desordenadas, como si hubieran sido amontonadas intencionadamente, en la mayor parte de los casos semiocultas por arbustos o por una fina capa de tierra que da soporte a la cobertura vegetal. No obstante, dibujan sobre el terreno claras alienaciones y recintos de planta cuadrada y rectangular.

Por la tipología que presenta, el recinto descubierto en el sondeo 2 se trataría con casi total seguridad de una vivienda. No quedaban alzados de más de dos hiladas en los muros sur y este que aparecieron en el sondeo, pero aún así resultaron una clara muestra de lo importante de su estructura. Es un recinto de unos 6 m de lado, con muros de 55 cm de anchura media compuestos en su mayoría, al menos las hiladas inferiores, por grandes bloques de piedra caliza escuadrados. El depósito de amortización del recinto estaba compuesto únicamente de piedras caídas de los muros, sin un sólo fragmento de adobe o tapial. En consecuencia, las paredes de la estancia debieron ser únicamente de piedra o, en todo caso, de madera con zócalo de piedra. El único fragmento de teja recuperado se recogió del nivel de tierra superficial, lo cual tampoco es de extrañar teniendo en cuenta que la ermita está a sólo 65 m de distancia. Por lo tanto, su cubierta estaría construida con materiales perecederos.

Pero la principal característica de este recinto es que contaría con una especie de sótano, el cual se habría habilitado al extraer de un afloramiento rocoso la piedra necesaria para levantar los propios muros de la vivienda. No se trataría de un espacio muy profundo, en la escasa superficie descubierta dentro del sondeo no alcanzaría el metro de altura, por lo que quizás sólo se tratara de un simple lugar de almacenaje en el que ni siquiera sus paredes fueron regularizadas. Y ello nos lleva también a pensar en la posibilidad de que el suelo de este recinto fuera de madera. Esto explicaría la casi total ausencia de tierra en el derrumbe que lo rellenaba, apenas la que se ha filtrado a lo largo de los siglos entre las piedras.

Muy diferente es el caso del recinto localizado en el sondeo 7, que presenta unas características tipológicas totalmente distintas a él. Se trata de un recinto de planta rectangular del que se advertían en superficie unas medidas aproximadas de 14,50 m de largo por 6 m de an-

Babesteko lubanarroaren egungo egoera eta haren jatorrizko sekzioak izango zuen irudia.

Aspecto actual del foso defensivo y recreación de su sección original.



guztiz agerian utzitako bakarra, 53 cm lodi da batez beste, baina haren ezaugarriak 2. zundaketan aurkitutako barrutiaren hormarenak ez bezalakoak dira. Aurrez azaletik landutako harriz egina da, hiru errenkada kontserbatzen ditu, eta batez beste 52 cm-ko garaiera kontserbatzen du. Zundaketaren ertzaren azpian galtzen den hormak mugatzen du barrutia iparraldetik; antzeko garaiera du, baina ez dago hain ongi landua. Barrutiaren beste muturrean horma iparraldera luzatzen zela ematen du. Aurrekoak ez bezala, barruti honek trauskil landutako zoladura zuen, ahula, inguruko eremutik ekarritako kareharriz eta lurrez osatua. Batez beste 15 cm lodi zen zoladura hau barrutiko hormen azpian galtzen zen parte batean, ez ordea kanpoko aldean; horrek esan nahi du espazio hau berdintzeko lanak eta hormak eraikitzeko lanak aldi berean eraman zituztela burura. Zolata hau induskatuta ez genuen material arkeologiko askorik aurkitu, baina, harrigarriro, moldeatutako zeramikazko zati batzuk eta Burdin Arokoa izan litekeen kobrezko/brontzezko hagatxo bat aurkitu genituen bertan. Ezin baztertu dezakegu aipatu garaiko zoladura izatea, baina kontu hau aurrerago izango dugu aztergai, batez ere leku honetako topografia kontuan izanik.

Barrutiaren barruko alde osoa okupatuz, zoladuraren gainean eta parte batean baita kanpoko aldean ere, gelaren suntsipenak amortizatzen zuen espazio hau, eta aurrekoan bezala, ez genuen teila puska bakar bat ere aurkitu hemen. Beraz, eraikin honek ere material galkorrez osatutako estalkia izango zuen, eta harrizko hormak barrutiaren garaiera kotaraino iritsiko ziren edo ez. Lur jotako masan batez ere tornuan landutako zeramikazko ontzien zatiak bereizi genituen, eta hein apalagoan, faunaren hezur hondakinak, tresna txikitzat edo tresnen ataltzat har litezkeen burdinazko objektu batzuk eta metalak lantze-

chura. El único muro descubierto en su totalidad fue el que cierra el recinto por el lado este, con una anchura media de 53 cm, si bien sus características son totalmente diferentes a las del recinto hallado en el sondeo 2. Su fábrica es de mampostería casi aparejada, conservando hasta tres hiladas, alcanzando una altura media de 52 cm. El lado norte del recinto lo delimita un muro que quedó bajo el cantil del sondeo y, aún guardando una altura similar, su factura es un tanto más irregular. En el extremo contrario del recinto, el muro parecía tener continuación hacia el norte. También al contrario que el anterior, este recinto contaba con un pavimento, vasto y de escasa consistencia, compuesto de piedras calizas y tierra procedente del terreno circundante. Éste, con una potencia media de 15 cm, se extendía en parte bajo los muros del recinto, pero no así por su parte exterior, lo que indica que la nivelación y regularización de este espacio y la construcción de los muros fue simultánea. La excavación de esta solera no propició la recuperación de gran cantidad de material arqueológico, pero deparó la sorpresa del hallazgo de algunos fragmentos cerámicos modelados así como una varilla de cobre/bronce, que podrían remontarse a la Edad del Hierro. La posibilidad de algún tipo de poblamiento de esta época no es, en consecuencia, descartable, algo sobre lo que más adelante volveremos con más detalle, sobre todo teniendo en cuenta la topografía de este emplazamiento.

Ocupando todo el interior del recinto, sobre el pavimento, y en parte por el exterior, amortizaba este espacio el derrumbe de la estancia, en el que, como en el caso anterior, no se halló ni un solo fragmento de teja. Esto nos lleva a pensar también aquí en una construcción con cubierta a base de materiales perecederos cuyas paredes de mampostería podrían o no alcanzar la altura total del recinto. Este derrumbe contenía principalmente fragmentos cerámicos de recipientes fabricados a torno, en menor medida restos óseos de fauna y varios objetos de hierro que se podrían considerar como pequeñas herramientas o parte de ellas, y restos de al-

ko jarduera motaren batetik etorritako hondakinak. Barrutia betikoz abandonatuko zuten uneari dagokio kontuan badugu hain handia ez den aurreneko lur jotzea estaltzen duela. Aurreneko behera etortze hori perimetroko hormen oinetan baizik ez genuen identifikatu, eta bestelako ezaugarriak zituela esan behar dugu. Honetan ere landu gabeko kareharri asko bazeuden ere, batez ere iparraldeko hormaren ondoan, lur eta kareore ugari zituen. Kokalekuari erreparatuta ematen du barrutiko erdialdetik baztertua izan zela, gerora erabiltzeko espazio librea edukitzeko. Beraz, lehenengo abandonatzearen ostean eraikina berriro ere erabili ahal izango zuten. Depositu honetan beheko partean aurkitu genituen material arkeologiko gehien-gehienak, batzuk baita zoladura bera ukitzen ere. Tornuan landutako zeramikazko ontzien ia ehun zati dira; askoz ere kopuru apalagoan, faunaren hezur hondakinak, aipatu artisautza jarduerarekin lotutako burdinazko hamarren bat objektu eta zati eta burdinazko ia hogei zepa puska, bat opil erdiaren formakoa. Era berean, beloi txanpon bat aurkitu genuen; segur asko Gaztelako Alfontso VIII.aren (1158-1214) agintaldikoa da. Agian barruko banaketa motaren bati erantzuten dio alde hau berrerabiltzeko xedean zaborrak hormen oinetara metatu izanak, zaborraren azpian zoladuran irekitako zulo bat identifikatu baikenuen; zulo horrek zurezko zutiko bati egingo zion leku, iparraldeko eta ekialdeko hormetatik gertu egonik ez baitugu uste estalkiari eusteko zutarri bati egingo zionik.

Datu hauek guztiak eskutan ematen du, aurreko kasuan ez bezala, metalaren langintzarekin lotutako artisautza jardueraren bati leku egin ziezaiokeela barruti honek. Hala eta guztiz ere, sutegi bat ez zela esan dezakegu, ez baitago haren erabilera jarraitua izan zela adieraziko ligukeen arrastorik, nahiz eta burdinazko zepa hondakinak eta ikatzak aurkitu genituen, gela honetako beste puntu batetik edo beste leku hurbil batetik ekarriak haiek. Bestalde, ez dugu baztertzen aldi berean etxebizitza bati leku egingo zion eraikina izatea, oinplanoan handia delako, gutxienez 87 m^2 baititu, eta gainera badakigulako barrutik banatuta egon zela. Gainera, mendebaldeko hormak iparraldera jarraitzen duela ematen du, eta hala izatera eraikin are handiago baten aurrean geundekeela esan behar dugu. Ez litzateke harrigarria izango, XI. menderako egon bazeudelako oinplano handiko eraikinak, barrutik hainbat gelatan banatuak.

Aitzitik guztiz baztertzen dugu aukera hori 6. zundaketan aurkitutako barrutiari dagokionez. Barruti hau herrixkaren erdialdea esan genezakeenetik apur bat bereizita dago, muinoaren hego-ekialdean, nahiz ezin esan dezakegun muinoaren gainazalean han eta hemen ageri diren egituretatik isolatuta dagoenik. Zundaketaren neurriaren baitan puntu honetan ekialdetik mendebaldera luzatzen den 2,50 metroko horma baten hondakinak erregistratu genituen. Horma honen amaiera puntua ez da lur jotze baten ondorioa, ekialdera begira egongo zen barruti ireki bateko atala izango baitzen; segur asko itxura guztien arabera iparraldetik hegoaldera egiten duen egitura luze batekin lotuko da. Errenkada bakarra kontserbatzen du, trauskil landua da, harriak, luzangak, zeharka jarriak, elkagún tipo de actividad metalúrgica. Se trataría del definitivo abandono del recinto si tenemos en cuenta que cubría a un primer derrumbe, menos extenso, ya que se localizaba sólo a los pies de los muros perimetrales, y con características diferentes. Si bien éste contaba también con gran cantidad de mampuestos de piedra caliza, sobre todo junto a la pared norte, contenía una mayor cantidad de tierra con gran presencia de cal. Por su disposición, daba toda la impresión de haber sido retirado de la parte central del recinto para dejar un espacio libre para su uso posterior, con lo cual parece ser que tras un primer abandono, éste edificio pudo volver a ser utilizado. En este depósito, la mayor parte del material arqueológico recogido se encontraba en la parte inferior e, incluso, casi en contacto con el pavimento. Se trata de casi un centenar de fragmentos de recipientes cerámicos elaborados a torno; en mucha menor medida restos óseos de fauna, una decena de objetos y fragmentos de hierro relacionados con esa actividad artesanal a la que hemos hecho referencia, y casi una veintena de trozos de escoria de hierro, uno de ellos una torta hemisférica. También se halló un dinero de vellón perteneciente casi con seguridad al reinado de Alfonso VIII de Castilla (1158-1214). Quizás el escombro acumulado a los pies de los muros para reutilizar la estancia formara parte de algún tipo de distribución interna, ya que también se halló bajo éste un agujero abierto en el pavimento para encajar un pie derecho de madera que, por su cercanía a los muros norte y este, descartamos que fuera para apoyo de un pilar de sustentación de la cubierta.

Con todos estos datos, parece que nos encontraríamos ante un recinto que, al contrario que el anterior, podría haber alojado algún tipo de actividad artesanal relacionada con la metalurgia. No obstante, ante la ausencia de evidencias del uso continuado de fuego, pese a haberse hallado restos de escoria de hierro y de carbones, con origen en algún otro punto de esta estancia o en otro lugar en todo caso muy cercano, podemos descartar que fuera una fragua. No obstante, ésta no estaría muy alejada. Pese a todo ello, no nos atrevemos tampoco a descartar que fuera un edificio que pudiera haber alojado al mismo tiempo una vivienda, no sólo por las dimensiones de su planta, al menos 87 m^2, sino también por las evidencias de haber contado con una distribución interna. Además, el muro de cierre por el oeste parecía tener continuidad hacia el norte, por lo que quizás estemos hablando de un edificio de mayores dimensiones. No sería esto algo excepcional, para el siglo XI ya se han documentado edificios de plantas extensas con una división del espacio en distintos ambientes.

Sí descartamos esta posibilidad, sin embargo, al hablar del recinto hallado en el sondeo 6. Este recinto se ubica en una zona un tanto desplazada de lo que podríamos llamar la parte central de la aldea, al sureste del cerro, si bien no podemos hablar de que se trate de un lugar aislado dentro del entramado de estructuras que se extienden por su superficie. aquí se hallaron los restos de un muro con dirección E.-W. de 2,50 m dentro de las dimensiones del sondeo. La finalización de este muro no es por derrumbe, sino porque formaría parte de un recinto abierto hacia el este y que posiblemente conecte con una larga estructura que parece tener dirección N.-S. El muro conserva una única hilada y su factura es muy pobre, teniendo colocadas las piedras, alargadas, de forma

rren artean tartekatuak. Gutxi gorabehera 20 cm lodi den zolatan oinarritzen da. Zolata hau inguruko kareharriak txikitzetik eratorritako klastoez osatuta dago. Iparraldeko zorua berdintzen du, baina hegoaldekoan haren oina baizik ez da ageri.

Ez dakigu hondakin hauen gainean zurezko pareta altxatuko ote zen ala harrizkoa, baina harri gutxi aurkitu ditugunez guk pentsatzen dugu zokaloa, zokaloa baldin bada, ez zela askoz ere garaiagoa izango. Teilatu motaren bat izan bazuen, material galkorrez egina izango zen, ez baikenuen teila puska bakar bat ere dokumentatu. Ezaugarri hauek gogoan ez dirudi etxe izaerako egituraren aurrean gaudenik, guk uste dugu soilik ekoizpenari emana egongo zen barruti motaren bat dela.

Ekoizpenari emana egongo zen, inolako zalantzarik gabe, muinoaren erdialdean dagoena. 3. zundaketan aurkitu genuen haren perimetroko horma. Joera angeluzuzeneko espazioa da, laua, gutxi gorabehera 600 m^2-koa, haren mendebaldetik antza irekita zegoen perimetroko hormaren hondakinek mugatuta. Batez beste 73 cm lodi da hura mugatzen duen horma, baina soilik errenkada bat kontserbatzen du. Hormak irregularrak dira, landu gabeko harriz eginak dira, harri handienak kanpoko aurpegietan jarriak eta barruko aldea ordenarik gabeko harri txikiagoez betea. Muinoko lur eremuan hartzen du atseden, eta aurrez zorua prestatu ez zutela esan behar dugu.

Egitura honen ezaugarriei, oinplanoaren marrazkiari eta neurriei eta topografian hartzen duen lekuari –etxeko eta artisautza erabilerari emandako barrutietatik berex, eremu lauan– erreparatzen badiegu, nekazaritzari eta abeltzaintzari emandako barruti bat dela esan behar dugu. Hala eta guztiz ere, harrigarria da, induskatutako depositua meheak direlako, material arkeologikoen kopuru ez txikia berreskuratu izana, horien artean aipagarri, ugari direlako, zeramikazko ontzien 150etik gora zati, denak tornuan landuak, eta faunaren hogeiren bat hezur zati, baina batez ere, burdinazko gezi baten muturra eta kobrezko txanpon bat. 8 marabediko txanpona da, Felipe IV.aren (1621-1665) agintaldikoa. Itxura guztien arabera ia lau mende lehenago abandonatu zuten arren, ez dugu harritu behar zundaketa honetako material arkeologikoaren artean XVII. mendeko elementuak agertuta. Izan ere, aspaldi ez dela arte erabili izan dituzte bertako laborantza lurrak, larrainak eta aziendarentzako hesiak.

Babes eremua

Urizaharra hizpide dugunean, herrixkako eliza zaharra alde batera utzita, muinoaren iparraldeko muturrean dagoen gaztelua da, zalantzarik gabe, erreferentziazko elementua. Ez dugu gotorleku honen jatorria ezagutzen, eta iturri idatzietan 1802. urtera arte ez da aipatzen, «Diccionario Geográfico-Histórico de España de la Real Academia de la Historia» obran. Agian haren jatorrizko izena da ezagutzen ez duguna, haren oinetan hazi zen herrixka abandonatu aurretik zuen izena, eta soilik «uri zaharra» izenarekin iritsi iza-

transversal intercalándose unas con otras. Su apoyo se hace sobre una solera de unos 20 cm de potencia, compuesta de clastos procedentes de la trituración de la roca caliza del entorno, que regulariza el firme por su lado norte, pero que apenas sobresale de su base por el lado sur.

No podemos llegar a asegurar si sobre estos restos se levantaba una pared de madera o su continuación era también de piedra, pero el hecho de que hayamos encontrado muy pocos mampuestos nos hace pensar que, al menos el zócalo, si se trata de ello, no era mucho más alto. Si tuvo algún tipo de tejavana, ésta sería de materiales perecederos, ya que no se vio ni un sólo fragmento de teja. Con estas características no parece probable que nos encontramos ante una estructura de carácter doméstico, sino más bien de algún tipo de recinto de tipo exclusivamente productivo.

Como lo es, sin lugar a dudas, el que se extiende por la parte central del cerro, parte de cuyo muro perimetral hallamos en el sondeo 3. Se trata de un espacio tendente a rectangular, llano, de unos 600 m^2 delimitado por los restos de un muro perimetral al parecer abierto por su extremo oeste. El muro que lo delimita tenía una anchura media es de 73 cm y conserva sólo una hilada. Su fábrica es de mampostería irregular, con las piedras más grandes colocadas en los paños exteriores y el interior relleno de piedras más pequeñas dispuestas desordenadamente. Asienta sobre el terreno original del cerro, sin ningún tipo de preparación.

No sólo por las características de esta estructura, sino por su dibujo y dimensiones en planta y por su localización topográfica, en una zona llana algo separada de los recintos dedicados a uso doméstico y artesanal, estaríamos hablando de un recinto de uso agroganadero. Sorprende, sin embargo, que pese a ello y a la poca potencia de los depósitos excavados se haya recuperado una relativa gran cantidad de material arqueológico, entre el que destacan por su número los más de 150 fragmentos de recipientes cerámicos, todos fabricados a torno, y una veintena de huesos de fauna, pero principalmente, una punta de flecha de hierro y una moneda de cobre. Se trata de una moneda de 8 maravedíes perteneciente al reinado de Felipe IV (1621-1665). No debe extrañarnos la aparición de elementos del siglo XVII entre el material arqueológico en este sondeo aún habiéndose abandonado la aldea casi cuatro siglos antes, como todo parece indicar. Lo que es indudable es que las tierras de labor, eras y cercados de ganado se han venido utilizando hasta fechas no muy lejanas.

El ámbito defensivo

El elemento de referencia al hablar de Urizarra, al margen de la antigua iglesia de la aldea, es, sin duda, el castillo que corona el cerro en su extremo norte. De esta fortaleza no se conoce el origen y no aparece citada en la fuentes escritas hasta el año 1802, cuando aparece en el «Diccionario Geográfico-Histórico de España de la Real Academia de la Historia». Quizás sea porque lo que realmente no conocemos sea su denominación original, la que tuvo antes del abandono de la aldea que creció a sus pies, y nos haya llega-

na gure garaira arte, izan ere, izen horrekin ezagutuko zituzten Peñecerradako auzo berriek herrixka zaharra eta bertako gaztelua.

Eta hemen gotorlekua aipatzen dugu herrixkaren eta gazteluaren arteko harremana egiaztatuta geratu delako hura babesten duen lubanarroa identifikatuta, muinoaren ekialdean eta hego-ekialdean gutxi gorabehera 400 metrotan luzatzen dena, muinoa hegoaldetik eta hego-mendebaldetik mugatzen duten malkar naturalak dauden punturaino. Lur eremuaren berezko orografia hein batean profitatzen du lubanarroak, gorako aldapa gogortzen den kotatik gora eraikia baita, non indusketa lanek, baita harri bizian egindakoek ere, ez zuten zertan sakonagoak izan. Areago indusketetatik ateratako materiala ertzetan pilatzeko eta modu artifizialean aldapa are handiagoa sorrarazteko baliatu zutenean. Halatan, ia horizontala den lubanarroaren hondoa 4,60 metro luze den artean, 13,70 metrokoa da barruko eta kanpoko aldapen puntu gorenen arteko aldea, barruko gailurretik 4 metroko sakonera iritsiz eta kanpokorik 1,50 metro. Hala eta guztiz ere, puntu honetan klimak eragindako higadura eta mantentze lanen gabeziak eragindako lur jotzeak eduki behar dira gogoan, batez ere kanpoko aldeko altuera murriztea eragingo baitzuten. Barruko aldapak, lubanarroaren ebaki bertikaletik kontatzen hasita, gutxi gorabehera 30º-ko desnibel artifizial bat du 2,65 metrotara, ertzaren ondora pilatutako harri handiez egindako errenkada, harriak arrokaren beraren gainean egokituak, landutako eremua eta lur eremu naturala bereiziz, baina ezin baztertu dezakegu jatorrizko lekutik mugituak izana, kanpoko deposituek eragindako presioek mugituak izana. Itxura guztien arabera, depositu horiek ere jatorrizko lekutik ekarriak izan dira are sakonera handiagoa eratzeko, arestian aipatutako 4 metroko aldea sorrarazteko, lur eremuaren gainazaleko desnibela ez baitator bat harri naturalarenarekin. Gainera, zundaketak ukitutako eremura mugatuz, kanpoko aldea estaltzen zuen unitate estratigrafiko bakarrean zeramikazko ia 400 zati berreskuratu genituen 2 m^3 baino bolumen apur bat handiagoan, lubanarroa amortizatzen duten hiru deposituetan 40ren bat zati baizik identifikatu ez genituenean. Batzuk eta besteak tornuan landutako zeramikazko ontziei dagozkien zatiak dira, denak Erdi Arokoak.

Bukatzeko, baliteke, lubanarroaren neurriak ikusirik, herrixka babesteko egiturari hesi motaren bat gehitu izana. Hala eta guztiz ere, ez dirudi harresi handia izango zenik, lur eremuan arrasto nabariagoak utziko zituelako eta, gainera, herrixkak izango ez zituen baliabide ekonomikoak beharko zirelako horrelako egitura bat eraikitzeko. Lubanarroaren ertzean egokitutako errenkadak, harri handiz eginak, hura eguraldiak eragindako higaduratik babesteko borondateari erantzun liezaioke, baina aitortu beharra dago lubanarroa amortizatzen duen betegarria soilik harri handiz osatua dela, eta beraz, dokumentatutako hondakinek iradokitzen dutena baino tamaina handiagoko egitura baten lur jotzearen emaitza izan daitekeela. Horregatik guztiagatik ez dugu baztertzen bitariko hesi motaren bat eduki izana, hots, harrizko oinarriaren gainean altxatutako zurezko hesia.

do sólo el «uri zaharra» con el que conocerían los nuevos vecinos de la villa de Peñacerrada a la vieja aldea y a su castillo.

El motivo de incluir aquí la referencia a la fortaleza es porque la relación aldea-castillo ha quedado demostrada con la identificación del foso que la defiende, a lo largo de unos 400 m, excavado en la ladera este del promontorio y por el sureste, hasta donde comienzan los escarpes naturales que lo limitan por el lado sur y suroeste. El foso aprovecha en parte la orografía natural del terreno, de modo que su construcción se realizó desde la cota donde la pendiente ascendente aumenta su desnivel y la excavación, incluso en roca viva, no tenía por qué ser demasiado profunda. Sobre todo cuando el material extraído de la excavación sirve para, acumulándolo en los bordes, crear una mayor pendiente de forma artificial. Así, pese a que el fondo del foso, prácticamente horizontal, tiene 4,60 m de longitud la distancia entre los puntos más altos de las pendientes interior y exterior mide 13,70 m, alcanzando los 4 m de profundidad desde la cumbrera interior, siendo de 1,50 la de la exterior. De todos modos, en este punto hay que tener en cuenta la erosión producida por los agentes climatológicos y los desprendimientos debidos a la falta de mantenimiento, que habrían producido una pérdida de altura, sobre todo en la pendiente exterior. La pendiente interna, desde el corte vertical del foso, cuenta con un desnivel artificial de unos 30º encontrando, a 2,65 m, una alineación de grandes piedras a lo largo de su borde, dispuestas sobre la propia roca, de modo que separan la zona trabajada del terreno original, sin que podamos descartar que se hallen desplazadas de su posición debido al empuje de los depósitos desde el exterior. Estos depósitos también parece que han sido removidos de su emplazamiento original para crear una profundidad aún mayor, hasta alcanzar los 4 m citados, ya que el desnivel del terreno en superficie no se corresponde con el de la roca natural. Además, limitándonos a la zona afectada por el sondeo, en la única unidad estratigráfica que colmataba la parte exterior se recogieron casi 400 fragmentos cerámicos en poco más de 2 m^3, frente a los poco más de 40 fragmentos recuperados en los tres depósitos de amortización del foso. Tanto unos como los otros pertenecían a recipientes cerámicos fabricados a torno y de cronología exclusivamente medieval.

Por último, cabe la posibilidad de que a la defensa de la aldea se añadiera, vistas las dimensiones del foso, algún tipo de cerca que lo complementara. No obstante, la idea de que fuera una muralla de grandes dimensiones es improbable, ya que hubiera dejado una impronta en el terreno mucho más evidente, además de haber necesitado una serie de recursos económicos con los que quizás la aldea no contaba. La alineación de grandes piedras colocadas a lo largo del borde del foso podría obedecer a voluntad de proteger éste de la erosión provocada por las inclemencias meteorológicas, aunque también hay que reconocer que la gran cantidad de piedras que componía casi en exclusiva el relleno de amortización del foso implica el desprendimiento de una estructura de mayor entidad de lo que sugieren los restos documentados. Por ello no descartamos la existencia de algún tipo de parapeto mixto, de madera sobre una base de piedra.

Bajo las Peñasko harpeak

Harpe natural hauek potentzial arkeologiko handia izan zezaketela pentsatzen genuen, meteorologiaren gora-beheretatik babestuta daudelako eta hegoaldeari begira, Inglares ibaiaren ibilgutik oso gertu gainera. Hala eta guztiz ere, sekula ere ez dira ikerketa arkeologiko baten xede izan, eta ondorioz ez genuen harpe hauetan gerta zitekeen balizko giza okupazioari buruzko erreferentziarik, ez idatzizkorik ez ahozkorik. Harpe hauen ezaugarri nagusiak dokumentatutako depositu bakarraren lodiera xumea, berezko sedimentazioaren emaitza, eta, berreskuratutako material arkeologikoaz aparte, jarduera antropikoaren arrastoen gabezia dira. Izan ere, ez genuen sutegi baten presentzia iradokiko lukeen ikatz edo errautsik aurkitu; ez genuen espazio honen sikiera aldi baterako antolakuntza salatuko lukeen egituraren baten hondakinik topatu; ez genuen haizeaz babesteko hesi motaren bateko paldoei leku egiteko zulorik edo adarrez egindako estalki baten arrastorik identifikatu. Hitz gutxitan esateko, harpe hauek oso okupazio puntuala izan zuten, baina baliteke sasoi batzuetan aterpe gisa ere erabili izana.

5. zundaketan berreskuratutako material arkeologikoak, Bajo las Peñas aldean irekitako bi zundaketetatik ekialdekoan egindakoan aurkitutakoak iradokitzen digu arestian adierazitakoa. Izan ere, sukarrian landutako harrizko tresnak, aro modernoko zeramika esmaltatuak, eskuz landutako zeramika zati batzuk, segur asko Burdin Arokoak, eta faunaren hamarren bat hezur zati bereizi genituen. Multzo honek gizakien noizbehinkako presentzia adierazten digu, eta benetan da deigarria berreskuratutako harrizko materialen eta besteen arteko proportziorik eza, 5. zundaketan irekitako 6 m^2-etan 200dik gora pieza berreskuratu baikenituen. Nolanahi ere den erlatiboa da datu hori, gehien-gehienak taila lanetik etorritako hondakinak baitira, 8 baizik ez ehizarako tresnekin lotutako mundu geometrikorako joera duten xaflak. Gainera kontuan eduki behar dugu geruzei eusteko plataformaren neurri xumearen ondorioz material arkeologikoaren parte bat mazelan behera irristatu ahal izan dela denboraren joanean. Nolanahi ere den, azpimarragarriak dira harrizko multzo honetan absentziak, hau da, etxekotzat har genitzakeen tresnen gabezia, esate baterako, zizelen eta harraskailu edo karrakagailu moldeko tresnen gabezia.

Azken batean, berreskuratutako material arkeologikoaren ezaugarriak eta eremu honenak –goialdean, irtengune eta plataforma txikiarekin– gehitzen baditugu, noizean behin erabiliko zuten lekuan gaudela esan dezakegu, baina baliteke ehiztari talde bat bertan babes hartu izana tresnak konpontzeko eta une hartan behar zutena ekoizteko. Ez gara ehizatzeko tresnak egiteko tailer batez mintzatzen ari, askoz ere kopuru handiagoan aurkituko baikenituen taila lanetatik eratorritako hondakinak. Kronologiaren ikuspuntutik Lehen Neolito Aroaren eta Neolito Aro Betearen artean kokatzen gara, hau da, K.a. 5.000/4.500 urte bitartean Euskal Herrian.

Abrigos de Bajo las Peñas

Estos abrigos naturales poseían un gran potencial arqueológico al estar protegidos de las inclemencias meteorológicas, principalmente al estar orientados al sur, y por localizarse muy cerca del cauce del río Inglares. A pesar de ello, no parecían haber sido objeto nunca de una investigación arqueológica, por lo que no contábamos con referencias previas, ni escritas ni orales sobre una posible ocupación humana de estos abrigos. Sus principales características consistían en la poca potencia del único depósito documentado, producto de la sedimentación natural, y en la ausencia de indicios de actividad antrópica, al margen del material arqueológico recuperado. Nos referimos a que no se ha encontrado ni el más mínimo resto de carbón o cenizas que indicara la presencia de un hogar; restos de algún tipo de estructura que hubiera evidenciado una organización del espacio, aunque no fuera estable; agujeros de poste para la habilitación de algún tipo de paravientos o cubierta de ramas, etc. En definitiva, que podemos hablar únicamente de una ocupación muy puntual de estos abrigos, incluso como refugio en diferentes épocas.

Es el material arqueológico recuperado en el sondeo 5, el situado más al este de los dos abiertos en Bajo las Peñas el que nos ha dado algunas pistas al respecto. Se trata, desde material lítico sobre sílex a cerámica esmaltada de cronología moderna, pasando por algunos fragmentos cerámicos fabricados a mano pertenecientes seguramente a la Edad del Hierro y una decena de restos de huesos de fauna. Este conjunto nos indica una presencia humana esporádica y llama la atención la desproporción de material lítico recuperado respecto al resto, ya que en los 6 m^2 abiertos en el sondeo 5 se han recogido más de 200 piezas. Este dato, sin embargo, hay que relativizarlo, ya que principalmente se trata de restos de talla, con presencia de sólo 8 útiles pertenecientes a una industria laminar tendente al mundo geométrico relacionada con las herramientas de caza. Además, debemos tener en cuenta que, debido a las escasas dimensiones de la plataforma para el mantenimiento de los estratos, parte del material arqueológico ha podido deslizarse ladera abajo a lo largo del tiempo. Con todo, no podemos dejar de lado las ausencias en este conjunto lítico, es decir, utensilios que podríamos llamar domésticos, como buriles o útiles compuestos del tipo raedera raspador.

En definitiva, si sumamos las características del material arqueológico recuperado y las del sitio, en alto, con visera y plataforma reducidas, podemos lanzar la hipótesis de hallarnos ante un emplazamiento de uso puntual, aunque quizás recurrente, por parte de un grupo de cazadores que se detienen a reparar herramientas y realizar alguna pequeña actividad de talla para fabricar lo que en ese momento necesiten. No estaríamos hablando en ningún momento de un taller de herramientas de caza, ya que el número de los restos de talla serían infinitamente mayor. Cronológicamente nos moveríamos en torno al Neolítico antiguo y la transición al Neolítico pleno, fechas que para el País Vasco rondarían los 5.000/4.500 a.C.

A.19.2. **Los Huertos (2.559. lursaila, 1. poligonoa)**

Zuzendaritza: Javier Niso Lorenzo
Diru-laguntza emailea: Ramirez de la Piscina Ocio S.C.; Arabako Foru Aldundia

A.19.2. **Los Huertos (Parcela 2559, polígono 1)**

Dirección: Javier Niso Lorenzo
Subvención: Ramirez de la Piscina Ocio S.C.; Diputación Foral de Álava

Intervention carried out all over the site, leaving no room for further investigation, since the results proved to be of scarce historical-archaeological interest.

Esku-hartze honetan lursailaren ekialdeko nekazaritza pabiloi (42 x 20 m) bateko zimentarrien harroinetara mugatutako lubaki batzuk egin genituen. Emaitzak negatiboak izan ziren historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik, baina etorkizunean ebaluatzeko geratzen da babestutako eremuaren gainerakoa.

Intervención desarrollada en base a una serie de largas zanjas que se limitaron a las zapatas de cimentación de un pabellón agrícola (42 x 20 m) en la parte oeste de la parcela, siendo los resultados de la misma de nulo interés histórico-arqueológico, quedando pendiente de evaluar a futuro el resto de la zona protegida.

J. Niso Lorenzo

A.20. RIBERA ALTA / ERRIBERAGOITIA

A.20.1. **Socuevasko historiaurreko aztarnategia (Pobes)**

III. kanpaina
Zuzendaritza: Alfonso Alday Ruiz
Finantziazioa: Arabako Foru Aldundia; Euskal Herriko Unibertsitatea (Historiaurrea ikertzeko Taldea)

A.20.1. **Yacimiento prehistórico de Socuevas (Pobes)**

III Campaña
Dirección: Alfonso Alday Ruiz
Financiación: Diputación Foral de Álava; Universidad del País Vasco (Grupo de Investigación en Prehistoria)

The 2011 season, focusing on the Socuevas rock cave enabled us to broaden our knowledge of the last Palaeolithic episodes in the Upper Ebro Valley. The lower levels of the stratigraphic sequence, from bottom to top, VII, VI, Vc, Vb and Va, are believed to date from the twelfth millennium BP. They are characterised by an elaborate flint industry with a high number of backs, although they also feature burins and some splendid scraper blades with carefully retouched points. Unfortunately, fauna remains are scarce, apparently due to post-depositional processes, and extremely fragmented. Socuevas is believed to have formed part of a larger settlement which included also Berniollo (an open-air site located close to the cave), Atxote, Martinarri and Kukuma. During the transition from the Pleistocene to the Holocene the roof of the cave collapsed, although this did not prevent human groups from returning once again to the site. The occupations appear to belong to the Sauveterrian culture, as well as (closing the cycle of the last hunter-gathers) to the geometrical Mesolithic.

Landa-lanak 2011n

Pobes auzoan dago Socuevasko historiaurreko harpea, aztarnategien kontzentrazio garrantzitsua dagoen aldean beraz. Egun ageri duen itxura, oinetan terraza txiki bat zuen kareharrizko pareta bertikala, ez dator bat gizakiak lehenengoz okupatu zuen jatorrizkoarekin, orduan estalki handia zuen harpea baitzen, gutxi gorabehera 7 metroko luzerarekin eta gutxienez zortzi metro zabal zen zoruarekin. Leku egokia zen historiaurreko taldeak bertan egokitzeko, ikus-eremu zabala eskaintzen zuelako eta leku estrategikoan zegoelako.

Trabajos de campo en 2011

El abrigo prehistórico de Socuevas se ubica en la localidad de Pobes, en un área con concentración importante de yacimientos. Su apariencia actual no se corresponde con la original cuando el hombre lo ocupó por primera vez la actual pared caliza de desarrollo vertical con una pequeña terraza a sus pies, fue un abrigo con una amplia cobertera con un frente longitudinal de unos 7 metros y un suelo de, al menos, ocho de anchura. Era un lugar adecuado para el acomodo de los grupos prehistóricos, referente visual en el paisaje, emplazado en un estratégico lugar.

2011ko lanek segida eman diete aurreko bi kanpainei, bertako okupazio zaharrenak, Paleolitoaren azken garaikoak, hobe ezagutzea bila baikenuen. Logikoa denez, lan egiteko metodologia bera baliatu dugu induskatu beharreko eremuaren antolakuntzari, zoruak induskatzeko prozesuari eta material arkeologikoa berreskuratzeko eta tratatzeko prozesuari dagokienez.

Bi eremutan egin genuen lan, bietan V. mailaraino iristeko xedean, sabaitik behera etorritako deposituaren azpiko mailaraino iristeko xedean. Hegoaldera sabaitik behera etorritako harriek itxuraz ukitzen ez zituzten lau lauki ireki genituen (denak ez ziren metro koadroko azalerara iristen harpeko hormatik gertu ireki genituelako); aurreko urteetan induskatutako eremutik berex dagoen eremua izanik, mailak zenbakiekin ez baizik eta hizkiekin bereizteko erabakia hartu genuen, gero multzo bien artean dauden elkarrekikotasunak aztertzeko xedean. Ekialdera hiru laukitan lan egin genuen, eta beraz kanpoko aldera handitu genuen indusketa.

Estratigrafiaren sekuentzia

Lehenengo eremuan bi maila bereizi genituen lur harroko (ez oso trinkoak) eta zenbaitetan hautsez betetako landare geruzaren azpian, sustrai ugari zituen geruzaren azpian. Zoru hau landareen haztearen eta gure esku-hartzeei ekin aurreko isilpeko batek baztertutako lurren metaketa baten emaitza da.

A maila

Gehienez ere 15 cm lodi da, lur kolorez grisak, limotsuak eta ez trinkoak, sustrairik eta frakzio handiagoko elementurik gabe, horma ukitzen duten sektoreetako errekarriak kontuan hartzen ez baditugu. Lehenengo erdi tailaren ostean ilundu eta trinkotu egiten da. Arkeologiaren ikuspuntutik ez da oso interesgarria: berrehun eta berrogeita hamarren bat hezur hondakin eta ehundik pasatxo harri hondakin jaso genituen, horietatik dozena bat tresna landu (aipagarrienak hiru dortso eta bina geometriko eta dentikulatu).

B maila

Gehienez ere 20 cm lodi da, batez beste 15 cm lodi. Lurrak kolorez marroi argiak dira, orban karbonotsu txikiekin, gorriak eta laranjak, balizko suen emaitza. Limotsua eta trinkoa, ukitzean hezeak diren guneak ditu, baita deskonposatutako kareharriak ere. Errekarri asko ditu eta tamaina handiko bloke batzuk, oinean «enkatxu» antzeko bat osatzen dutenak, baina egiazki sabaitik behera etorritako harriak dira.

Oso pobrea da maila hau (sabaiaren erorketak jotako eremu degradatuetan ari gara):

Harrizko tresnak: ia ehun eta berrogeita hamar elementu, landuak gutxi batzuk baino ez: hamar dortso, bost karrakagailu eta dentikulaturen bat.

Fauna hondakinak: 300 zati txiki –zein espezieri dagozkien identifikatzen zailak– eta fauna txikiaren berrogeitik gora hezur zati txiki –gehienak untxiei dagozkienak–.

Los trabajos del 2011 son continuidad de las dos campañas precedentes, con el objetivo de profundizar en el conocimiento de sus ocupaciones más antiguas, del final del Paleolítico. Lógicamente se ha seguido idéntica metodología de trabajo, en cuanto a organización del área de excavación, procedimiento de rebaje de los suelos y recuperación y tratamiento del material arqueológico.

Se ha trabajado sobre dos áreas con el fin de alcanzar el nivel V, infrapuesto al derrumbe de la techumbre. Hacia el sur se abrieron cuatro cuadros (no todos alcanzaban el metro cuadrado por situarse junto a la pared del abrigo) a primera vista no afectados por el derrumbe de la cubierta: al ser un área separada de lo excavado en años anteriores, se optó por denominar a los niveles con letras en vez de con números, ensayando, posteriormente, su correspondencia. Hacia el este se trabajó sobre tres cuadros ampliando así la excavación hacia el exterior.

Secuencia estratigráfica

En la primera de las áreas se identificaron dos niveles precedidos de un suelo vegetal de tierras sueltas (no muy consistentes), polvorientas en ocasiones, con abundantes raíces. Dicho suelo es producto del desarrollo vegetal y de la acumulación de tierras retiradas por un clandestino antes de nuestras intervenciones.

Nivel A

Con una potencia máxima de 15 cms. de tierras grisáceas, limosas y poco compactas, sin raíces ni elementos de fracción mayor salvo por la presencia, en sectores tocantes a la pared de cantos rodados. Se oscurece tras la primera semitalla, ganando en compacidad. No tiene mucho interés arqueológico: se recogieron algo más de dos centenares y medio de restos óseos y poco más de un centenar de evidencias líticas, con una docena de elementos retocados (tres dorsos, dos geométricos y dos denticulados como más significativo).

Nivel B

Alcanza los 20 centímetros de potencia, con media de unos 15 cms. Las tierras son de tonos marrones claros con pequeñas motas carbonosas, rojizas y anaranjadas, como producto de posibles fuegos. Limoso y compactado puede presentar áreas húmedas al tacto, así como calizas descompuestas. Abundante en cantos rodados y con algunos bloques de grandes dimensiones formaliza, en la base, un «encachado» que, en realidad, corresponde al desprendimiento de la techumbre.

El nivel es muy pobre (se trabaja sobre áreas degradadas afectadas por la caída del techo):

Industria lítica: con casi un centenar y medio de elementos, siendo pocos los retocados: una decena de pequeños dorsos, la mitad de raspadores y algún denticulado.

Restos de fauna: 300 fragmentos menores –pocos los identificables a nivel de especie– más cuatro decenas de huesecillos de fauna menor –destacando la presencia de conejo–.

Socuevasko historiaurreko aztarnategia. Aztarnategiaren ikuspegi orokorra 2011ko kanpaina amaitu eta gero, eta sutegi baten xehetasunak.

Yacimiento prehistórico de Socuevas. Vista general del yacimiento al terminar la campaña del 2011 y detalle de un hogar.

Bigarren lan eremuan IV., V., VI. eta VII. mailak bereizi genituen. V. maila beste hiru ataletan bereizi genuen ehunduran halako aldeak nabaritu genituelako. Haietaraino iritsi baino lehen metro eta hogeita hamar zentimetro lodi zen landare geruza altxa behar izan genuen. Geruza hau ez zen batere trinkoa, isilpekoaren ekintzaren eta ondorengo prozesu naturalen emaitza baita.

IV. maila

15 eta 20 cm bitarte lodi da, lurra kolorez marroi argia, limotsua, 5 eta 10 cm bitarteko diametroa duten errekarri ugariek zanpatua. Material arkeologiko gutxi berreskuratu genuen maila honetatik:

Fauna hondakinak: ehunen bat zati txiki. Ezin esan daiteke horietatik %90etik gora zein espezietakoak diren.

Harrizko tresnak: taila lanetatik eratorritako ehun eta berrogeita hamarren bat pieza (hogeita hamarren bat xafla barne) eta landutako hogeiren bat objektu (dortso txikiak nagusi, zizelak, karrakagailuak eta beste batzuk)

Beste material batzuk: landutako hezur bat

En la segunda de las áreas de trabajo se han identificado los niveles IV, V, VI y VII. El V subdividido en tres tramos menores en razón a diferencias texturales. Antes de acceder a ellos se retiró hasta un metro treinta centímetros de tierra vegetal, poco consolidada al ser resultado de la acción del clandestino y de posteriores procesos naturales.

Nivel IV

*D*e 15 y 20 cm de potencia con tierras de coloración marrón clara, composición limosa, estructura apelmazada con abundantes cantos rodados de entre 5 y 10 centímetros de diámetro. El material arqueológico se reduce a:

Restos de fauna: un centenar de pequeños fragmentos, donde más del 90% no podrán ser identificados a nivel de especie.

Industria lítica: en torno a centenar y medio de restos de talla (incluyendo una treintena de láminas) y una veintena de objetos retocados (con los pequeños dorsos como protagonistas, buriles, raspadores y otros).

Otros materiales: un hueso manipulado.

Va. maila

Batez beste 30 cm lodi da. Hasierako kolorea, marroi iluna, ilundu egiten da arian-arian, areago sutegi baten inguruan (lurrak erretzera iritsiko zen). Limotsuak dira sedimentuak, heze samarrak eta ehunduraz pikortsuak, eta sakondu ahala ezaugarri horiek areagotu egiten direla esan behar dugu. Han eta hemen 5 zentimetro inguruko diametroa duten errekarriak ageri dira, eta oso tarteka bloke handiagoak. Maila honetan eta V. maila osoan zehar (b eta c azpiunitateak barne) lurrak ekialdera arinagoak direla hautematen da. Hona hemen maila honetan berreskuratutako material arkeologikoak:

Harrizko tresnak: ia bi mila aztarna silizeo, gehienak taila lanetatik etorritako hondakinak, berrehun eta berrogeita hamar xafla, hogeita hamarren bat nukleo eta landutako ehun eta berrogeita hamar objektu. Azken horien artean aipagarri dira dortsoak (berrogeita hamarretik gora), dentikulatuak (hogeiren bat), karrakagailuak (dozena eta erdi), zizelak (hamar) eta, duten esanahiagatik, xafla-harraskailu deigarri batzuk.

Fauna hondakinak: hiru mila hezur zati. Horietatik ehun eta berrogeita hamar halako zehaztasun batez katalogatu litezke.

Beste material batzuk: landutako errekarri parea.

Vb. maila

Maila honen 20 cm-ko lodieran deigarria da oso nola mailaren gogortasuna eta errekarriak bigundu eta murrizten diren mendebaldetik ekialdera egin ahala. Lurrak grisak dira, ez oso trinkoak ez eta oso harroak ere, idorrak, limotsuak baino hareatsuak. Kolore laranjako orban handiak ditu, karbonotsuak –ez benetako ikatzak– eta zurixkak, eta tarteka kareharriaren deshidratazioak ageri dira. Ugari dira 5 cm inguruko diametroa duten errekarriak, tartean harri puska handiagoak. Honako material arkeologiko hau jaso genuen:

Harrizko tresnak: sukarrian landutako hirurehun eta berrogeita hamar objektu, berrogeita hamarretik gora xafla, sei nukleo eta hirurogeiren bat pieza: dortsoak (dozena bat), dentikulatuak (dozena erdi), karrakagailuak (hamar), zizelak (hamar), trunkadurak eta harraskailuak. Azpi-maila honetako tresnen egitura aurreko mailako tresnen oso antzekoa da.

Fauna hondakinak: bi mila zati, gehien-gehienak fauna txikiari dagozkionak –untxiak nagusi–.

Beste material batzuk: landutako errekarri bat (harpearena ez den lehengaian landua).

Vc. maila

20 cm lodi da maila hau, eta egiazki da trinkoa eta gogorra. Errekarriekin batean bloke handiagoak ageri dira (batzuk deshidratatuta daudela ematen du), eta oinean, mendebaldera, ia ez du batere lurrik. Grisak dira sedimentuak, limotsuak eta hareatsuak, idorrak, laranja eta beltz koloreko orban askorekin. Honako material hau jaso genuen maila honetatik:

Nivel Va

Alcanza los 30 centímetros de potencia media. La coloración inicial, de tonos marrones oscuros, va oscureciéndose progresivamente, con mayor acento en los alrededores de un hogar (que llegó a rubefactar las tierras). Los sedimentos son limosos, ligeramente húmedos y de textura granulosa, conjunto de características que se acentúan según progresamos. La presencia de cantos rodados de en torno a 5 centímetros de diámetro es discrecional, apareciendo esporádicamente bloques mayores. Desde este horizonte, y a todo lo largo del nivel V (incluyendo las subunidades b y c) se observa que las tierras tienden a ser más ligeras hacia el este. Los materiales arqueológicos rescatados son:

Industria lítica: casi dos mil evidencias silíceas, la mayor parte restos de talla, con dos centenares y medio de láminas, una treintena de núcleos y centenar y medio de objetos retocados. Entre estos destacan los dorsos –más de medio centenar–, los denticulados –una veintena–, los raspadores –docena y media–, los buriles –una decena– y, por su significado, algunas llamativas láminas raederas.

Restos de fauna: tres mil fragmentos óseos, de los que centenar y medio podrán catalogarse con cierta precisión.

Otros materiales: un par de cantos rodados manipulados.

Nivel Vb

En sus 20 centímetros de potencia llama la atención la graduación oeste – este en cuanto dureza y presencia de cantos rodados (más hacia el oeste). Las tierras tornan a gamas de grises, ni excesivamente compactas ni sueltas, secas, de composición más arenosa que limosa. Incluye manchones anaranjados, carbonosos –no verdaderos carbones– y blanquecinos, así como fenómenos localizados de deshidratación caliza. Son abundantes los cantos rodados de en torno a 5 centímetros de diámetro, contando con la presencia de algunos mayores. El material arqueológico es:

Industria lítica: tres centenares y medio de objetos sobre sílex, con más de medio centenar de láminas, seis núcleos y seis decenas de piezas: dorsos –una docena–, denticulados –media docena–, raspadores –una decena–, buriles –una decena–, truncaduras, y raederas. La estructura industrial del subnivel es muy similar al del anterior.

Restos de fauna: dos mil fragmentos siendo mayoritarios los pertenecientes a fauna menor –de conejo en su mayoría–.

Otros materiales: un canto rodado manipulado (en materia prima diferente a la propia del abrigo).

Nivel Vc

Se desarrolla a lo largo de 20 centímetros, caracterizándose por su extrema compacidad y dureza. Los cantos rodados se complementan con bastantes bloques mayores (a menudo con trazas de deshidratación), de tal manera que su base, hacia el oeste, apenas si contiene tierras. Son sedimentos grisáceos, limoarenosos y secos con multitud de motas anaranjadas y negruzcas. El material recuperado se resume a:

Harrizko tresneria: hirurehun eskas elementu silizeodun, hogeita hamabost xafla, nukleoren bat eta landuak izan diren berrogeita hamar pieza: berriro ere esanguratsua da dortsoen presentzia (hamar), dentikulatuekin, karrakagailuekin, zizelekin, trunkadurekin, harraskailuekin eta xafla-harraskailuekin batean. Berriro ere bat dator aurreko V mailekin.

Fauna hondakinak: zazpiehun hezur zati, baina hemen gutxiago dira fauna txikiari dagozkionak.

Beste material batzuk: landutako lau hezur.

VI. maila

30 zentimetro lodi da geruza hau, sedimentuak oso trinkotuta daude, kolorez laranjak eta zurixkak dira, oso pikortsuak, eta 8 eta 10 zentimetro bitarteko lodiera duten errekarriak eta bloke asko ditu. Garbiketa fenomenoak hautematen ditugula uste dugu, baina hori etorkizuneko azterketa analitikoek berretsi beharko dute. Hona hemen erregistro arkeologikoa:

Harrizko tresnak: sukarrian landutako hirurehun eta berrogeita hamar objektu, bostena landu gabeko xafla euskarriak. Laurogeitik gora dira landutako piezak: zizelak nagusi dira –dozena eta erdi gehi ebakiak dituzten beste hogeita hamarren bat–, eta ondotik datoz azaletik landutako xaflak eta dentikulatuak, karrakagailuak, trunkadurak eta dortsoak

Fauna hondakinak: ehun eskas hezur zati txiki.

VII. maila

Aurreko mailako bloke multzoa altxatuta iristen gara maila honetara. Han eta hemen neurri ertaineko errekarri edota bloke batzuk ageri dira, lurrak idorrak dira, kolorez laranjak, oso trinkoak, ehunduraz hareatsuak eta, guneren batean, apur bat pikortsuak. Homogeneoa da sekuentzia osoan, eta beraz, aztarnategiko oinarria dela uste dugu –etorkizunean berretsi beharrekoa–. Honatx eduki arkeologikoa:

Harrizko tresnak: bostehundik gora hondakin silizeodun, ehundik gora xafla. Laurogeiren bat dira landutako objektuak: nagusi dira zizelak eta azaletik landutako xaflak, eta ondotik datoz dortsoak, dentikulatuak, trunkadurak, zulagailuak, karrakagailuak eta harraskailuak.

Beste material batzuk: landutako errekarri bat (harpearena ez den lehengaian landua)

Artean goiz da Socuevasko erregistro arkeologikoaren kulturaren irakurketa osoa lortzeko: beheko mailak azalera txikian altxatu ditugu, nahikoa kanpaleku honen garrantziaz jabetzeko baina eskasa modu integralean ulertzeko, nahiz eta historiaurreko materialak asko izan. Goitik behera, lehenengo maila Mesolito geometrikoan kokatu behar dugu, kronologikoki K.a. zortzigarren eta zazpigarren milurtekoen artean (II. maila). Jarraian okupazio trinkoa eta konplexua ageri da, Sauveter aldiko tresnen antzeko ezaugarriekin, kronologikoki hamargarren milurtekoan kokatua (III. maila). IV. depositua funtsean harpeko estalkitik behera etorriak osatua da, eta Pleistozeno aroaren amaierako material gutxi batzuk ditu, hamabigarren milurtekora garamatzatenak. V. mailari begira hamabigarren milurtekoaren erdialdeko kronologiak dauzkagu, eta

Industria lítica: menos de tres centenares de elementos silíceos, con tres decenas y media de láminas, algún núcleo y medio centenar de piezas con retoques: de nuevo es significativa la presencia de los dorsos –una decena– que conviven con denticulados, raspadores, buriles, truncaduras, raederas y láminas raederas. De nuevo todo indica uniformidad respecto a los anteriores horizontes V.

Restos de fauna: siete centenares de óseos, con pérdida llamativa de la fauna menor.

Otros materiales: cuatro huesos manipulados.

Nivel VI

Horizonte de 30 centímetros de espesor, con sedimentos muy compactados, anaranjados /blanquecinos, muy granulosos y con cantos rodados de 8 a 10 centímetros de diámetro y abundantes bloques. Creemos observar fenómenos de lavado, a confirmar en futuras analíticas. El registro arqueológico se compone de:

Industria lítica: tres centenares y medio de objetos sobre sílex, de los que una quinta parte son soportes laminares sin retocar. Los retocados superan las ocho decenas: el protagonismo recae en los buriles –doc–na y media, sumándose una treintena de recortes-, a los que siguen las láminas con retoques menores y, denticulados, raspadores, truncaduras o dorsos.

Restos de fauna: menos de un centenar de pequeños fragmentos.

Nivel VII

Se accede tras levantar el conjunto de bloques del horizonte que le precede. Con presencia esporádica de algunos cantos y/o bloques en los centímetros de transición, nos encontramos con unas tierras secas, anaranjadas, muy compactas, de textura arenosa algo granulosa en alguna zona. Homogéneo de toda la secuencia debe constituir la base del yacimiento –a confirmar a futuro–. El contenido arqueológico es:

Industria lítica: más de medio millar de restos silíceos, con llamativa presencia de más de un centenar de láminas. Son unos ocho decenas los objetos retocados: dominan los buriles y láminas con retoques menores, seguidos de dorsos, denticulados, truncaduras, perforadores, raspadores y raederas.

Otros materiales: un canto rodado manipulado (en materia prima ajena al entorno).

Es aún pronto para obtener una lectura cultural completa del registro arqueológico de Socuevas: los niveles inferiores han sido rebajados en una pequeña superficie, suficiente para observar la importancia del campamento pero escasa para su comprensión integral, a pesar de la densidad de los materiales prehistóricos. De arriba hacia abajo, el primer horizonte se corresponde con el Mesolítico geométrico en el tránsito, contando en años hasta el presente, entre el octavo y el séptimo milenio (nivel II). Le sigue un nivel de densa y compleja ocupación con utensilios propios del Sauveterriense, encajado aquí en el décimo milenio (nivel III). El depósito IV está muy afectado por el derrumbe de la cobertera, incluye escasos materiales de fines del Pleistoceno, cifrados en el duodécimo milenio. Para el horizonte V contamos con evaluaciones

tresnen ikuspuntutik Madalen kultura aldian kokatu behar dugu. VI. eta VII. mailak lehenagoko Madalen kultura aldiari dagozkio itxuraz, horixe iradokitzen baitute tresnetan nabari diren aldaketek.

2011ko kanpainan berreskuratutako hondakin arkeologikoen zerrendan 10.100 hondakin bereizten dira, %60 fauna hondakinak dira, eta %40 harrizko elementuak –landutako 400en bat pieza barne–. Kopuruetatik harantzago, historiaurreko depositu oso garrantzitsua da Socuevas. Lan arkeologikoei ekin genienean ez genuen kultura sekuentzia hain zabala espero –areago kontuan baditugu isilpeko jardueren ondorioz kaltetutakoak–: testuinguru geografiko honetan Mesolito geometrikoa ondo sendotuta dagoen arren, Sauveter aldiari buruzko erreferentziak egiazki dira berriak; era berean, Paleolitoaren azken garaian kokatzen ditugun mailek aukera ematen digute ezezagun ditugun historiaurreko gizarteak ezagutzen hasteko, Socuevasko VI. eta VII. mailek artean Araban deskribatu ez diren tresnak eskaintzen baitituzte.

Etorkizuneko lanen aurrekoak

Aurreko kanpaina amaitu ostean, 2011n eta 2012an Socuevasen lan arkeologikoekin jarraitzeko beharra azpimarratu genuen. Kanpaina honetan lortutako emaitzek berretsi egiten dute hura, eta gainera lanak gutxienez beste urte batez luzatzea planteatzen dute. V., VI. eta VII. mailak berez dira garrantzitsuak glaziazioaren azken garaitik gure garaiko klimarako jauzia ulertzeko, baina gainera behar bezala ezagutzen ez dugun garai hartako Euskal Herriaren hegoaldeko lurrak nola populatu ziren ulertzeko oinarri sendoenetakoak dira. Xede horretan maila horien indusketa eremua –bi metro koadrotara mugatua– harpearen barruko aldera bezala kanpoko aldera ere zabaldu beharko da.

cronológicas de mediados del duodécimo milenio, encajando bastante bien, desde el punto de vista industrial en el Magdaleniense. Los niveles VI y VII parecen pertenecer a un Magdaleniense más antiguo, dado el cambio de orientación instrumental.

El inventario de los restos arqueológicos de la campaña del 2011 suman unas 10.100 evidencias, el 60% restos de fauna y el 40% elementos líticos –incluyendo unos 400 elementos retocados–. Más allá de las cifras, Socuevas se está revelando como un depósito prehistórico de gran interés. Nada hacía sospechar al iniciar los trabajos arqueológicos –más teniendo en cuenta la merma sufrida por las intervenciones ilegales– un recorrido cultural tan amplio: si bien para el contexto geográfico el episodio mesolítico geométrico está bien consolidado, las referencias a situaciones sauveterrienses son realmente novedosas; a su vez los niveles que atribuimos al final del Paleolítico permiten avanzar en el conocimiento de unas sociedades prehistóricas muy poco conocidas, entregando los horizontes VI y VII de Socuevas una estructura industrial no descrita aún en Álava.

Perspectivas de trabajo futuro

Tras la anterior campaña habíamos pronosticado la necesidad de continuar los trabajos arqueológicos en Socuevas durante los años 2011 y 2012. Sin duda los resultados de la actual no solo lo confirman, sino que plantean su prolongación durante algún año más. Los niveles V a VII son de por sí relevantes para comprender el tránsito de la última fase glaciar a los tiempos climáticos actuales, pero además constituyen una de las bases más solidas para comprender el poblamiento de las tierras del sur del País Vasco en esos momentos, dinámica histórica poco conocida. Para ello será necesario extender el área de excavación de esos niveles –restringida a dos metros cuadrados– tanto hacia el interior como al exterior del abrigo.

A. Alday Ruiz; A. Cava Almuzara

A.20.2. **El Riberón-Ruines**

Zuzendaritza: F. Rafael Varón Hernández
Finantziazioa: ICMA-PROARKIS (Ortiz Taldea)

A.20.2. **El Riberón-Ruines**

Dirección: F. Rafael Varón Hernández
Financiación: ICMA-PROARKIS (Grupo Ortiz)

The conducting of 10 archaeological sondages to verify the damage caused to the El Riberón-Ruines site concluded that said damage was serious and irreparable.

Lanen enpresa promotoreak El Riberón-Ruines aztarnategian 200 m^2-ko indusketa arkeologikoa egiteko agindua eman zigun. Izan ere, eremu arkeologikoa osatzen duen lursailetako bati emandako erabilerak eragindako kalteak dokumentatzeko beharra azaldu zuen Arabako Foru Aldundiak, ondoko Bilbo-Miranda de Ebro burdinbidearen gaineko igarobide baten eraikuntzarako aridoen harrobiarena egin baitzuen lursailak.

Por parte de la empresa promotora de los trabajos se nos encargó la apertura de 200 m^2 de excavación arqueológica en el yacimiento de El Riberón-Ruines. El motivo de este encargo fue la exigencia de la Diputación Foral de Álava de documentar los daños producidos por el uso de una de las parcelas que componen la zona arqueológica como cantera de áridos para la construcción de un paso elevado sobre la cercana línea férrea Bilbao-Miranda de Ebro.



El Riberón-Ruines. Burura eramandako zundaketa arkeologikoen banaketa eta eragin eremua.

El Riberón-Ruines. Zona de afección y distribución de los sondeos arqueológicos practicados.

Beraz, espazio hau begiz miatu genuen, eta zoritxarrez, lursailaren parterik handiena mekanikoki garbitu eta haren baitan 5.000 m^2-tik gora induskatu zutela ikusi genuen, sakonera maila ezberdinetan induskatu ere, baina betiere maila geologikoa iritsi eta hura gaindituta. Ondorioz, betikoz desagerrarazi zituzten bertan egon zitezkeen hondakin arkeologikoak oro.

Zundaketak ausaz ireki genituen baina suntsiketa eremuaren inguruan antolaturik. Guztira 10 zundaketa ireki genituen, denak 20 m^2-ko azalerarekin, guztiak eskuz.

Aztarnategi honi buruzko bibliografiak azaltzen duen bezala, aztarnategia jada aztertua eta induskatua izan baita eta dagokion txostena argitaratua, eta haren funtzioari buruzko eztabaida historiografikoari ateak irekita –egiteko zibila zuela diote batzuek eta funtzio militarra bestetzuek–, hondakinak topatu genituen krater izugarri handiaren kanpoko ertzetan eta lau puntu kardinaletan, hori bai, kontserbazio egoera ezberdinetan.

Emaitza interesgarrienen artean, esan dezagun berreskuratutako zeramikazko materialak eskuan, aztarnategiko sektore hau erromatarren Goi Inperioaren garaian hazi zela, eta Behe Inperioaren garaiko zeramikazko elementuen gabeziak adierazten digula garai hartan parte honi erabilerarik ematen ez ziotela –nahiz eta horrek ez duen esan nahi geuk aztertu gabeko aztarnategiko beste eremu batzuk erabiltzen jarraitu ez zutenik–.

Egituren ikuspuntutik esan dezagun paldoei eta zutabeei eusteko oinarri batzuk eta oso kaltetuta zeu-

El planteamiento pasó por el reconocimiento visual del espacio que deparó la desoladora imagen del desbroce mecánico de la mayor parte de la parcela y de la excavación en su interior de un espacio de más de 5.000 m^2 en profundidades variables, pero con la característica común de haber alcanzado y superado el nivel geológico, haciendo desaparecer cualquier resto arqueológico subyacente que hubiese existido.

La distribución de los sondeos se realizó siguiendo una pauta aleatoria pero organizada en derredor de la zona de destrucción abriendo, finalmente, 10 sondeos de 20 m^2 de área por métodos mecánico manuales.

Tal y como enuncia la bibliografía existente al respecto de este yacimiento, que ya fue reconocido, excavado, publicada su memoria y entrado en el debate historiográfico sobre su funcionalidad –con posicines sobre su asignación militar o civil–, localizamos restos en los bordes exteriores del tremendo cráter y en los cuatro puntos cardinales, aunque en distinto grado de conservación.

Entre los resultados más interesantes cabe destacar que con los materiales cerámicos recuperados, podemos entender que este sector del yacimiento creció durante el Alto Imperio Romano, y que la ausencia de elementos cerámicos bajo imperiales parece afirmar que en ese periodo ya no había uso aquí –lo que no descarta su permanencia en otras áreas del yacimiento no exploradas por nosotros–.

Desde el punto de vista estructural cabe destacar la localización de algunos apoyos para poste y columna y

Ezkerretara: hasierako lanak 9. zundaketan. Begien bistan, hormak. Eskuinetara: zundaketa induskatuta azken ikuspegia.

A la izquierda: trabajos iniciales en el sondeo 9, con localización de muros. A la derecha: vista final de la excavación del sondeo.

den horma batzuen hondakinak bereizi genituela. Gainera, tokiaren konplexutasuna agerian uzten duten egiturak berreskuratu ahal izan ditugu beste bi zundaketatan.

Haietako batean mea urtzeko labe txiki bat dirudienari leku egiten zioten hormen hondakinak utzi ahal izan ditugu agerian. Labe horrekin lotu behar ditugu metalezko hondakin interesgarri batzuk, horien artean aipagarri aizkora-mailu baten zati bat.

Zundaketa honetan agerian utzitako eraikuntza egituren azpian paldoei leku egiteko zulo batzuk identifikatu genituen, eta haietan itxura zeltiberiarreko zeramika batzuk aurkitu genituen.

Emaitza aipagarriak eskaini dituen beste zundaketan horma egitura batzuk utzi genituen agerian, 60 zentimetroko garaiera kontserbatu dute, eta gela bat osatzen dute. Gelako sarrera, barne banaketa, zoladurak eta bide sistema dirudien egiturarekin duen lotura dokumentatu genituen.

Espazio honetan dokumentatutako lur jotzeetako batean zeramikazko kapitel bat, euskarriarena egiten zuena, dokumentatu genuen. Jatorrizko lekuan dago, zorupean, eta berotutako espazio bateko zoruari eusteko funtzioa zuen. Beraz, zalantza izpirik gabe esan dezakegu aztarnategi honetan bazeudela –eta agian oraindik badaudela– zorupeko berokuntza sistemak edota termak.

Bukatzeko, itxuraz zabortegiaren erabilera eman zioten espazioa izango dugu aztergai. Bertan Goi Inperioaren garaiko zeramikazko hondakin asko aurkitu genituen, nola TSH hala zeramika arrunta.

Lan arkeologikoei amaiera emateko, lursailaren lehengoratze biologikoa ziurtatzeko lanen gaineko kontrola egin genuen. Zundaketetan aurkitutako zorupeko hondakinak babesteko xafla geotextil batzuk ipini genituen haien gainean, eta ondoren buztina hedatu genuen zundaketetako goiko ertzetaraino.

los restos muy alterados de algunos muros. No obstante también hemos podido recuperar, en dos sondeos, estructuras que muestran la complejidad del lugar.

En uno de ellos hemos podido exhumar restos de muros en los que se insertaba lo que parece un pequeño horno de fundición, al que podemos relacionar algunos restos metálicos interesantes, entre los que sobresale un ejemplar fragmentario de hacha-martillo.

Bajo las estructuras constructivas exhumadas en este sondeo también se han localizado agujeros de poste, recuperándose algunas cerámicas de aspecto celtibérico.

Otro de los sondeos en los que se han obtenido resultados destacables ha supuesto la recuperación de estructuras murarías, con una altura conservada de unos 60 centímetros, que forman una habitación de la que se ha documentado su acceso, parte de su compartimentación interna, solados y su inserción dentro de lo que parece un sistema viario.

En uno de los derrumbes asociado a este espacio se ha obtenido un capitel de suspensura hecho en cerámica, pieza que, en su posición original, se encuentra soterrada y su función es sostener un suelo sobre un espacio calefactado, por lo que podemos establecer, sin dejar margen a muchas dudas, que en este asentamiento existían –quizás todavía permanezca– sistemas de calefacción subterránea y/o dedicados a terma.

Finalmente nos queda por relatar la localización de lo que parece un espacio dedicado a basurero del que hemos recuperado abundantes restos cerámicos altoimperiales, tanto TSH como cerámica común.

Los trabajos arqueológicos finalizaron con el control de la regeneración biológica de la parcela. La protección de los restos subyacentes localizados en los sondeos se ha hecho mediante la colocación de láminas de geotextil sobre ellos y se ha procedido al rellenado con arcilla expandida hasta los bordes superiores de los sondeos.

F.R. Varón Hernández

A.21. SALVATIERRA / AGURAIN

A.21.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

A.21.1.1. Santa Klara, 1. Ahizpa Klaratarren komentua

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños
Finantziazioa. Ahizpa Klaratarrak

A.21.1.1. Santa Clara, 1. Convento de las Hermanas Clarisas

Dirección: F. Javier Ajamil Baños
Financiación: Hermanas Clarisas

Prior to the renovation of San Pedro Convent of the Order of Saint Clare, in Salvatierra-Agurain, five sondages were carried out which resulted in the discovery of diverse sites related to the village which stood on this spot prior to the fire of 1564. The intervention also uncovered one of the graves from the church enclosure which was demolished to make way for the current building at the end of the 17th century, as well as part of the foundations of the facade of the convent which stood on the site prior to the current, now renovated, building. The monitoring of these works uncovered another grave (which had been turned into an ossuary), along with more remains of earlier structures belonging to both the convent itself and houses which predate its construction.

Aguraingo Hirigune Historikoko Ahizpa Klaratarren San Pedro Komentua birgaitzeko proiektua abian zenez, bost zundaketa ireki genituen, hasieran hondeamakina baten laguntzaz, jatorri antropikoko egiturak edo ebakiak edo haiei atxikiriko depositua iritsi arte, eta hortik aurrera eskuz induskatzen jarraitu genuen. Behe oineko barne banaketak eta hondeamakina gobernatzeko zailtasunak baldintzatuta egon ziren une oro zundaketen kokalekuak eta neurriak, eta ondorioz, esku-hartze arkeologikoa benetan zaila gertatu zela esan behar dugu.

Balorazio arkeologikoaren xede izan zitezkeen gelen artean iparraldeen dagoenaren erdialdean ireki genuen aurreneko zundaketa. Zundaketa honetan lur zurixkako lehen depositu bat erregistratu genuen, depositu ez trinkoa, igeltsu eta eraikuntza materialen puskekin; komentuko egungo zoruaren maila goratzeko eta prestatzeko betegarria da. Haren azpian lur eremuaren kota goratzeko lurrak eta zaborrak topatu genituen, baita egungo habeen egiturako zurezko oin bati eusten zioten harri handien metaketa bat ere. Harri meta honek komentuko lehenengo elizaren barneko kaxadurari zegokion aspaldiko hilobi bat suntsiarazi zuen. Harlanduz egina, 70 cm zabaleko hutsunea zuen, baina ezin izan genuen haren luzera zehaztu oinari eusten zioten harri guztiak ezin kendu izan genituelako. Hezurtegi batek amortizatzen zuen hilobia, haren barruko aldea lehenengo elizari zegozkion hilobietatik ekarritako hezur kopuru handiarekin bete baitzuten. Lehenengo eliza hura erabat suntsitu zuten komentuaren iparraldeko muturrean dagoena eraikitzeko, XVII. mendearen azken laurdenean. Hilobia depositu lodi batean induskatua zen, depositua kareharriaren deskonposiziotik etorritako margek eta harri amaren hausturatik etorritako harriek osatua. Horrek guztiak lur eremua berdintzea zuen xede, harresiranzko aldapa handia gainditzea bila zuen eta

Con motivo de la rehabilitación del Convento de San Pedro de las Hermanas Clarisas, dentro del Casco Histórico de la villa de Salvatierra-Agurain, se abrieron cinco sondeos con ayuda inicial de una excavadora hasta alcanzar estructuras o cortes de origen antrópico o depósitos asociados a ellos para, posteriormente, proceder a la excavación manual de los sondeos desde el punto en que lo había dejado la máquina. Las dimensiones y localización de los sondeos se vieron en todo momento condicionados por la distribución interna de la planta baja y las dificultades de maniobrabilidad de la excavadora, lo que contribuyó a que la intervención arqueológica resultara muy complicada.

El primer sondeo se abrió en el centro de la estancia situada más al norte entre las que eran susceptibles de valoración arqueológica. En este sondeo se registró un primer depósito de tierra blanquecina, poco compactado con trozos de yeso y material constructivo, identificado como un nivel de recrecimiento y preparación del suelo actual del convento. Bajo éste encontramos una sucesión de diferentes aportes de tierra y escombro para recrecimiento del terreno y una gran acumulación de piedras de gran tamaño que sostenían la base de un pilar de madera del entramado de viguería actual. Esta acumulación de piedras propició la destrucción de una antigua sepultura que perteneció al encajonamiento interior de la primitiva iglesia del convento. Con fábrica de sillería, contaba con un hueco de 70 cm de anchura y una longitud indeterminada al no poder quitar la totalidad de las piedras que sustentaban el pilar. Esta tumba estaba amortizada como osario, al ser colmatado su interior por gran cantidad de huesos procedentes de las sepulturas correspondientes a esa primera iglesia, demolida totalmente para la construcción de la que ahora ocupa el extremo norte del convento, en la década en el último cuarto del siglo XVII. Esta estructura estaba excavada en un potente depósito compuesto de las margas de descomposición de la roca caliza y restos de piedras procedentes

gainazal laua sorraraztea, guztia aipatu mendearen hasieran komentua eraikitzeko.

Aurrekoaren hegoaldean ireki genuen 2. zundaketa, eta haren estratigrafiaren sekuentzia, depositui dagokienez bederen, aurreneko zundaketan identifikatuaren oso antzekoa zela esan behar dugu. Baina honetan ez genuen San Pedro komentuaren eraikuntza aldiren bati zegokion egiturarik erregistratu. Bai ordea errenkada bat kontserbatzen zuen horma baten hondakinak, 60 eta 65 cm zabal eta 2,75 m luze ertzaren azpian galtzen den arte. Hormari atxikita erabilerarako maila bat geratu zen agerian, okre koloreko buztinez eta harri koskorren hondakinez osatutako geruza mehea, zeinetan oraindik ikatzezko maila baten hondakinak nabari ziren. Ikatzezko maila honen parterik handiena desagerrarazi egin zuten alde hau 1564ko suteak eragindako kalteez garbitu zutenean, San Pedro komentu berria eraiki behar baitzuten bertan.

Eraikinaren fatxadaren oinetan ireki genuen hirugarren zundaketa, behe oinaren erdialdera. Zundaketa honetan fatxadaren paraleloan luzatzen den horma bat topatu genuen oso sakonera maila apalean, egungo zorua prestatzeko maila zurixkaren azpian. 75-80 cm lodi, zundaketaren iparraldeko eta hegoaldeko ertzen azpian galtzen zen. Beste zundaketetan erregistratutako marga eta harrizko mailaren gainean bermatzen zen. Guk uste dugu San Pedro Komentuaren jatorrizko fatxada dela. Geroago, XVII. mendean zehar, handitu egin zuten fatxada, Harategi kaleari lekua irabazita.

Harresiaren bideari jarraitzen zaion komentuko hormaren oinetan ireki genuen 4. zundaketa, komentuko harrera gelaren iparraldeko espazio librean. Beste zundaketetan bezala, egungo komentuko zorua berdintzea zuen xede lurrezko lehenengo geruzak, trinkotu gabeko lur zurixkaz eta igeltsu puskez osatuak. Hura altxatzean bigarren pakete bat geratu zen agerian, oso lodia, ondoz ondo ekarritako lurrez osatua, hiribilduko harresiari, eraikinaren egungo hormaren azpian ageri den harresiari eta ekialdetik mendebaldera luzatzen den eta 2,85 metroko tartera iparralderantz egiten duen hormari atxikita. 2,90 metrotara zundaketaren ertzaren azpian galtzen da horma hau, 70 cm lodi, baina ez zuen harresiarekin bat egiten, aurreneko errenkadako harri batek baizik ez zuen hura ukitzen. Horma neurri eta forma askotako harriz, harri koskorrez eta berriro ere baliatutako harlanduez egina zen, guztia kareore ugariz batua. Bi harri handi teila moduan egokituta daude oinaldetik eta barruko aldetik, eskailera batzuen edo beste egitura motaren baten berme antzeko bat eratuz. Azpian zundaketa guztietan identifikatutako marga eta kareharriez osatutako depositua ageri zen. Depositu honek parte batean iparraldeko ertzaren azpian galtzen zen horma, gailurrean harri handi bati eusten ziona, estaltzen zuen. Bigarren horma honek bat egiten zuen harresiarekin, eta 80 cm-ko garaierara iristen zen. Horma hauek laugarren zundaketa honetako estratigrafiaren sekuentzian hartzen duten lekuari erreparatuta esan dezagun lehenengoa 1564. urteko sutearen ostean altxatuko zutela bizilagunak beren jabetzak berreraikitzen saiatu zirenean, eta bigarrena sutearen aurreko etxebizitzetako bati dagokiola.

de la fractura de la roca madre, todo ello destinado a la regularización del terreno salvando la fuerte pendiente natural hacia la muralla y creando una superficie raseada con objeto de construir el convento a comienzos de ese mismo siglo.

El sondeo 2 se excavó en la estancia situada inmediatamente al sur de la anterior y su secuencia estratigráfica, en cuanto a los depósitos se refiere era muy parecida a la del primer sondeo, si bien no se hallaron en éste estructuras pertenecientes a ninguna de las fases constructivas del convento de San Pedro. Sin embargo, sí se descubrieron restos de un muro que conservaba una hilada, de entre 60 y 65 cm de anchura y 2,75 m de longitud hasta perderse bajo el cantil. Asociado a éste, aparecía de un nivel de uso compuesto por una fina lechada de arcilla de color ocre y restos de cascajo sobre el que aún se extendían los restos de un nivel de carbones, en su mayor parte eliminado al vaciarse esta zona de la villa de las ruinas generadas por el incendio de 1564 con objeto de levantar el nuevo convento de San Pedro.

El tercer sondeo se localizó a los pies de la fachada del edificio, en mitad de la planta baja. La principal característica de este sondeo fue el hallazgo de un muro prácticamente paralelo a la fachada, a muy escasa profundidad, sólo por debajo del nivel blanquecino de preparación del suelo actual. Con una anchura de 75-80 cm, se perdía por los cantiles norte y sur del sondeo, asentando en el nivel de margas y piedras común al resto de los sondeos. Pensamos que se trata de la fachada original del Convento de San Pedro, que posteriormente se amplía, a lo largo del siglo XVII, ganando terreno a la calle carnicerías.

El sondeo 4 se ubicó a los pies de la pared del convento que sigue el trazado de la muralla, en el espacio libre inmediatamente más al norte de la recepción del convento. Como en los demás sondeos, el primer nivel de tierra era el de nivelación del suelo del convento actual, compuesto de tierra blanquecina poco compactada con trozos de yeso. Al eliminarlo apareció un segundo paquete de tierra, muy potente, compuesto de sucesivos aportes de tierra que se adosaban tanto a la muralla de la villa, que aparece bajo la pared actual del edificio, como a un muro de dirección E.-W. y hacía esquina a los 2,85 m para dirigirse al norte, desapareciendo en este cantil a los 2,90 m. Este muro, con una anchura de 70 cm, no llegaba a adosarse a la muralla, salvo por una piedra de su primera hilada y estaba construido a base de piedras de diferentes tamaños y formas irregulares, ripios y sillares reaprovechados, todo ello trabado con abundante argamasa de cal. Dos grandes piedras se hallan imbricadas a su base por la parte interna, como conformando alguna especie de apoyo para unas escaleras u otro tipo de estructura. Por debajo afloraba el depósito compuesto de margas y piedras calizas que aparece en todos los sondeos y que, a su vez, cubría a un muro oculto en parte bajo en cantil norte que también soportaba una gran piedra en su cumbrera. Este segundo muro sí se adosa a la muralla y llegaba a alcanzar los 80 cm de altura. La disposición de estos muros dentro de la secuencia estratigráfica de este cuarto sondeo indica que si el primero debió construirse tras el incendio de 1564, cuando los vecinos intentan reconstruir sus propiedades, el segundo pertenecería a una de las viviendas anteriores al desastre.

San Pedro komentuaren barruan induskatutako zundaketetan aurkitutako hondakinak.

Restos hallados en los diferentes sondeos abiertos en el interior del convento de San Pedro.

Komentuaren hegoaldeko gela txiki batean ireki genuen 5. zundaketa. Soilik zundaketa honetan ez genuen egiturarik aurkitu. Egungo zorua berdintzeko azaleko geruzaren azpian errepikatu egiten ziren besteetan deskribatutako depositua, baina hemen lur beltzezko geruza bat bereizi genuen haien artean, erretako ikatz, egur eta teila puska askorekin. Depositua ez zegoen jatorrizko egokieran. Estratigrafiaren sekuentzian hartzen duen lekuari erreparatuz gero esan dezagun espazio hau betetzen zuten beste zabor multzoetako bat dela. Aurrekoetan bezala, inguruko harri amatik erauzitako kareharriek eta margek osatutako geruza ageri da, eta azpian antzeko beste bat azaltzen da, askoz ere trinkoagoa baina, ekialderantz nabarmen makurtzen dena eta iparralderantz ez hain modu nabarmenean, baina betiere harri naturalaren presentzia iradokiz.

El sondeo 5 se localizó en una pequeña estancia situada en el lado sur del convento, siendo el único en el que no se halló ningún tipo de estructura. Bajo el nivel superficial de nivelación del suelo actual se repetía la secuencia de sucesivos aportes, pero, en este caso, entre ellos aparecía una capa de tierra de color negro con gran cantidad de carbones, maderas y fragmentos de tejas calcinados, aunque no se trataba de un depósito que apareciera en posición primaria. Su disposición dentro de la secuencia estratigráfica indica que se trataba de un vertido más de entre los que colmataban este espacio. Colmatación que comienza, como en todos los casos con el nivel de margas y piedras calizas arrancadas de la propia roca madre del entorno y bajo el cual aparece un depósito similar pero mucho más compacto, que buza considerablemente hacia el este, y al norte en menor medida, anunciando la presencia de la roca natural.

San Pedro komentuko zorupearen balorazio arkeologikoaren osagarri, harresiaren lerroarekin bat egiten duen komentuko ekialdeko fatxadaren barruko aurpegia dokumentatu genuen. Azterketa honetatik ondorioztatu daiteke hiribilduko harresia, atal honetan bederen, nabarmen birmoldatu dela mendeen joanean. Kanpoko aurpegian ondo asko ikus daiteke komentuko lehenengo solairuaren altueraraino iristen dela, nahiz eta hartan bao asko ireki dituzten. Aitzitik, barruko aldetik ez da harresiaren hondakinik identifikatzen behe oinean, soilik komentuko egiturara bildutako dorreen atal batzuetan. Horma hau 2,10 m lodi da, eta beraz, haren betegarria harresitik ekarria dela pentsatzen dugu. Hala eta guztiz ere, harresiaren barruko aurpegia, 4. indusketan agerian geratzen den bezala, komentuko zorupean dago ikusgai, komentua eraikitzeko xedean alde honetako zoruaren maila goratu zutelako eta horri esker aski egoera onean kontserbatu delako hura.

Zundaketa arkeologikoen indusketak agerian utzi du San Pedro komentuko zorupea oso nahasita dagoela, eraikinaren eraikuntzak nahasita, egungo lantegiari leku egiten dion eremua, 2010. induskatua, ez bezala. 2010. urtean aztertutako aldean hiribildua suntsiarazi zuen sutea jasandako eraikinen hondakinak eta txikizio hartatik etorritako zabor eta abandonatze mailak kontserbatzen baldin baziren, aurtengoan baloratutako espazioan eraikin haietako batzuen egitura batzuk baizik ez ditugu jatorrizko lekuan topatu, hauek ere berreraikitzen saiatu zirela erakusten duten arrastoekin. Hala eta guztiz ere, ez dugu etxebizitzen behera etortzearen ondorioz sortuko zen zaborrezko mailaren arrastorik topatu, soilik 2. zundaketan dokumentatu dugu errautsezko eta ikatzezko geruza mehe bat geletako baten zoruaren gainean. Espazio bietan eta mendeen joanean gizakiak alde batean eta bestean egindako egokitzapen ezberdinek azaltzen dute bien arteko aldea. Izan ere, 2010. urtean induskatu genuen eremua baratzeari emana egon zen XVII. mendetik aurrera, eta lehendik, etxebizitza asko abandonatu zituztela esan behar dugu, izurriak eta ondorengo suteak eraginda etxebizitzetako biztanleak alde eginak baitziren. Aitzitik, komentuaren eraikineko zorupea lehenik hustu egingo zuten eta gero lur eremua bete, berdindu eta goratu egingo zuten bertan komentu berria eraikitzeko. Gerora eta denboraren joanean hainbat egokitzapen egin zituzten haren barruko aldean.

Komentua birgaitzeko lanen gaineko kontrolak berretsi egin zituen hipotesi hauek. Beste egitura hondakin batzuen artean, lur eremua induskatzen ari zirenean, komentuaren fatxada zaharra eratzen zuen zimentarri zaharraren jarraipena dokumentatu genuen. Era berean, egitura berriari eusteko zutarriei leku egiteko zuloetako bat induskatzen ari zirenean, egungoari ez baizik eta aurreko elizari zegokion kaxadurako beste hilobi bat erregistratu genuen.

Como complemento de la valoración arqueológica del subsuelo del convento de San Pedro, también se procedió a la documentación del paño interno de su fachada este, coincidente con la línea de muralla. De este análisis se desprende que la cerca de la villa se ha remodelado considerablemente en este tramo a lo largo de los siglos. Por su lienzo externo aún puede observarse que alcanza la altura de la primera planta del convento, si bien con numerosos vanos abiertos. Por el interior, sin embargo, no aparecen restos de la muralla en la planta baja salvo en parte de los dos torreones integrados en la estructura del convento. La anchura de esta pared, 2,10 m, sugiere, no obstante, que el relleno interno de ella si pertenecería a la cerca. El paño interno de la muralla es visible en todo caso, tal y como se puede observar en el sondeo 4, en el subsuelo del convento, donde el recrecimiento del suelo para la construcción del edificio ha hecho que se conserve en aceptables condiciones.

La excavación de los sondeos arqueológicos ha puesto de manifiesto que el subsuelo del convento de San Pedro se hallaba enormemente alterado debido a la construcción del edificio, al contrario de lo que nos encontramos en la zona donde se localiza el actual obrador y donde se excavó en el año 2010. Si allí se conservaban los restos de las edificaciones que sufrieron el incendio del año 1564 que asoló la villa y diversos niveles de escombro y abandono producto de este desastre, en el espacio valorado ahora únicamente se han hallado en su posición primaria restos de algunas estructuras pertenecientes a algunas de aquellas edificaciones, también con evidencias de intentos reconstructivos. No obstante, no se han localizado niveles de escombro como consecuencia del derrumbe de las viviendas, y sólo en el sondeo 2 se han documentado los restos de un fino nivel de cenizas y carbones sobre el suelo de una de las estancias. Esta diferencia se explica por la distinta incidencia en el terreno de la acción humana a lo largo de los siglos en ambos espacios. Así, la zona en la que se excavó en el año 2010 estuvo dedicada a huerta desde comienzos del siglo XVII y, anteriormente, numerosas viviendas se habrían abandonado por ausencia de sus moradores a consecuencia de la peste y posterior incendio. El subsuelo del edificio del convento, por el contrario, habría sufrido un proceso de vaciado del escombro y posterior raseamiento, nivelación y recrecimiento del terreno, para construir el nuevo convento primero y como consecuencia de las posteriores reformas que tuvieron lugar en su interior a lo largo del tiempo.

El control de las obras de rehabilitación del convento vino a refrendar estas hipótesis. Entre otros restos de estructuras, se halló la continuación de la cimentación de grueso muro que constituía la antigua fachada del convento mientras se rebajaba el terreno. También se localizó una tumba más del encajonamiento de la iglesia anterior a la actual durante la excavación de una de los pozos para los pilares de sustentación de la nueva estructura.

F.J. Ajamil Baños; I. Azcune Fontecha

A.22. SAN MILLÁN / DONEMILIAGA

A.22.1. Urbanizazio lanak Munainen

Zuzendaritza: Alberto Rodríguez Costas
Finantziazioa: STOA

A.22.1. Obras de urbanización de Munain

Dirección: Alberto Rodríguez Costas
Financiación: STOA

Intervention carried out all over the site, leaving no room for further investigation, since the results proved to be of scarce historical-archaeological interest.

Munaingo urbanizazio lanen gaineko kontrol arkeologikoa. Xede horretan lubakiak egin genituen herriko kale guztietan, eta arreta berezia jarri genuen Ama Birjinaren Jasokunde Elizaren inguruan irekitakoan. Emaitzak negatiboak izan ziren historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik.

Control arqueológico de la urbanización del núcleo de Munain. Para ello se realizaron zanjas en todas las calles del pueblo, prestando atención a la zanja abierta en el entorno de la Iglesia de Nuestra Señora de la Asunción, siendo los resultados de nulo interés histórico-arqueológico.

A. Rodríguez Costas

A.22.2. 161. poligonoko 9. etxadiko 19. lursaila (Galarreta)

Zuzendaritza: Javier Niso Lorenzo
Finantziazioa: E. Ruiz de Eguino; J.I. López de Guereñu; Arabako Foru Aldundia

A.22.2. Parcela 19 de la manzana 9 del polígono 161 (Galarreta)

Dirección: Javier Niso Lorenzo
Financiación: E. Ruiz de Eguino; J.I. López de Guereñu; Diputación Foral de Álava

Intervention which uncovered structures dating from the 14th century, built prior to the construction of Velasco Palace, but not apparently belonging to the Upper Ocariz Tower, which is believed to have stood on the same site.

Galarretako 161. poligonoko 9. etxadiko 19. lursailak, Donemiliagako udalerrian, aipatu udalerriko 16. zenbakiko Ustezko Eremu Arkeologikoa osatzen du *Torre de Arriba* izenaz.

Finkak gutxi gorabehera 3.000 m² ditu guztira. Haren iparraldean daude Velascotarren Jauregiaren hondakin arkitektonikoak. Tradizioaren arabera Ocariztarren *Torre de Arriba* dorre zaharraren gainean dago aipatu jauregia. Kontserbazio egoera kaskarrean dago, horma gehienak zimentarriaren mailan ditu. Ekialdean baizik ez dira hormak kontserbatzen, lursailaren perimetroko hormarena bete baitute. Eraikinaren ekialdeko hormak sarrera nagusia eta leiho bat kontserbatzen ditu. Gainera, alde honetan, harlanduzko karela duen putzu bat kontserbatu da oso egoera onean, baita putzurako sarrera bera ere. Putzuaren mendebaldean arku handi bat kontserbatzen da, patiotik jauregira sartzeko ateetako bat izango zen bera.

Lursailaren gainerakoa, hegoaldean, espazio zabala eta irekia da, ageriko egiturarik gabea; perimetroko horma batek mugatzen du. Haren hegoaldeko

La parcela 19 de la manzana 9 del polígono 161 situada en Galarreta, dentro del municipio de San Millán constituye la Zona de Presunción Arqueológica nº 16 de dicho municipio con la denominación *Torre de Arriba*.

La totalidad de la finca tiene unos 3.000 m². Al norte de la misma se encuentran los restos arquitectónicos del Palacio de los Velasco, tradicionalmente situado sobre la antigua *Torre de Arriba* de los Ocariz. Su estado de conservación era bastante precario, estando la mayor parte de las estructuras a nivel de cimentación. Tan sólo su parte oriental conservaba sus alzados, ya que ha servido de muro perimetral de la parcela. Conserva la entrada principal y una ventana en el muro este del edificio. Además, en esa misma zona se conserva un pozo con un brocal de sillería en muy buen estado y el acceso al mismo. Justo al oeste del pozo se conserva un gran arco que sería un acceso al palacio desde el patio.

El resto del terreno, en la parte sur, es un espacio amplio y diáfano, sin estructuras visibles, delimitado por un muro perimetral. En su parte más meridional,

muturrean eskailera batzuk daude, egun itsututa dagoen ate baterantz jaisten direnak. Velasco familiak kapera bat eraiki zuen Ama Birjinaren Jasokunde parrokia-elizari atxikirik, eta jauregitik kaperara iristeko atea da arestian aipatu duguna.

Micaela Portillak[46] Ocariztarrek Galarretan izan zituzten bi etxeak ditu aztergai. «Behekoak» herritik kanpora behar zuen, Erdoñara bidean, «la pieza de la torre» deitu finkan, baina ez da haren hondakinik kontserbatzen. «Goikoak» Velascotarren Jauregiaren aurrekoa behar zuen, eta ustez haren azpian behar zuen. Ez da haren hondakinik kontserbatu.

Ondo asko bereizitako bi lanalditan bereizi genuen esku-hartze arkeologikoa

1. lanaldia. Lursailaren hegoaldearen balorazioa

Guztira bost lubaki ireki genituen paraleloan, hego-ekialdetik ipar-mendebaldera, baloratu beharreko gainazala alderik alde igaroz, lursaila ixten duen hormaren hegoaldeko ataletik Velascotarren jauregiaren hondakinen hegoaldeko muturreraino. Honatx lubakien neurriak hegoaldetik hasita: 28 m x 1,3 m, 37 m x 1,3 m, 46 m x 1,3 m, 30 m x 1,3 m eta 13 m x 1,3 m.

2. lanaldia. Lursailaren iparraldearen balorazioa. Jauregiaren barruko aldea

25 m²-ko bi zundaketa aurreikusten ziren esku-hartzeko proiektuan, jauregiaren hego-ekialdean bata eta haren ipar-mendebaldean bestea. Baina zaborrak jasotzean ikusi genuen geruza naturala azaleratu egiten zela jauregiaren ipar-ekialdean, eta beraz, proiektuaren araberako bi zundaketak egin beharrean, jauregiaren barruko azaleraren parterik handiena luze-zabalean induskatzeko erabakia hartu genuen.

Ez da oso luzea dokumentatutako sekuentzia historikoa, Erdi Aroko azken urteetatik gure garaira artekoa alegia, bai ordea garrantzitsua, Behe Erdi Aroan datatutako hondakin batzuek zuzeneko harremana izan baitezakete Ocariztarren *Torre de Arriba* delakoarekin. Aspaldikoenak diren hondakin hauekin batean Velascotarren jauregiari dagozkion hondakinak aztertu ahal izan ditugu sakon. Jauregi hau XVII. mendean eraiki zuten, eta haren atal batzuek artean zutik diraute.

Hala eta guztiz ere, ez genuen data horien aurreko hondakinik aurkitu, eta kontuan harturik oso eremu zabala aztertu dugula, huts egiteko beldurrik gabe esan dezakegu Galarretako alde honetan ez dagoela Goi Erdi Aroko ez eta Erdi Aro Beteko herrixkaren arrastorik.

Hitz gutxitan adierazteko, ondo bereizten diren hiru aldi daude bertan, nahiz eta ezin bazter daitekeen etorkizuneko azterketek besteren bat identifikatu ahal izatea.

[46] Portilla, M. (1978): *Torres y Casas Fuertes en Álava*. 1. liburukia, Gasteizko Vital Kutxa, Vitoria-Gasteiz, 459-466. orr.

hay una estructura con escaleras que descienden a una puerta cegada hoy en día. Se trata del acceso desde el palacio hasta la capilla que la familia Velasco construyó adosada a la iglesia parroquial de Nuestra Señora de la Asunción.

Micaela Portilla[46] habla sobre las dos casas del linaje de los Ocariz en la localidad de Galarreta. La de «abajo» que debía estar a las afueras del pueblo en dirección a Ordoñana, en la finca llamada «la pieza de la torre» y de la que no queda ningún resto. La de «arriba», antecesora del Palacio de los Velasco y supuestamente localizada bajo él. De ella no se ha conservado ningún resto.

La intervención arqueológica se dividió en dos fases de trabajo muy bien diferenciadas:

Fase 1. Valoración de la zona sur de la parcela

Se realizaron un total de cinco largas zanjas paralelas, con orientación sureste-noroeste, que atravesaban la superficie a valorar desde el tramo sur del muro de cierre de la parcela hasta el límite sur de las ruinas del palacio de los Velasco. Las dimensiones de las zanjas, comenzando por la más meridional, fueron: 28 m x 1,3 m, 37 m x 1,3 m, 46 m x 1,3 m, 30 m x 1,3 m y 13 m x 1,3 m.

Fase 2. Valoración arqueológica de la zona norte de la parcela. Interior del palacio

En el proyecto de intervención se reflejaban dos sondeos de 25 m², ubicados, uno en la parte sureste del palacio y el otro en la zona noroeste del mismo. Sin embargo, al retirar los escombros, se pudo observar que el estrato natural afloraba en la parte noreste del palacio, por lo que se decidió cambiar la excavación de los dos sondeos del proyecto por la excavación en extensión de la mayor parte de la superficie interior del palacio.

La secuencia histórica documentada no es muy larga, desde los últimos años de la Edad Media hasta nuestros días, pero sí importante destacando una serie de restos datados en la Baja Edad Media y que pudieran estar relacionados con la Torre de Arriba de los Ocariz. Junto a estos restos más antiguos, se ha podido estudiar en profundidad los correspondientes al palacio de los Velasco, construido en el siglo XVII y parte de los cuales todavía estaban en pie.

Sin embargo, no se ha localizado ningún resto anterior a estas fechas, con lo que, teniendo en cuenta la amplia extensión valorada, se puede afirmar que en esta zona de Galarreta no hay atisbos del poblamiento alto y plenomedieval.

En definitiva, se pueden establecer tres fases bien diferenciadas entre sí, sin renunciar a la existencia de alguna más que los estudios posteriores puedan identificar.

[46] Portilla, M. (1978): *Torres y Casas Fuertes en Álava*. Tomo 1, Caja de Ahorros Municipal de Vitoria, Vitoria-Gasteiz, pp.459-466.

1. aldia. XIV. mendea

Lursailaren iparraldean, leku gorenean, dokumentatutako hondakin sorta batek zehazten du aurreneko aldia, eta haren kronologia, XIV. mendea, kontuan badugu, oso litekeena da hondakin sorta hori estu lotuta egotea Ocariztarren *Torre de Arriba* deiturarekin. Funtsean harrian induskatutako ebaki angeluzuzen handia da (7m x 5 m) (13. UE), alboan munta handiko egitura duena.

Ugari dira egitura bateratu honen inguruko interpretazioen aurreko zalantzak. Hasieran Ocariztarren Dorrearen hondakinak izan zitezkeela uste izan zen. Harenak soilik erdi-soto moduan induskatutako espazioa eta kontserbatu ez duen hormaren zimentarrietako bat lirateke. Baina, egia osoa esateko, jauregiaren azpiko *Torre de Arriba* dorrearen hondakinak hizpide duen dokumentazioa zen aipatu harremana proposatzeko arrazoi nagusia. Aitzitik, hondakin hauen ezaugarriak ez zetozen bat planteatutako aurreneko hipotesiarekin.

Hasteko, iparraldeari atxikiriko hormak zimentarriarena egiteko eraikuntza ezaugarri guztiz bereziak ditu. Hareharrizko bloke handiak dira, segur asko inguruko geruza geologikotik erauziak, elkarren artean batzeko inolako kareorerik gabeak. Bestetik, induskatutako egitura handiaren baitan dago horma hau, albotik ia metro betera. Harrigarria da aipatu hormak mugatutako espazio bat eratu nahi izanez gero hura albo batean jarri ez izana, barruko espazioa ez galtzeko. Izan ere, hormaren eta ebakiaren arteko espazioa bete behar izan zuten harri ugari zituen betegarri buztintsuarekin. Eta azkenik, ebaki handiko hormak ez dira zuzenak, oro har kono-enbor formakoak direla esan behar dugu, ebakiaren barruko alderantz makurtzen direla. Berriro ere, murriztu egingo litzaieke erabilerarako espazioa.

Beraz, baliorik gabe utz zezaketen hondakin hauen eraikuntza ezaugarriek planteatutako aurreneko hipotesia. Baina, zer egitura motak utz ditzake halako hondakinak? Ez da erraz erantzuten. Oraingoz noiz eraiki zuten esan dezakegu halako ziurtasun batez, XIV. mende inguruan, hormaren eta ebakiaren arteko betegarrian dokumentatutako zeramikazko hondakinek iradokitzen duten bezala. Hala eta guztiz ere zaila da aurrerago egitea. Beste daturen bat eskain lezake lursailaren bigarren aldi historikora bildutako ebaki handia amortizatzen duen betegarriak. XVII. mendeko jauregia eraiki zuten garaian osatutako betegarria izango da, eta bertan aipagarria da burdinazko zepen presentzia handia. Baina ez dago zepa hauen presentziaren eta aurreko erabileraren arteko zuzeneko harremana zehazterik, horrelakorik proposatzerik baldin badago, zepak gertuko beste leku batetik ekarriak izan baitaitezke.

Egituraren ikuspuntutik zimentarri bat baino banku jarraitua ematen du, eta beraz baliteke interpretazioak hortik jotzea. Gisa honetan bere zentzua izango zuten haren betagarrian aurkitutako zepek.

Ildo honetatik, interpretazio lerro honekin bat egin dezakete inguruan aurkitutako beste bi ebakik. Koadroa da bata eta zirkularra bestea, biek metro ingu-

Fase 1. siglo XIV

La primera fase viene dada por una serie de restos documentados al norte de la parcela, en su zona más alta, y que por su cronología, siglo XIV, pudieran estar vinculados a la mencionada Torre de Arriba de los Ocariz. Fundamentalmente, se trata de un gran corte rectangular (7m x 5 m) (U.E.13) tallado en la roca con una estructura de entidad en uno de sus laterales.

Las dudas interpretativas sobre esta estructura conjunta son muchas. En principio, se pensó que podían ser los restos de la Torre de los Ocariz. De ella, sólo se tendría un espacio excavado a modo de semisótano y una de las cimentaciones de su alzado no conservado. Realmente, la documentación consultada que hablaba de los restos de la Torre de Arriba bajo el palacio, era la razón fundamental para establecer esta relación. Sin embargo, las características de estos restos no encajaban con la primera hipótesis planteada.

En primer lugar, el muro adosado al lateral norte tiene unas peculiaridades constructivas atípicas para servir de cimentación. Se trata de grandes bloques de arenisca, posiblemente extraidos del estrato geológico cercano, sin ningún tipo de mortero para su unión. En segundo, este muro se encuentra dentro de la gran estructura excavada, a casi un metro del lateral. Resulta extraño que si se quería crear un espacio delimitado por ese muro no se colocara exactamente en su lateral para así no perder espacio interior. De hecho, tienen que rellenar el espacio existente entre el muro y el lateral del corte con un relleno arcilloso con abundantes piedras. En tercero, las paredes del gran corte no son rectas, sino que dentro de su heterogeneidad, pudieran definirse como troncocónicas hacia el interior del mismo. De nuevo, se volvería a perder espacio de uso.

Así pues, las peculiaridades constructivas de estos restos podrían invalidar la primera hipótesis planteada. Ahora bien, ¿qué tipo de estructura puede dejar estos restos? La respuesta no resulta sencilla. Por el momento, sólo es posible conocer con cierta seguridad su momento de construcción en torno al siglo XIV, tal y como lo sugieren los restos cerámicos documentados en el relleno constructivo localizado entre el muro y el lateral del corte. Sin embargo, llegar más allá es muy complicado. Algún dato más puede proporcionar el relleno de amortización del gran corte incluido en la segunda fase histórica de la parcela. Se trata de un relleno posiblemente creado en el momento de construcción del palacio en el siglo XVII y que tiene como una de sus características principales la alta presencia de escorias de hierro. Aunque no se puede establecer una relación directa entre la presencia de esas escorias y su anterior uso, ya que pudieron provenir de otro lugar cercano, sí se puede sugerir su conexión.

Estructuralmente se asemeja más a un banco corrido que a un muro de cimentación, así que quizás su interpretación vaya en esa dirección, con lo que las escorias halladas en su relleno podrían tener sentido.

En este sentido, dos cortes más localizados en las inmediaciones pudieran tener que ver con esta línea de interpretación. Se trata de un corte cuadrado y

ruko neurriekin. Lehenengoa ez zen sakona, eta depositu gorri batez beteta zegoen, suaren zuzeneko eraginaren ondoriozko kolorea zuen depositua zuen beteta. Bigarrena askoz ere sakonagoa zen, eta alboak buztin oso plastiko batez estalita zituen, eta oinean kareore ugari. Era berean bigarren historia aldiko betegarria zuen zulo honek burdinazko zepa kopuru handia eskaini zuen.

Hitz gutxitan esateko, ez dira ezaugarri honetako eraikin batean aurkitzea espero direnak historia aldi honetan dokumentatutako hondakinak, nahiz eta kronologikoki Ocariztarren *Torre de Arriba* dorre zaharrarekin, dokumentazioaren arabera lursail honetan eta jauregiaren hondakinen azpian behar zuen dorrearekin, lotu litezkeen. Hala eta guztiz ere, baliteke dorreari lotutako egiturak izatea, baliteke metala lantzeko prozesuekin zerikusia duen funtzioa betetzeko egiturak izatea.

2. aldia. XVI.-XVII. mendeak

Aurreneko lanaldian induskatutako egiturak amortizatzen dituzten betegarriek hartzen dute bigarren aldi hau. Itxura guztien arabera Velascotarren jauregia eraiki zuten garai berean osatuak dira.

Lehenengo lanaldian ere hizpide izan ditugu betegarri hauek, eta haren baitan berreskuratutako burdinazko zepa kopuru handia azpimarratzen genuen, lehenengo aldi historikoko egituren funtzioari buruzko informazio baliotsua eskain baitzezaketen. XVI.-XVII. mendeetan datatutako zeramikazko hondakin kopuru handia (zeramika arrunta eta beiratua) eta ikatzen presentzia dira beste datu interesgarri batzuk. Amortizatzeko betegarri hauekin batean, lursailaren parte handi batean, nola goiko partean, iparraldean, hala beheko partean, hegoaldean, lur eremua berdintzeko betegarria ageri da, betiere geruza geologikoaren gainean. Eta datu hau garrantzitsua da, agerian uzten baitu nola aztertutako gainazal ia osoan aurkitutako testigantza aspaldikoenak estu lotuta dauden jauregiaren eraikuntzarekin, eta nola ia ez dagoen aurreko aldi historikoko hondakinik.

Gainera aldi honetan kokatu behar dugu Velascotarren jauregia. Micaelak zioen bezala[47], behe berpizkundeko eraikina zen Velascotarren Jauregia, landu gabeko harriz egina, eskantzuetan harlanduak, eta 23 bider 24 metroko oinplano koadroa zuen. Ekialdeko fatxadan zuen sarrera; ate buruduna zen, ondo landutako harlanduez inguratua. Jauregiaren hegoaldean eraikiriko galeria arkupeduna osatuko zuten zirkulu erdiko bost arkuetatik bat kontserbatzen zuen. Eskuhartze honetan bi egitura hauek hauteman ahal izan ditugu, kontserbazio egoera kaskarragoan baina, batez ere sastrakak hondakinak inbaditu dituelako. Gainera, artean zutik dirauten beste elementu batzuk aurkitu ditugu. Alde batetik, harlanduzko putzu bat, landu gabeko harrizko horma batek bitan banatua, eta bestetik lursail osoa inguratzen zuen horma. Bukatzeko, zimentarriaren mailan, aspaldiko jauregiaren hormen hondakinak dokumentatu ditugu, baita haren fun-

[47] Portilla, M. (1977): *Torres y Casas Fuertes en Álava*. 1. liburukia, Gasteizko Vital Kutxa, Vitoria-Gasteiz, 459-466. orr.

otro circular, ambos con unas dimensiones cercanas al metro. El primero tenía escasa potencia y estaba relleno por un depósito rojizo con impresión de haberse creado en un proceso de fuerte contacto con el fuego. El segundo tenía bastante más potencia y tenía como peculiaridades el estar revestido en sus laterales por una arcilla muy plástica y en su base tener gran cantidad de argamasa. El relleno de este agujero circular, también de la segunda fase histórica, proporcionó un gran número de escorias de hierro.

En definitiva, los restos documentados en esta fase histórica si bien por cronología pudieran vincularse con los de la antigua Torre de Arriba de los Ocariz, que según la documentación se localizaba en esta parcela bajo los restos del palacio, no son los que se espera encontrar en un edificio de estas características. No obstante, podía caber la posibilidad de que se tratara de estructuras vinculadas a la torre, quizás con una funcionalidad relacionada con procesos metalúrgicos.

Fase 2. siglos XVI-XVII

La segunda fase está formada por los rellenos de amortización de las estructuras excavadas de la primera fase, que parecen crearse al mismo tiempo que se levantó el palacio de los Velasco.

Sobre estos rellenos ya se ha hablado en la primera fase, destacando la gran cantidad de escorias de hierro que se recuperaron en su interior y que podían dar valiosa información sobre la funcionalidad de las estructuras de la primera fase histórica. Otros datos interesantes son la presencia de carbones y de gran cantidad de restos cerámicos (cerámica común y vidriada) datados en el siglo XVI-XVII. Junto a estos rellenos de amortización, aparece por buena parte de la parcela, tanto en la zona alta, al norte, como en la baja, al sur, un relleno de nivelación siempre encima del estrato geológico. Este dato es importante ya que pone de manifiesto como, prácticamente en toda la superficie valorada, los testimonios más antiguos localizados están directamente relacionados con la construcción del palacio y como no había apenas restos de etapas históricas anteriores.

Además, se incluye en esta fase el palacio de los Velasco. Como señalaba Micaela[47], el Palacio de los Velasco fue una construcción del bajo renacimiento, de mampostería y con sillería en sus esquinales y una planta cuadrada de unos 23 por 24 metros. Tenía su entrada principal por su fachada este; era una portada adintelada, enmarcada en buena sillería. También conservaba uno de los cincos arcos de medio punto que conformarían la galería porticada edificada al sur del palacio. Durante esta intervención se han podido detectar estas dos estructuras, si bien en peor estado de conservación, fundamentalmente a causa de la maleza que ha invadido a los restos. Además, se han puesto de manifiesto otros elementos todavía en pie. Por un lado, un pozo de sillería dividido en dos partes por un muro de mampostería y por otro la tapia que rodeaba toda la parcela. Finalmente, ya en estado de cimentación, se han documentado el resto de muros que configuraban el trazado del antiguo palacio, así como otras

[47] Portilla, M. (1977): Torres y Casas Fuertes en Álava. Tomo 1, Caja de Ahorros Municipal de Vitoria, Vitoria-Gasteiz, pp.459-466.

Induskatutako egitura handia (13.UE), aurreko egiturak ebakitzen dituzten jauregiaren hondakinekin.

Gran estructura excavada U.E.13 con los restos del palacio que cortan las estructuras anteriores.

tzioaren aldaketarekin zerikusia zuten beste egitura batzuk ere.

3. aldia. XVIII.-XIX. mendeak

Jauregiaren arkitekturaren azterketan, kontserbatutako hormetan barne, hainbat eraikuntza aldi bereizten dira, baina oraingoz aldi bakar batera bildu ditugu denak. Oraingoz ezin izan ditugu hondakin guztiak sakon aztertu, eta beraz, ezin ditugu eraikuntza aldiak zehaztu. Hala eta guztiz ere, jauregiaren horma batzuk geroago eginak direla esan dezakegu, segur asko XIX. mendetik aurrera, agian bertako funtzioaren aldaketarekin zerikusia zuten eraldaketekin bat eginez.

4. aldia. XX. mendea

Azken aldiak jauregiaren suntsiketan du abiapuntua, 1920an, sute batek kiskali baitzuen. Gero harrobiaren erabilera eman zioten lursailari, Galarretako herriko beste eraikin batzuk eraikitzeko. Izan ere, geure esku-hartzeari ekin baino lehen zabortegi handi baten itxura zuen lursailak, nahiz eta jauregia izan zitekeenaren hondakinen bat hauteman zitekeen eta larrain gisa erabilitako beste espazio bat ere nabari zitekeen.

estructuras relacionadas con las transformaciones relacionadas con el cambio de funcionalidad del mismo.

Fase 3. siglos XVIII-XIX

En el estudio arquitectónico del palacio, incluyendo los alzados conservados, se diferencian varios momentos constructivos que, por el momento, se ha decidido englobar dentro de una única fase. Hasta ahora, no se han podido estudiar todos los restos en profundidad, por lo que no es posible establecer sus distintas etapas constructivas. Sin embargo, sí se puede ver que algunos de los muros del palacio fueron realizados en fechas más recientes, posiblemente a partir del siglo XIX, quizás coincidiendo con las transformaciones relacionadas con el cambio de funcionalidad del mismo.

Fase 4. siglo XX

La última fase se inicia con la destrucción del palacio en 1920 por motivo de un incendio y con el posterior uso que se dio a esta parcela como cantera para construir otros edificios de la localidad de Galarreta. De hecho, la última visión que se tenía de esta gran parcela, antes de iniciar nuestra intervención, era la de una zona con gran cantidad de escombros, en la que se intuía algún resto de lo que pudo ser el palacio y de otro espacio utilizado como era.

A.23. VALDEGOVÍA / GAUBEA

A.23.1. Astulezko gaztelua (Astulez)

Zuzendaritza: Paquita Sáenz de Urturi Rodríguez
Finantziazioa: Kultura Ministerioa-Arkeologiarako Arabar Institutua

A.23.1. Castillo de Astúlez

Dirección: Paquita Sáenz de Urturi Rodríguez
Financiación: Ministerio de Cultura-Instituto Alavés de Arqueología

The work carried out in this site has revealed that the settlement was founded and developed during the Late Bronze Age / 1st Iron Age, and was later abandoned around the 5th century BC, since no remains from either the 2nd Iron Age or the High Imperial Roman era were found. From the 5-6th century AD, it was resettled, and remained inhabited until the modern era, first in the form of a small village and later as part of the stone castle.

Instituto Alavés de Arqueología / Arkeologiarako Arabar Institutuaren *Ondare Programaren* baitara biltzen da aztarnategi honetan burura eramandako esku-hartze arkeologikoa. Kultura Ministerioak finantzatua da aipatu programa. Esku-hartze honekin aztarnategiaren lodiera estratigrafikoa, bilakaera eta mugak zehaztea bila genuen, baita kronologia ere, historiografiak I. Burdin Arotik Erdi Arora arte luzatzen den denbora tartea planteatzen baitu, azken data hori funtsean gailurrean dagoen gazteluaren presentzian oinarritua. Hain zuzen ere *Gazteluari* zor dio izena leku honek.

Aztarnategiari leku egiten dion muinoa triangelu formakoa da, aldapa gogorrak ditu hegoaldera eta ekialdera eta aldapa leunagoak mendebaldera. Mendebalde honetan terraza artifizial handi batzuk ikus daitezke; ekialdetik mendebaldera egokituta daude, 15 eta 25 metro bitarte zabal dira, eta nola historiaurreko hala historia aldiko egitura antropikoei leku egiteko erabili dira. Esku-hartzeari begira lau terraza edo sektore bereizi genituen, eta horietan eraman genituen burura zundaketak. Beheko aldean, Astúleztik Miomara doan bidearen paraleloan, Erdi Aroko Santa Coloma herrixkatik bereizten duen erreka igarotzen da.

Burura eramandako 11 zundaketatan lortutako emaitzak azalduko ditugu jarraian.

1. eta 3. zundaketak

3. terrazan edo sektorean ireki genituen. Lehenengoa han dagoen terraza handiaren barruan, haren zeiharrean, hegoaldetik iparraldera. 3x1 metroko neurriak zituen, eta gehienez ere 60 cm-ko sakonera maila jo genuen. Landare geruza altxatutakoan betegarri lodi samarra identifikatu genuen, nabarmen makurtzen zen hegoalderantz. Depositu honetan antzinaroan kokatu beharreko zeramikazko material kopuru garrantzitsua identifikatu genuen, horien artean aipagarri *Terra sigillata hispánica tardía* motatakoak, K.o. V.-VI. mendeetan ohikoak ziren gurbil handiko motiboez apaindurik.

Zundaketa honetan lortutako datuek eta zundaketa burututako terraza mugatzen duen lurrezko hormaren presentziak eragin zuten 3. zundaketa egitea. Ho-

La intervención arqueológica llevada a cabo en este yacimiento se enmarca dentro del *Programa Ondare* del Instituto Alavés de Arqueología / Arkeologiarako Arabar Institutua financiado por el Ministerio de Cultura. La finalidad que se perseguía con esta intervención era determinar su potencial estratigráfico, evolución y delimitación, así como su adscripción cronológica correcta, ya que, historiográficamente se había barajado un abanico cronológico desde el Hierro I hasta la etapa medieval, esta última fundamentada en la existencia del castillo roquero que existe en la cumbre, al que debe el topónimo de *El Castillo*.

La colina sobre la que se asienta el yacimiento, presenta forma triangular con fuertes pendientes hacia los lados sur y este, siendo más suaves hacia el oeste. A lo largo de esa pendiente, se pueden observar una serie de grandes terrazas artificiales, distribuidas en sentido longitudinal de este a oeste, oscilando su anchura entre 15 y 25 m, que han servido de asentamiento a las estructuras antrópicas, tanto protohistóricas como de la fase histórica. A efectos de la intervención arqueológica se han definido un total de cuatro terrazas o sectores y es ahí donde se han efectuado los sondeos. Por la zona baja y en paralelo al camino de Astúlez a Mioma discurre un arroyo que le separa del cercano poblado medieval de Santa Coloma.

A continuación presentamos los resultados obtenidos en los 11 sondeos realizados.

Sondeos 1 y 3

Se ubicaron en la terraza o Sector 3. El primero se situó en el interior de la amplia terraza que allí existe, orientado en sentido transversal a aquella, de S a N. Sus medidas fueron de 3x1 m y la profundidad máxima alcanzada fue de 60 cm. Tras la retirada de la cobertura vegetal se localizó un relleno de cierta potencia con fuerte buzamiento hacia el sur. En este depósito se recuperó un número importante de materiales cerámicos adscritos a una fase tardo antigua, entre los que destacan los de *Terra sigillata hispánica tardía* decorada con motivos de grandes ruedas, típica de los siglos V-VI d.C. El material de la fase protohistórica, fue muy escaso.

Los resultados obtenidos en este sondeo y la existencia de un muro terrero delimitando la terraza en la que se abrió, motivaron la apertura del sondeo

Gaztelua. 3. zundaketari leku egin zion terraza artifiziala.

El Castillo. Terraza artificial donde se realizó el sondeo 3.

nakoa aurrenekotik 4 metrotara ireki genuen, ekialderantz, aipatutako terrazaren ertzean, iparraldetik hegoaldera mugatzen duen hormaren perpendikularrean eta aipatu egituraren atal bat barne. 3 x 1,5 metroko neurriak zituen, eta gehienez ere 2,10 metroko sakonera maila jo genuen.

Paldoei leku egiteko zulo batzuk eta dagozkien betegarriak bazter utzita, laborantzarako terraza edo bizitoki baten oinarria prestatzeko harrizko eta lurrezko geruzen metaketaren emaitza da pakete estratigrafikoa, eta haren elementu nagusia alde honetan dagoen lurrezko horma dela esan behar dugu (13 metro luze eta metro bete zabal). Egitura hauen antzinaroan eraikiko zituzten, eta aldi protohistotikoko betegarrien gainean altxa zituzten. Gainera, berreskuratutako zeramikazko materialari esker, C-14ren bidez datatu izan baitira, badakigu K.a. VII. eta VI. mende artekoak direla.

Labur-labur azalduko dugu terraza hau nola eraiki zuten. Jatorria aldi protohistorikoan kokatu behar dugu (Azken Brontze Aroa-I. Burdin Aroa), leku hau populatzen hasi ziren pertsonak lur eremua terrazetan antolatzen hasi zirenean mazelaren aldapa naturala berdintzeko eta bertan etxebizitzen edo beste jardueretarako espazioen instalazioa ahalbidetzeko xedean. Eskema honi dagokio alde honetan dagoen plataforma luzea, zundaketei leku egin dien terrazaren neurriak gainditzen dituena. Geroago, espazio hau berriro ere okupatu zuten aldian, K.o. V. mendetik aurrera, alde hau guztia terrazetan antolatuko zuten lehengo sistema berari jarraiki, eta egun ikus dezakegun horma altxa zuten terrazaren oinarriarena eta mugarena egiteko.

Goiko mailetan, aldi historikoan jada, TSHT eta DSP motatako ontzi zatiak aurkitu ditugu, baita tornuan landutako mahaiko eta sukaldeko ontziak ere. Hauek, lehen ere esan bezala, K.o. V. eta VI. mendeetara garamatzate. Testuinguru hauetan ere Erdi Aroko zeramikaren VI. Multzora biltzen diren zati batzuk aurkitu ditugu.

3, que se ubicó a 4 m del anterior en dirección E, al borde de la terraza ya citada, disponiéndose en sentido perpendicular al muro que la delimita de N a S, e incluyendo en él un tramo de esa estructura. Sus medidas fueron de 3 x 1,5 m., y la profundidad alcanzada se situó en los 2,10 m.

Exceptuando varios agujeros de postes con sus correspondientes rellenos el paquete estratigráfico es fruto de una acumulación de estratos de piedras y tierras para preparar una terraza de cultivo o de base de habitación cuyo elemento principal fue el muro terrero (de 13 m de longitud y 1 m de anchura) que existe en la zona. La construcción de estas estructuras se adscribe a la fase tardo antigua y se dispuso sobre rellenos previos de la fase protohistórica que, además de por el material cerámico recuperado –cerámicas a mano– se ha podido fechar por C-14 entre los siglos VII y VI a.C.

A manera de resumen queremos exponer la evolución constructiva de esta terraza. Su origen lo situamos en esa etapa protohistórica, (Bronce Final-Hierro I) cuando las gentes que empiezan a habitar en este lugar proceden al aterrazamiento del terreno para salvar el desnivel natural de la ladera y posibilitar así la instalación de viviendas o espacios para diferentes actividades. A este esquema corresponde la plataforma longitudinal que existe en la zona y que supera el marco de la terraza donde se han ubicado los sondeos. En una etapa posterior, en la fase de reocupación de este espacio que hemos situado a partir del siglo V d.C. se procede, por el mismo sistema anterior, al terraplenado de la zona construyendo la estructura muraria para que sirva de base y límite a la terraza que ahora podemos contemplar.

En los niveles superiores, de la fase histórica, se han recogido fragmentos de vasijas de TSHT y de DSP además de cerámicas a torno de mesa y de cocina que nos permiten ubicarlos cronológicamente en los siglos V y VI d.C. como se ha señalado. En estos mismos contextos también se han recogido algunos fragmentos adscritos al Grupo VI de la cerámica medieval.

Eraikuntza materialen hondakinek, aldi honetako teila eta adreilu puskek, agerian uzten dute garai hartan eraikin motaren bat nabarmendu zela terraza honetan.

3. terrazako edo sektoreko testuinguru berean ireki genituen 4. eta 5. zundaketak. Helburua, 1. eta 3. zundaketetan hautemandako estratigrafia errepikatzen ote zen egiaztatzea, eta aztarnategiaren balizko muga zehaztea, alde honek bat egiten baitu egun gaztelura doan bidearekin. Bi leku lau bereizi genituen, landarerik gabeak, alde batetik ezponda artifizial batek mugatuak. Geroago jakin genuen, inguruko auzoek eskainitako informazioari esker, ezponda hauek eta beren gaineko plataforma gaztelura eramaten zuen bide zaharrari zegozkiola. Zundaketa bietan lortutako emaitzek berretsi egiten dute alde honetako betegarrien lodiera eskasa. Berreskuratutako material urria Behe Erdi Aroan eta protohistorian kokatu behar da.

2. zundaketa

Gazteluari leku egiten dion harriaren oinean dagoen 4. terrazan edo goiko terrazan eraman genuen burura zundaketa hau.

Bertako estratigrafiaren sekuentzia aztertzeaz gainera, horma egituraren bat ba ote zegoen egiaztatu nahi genuen, gainazalean ugari baitziren harriak. Lodiera apaleko betegarriak altxatuta, batez ere Erdi Aro Beteko materiala zuten betegarriak altxatuta, bi horma egituraren hondakinak geratu ziren agerian. Bata ekialdeko muturreko ertzaren paraleloan luzatzen da, eta ustez terrazako horma da edo goiko terrazari eusteko horma. Bestea L bat eratuz angeluan batutako horma biren hondakinek osatua da. Neurri askotako eta landu gabeko harri karedunak erabili zituzten hura eraikitzeko.

Nagusiki Erdi Arokoa da berreskuratutako materiala, baina badira protohistoriako hondakin batzuk eta TSHT motako zeramikak. Material honetan oinarrituta, guk Erdi Aro Betean edo Behe Erdi Aroan kokatzen dugu multzoa, eta agian gailur harritsuan sendo altxatzen den gazteluarekin lotuta dagoela esan behar dugu.

6. eta 7. zundaketak

2. terrazako bi gune bereizi genituen 6. eta 7. zundaketak egiteko. 6. zundaketa sektorearen erdialdean ireki genuen, mendebalderantz, bertako landarerik gabeko plataforma txiki batean, 1. eta 3. zundaketak egin genituen terrazaren oinetan; bien arteko desnibelak bereizten ditu terraza biak. Terrazaren zeiharrean ireki genuen, eta gehienez ere 2 metroko sakonera maila jo genuen.

Deposiziozko betegarriei dagokiena da erregistratutako estratigrafiaren sekuentzia. Goi erdiko eta behe erdiko mailen artean multzo bien arteko alde nabaria zehazten zuen ebaki edo jarraikitasun soluzioa hauteman genuen. Zulo edo sakonune bat da, etxebizitzei edo baliabideak (azienda, laborantza) ustiatzeko eremuei leku egiteko espazioa prestatzeko eta berdintzeko betegarrian irekia. Berreskuratutako material oparoa zeramikazkoa da, baina oso zati txikitan zegoen.

Los restos de material constructivo, representados por fragmentos de tejas y ladrillos de esas etapas históricas ponen de manifiesto que en esta terraza destacó algún tipo de construcción de esa época.

Los sondeos 4 y 5 se ubicaron en el mismo contexto de esa terraza o Sector 3 con la finalidad de comprobar si se repetía la evolución estratigráfica de los sondeos 1 y 3, además de establecer el posible límite del yacimiento, que en esta zona coincide con el actual camino de acceso al castillo. Se eligieron dos zonas llanas, sin vegetación y delimitadas por un lado por taludes artificiales. Posteriormente, hemos sabido gracias a las informaciones de vecinos de la zona, que estos taludes y la plataforma que sobre ellos existía, correspondían al antiguo camino de acceso al castillo. Los resultados obtenidos en ambos sondeos confirmaron la escasa potencia de rellenos en la zona. El escaso material recuperado corresponde a la etapa bajomedieval y a la fase protohistórica.

Sondeo 2

Para su ubicación se eligió la terraza 4 o superior que se localiza en la base de la masa rocosa sobre la que se asienta el castillo.

La finalidad de su apertura era, no sólo estudiar su secuencia estratigráfica sino también comprobar si existía alguna estructura muraria, dada la abundante presencia de piedras en superficie. Tras la retirada de rellenos de escasa potencia con material principalmente de la etapa medieval en una fase plena, se localizaron restos de dos estructuras murarias. Una de ellas se dispuso en paralelo al cantil del extremo E, y se considera como muro de aterrazamiento o contención de la terraza superior. La otra corresponde a los restos de dos muros unidos en ángulo conformando una L. En su fábrica se han empleado mampuestos de piedras calcarenitas de tamaño variable.

El material recuperado es de predominio medieval, aunque también han estado presentes algunos restos protohistóricos y de TSHT. Basándonos en este material, nos inclinamos a situar el conjunto en una etapa de la Plena o Baja Edad Media, quizás en relación con el castillo que a escasos metros se yergue potente sobre la cumbre rocosa.

Sondeos 6 y 7

Para la ubicación de los sondeos 6 y 7 se eligieron sendos puntos de la terraza 2. El sondeo 6 se ubicó en la zona media del sector hacia el oeste, en una pequeña plataforma sin vegetación que allí existe, al pie de la terraza donde se han abierto los sondeos 1 y 3, de los que les separa el desnivel existente. Se dispuso en sentido transversal a la terraza siendo la profundidad alcanzada de 2 m.

La secuencia estratigráfica registrada corresponde a rellenos deposicionales. Entre los niveles de la mitad superior y los de la inferior se detectó un corte o solución de continuidad que marcaba una clara diferencia entre ambos conjuntos. Se trata de una fosa o depresión abierta sobre un relleno que consideramos como de preparación y nivelación del espacio para asentar bien las viviendas o bien las zonas de explotación de recursos (ganadería, agricultura). La totalidad del mate-

Azken Brontze Aroan-1. Burdin Aroan kokatu behar ditugu. Beheko mailan berreskuratutako fauna hondakinak errediokarbonoaren bidez datatu eta emaitzek berretsi egiten dute aipatutako kronologia.

Aurrekoaren ekialdera, 55 metrotara, ireki genuen 7. zundaketa, terraza berean, landarerik gabeko baina aldapa handiagoko eremuan. Gehienez ere 80 cm-ko sakonera maila jo genuen. Alde hau berdintzeko betegarri batzuen azpian, material higatuak eta gehien-gehienak aldi protohistorikokoak biltzen zituzten betegarrien azpian geruza naturala geratu zen agerian, alde honetan legar hobiak eratua.

Hain zuzen ere zundaketa hauei biei leku egindako terraza da protohistoriako eta historiako finkamenduen arteko hesia; azken hauek goiko terrazetan baizik ez ziren egokitu. Beheko terrazetan aldi honetako material batzuk berreskuratu genituen arren, goiko terrazetatik behera iritsitakoak direla esan behar dugu. Maila aspaldikoenak presente daude, era berean, erdi eta goiko aldean, baina geruza lodienak behe erdialdean daude.

8. zundaketa

1. terrazaren ertzean ireki genuen 8. zundaketa, hegoaldetik inguratzen duten bidearen eta errekaren ondoan, eremu lauago batean, landarerik gabean. Zundaketa egiteko bertako ebaki bat profitatu genuen. Ebaki hau 80. urteetan ireki zuten Miomarako bidea handitzeko xedean. Lurra nahasita zegoenez, erraz topatu genituen zeramikazko zati ez hain txikiak. Izan ere, alde honetan aurkitu genituen miaketa lanetan berreskuratutako zeramika gehienak.

Zundaketa honetan material asko berreskuratzeaz gainera, horma egitura baten hondakinak dokumentatu genituen. In situ atal txiki bat baizik ezin izan genuen aztertu, hiru harrik osatua zen, 45 cm luze eta 42 cm zabal. Balizko horma hau osatuko zuten beste elementuak desagertuak ziren bidea zabaltzeko xedean lur hauek nahasi zituztenerako. Gure lanei ekin baino lehen ebakian argi eta garbi ikus zitezkeen horma honetakoak izan zitezkeen harrizko bloke batzuk. Balizko horma hauek ez ezik habe bati eutsiko zion zutikoa finkatzeko ziri-harriak egiaztatzen du alde honetan barruti bat izan zela. Habeari eusteko egitura kontserbatu egiten dela esan behar dugu.

Horrekin guztiarekin berretsi egiten da aldi protohistorikoko aztarnategiaren lodiera handiena muinoaren beheko alde honetan dagoena, errekatik gertu dauden terrazetan. Ez dago hura babestuko zukeen babes natural nahiz artifizialik, ez dago herrixka honetara iristea galarazten duen trabarik. Arestian deskribatutako eraikuntza egitura horien presentziak, bizitoki motaren batekin lotutako egituren presentziak, baztertu egiten du orain arte planteatutako hipotesia, hots, ez dira goiko terrazetatik etorritako zaborren emaitza alde honetan metatutako betegarriak, bidea handitzeko lur mugimenduen ostean agerian geratu zirenak.

Zeramikari dagokionez, oso zati txikitan aurkitu ditugu esku-hartze osoan zehar, baina zundaketa

rial recuperado (cerámico), muy abundante pero con gran fragmentación, corresponde a la fase del Bronce Final-Hierro 1. Con restos de fauna del nivel inferior se ha realizado una datación radiocarbónica, cuyo resultado confirma esa cronología.

El sondeo 7 se ubicó a 55 m al E del anterior, siguiendo la misma terraza, en una zona sin vegetación pero de mayor pendiente. La profundidad alcanzada se situó en los 80 cm. Tras varios rellenos de nivelación de la zona, con material rodado, en su casi totalidad de la fase protohistórica, se localizó el estrato natural que, en esta zona, estaba formado por gravera.

Precisamente esta terraza donde se asientan ambos sondeos supone la barrera entre los establecimientos protohistóricos y los históricos; estos últimos se asentaron únicamente en las terrazas superiores. Aunque se han recuperado algunos materiales de esta fase en las inferiores, estos corresponden a los aportes rodados de la zona alta. Los niveles más antiguos están presentes también en la parte media alta, pero su mayor potencia corresponde a la zona media baja.

Sondeo 8

El sondeo 8 se ubicó al borde de la terraza 1, junto al camino y arroyo que la delimitan por el sur, en una zona más amesetada y libre de vegetación. Para su realización se aprovechó un corte en este lugar, que fue realizado en la década de los 80 para la ampliación del camino a Mioma. Debido a la remoción del terreno, era frecuente recoger materiales cerámicos de cierta entidad, de hecho la mayoría de la cerámica recuperada en prospecciones procede de esta zona.

En este sondeo, además del abundante material recogido, se han documentado los restos de una estructura muraria, de la que sólo pudimos estudiar, in situ, un pequeño tramo formado por tres elementos pétreos con una longitud de 45 cm y una anchura de 42. El resto de los elementos, que formaban este posible muro, habían desaparecido cuando se produjo la remoción del terreno en la ampliación del camino. Con anterioridad al inicio de nuestros trabajos, eran visibles en el corte varios bloques de piedras que podrían corresponder a estos muros. Además de por estos posibles muretes, la existencia de un recinto en esta zona esta atestiguada por la presencia de una cuña para un pie derecho de sustentación de una viga, del que se conserva la estructura constructiva.

Con todo ello se ha confirmado que la mayor potencia del yacimiento para la fase protohistórica, se ubica en esta parte baja de la colina, en las terrazas cercanas al arroyo, sin que exista una defensa natural y/o artificial que lo proteja, ni siquiera existen impedimentos de accesibilidad que permitan alcanzar este poblado. La existencia de esos restos de estructuras constructivas antes descritos, relacionados con algún tipo de habitáculo, ha hecho descartar la hipótesis que se venía manteniendo que los rellenos acumulados en esta zona, y que eran visibles tras las remociones para la ampliación del camino, eran fruto de escombreras procedentes de las terrazas superiores.

En relación con la cerámica, la fragmentación ha sido la constante en el conjunto de la intervención, pero

honetan piezak handiagoak dira besteetan baino, eta pieza batzuek ontzien perfilak osatzeko aukera ematen digute.

Zeramikaren ezaugarri tipologikoetan oinarriturik Azken Brontze Aroan-I. Burdin aroan kokatu genituen maila hauek, K.a. IX. eta VI.-V. mende bitartean. Zundaketa honetako unitate estratigrafiko bitatik jasotako hezurrezko laginak C-14ren bidez aztertu eta berretsi egin da aipatu datazioa.

9. eta 10. zundaketak

Aztarnategia hego-ekialdetik mugatzeko xedean, finka partikular batzuek okupatzen baitute alde hau, bi zundaketa ireki genituen inguruan. 9. eta 10. zundaketak irekitzeko orduan herriaren hegoaldearen eta lur eremu hauen iparraldean dagoen muinoaren arteko finkak bereizi genituen. Zundaketa bietan, landare geruza altxa eta gero, lurrezko betegarriez osatutako geruzak oso-oso meheak zirela ikusi genuen, bertako buztinezko geruzak zirela.

Zundaketa hauen emaitza negatiboek adierazten digute aztarnategia ez zela alde honetaraino iristen, eta beraz inguru honetan behar duela aztarnategiaren beraren muga.

11. zundaketa (Etxola-hondoa)

Bertako auzo Félix Aguilerak emandako informazioari esker jakin genuen muinoaren ekialdean Brontze Aroko balizko etxola-hondo bat zegoela. Egitura hau bideetako bat egitean geratu zen agerian, eta zehaztu gabeko atal bat kontserbatzen zuen. Ebakian eta oinean metatutako lurretan ikusten zen materiala galtzeko arriskuan zegoenez, jaso egin genuen. Esku-hartze honetan, beraz, ertza garbitu, eroritako lurretatik materiala jaso eta multzo osoaren planimetria egin genuen. 8 metroko luzeran eta 10 eta 40 cm bitarteko lodieran jardun genuen. Alde honetan dokumentatutako hondakinek etxola-hondo deitu egitura osatzen dutela ematen du. Egituraren ezaugarriei erreparatuta erabili dugu izen hori, zulo baten formakoa baita, baina ez du zertan aztarnategian identifikatu dugun aldi aspaldikoena baino lehenagokoa izan. Bertan berreskuratutako zeramika eta protohistoriakoa oso antzekoa dela esan behar dugu.

Gazteluaren inguruko barrutia

Aztarnategi honetan burura eramandako aurreneko miaketa lanetan zehar ikusi genuen nola gazteluaren inguruan, bereziki iparraldean eta oinetan duen terraza edo plataforma handian, bertan dagoen landaretza oparoak ezkutaturik, harrizko egitura batzuk zeuden, a priori gotorlekuarekin berarekin lotu genituenak.

Aztertzen hasi ginenean egitura handi bat zela ikusi genuen, inguruko harri irregularrez altxatutako hormek mugatua. Horma atal batzuk metro bete baino garaiagoak ziren. Perimetroko hormen ezaugarri

en el caso de este sondeo se han recuperado fragmentos de mayor tamaño que en el resto, incluso algunos permiten la restitución de los perfiles de las vasijas.

A partir de las características tipológicas de la cerámica, se habían fechado estos niveles en la etapa del Bronce Final-Hierro I, entre los siglos IX al VI-V a.C. cronología que ha sido confirmada por dataciones de C-14 obtenidas a partir de restos óseos de dos unidades estratigráficas de este sondeo.

Sondeos 9 y 10

Con la finalidad de delimitar el yacimiento por la zona suroriental, ocupada por fincas particulares, se procedió a la apertura de sondeos en ese entorno. Para la ubicación de los sondeo 9 y 10, se eligieron las fincas existentes entre el núcleo urbano, hacia el sur y la zona propiamente de monte que existe al norte de estos terrenos. En ambos sondeos, tras la retirada de la cubierta vegetal se vio que casi no existía potencia de estratos con rellenos de tierra, correspondiendo su composición a la capa arcillosa original.

El balance negativo extraído de estos sondeos conduce a considerar que el yacimiento no se extendió por esta zona y permite establecer en ese entorno el límite del yacimiento.

Sondeo 11 (Fondo de cabaña)

A través de informaciones recibidas por parte de uno de los vecinos de la localidad, Félix Aguilera, tuvimos conocimiento de la existencia de un posible fondo de cabaña adscrito a la Edad del Bronce en la zona oriental del monte, descubierto tras la apertura de uno de los caminos, y del que se conservaba una parte indeterminada. Ante el peligro que corría de perderse el material que se observaba en el corte y en la tierra acumulada en la base, se procedió a su recuperación. La intervención se limitó a la limpieza de todo el cantil y a la recogida del material de la tierra caída, realizando una planimetría de todo el conjunto. Sus medidas fueron de 8 m de longitud por un espesor o altura que osciló entre los 10 y 40 cm. Los restos aquí documentados parecen corresponder con las estructuras denominadas como fondos de cabaña. Hemos utilizado esta terminología por las características de la estructura, en forma de hoyo, sin que necesariamente se deba atribuir a una fase más antigua de las que venimos observando en el yacimiento. El material cerámico recuperado es similar al recogido en la etapa protohistórica.

Recintos del entorno del castillo

En el proceso de las primeras prospecciones realizadas en el yacimiento, en el entorno del castillo, especialmente en la amplia terraza o plataforma que existe al pie del mismo por su lado norte, se había observado, entre la abundante vegetación existente, la presencia de restos de estructuras pétreas, que a priori se relacionaron con la propia fortaleza.

Cuando se procedió a su análisis, se pudo comprobar que se trataba de una gran estructura delimitada por paredes de mampuestos irregulares con piedra originaria de la zona, que en algunos puntos

bertsuak dituen arteko horma batek gela handi bitan banatzen du espazioa. 1. edo ekialdeko barrutia 60 metro luze eta 24 metro zabal da, eta 2. edo mendebaldeko barrutia 59 x 28 metro. Bigarren barruti honetako hego-mendebaldeko angeluan barruko gela bat egon zela ematen du.

Bertako auzoek ez dakite zer funtzio betetzen zuten espazio hauek, baina guk, gazteluko jarduerekin lotzen ditugu a priori, agian laborantza edo abeltzaintza jarduerak garatzeko lursail itxiak izango ziren. Zundaketa bat eginda argitu genezake kontu hau.

Konklusioak

Aztarnategi honetan burura eramandako eskuhartzearen balantzea eskuarki oso positibotzat jo genezake kontuan baditugu lortutako emaitzak. Besteak beste, aukera eman digute ezagutzen genuen aldi protohistorikoari buruzko datuak emendatzeko, eta aukera eman digute ia batere ezagutzen ez genuen Erromanizazioko aldi historiko baten presentzia egiaztatzeko.

Aldi protohistorikoari dagokionez, Azken Brontze Aroari eta I. Burdin Aroari dagokienez, mazelaren luzeran zehar egokitutako terraza artifizialen inguruan antolatutako finkamendua zen. Terraza hauek bizitokiei leku egiteko eta baliabideak (laboreak edo ganaduarentzako nahiz beste jarduera batzuk garatzeko barrutiak) ustiatzeko eremuei leku egiteko balio zuten. Aldi honetan batez ere muinoaren beheko aldea okupatu zuten.

Izaera isolatua zuen habitatean antolatutako bizitokietan landare jatorriko materialak erabili zituzten eraikinetan (buztinez estalitako egurrak), baina soilik 8. zundaketan dokumentatu genituen aipatu estalduraren hondakinak. Bestalde, zutiko bati eusteko harrizko egitura bat dokumentatu genuen.

Oparoa da oso berreskuratutako aldi honetako etxeko tresneria, ia guztia zeramikazkoa, baina oso zati txikitan zeudela esan behar dugu, oso-oso gutxi baitziren 5 cm baino luzeagoak. Soilik eskuz egindako piezak dira, eta askoz ere gehiago dira azal leuna dutenak azal lakarra baino. Aipagarria da eskuarki txikiak diren ontzien presentzia, nola kanpoko aldetik hala barrutik gainazal leunak edo espatulaz berdinduak dituztenak. Ertzak dekoratu gabeak eta dekoratuak, azken hauek hatz markaz dekoratuak. Lepoaren eta gorputzaren artean hatzen bidezko apaingarriak dituzten lokarriak dituzte. Ziztaden bidezko dekorazioak egon badaude, baina urri dira. Hondoei bagagozkie, koparen moldeko oina dutenak dira nagusi. Aldi honetako metalezko objekturik ez genuen aurkitu, 11. zundaketako Etxola-Hondoan identifikatutako eraztun edo eskumuturreko zati bat baino ez. Harrizko eta hezurrezko tresnak benetan gutxi izan ziren. Harrizkoen artean aipagarria da sukarri beltzean landutako karrakagailu bat, eta hezurrezkoen artean espatula batzuk.

Faunaren hondakinen bolumena garrantzitsua da.

Ez genuen leku hau II. Burdin Aroan zehar eta erromanizazioaren aurreneko aldian okupatuta egon zela egiaztatuko lukeen hondakinik erregistratu. K.o. V. mende inguruan berriro ere okupatu zuten eremu

superaban el metro de altura. Un muro medianero de las mismas características de los laterales divide el espacio en dos grandes recintos. Las medidas del Recinto nº 1 o E son de: 60 de longitud x 24 m de anchura. Las del Recinto nº 2 o W son de 59 x 28 m; en el ángulo SW de este segundo recinto parece observarse una división o habitáculo interior.

Los vecinos del lugar no tienen datos sobre la funcionalidad de estos espacios, que a priori relacionamos con actividades del castillo, quizás como fincas cerradas para la actividad agrícola o ganadera. La apertura de algún sondeo podría resolver esta cuestión.

Conclusiones

En líneas generales el balance de la intervención arqueológica realizada en este yacimiento puede calificarse de muy positivo a tenor de los resultados obtenidos. Entre otros han permitido ampliar los datos sobre la fase protohistórica que ya se conocía y descubrir la existencia de una fase histórica, adscrita a la Romanización, de la que apenas se tenía constancia.

En relación a la fase protohistórica, fechada en el Bronce Final y Hierro I, se trata de un asentamiento vertebrado sobre terrazas artificiales dispuestas en el sentido longitudinal de la ladera, que servirían de soporte tanto para las viviendas como para las zonas de explotación de recursos (cultivos o recintos para el ganado y otras actividades). Para esta etapa se ocupa, preferentemente, la zona media baja de la colina.

En las viviendas organizadas en un habitat de carácter disperso, se utilizaron materiales de tipo vegetal para su construcción (a base de maderas recubiertas de barro o manteados) de las que únicamente se han recuperado algunos restos de manteado en el sondeo 8, así como una cuña con estructura pétrea de sustentación de un pie derecho.

El ajuar doméstico de esta fase recuperado, limitado casi exclusivamente a la cerámica, es muy abundante pero también muy fragmentado, siendo escasos los fragmentos que superan los 5 cms de longitud. Modelado exclusivamente a mano, existe amplio predominio de cerámicas de superficie afinada sobre la grosera. Destaca la abundante presencia de vasijas, en general de pequeño tamaño, de superficie bruñida/espatulada, tanto por el exterior como por el interior. Los bordes se presentan lisos y decorados, en este caso con impresiones digitales, ungulaciones. Entre el cuello y cuerpo sobresale la presencia de cordones aplicados con decoraciones impresas. Las decoraciones incisas están presentes pero son escasas. Entre los fondos el predominio se lo llevan los de pie de copa. Ausencia total de objetos de metal, para esta fase únicamente se ha recuperado un fragmento de anillo o pulsera en el Fondo de Cabaña, S-11. Tanto la industria lítica como ósea han sido testimoniales. Entre la primera destaca un raspador sobre sílex negruzco y de la segunda se han recuperado algunas espátulas.

Los restos de fauna están presentes con un volumen importante.

No se han localizado restos que avalen la ocupación de este lugar durante la etapa del Hierro II y la primera fase de la romanización. En torno al siglo V d.C, vuelve a reocuparse el lugar, pero eligiendo para

hau, baina habitata muinoaren goiko aldean egokitu zuten, 3. terrazaren eta gaztelu aldeko eremu lauaren artean. Garai hartako eraikuntza egiturarik berreskuratu ez badugu ere, bertan identifikatutako adreiluek, inbrizeek eta teilek haien presentzia iradokitzen digute. *Terra sigillata hispánica tardía* (ondo landua), zeramika gris galiarra (*DSP*) eta sukaldeko zeramika arrunta da aldi historiko honi dagokion material arkeologikoa.

Erdi Aroko zeramikazko materialak Erdi Aro Betean kokatu behar ditugu, X. eta XIII. mende bitartean. Ez ditugu asko identifikatu a priori aldi honetakoak diren mailak aztertu ez ditugulako, gazteluaren inguruko eta haren barruko mailak aztertu ez ditugulako. Aldi historiko honetan kokatu behar ditugu berreskuratutako burdinazko objektu urriak.

Erdi Aroko garai berekoa da harriaren gaineko Astúlezko gaztelua, izen bereko herriaren gainean nabarmen altxatzen dena, alde hau alderik alde igarotzen duten komunikabideak mendean hartuz. Hijarko Dukearena izan zen gaztelua, Gesaltza Añanako jaurerrian. Astúlezko herrixka 1290. urtean bildu zen Gesaltza Añanara. Tradizioak IX. eta XVII. mende bitartean kokatzen du gazteluaren kronologia.

Amaiera gisa esan dezagun Gazteluari leku egiten dion muinoa epizentro duen alde honetan herrixka bat izan zela, habitatean gorabeherak eta aldaketak bizi izan zituena, baina beti haren inguruan eta egungo Astúlez herriraino. Hori agerian geratu da ondoko Santa Coloma herrian garatutako esku-hartzean, liburuki honetan bertan argitaratutako txostenean ikusten den bezala Erdi Aroan kokatzen baita bera.

la instalación del habitat la mitad superior de la colina, entre la terraza 3 y la base más amesetada de la zona donde se ubica el castillo. Aunque no se han recuperado estructuras constructivas de este momento podemos avanzar su existencia basándonos en la presencia de ladrillos, imbrices y tégulas. El material arqueológico asociado a esta etapa histórica corresponde a fragmentos de producciones de cerámica *Terra sigillata hispánica tardía* (de buena factura), cerámica gris gálica (*DSP*) y cerámica común de cocina.

Los materiales cerámicos medievales, se pueden adscribir a la etapa pleno medieval, en torno a los siglos X al XIII. No han sido muy abundantes, principalmente porque no se ha trabajado en los niveles que a priori se adscriben a esa fase, situados en el entorno inmediato del castillo y en su interior. A estos momentos históricos corresponden los escasos objetos de hierro recuperados.

En esta misma etapa de la Edad Media destaca la presencia del Castillo roquero de Astúlez, que se erige dominante sobre la cumbre del poblado del mismo nombre, controlando las vías de comunicación que cruzan la zona. Esta fortaleza perteneció al Duque de Hijar, al que correspondía el señorío de Salinas de Añana, villa a la que fue incorporada la aldea de Astúlez en el año 1290. La cronología tradicionalmente atribuida al mismo se sitúa entre los siglos IX y XVII.

A modo de epílogo se puede decir que esta zona, que tiene como epicentro la colina donde se asienta El Castillo, mantendrá un núcleo poblacional con altibajos y cambios en el habitat, pero siempre en el entorno inmediato, hasta la actual localidad de Astúlez. Este hecho ha quedado de manifiesto con la intervención desarrollada en el cercano poblado de Santa Coloma, que se adscribe a la Edad Media como se verá en su correspondiente estudio incluido en este mismo volumen.

P. Sáenz de Urturi Rodríguez; M.A. Berjón Lobato

A.23.2. **Santa Coloma (Astulez)**

Zuzendaritza: Paquita Sáenz de Urturi
Finantziazioa: Kultura Ministerioa-Arkeologiarako Arabar Institutua

A.23.2. **Santa Coloma (Astúlez)**

Dirección: Paquita Sáenz de Urturi
Financiación: Ministerio de Cultura
Instituto Alavés de Arqueología

The work carried out in Santa Coloma has confirmed the existence in this area of a fairly large village with numerous constructions and a medieval cemetery. It has been dated as belonging to the High Middle Ages (8 -13th century AD).

Arkeologiarako Arabar Institutuaren Ondare Programara, Kultura Ministerioak finantzatutako programara, biltzen da Astúlezko Santa Coloma aztarnategian burututako esku-hartze arkeologikoa. Esku-hartze honek aztarnategiaren egiazko garrantzia, mugak, lodiera estratigrafikoa eta kontserbazio egoera zehaztea zuen xede, baita haren kronologia zehaztea ere.

Astúlez herriaren mendebaldean dago Santa Coloma, mesetaren formako muino baten gainean. Mui-

La intervención arqueológica en el yacimiento de Santa Coloma de Astulez se enmarcaba en el Programa Ondare del Instituto Alavés de Arqueología, financiado por el Ministerio de Cultura y tenía como objetivo determinar su entidad real, potencial estratigráfico, grado de conservación y delimitación, así como su adscripción cronológica correcta.

Santa Coloma situado al oeste del pueblo de Astúlez, se asienta sobre una colina amesetada con

noa malkartsua da ekialdetik eta iparraldetik, baina aldapa leunagoak ditu hegoaldean. Gainazala terrazetan antolatua du, eta txaradi trinkoak hartzen du dena. Landareen artean harri metaketa handi eta ugari bereizten dira, eta eraikitako egituren hondakinak direla egiaztatu genuen. Izan ere, miaketa lanetan zehar guztira 35 egitura multzo dokumentatu genituen. Hauek hiru kategoriatan bereizi genituen:

- Eraikin izaerako egiturak: Herri metaketak, zegozkien eraikinen lur jotzetik etorriak.
- Lurrezko terraza artifizialak. Lur eremuari eusteko eta berdintzeko terraza moduko espazioak, herrixka osoan barrena banatuak.
- Ikatz ustiategiak. Landare ikatza egiteko ikaztegien hondakinak. Hegoaldeko terrazetan daude ongien kontserbatuak.

Hainbat zundaketa estratigrafiko egin genituen multzo hauek aztertzeko xedean. 1., 2. eta 3. zundaketek emaitza negatiboak eskaini zituzten arkeologiaren ikuspuntutik, gainazaleko mailen azpian harria agertzen baitzen.

Askoz ere interesgarriagoak izan ziren 12.-20. Egitura Multzoaren esparruan irekitako zundaketan lortutako emaitzak. Herrixkaren erdi hegoaldean kokatzen da egitura multzo hau. Hegoalderantz leunkiro jaisten den terraza handi bat da, beherago duen espazio koadro handi bati bidea emateko ebakitzen dena. Iparraldeko eta ekialdeko muturretan hainbat horma ilara bereizi genituen, eta hain zuzen ere horma horien lur jotzeek eragin zuten harri metaketa handia. Egitura hauei buruzko informazio gehiago biltzeko xedean, zundaketa bat egin genuen horma biek bat egiten duten puntuan, terrazaren parterik garaienean, haren zeiharrean.

Laburbilduta, aldi ezberdinetako horma egitura bi eta zeramika sorta garrantzitsu bat aurkitzeko aukera emateaz gainera, 19. Egitura Multzoa, iparraldetik hegoaldera luzatzen den terraza, Erdi Arokoa dela egiaztatzeko parada eskaini zigun zundaketa honek. XII.-XIII. mendeetan abandonatu zuten, baina ez dakigu noiz eraiki zuten. Eta ezin izan genuen 19. Egitura Multzoaren eta 20.aren artean dagoen harremana zehaztu, nahiz eta gure ustez biak garai berekoak diren eta alde hau berdintzea bilatuko zuten.

Eraikin izaerako egiturak deituen artean, hiru eremutan egokitutako egitura bana bereizi genuen: 01. Egitura Multzoa, 09. Egitura Multzoa eta 22. Egitura Multzoa, iparraldean, ekialdean eta hegoaldean, hurrenez hurren.

1. Egitura Multzoa (01. EM)

Aztarnategiaren iparraldean dago, harri metaketa handiari leku egiten zion espazio irekian. Harri metaketa honek, multzo gehienetan ez bezala, ez zion tumulu baten tipologiari erantzuten, baizik eta gainazal ia erabat lauari. Burura eramandako lanek aukera eman zuten eraikin handi baten hondakinak dokumentatzeko.

Oinplano angeluzuzen irregularreko eraikina da, gutxi gorabehera 200 m² dituena, hainbat espaziotan

fuertes escarpes por el este, norte y, en menor medida, por el sur. Su superficie se presenta aterrazada y cubierta por una densa vegetación de monte bajo, entre la que se observan numerosas acumulaciones de piedras a modo de grandes morcueros que se ha comprobado corresponden a los restos de estructuras edificadas. Entre ellas, los trabajos de prospección documentaron un total de 35 conjuntos estructurales, que se han clasificado en tres categorías:

- Estructuras edificatorias: Amontonamientos de piedras, consecuencia del derrumbe de las construcciones de las que formaron parte.
- Terrazas artificiales terreras. Espacios aterrazados para la sujeción y nivelación del terreno, distribuidos por todo el poblado.
- Explotaciones de carbón. Restos de carboneras para la obtención de carbón vegetal Las mejor definidas se localizan en las terrazas de la zona sur.

Con la finalidad de estudiar estos conjuntos se realizaron varios sondeos estratigráficos. Los sondeos 1, 2 y 3 fueron de escaso interés arqueológico, ya que bajo lo niveles superficiales aparecía la roca.

De mayor interés fueron los resultados obtenidos en el sondeo situado en el marco del Conjunto Estructural 19-20. Este conjunto de estructuras se ubica en la mitad sur del poblado. Se trata de una gran terraza que desciende suavemente hacia el sur, donde se corta para dar paso a un amplio espacio cuadrangular a nivel inferior. En los extremos norte y este, se detectaba la presencia de varias alineaciones de muros, cuya destrucción había provocado un gran derrumbe. Para recabar más información sobre estas estructuras se decidió realizar un sondeo que se ubicó en la zona de confluencia de ambas, en la parte más alta de la terraza y en sentido transversal a ella.

En resumen, además del descubrimiento de dos estructuras murarias de fases distintas y un importante lote de material cerámico este sondeo ha servido para comprobar como la C.E.19, terraza con orientación N-S, es de cronología medieval. El abandono se dio en los siglos XII-XIII, mientras que no ha sido posible conocer el momento de su construcción. Tampoco se ha podido comprobar la relación existente entre las C.E.19 y C.E.20, aunque suponemos que serían coetáneas y que ambas tendrían la función de nivelar la zona.

En el marco de lo que hemos definido como estructuras edificatorias, se eligieron tres de ellas, ubicadas en distintas áreas: la *C.E-01*, *C.E-09* y la *C.E-22*, al norte, al este y al sur respectivamente.

Conjunto Estructural 1 (C.E-01)

Se ubica al norte del yacimiento, en un espacio abierto en el que existía una importante acumulación de piedras que no respondían a una tipología tumular, como ocurre con la mayoría de los conjuntos, sino a una superficie prácticamente plana. Los trabajos realizados permitieron documentar los restos de una gran construcción.

Se trata de un edificio de planta rectangular irregular con una superficie cercana a los 200 m², distribuidos en

banaturik, iparraldekoa nabarmenduz multzoaren esparrua gainditzen duelako. Hegoaldean ere barrutia hainbat gelatan banatzen dela dokumentatu genuen.

Antzeko eraikuntza ezaugarriak dituzte eraikin hau mugatzen duten hormek: denek zuzenean hartzen dute atseden landutako arrokaren gainean. Harriak landu gabeak dira beti. Gehien-gehienak kalkarenitazko harri xabalak dira, neurriz ertainak, baina badira, hegoaldean batez ere, neurri handiagoko blokeak. Lehorrean egokituak dira, bi orritan banatuak, eta betegarria harri txikiagoekin osatua, harriok batzeko inolako kareorerik gabe. Hormak altxatzeko garaian material galkorrak erabiliko zituzten, buztinez estaliak; ipar-ekialdean irekitako zundaketan estaldura horren hondakinak erregistratu genituen. Segur asko hormei lotuta egongo ziren zutikoei eusteko bi ziri-harri erregistratu genituen. Era berean material galkorrez osatuta edukiko zuen teilatua, erakinetik behera etorritako paketean ez baikenuen teila bakar baten arrastorik aurkitu.

Hona hemen hormen neurriak: Mendebaldekoa 13,50 metro luze da eta 0,65 eta 0,70 metro bitarte zabal, eta gehienez ere 0,70 metroko garaiera kontserbatu du. Iparraldekoa 11,53 m luze da eta 0,60 eta 0,65 m bitarte zabal, eta 0,70 metroko garaiera kontserbatu du; ekialdetik luzatu egiten da eraikinaren ekialdeko muturraren garaiera gainditzen duen horma atxikirik. Bi hormak elkartuta 14,20 m luze dela esan behar dugu. Ekialdeko horma 9,70 metro luze da, eta ez da alde horren muturreraino iristen, barruko barruti handi biak bereizten duen arteko hormak bitan banatzen baitu eraikina. Barrutia ekialdetik ixten duen hormarekin bat eginda (horma hau geroago eraiki zuten) 14,70 metro luze da. 0,65 eta 0,90 metro bitarte lodi da, alde honetan aldapa txiki bat egonik lur eremuaren presioari aurre egin behar baitzion. Hegoaldeko horma 10,30 m luze da, eta 0,60 eta 0,75 m bitarte lodi, eta 0,35 metroko garaiera kontserbatu du. Egitura honi perpendikularrean atxikita landu gabeko harriz egindako trenkada bat eta zutiko bati eusteko ziri-harri bat dokumentatu genituen. Hegoaldeko hormak eta mendebaldekoak bat egiten duten lekuan egongo zen eraikineko sarrera nagusia.

Multzoaren barru alde osoa harri naturalean induskatua da, hots, zoru harritsua prestatu egin zuten bertan gainazal homogeneoa lortzeko. Espazio honetatik jasotako harri xabalak eta blokeak hormak eraikitzeko baliatu zituzten. Beraz, eraikin erdi harpetar batez mintza gintezke. Eraikinaren barruko arroka induskatu eta berdindu egin zuten zoruarena bete zezan, eta kanpoko aldeak jatorrizko kotari eutsiko zion, eraikinaren perimetroko hormak hartan bermatu zitezen; gisa honetan soto antzeko bat eratuko zen. Zoruaren prestakina agerian geratzen da hegoaldeko eta ipar-ekialdeko gela txikietan. Gela hauetan zoruak estaltzen zituzten betegarriak altxa eta jaso egin genituen.

Aipagarria da eraikinaren ipar-mendebaldeko angeluko zundaketan bereiziriko betegarria. Betegarri hau zuzenean egokitzen da landutako arrokaren gainean, eta suaren zuzeneko eraginpean egon zela agerian uzten duten arrastoak ageri ditu. Betegarrian hormen estalduraren hondakinak bereizi genituen, batzuek horvarios espacios, destacando el de la zona norte que supera el marco del conjunto. En la zona sur también se ha descubierto su distribución interior en varios recintos.

Los muros que delimitan este edificio presentan unas características constructivas similares: todos ellos se apoyan directamente en la roca trabajada. La mampostería siempre es la fábrica utilizada. En su mayoría son mampuestos de lajas de calcarenita de tamaño mediano, aunque también hay, sobre todo en la parte sur, algún bloque de mayores dimensiones. Se hallan colocados a canto seco distribuidos en dos hojas con relleno de piedras de menor tamaño en el interior y sin ningún tipo de argamasa que los trabe. Para su levante se debieron utilizar materiales perecederos revestidos por manteados de barro de los que se ha recuperado una importante muestra en el sondeo realizado en el ángulo NE. Se han localizado también dos apoyos para pies derechos, posiblemente asociados a este fin. Igualmente materiales perecederos debieron constituir su techumbre, ya que no se ha documentado ningún fragmento de teja en el derrumbe del edificio.

Las medidas de los muros son: El muro W tiene una longitud de 13,50 m, una anchura de entre 0,65 y 0,70 m, y una altura máxima conservada de 0,70 m. El muro N una longitud de 11,53 m, una anchura de 0,60-0,65 y 0,70 m de altura; por el E se prolonga mediante un añadido superando al resto del límite oriental del edificio y cerrando el conjunto con otros dos muros menores. La longitud resultante de la unión de ambas paredes es de 14,20 m. El Muro E tiene una longitud de 9,70 m no alcanzando la totalidad de ese lateral al quedar dividido el edificio por el muro divisorio que separa los dos grandes recintos interiores. El añadido posterior de un muro que cierra el recinto por este lado le da una longitud total de 14,70 m. La anchura se sitúa entre los entre 0,65 y 0,90 m para evitar las presiones del terreno, que en este punto presenta una ligera pendiente. El muro S tiene una longitud de 10,30 m, una anchura de entre 0,60 y 0,75 m, conservándose su paramento en una altura de 0,35 m Adosándose de forma perpendicular a esta estructura se ha documentado un tabique de mampostería y un apoyo para pie derecho. La zona de unión de este muro S con el muro W parece corresponder con el acceso principal al edificio.

The study of a 16m stretch of municipal vaulted piping found at the rear of the premise located at 60 Correría Street. The rear section has provided important information regarding the existence of two original properties on the narrow plot, which seem to have been turned into a single building at the end of the 19th century, when the vaulted piping was built. Three different phases were distinguished.

Hedegile kaleko 60. zenbakiko lokalaren gibelaldean leiho bat irekitzean erreten gangadun baten 16 metroko atala agerian geratu zenez, haren azterketa arkitektonikoa egin eta haren barruan 2 metro luze zen zundaketa bat induskatu genuen.

La aparición de un tramo de caño abovedado de 16 m de longitud al abrir una ventana en la trasera de local situado en la calle Correría nº 60, provocó un estudio arquitectónico del mismo y la excavación de un sondeo de 2 m de longitud en su interior.

Aztertutako erreten ataleko paretetan hiru aldi bereizi genituen, baita lokalaren gibelaldea ukitzen duen aurreko beste aldi bat ere.

1. aldia: Geruza naturala prestatzeko lanak bertan bi eraikin eraikitzeko

Oinplano angeluzuzeneko arrokan egindako bi ebaki dira, lokalaren gibelaldean irekiak, iparraldean bata (23. UE) eta hegoaldean bestea (24. UE).

3. UEko (iparraldea) arteko hormaren, 2. UEko gibelaldearen (ekialdea) eta 1. UEko trenkadaren (hegoaldea) arteko espazioa hartzen du iparraldeko ebakiak. Bertikalak dira harrian egindako ebaki hauetako paretak, eta logikoa denez, lauak dira oinak. 23 UEko ebakiaren eta beraz, iparraldeko aurreko higiezinaren zabalera, 4,40 metrokoa izango zen, eta luzera, eskuhartze honetan aztertu ez badugu ere, egungo higiezinarenaren parekoa izango zen, hau da ia 21 metrokoa. Iparraldean, 2. UEko gibelaldean, 80 eta 100 zentimetro bitarte sakon zen ebakia, baina hegoaldera egin ahala murriztu egiten zen haren sakonera.

Hegoaldeko ebakiak ere (24. UE) oinplano angeluzuzena du, eta 1. UEko trenkadaren (iparraldea), 2. UEko gibelaldearen (ekialdea) eta 25. UEko lokalaren hegoaldearen (hegoaldea) arteko espazioa hartzen du. Aurrekoa baino apur bat txikiagoa da. Ez da 3 metro baino zabalagoa, eta lokal osoan zehar luzatuko zen Hedegile kaleraino. Guztiz bertikalak dira paretak, eta gibelaldean, 2. UEko hormak atseden hartzen duen lekuan, metro bete baino sakonxeagoa da.

Egungo lokalaren aurreko higiezin biak eraiki baino lehen aipatu bi higiezinen barruko harria beheratu zuten zorua berdintzeko xedean, eta kalearen kota bertsuan utzi zuten hura. Ukitu gabe utzi zuten, hau da, jatorrizko kotan, eraikinaren perimetroko hormei eusteko eta hura finkatzeko atala. Honenbestez gainditu zuten muinoko mazelan eraikitzeak sorrarazten zuen altueren inguruko arazoa.

2. aldia: Udal erretenaren eraikuntza

Udal erreten gangadunaren eraikuntzak zehazten du aldi hau. Aztertutako erreten atala (4. UE) gutxi gorabehera 16 metro luze da, 1,20 eta 1,40 metro bitarte zabal eta 1,85 metro (goiko aldean, iparraldean) eta 1,55 metro (beheko aldean, hegoaldean) bitarte garai. Egitura gangadun handia da, landu gabeko harriz egina, harriak kareorez eta lurrez batuak. Kareorearekin batera ageri den lurrezko betegarrian aro modernoko zeramika arruntaren eta zeramika beiratuaren zatiak aurkitu genituen, XIX. mendekoak, mende horretan datatu baitira historikoki gisa honetako erreten gangadunak. Pareta atal asko ore zurixka batez igeltsuztaturik daude (20. UE). Zementuzko geruza mehe batek (5. UE) eratzen zuen zorua, zuzenean kareharrizko geruza geologikoaren gainean egokiturik. Zoru hau modu erregularrean jaisten zen iparraldetik hegoalderantz, isuria Bakardade Kantoirantz bideratzeko. Era berean, eraikinetako zorrotenetatik zuzenean erretenera husten ziren jatorrizko hustubide batzuk (17., 18. eta 19. UEak) dokumentatu ahal izan genituen.

Se han distinguido tres fases diferentes en los alzados del tramo de caño estudiado y una fase anterior que afecta a la parte trasera del local.

Fase 1:Trabajo del estrato natural para construcción de dos edificaciones

Se trata de dos cortes realizados en la roca de planta rectangular, situados en la parte trasera del local, ubicados uno al norte (U.E.23) y otro al sur (U.E.24)

El situado al norte ocupa el espacio entre el medianil U.E. 3 (norte), la trasera U.E.2 (este) y el tabique U.E.1 (sur). Las paredes de estos cortes en la roca son verticales y la base, como es lógico, plana. La anchura del corte U.E.23, y por lo tanto del inmueble norte anterior sería de 4,40 metros, y su longitud, aunque en esta intervención no se ha estudiado, sería la del inmueble actual, casi 21 metros. El rebaje tenía una profundidad en su parte norte, junto a la trasera U.E.2, de entre 80 y 100 cm, reduciéndose a medida que avanza hacia el sur.

El corte localizado al sur (U.E.24) también tiene planta rectangular y ocupa el espacio entre el tabique U.E.1 (norte), la trasera U.E.2 (este) y el muro sur del local U.E.25 (sur). Sus dimensiones son algo menores que el anterior. Su anchura apenas rebasa los 3 m y su longitud abarcaría todo el local hasta la calle Correría. Las paredes son completamente verticales con una profundidad en la zona trasera, donde se apoya el muro U.E.2, de algo más de un metro.

Como paso previo a la construcción de dos inmuebles anteriores al actual del local, se rebajó la roca en toda la parte interior de dichos inmuebles para allanar el suelo y dejarlo a una cota parecida a la de la calle Correría. Se deja sin alterar, es decir a su cota original, la parte de apoyo de los muros perimetrales del edificio para su asentamiento. De esta forma, se resolvía el problema de alturas que originaba construir en la ladera de la colina.

Fase 2: Construcción del caño municipal

Esta fase está definida por la realización del caño municipal abovedado. El tramo de caño estudiado (U.E.4) tiene una longitud cercana a los 16 m, con una anchura que oscila entre 1,20 y 1,40 m y una altura que también varía entre los casi 1,85 de su zona más alta, en el tramo norte y apenas 1,55 m de la más baja, en el tramo sur. Se trata de una gran obra abovedada, realizada en mampostería trabada con un mortero de argamasa con partes de tierra. En el relleno de tierra que acompañaba al mortero de argamasa se localizaron varios fragmentos de cerámica común moderna y cerámica vidriada moderna que pudieran perfectamente datarse en el siglo XIX, momento en el que históricamente se han datado este tipo de caños abovedados. Buena parte de sus paredes estaban revestidas con un enlucido blanquecino (U.E.20). Finalmente, su suelo estaba realizado con una fina capa de cemento (U.E.5) que iba directamente sobre el estrato geológico de cayuela. Este firme tenía una inclinación muy regular desde el norte hacia el sur para la salida del vertido hacia el Cantón de la Soledad. Asimismo, se han podido documentar algunos sumideros originales (U.U.E.E.17, 18, 19) que desaguaban directamente en el caño desde las bajantes de los edificios.

Hedegile kalea, 60. Aztertutako erretenaren oinplanoa, paretak eta sekzioa. Aldiak.

Correría, 60. Planta, alzado y sección del tramo de caño estudiado. Fases.



Erreten hau eraikinaren gibelaldeko horma (2. UE) eraiki zuten garai berean eraikiko zuten, horixe uzten baitute agerian bien arteko harreman estratigrafikoek, horma biak teilen modura egokitzen baitira, eta haiek eraikitzeko teknikak, biak landu gabeko harriz eginak, harriak kareorez eta buztinez batuak, baitira. Gainera, eraikuntza ezaugarri bat eta bera partekatzen dute obra biek. Izan ere, biak ala biak egokitzen zaizkio geruza geologikoari behar bezala finkatzeko xedean.

Obra berri honek agerian zegoen aurreko erretenaren lekua hartu zuen. XIX. mende amaieran eraiki zuten, segur asko Hedegile kaleko 60. zenbakiko egungo eraikina eraiki zuten une berean.

Erreten honen eraikuntzak Hedegile kaleko atal honen osoaren birmoldaketa ekarriko zuen berekin batera. Izan ere, agerikoa da egungo eraikinak jatorria segur asko Erdi Aroan duten aurreko higiezin bien lekua hartzen duela, eta 1. UEko egungo trenkada lehendik eraikin independente biak bereizten zituen arteko horma dela. Hala eta guztiz ere, egungo horma beste egiturak, erretena barne, eraiki zutenean eraiki zutela ematen du, orube biak bakar batera biltzeko erabakia hartu zutenean.

3. aldia: Aro garaikidean erretenean egindako berritze lanak

Aldi honetara biltzen dira aro garaikidean erretenean burura eramandako berritze lan batzuk. Jatorrizko egituran hamaika konponketa eta birmoldaketa egin dira, eta ondorioz, aldatu egin da leku batzuetan haren egokiera. Hau batez ere iparraldeko atalean ikus daiteke, gangaduna izan beharrean lauza handi batzuek (12. UE) estaltzen baitute, aurrekoa behera etorriko baitzen (11. UE). Era berean, erretenaren beste atal bat ere barruko alderantz mugitua izan dela ikusten da, eta jatorrizko harrizkoaren ordez adreiluzko ganga eraiki zutela (10. UE) erregistrorako ebakia (9. UE) egin eta gero. Eta bestelako ekintza xumeago batzuk hautematen ere dira, hodiak sartzeko erretentxoak, paretetako igeltsuztatzeak eta beste batzuk.

El caño parece realizarse al mismo tiempo que el muro trasero del edificio (U.E.2), tal y como así lo demuestran sus relaciones estratigráficas, ambos muros se imbrican, y su técnica constructiva, en ambos casos mampostería unida con un mortero de argamasa y barro. Además, las dos obras comparten una misma característica edilicia. Esta no es otra que el de la adecuación del estrato geológico para su buen asentamiento.

Esta nueva obra sustituyó al antiguo caño al aire libre y se realizó a finales del siglo XIX, posiblemente a la vez que se edificó el propio inmueble actual de Correría 60.

La construcción del caño supondría una remodelación total de este tramo de la calle Correría. De esta forma, parece evidente que el edificio actual se corresponde con dos inmuebles anteriores, probablemente originales medievales, y que el tabique actual U.E.1 fue anteriormente la medianera que separaba dos edificios independientes. Sin embargo, el muro actual parece que se construyó a la vez que el resto de estructuras, incluida el caño, es decir, cuando se decide unificar los dos solares en uno sólo.

Fase 3: Distintas reformas acontecidas en el caño en época contemporánea

En esta fase se incluyen distintas reformas que se han efectuado en el caño en época contemporánea. La obra original ha sufrido un gran número de reformas y reparaciones, lo que ha provocado que en algunas zonas su disposición original se haya modificado. Esto, sobre todo, es visible en el tramo norte, donde su techumbre, en vez de estar rematada en bóveda, se cierra con grandes losas (U.E.12), posiblemente a causa de su derrumbe (U.E.11). También se puede observar el desplazamiento que ha sufrido un buen tramo del mismo hacia el interior, en la sustitución con una bóveda de ladrillos (U.E.10) a la original de piedra, tras la creación del corte para el registro (U.E.9) o diversas acciones más pequeñas como la introducción de diversas tuberías, el encalado de las paredes, etc.

4. aldia: Gure garaian erretenean egindako berritze lanak

Bereizitako azken aldia da, eta gure garaian erretenean egindako berritze lanek zehaztua da. Horien artean aipagarri dira erretenaren atal honetako itxiturak. Bakardade Kantoiaren hegoaldean dago bata (21. UE) eta iparraldean bestea (22. UE), higiezinen mugaraino iritsi gabe. Bestalde, lokalari argia emateko argizuloa ireki zuten. Azkenik, erretenaren zoruaren gainean utzitako azken betegarria aipa daiteke.

Fase 4: Distintas reformas acontecidas en el caño en época actual

Es la última fase detectada y viene dada por las últimas reformas efectuadas en el caño ya en época actual. Entre ellas, sobresalen los cierres de este tramo del caño. Al sur con el Cantón de la Soledad (U.E.21) y al norte (U.E.22), sin coincidir con el límite de ningún inmueble. Además, toda la obra de apertura del lucernario para dar luz al local. Finalmente, se puede incluir el último relleno de amortización depositado sobre el suelo del caño.

M. Loza Uriarte; J. Niso Lorenzo

A.24.1.2 **Hedegile kalea, 102**

Zuzendaritza: Paquita Sáenz de Urturi Rodríguez
Finantziazioa: Electra Vitoria, S. Coop.; Arabako Foru Aldundia

A.24.1.2. **Correría 102**

Dirección: Paquita Sáenz de Urturi Rodríguez
Financiación: Electra Vitoria, S. Coop.; Diputación Foral de Álava

Monitoring of the work to install a lift. Few results were found, with the exception of some ceramic material from the 15th to 19th centuries.

Eraikin honetan igogailu bat instalatzeko proiektua aurkeztu zutenez, lanen gaineko kontrol arkeologikoa eraman genuen burura. Eskasak izan ziren lortutako emaitzak, zeramikazko pieza batzuk baizik ez baikenituen berreskuratu.

Igogailuari leku egiteko hutsunean, behe oinean, hainbat betegarri bereizi genituen alderantzizko estratigrafian. Betegarri hauetan kronologikoki XV. eta XIX. mende bitartean datatu daitezkeen zeramika zatiak dokumentatu genituen.

Higiezin honi leku egin dion eraikin multzoaren eraikuntza XX. mendearen bigarren erdialdearen hasieran gauzatu zen, eta orduan nahasi zituzten jatorrizko mailak.

La existencia de un proyecto para la instalación de un ascensor en este edificio favoreció la realización del correspondiente control arqueológico de las obras. Los resultados obtenidos han sido escasos limitándose a la recuperación de material cerámico.

En el hueco para el ascensor, abierto en la planta baja, se localizaron varios rellenos en estratigrafía invertida con material cerámico que cronológicamente se puede fechar entre los siglos XV al XIX.

La construcción del conjunto edificatorio del que forma parte este inmueble corresponde a comienzos de la segunda mitad del siglo XX, momento en el que se produjo la alteración de los niveles originales.

P. Sáenz de Urturi Rodríguez

A.24.1.3. **Aiztogile kalea, 45 eta 47. Gibelaldeko patioak**

Zuzendaritza: José Manuel Martínez Torrecilla
Finantziazioa: Gasteizko Hirigune Historikoa Era Integralean Eraberritzeko Agentzia

A.24.1.3. **Cuchillería, 45 y 47. Patios traseros**

Dirección: José Manuel Martínez Torrecilla
Financiación: Agencia para la Revitalización Integral de la Ciudad Histórica de Vitoria-Gasteiz

The intervention involved the carrying out of two sondages to assess the condition of the old town wall and the archaeological potential of the plots, located in the context of the second period of expansion in 1256, during the reign of Alfonso X. A series of deposits were found, along with structures dating from (according to the stratigraphic study and the materials recovered) the 18th century. We were not able to study the whole stratigraphy, although we did reach natural rock in the foundations of the wall.

Aiztogile kaleko 45. eta 47. zenbakietako lursailak Gasteizko lehenengo harresitik kanpora daude, baina

Las parcelas de los números 45 y 47 de la calle Cuchillería se ubican al exterior de la primitiva muralla de Vi-

zuzeneko harremana dute harekin, 1256. urtean, Alfontso X.aren agintaldian, burura eramandako harresia handitzeko bigarren obraren testuingurura biltzen baitira.

Aztertutako orubeetako potentzial arkeologikoa eta estratigrafiaren lodiera ebaluatzea eta harresiaren kontserbazio egoera aztertzea zituen helburu eskuhartze honek, orube hauek uki ditzaketen etorkizuneko esku-hartzeei begira neurri zuzentzaile egokiak zehaztu nahi baikenituen.

Aipatutako lursailen gibelaldean, harresiaren oinetan, balorazioa egiteko bi zundaketa ireki genituen, 2x3 metrokoa 47. zenbakiko orubean eta metro bete x 2 metrokoa 45. zenbakikoan, biak ekialdetik mendebaldera.

Hona hemen 1. zundaketan bereiziriko estratigrafia: zaborrez osatutako gainazaleko betegarriaren azpian adreiluzko eraikin baten suntsiketari lotutako depositu batzuk dokumentatu genituen. Partzialki kontserbatzen zituen zoladuraren atal batzuk eta paldoei leku egiteko zulo batzuk. Betegarri batek berdintzen zuen zoru hau, eta haren azpian putzu itsu baten atal bat dokumentatu genuen, harresiaren oineko geruza naturala ebakitzen zuena, harresiaren zimentarriaren mailatik behera. 2. zundaketan hormigoizko gainazal bat geratu zen agerian ekialdetik mendebaldera luzatzen zen harrizko horma bat estaltzen zuen betegarriaren gainean. Zolata baten hondakinak estaltzen zituen beste betegarri baten gainean hartzen zuen atseden aipatu hormak.

Zundaketa bakoitzeko estratigrafian 9 jarduera bereizi genituen, baina ezaugarri komun batzuk dituztenez hiru aldi handitan banatu ditugu guk.

Erdi Aroa

Harresia bera alde batera utzita, ez genuen hiribildua gotortzeko unearekin zerikusia izan zezakeen Erdi Aroko beste aztarnarik aurkitu. Harresiaren kanpoko aldean XVIII. mende osteko kronologia duen estratifikazioa bereizten dugu, Unitate Estratigrafiko bakoitzaren ezaugarriak eta haietako bakoitzean berreskuratutako materiala aintzakotzat hartuta. Hala eta guztiz ere ezin dira kronologian kokatu 2. zundaketan bereizitako zolata eta 1. zundaketan aurkitutako putzua bezalako elementuen eraikuntza aldiak, kasu hauetan ezin izan dugulako estratigrafia osoa induskatu eta berreskuratutako materialak soilik abandonatu zuten unea zehazteko modua eskaintzen duelako.

XVIII.-XIX. mendeak

Zundaketa bietan lehenengo erabilerarako maila bat erregistratzen dugu. Azpian sute batek eragindako suntsipena eta adreiluzko egitura baten eraispena bereizten dira 1. zundaketan, aurreko elementuetan eragindako ebakia eta ondorengo betegarria 2. zundaketan. Ondorengoen artean eraikitzeko jarduera bereizten da berriro ere, zundaketa bietan harrizko eta adreiluzko hormak geratu baitziren agerian. Egitura hauek desmuntatu eta 1. zundaketan metala urtzeko tarteko jarduera bat bereizi eta gero, zundaketa biak ageri dira buztin zurixkako betegarriekin amortizaturik, buztinekin batean hartxintxar geruza edo laranja koloreko kareorearekin eta ikatzen presentzia oparoa duen geruza mehea. Depositu hauek kontserbazio egoera txarrean dauden arren eta irregularrak diren arren, zoru baten balizko hondakinak izan daitezkeela esan behar dugu.

toria-Gasteiz, en relación directa con ella, dentro del contexto de la segunda ampliación de la fortificación de la villa, realizada en 1256 durante el reinado de Alfonso X.

El motivo de la intervención fue la evaluación del potencial arqueológico de los solares intervenidos y el espesor de la estratificación, así como del estado de conservación de la muralla, para establecer las medidas correctoras apropiadas que se deberán determinar de cara a futuras intervenciones que afecten a estos solares.

Se realizaron dos sondeos valorativos, a los pies de la muralla, en los patios traseros de las parcelas mencionadas con unas dimensiones de de 3x3 metros en el solar del número 47 y de 2x1 metros con orientación este-oeste en el solar del número 45.

La estratificación del Sondeo 1 constaba de un relleno superficial de escombros, bajo el que se documentaron una serie de depósitos asociados al derrumbe de una edificación de ladrillo, de la que se conservaban parcialmente los restos de la pavimentación con una serie de agujeros de poste. Nivelando este suelo había un relleno bajo el que se documento parte de un pozo ciego que afectaba al estrato natural a los pies de la muralla, por debajo de su cimentación. El Sondeo 2 constaba de una superficie de hormigón sobre una serie de depósitos que cubrían un muro de piedra con orientación este-oeste. Este muro estaba apoyado sobre otro relleno que cubría los restos de un empedrado.

La estratigrafía de cada uno de los sondeos se sintetizó en 9 actividades con una serie de características comunes que nos permitieron establecer una periodización común.

Época medieval

No se han identificado otras evidencias de época medieval relacionadas con el momento de fortificación de la villa que la propia muralla. Al exterior de la misma encontramos una estratificación con cronología posterior al siglo XVIII, en base a las características de cada Unidad Estratigráfica y al material recuperado en cada una de ellas. Sin embargo, no es posible situar cronológicamente la construcción elementos como el empedrado del Sondeo 2 o el pozo del Sondeo 1, ya que en estos casos no se ha podido excavar hasta agotar la estratigrafía y el material hallado solo permite establecer su momento de abandono.

Siglos XVIII-XIX

En ambos sondeos nos encontramos con un primer nivel de uso tras el que se producen sendas actividades de destrucción mediante un incendio y el derribo de una estructura de ladrillo en el Sondeo 1 y un corte en los elementos previos seguido de un relleno de amortización en el Sondeo 2. En actividades posteriores se recupera la actividad constructiva evidenciada en ambos sondeos mediante la construcción de muros de piedra y ladrillo. Tras el desmonte de estas estructuras y una actividad intermedia de fundición en el Sondeo 1, ambos sondeos aparecen amortizados con rellenos de arcillas blanquecinas asociadas a una capa de gravilla o argamasa anaranjada y a otra fina capa caracterizada por la abundante presencia de carbones. A pesar del mal estado de conservación y la irregularidad de estos depósitos, ambos se han identificado como posibles restos de un suelo.

Ezkerretara, harresiaren atalaren kanpoko aurpegiaren irudia Aiztogile kaleko 45. zenbakiko orubean. Eskuinetara harresi atalaren kanpoko aldea 47. zenbakiko orubean.

A la izquierda imagen de la cara exterior de la muralla en el solar del número 45 de la calle Cuchillería. A la derecha la parte exterior del tramo de muralla en la parcela del número 47.

XX. mendea

Geroago bi horma eraiki zituzten espazio bietan. Horma hauek trikoteez eginak dira, antzeko ezaugarriak dituzte morfologiari eta garaierari dagokienez, eta biek dute lursailak bereizteko egitekoa. Bukatzeko esan dezagun garai berekoak direla lur eremua berdintzeko gainazaleko jarduerak.

Konklusioak

Planteatutako helburuak betetzeko aukera eman dute balorazioa egiteko zundaketak induskatzeko lanek.

Hasteko, estratigrafiaren batez besteko lodiera neurtu dugu, kareharrizko arrokaraino iritsi gara, harresiaren egiturak atseden hartzen duen arrokaraino. Eta horrexek zehazten du etorkizuneko esku-hartzeetan elementu honen egonkortasuna kaltetu gabe sakondu daitekeen kota gorena.

Bigarrenik, hiria fundatu aurreko harresia bera dokumentatu dugu, eta, zimentarriaren eta horma atal batzuen tipologiari erreparatuta egiaztatu egin dugu patioetako gibelaldeko hormaren gutxienez beheko errenkadak aipatu harresiari dagozkiola.

Gainera, XVIII. mende hasieratik gure garaira arteko kronologiak eskaintzen dituen okupazioaren sekuentzia dokumentatu dugu. Denak, agian 1. Zundaketan erregistratutako zolata izan ezik, etxebizitzako espazio osagarriak edo artisautza jarduerak garatzeko espazioak direla ematen du, azken horien artean aipagarri brontzea urtzeko tailerra. Jarduera hauetatik aspaldikoenak harresiaren zimentarriaren kotatik behera daude, baina mazela higatuko zenez agerian egongo zen noizbait, eta ondorioz galdu egin dira, harresitik hurbil, hura eraikitzeko uneari dagokion estratifikazioa eta Erdi Aroko alde honetako zabaldegiari dagokion okupazioa.

Mazelaren dinamika berezkoa izanik, harresiaren ondoko estratigrafiaren galera honek ez du zertan mazelaren behe aldeko eta ekialdeko aldi honetako aztarna guztiak desagerrarazi, eta baliteke artean kontserbatzen diren eraikinetan atal harpetar batzuk egotea (sotoak, paldoei leku egiteko zuloak).

Siglo XX

Posteriormente se construyen en ambos espacios dos muros realizados con ladrillos macizos de similares características en cuanto a su morfología, sus cotas y su ubicación como elementos de separación de parcelas. Finalmente, las actividades más superficiales de nivelación del terreno, son igualmente equiparables.

Conclusiones

Las labores de excavación de los sondeos valorativos han permitido cumplir los objetivos planteados.

Primero se ha evaluado el espesor medio de la estratificación, llegando hasta la roca caliza, donde se asienta la estructura de la muralla. Esto nos marca una cota máxima de rebaje para futuras actuaciones sin afectar a la estabilidad de ese elemento.

En segundo lugar se ha documentado la propia muralla prefundacional, confirmando que al menos las hiladas inferiores del muro zaguero de los patios, dada la tipología de su cimentación y de parte de su alzado, corresponde a este elemento.

Además se ha documentado una secuencia de ocupación de la zona que ofrece cronologías desde el siglo XVIII hasta la actualidad. Todas ellas, excepto quizás el empedrado correspondiente al Sondeo 1, parecen corresponder a espacios auxiliares a la vivienda o a actividades artesanales, entre las que destaca la existencia de un taller de fundición de bronce. Las más antiguas de estas actividades se sitúan a cotas inferiores a la cimentación de la muralla, que en algunos momentos debió encontrarse expuesta como fruto de la erosión de la ladera, lo que ha supuesto la perdida, junto a la muralla, de la estratificación correspondiente al momento de construcción de la misma y la ocupación correspondiente a la ampliación medieval de la villa en este lado.

Esta perdida de estratificación junto a la muralla no implica necesariamente, por la propia dinámica de la ladera, la completa desaparición de la evidencias de estos periodos en la parte más baja de la ladera, hacia el este o la posibilidad de que existan partes rupestres de las construcciones (sótanos, agujeros de poste) que todavía se conserven.

J. Manuel Martínez Torrecilla; B. Renedo Villarroya; V. Martínez Ferreras

A.24.1.4. **Aiztogile kalea, 92**

Zuzendaritza: Miguel Loza Uriarte
Finantziazioa: Gasteizko Hirigune Historikoa Era Integralean Eraberritzeko Agentzia

A.24.1.4. **Cuchillería, 92**

Dirección: Miguel Loza Uriarte
Financiación: Agencia para la Revitalización Integral de la Ciudad Histórica de Vitoria-Gasteiz

Intervention which uncovered structures dug into the bedrock, probably dating from the 13th century, possibly predating the expansion of the town by Alfonso X of Castile in 1256.

Gasteizko Aiztogile kaleko 92. zenbakiko orubean higiezin berri bat eraiki behar zutenez, ezinbestean eraman behar izan genuen burura esku-hartze arkeologiko bat. Orubearen azaleraren gutxi gorabehera %70ean induskatu genuen, batez ere haren ekialdean, eta logistika kontuak tarteko ukitu gabe utzi genuen fatxadaren parte bat. Hondeamakina baten laguntzaz altxa genituen gure garaiko hormigoizko eta terrazozko zoruak.

Orube honetako sekuentzia historikoa hasierako unetik, segur asko Alfontso X.ak 1256. urtean auzo berri hau fundatu aurretik, gure garaira arte luzatzen da. Ondo bereizten diren lau aldi zehaztu daitezke, baina ez dugu baztertzen etorkizuneko azterketek besteren bat identifikatzeko aukera.

1. aldia

Arrokan landutako egitura bik, itxura batean batera funtzionatzen duten egitura bik, osatzen dute aurreneko aldia. Orubearen ekialdean identifikatutako ebaki handi bat da (10. UE), nahiz eta hego-mendebaldeko izkina eta hegoaldeko alboaren parte bat baizik ezin izan genituen dokumentatu, indusketa eremuaren mugatik kanpora gelditzen zelako gainerakoa. Ebakia 20 zentimetro sakon da mendebaldean, baina 10 cm baino ez ekialdean. Oina irregularra du nahiz eta joera horizontala erakusten duen, eta paretak zeiharrean ditu, joera bertikala erakusten badute ere. Interpretatzen zail da ez dugulako haren forma ezagutzen, ez eta jatorrizko neurriak ere. Erdialdean, hegoaldeko alboarekin bat etorrita, oinplano zirkularreko zulo bat zegoen (13. UE), metro bete inguruko diametroarekin eta egituraren goiko partetik kontatzen hasita 65 zentimetroko sakonerarekin. Paretak zeiharrean ditu, eta oina laua. Guk uste dugu silo txiki bat dela.

Egitura hauek biak Alfontso X.ak 1256. urtean Gasteizko hiribildua muinoaren ekialderantz handitzeko xedean abiarazitako ekimenaren aurrekoak direla ematen du. Bi dira hipotesi hau iradokitzen duten datuak. Batetik, haiek amortizatzen dituen betegarria dugu, orubearen bigarren okupazio aldira biltzen delako eta behin-behinean bada ere XII.-XIII. mendeetan datatu delako, eta bestetik, ebakiaren beraren ezaugarriak ditugu. Bigarren puntu hau ongi argudiatu beharra dago. Induskatutako egituraren neurriak handiegiak dira fundazio osteko higiezinen baten barruko aldean egoteko; izan ere, alboetako bat Aiztogile kaleko 94. orubearekiko arteko hormaren azpitik galtzen da, eta horma hori modernoa bada ere itxura guztien arabera bat letorke Erdi Aroko jatorrizko hormarekin. Gainera haren norabideak ez du bat egiten kale berriarenarekin, eta haren morfologia ere ez zaio higiezin baten barruan aurki litekeenari egokitzen.

La construcción de un nuevo inmueble en el solar nº 92 de la calle Cuchillería de Vitoria-Gasteiz necesitaba la preceptiva intervención arqueológica. Se excavó en extensión cerca de un 70 % del solar, concretamente la zona este del mismo, dejando la parte de la fachada sin tocar por cuestiones logísticas. La retirada de los suelos actuales de hormigón y terrazo se realizó por medio de una excavadora.

La secuencia histórica de este solar se extiende desde su etapa inicial, posiblemente antes de la fundación de esta nueva barriada por parte de Alfonso X en 1256, hasta nuestros días. Se pueden establecer cuatro fases bien diferenciadas entre sí, sin renunciar a la existencia de alguna más que los estudios posteriores puedan identificar.

Fase 1

La primera fase está representada por dos estructuras trabajadas en la roca y que parecen funcionar de forma conjunta. Se trata de un gran corte (U.E.10) localizado en la zona oriental del solar y del cual sólo se ha podido localizar la esquina suroeste y parte del lateral sur, estando el resto fuera de los límites de la excavación. La profundidad oscila entre los 30 cm de la zona oeste hasta los apenas 10 cm de la parte este. La base es algo irregular pero tiende a la horizontalidad y las paredes son oblicuas, aunque tienden a la verticalidad. Su interpretación es complicada, ya que se desconoce tanto su forma como sus dimensiones originales. En su parte central, coincidiendo con el lateral sur, se encontraba un agujero de planta circular (U.E.13) de cerca de 1 m de diámetro y unos 65 cm de profundidad desde la parte alta de la estructura. Las paredes son oblicuas y el fondo es plano. Se ha interpretado como un pequeño silo.

Ambas estructuras parecen anteriores a la tradicional ampliación de la villa de Vitoria hacia la parte oriental de la colina por el rey Alfonso X en el año 1256. Dos son los datos que sugieren esta hipótesis. Por un lado, su relleno de amortización, englobado en la segunda fase de ocupación del solar y fechado provisionalmente en el siglo XII-XIII y por otro, la propias características del rebaje. Este segundo punto requiere de una detallada argumentación. Las dimensiones de la estructura excavada son excesivamente grandes para que estuviese al interior de algún inmueble posterior a la fundación, de hecho uno de los laterales se queda por debajo del muro medianero con el solar de Cuchillería 94, que aunque moderno, parece que podía corresponderse más o menos con el original medieval. Además, su orientación no coincide con la de la nueva calle y su morfología no se adecúa a lo que se espera encontrar dentro de un inmueble.

Honenbestez berretsi egiten da muinoaren alde honetan, Gasteizko lehenengo harresitik kanpora, habitat bat izan zela.

2. aldia

Funtsean aurreko aldian arrokan induskatutako ebaki handia eta siloa amortizatzen dituen betegarriak, era berean orube osoa berdintzeko balio izan zuen betegarriak, osatzen du 3. aldia. Goiko partean, mendebaldean, funtsean kareharriak berak dituen hutsarteak betetzen ditu, eta beheko aldean, ekialdean, goratu egiten du zoruaren kota, mazelako orografian bertan baitaude desnibel edo kota alde handienak. Betegarrian zeramika eta fauna hondakin kopuru esanguratsua berreskuratu genuen. XII. edo XIII. mendeetan datatzen dugu behin-behinean.

Zoruaren maila berdintzeko betegarri honetaz gainera, eta segur asko une kronologiko berekoa izango da orubearen hegoaldeko lehenengo arteko hormaren zimentarria (19. UE). Haren atal txiki bat baizik ezin izan genuen dokumentatu, eta haren ekialdea, erretenetik gertu dagoen aldea, Aiztogile kaleko 90. zenbakiko egungo arteko hormarekin bat datorrela esan behar dugu. Landu gabeko harriz egindako egitura da, harri batzuk buztin garbiko oreez batuak eta beste batzuk harea ugari zuen kareore kolorez horiak batuak. Eta hari buruzko beste datu gutxi batzuk baino ez ditugu. Aipagarria da inguruko buztin oso garbiaren metaketa handia, horma honen eraikuntzan adobezko edo lurrezko adreiluak erabili zituztela iradokitzen baitu.

Aldi honetako lekukotasunak urriak diren arren, nahikoak dira orube honetan Erdi Aroko higiezinaren hondakin batzuen presentzia egiaztatzeko. Gainera, berau eraiki aurreko aztarnen presentzia egiaztatzen ere dute. Segur asko Alfontso X.aren garaian, hiribildua muinoaren alde honetatik handitzen hasi zirenean, amortizatu egingo zituzten aurreko zurezko egiturak, eta gure garaira arte iritsi den hirigintza eredua itxuratuko zen.

3. aldia

Higiezinean egiaztatutako bigarren eraikuntza aldiari zegozkien hondakin batzuek zehazten dute 3. aldia. Agian tarteko eraikuntza aldi bat egongo da, baina indusketa lanetan zehar ez dugu horrelakorik dokumentatu. Alde batetik, azken aldikoak ez bezalako teknika ageri duten zimentarriak ditugu, egungo higiezinaren arteko hormaren zimentarriak. Izan ere, honetan kareore kolorez laranja erabili zuten, eta Aiztogile kaleko 90. zenbakiko eraikinarekiko arteko horma, hegoaldekoa, orubearen barrura gutxi gorabehera 30 zentimetrotara dago. Gainera, bi zapata dokumentatu genituen orubearen erdialdean, hauetan ere harriak kareore kolorez laranjak batuak.

Baliteke aldi honetakoak izatea balizko putzu bat eta zoruaren maila berdintzeko betegarri bat, baina azken hau orubeko puntu jakin batzuetan baizik ez da kontserbatu.

Zaila da aldi hau kronologian zehazten, haren amaiera eta 4. aldiaren hasiera baitira datatu daitezkeenak. Soilik betegarri batek eskaini du datatzeko moduko zeramika, eta itxura guztien arabera XVIII. eta

De esta manera, se confirmaría que existía un hábitat anterior fuera de las murallas originales de Gasteiz en esta parte de la colina.

Fase 2

La fase 2 está constituida principalmente por el relleno que amortiza al gran rebaje y al silo excavados en la roca de la fase anterior y que también sirve para nivelar todo el solar. En la zona alta, al oeste, fundamentalmente rellena los huecos que tiene la propia cayuela y en la zona más baja, al este, eleva la cota de suelo, donde existe más desnivel por la propia orografía de la ladera. En él se ha recuperado un significativo número de restos cerámicos y faunísticos. Su datación provisional es del siglo XII o XIII.

Además de este relleno de nivelación y posiblemente del mismo momento cronológico, está la cimentación del muro medianero sur original del solar (U.E.19). Sólo se ha podido documentar un pequeño tramo del mismo, prácticamente coincidiendo con el medianil actual con Cuchillería 90, en su parte más oriental, cerca de la zona del caño. Se trata de una estructura de mampostería unida con un mortero en ocasiones de arcilla muy limpia y en otras de una argamasa amarilla con mucha arena. Pocos más son los datos sobre él, únicamente resaltar la gran acumulación de arcilla muy limpia en sus inmediaciones que hace pensar en la presencia de ladrillos de adobe o bien de tapial en la factura de este muro.

A pesar de ser escasos los testimonios de esta fase, son suficientes para confirmar la presencia en el solar de algunos restos originales del inmueble medieval que además certifican la existencia de evidencias anteriores a la construcción del mismo. Posiblemente, en el momento que, en época de Alfonso X, se decide ampliar la villa por esta parte de la colina, se amortizarían las estructuras lígneas anteriores y se trazaría el urbanismo que ha llegado hasta nuestros días.

Fase 3

La fase 3 se corresponde con una serie de restos que pertenecieron a la segunda fase constructiva atestiguada en el inmueble. Tal vez exista alguna fase constructiva intermedia pero no se ha podido documentar durante el transcurso de la excavación. Por un lado, se encuentran las cimentaciones de los muros medianeros del inmueble actual, que tienen una técnica diferente a los de la última fase. Se definen fundamentalmente por el uso de un mortero de argamasa anaranjada y porque la medianera sur con Cuchillería 90 se sitúa unos 30 cm al interior del solar. Además, se han documentado dos zapatas constructivas en la parte central del solar, también definidas por la presencia de la misma argamasa anaranjada.

De esta misma fase, aunque sin poder afirmarse rotundamente, existe un posible pozo y un relleno de nivelación que sólo se ha conservado en algún punto concreto del solar.

Es difícil situar cronológicamente esta fase, ya que lo que se puede datar es su final y el comienzo de la fase 4. Únicamente un relleno ha dado material cerámico que se puede datar y lo que parece es que las

XIX. mendeetan erabilera aldian zeuden aurkitutako egiturak. Segur asko eraitsi berria den eraikinaren aurretik orubea okupatu zuen eraikinetik kontserbatutako hondakinak dira.

4. aldia

Oraintsu arte zutik egon den eraikinaren egiturek osatzen dute 4. aldia. Aldi honetan aipagarria da eraikin berria eraiki aurreko zorua berdintzeko betegarria, XIX. mendekoa edo XX. mende hasierakoa. Aurreko aldiko putzua estali eta zoruaren kota goratzen du orube osoan. Aldi honen baitan kokatu behar dira orain 30-40 urte burututako lan batzuk, esku-hartze arkeologikoan identifikatutako lan batzuk. Aipagarri dira eraikinaren behe oina azkenekoz berritu zutenean PVC hodi bati leku egiteko irekitako erretena eta orubearen erdialdean induskatu zuten erdisotoa, azken honek zorua berdintzeko betegarri aspaldikoena nahasi baitzuen.

estructuras encontradas estuvieron en uso durante los siglos XVIII-XIX. Posiblemente son los restos que quedaron del edificio que ocupó el solar con anterioridad al que se acaba de derribar.

Fase 4

La fase 4 la forman las estructuras del edificio que ha estado en pie hasta la actualidad. Destaca en esta fase el relleno de nivelación para la construcción de la nueva edificación, que puede datarse a finales del siglo XIX o principios del XX y que rellena al pozo de la fase anterior y eleva la cota del suelo en todo el solar. Dentro de esta fase, hay que remarcar que existen una serie de actividades actuales, de apenas 30-40 años, registradas en la intervención. Destacan una zanja para una tubería de PVC, realizada con motivo de una última reforma de la planta baja del edificio y la excavación de un semisótano en la parte central del solar que afectó al relleno de nivelación más antiguo.

M. Loza Uriarte; J. Niso Lorenzo

A.24.1.5. **Aiztogile kalea, 99 eta 103**

Zuzendaritza: Agustín Azkarate Garai-Olaun
Finantziazioa: Santa Maria Katedrala Fundazioa

A.24.1.5. **Cuchillería, 99 y 103**

Dirección: Agustín Azkarate Garai-Olaun
Financiación: Fundación Catedral Santa María

Archaeological intervention in buildings 99 and 103 of Cuchillería Street, prior to their renovation. The results were of scarce or no archaeological interest.

Gasteizko Santa Maria Katedrala Zaharberritzeko Plan Zuzentzailea gauzatzeko orduan tenpluan kaltea eragiten zuten patologien diagnosi xehea egin genuen, eta berau inguratzen duen hiri multzoa era integralean berreskuratzeko eta hari halako balioa emateko agindu batzuk proposatu genituen. Katedralaren ekialdeko sektoreari atxikiriko eraikinez ari gara, zehatz esateko, Aiztogile kaleko 85. zenbakitik 103. zenbakira arte iristen diren zenbaki bakoitietako etxeek osatutako etxadiaz.

Eraikin horietako batzuk, zehatz esateko Aiztogile kaleko 87.-93. orubeak, azterketa arkeologikoen xede izan ziren aurreko urteetan –zaharberritzeko lanei ekin baino lehen–. Lan haietan iritsitako ondorio nagusia izan zen egun kontserbatzen diren eraikinak ezin zitezkeela izan XIX. mendea baino lehenagokoak, XIX. mendean okupatu baitzituzten modu masiboan orube hauek. Itxura guztien arabera orube batez ere librea izan zen XIX. mendera arte Santa Mariaren eta Aiztogile kalearen arteko espazioa, eraikin handiago edo txikiago batzuk izango zituen (baratzeak, biltegiak), eta perimetroa ixteko horma batek mugatuko zuen, seguru asko harrizko horma batek.

Testuinguru honetan berean eta Aiztogile kaleko 99. eta 103. zenbakietako eraikinak birgaitzen hasi

Durante la ejecución del Plan Director para la Restauración de la Catedral de Santa María de Vitoria-Gasteiz se efectuó una detallada diagnosis de las patologías que afectaban al templo y se dispuso un conjunto de prescripciones para la recuperación integral y puesta en valor del conjunto urbano en el que lo rodeaba. Es el caso de las edificaciones adosadas al sector oriental de la catedral. Concretamente la manzana de casas conformada por los números impares del 85 al 103 de la C/ Cuchillería.

Algunas de estas edificaciones ya fueron objeto de estudio arqueológico –previo a las labores de restauración– en años anteriores, concretamente los solares de la C/ Cuchillería 87-93. La principal conclusión extraída de estos trabajos fue que los edificios conservados en la actualidad eran obras cuya antigüedad no podía ser llevada más allá del siglo XIX, momento en que el solar fue ocupado masivamente. Todo apunta, en efecto, a que el espacio existente entre Santa María y la C/ Cuchillería fue un solar mayoritariamente libre hasta el siglo XIX, dotado de algunas construcciones de mayor o menor entidad (huertas, almacenes...) y delimitado por un muro de cierre perimetral, probablemente una tapia de piedra.

Fue en este mismo contexto en el que se procedió a una nueva intervención arqueológica, previa a la re-

baino lehen beste esku-hartze arkeologiko bat abiarazi genuen. Emaitzak ez ziren batere interesgarriak izan, egungo eraikinek, XX. mendean eraikiek, zeharo nahasi baitzuten leku egiten dien orubea.

habilitación de los edificios nº 99 y 103 de la C/ Cuchillería. Los resultados han sido de escaso o nulo interés dado que los actuales edificios, levantados en este caso en el siglo XX, habían producido un completo arrasamiento del solar en el que se levantaron.

A. Azkarate Garai-Olaun

A.24.1.6. **Frai Zacarias kalea, 7. Eskoriatza-Eskibel jauregia**

Zuzendaritza: Agustín Azkarate Garai-Olaun
Finantziazioa: Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila; Gasteizko Hirigune Historikoa Era Integralean Eraberritzeko Agentzia

A.24.1.6. **Fray Zacarías, 7. Palacio Escoriaza-Esquivel**

Dirección: Agustín Azkarate Garai-Olaun
Financiación: Departamento de Cultura del Gobierno Vasco; Agencia para la Revitalización Integral de la Ciudad Histórica de Vitoria-Gasteiz

In light of the future renovation of Escoriaza-Esquivel Palace, a series of assessment sondages were carried out in different areas of the plot, with the aim of evaluating the archaeological potential of the subsoil. The results revealed a rich construction evolution underneath the current site, with important material remains dating from, at least, medieval times.

Hiriari buruzko informazio historikoa biltzen duen artxibo aberatsa da Eskoriatza-Eskibel jauregia, ez soilik XVI. mendearen erdialdeko harribitxi errenazentista delako, baizik eta baita Gasteizko lehenengo herrixkaren hondakinen gainean ere, XI. mende amaieratik edo hurrengo mendearen hasieratik Villasuso inguratu zuen harresi zaharraren gainean, eraikia delako.

Esku-hartze arkeologikoari dagokionez, bi zundaketa proiektatu genituen; lehenengoak 12 m^2-koak, soto aldean eta harresi ataletik gertu irekiak, ez zuen emaitza garrantzitsurik eskaini; aitzitik, bigarrenak, 43 m^2-koak, Kontzilioko Seminarioaren ondoko jauregiaren barruko patioan irekiak, berretsi egin zuen Erdi Aroko hondakinak kontserbatzen dituen zorupearen lodiera handia, oraindik horma atal esanguratsu batzuek zutik baitiraute.

Aurrekariak

2004. urtean Hedegile kalearen gibelaldeko harresi atalari halako balioa emateko lanak abiarazi zirenez geroztik bi esku-hartze eraman dira burura Eskoriatza-Eskibel jauregiaren inguruan. Lehenengoan jauregiaren gibelaldeko harresi atalaren irakurketa estratigrafikoa egin genuen (Hedegile kaleko 60. zenbakiko ataririk 104. zenbakiko atariraino), eta udal hiltegi zaharrek okupatutako espazioa garbitu eta arkeologikoki dokumentatu genuen. Bigarrena 2007. urtean eraman zen burura, eta XIX. mendean eraikitako horma bular baten indusketa izan zuen xede (Ikus 2004ko eta 2007ko Arkeoikuska).

El palacio Escoriaza-Esquibel es un rico archivo de información histórica sobre la ciudad, no sólo por ser una joya renacentista de mediados del siglo XVI, sino por haberse levantado sobre los restos de la primitiva aldea de Gasteiz, apoyándose sobre la vieja muralla que, desde finales del siglo XI o inicios de la centuria siguiente, rodea Villa Suso.

En lo que a la intervención arqueológica se refiere, se proyectaron dos sondeos: el primero, con unas dimensiones de 12 m^2 y ubicado en la zona del sótano junto al lienzo de muralla, no ofreció ningún resultado relevante; el segundo en cambio, con unas dimensiones de 43 m^2 y emplazado en el patio interior del palacio adyacente al edificio del Seminario Conciliar, confirmó la enorme potencialidad de un subsuelo que conserva todavía restos medievales que mantienen alzados significativos.

Antecedentes

Desde que en el año 2004 comenzaran los trabajos de puesta en valor del tramo de muralla comprendido en las traseras de la calle Correría, han sido dos las actuaciones que se han efectuado en el entorno del palacio Escoriaza Esquivel. En la primera se realizó la lectura estratigráfica del tramo de muralla situado en las traseras del palacio (entre los portales 60 al 104 de la calle Correría) así como la limpieza y documentación arqueológica del espacio ocupado por los antiguos mataderos municipales. La segunda se desarrolló en el año 2007 y tuvo como objeto la excavación de un contrafuerte levantado en el siglo XIX (Cfr. Arkeikuska 2004, 2007).



Goian, burura eramandako zundaketen kokalekuak. Behean, eraikinaren suntsipenetik eratorritako betegarrien ikuspegia, egiturako zur kiskaliekin eta fatxadako hormaren eta putzuaren xehetasunekin.

Arriba, ubicación en planta de los sondeos realizados. Abajo, vista de los rellenos de destrucción de la construcción en el que se aprecian las maderas de la estructura carbonizadas, con sendos detalles del muro de fachada y del pozo.

Behe Erdi Aroko hirigintza

Egun jauregiko barne patio handia den espazioa iparraldetik hegoaldera luzatzen zen bide ardatz baten inguruan egituratutako hiri eremu interesgarria izan zen Behe Erdi Aroan, milurtekoaren aldaketan sortutako ardatz horrek hiriaren goiko alde hau egituratuko baitzuen XXI. mendera arte. Zundaketak berretsi egin zuen eremu honen kontserbazio egoera bikaina, baina hauteman baizik ez genituen egin haren ezaugarri nagusiak, etorkizunean luze-zabaleran induskatzeko esku-hartzearen zain egon eta esku-hartze arkeologiko hau eteteko erabakia hartu genuelako. Hala eta guztiz ere, gainazalean ageri diren aztarnetatik eta eraikuntza egituren suntsiketatik eratorritako betegarrietatik abiatuta haren egituraren eta eraikuntzaren ezaugarri batzuk eskain ditzakegu.

Esate baterako, badakigu bigarren zundaketa ireki genuen aldean etxe bat izan zela Behe Erdi Aroan, fatxada nagusia Frai Zacarías Martínez kaleari begira zuela, hormak landu gabeko kareharriz eginak zituela, behe oinean harriak batzeko orerik gabe, eta hormak zurez eta adobez eginak zirela, suntsipenetik eratorritako betegarrian berreskuratutako materialek adierazten diguten bezala. Buztinezkoa eta zanpatutako lurrezkoa izango zen eraikineko zorua, eta estalkia teilez babestuta edukiko zuen. Orubearen aurreko aldea etxebizitzak hartuko zuen, eta gibelaldean, gibelaldeko hormaren eta harresiaren artean, ukuilua edo baratzea egongo zen, familia unitatea hornituko zuen ur putzuarekin. Ez dakigu soto edo erdisotorik izango ote zuen, oraindik ez baitugu hura amortizatzen duen betegarria induskatu.

El urbanismo Bajomedieval

En lo que en la actualidad es un gran patio interior perteneciente al palacio, en época bajomedieval existió un interesante urbanismo articulado sobre un eje viario norte-sur que, habiendo nacido en el cambio de milenio, iba a ordenar esta parte alta de la ciudad hasta el mismo siglo XXI. El sondeo ha confirmado la afortunada conservación de ese entramado del que, sin embargo, apenas intuimos sus rasgos principales puesto que se optó por no continuar con la intervención arqueológica a la espera de una futura intervención en extensión. Aún así, es posible inferir algunos detalles configuracionales y constructivos a partir de las evidencias más superficiales y los rellenos de destrucción de las estructuras constructivas.

Sabemos por ejemplo que, en el lugar del segundo sondeo, existió una casa de periodo bajomedieval, con su fachada principal orientada a la calle Fray Zacarías Martínez, con muros de mampostería de caliza sin apenas ligantes en su planta baja y alzados a base de madera y adobe, tal y como cabe deducir de los materiales recuperados en el relleno de destrucción. El suelo de la edificación sería de arcilla y tierra prensada y la cubierta estuvo protegida con teja. A nivel configuracional pude apuntarse también que la parte delantera del solar estuvo ocupada por la vivienda, mientras que la mitad posterior –entre la fachada trasera y el lienzo de muralla– se destinó a corral o huerta con un pozo que abastecería de agua a la unidad familiar. Desconocemos si contaba con sótano o semisótano, ya que el relleno que la amortiza no ha sido excavado todavía.

Muinoa monumental bihurtzen: Eskoriatza-Eskibel jauregia

VI. mendera bidean erabat eraldatuko zen alde hau guztia, 1539. urteko dokumentu batean egiaztatzen den bezala. Haren arabera Eskoriatza Komendadoreak bere aita Eskoriatza sendagilearen izenean eskatu zion Udalari jauregia eraikitzeko non eta «…*suelo que hubo de doña Catelina de Alaba e sus fijos*…» (M. A. Martín Miguel, 1998, *Arte y cultura en Vitoria durante el siglo XVI*, Gasteiz, 109. or) eremuan. Hala eta guztiz ere, leku honek berean iraun zuen denbora tarte batean, suntsipenetik eratorritako betegarrien gaineko putzuan egindako konponketek iradokitzen duten moduan, putzua segur asko jauregi berria eraikitzeko lanetan erabiltzeko asmoa izango baitzuten. Geroago betegarri pakete oso lodiekin berdindu zuten alde hau guztia, egun bistaratzen dugun zoruaren maila iritsi arte.

Aguirre Eliz Seminarioa

Jauregiko patioak luzaroan iraun zuen bere horretan, Aguirre Seminarioaren 1853. urteko fundazio eskrituretan adierazten den bezala (Ana Rosa López Adán, 2007, El Seminario Eclesiástico de Aguirre en el palacio Escoriaza-Esquivel (1846-1880), *Jornadas Congresuales homenaje a Micaela Portilla Vitoria*, Gasteiz, 367. or) eta kartografia historikoak ere egiaztatzen duen bezala. XIX. mendean Seminarioa osatu zenean obra batzuk egin zituzten, esate baterako, lauzazko zoladura egokitu zuten patioan, eta XX. mendean (1968) Elizbarrutiko Ikastetxeen egoitza bihurtu zuten Seminarioa (M. A. Martín Miguel, 1998, *Arte y cultura en Vitoria durante el siglo XVI*, Gasteiz, 112. or), eta orduan egokitu zuten egun ikus daitekeen hormigoizko zoladura.

La monumentalización de la colina: el palacio de Escoriaza-Esquivel

En el tránsito al siglo XVI todo ello va a ser objeto de una profunda transformación, tal y como se constata en un documento de 1539 en el que el Comendador Escoriaza solicita al Ayuntamiento, en nombre de su padre el doctor Escoriaza, autorización para construir su palacio en «…*suelo que hubo de doña Catelina de Alaba e sus fijos*…» (M. A. Martín Miguel, 1998, *Arte y cultura en Vitoria durante el siglo XVI*, Vitoria, p. 109). El lugar, no obstante, debió continuar durante un tiempo en uso, tal y como se colige de la reparación del pozo realizada sobre los rellenos de destrucción, muy probablemente para utilizarlo durante las obras del nuevo palacio. Posteriormente toda la zona se niveló con potentísimos paquetes de relleno hasta alcanzar, prácticamente, la cota de suelo visible hoy en día.

El Seminario Eclesiástico de Aguirre

El patio del palacio permaneció sin modificaciones durante largo tiempo, tal y como consta en la escritura de fundación del Seminario de Aguirre en 1853 (Ana Rosa López Adán, 2007, El Seminario Eclesiástico de Aguirre en el palacio Escoriaza-Esquivel (1846-1880), *Jornadas Congresuales homenaje a Micaela Portilla Vitoria*, Vitoria, p. 367) y atestigua, asimismo, la cartografía histórica. Será a partir del siglo XIX con la creación del Seminario cuando se lleven a cabo algunas obras, como la del enlosado que pavimentó el patio, y ya avanzado el siglo XX (81968) con la conversión del Seminario en residencia de las Escuelas Diocesanas en 1968 (M. A. Martín Miguel, 1998, *Arte y cultura en Vitoria durante el siglo XVI*, Vitoria, p. 112), cuando se coloque la solera de hormigón visible todavía en la actualidad.

A. Azkarate Garai-Olaun

A.24.1.7. **Eskola kalea, 10. Arte eta Ofizio eskola**

Zuzendaritza: Leandro Sánchez Zufiaurre
Finantziazioa: Gasteizko Udala

A.24.1.7. **Las Escuelas, 10. Escuela de Artes y Oficios**

Dirección: Leandro Sánchez Zufiaurre
Financiación: Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

As part of the renovation work being carried out on the old School of Arts and Crafts, in the historic quarter of Vitoria-Gasteiz, a stratigraphic analysis was conducted of the rear walls. A large stretch of the original city wall was discovered, dating from the 11th century. The finding partially modifies the supposed line of the wall.

Arte eta Ofizio Eskola zaharra berritzeko lanen testuinguruan eraman ditugu burura lan hauek, ikastetxe zaharrak Gasteizko Alde Zaharreko Enpresen mintegiari egin behar baitio leku.

Orubearen ekialdera ukituko ziren hormetan hiribilduko jatorrizko harresiaren balizko hondakinak egon zitezkeela kontuan izanik, arkeologoei dei egin zieten. Ukitu beharreko hormen dokumentazio grafikoa egin eta haren sekuentzia dokumentatuko zuen azterketa estratigrafikoa eraman genuen burura.

El presente trabajos se desarrolla en el contexto de las obras de reforma de la antigua Escuela de Artes y Oficios, para albergar el Semillero de Empresas del Casco Antiguo de Vitoria-Gasteiz.

Al verse que hacia el este del solar los muros afectados contaban con presencia de posibles restos de la muralla original de la ciudad, se requirió la presencia de arqueólogos. Se realizó la documentación gráfica de los muros afectados, y un análisis estratigráfico que documentara su secuencia.

Eskola kaleko 10. zenbakikoa da aztergai dugun orubea, baina aztertu ere dugu alboan, iparralderantz, duen orubea ukitzen duen arteko hormaren atala, alde honetan baitago ikastetxeko barne patioa (Eskola kalea, 12. zenbakia).

Gasteizko Hirigune Historikoko eremu goienean dago higiezin hau. Alde hau XI. mendean eraikitzen hasi ziren harresi zaharrenak inguratuta egon zen.

Orain dela urte gutxi batzuk arte uste zen lehenengo harresi hura ukitutako orubeetako itxitura baino ekialderago zegoela, baina azken esku-hartzeei esker badakigu Eskola eta Aiztogile kaleei begira dauden orubeen arteko muga harresiak eratua dela. Hortik elementu hauek xehetasun osoz dokumentatzeko garrantzia.

Burura eramandako azterketari esker zazpi alditan banatutako sekuentzia estratigrafiko garrantzitsua erregistratu ahal izan genuen.

1. aldia. Erdi Aroko harresia

Lehenengo aldi honetan dokumentatutako elementuak batez ere Arte eta Ofizio Eskolaren iparraldeko orubean daude. 30., 26. eta 27. UEetako hormez ari gara.

Lehenengoa (30. UE) Arte eta Ofizio Eskolaren orubearen iparraldean dagoen hormaren beheko atala da, ondoko ikastetxeko patioa ekialdetik ixten duen hormaren beheko atala. Harrobitik ekarritako harri landu gabeez osatutako horma da, errenkadak gutxi gorabehera zuzenak baina apur bat irregularrak. Haren gailurrean bermatzen diren elementuak estuagoak direla ikusten da, eta beraz, hormak zapatarena bete zuela esan behar dugu.

Horma ia ez da ikusten, zurezko etxolek (38. eta 39. UEak) ia erabat estaltzen dutelako eta haren gailurra asfaltozko mintz batek partzialki ezkutatzen duelako.

Besteak bi ez baizik eta elementu bakarraren emaitza izan daitezke: 26. eta 27. UEez ari gara, harresiko dorre aurreratu baten hondakinak osatzen dituztenak, atal bat ekialdetik mendebaldera eta bestea iparraldetik hegoaldera. Biak ala biak harrobian eta geruza naturalen arabera erauzitako harri landu gabeez eginak dira, harriak txikiak edo ertainak, errenkada gutxi gorabehera etenetan antolatuak.

Eskantzuetan daude horma atal bien arteko aldeak: beheko aldean (26. UE) mota berekoak dira hormako eta eskantzuetako piezak, eskantzuetakoak apur bat handiagoak diren eta apur bat landuago dauden arren. Goiko atalean (27. UE) landu gabeko harriekin batean lumakelan landutako harlanduak ageri dira eskantzuetan, eta harlanduak diagonalean zizelkatu zituztela nabari da.

Goiko ataleko estekadura motak hiribilduko harresi zaharreneko dorre gehienen ereduari erantzuten dio; harresi zaharrenaren arrastoak, gogora dezagun, Santa Maria katedralean, San Migel elizaren gibelaldean eta Harategi kaleko atal batean erregistratzen dira. Gure kasuan hormaren atalik aspaldikoenak ez ditu ohikoak diren harlanduzko eskantzuak. Dorre baten oinarria izan liteke, aipatu harlandurik gabe egina, edo mende-

El solar afectado es el que da a la calle las Escuelas número 10, pero también se ha estudiado el tramo de medianera que afecta al solar contiguo hacia el norte, donde se sitúa un patio interno del colegio (calle Las Escuelas número 12).

Este inmueble se encuentra en la zona más alta del Casco Histórico de Vitoria-Gasteiz, la cual se encontraba cerrada por el recinto amurallado más antiguo, iniciado en el siglo XI.

Hasta hace unos pocos años se pensaba que la muralla oriental iba algo más al este que el cierre de los solares afectados, pero intervenciones recientes han permitido establecer que el límite entre los solares que dan a la calle Las Escuelas y la calle Cuchillería responde a la línea de la muralla. Por ello la importancia de documentar estos elementos con rigurosidad.

Gracias al estudio realizado se pudo registrar una importante secuencia estratigráfica, organizada en siete fases:

Momento 1. La muralla medieval

Los elementos documentados de esta primera etapa se encuentran principalmente en el solar contiguo al norte de la Escuela de Artes Oficios. Se trata de los muros UE 30, 26 y 27.

El primero de ellos (UE 30) es la parte inferior del muro situado al norte del solar de la Escuela de Artes y Oficios, que cierra por el este el patio del colegio colindante. Se trata de un muro de mampostería a base de piezas extraídas de cantera, siguiendo hiladas más o menos continuas aunque algo irregulares. En su remate se aprecia que los elementos que se le apoyan son más estrechos, formándose por lo tanto una zapata.

El muro es apenas visible, al estar tapado casi por completo por casetas de madera (UE 38, 39), y porque en su remate está parcialmente oculto por membrana asfáltica.

Los otros dos elementos pueden ser en realidad uno solo: se trata de las UE 26 y 27, que forman los restos de un torreón avanzado de la muralla, con un tramo orientado de este a oeste y el otro de norte a sur. Se trata en ambos casos de muros de mampostería de piezas extraídas de cantera por capas naturales, de tamaño pequeño o medio, siguiendo hiladas más o menos discontinuas.

La diferencia entre ambas está en los esquinales: en el caso de la parte inferior (UE 26) las piezas de las esquinas son del mismo tipo que el muro, aunque sus elementos están algo más preparados y son algo mayores. En el caso del tramo superior (UE 27) las esquinas son de sillares de lumaquela, con trazas de labra a tallante diagonal, alternadas con mampuestos.

El tipo de aparejo del tramo superior responde al modelo de la mayoría de los torreones de la muralla más antigua de la ciudad, registrada en la Catedral de Santa María, en las traseras de la iglesia de San Miguel o en el tramo de las Carnicerías. En nuestro caso, la zona más antigua del muro carece de esos esquinales de sillería tan característicos. Podría tratarse de la base del torreón, realizado sin este tipo de si-

baldeko mazelako harresia eraiki zuten unean ez baizik eta beste uneren batean eraiki zuten dorrea.

Nolanahi ere den, ziur gaude horma hauek hiribildua puntu goienean ixten zuen harresikoak direla, XI. mendeko harresiari dagozkiola. Konponketak egingo zituzten hartan, baina betiere harresiak dagokion funtzioa betetzen zuenean egingo zituzten.

Dorreari hegoaldeko aurpegia eta segur asko ekialdeko aurpegiaren parte bat falta zaizkio. Dorrearen hegoaldean, 1. UEko horman, norabide aldaketa bat gertatzen da. Elementu biak batzen baditugu dorreak hormarekin bat egingo zuela pentsa genezake, Arte eta Ofizio Eskolako iparraldeko hormak (1. UE) bihurgune txiki bat egiten duen puntuan egingo zutela bat. Hau honela balitz, gutxi gorabehera bost metro zabal izango litzateke dorrea.

Hormaren oinaren mailatik abiatuta 1. UEko horma ageri den altuera da argudio hau berresten duen beste elementu bat: azpitik iparraldeko orubean dagoen altueraren parekoa bereizten da; beraz, artean harresiaren hondakinak gorde ditzakeen horma (egun zarpiatua) atal oso bat kontserbatzen da (Arte eta Ofizio Eskolaren ekialdeko biltegiaren barruko aldetik dago ikusgai).

Bestalde, orain gutxi burura eramandako eskuhartze arkeologikoak dauzkagu, harresiaren lerro berean garai honetako beste harresi atal batzuk agerian utzi dituztenak: hurbilena Aiztogile kaleko 45. eta 47. zenbakietako gibelaldean dokumentatua, hau da, azterketa honen xede den lekutik bi orube harantzago.

XI. mendearen erdialdera eraiki zuten harresi honek bere egitekoari eutsi zion XIII. mendearen erdialdera arte, orduan hiribildua ekialderantz handitu baitzuten Gaztelako errege Alfontso X.a Jakintsuak emandako aginduei jarraiki. Beraz, harresiaren funtzioa 200en bat urtez bete zuen atalaren aurrean gaude, gerora hiriaren hazkundeak xurgatu baitzuen hura.

2. aldia. XIX. mende aurreko berritze lanak

Zirkunstantzia guztiz berezia gertatzen da aztergai dugun atalean, hartzen duen kronologia arku zabaleneko aldia izanik ere, unitate estratigrafiko kopuru txikiena erregistratu baitugu bertan.

XIII. mendearen erdialdetik, une honetan utzi baitzion harresi atal honek hiribilduko ekialdeko itxituraren funtzioa betetzeari, XIX. mende hasierara arteko epeaz ari gara.

Oso denbora luzea da, baina zoritxarrez ez gaude kronologia zehatzagoa eskaintzeko moduan, horretarako aldi hauei dagozkien elementuak datatzeko modua eskainiko digun azterketa xeheago bat egin behar baita.

Eta kontua ez da erregistratutako elementuak garrantzitsuak ez direnik. Kontua da batetik dorrea amortizatuta dagoela partzialki, haren hegoaldeko horma eta ekialdeko hormaren parte bat eraitsi baitzituzten. Dorretik hegoalderantz luzatzen den harresi atala ere murriztua izan zen.

Eraispen partzial eta berritze lan hauen ostean (ezin zehaztu ditzakegu noiz eraman zituzten burura), goratu egin zuten dorrearen hegoaldeko horma atala, eta aipatu elementuak jatorrian okupatu zuen espaziora barneratu zuten. 1. UEaz ari gara, egun Arte eta Ofizio Eskolaren ekialdeko itxituraren oinarriarena egiten duenaz.

llares, o de un torreón ejecutado en diferente momento de obra respecto a la muralla de la ladera oeste.

En cualquier caso, estamos seguros de que el trazado de estos muros pertenece al cerco que cerraba la ciudad en su zona más elevada, perteneciendo al encintado del siglo XI. Podría haber refacciones, pero siempre de los momentos en que estaba la muralla aún en uso como tal.

Al torreón le falta el lienzo sur y seguramente parte del oriental. Al sur del torreón, en el muro UE 1, hay un cambio de orientación del lienzo. Si unimos ambas cosas, podemos pensar que el torreón enlazara con el muro en el punto en que el cierre norte de la Escuela de Artes y Oficios (UE 1) hace un pequeño quiebro. De ser eso cierto, el torreón tendría una anchura de unos cinco metros.

Un argumento más a favor de esto es la altura a la que aparece el muro UE 1 respecto a la base del mismo muro: por debajo hay una altura equivalente a la que hay en el solar lindante al norte; por lo tanto, hay toda una planta (visible desde dentro del almacén al este de la Escuela de Artes y Oficios) de muro (hoy enfoscado) que podría albergar aún restos de muralla.

Por otro lado, contamos con intervenciones arqueológicas recientes que han sacado a la luz otros tramos de muralla de esta época en la misma línea de encintado: la más cercana es la documentada en las traseras de la calle Cuchillería 45 y 47, dos solares más allá de los afectados por el estudio actual.

Esta muralla, construida en torno a mediados del siglo XI, mantiene su funcionalidad hasta mediados del siglo XIII, en que se amplía la ciudad hacia el este por parte del rey castellano Alfonso X el Sabio. Es decir que tenemos un lienzo que funciona como tal unos 200 años, hasta que es absorbido por el crecimiento urbano.

Momento 2. Reformas anteriores al siglo XIX

En el tramo que nos ocupa se da una circunstancia particular, ya que el momento que más amplitud cronológica abarca es uno de los que menos unidades estratigráficas permite registrar.

Nos referimos al período que va desde mediados del siglo XIII, momento en que este tramo de muralla deja de funcionar como límite oriental de la ciudad, hasta los inicios del siglo XIX.

Se trata de mucho tiempo, pero lamentablemente no estamos en condiciones de ofrecer una cronología más específica hasta no contar con un estudio más detallado que nos permita datar los elementos pertenecientes a estas etapas.

Los elementos registrados no carecen de importancia. Lo que ocurre en primer lugar es la amortización parcial del torreón, ya que se destruye su muro sur y parte del muro oriental. El tramo de muralla que va del torreón hacia el sur ha debido rebajarse también.

Con posterioridad a estas obras de derribo parcial y reforma, y sin que podamos especificar las fechas de ninguna de estas acciones, se recrece el muro al sur del torreón, introduciéndolo dentro del espacio que había ocupado originalmente dicho elemento. Nos referimos a la UE 1, que en la actualidad sirve de base para el cierre oriental de la Escuela de Artes y Oficios.



Goian ezkerretara: aztertutako eremuaren kokalekua. Goian eskuinetara; XI. mendeko harresiak egingo zuen bidearen proposamena; arrosa kolorean Hirigune Historikoko beste alde batzuetan ezagutzen diren elementuak (katedrala, mendebaldeko harresiak); berdez azterketa honetan aztertutako eremua; urdinez, gure eremuaren eta katedralaren artean proposatutakoa. Erdian: aztertutako unitate estratigrafikoak jasotzen dituen planoa. Behean: aztertutako aldi historikoen perspektiba.

Arriba izquierda: ubicación de la zona de estudio. Arriba derecha: propuesta de trazado de la muralla del siglo XI por el este; en rosa, elementos ya conocidos en otras zonas del Casco Histórico (catedral, murallas occidentales); en verde, la zona registrada en este estudio; en azul, trazado propuesto entre nuestra zona y la catedral. Centro: plano con las unidades estratigráficas del estudio. Abajo: perspectiva con las etapas históricas del estudio.

3. aldia. Marrazketa akademiaren eraikuntza (1830)

Marrazketa Akademiaren eraikuntzak hartzen du hirugarren aldia. Obra hau 1830. urtean proiektatu eta ia berehalakoan eraman zuten burura. Oinplano angeluzuzeneko eraikina da, Eskola kalearen eta San Frantzisko Kantoiaren arteko izkina hartzen duena. Erdian marrazketarako areto eliptiko handi bat du.

Kantoian dagoen ateak, ate burudunak, egiten dio sarrera eraikinari.

4. aldia. Arte eta Ofizio Eskolaren eraikuntza (1889)

Alde honetako orubeen fisonomia erabat aldatuko zuen ekintza garrantzitsuenetakoa Arte eta Ofizio Eskolaren eraikuntza izan zen. Ordura arte Marrazketa Akademia izandakoa handitzeko proiektua da berez. Egun Eskola kaleari begira dagoen eraikina eraiki zuten beraz.

Hura handitzeko proiektuak etenik gabe aurkeztu zituzten 1850. urtetik aurrera, baina 1889. urtera arte itxaron beharko da aurkeztutako proiektu bati oniritzia emateko. Prozesu guztia oso ondo azalduta dago *La Academia de Bellas Artes de Vitoria (1818-1889)* (Vives 2000) liburuan, obrei buruzko dokumentu eta material grafiko asko eta asko eskaintzen baitira hartan.

Obra haietan egungo eraikina eraiki zuten, fatxada kalitate handiko harlanduz egina, lau leiho behe oinean eta atelada erdialdean.

5. aldia. Ikastetxearen eraikuntza (XIX. mende amaiera – XX. mende hasiera)

Eskola handitu eta gero, zehazki noiz ez dakigula, iparralderago dagoen ikastetxeko egungo eraikina eraiki zuten.

Eraikin honetan harlandua erabili zuten fatxadaren behe oinean eta landu gabeko harriak gainerakoan. Beste solairuak adreiluz eginak dira.

6. aldia. XX. mendea

XX. mendean zehar berritze lan askoren xede izan ziren nola Ikastetxea hala alboetako orubeak. Aztergai dugu eremuan eragina izan zuten lan garrantzitsuenak galdara bat eta eraikina eta gibelaldeko patioa bereizten dituen burdin hesia egokitzeko lanak izan ziren.

Dorreak utzitako hutsunea zementuzko depositu edo uraska bat (12. UE) eraikitzeko profitatu zuten. Ikastetxearen ekialdeko orubean biltegi bat eraiki zuten behe oinean, eta haren estalkiak ageriko terraza bat eratzen du (21. eta 22. UEak). Hormigoizko biltegi honek Ikastetxeko itxiturako behe oineko harresiaren ekialdeko aurpegia ezkutatzen du, eta ondorioz ezin haren ezaugarriak azter ditzakegu; hala eta guztiz ere, ziur gara zarpiatuaren gibelean jatorrizko harresiaren hondakinak daudela.

7. aldia. 2011ko berritze lanak

Azterketa hau eragin zuen obran burututako berritze lanak ez dira kaltegarriegiak izan elementu as-

Momento 3. Construcción de la Academia de Dibujo (1830)

El tercer momento es la construcción de la Academia de Dibujo, obra proyectada en 1830 y ejecutada casi de inmediato. Es un edificio de planta rectangular que ocupa la esquina de la calle de Las Escuelas con el cantón de San Francisco, y que cuenta en su zona central con una gran sala de dibujo elíptica.

El acceso al edificio es desde el cantón, a través de una puerta adintelada.

Momento 4. Construcción de la Escuela de Artes y Oficios (1889)

Una de las acciones más relevantes que modifica por completo la fisonomía de los solares de la zona es la construcción de la Escuela de Artes y Oficios. Se trata en realidad de un proyecto de ampliación de lo que hasta entonces constituía la Academia de Dibujo, construyendo el actual edificio que da a la calle de las Escuelas.

Los proyectos de ampliación se van sucediendo desde el año 1850, pero no es hasta 1889 que se da el visto bueno a uno de los proyectos presentados. Todo el proceso está muy bien explicado en el libro *La Academia de Bellas Artes de Vitoria (1818-1889)* (Vives 2000), donde se aporta gran cantidad de material documental y gráfico sobre las obras.

Las obras realizadas suponen la construcción del actual edificio, con su fachada de sillería de gran calidad, con cuatro ventanas en la planta baja y una portada central.

Momento 5. Construcción del edificio del colegio (finales siglo XIX-inicios siglo XX)

Con posterioridad a la ampliación de la Escuela, si bien no sabemos con precisión la fecha, se construye el edificio actual del colegio situado más al norte.

Este edificio con planta baja de sillería en la fachada y mampostería en el resto, es de ladrillo en las restantes plantas.

Momento 6. Siglo XX

Durante el siglo XX la Escuela va a sufrir numerosas reformas, así como los solares colindantes. Las principales que afectan a nuestra área de estudio son la colocación de una caldera y una reja que separa el edificio del patio trasero.

El hueco del torreón se aprovecha para la construcción de un depósito o cisterna (UE 12) de cemento. En el solar contiguo al este de la Escuela, se construye un almacén en la planta baja, cuya cubierta sirve de terraza abierta (UE 21, 22). Este almacén de hormigón oculta la cara oriental de la muralla de la planta baja del cierre de la Escuela, lo que nos impide valorar sus características; sin embargo, damos por hecho que detrás del enfoscado hay restos de la muralla original.

Momento 7. Reformas 2011

Las reformas, de la obra que motiva este estudio, no han sido demasiado graves con respecto a los

paldikoenentzat, baina elementu batzuk nahasi egin direla esan behar dugu.

Hona hemen burura eramandako berritze lan nagusiak: 1. UEko hormaren hegoaldeko muturrean leiho txiki bat itsutu zuten (2. eta 3. UEak), galdara gela aireztatzeko baoa itxi zuten (15. eta 16. UEak), eta terrazara iristeko ebakia ireki zuten (19. UE).

Konklusioak

Aztertutako eremua potentzialtasun handikoa da arkeologiaren ikuspuntutik, eta egungo obrek ez dute eragin handiegirik izan elementu aspaldikoenetan.

Hiribilduko lehenengo harresiaren presentzia, XI. mendekoa, muinoaren goiko partea ixten duena, ziurra da alde honetan. Harresia dorrearen behe partean dago (26. eta 27. UEak), baita aztertutako eremuaren iparraldeko ondoko horman ere (30. UE). Halere aldi honetako elementuek Ikastetxearen hormaren behe partean behar dute, nahiz eta egun erabat zarpiatuta egon eta ezin ikus ditzakegun.

Harresi honek XIII. mendearen erdialdera arte beteko zuen bere funtzioa, orduan hiria ekialderantz handitzeko agindua eman baitzuen Alfontso X.a Jakintsuak. Zirkunstantzia honek zehazten du geure azterketaren hurrengo aldia, XIX. mendearen hasierara arte iristen baita.

Beste elementuak bi obra handiri dagozkie, Marrazketa Akademiari (1830) eta Arte eta Ofizio Eskolari (1889).

elementos más antiguos, si bien hay elementos que se han visto alterados.

Las reformas más importantes son: el cegado de una pequeña ventana en el extremo sur del paño UE 1 (UE 2, 3), la eliminación y cegado del vano de ventilación para la caldera (UE 15, 16) y el corte para el paso hacia la terraza (UE 19).

Conclusiones

La zona estudiada se ha revelado de gran potencialidad arqueológica, y las obras actuales no han afectado de manera sustancial a sus elementos más antiguos.

Podemos dar como segura la presencia de la muralla primitiva de la ciudad, perteneciente al siglo XI y que cierra la parte alta de la colina. Esta muralla se encuentra en la parte baja del torreón (UE 26, 27), así como en el muro contiguo al norte (UE 30) de la zona estudiada. Sin embargo, bajo los muros de la Escuela deben quedar elementos de esta etapa, aunque en la actualidad se encuentren completamente enfoscados y no podemos verlos.

Esta muralla prestó servicio hasta mediados del siglo XIII, cuando Alfonso X el Sabio manda ampliar la ciudad por el este (1256). Este evento marca la siguiente etapa en nuestro estudio, que será la más larga, ya que llega hasta los inicios del siglo XIX.

El resto de elementos pertenecen a dos obras principales: La Academia de Dibujo (1830), y la escuela de Artes y Oficios (1889).

L. Sánchez Zufiaurre

A.24.1.8. **Barnekale berria, 27-29**

Zuzendaritza: Miguel Loza Uriarte
Finantziazioa: Pilar Berzal Itarte; Arabako Foru Aldundia

A.24.1.8. **Nueva Dentro, 27-29**

Dirección: Miguel Loza Uriarte
Financiación: Pilar Berzal Itarte; Diputación Foral de Álava

Intervention carried out all over the site, leaving no room for further investigation, since the results proved to be of scarce historical-archaeological interest.

Bi orubeen hedadura osoa hartu zuen esku-hartze arkeologikoak. Agortu egin genituen haietan beste ikerketa bat abiarazteko aukerak oro, emaitzak negatiboak izan baitziren historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik.

Intervención desarrollada en toda la extensión de los dos solares, agotando la posibilidad de nueva investigación en ambos, siendo los resultados de la misma de escaso interés histórico-arqueológico

M. Loza Uriarte

A.24.1.9. **Pintore kalea, 37. Ezkerreko orubea**

Zuzendaritza: F. Rafael Varón Hernández
Finantziazioa: David Gamarra Fernández

A.24.1.9. **Pintorería, 37. Solar izquierdo**

Dirección: F. Rafael Varón Hernández
Financiación: David Gamarra Fernández

Intervention with no positive results.

Orubearen gibelaldetik luzatzen den Erdi Aroko erretenaren gaineko eta espazio honen barneko zolatak eta deposituak ateratzeko lanen gaineko kontrol arkeologikoa. Deposituak agortuta ez genuen hondakin arkeologikorik erregistratu.

Control arqueológico realizado sobre el caño medieval que transcurre por el fondo del solar y sobre la retirada de soleras y depósitos del interior de este espacio. Agotados los depósitos no se localizaron restos arqueológicos de ningún tipo.

F.R. Varón Hernández

A.24.1.10. **Txikita kalea, 14**

Zuzendaritza: Miguel Loza Uriarte
Finantziazioa: Gasteizko Hirigune Historikoa Era Integralean Eraberritzeko Agentzia

A.24.1.10. **Txikita, 14**

Dirección: Miguel Loza Uriarte
Financiación: Agencia para la Revitalización Integral de la Ciudad Histórica de Vitoria-Gasteiz

Intervention which uncovered a basement dug into the natural rock, probably belonging to the first building constructed in this part of Vitoria-Gasteiz hill (13th and 14th centuries), taking advantage of the natural relief. The filling pertaining to the abandonment and levelling of the plot has been dated as belonging to the 16th and 17th centuries.

Gasteizko Txikita kaleko 14. zenbakiko orubean higiezin berri bat eraiki behar zutenez, nahitaezko eskuhartze arkeologikoa eraman genuen burura. Orubearen azaleraren ia %60 induskatu genuen, Txikita kaleko 12. zenbakiko eraikinarekiko arteko hormaren ondoko eremua eta gibelalde ondoko beste gune txiki bat baizik ez baikenituen induskatu gabe utzi. Bi gune hauetan segurtasun kontuak tarteko ez genituen betegarriak altxa, hormen egonkortasuna arriskuan gera baitzitekeen. Nolanahi ere den, indusketaren gainerakoan nola osaeraren hala harreman estratigrafikoen ikuspuntutik ondo asko dokumentatu ahal izan genituen betegarriak ziren.

Orube honen historiaren sekuentzia segur asko Erdi Arotik, harrian induskatutako sotoa edo erdisotoa izango zuen egitura estuko higiezinaren presentziak zehaztuta, gure garaira arte luzatzen da. Elkarren artean ondo asko bereizten diren hiru aldi zehaztu daitezke, baina ez dugu baztertzen etorkizuneko azterketek besteren bat identifikatzeko aukera.

1. aldia

Egungoaren aurreko higiezinaren hondakinek hartzen dute aurreneko aldia. Geruza geologikoan egindako egiturak baizik ez dira kontserbatu. Ez dakigu lehenengoa den hala haren eta egungoaren arteko garai batekoa. Soilik noiz abandonatu zuten esan dezakegu, 2. aldian ikusiko dugun bezala XVI. edo XVII. mendean.

Egitura estuko higiezina da, lursaila 3,40 metro zabal da, egungoa bezalakoa, baina haren luzera ezin zehaztu izan genuen, nahiz eta ziur asko erreteneraino iritsiko zen, eta beraz, 15 bat metro luze izango zen. Txikita kalean izango zuen sarrera, eta ia 4 metroko atari edo ezkaratza izango zuen. Puntu honetatik aurrera sotoa edo erdisotoa egongo zen, sarrera arrapalan izango zuen, eta eskailera maila batzuk izango zituen hegoaldean, goiko kotatik 80 cm jaisteko. Sotoan, sarrerako ebakitik 5 bat metrotara, harrian egindako beste ebaki bat ikusten da: muinoak alde honetan duen erliebea kontuan izanik, geruza geologikoaren beraren sakonunearekin egingo du bat ziur asko.

La construcción de un nuevo inmueble en el solar nº 14 de la calle Txikita de Vitoria-Gasteiz necesitaba la preceptiva intervención arqueológica. Se ha excavado cerca del 60% del solar y únicamente ha quedado sin excavar la parte junto a la medianera con Txikita 12 y otra pequeña zona junto a la trasera. En ambos casos fueron los motivos de seguridad los que aconsejaron no rebajar estos rellenos ya que se podía poner en peligro la estabilidad de los muros. En cualquier caso, se trataba de rellenos bien documentados en el resto de la excavación, tanto en su composición como en sus relaciones estratigráficas.

La secuencia histórica de este solar abarca desde su etapa inicial, posiblemente época medieval y marcada por la presencia de un inmueble de lote estrecho con sótano o semisótano excavado en la roca, hasta nuestros días. Se pueden establecer tres fases bien diferenciadas entre sí, sin renunciar a la existencia de alguna más que los estudios posteriores puedan identificar.

Fase 1

La primera fase está constituida por los restos de un inmueble anterior al actual y del que sólo se han conservado las estructuras realizadas en el estrato geológico. No es posible concretar si se trata del original o de uno intermedio entre éste y el actual. Tan sólo se conoce el momento de abandono del mismo que como se verá en la fase 2, se puede datar entre el siglo XVI o XVII.

Se trataría de un inmueble de lote estrecho cuya parcela tiene 3,40 metros de anchura coincidiendo con la actual y cuya longitud no se ha podido documentar pero seguramente llegara hasta el caño, por lo que tendría unos 15 metros. La entrada al mismo estaría en la calle Txikita, existiendo un espacio a modo de portal o zaguán de casi 4 metros. A partir de este punto comienza el sótano o semisótano con un acceso con rampa y algunos peldaños de escaleras en su lateral meridional, que descienden unos 80 cm desde la cota superior. Dentro del sótano, a unos 5 metros del corte de entrada se encuentra otro rebaje en la roca, probablemente coincidiendo con la propia bajada del estrato geológico, por el relieve en este punto de la colina.

Zalantza asko planteatzen ditu soto edo erdisoto honen funtzioak, ez baita eman zioten erabileraren inguruko arrastorik eta itxuraz ez baitu inolako harremanik hura amortizatzen duen betegarriak bertan burura eramango zituzten jarduerekin.

Orube hau 2008. urtean Iterbide S.C. enpresak induskatutako Hedegile kaleko 131. zenbakiko orubetik eta Zapatari kaleko 100. eta 102. orubeen arteko orubetik oso gertu dagoela esan behar dugu. Hedegile kaleko 131. zenbakiko orubean XV. mendeko[49] hiru unetan amortizatutako hiru soto sakon dokumentatu zituzten. Txikita kaleko 14. zenbakiko orubean aurkitutako sotoaren tipologiak beste haien ereduari erantzuten dio hain sakona ez bada ere, izan ere txikiagoa da muinoaren atal honetako aldapa Hedegile kale aldekoa baino.

Hondakin negatibo hauek alde batera utzita, ez genuen higiezin honetako beste egiturarik dokumentatu. Beraz, argi dago hura abandonatu eta eraikin berria eraiki zutenean arrokaren gaineko elementu guztiak desagerrarazi zituen suntsiketa gertatu zela.

2. aldia

1. aldian induskatutako egiturak amortizatzen dituen betegarriak zehazten du 2. aldia. Homogeneotasun eta lodiera handiko depositua da (7. UE), induskatutako azalera osoan ageri dena. Azpimarragarria da eraikinaren eraispen prozesutik eratorritako zaborren presentzia eskasa, batez ere harri eta teilen presentzia urria. Izan ere, antz handia du baratze edo lorategietako betegarriekin. Beraz aurreko aldiko sotoa ez zuten eraikinaren eraispenetik eratorritako materialarekin amortizatu, lurra beste leku batetik ekarri zuten hura betetzeko. Ez dakigu zergatik. Alde batetik, baliteke sotoa amortizatu nahi izana oso egoera txarrean zegoelako, baina era berean baliteke higiezinari beste funtzio bat eman izanaren ondorioa izatea. Bestetik, baliteke eraikin hau abandonatu eta beste berri bat eraikitzeko erabakia hartu izana, eta sotoa eraikinaren eraispenetik eratorritako zabor materialarekin ez baizik eta beste leku batetik ekarritako betegarri garbiago batekin amortizatu nahi izana.

Hala eta guztiz ere, material hondakin kopuru garrantzitsua aurkituta, batez ere zeramikazkoak (zeramika arrunta eta beiratua), metalezkoak eta fauna hondakinak, XVI. eta XVII. mende artean datatu behar dugu aldi hau, baina aurkitutako hiru txanponen artean baten batek datazioa areago zehazteko aukera eskainiko digulakoan gaude.

3. aldia

Orubean bereizitako azken eraikinak hartzen du 3. aldia. Aldi honetara biltzen dira eraikinaren perimetroko hormak eta kanalizazio bat (2. UE). Kanalizazio

[49] Loza, M. eta Niso, J. (2009), «Hedegile kalea, 131 (Zapatari kaleko 100. eta 102. zenbaki bitarteko orubea), *Arkeoikuska 08*, Gasteiz, 160-166. orr.
Loza, M. eta Niso, J. (2011), *Valoración arqueológica del solar nº131 de la calle Correría y de los solares situados entre los nº 100-102 de la calle Zapatería (Vitoria-Gasteiz). Memoria final de resultados*. Arabako Arkeologia Museoan utzia. Gasteiz.
Loza, M. eta Niso, J. (2011), «Un ejemplo de arquitectura rupestre medieval en el extremo oeste de la colina fundacional de Vitoria-Gasteiz» en *Estudios Arqueología Alavesa, 26. Liburukia,* Gasteiz.

La funcionalidad de este sótano o semisótano plantea muchas dudas, ya que no existe ningún resto de su uso y el relleno de amortización no parece tener tampoco nada que ver con las actividades que allí se pudieron desarrollar.

Hay que destacar la cercanía de este solar con el excavado en 2008 por Iterbide S.C. en los solares de la C/Correría 131 y solar entre C/Zapatería 100 y 102. En el solar de Correría 131 se documentaron tres profundos sótanos amortizados en diferentes momentos del siglo XV[49]. La tipología del sótano encontrado en Txikita 14 responde al mismo modelo que aquellos, aunque con menor profundidad, ya que la orografía de esta parte de la colina tiene una menor pendiente que en la zona de Correría.

Al margen de estos restos negativos, no se ha documentado ningún otro tipo de estructuras pertenecientes a este inmueble, lo que pone de manifiesto que tras su abandono y la construcción de un nuevo edificio se realizó un arrasamiento que afectó a todos los elementos sobre cota de roca.

Fase 2

La fase 2 está definida por el relleno que amortizó las estructuras excavadas de la fase 1. Se trata de un depósito (U.E.7) de gran homogeneidad y potencia, localizado por toda la superficie de la excavación. Su principal característica es la escasa presencia de escombros derivados del propio proceso destructivo del edificio, sobre todo de piedras y teja. Realmente se asemeja bastante a los rellenos de huertas o jardines. Este hecho indica que la amortización del sótano de la fase anterior no se llevó a cabo con el material procedente de la destrucción del edificio, sino que se trajeron tierras de algún otro lugar para rellenarlo. La razón se desconoce. Por un lado, pudiera ser que tan sólo se quisiera rellenar el sótano por su estado ruinoso o por un cambio en la funcionalidad de inmueble. Por otro, que se decidiera abandonar este edificio y construir otro nuevo pero que no se quisiera rellenar con el material de escombro procedente de su derribo, sino con un relleno más limpio traído de otro lugar.

En cualquier caso, la aparición en él de un buen número de restos materiales, fundamentalmente cerámicos (cerámica común y vidriada), metálicos y faunísticos, permite fecharlo entre los siglos XVI-XVII, a la espera de que alguna de las tres monedas localizadas permita concretar más la datación.

Fase 3

La fase 3 es la que comprende el último edificio localizado en el solar. En ella se engloban los muros perimetrales del edificio, así como una canalización (U.E.2) que,

[49] Loza, M. y Niso, J. (2009), «Correría 131 (solar entre nº 100 y 102 de calle C/Zapatería) en *Arkeoikuska 08*, Vitoria-Gasteiz, pp.160-166.
Loza, M. y Niso, J. (2011), *Valoración arqueológica del solar nº131 de la calle Correría y de los solares situados entre los nº 100-102 de la calle Zapatería (Vitoria-Gasteiz). Memoria final de resultados*. Depositada en el Museo de Arqueología de Álava. Vitoria-Gasteiz.
Loza, M. y Niso, J. (2011), «Un ejemplo de arquitectura rupestre medieval en el extremo oeste de la colina fundacional de Vitoria-Gasteiz» en *Estudios Arqueología Alavesa Tomo 26,* Vitoria-Gasteiz.

hau Txikita kaleko 12. zenbakiko erakinarekiko arteko hormaren paraleloan luzatzen da, eta erreten nagusian husten. XIX. mende amaieran edo XX. mende hasieran eraikiko zuten, baina ez dago haren kronologia gehiago zehazteko moduko elementu bakar bat ere.

de forma paralela al muro medianil con Txikita 12 y con su misma orientación, desembocaba en el caño general. Su construcción debió ejecutarse a finales del siglo XIX o principios del siglo XX, sin que exista ningún elemento de datación que permita concretar más su cronología.

M. Loza Uriarte; J. Niso Lorenzo

A.24.2. UDAL BARRUTIA / TÉRMINO MUNICIPAL

A.24.2.1. **Arkaia. 53. lursaila, 7339. finka**

Zuzendaritza: Javier Niso Lorenzo
Finantziazioa: José Antonio Manzanos Báez; Arabako Foru Aldundia

A.24.2.1. **Arcaya. Parcela 53, finca 7339**

Dirección: Javier Niso Lorenzo
Financiación: José Antonio Manzanos Báez; Diputación Foral de Álava

Intervention which uncovered various structures of different types, ranging in age from the 2nd Iron Age to modern times. Of particular interest are a number of levels with post holes and cabin cuts dating from the pre-Roman era, a large late imperial building which was subsequently sacked, probably during the Late Antiquity, and a dwelling level from the 7th-8th century with cabins, which was later abandoned and levelled.

Arkaiako 53. lursailean etxe bat eraikitzeko proiektua aurkeztu zutenez premiazko esku-hartze arkeologiko bat eraman behar izan genuen burura. Eraikinik gabeko alde hau Ama Birjinaren Sorkunde elizaren mendebaldean dago, 15 metro eskasera. Gutxi gorabehera 80 m²-ko azalera induskatu genuen luze-zabalean, guztizko azaleraren %70 inguru. Hegoaldeko eta mendebaldeko muturrak baloratu gabe utzi eta haietan antolatu genituen lurrak metatzeko guneak.

Arkaian burututako esku-hartze arkeologikoen emaitza orokorrarekin bat eginez, esku-hartze honek ere emaitza garrantzitsuak eskaini ditu leku honen iragana ezagutzeko. Iragan luzea du, ez da soilik erromatarren garaira mugatzen, historiaurretik gure garaira arte luzatzen den sekuentzia askoz ere zabalagoa hartzen baitu. Izan ere, indusketak lursail batean edo bestean eginda emaitzak oso bestelakoak dira, ez da beti erromatarren garaiko geruza esanguratsuena, eta badira garrantzi handiagoko beste kultura aldi batzuen arrastoak.

Labur-labur eta betiere behin-behinean esanda emaitzen azken memoria osatu arte, elkarren artean ondo asko bereizten diren sei aldi handi daude, baina ez dugu baztertzen etorkizuneko azterketek besteren bat identifikatzeko aukera.

1. aldia (K.a. I.-III. mendeak)

Erromatarren aurreko garaian (K.a. I.-III. mendeak) kokatzen dugu aurreneko aldia. Paldoei leku egiteko zulo kopuru handiak, haiek amortizatzen dituzten betegarriek eta zoruaren maila berdintzeko betegarriek osatzen dute lehenengo aldia.

La intención de construir una casa en la parcela 53 de la localidad de Arcaya provocó una intervención arqueológica de urgencia. La zona estaba libre de edificaciones y se encuentra a apenas 15 m al oeste de la iglesia de la Natividad. Se abrieron unos 80 m² en extensión, cerca de un 70% de la superficie afectada, dejando sin valorar su extremo sur y oeste, donde se improvisaron dos zonas de terrera.

Siguiendo con la tónica general de las intervenciones arqueológicas realizadas en Arcaya, esta actuación ha deparado importantes resultados para conocer el pasado de esta localidad. Un pasado muy extenso y que no sólo se encuadra en la etapa romana, sino que abarca una secuencia mucho más amplia que va desde la prehistoria hasta nuestros días. De hecho, dependiendo del solar o parcela en el que se realiza la excavación los resultados son distintos, no siendo siempre el estrato romano el más significativo y existiendo restos de otras etapas culturales de mayor entidad. En esta ocasión, se han documentados testimonios que van desde época prerromana hasta la actualidad, siendo los contextos prerromanos, tardorromanos y tardoantiguos-altomedievales los más importantes.

En resumen, se pueden establecer, siempre de forma provisional hasta la entrega de la memoria final de resultados, seis grandes fases bien diferenciadas entre sí, sin renunciar a la existencia de alguna más que los estudios posteriores puedan identificar.

Fase 1 (Siglos III-I a.C)

La primera fase se sitúa en época prerromana (siglo III-I a.C) y engloba a un numeroso conjunto de agujeros de poste y a sus respectivos rellenos de abandono y posterior nivelación.

Aldi handi honen baitan segur asko hobe zehaztutako historia aldiei dagozkien jarduerak egongo dira, baina oraingoz ezin izan dugu horrelakorik bereizi. Eta ezin izan ditugu induskatutako eta dokumentatutako egituren arteko harremanak zehaztu, egitura hauek munta handiagoko beste batzuk, funtzioaren ikuspuntutik ezagutzen errazagoak, osatuko bazituzten ere.

Aldi historiko honekin amaitzeko ezinbestean izan behar ditugu hizpide abandonatze aldiari dagozkion betegarriak eta zorua berdintzeko xedea izan zutenak. Dokumentatutako beste aldietan ez bezala, erromatarren aurreko aldi honetan betegarri asko identifikatzen dira, ez ordea suntsipenetik etorritako mailarik. Aldi honetan, antza, nahiago izan zuten, alde hau guztia suntsitu eta bertan berreraiki baino, zoruaren maila goratu, kasu askotan aurreko egituren hondakinekin osatutako betegarriekin. Ohitura honek, Arkaian burura eramandako beste esku-hartze arkeologikoetan ikusi bezala (Arkaia, 18; Arkaia, 13; eta beste batzuetan) inflexio-puntu garrantzitsua marrazten du aztarnategiko estratigrafian, oso nahasita dagoen sekuentziatik, non aldi modernoenek betikoz galarazi dituzten aldi aspaldikoenak, ia ukitu gabe dagoen sekuentziara, eskuarki abandonatze-berdintze depositu handiek zigilatuta dagoen sekuentziara, jauzi egiten baita.

2. aldia (K.o. I. mendearen 1. erdialdea)

Depositu sorta batek hartzen du 2. aldi hau. Depositu hauetan erromatarren garaiko zeramikak ikusten dira (*T.S. Italica* moldekoak, zeramika arrunta, anforak, argiontziak, pareta leunekoak), ez ordea *T.S.H.* moldekoak, baina bertako tradizioaren arabera landutakoak dira nagusi. Beraz, K.o. I. mendearen lehenengo erdialdean datatu dugu aldi hau.

Induskatutako egitura bati atxikita daude depositu hauek, interpretatzen zail den egiturari atxikita, eta batez ere, antza barruti zirkular handi bat eratzen duen hormari atxikita. Horma hau landu gabeko harriz egina da, harriak buztinez batuak, baina soilik atal txiki bat, hego-mendebaldetik ipar-mendebaldera luzatzen den atal txikia, geratu zen agerian indusketa eremuaren erdialdean. Horma hau zeharo arpilatu zuten hurrengo aldietan, eta iparralde osoan ez da harri bakar bat ere kontserbatzen.

Agerian utzitako atalaren partzialtasuna eta geroagoko arpilatzeak eragozpen dira egitura honen aurreko interpretazioa zehazteko. Egitura honek eratuko zuen barrutiaren neurri garrantzitsuak, eratzen duen lerro kurbatuak eta trenkaden gabeziak informazio apur bat eskaintzen digute. Beraz, ez da zentzugabekeria bizitoki erabilera ez baizik eta nekazaritza nahiz abeltzaintzari lotutako erabilera eman ziotela proposatzea.

Hitz gutxitan esateko, orain arte Arkaiako aztarnategian oso aldi iluna izan dena –erromatarren garaiko mailetatik, non aldi honetako zeramikak asko diren (T.S.H. moldekoak nagusi), erromatarren aurreko mundura, non eskuz egindako zeramikak eta zeltiberiar moldekoak baizik ez diren aipagarri, arteko aldia– hobe ezagutzen laguntzen digu aldi honek. Datuak artean eskasak badira ere, baliagarriak dira aztarnategiaren

Posiblemente, dentro de esta gran fase existan distintas actividades correspondientes a periodos históricos mejor definidos, pero por el momento no ha sido posible confirmar este hecho. Tampoco se ha podido establecer asociaciones entre las distintas estructuras excavadas documentadas para formar otras de mayor entidad y más reconocibles funcionalmente.

Para finalizar el repaso a esta fase histórica es necesario hablar sobre los importantes rellenos de abandono y nivelación existentes. Al contrario que en el resto de las fases documentadas, en la etapa prerromana se observa la gran acumulación de rellenos y la práctica ausencia de arrasamientos. Parece ser que en este momento se prefiere elevar la cota de suelo con rellenos constituidos en muchos casos con los propios restos de las estructuras precedentes, antes que arrasar toda la zona y volver a construir en ella. Esta costumbre, ya vista en otras intervenciones arqueológicas de Arcaya (Arcaya 18, Arcaya 13, etc.), supone un importante punto de inflexión en la estratigrafía del yacimiento, ya que se pasa de una secuencia muy alterada en la que normalmente las fases más modernas han arrasado con las más antiguas, a otra bastante intacta, normalmente sellada por un importante depósito de abandono-nivelación. Probablemente debido a esto, en todas las intervenciones desarrolladas en Arcaya, siempre se evidencia una secuencia prerromana bastante importante, tanto cualitativa como cuantitativamente.

Fase 2 (1ª mitad del siglo I d.C.)

La fase 2 viene dada por una serie de depósitos en la que se observa cerámica romana (*T.S.Italica*, cerámica común, ánforas, lucernas, paredes finas) pero con la total ausencia de la *T.S.H.* y una gran mayoría de cerámica de tradición indígena. A consecuencia de esto, esta fase se ha datado en la primera mitad del siglo I d.C.

Estos depósitos están asociados a una estructura excavada de difícil interpretación y, sobre todo, a un muro que parece formar un amplio recinto circular. Se trata de una estructura de mampostería trabada con arcilla, de la cual sólo se tiene un pequeño tramo en la parte central de la excavación con una orientación suroeste-noreste. Este muro está muy saqueado en fases posteriores y, en todo su tramo septentrional no queda ni una sola de sus piedras.

La parcialidad del tramo descubierto y los fuertes saqueos posteriores, impiden establecer una interpretación para esta estructura. Las importantes dimensiones del recinto que debía formar esta estructura, la línea curva que toma y la falta de tabiques dan alguna información al respecto. De esta forma, negarle un uso habitacional y otorgarle otro agropecuario o similar no parece muy descabellado.

En definitiva, esta fase ayuda a conocer un periodo hasta el momento muy oscuro en el yacimiento de Arcaya, como es el paso de los niveles estrictamente romanos con gran abundancia de cerámica de este periodo cultural, con la T.S.H a la cabeza, al mundo prerromano con la cerámica a mano y del tipo celtibérico como únicas producciones relevantes. Si bien es cierto que los datos aun son escasos, sirven para completar la secuencia histórica del yacimiento. Ade-

historiaren sekuentzia osatzeko. Gainera, barruti zirkular bat eratuko zuen horma ez txikiaren presentziak iradokitzen digu aldi hau garrantzitsua izan zela.

3. aldia (K.o. IV. mendea)

3. aldiak arazo handiak planteatzen ditu berau zehazteko garaian, funtsean aldi honetako hondakin nagusiak arpilatuak izan zirelako. Batez ere iparraldetik hegoaldera eta ekialdetik mendebaldera luzatzen diren horma sorta batekin bikain diseinatu eta eraikitako eraikineko harriak arpilatu zituzten. Horma hauek barruti angeluzuzen handi bat eratuko zuten, eta barruan *opus signinum* motako zorua izango zuen. 2. aldiko hondakinekin gertatzen zen bezala, haien partzialtasunak eta ondorengo arpilatzeek neurri handi batean zailtzen dute eraikin honen aurreko interpretazioa.

2010. urtean jarri genuen abian kanpaina hau, eta hainbat zerrenda (18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26/J, K; G, H, I/23, 24, 25) ireki genituen tumuluaren gainazala agerian utzi arte, J. Mª Apellánizek utzi zuen bezala ikusi arte. Lehenengo saio horren ostean, ondoko lauki guztiak induskatu ditugu aurtengoan, eta hileta egitura mugatzen eta babesten zuten landu gabeko harrizko hormaraino eta pezoiaren kanpoko alderaino, biak 1974an eraikiak, iritsi gara. Elementu hauek kendu egin ditugu hilobi korridoredun honetako tumuluaren egitura kaltetzen zutelako eta monumentuaren ikuspegi osoa galarazten zutelako.

Ekialdeko lanek aukera eman digute argi eta garbi ikusteko nola goiko plataformako tumuluaren perimetroan –ingurua baino metro bete gorago baitago– egokitutako lauza «handien» muga, gutxi gora-behera 4 metroko luzeran kontserbatua, antzeko ezaugarriak dituzten blokeekin luzatzen den iparralderantz beste 6 metrotan. Korridore aldera bestelakoak dira ezaugarriak, alde honetan hormatxo bat altxa baitzuten.

Goiko plataforman eraikitako tumuluaren parte bat pakete buztintsuan eta hareatsuan egokitzen da,

Durante el año 2010, promovidas y subvencionadas por la Diputación Foral de Álava se iniciaron intervenciones arqueológicas en tres monumentos megalíticos de la Rioja Alavesa: El Montecillo (Villabuena), Chabola de la Hechicera (Elvillar) y Alto de la Huesera (Laguardia). En la presente campaña los trabajos se han centrado en estos dos últimos monumentos y se han iniciado distintos estudios dentro del proyecto HAR2008-03976/HIST.

Chabola de la Hechicera (Elvillar)

El año 2010 se dio inició la campaña abriendo varias bandas (18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26/J, K; G, H, I/23, 24, 25) hasta aflorar la superficie del túmulo, tal como la dejó J. Mª Apellániz. Tras esta primera aproximación, durante la presente campaña se han excavado todos los cuadros adyacentes alcanzando el muro de mampostería que delimitaba y protegía la estructura funeraria, así como el sector exterior del foso, construidos en 1974. Estos elementos han sido eliminados por afectar a la estructura tumular del sepulcro de corredor e impedir una visión integral del monumento.

La ampliación de los trabajos en el sector oriental ha permitido observar que el límite de «grandes» losas dispuestas en el perímetro del túmulo de la plataforma superior –un metro más alto que su entorno próximo–, que se conservaba a lo largo de unos 4 metros, se prolonga con bloques con características similares hacia el norte en otros 6 metros. Hacia el corredor sus características son distintas, ya que aquí se trata de un murete.

Parte del túmulo construido en la plataforma superior se asienta sobre un nivel arcilloso-arenoso de

Sorginaren Txabolako korridoreko hilobiaren ikuspegi orokorra.

Vista general del sepulcro de corredor de La Chabola de La Hechicera.

kolorez marroia eta grisa. Leku egiten dioten geruzen makurduraren arabera, lodiagoa da edo meheagoa da aipatu paketea. Neurri ederreko blokeek eta lauzek eratuta dago tumuluaren oinarria, haren ardatz nagusia betiere baita 40 cm baino luzeagoa. Harriok ez daude ausaz jarriak, zeiharrean edo ia bertikalean ipiniak dira, goiko aldetik erdialderantz makurtuak, bata bestea ezkutatuz ganbera eta korridorea eratzen duten lauzetatik hasita kanpoko alderaino. Honenbestez, funtzioaren ikuspuntutik funtsezkoak diren elementu arkitektonikoak sendotzeaz gainera, tumulua gutxi gorabehera 40 cm-tan goratzea lortu zuten blokeek eta harri xabalek eraturiko aurreneko geruza honi esker.

Tumuluaren oinarria eratzen duten blokeek eta lauzek plataforma antzeko bat eratzen dute, eta laugunearen inguruko bloke handienetako batzuen aurpegietan, korridorearen alde bietara, goldeak egindako ildo luzeak eta sakonak ikus daitezke, iparraldetik ekialdera egindakoak edo, iparraldekoetan ikus daitezkeenez, ekialdetik mendebaldera. Tumuluaren geruza ez mehe bat desagerrarazi zuten laborantza lanek –1932ko airetiko argazki batean ikus daitezke– azaltzen dute elkarren gainean egokitutako tumulu bien itxurazko presentzia. Bloke horietako batzuk alde hau «berdintzeko» eta ipar-ekialdean dauden lursailetatik (25, 26/R, Q laukiak) bereizteko horma bat eraikitzeko berrerabiliko zituzten. Horma hau 4,30 metro luze, 1,20 metro zabal eta gehienez ere 50 cm garai da.

Goiko plataformako tumuluaren oinarria inguratzen duten bloke sortaren kanpoko aldean ikusten da nola erliebe naturala aldapa pikoan jaisten den (55º gutxi gorabehera) ekialdetik eta hegoaldetik, eta nola haren gainean harri koskorrak eta blokeak jarri zituzten, 1-2 metro zabaleko goiko plataformako tumuluan egun ikus daitekeen «eraztun» zentrokide antzekoa eratuz. Tumuluaren muturra desagerrarazi zuten laborantza lanen ondorio dira egun ageri dituen neurriak eta ezaugarriak.

color marrón grisáceo cuyo espesor varía en función del buzamiento de los estratos sobre los que se asienta. La base del túmulo está construida por bloques y losas de notables dimensiones, ya que su eje mayor supera en todos los casos los 40 cm. Su disposición no es aleatoria y se aprecia que están colocadas de forma oblicua o casi vertical, e inclinadas hacia el centro en su parte superior, y solapándose unas a otras desde las losas que conforman la cámara y corredor hacia el exterior. De esta forma, además de consolidar los elementos arquitectónicos fundamentales desde el punto de vista funcional se conseguía alzar el túmulo, aproximadamente 40 cm, gracias a esta primera capa de bloques y lajas.

Los bloques y losas que constituyen la base del túmulo conforman una especie de plataforma y sobre las caras de algunos de los bloques más destacados de la zona perimetral del rellano se observan profundos surcos de arado longitudinales a ambos lados del corredor de orientación N-S, o dirección E-W en el lado norte. Las labores agrícolas practicadas -visibles en una foto aérea de 1932-, y durante las cuales se eliminó una notable capa del túmulo, explican la aparente existencia de dos túmulos superpuestos. Parte de estos bloques pudieron reutilizarse para construir un muro de «aterrazamiento» y linde de parcelas existente en el sector NE (cuadros 25, 26/R, Q). Sus dimensiones son 4,30 m de longitud, 1,20 m de anchura y una altura máxima conservada de unos 50 cm.

Al exterior de la serie de los bloques que jalonan la base del túmulo del rellano superior, se observa que el relieve natural presenta una pronunciada pendiente (de unos 55º) hacia el lado este y sur sobre él que se depositaron cantos y bloques, constituyendo en la actualidad una especie de «anillo» concéntrico, respecto del túmulo de la plataforma superior, de 1-2 metros de anchura. Sus actuales características y dimensiones se deben a las labores agrícolas que eliminaron el extremo del túmulo.

Alde honetan burura eramandako kanpaina bietan ia ez dugu hondakin arkeologikorik erregistratu, baina Apellánizen kanpainan (1975, 188), tumuluaren gainean barreiatuta zeuden beste hondakinez gainera (sekzio triangeluarreko brontzezko uztai edo eraztun bat, zintzilikario obal bat etab), kanpai itxurako hilobi baten ustezko presentzia adierazten da: «*Junto al borde oriental de la losa de cubierta, tal como la encontramos al iniciar la excavación, y a la altura del vértice del ortostato mayor de la pared E de la cámara, directamente bajo la capa superficial de tierras y sobre las primeras piedras que forman el núcleo del túmulo, hallamos huesos humanos fragmentados junto a varios trozos de un vaso campaniforme. Cerca de éste, aunque a 0,75 m de distancia y junto al mismo borde de la losa, aparecieron otros objetos*». Tumuluaren gailurrean hondakin gehiago aurkituta guk uste dugu ganberaren barruko aldean egindako lapurretatik etorriak direla haiek.

Apellánizek, bere esku-hartzean zehar (1975, 193), ongien kontserbatzen zen sektorea mendebaldekoa zela esan zuen, eta ondorioz, mailen arabera induskatu eta hondakin arkeologikoak bildu zituen (zeramikazko zatiak, giza hondakin gutxi batzuk etab). Induskatutako eremuan tumuluaren azpitik sakontzen den metro koadroko zundaketa bat bereizi genuen, eta laginak jaso genituen hartatik.

Mendebaldean eta ipar-mendebaldean, egungo tumuluaren muturrean, neurri ertain eta txikiko bloke solteek eratutako depositu luze baten presentzia hautematen da. Harri koskor batzuk dituen lurrezko geruza lodi baten gainean, kolorez marroia eta grisa, hartzen du atseden deposituak. Itxura guztien arabera lursail biak bereizteko hormatik (eta harri metaketatik) etorriak dira tumuluko ezpondako blokeak, argi eta garbi ikus baitaiteke nola horma hori iparralderantz luzatzen den (artearen azpitik), nola metro bete zabal eta gutxienez 50 cm garai den.

Berezia da hegoaldeko sektorea, bertan dago korridorerako sarrera. Alde honetan tumuluaren beste aldeetan ez bezalako jarduerak eramango zituzten burura, hasieran funtzio jakin baterako diseinatu baitzuten hura (sartu eta irteteko eta, agian, erritu kontuak egiteko). Oso nahasita dago alde hau, besteak beste erliebe naturala ekialdekoa bezalakoa delako, aldapa pikoa delako, eta laborantza lanek kaltetuko zutelako, nahiz eta haien arrastorik ez dagoen. Gainera 1974. urteko indusketa lanak gehitu behar dira, eta gogoan eduki behar dugu haietan ere alde hau berezia zela adierazten zela.

Korridorearen sarrera aurretik ikusita, eskuinaldean, mendebaldeko plataforma naturalaren perimetroa inguratzen duten ageriko harri xabalen (zeiharrean edo ia bertikalean jarriak) sortari segida emanez, 4,30 metro luze den hormatxo bat ikusten da, J. Mª Apellánizek jada deskribatua. Hormatxo honek bat egiten du korridoreko aurreneko lauzaren kanpoko muturrarekin. Hormatxoak errenkada bateko altuera kontserbatzen du bere mendebaldeko muturrean, baina ekialdera bi eta hiru errenkada kontserbatzen ditu, eta gutxi gorabehera 45 cm-ko garaiera.

Korridoreko aurreneko lauzatik eta hormatxoaren muturretik gutxi gorabehera metro betera dago Apellánizek adierazitako harzola, artean ukitu gabe jarraitzen

Nuestra intervención apenas ha aportado en las dos campañas restos arqueológicos en esta zona, sin embargo en la campaña de Apellániz (1975, 188) se señala, además de otros restos dispersos sobre el túmulo (un anillo o aro de bronce de sección triangular, un colgante ovalado, etc.), la posible existencia de un enterramiento campaniforme: «*Junto al borde oriental de la losa de cubierta, tal como la encontramos al iniciar la excavación, y a la altura del vértice del ortostato mayor de la pared E de la cámara, directamente bajo la capa superficial de tierras y sobre las primeras piedras que forman el núcleo del túmulo, hallamos huesos humanos fragmentados junto a varios trozos de un vaso campaniforme. Cerca de éste, aunque a 0,75 m de distancia y junto al mismo borde de la losa, aparecieron otros objetos*». El hallazgo de más restos en la cúspide de túmulo nos lleva a sospechar que pudieran proceder de saqueos en el interior de la cámara.

Durante la intervención de Apellániz (1975, 193) éste consideró el sector occidental como el mejor conservado, por lo que procedió a su excavación por lechos, recogiendo distintos restos arqueológicos (fragmentos cerámicos, unos pocos restos humanos, etc.). Dentro del área rebajada se ha localizado un sondeo de 1 m^2, que profundiza por debajo del túmulo, lugar donde se ha practicado un muestreo.

Finalmente, en los sectores occidental y noroccidental, pero ya en el límite actual del túmulo, se observa la presencia de un depósito longitudinal de bloques sueltos de pequeño-mediano tamaño que se asienta sobre un potente nivel de tierra de color marrón grisáceo con algo de cascajo, Los bloques del propio talud del túmulo parecen ser parte de un muro de separación de las dos parcelas (además de morcuero) cuya prolongación se define claramente hacia el norte (bajo la encina), un muro de un metro de anchura y una altura, de al menos, 50 cm.

El sector meridional muestra la particularidad de que aquí se sitúa el acceso al corredor, área que tendrá un destino distinto al del resto del túmulo porque inicialmente fue diseñado para una función específica (tránsito y además, quizás, lugar de prácticas rituales). Esta zona está muy alterada, entre otras razones, porque el relieve natural, continuación del descrito en el lado oriental, muestra una fuerte rampa, así como por la actividad agrícola, de la que apenas hay indicios aquí. A estas alteraciones habría que añadir la propia excavación de 1974, donde esta zona es descrita ya entonces con características propias.

Observando la entrada del corredor desde enfrente, en el lado derecho y como prolongación de la serie de lajas oblicuas o subverticales visibles que jalonan el perímetro de la plataforma natural del lado oriental, se aprecia un murete de 4,30 metros de longitud, ya descrito por J. Mª Apellániz, que converge en el extremo exterior de la primera losa del corredor. El murete conserva en su extremo occidental una hilada de altura, pero hacia el este conserva al menos dos y tres hiladas, alcanzando una altura de unos 45 cm de altura.

Aproximadamente a un metro de la primera losa del corredor y del extremo del murete se define el empedrado señalado por Apellániz, que todavía se con-

duena, eta haren ia paraleloan, 80 cm-tara, 1,80x0,70 cm-ko beste bat dagoela esan behar dugu. Korridoreko sarreraren aurreko atari edo ezkaratz txiki bat eratzen zuela ematen du, harzola honen iparraldeko mugaren eta korridorearen ezkerraldeko lauza bakarraren artean metro bete luze eta 0,40 metro zabal den hormatxoaren muturra tartekatzen baita. Hormatxo honek tumuluan du abiapuntua, eta tumuluaren eskuinaldean ageri den hormatxoaren lerro berera biltzen da, bien artean gutxi gorabehera 120 cm-ko tartea gordetzen bada ere.

Ganberan eta korridorean burura eramandako esku-hartze arkeologikoan zorua estaltzeko xedean baliatutako elementuak jaso genituen (bertara isuri den geruza altxa eta beste garbitze lan batzuk), barrutia babeste aldera. J. Mª Apellánizek hirurogeita hamargarren hamarraldian utzitako lekukotasunak nabarmen murriztu ziren, hondakinak ganberaren ezkerraldean baizik ez ziren kontserbatzen. Nahasketaren ondorio ziren zoruaren gainean han eta hemen ageri ziren neurri txikiko bloke ugariak. Kanpaina honetan hondakinak babesten saiatu gara, eta ukitu gabe utzi dugu lekukotza. Hori bai, laginak jaso ditugu.

Ganberaren ardatzak gutxi gora-behera 4,80x3,70 m luze dira, eta ganberaren erdi ekialdean metro koadroko zundaketa bat egin genuen paleo-zoruaraino iritsi ginela egiaztatzeko, Apellánizek zioen bezala.

2011ko abuztuaren hondarrean amaitutzat eman genuen esku-hartze arkeologikoa, eta Enviande eta Petra enpresak hura bi alditan zaharberritzeko lanei ekin zieten azaroan. Lan hauek segida izango dute 2012an.

Alto de La Huesera (Guardia)

D. Fernández Medranok 1947. urtean aurkitu zuen La Huesera trikuharria, urte berean induskatu zuten eta hondakin material asko aurkitu zituzten: hainbat burezur oso mendebaldeko lauzaren ondoan, zeramikazko zatiak eta beste batzuk. 2010eko apirilean esku-hartze arkeologiko bat abiarazi genuen eremu mugatu batean hileta izaerako monumentuaren kontserbazio egoera ezagutzeko, itxura guztien arabera laborantza lanek kaltetua baitzegoen hura. Kanpaina honetan tumuluaren iparraldetik hegoalderako eta ekialdetik mendebalderako diametroak mugatu ditugu, hasieran 20 metrotara iristen zirenak. Agerian geratu ziren egungo simetria eza eta eraiki zutenetik jasandako kalteak. Bestalde, tumuluko eraikuntza egituren ezaugarriak eta egungo kontserbazio egoera aztertu ahal izan genituen. Monumentua nahasita zegoen gainazaleko geruzetan (lur iraultzeek eta gisakoek eraginda), baina tumuluaren egitura uste baino hobe kontserbatzen zen haren sakonean. Tumuluaren goiko partea ezponda/harrizko lerro antzeko batek zeharkatzen du. Harrizko lerro hau lursailaren muturrean zegoen, bertara metatuko zituzten monumentuaren iparraldeko eremuan prestatutako plataforma goldatzean nahasiko zituzten harriak. Lehenengo kanpaina hartako ekarpen garrantzitsuenetakoa izan zen trikuharri poligonala ez baizik eta trikuharri korridoredun bat izateko aukera planteatu izana. Beraz, korridorea aurkitzea eta hura mugatzea izango ziren 2011ko kanpainako helburu nagusiak.

serva intacto, y prácticamente en paralelo con él, a unos 80 cm, otro de 180x70 cm. Parece que creaba un pequeño atrio o vestíbulo ante la entrada al corredor, ya que entre el remate norte de este empedrado y la única losa del corredor del lado izquierdo se intercala el extremo de un murete de 1 metro de longitud y 0,40 de anchura, que se inicia en el túmulo y que se alinea con el ya descrito murete visible en el lado derecho del túmulo, del que se encuentra a unos 120 cm.

La intervención arqueológica desarrollada en la cámara y corredor se ha limitado a la limpieza de los elementos utilizados en la cubrición del suelo (levantar la corteza que se ha ido vertiendo en el lugar, etc.) con el fin de proteger el recinto. Los testigos que había dejado J. Mª Apellániz en la década de los setenta habían mermado de forma considerable, conservándose algunos restos únicamente en el lado izquierdo de la cámara. Consecuencia del desmantelamiento eran los numerosos bloques de pequeñas dimensiones que se constataban sobre el suelo se observaban de dicho testigo. En la presente campaña se ha intentado preservar este legado, dejándolo prácticamente intacto, salvo en lo que se refiere a la recogida de muestras.

Los ejes de la cámara miden, aproximadamente, 4,80x3,70 m y en su mitad oriental se ha practicado un sondeo de un metro cuadrado con el fin de cerciorarnos de que efectivamente se había alcanzado el paleosuelo estéril, tal como señalaba Apellániz.

A finales de agosto de 2011 se dio por finalizada la intervención arqueológica procediéndose por parte de las empresas Enviande y Petra, en dos fases, al proceso de restauración el mes de noviembre. Estos trabajos proseguirán en 2012.

Alto de La Huesera (Laguardia)

El dolmen de La Huesera fue descubierto en 1947 por D. Fernández Medrano y excavado ese mismo año, hallándose abundantes restos materiales: varios cráneos completos junto a la losa oeste, fragmentos cerámicos, etc. A partir del mes de abril de 2010 se inició otra intervención arqueológica en un área limitada con el fin de conocer y evaluar el estado de conservación del monumento funerario, ya que había indicios de que distintas actividades agrícolas le habían afectado. Durante esta campaña se delimitaron los diámetros norte-sur y este-oeste del túmulo, que inicialmente alcanzaban los 20 metros, lo que permitió valorar su asimetría actual y el grado de afección desde su construcción. Por otra parte, se pudieron conocer las características de las estructuras constructivas del túmulo y su estado de conservación. El monumento se hallaba alterado en las capas más superficiales (por remoción, acarreo, etc.), pero en profundidad la estructura tumular se conservaba mejor de lo esperado y la parte superior del túmulo está recorrida por una especie de ribazo/morcuero situado en el extremo de la parcela donde se acumularían las piedras que se removían al arar la plataforma que se había preparado en el cuadrante norte del monumento. Una de las aportaciones fundamentales de la campaña fue que en lugar de ser un dolmen poligonal, cabía la posibilidad de que se tratase de un sepulcro de corredor, siendo la localización del corredor y su delimitación uno de los objetivos fundamentales para la campaña de 2011.

Ezkerretara: Alto de La Huesera trikuharriko korridorea. Eskuinetara: Alto de La Hueserako hilarria jatorrizko kokalekuan.

A la izquierda: corredor del dolmen del Alto de La Huesera. A la derecha: la estela del Alto de La Huesera en su emplazamiento original.

Abuztuaren amaierarik azarora arte iraun zuen 2011. urtean El Alto de La Huesera trikuharrian burura eramandako indusketa kanpainak. 29 m^2-ko azalera laukitan banatu zen balizko korridorearen aztarnak identifikatzeko eta monumentua alderik alde zeharkatzen duen «gailur» antzeko hori zehaztu ahal izateko. Honako zerrenda hauetan induskatu genuen: 6/D-I; 7/C-I; 8/C--J; 9/D-J; 10/H-I eta 11H. Hala eta guztiz ere, korridorera egokitu ahala lauki gero eta gutxiagotan sakondu genuen.

Material ugari bildu genuen burura eramandako esku-hartzean, 700 inguru aztarna, tipologia askotakoak: zeramikak (dekoratu gabeak; tresna batez edo hatzez egindako dekorazioak dituztenak, kanpaiaren formako ziztadak dauzkatenak eta beste), harrizko hondakinak (harraskailuak, gezi mutur txortenduna eta hegalduna, leundutako tresna zatiak, etab) eta hainbat hondakin antropologiko. Hondakinen ugaritasuna, ezaugarri tipologikoak, zeramika puskaren batek D. Fernández Medranok eta J. M. Barandiaranek ganbara induskatzean aurkitu zuten beste baten dekorazio berdina izatea eta hondakin antropologikoak kontuan izanik, guk uste dugu material gehiena, guztiak ez esatearren, bigarren egokieran dagoela, ganbera arpilatua izan baitzen. Batez beste 40 cm lodi da tumuluaren gaineko harri metaketa. Aztarna hauek trikuharria baliatuko zuten azken aldikoak lirateke, K.a. III. milurtekoan (Brontze Aroa), gehiago zehazterik ez badugu ere.

Korridorearen balizko presentzia lan hipotesia genuen Alto de La Hueserako indusketa lanei ekin genienetik. Izan ere, ganberarako sarrerarekin itxuraz eskuaira osatzen zuen lauza bertikala zegoen, eta 2010. urteko kanpainan balizko korridorearen mugetatik itxuraz irteten ziren hezur luzeak identifikatu genituen. Kanpaina honetan, 4. mailatik abiatuta korridorearen presentzia salatzen zuten aztarna agerikoak zeuden, horien artean estalkiarena egiten zuen

La campaña de excavación del año 2011 en el dolmen de El Alto de La Huesera se desarrolló entre finales de agosto y noviembre. Se cuadriculó una superficie de 29 m^2, con el objetivo principal de identificar indicios del posible corredor, así como valorar esa especie de «cresta» que recorre el monumento. Las bandas en las que se inició la excavación son las siguientes: 6/D-I; 7/C-I; 8/C--J; 9/D-J; 10/H-I y 11H. Sin embargo, el número de cuadros en los que se intervino fue disminuyendo progresivamente al adaptarnos al corredor.

La intervención realizada ha aportado abundante material, cerca de 700 evidencias, de distinta tipología: cerámica (lisa; decorada con impresiones de instrumento o digito-ungulaciones; campaniforme inciso-impreso, etc.), lítica (raederas, punta de flecha de pedúnculo y aletas...-; fragmento de útiles con pulimento, etc.) y varios restos antropológicos. La abundancia de los restos, sus características tipológicas y el hecho de que algún trozo cerámico tenga idéntica decoración a la de otro hallado durante la excavación de la cámara por D. Fernández Medrano y J. M. Barandiaran, además de los restos antropológicos, nos lleva a proponer que la mayoría, sino la totalidad, están en posición secundaria por haber sido expoliada la cámara. El espesor medio del morcuero existente sobre el túmulo es de unos 40 cm. Estos vestigios parecen poder atribuirse a las últimas reutilizaciones del dolmen, producidas durante el II milenio a.C. en fechas no calibradas (Edad del Bronce).

La posible existencia de corredor era una hipótesis de trabajo desde que se inició la excavación del Alto de La Huesera, al existir una losa vertical que aparentemente formaba casi escuadra con la entrada a la cámara, lo que parecía confirmarse al hallar en la campaña de 2010 huesos largos que parecían salir de los límites del posible corredor. En la presente campaña a partir del lecho 4 había netas evidencias de la existencia del corredor, entre ellas una losa de cubierta, de

140x50x17 cm-ko lauza, *in situ*, apur bat makurtuta, korridoreko ortostato bitan bermaturik. Korridoreko sabaia baizik induskatu ez dugunez eta artean sarrera ezagutzen ez dugunez, esan dezagun, behin-behinean bada ere, korridore hau 1-1,20 m zabal izango zela eta gutxienez 6 metro luze. Korridore honetan 7 ortostato identifikatu ditugu ezkerraldean (barrutik kanpora begiratuta) eta 3 baizik ez eskuinaldean.

Korridorearen presentzia egiaztatzeaz gainera, kanpoko aldean, 4. eta 5. lauzen artean, hilarri antropomorfo bat identifikatu genuen (soin bat zehazki), zeiharrean eta paraleloan egokitutako bost ildorekin dekoratua, ildoak mutur batean elkartzen direla. Gainera ziztada finekin grabatutako beste elementu batzuk (aztertzen ari gara uneotan) hautematen dira.

2010eko eta 2011ko indusketa kanpainak amaituta 2012an Sorginaren Txabola monumentua zaharberritzeko eta hari balio handiagoa emateko lanekin eta Alto de La Huesera trikuharriko indusketa lanekin jarraitzeko asmoa dugu.

140x50x17 cm, *in situ* ligeramente basculada apoyada sobre dos ortostatos del corredor. Provisionalmente, ya que únicamente se ha excavado el techo del corredor y aún desconocemos su entrada, parece que el corredor, del que hemos identificado 7 ortostatos en el lado izquierdo (según se mira del interior al exterior) y únicamente 3 en el derecho, tendría una anchura de 1-1,20 m y una longitud de al menos unos 6 metros.

La novedad más destacable, además de confirmar la existencia de un corredor, ha sido la identificación por su exterior, entre las losas 4 y 5, de una estela antropomorfa (concretamente un busto) decorada con 5 profundos surcos transversales paralelos que se cierran en un extremo. Además, se intuyen otros elementos grabados (en estudio) con finas incisiones.

Tras finalizar las campañas de excavación de 2010 y 2011 se espera proseguir en 2012 con los trabajos de restauración y puesta en valor del monumento de la Chabola de la Hechicera y dar continuidad a la intervención del Alto de la Huesera.

J. Fernández Eraso; J.A. Mujika Alustiza

A.27.2. **A-3314 errepidea (Kuartango, Erriberagoitia)**

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños
Finantziazioa: Andagoia ABEE

A.27.2. **Carretera A-3314 (Kuartango, Ribera Alta)**

Dirección: F. Javier Ajamil Baños
Financiación: UTE Andagoia

Prior to the construction of a platform and the improvement of the stretch of the A-3314 road between Subijana-Morillas and Andagoia, the whole zone affected by the proposed works was prospected. Special attention was paid to the zones of presumed archaeological importance located within the area of study, as well as to other sites in which remains of interest were thought to be located. The archaeological monitoring of the works themselves revealed that no archaeological remains were disturbed. No measures were therefore proposed over and above the established monitoring procedure.

A-3314 errepideko plataforma Subilla Morillas (Erriberagoitia) eta Andagoia (Kuartango) bitartean handitzeko eta hobetzeko eraikuntza lanak egin behar zituztenez, aldez aurretik miaketa lan bat eraman genuen burura aipatu obrek ondare intereseko elementuetan eta errepideak alderik alde zeharkatzen dituen ustezko eremu arkeologikoetan izan zezaketen eragina neurtzeko eta orain arte identifikatu ez diren beste aztarnategietan eraginik izango ez zutela egiaztatzeko. Honako aztarnategi hauetaz ari gara:

- «Jauregia», jauretxe barrokoa, Subilla Morillasen. Antza bertan hartu zuen ostatu Wellingtongo Dukeak 1813. urtean, Gasteizko Guduaren bezperan. Zerrendara bil liteken elementu hau kaltetuta gertatuko zen bertako lorategiaren inguruko horma eta lorategiaren azaleraren parte bat atzera eraman beharko zirelako, baina azkenean ez da horrelakorik egin.
- Kuartangoko 67. zenbakiko Ustezko Eremu Arkeologikoa: «Etxabarri Kuartangoko finkamendua». Izen bereko kontzejuaren mendebaldean dago, eta Arabako Karta Arkeologikoaren arabera, Eneolito-Brontze aroko epe kronologikoan kokatzen da.

Como consecuencia de la realización de las obras de construcción de mejora de trazado y ampliación de plataforma de la carretera A-3314, entre Subijana-Morillas (Ribera Alta) y Andagoia (Kuartango), se llevó a cabo una prospección previa para valorar el grado de afección de éstas sobre los elementos de interés patrimonial y las zonas de presunción arqueológica que la carretera atraviesa, así como para constatar que no se iban a ver afectados otros no identificados hasta la fecha. Estos eran:

- «El Palacio», casa señorial barroca situada en Subijana-Morillas que, al parecer, sirvió de alojamiento al Duque de Wellington en los días previos a la Batalla de Vitoria, en 1813. Elemento inventariable afectado por el retranqueo de un muro perimetral de su jardín y de parte de la superficie de éste y que finalmente no se ha producido.
- Z.P.A. nº 67 de Kuartango: «Asentamiento de Echavarri-Cuartango». Localizado al oeste de la localidad del mismo nombre que consta como del periodo cronológico Eneolítico-Bronce, según la Carta Arqueológica de Álava.

– Kuartangoko 14. zenbakiko Ustezko Eremu Arkeologikoa: «San Juan Bataiatzailearen baseliza». Katadiano auzoaren hego-mendebaldean dago, auzoaren sarreran. 1713. urteko dokumentu batean aipatzen da baseliza hau, baina 1826. urteaz geroztik ez dago haren berririk.

Errepidea eraikitzeko obren esparrura biltzen ez ziren beste ustezko eremu arkeologiko batzuk zeuden, eta horiek ere miatu genituen badaezpada. Era berean, arreta berezia jarri genuen Techa izeneko haitzartean, jatorri karstikokoa izanik inguruan dauden harpeen antzekoak egon baitzitezkeen, eta hauek eduki arkeologikoak izan baitzitzaketen. Gainera potentzial arkeologikoko lekuak adieraz litzaketen lekuizen batzuen jatorria arakatu genuen. Bukatzeko, ezin aipa gabe utz dezakegu Kuartangoko Udalak jakinarazitako kontu bat, hots, Espainiako Gerra Zibilaren garaiko (1936-1939) hobi komun batzuk egon zitezkeela Ilunbe aldean, bide atalaren amaieran, Baias ibaia gainditzen duen zubitik gertu, baina ez dago horri buruzko dokumentazio idatzirik.

Miaketa lanak amaituta txosten bat idatzi genuen, eta obren gaineko kontrol arkeologikoak egitea gomendatzen genuen neurri egoki gisa, ez baikenuen obrek egituretan eragina izango zutenik ikusten, ez baikenuen lur eremuan orbanik hautematen edo, gainazalean, materialen metaketa bereziki nabarmenik. Hala eta guztiz ere, kontrol lanak bidearen luzera osoan zehar egin bagenituen ere, arreta berezia jarri genuen arestian aipatutako obrak garatzen ziren lekuetan.

Techako haitzarte aldeko obren gaineko jarraipen lana ezin hasi izan genuen bertaraino iristeko zaborra kendu zuten arte. Obrek haitzartearen mazelan izan zuten eragina, bidearen eskuinaldean, eta zuzenean arrokaren gainean, alde honetan garaiera handira iristen baita. Induskatutako perfilak miatu genituen, eta elementu arkeologiko bat bera ere ikusi ez genuen arren, agerian geratu ziren karstalde honetako hainbat hutsarte, kareharriaren disoluzioak eragindakoak.

A-3314 errepidearen eta Jokanora doan errepidearen arteko bidegurutzearen parean, Zuhatzu Kuartangoko herrian, bihurgune oso itxi bat kentzeko lanek agerian utzi zuten beste harrizko azaleratze bat. Haren azpian aldez aurreko miaketa lanetan dokumentatutako errekasto kanalizatu bat luzatzen zen, baina arkitekturaren ikuspuntutik ubide horrek ez zuen inolako interesik. Itxura guztien arabera Baias ibaira isurtzen zituen urak, eta Kuartangoko 36. zenbakiko Ustezko Eremu Arkeologikotik: «Zuhatzu Kuartangoko Errota» gertu dagonez, hasiera batean egitura biek halako harremana izango zutela pentsatu genuen. Hala eta guztiz ere, Ustezko Eremu Arkeologiko hau ibaiaz beste aldera dagoenez, errotarria mugiarazteko urak bilduko zituen ibaiaz beste aldera dagoenez, guk uste dugu ondoko etxeko lurretako betegarriei eusteko horma dela. Egitura hau partzialki eraitsi zuten errepidearen zabalera emendatzeko.

Etxabarri Kuartango kontzejutik gertu dago Kuartangoko 67. zenbakiko Ustezko Eremu Arkeologikoa: «Etxabarri Kuartangoko finkamendua». Landareek estalitako eremua da, A-3314 errepidea baino kota beheragoan, Sendadianora daraman bideak gurutzatuta.

– Z.P.A. nº 14 de Kuartango: «Ermita de San Juan Bautista». Situada al suroeste de Katadiano, junto al acceso al pueblo. Ermita citada en el año 1713 pero de la que deja de haber noticias desde el año 1826.

Había otras zonas de presunción arqueológica que no estaban incluidas en la traza de las obras de construcción de la carretera que también se prospectaron por precaución. También se mostró un especial interés en la zona del desfiladero de Techa, ya que por su origen kárstico podía albergar alguna cueva similar a otras halladas en el entorno y que podría contener restos arqueológicos. Además se añadieron algunos términos cuyos topónimos podrían estar indicando lugares de interesante potencial arqueológico. Por último se debe hacer referencia a que el Ayuntamiento de Kuartango alertaba de la posibilidad de la existencia de fosas comunes que se remontarían a la época de la Guerra Civil Española (1936-1939), en el término de Ilunbe, zona situada al final del trazado, junto al puente que salva el río Bayas aunque no existe documentación escrita al respecto.

Tras la prospección se emitió un informe en el que se recomendaba como medida más adecuada el control arqueológico de las obras, ya que no se encontraron evidencias de que éstas afectaran a estructuras, manchas en el terreno o acumulaciones especialmente densas de materiales en superficie. Aún así, se puso un especial énfasis en el seguimiento de las obras en los lugares citados antes, pese a que el control se realizó sobre todo el trazado.

El seguimiento de la obras en la zona del desfiladero de Techa no pudo iniciarse hasta que se retiró el escombro suficiente como para permitir el paso. Las obras afectaron aquí a la ladera del desfiladero, en el lado derecho de la calzada, y directamente sobre la roca, que alcanza en esta zona una gran altura. Se procedió a la revisión de los perfiles resultantes de los desmontes y, aunque no se constató visualmente ningún elemento arqueológico, sí se sacaron a la luz diversas oquedades pertenecientes al sistema kárstico por disolución de la caliza.

Frente a la intersección de la A-3314 con la carretera que se dirige a Jokano, dentro ya del caso urbano de Zuazo de Kuartango, los trabajos de eliminación de una curva muy cerrada provocaron unos importantes desmontes sobre un nuevo afloramiento rocoso. Bajo éste discurría un arroyo canalizado que ya se documentó durante la prospección previa, aunque no constaba como elemento de interés arquitectónico. Todo parece indicar que vertía aguas al Río Bayas, y su cercanía a la Z.P.A. nº 36 de Kuartango: «Molino de Zuazo de Kuartango» nos hizo sospechar en un primer momento que pudieran tener relación. Sin embargo, dada la localización de esta Zona de Presunción al otro lado del río, del que recogería las aguas para su rueda, nos inclinamos por identificarla como un muro de contención de los rellenos del terreno de la casa anexa. Esta estructura fue en parte derribada para ampliar el ancho de calzada.

Junto a la localidad de Etxabarri-Kuartango se extiende la Z.P.A. nº 67 de Kuartango: «Asentamiento de Echavarri-Cuartango». Se trata de una extensión de terreno cubierta de vegetación, a una cota más baja que la carretera A-3314 y atravesada por la que lleva a Sendadiano.

AP-68 Autopistako hesiak mugatzen du Ustezko Eremu Arkeologikoa, eta beraz, aipatutako errepideen eta hesien arteko espazioan izango zuten eragina lanek. Atal honetan hainbat egunez luzatu ziren obrak, ez ordea ondoz ondoko egunetan. Hasteko, errepide bien ertzetako landareak kendu zituzten, 80 cm eta metro bete bitarte sakondu zuten eta betegarrien azpian arroka naturala geratu zen agerian. Lurrez eta harriz osatuta zeuden betegarriak, material arkeologikorik gabe. Errepidearen hegoaldean hodi zahar bat kaltetu zuten lur mugimenduek, eta hodi honek lehendik ere hemen lur mugimendu batzuk izan zirela salatzen du. Are gehiago, Katadianoko auzo batek esandakoaren arabera, alde hau materialak metatzeko baliatu zuten AP-68 Autopista eraiki zutenean. Hurrengo egunetan xehetasun handiago batez aztertu genuen alde hau; batetik, Ustezko Eremu Arkeologikoaren erdi hegoaldean obrak harri naturaleraino iritsi zirela egiaztatu genuen, eta bestetik, lur mugimenduak AP-68 autopistara hurbildu ahala betegarriak gero eta lodiagoak zirela. Azken hauek alde hau goratzeko eta gaineko pasabidea eraikitzeko xedean ekarritako betegarriak dira. Materiala segur asko leku beretik aterako zuten, horregatik dago alde hau A-3314 errepidea baino kota beheragoan. Ez genuen giza okupazioaren arrastorik aurkitu, ez eta izaera arkeologikoko elementurik ere, alde hau osoa erabat nahasita baitago aipatutako autopista eraiki zutenetik.

A-3314 errepidearen eta Katadianora daramanaren arteko bidegurutzea igarota dago Kuartangoko 14. zenbakiko Ustezko Eremu Arkeologikoa: «San Juan Bataiatzailearen Baseliza». 1713. urteko dokumentu batean izen horrekin aipatzen den baselizan du jatorria, baina 1826. urteaz geroztik ez da haren berririk. Aldapa handiko eremua da, zuhaitzek eta zuhaixkek estalia, hura ikusten galarazten zuen landare geruza trinkoak estalia, nahiz eta aspaldiko baratze eta barruti abandonatu batzuk mugatzen zituzten hormak hautematen ziren. Obrei ekin aurreko miaketa lanetan, alde hau zurkaiztuko baitzuten, ikusi genuen nola errepideko arekak altxatzeko lanek ez zuten ia eraginik izango ustezko eremu arkeologikoan, eta halaxe izan zen. Eremu honen mendebaldeko muturra ez da errepideraino iristen, eta egun ia desagertua den bide zahar baten paraleloan luzatzen da. Bide honek gora egiten du auzoaren beheko aldetik herriaren iparralderaino.

Andan dago Kuartangoko 9. zenbakiko Ustezko Eremu Arkeologikoa: «San Esteban Parrokia Eliza», eta beraz, neurri zorrotzak hartuko genituen. Hala eta guztiz ere, ordurako hormigoiz estalita zeuden aldeetan lan txiki batzuk egitera mugatu ziren, obrak herrian bertan egin baitziren. Errepidearen hegoaldean egin zituzten lur mugimendu handienak; bi eustorma atzerago eraman zituzten, eta hormigoizko horma berri batzuk altxa zituzten bidearen zabalera emendatzeko.

Bidearen iparraldeko muturrean dago Ilunbe aldea. Baias ibaia gainditzen duen izen bereko zubiari zor dio izena, A-3314 errepidearen eta Andagoiara daramanaren arteko bidegurutzetik gertu dagoen zubiari. Obra hauen ingurumen inpaktuari buruzko txostenean jasotzen zenez, alde honetan Gerra Zibilaren garaiko hobi komunak egon zitezkeen. Hala eta guztiz ere Kuartangoko Udalean esan ziguten hobiak iparral-

La Zona de Presunción está delimitada por el vallado de la Autopista AP-68, por lo que las obras iban a afectar al espacio situado entre éstas y la calzada de las carreteras citadas. En este tramo las obras se desarrollaron durante varias jornadas, aunque no consecutivas. Primero se desbrozaron los márgenes de ambas carreteras, profundizando entre 80 cm y 1 m, aflorando la roca bajo los rellenos, compuestos de tierra y piedras, pero sin presencia de ningún tipo de material arqueológico. En el lado sur de la calzada, estas remociones de tierra afectaron a una antigua tubería, lo que da idea de la alteración previa que ya había sufrido esta zona. Es más, según testimonio de un vecino de Katadiano, este lugar ya fue zona de acopio durante las obras de construcción de la Autopista AP-68. En días posteriores se incidió aún más sobre el terreno, observándose, en primer lugar, que en la mitad sur de la Zona de Presunción las obras afectaron hasta la roca natural y, en segundo lugar, que a medida que las remociones de tierra se acercaban a la AP-68, los rellenos de tierra eran muy potentes, pero se trataban de aportes para el recrecimiento del terreno con el fin de construir el paso elevado. Seguramente la extracción de material se hizo desde este mismo lugar, razón por la cual la cota del terreno es más baja que la propia carretera A-3314. En ningún momento se observó ningún tipo de indicio de ocupación humana ni elementos de carácter arqueológico, estando la zona enormemente alterada desde la construcción de la citada autopista.

Pasado el cruce de la A-3314 y la carreterade acceso a Katadiano se localiza la Z.P.A. nº 14 de Kuartango: «Ermita de San Juan Bautista». Su denominación tiene su origen en una ermita citada en el año 1713 con este nombre, pero de la que deja de haber noticias desde el año 1826. Es una zona que presenta una pronunciada pendiente con espesa vegetación arbórea y arbustiva que impedía la visibilidad, aunque se advertían varios muros que delimitaban antiguas huertas y recintos abandonados. Ya durante la prospección previa a las obras, por el estaquillado localizado en el terreno, parecía que los desmontes en las cunetas de la carretera iban a afectar escasamente a esta zona de presunción, como así sucedió. Su límite oeste no alcanza a la carretera y discurre paralelo a un viejo camino hoy prácticamente desaparecido que asciende desde ésta por la parte baja del caserío hacia el norte del pueblo.

En Anda la existencia de la Z.P.A. nº 9 de Kuartango: «Iglesia Parroquial de San Esteban», exigía que se extremaran las precauciones. Sin embargo, los trabajos en el lado norte de la carretera se limitaron a pequeñas obras de acondicionamiento en zonas ya cubiertas de hormigón al desarrollarse dentro del pueblo. Fue en el lado sur de la carretera donde se realizaron los mayores movimientos de tierra, debiéndose retranquear sendos muros de contención construyéndose unos nuevos de hormigón para aumentar el ancho de la calzada.

En el extremo norte de la traza se localiza la zona de Ilunbe, que toma su nombre del puente del mismo nombre, que salva el río Bayas junto a la intersección de la carretera A-3314 y la que se dirige a Andagoia. Según se recogía en la declaración de impacto ambiental de estas obras, cabía la posibilidad de la existencia de fosas comunes de la Guerra Civil en la zona. Sin embargo, desde el Ayuntamiento de Kuartango ya se nos indicó que los enterramientos podrían localizarse más al norte, en dirección a Abornikano. Aquí las

derago egon zitezkeela, Abornikano aldera. Hemen lur mugimendu handiak egin zituzten, altueran baino luze-zabaleran, errepidearen atal berria ez baitzen egungoaren bidetik luzatuko. Hala eta guztiz ere, alde honetako landareak erauzi eta gero, berriro ere miatu genuen dena. Arroka ia gainazalean azaleratzen zela ikusi genuen, eta zabor eta eraikuntza materialen hondakin asko zeudela egiaztatu genuen.

obras generaron importantes remociones de tierra no tanto en altura como en extensión, ya que el nuevo tramo de carretera discurrirá por un trazado diferente al actual. Aun así, una vez se despejó de vegetación el entorno se volvió a revisar la zona, comprobándose que la roca caliza afloraba prácticamente en superficie y advirtiéndose la presencia de gran cantidad de escombro y restos de material constructivo.

F.J. Ajamil Baños

A.27.3. **Miaketa geofisikoak Arabako aztarnategietan**

Zuzendaritza: Armando Llanos Ortiz de Landaluze
Finantziazioa: Kultura Ministerioa. Espainiako Gobernua

A.27.3. **Prospecciones geofísicas en yacimientos alaveses**

Dirección: Armando Llanos Ortiz de Landaluze
Financiación: Ministerio de Cultura. Gobierno de España

As part of the research activities of the Alavan Institute of Archaeology, within the programme Ondare, during 2011 a series of geophysical prospections were planned using magnetometry. The work focused mainly on Iron Age settlements and burial mound structures.

Arkeologiarako Arabar Institutuaren ikerketa jardueren baitan, betiere Ondare programaren arabera, 2011n magnetometria bidezko miaketa geofisiko batzuk programatu genituen aztarnategi jakin batzuetan, batez ere Burdin Aroko herrixketan eta tumulu izaerako egituretan.

Hainbat helburu bila ziren. Kasu batzuetan, parte batean jada induskatuak izan ziren herrixketan, burura eramandako indusketa lanetan agerian utzi ez zen ustezko planoa osatzea bila zen, haietako eraikuntza egiturak hauteman eta multzoa hobe ezagutzeko xedean. La Hoya Herrixkan (Guardia)

Formando parte de las actividades de investigación del Instituto Alavés de Arqueología, englobadas en el programa Ondare, se programaron durante el año 2011, una serie de prospecciones geofísicas mediante magnetometría, en ciertos yacimientos, principalmente poblados de la Edad del Hierro y estructuras de carácter tumular.

Fueron varios los objetivos perseguidos. En unos casos, en aquellos poblados ya excavados en parte, se trataba de completar el supuesto trazado, no puesto al descubierto en los trabajos de excavación realizados, obteniendo así un conocimiento del conjunto, mediante la detección de las estructuras constructivas existentes.



Ezkerretara: La Hoya herrixka (Guardia. Araba). Miaketaren emaitza aztarnategiaren ortogazkian islatua. Eskuinetara: Eskalmendiko tumulua (Durana. Araba). Prozesatutako emaitzak aztarnategiaren ortoargazkian islatuak.

A la izquierda: Poblado de La Hoya (Laguardia. Álava). Resultado de la prospección, sobre ortofoto del yacimiento. A la derecha: túmulo de Eskalmendi (Durana. Álava). Resultados procesados posicionados sobre la ortofoto del yacimiento.

eta Kutzemendiko Kastroan (Mendiola) lan egin genuen eta une honetatik aurrera bien planimetria zehatza dugula esan behar dugu. Planimetria honetan multzoen potentziala islatzen da, eta bien aurreko ideia orokorra eduki daiteke etorkizuneko esku-hartzeei edo programatu gabeko esku-hartzeen gaineko kontrol lanei ekin baino lehen. Urisolo (Letona) eta Aldaia (Mendibil) herrixketan zundaketa estratigrafiko batzuk egingo genituen, lanen plangintzaren osagarri, egitura intereseko balizko espazioak kontrolatzeko xedean.

Bestalde, tumulu itxurako egitura handi batzuk, aspalditik ezagunak, fenomeno naturalaren emaitza ote ziren ala eraikin motaren bat estaltzen zuten metaketa artifizialak ote ziren egiaztatu nahi genuen. Honenbestez miatu genituen Eskalmendiko (Durana) eta Monte Redondoko (Bitoriano) tumuluak.

Aditu Arkeologia Zerbitzuak enpresako Fran Vallek eta Emma Bonthornek eraman zituzten burura esku-hartze guztiak Arkeologiarako Arabar Institutuaren zuzendaritzapean. Emaitzak positiboak izan ziren, ikusgarriak zenbaitetan. Betiere kontuan eduki behar da miaketa geofisikoek eskaintzen dituzten emaitzak lurperatutako egiturak ezagutzeko hurbilketa baino ez direla, eta berretsi egin behar direla esku-hartze arkeologikoen bidez.

La Hoya herrixkan egiaztatu egin da nola induskatu gabeko eremuko hiri egiturak, aurreikusiak baina ez egiaztatuak, harresi batez mugatutako espazio osoa hartzen duen kale eta plaza zentrokideen antolamenduari jarraiki. Beste horrenbeste gertatzen da Kutzemendiko Kastroan. Azken Brontze Aroko/Burdin Aroko lehenengo finkamenduari dagozkion egiturez gainera, dorre itxurako egitura bat badela ematen du, agian aro modernoagokoa.

Urisoloko eta Aldaiako kastroetan lortutako emaitzak, hasteko, oso lagungarriak gertatu ziren zundaketak zehaztu ahal izateko, eta gainera zundaketa estratigrafikoen bidez lortutakoaren aurreko ikuspegia osatzeko balio izan zuten.

Tumulu itxurako egiturei dagokienez, bi emaitza lortu genituen. Monte Redondokoaren kasuan –parte bat zuhaizti batek estalita baitzegoen–, tumuluak egiazki ganbera baten eta perimetroko korridorearen itxurako eraikin bat estaltzen duela egiaztatu ahal izan genuen. Aitzitik, erabakigarriak izan ziren Eskalmendiko tumuluan lortutako emaitzak –laborantza lurretan egonik landarerik gabeko espazio irekia baita–. 70 metro diametroko tumuluaren baitan erdiko ganbera batez eta inguruko gelez osatutako eraikin bat bereizi ahal izan genuen. Bibliografiak aipatu baina galdutzat ematen zen Eskalmendiko trikuharria izan daiteke.

Estudios de Arqueología Alavesa bildumaren 27. liburukian eman dira argitara miaketa lan hauei guztiei dagozkien txosten osoak.

Esto se realizó en el Poblado de La Hoya (Laguardia) y en el Castro de Kutzemendi (Mendiola) contando desde ahora con una planimetría de ambos que reflejan el potencial de los conjuntos, pudiendo conocer y tener una idea global de ambos, de cara a futuras investigaciones o al control de intervenciones no programadas. En los poblados, de Urisolo (Letona) y de Aldaia (Mendibil), en los que se pensaba realizar sondeos estratigráficos se trataba de controlar los posibles espacios de interés estructural como apoyo a la planificación de los trabajos.

Otro de los objetivos se enfocaba a comprobar si unas estructuras tumulares de gran porte, conocidas desde hace muchos años, se debían a un fenómeno natural o si bien se formaron como acumulaciones artificiales cubriendo algún tipo de construcción. Para ello se prospectaron los túmulos de Eskalmendi (Durana) y Monte Redondo (Vitoriano).

Todas las intervenciones fueron llevadas a cabo por Fran Valle y Emma Bonthorne de la empresa Aditu Arkeologia Zerbitzuak, bajo la dirección del Instituto Alavés de Arqueología. Los resultados resultaron positivos, pudiéndose considerar, en ciertos casos como espectaculares. Siempre hay que tener en cuenta que los resultados que ofrecen las prospecciones geofísicas, son una aproximación al conocimiento de las estructuras enterradas que necesitan confirmación posterior mediante intervenciones arqueológicas.

En el poblado de La Hoya, se ha podido confirmar que la estructura urbana de la zona no excavada, prevista pero no confirmada, cubre por completo el espacio delimitado por la defensa murada, en un trazado concéntrico de calles y plazas. Otro tanto ocurre en el Castro de Kutzemendi, donde además de las estructuras pertenecientes al establecimiento inicial del Bronce Final/Edad del Hierro, parece existir una construcción con aspecto de torre, quizá de época más moderna.

Los resultados en los castros de Urisolo y Aldaia, permitieron, en primer lugar, obtener un apoyo para poder fijar los sondeos, así como complementar la visión de lo obtenido mediante los sondeos estratigráficos.

Sobre las estructuras tumulares son dos los resultados obtenidos. En el caso de Monte Redondo, se ha podido conocer, –con las limitaciones que marcó el que una parte estuviese cubierta por arbolado– que realmente el túmulo cubre una construcción con aspecto de cámara y pasillo perimetral. Sin embargo en el túmulo de Eskalmendi –al ser un espacio abierto y libre de vegetación, por corresponder a tierras cultivables, los resultados fueron determinantes, marcándose una edificación con cámara central y habitáculos radiales, englobados en el interior de un túmulo de unas dimensiones de 70 m de diámetro, que parece corresponder al desaparecido dolmen de Eskalmendi del que existe bibliografía, pero que se daba por destruido.

Los informes completos de cada una de estas prospecciones, se han publicado en Estudios de Arqueología Alavesa, tomo 27.

A. Llanos Ortiz de Landaluze

B. BIZKAIA

B.1. **ABADIÑO**

B.1.1. **Bolinkoba**

IV. kanpaina
Zuzendaritza: María José Iriarte
Finantziazioa: Bizkaiko Foru Aldundia; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Ministerioa

B.1.1. **Bolinkoba**

IV Campaña
Dirección: María José Iriarte
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia; Ministerio de Ciencia, Tecnología e Innovación

Despite the difficulties involved in excavating Bolinkoba cave, little by little positive results are being obtained. The results of the first dating procedures confirm that the cave was occupied from 30,000 years ago, and the upper fragment of a «bull roarer»-type bone implement was recovered. Unfortunately, for the first time since we began our intervention in Bolinkoba, an act of vandalism destroyed part of the cave's oldest sequence.

Iragan mendeko 30. urteez geroztik ia erabat induskatu den Bolinkobako aztarnategiak ondoz ondo etorritako aldaketak ezagutu ditu gero eta urriagoa den lekukotzan. Tamalez, oraindik ez dute joera honekin hausterik lortu aztarnategiari halako balioa emateko xedean burura eraman ditugun kanpainek. Sedimentu arkeologikoa babesten duten egitura eta geruzen parte bat higatu eta lapurtu ostean, ura metatu da sedimentuaren gainean. Nolanahi ere den, Bolinkobako sekuentzia arkeologikoaren parte bat betikoz galdu izana da kontu larriena. 2010. urtean N26 laukiko lurrezko bloke gogortua *in situ* uzteko erabakia hartu genuen, erreferentzia estratigrafikoa galdu gabe laborategian lan egiteko modua eskainiko ligukeen irizpide metodologikoari jarraiki haren edukia berreskuratu ahal izateko xedean. Leizeko material nahasiak ordenatu eta beren lekuan jartzen lortu genuenean ohartu ginen gogortutako blokearen parte bat hautsita zegoela eta testuingurutik kanpora; beraz, betikoz galdu da orain arte Bolinkoban aurkitutako erregistro aspaldikoenaren (30.000 BP gutxi gorabehera) parte bat. Aurten Bizkaiko Aldundiarekin eta Abadiñoko Udalarekin batera egiten ari garen aurrerapausoak handiak izatea espero dugu, leize honetan behin-betiko itxitura jarri ahal izateko.

M-N-O (28. eta 26. zerrendak) zerrendetan egindako indusketak ere berretsi egiten du Jose Migel de Barandiaran eta Telesforo de Aranzadik burura eramandako esku-hartzeen ostean sedimentuak nahasiak izan zirela. Gune eta leku txiki batzuetan sedimentua nahasia izan dela ikusten da (material modernoak agertu ziren horietan, eta sedimentuen ezaugarrietan ere aldaketa nabariak hautematen ziren), eta horrek izugarri zailtzen du induskatzeko prozesua bera.

El yacimiento de Bolinkoba, casi excavado en su totalidad desde los años 30 del siglo pasado, ha conocido sucesivos avatares en su cada vez más exiguo testigo. Desgraciadamente, nuestras campañas de puesta en valor no han conseguido aún romper con esta tendencia. El deterioro y robo de parte de las estructuras y cubiertas que protegen el sedimento arqueológico ha implicado la acumulación de agua directamente sobre el mismo. Sin embargo, el hecho más grave es que se ha destruido parte de la secuencia arqueológica de Bolinkoba. En 2010, habíamos decidido dejar *in situ* el bloque de tierra concrecionada situado en el cuadro N 26, con la finalidad de poder recuperar su contenido siguiendo un criterio metodológico que nos permitiera poder trabajar en el laboratorio y no perder ninguna referencia estratigráfica. Cuando conseguimos ordenar y recolocar todo el material alterado de la cavidad, nos dimos cuenta que parte del bloque de concreción estaba fracturado y descontextualizado, perdiéndose parte del registro más antiguo que hasta el momento, hemos encontrado en Bolinkoba (en torno a 30.000 BP). Esperemos llevar a buen término este año las gestiones que venimos desarrollando, junto a la Diputación de Bizkaia y el Ayuntamiento de Abadiño, para poder poner un cierre definitivo en la cueva.

La excavación de la banda M-N-O (bandas 28 y 26) confirma la alteración que el registro sedimentario ha sufrido desde la actuación arqueológica realizada por José Miguel de Barandiarán y Telesforo de Aranzadi. Se documenta la presencia de pequeñas zonas en las que se constata la alteración del sedimento (aparición de materiales modernos y diferencias en las características del sedimento), que complican el proceso de excavación.

Artean kontserbatzen den lekukoan, L36 laukian, induskatzen jarraitu genuen, hori bai, uste baino erritmo motelagoan, blokeak azaldu zirelako eta goiko ganbera txikirik iristen den uraren zirkulazioak sedimentua bera gogortu duelako. Uraren zirkulazioa galarazteko xedean hartan egokitutako egiturak ondo bete du bere egitekoa azken urteotan, baina hondatuta zegoenez beste bat jarri behar izan genuen haren lekuan. Urarekin bahetzen ari gara alde honetako sedimentu guztia.

Orain artean lortutako emaitzek berretsi egiten dute Goi Paleolito aroko aztarnategi honen garrantzia. Oraingoz nagusiki harrizko tresnak eta fauna hondakinak erregistratu ditugu, ez ordea hezurrezko aztarnarik (kontuan eduki behar da motelagoa dela sedimentuak igerian edukitzeko prozesua). Aitzitik, hezur landu baten puska bat berreskuratu genuen, belarjale (handi edo ertain) baten saihets batean landua, aspaldiko patina hautsiekin. Ignacio Barandiaran Maestu doktoreak egindako lehen azterketaren arabera «eltzagor» (edo «erronbo» edo «burrunbagailu») deitu zintzilikario mota da. Bolinkobako pieza, aurkitutako Historiaurreko gisa bertsuko pieza urrien artean, azpimarragarria da alde proximala Goi Paleolito garaiko hezurrezko tresnetan batere arrunta ez den modu batez egokituta duelako: erdian buru azpizirkular bat du zulatua, eta luzakin nabarmen bana du alde bietara. Apaingarriei dagokienez, maskor batean landutako ale bat baizik ez genuen berreskuratu, ale aski hondatua bera.

Continuamos trabajando en el cuadro L 36 del testigo que se conserva, aunque a un ritmo más lento del esperado debido a la aparición de bloques y a la concreción del sedimento como consecuencia del agua que circula por esta zona proveniente de un camarín superior. La estructura colocada en él para evitar esta circulación del agua ha funcionado correctamente en estos últimos años, pero ha sido necesario sustituirla debido al deterioro que presentaba. Todo el sedimento de esta zona está siendo cribado con agua.

Los resultados obtenidos hasta el momento, confirman la importancia de este yacimiento del Paleolítico superior. Por el momento, el material recuperado corresponde fundamentalmente a industria lítica y a restos de fauna, no habiendo recuperado hasta el momento (debemos tener en cuenta que el proceso de flotación es más lento) nada de industria ósea. No obstante, sí que se ha recuperado un interesante fragmento de manufactura ósea, con roturas de pátina antigua realizado a partir de una lámina de costilla de herbívoro (tamaño medio a grande). En el estudio preliminar que ha realizado el Dr. Ignacio Barandiarán Maestu, este objeto se debe referir a un colgante del tipo denominado «bramadera» (o «rombo» o «zumbador»). La pieza de Bolinkoba destaca, entre las pocas reconocidas en la Prehistoria, por el acondicionamiento de su parte proximal mediante un dispositivo nada frecuente en tipología ósea superopaleolítica: perforación en el centro de una cabeza subcircular y la existencia de sendos apéndices destacados a uno y otro lado. Respecto a los elementos de adorno, únicamente hemos recuperado una cuenta elaborada en concha, con un cierto grado de deterioro.

M.J. Iriarte

B.2. ABANTO Y CIÉRVANA ABANTO ZIERBENA

B.2.1. Terrazak Abantoko Santa Juliana baselizaren inguruan

Zuzendaritza: F. Rafael Varón Hernández
Finantziazioa: ONDOAN, S.COOP.

B.2.1. Terrazas en el entorno de Santa Juliana de Abanto

Dirección: F. Rafael Varón Hernández
Financiación: ONDOAN, S.COOP.

Archaeological monitoring work has afforded the opportunity of obtaining radiocarbon datings of agricultural terraces, providing very interesting results as regards the late antiquity and medieval periods.

Cotorrio arroan hodiak egokitzeko lanen gaineko jarraipen arkeologikoak aukera eman zuen hondeamakinek Abantoko egungo Santa Juliana baselizaren inguruan irekitako lubakien perfilak aztertzeko. 1270. urteko dokumentu batean aipatzen da lehenengo aldiz baseliza hau.

El seguimiento arqueológico de la inserción de un sistema de tuberías en la cuenca del Cotorrío permitió el repaso de los perfiles abiertos por las excavadoras en el entorno de la actual ermita de Santa Juliana de Abanto, mencionada por primera vez en la documentación en el año 1270.

Ikusirik ebakiek terraza moduan antolatutako espazioak ukitzen zituztela eta perfiletan eraikuntza materialak –teilak– eta bibliografiak Goi Erdi Aroan, VIII. eta XIII. mende bitartean –baita ondorengo uneetan ere– kokatutako zeramikazko zati batzuk agerian geratzen zirela, leku honi eta inguru hurbilari (itxura batean XIII. mende amaieran antolatu zen alde hau guztia) begira dauden aipamen idatzien aurreko laborantzarako terrazen eraikuntza une baten aurrean geundelako aukera planteatu genuen.

Erantzun bat lortzeko bitarteko gisa planteatu genion Bizkaiko Foru Aldundiari laginketa arkeobotaniko bat egitea. Horretarako perfiletako bat aztertu eta lur laginak jasoko genituen azterketa palinologiko, antrakologiko eta karpologikoen bidez estratigrafiari, funtzioei, palinologiari eta kronologiari buruzko informazioa bildu ahal izateko xedean.

Lerro hauek idazten ari garen honetan aurreratu dezakegu oso apala den estratigrafiaren sekuentziak aztertutako terraza osatzen zuten bi unitate eskaini dizkigula, eta haietatik lagin antrakologikoak jaso ahal izan genituela C-14ren bidez eta AMS metodoa aplikatuta datatuak izateko.

Esanguratsuak dira lortutako emaitzak, baina oraindik gure konklusioetara iristeko prozesuan ari gara, esku-hartzearen metodologiak izan dituen mugak geure baikortasuna ere mugatzen duela ondo badakigun arren.

Ildo honetatik, esan dezagun 1510 +/- 30 BP-koa dela lagin aspaldikoenak eskainitako data, eta 900 +/- 30 B-koa modernoenak eskainitakoa. Oxcal bidez kalibratutako laginek adierazten digute identifikatutako lehenengo terrazaren maila %95,4tan (bi sigma) kokatu litekeela 430 eta 600 Cal AD bitartean. Bigarren laginari dagokionez, bigarren terrazaren maila %95,4tan (bi sigma) 1030 eta 1220 Cal AD bitartean kokatu behar da.

Oraindik bildutako informazio guztiak aztertzen ari garenez, datu hori besterik ez dugu aurreratuko, ez dugu beste baloraziorik egingo.

El reconocimiento visual de que los cortes estaban afectando espacios aterrazados y que en los perfiles se localizaban materiales de construcción –teja– y algunos fragmentos cerámicos de los descritos por la bibliografía como de momentos altomedievales, entre los siglos VIII y XIII –aunque con presencia en momentos posteriores–, nos hizo plantearnos la posibilidad de estar ante un momento de creación de terrazas agrarias anteriores a las notas documentales existentes para este lugar y su entorno inmediato, que parece se organiza en el final del siglo XIII.

Como medio para obtener una respuesta planteamos a la DFB la posibilidad de exigir un muestreo arqueobotánico a la obra refrescando uno de los perfiles y recuperando muestras de tierras de las que, mediante análisis palinológico, antracológico y carpológico, pudiésemos obtener informaciones estratigráficas, funcionales, palinológicas y cronológicas.

En el momento de redactar estas líneas podemos avanzar que la secuencia estratigráfica, muy simple, proporcionó dos unidades que conformaban la terraza analizada y que de ellas se han podido extraer muestras antracológicas que han sido datas mediante C-14 por método AMS.

Los resultados obtenidos son sugerentes, si bien todavía estamos en proceso de elaboración de nuestras conclusiones siendo conscientes de que las limitaciones que ha tenido la metodología de la intervención acotan también nuestro optimismo.

En este sentido cabe indicar que los resultados para la muestra más antigua es de 1510 +/- 30 BP, y la más moderna 900 +/- 30 BP. Las muestras calibradas mediante Oxcal nos dicen que tendríamos que el primer nivel de terraza identificado podría situarse, al 95,4% (dos sigmas) entre el 430 y el 600 Cal AD, mientras que para la segunda muestra nos estaríamos moviendo, al 95,4% (dos sigmas) entre el 1030 y el 1220 Cal AD.

Dado que todavía estamos en fase de análisis de todas las informaciones recopiladas solo vamos a apuntar este dato sin entrar en más valoraciones.

F. Rafael Varón Hernández

B.3. ARRATZU

B.3.1. Larroseta (gezurrezko tumuluak)

Zuzendaritza: Miguel Unzueta Portilla
Finantziazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

B.3.1. Larroseta (falsos túmulos)

Dirección: Miguel Unzueta Portilla
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

Prospecting of the supposed Larroseta burial mounds. A stratigraphic sondage was carried out in one of them (Lz2), allowing us to rule out the hypothesis of human inhabitation.

Luis Valdesek Gastiburuko Santutegia deituaren inguruan burura eramandako gainazaleko miaketa lanen (1983) ondorioz, guztira 10 tumulu protohistoriko

A raíz de los trabajos de prospección superficial realizados por Luis Valdés en el entorno del denominado Santuario Vasco de Gastiburu (1983) fueron

deskribatu zituen hark. Txosten honetan Larroseta I, II eta III izenez ezagutzen diren tumuluak izango ditugu aztergai, ustez bereziak eta handiak oso direlako. Alde batera utzi ditugu Gastiburuko egituretara bildutako beste sei tumuluak (lobulu eta egitura txikiagoak) eta Illuntzarreko tumulua izenaz ezagutzen dena, protohistorian kokatu arren oso zalantzazkoa baita datazio hori.

Larrosetako hiru tumuluak begiz identifikatu ziren bere garaian, ez ziren kata edo zundaketa estratigrafikoen bidez egiaztatu, eta ezin berretsi izan ziren beraz. Nolanahi ere den, iragan mendeko laurogeigarren urteen hondarrean, Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babesteko eta Antolatzeko Legeak (1989) bere II. Eranskinera («aztarnategiak») jaso zituen, oker jaso ere, hiru elementu hauek, jarraian berretsiko dugunez. «Larroseta I eta II tumuluak» (B.18) eta «Larroseta III tumulua» (B.19) izenez ageri dira aipatu eranskinean.

Larroseta I eta II, Larroseta Bekoa baserritik gertu, Gastiburuko mendialdeko beheranzko erliebean moldatutako formazio geologiko bi dira. Elkarrengandik gertu daude, leku egiten dien finkari sarrera egiten dion basoko bideak baizik ez ditu bereizten.

Larroseta I

Larroseta I, elementu garaiena, «tumulu itxurako elementu» gisa deskribatu zuen Valdések, formaz obala, «diametro nagusia hamarnaka metrokoa», gehiago zehaztu gabe, baina ez zen elementu honetara itzuliko. Ez zen azterketarik eraman burura, ez geofisikorik ez arkeologikorik, haren ustezko izaera antropikoa egiaztatzeko. Gai honi buruz argitaratutako testu laburrean oso espazio urria eskaini zion aurkikuntzari egileak, agian zalantzazkoa zuelako haren jatorri antropikoa, nahiz eta horrelakorik aitortu ez zuen (Valdés, L.: *Gastiburu. El Santuario Vasco de la Edad del Hierro,* Madril, 2009, 73. or.).

Larroseta II

Neurri txikiagoko tumulu gisa deskribatu zuen Larroseta II, «behekoz gora jarritako itsasontziaren gilaren» formakoa, 15 metrokoa (diametroa?), 5 m zabal eta batez beste 4 m garai, auzoko goragunearen gainean kokatua. Valdési atentzioa eman zion, jatorri antropikoaren adierazgarri gisa, lur eremuaren geologiaren estratifikazioarekiko egokiera ia ortogonalak. Erliebearen norabideak geologiaren estratifikazioarekin bat egiten ez duenez, tumuluaren presentzia eragin duen depositu antropikoaren aurrean geundeke Valdésen ustez.

Larroseta II tumuluaren kasuan bi SEV saio egin ziren 1990. urtean haren izaera arkeologikoa berresteko: bata tumuluan (Lr-1) eta bestea inguruko lurretan (Lr-2), geruza estratigrafikoak berresteko xedean. Azterketa horiek eginda honako ondorio hauetara iritsi zen egilea: «Hiru maila bereizten ditu SEVek. 3,2 metro lodi da lehenengoa, eta 900 Ω·m-ko erresistibitatea du. ... segur asko zoru buztintsuak eta oso harri-tsuak eratutako muinotxoa osatzen duten materialei dagokie» (Valdés, 2009:73). Haren ustez azterketa analitikoak, deposituaren egokiera ortogona-

descritos por éste hasta un total de 10 túmulos protohistóricos. En estas páginas se tratará de los túmulos conocidos como Larroseta I, II y III por su supuesta excepcionalidad y dimensiones. Dejamos fuera de consideración los seis que han quedado integrados en las estructuras de Gastiburu (lóbulos y estructuras menores) y el de muy dudosa atribución protohistórica conocido como túmulo de Illuntzar.

Las identificaciones en el caso de los tres túmulos de Larroseta se hicieron en su momento a simple vista, sin verificación mediante cata o sondeo estratigráfico, lo cual no permitió su confirmación. No obstante, ya a finales de la década de los años ochenta del siglo pasado, la Ley de Protección y Ordenación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai (1989) había recogido en su Anexo II («yacimientos»), erróneamente como confirmados, estos tres elementos. Su denominación aparece como: «túmulo de Larroseta I y II» (B.18) y «túmulo de Larroseta III» (B.19).

Larroseta I y II, próximos al caserío Larroseta Bekoa, son dos formaciones geológicas modeladas en el relieve descendente de la sierra de Gastiburu. Se levantan próximas entre sí, tan solo separadas por una pista forestal que permite el acceso a la finca en la que se ubican.

Larroseta I

Larroseta I, la formación más alta, fue descrita por Valdés como un «elemento tumuliforme» de forma ovalada y con un diámetro mayor de «varias decenas de metros» sin concretar más, ni volver sobre este supuesto hallazgo. No se realizó ningún tipo de estudio, ni geofísico ni arqueológico, para verificar su supuesta naturaleza antrópica. Su descubridor le dedica muy poco espacio en el breve texto publicado sobre este tema, mostrando escaso interés en la estructura, quizás por considerarla formación de dudoso origen antrópico, aunque no lo admite como tal (Valdés, L.: *Gastiburu. El Santuario Vasco de la Edad del Hierro,* Madrid, 2009, p.73).

Larroseta II

Larroseta II queda descrito como un túmulo de tamaño menor, en forma de «quilla de barco invertida», de 15 m de ¿diámetro?, 5 m de anchura y 4 m de altura media, que se sitúa en lo alto de la elevación vecina. Llama la atención a Valdés, como indicio del origen antrópico, «la disposición casi ortogonal a la estratificación» geológica del terreno. La no coincidencia de la orientación del relieve con la estratificación geológica implicaría, para éste, la existencia de un depósito antrópico que habría dado lugar a la presencia del túmulo.

En el caso de Larroseta II sí se realizaron en 1990 dos ensayos SEV para apoyar la atribución arqueológica: uno sobre el túmulo (Lr-1) y otro sobre los terrenos próximos (Lr-2) a fin de verificar sus horizontes estratigráficos. De esta comparación deduce el autor que: «El SEV distingue tres horizontes. El primero tiene 3,2 m de potencia y una resistividad de 900 Ω·m. Es el que «…corresponde a los materiales que conforman el montículo, posiblemente formado por suelos arcillosos de alta pedregosidad» (Valdés, 2009:73). De este modo entiende que la analítica permite afirmar, junto a

Larroseta I eta II ustezko tumuluen ikuspegi orokorra.

Vista general de los supuestos túmulos de Larroseta I y II.

larekin batean (Lr-1eko 1. maila), aukera eman zuen honakoa baieztatzeko: «Gainazaleko materialak dira saio biak bereizten dituztenak, Lr-1 SEVek muinotxoaren egitura sorraraziko zuen halako lodierako maila paleozoru baten gainazalera ekarritako metaketa batek eragindakoa dela ematen baitu, itxura guztien arabera jatorri antropikoko metaketak eragindakoa» (Valdés, 2009: 73). Gezurra dirudien arren, hipotesi hau ez zen zundaketa estratigrafikoaren bidez egiaztatu.

Larroseta III / Txarkueta

Larroseta III / Txarkueta da Valdések 1983. urtean Gastiburu inguruetan aurkitutako beste tumulu bat. Egilearen arabera tumulu handia da, formaz obala, ardatz nagusia 60 m luze, txikia 40 m luze. Beraz, gutxi gorabehera 7.850 m^2-ko azalera hartuko zuen. Hemen ere egileak SEV miaketak egin zituen (1990) Larroseta II tumuluan baliatutako metodologia bertsua aplikatuz. Honenbestez, tumuluaren izaera antropikoa berretsi zuen, zundaketa arkeologikoen bidez egiaztatu gabe.

Valdések Larrosetako tumuluei eta Txarkuetakoari buruz esandakoak esanda ere, Kantauri Ekialdeko Burdin Aroa ikertzen duten ikerlariek eta Bizkaiko Ondarea kudeatzeko ardura duten erakundek ez dituzte aurkikuntza guztiz berezi horiek aintzat hartu; ez dira aintzat hartu kultura ondareen zerrendetan, eta ez dira aintzat hartu onartutako ondasun arkeologikoen zerrendetan, ez bederen Bizkaiko Ustezko Eremu Arkeologiko izendatuetan (1997), ez eta Bizkaiko Eremu eta Monumentu Megalitikoen zerrenda zehatzean ere (2009). Hala eta guztiz ere, ondasun hauek Urdaibaiko Biosfera Erreserbari buruzko Legearen (1989) II. Eranskinera jasotzen direnez, ondarearen ikuspuntutik ezinbestean kudeatu behar dira haiek nahiz eta haien presentzia egiaztatu ez den; izan ere, babes maila bat esleitu zaie haiei. Testuinguru honetan Mendi Zerbitzuak (BFA) Kultur Ondarea Zerbitzuari (BFA) eskatu zion ustezko aztarnategi hauen izaerari buruzko informazioa.

la disposición ortogonal del depósito (horizonte 1 de Lr-1), que: «Son los materiales superficiales los que diferencian ambos ensayos, presentando el SEV Lr-1 un nivel de cierta potencia que genera la estructura monticular, que parece estar producido por una acumulación aportada sobre la superficie de un paleosuelo, siendo, posiblemente su origen antrópico» (Valdés, 2009: 73). En ningún caso se verificó esta hipótesis mediante sondeo estratigráfico, como sería de esperar.

Larroseta III / Txarkueta

Larroseta III / Txarkueta, es otro de los túmulos descubiertos por Valdés en 1983 en las proximidades de Gastiburu. Se trata, según este autor, de una gran forma tumular ovalada cuyo eje mayor alcanza los 60 m, siendo el menor de 40 m. Ello implica una superficie abarcada de aproximadamente 7.850 m^2. De nuevo en esta ocasión (1990), el autor realizó prospecciones SEV con una metodología semejante a la empleada en Larroseta II, dando así por confirmado el carácter antrópico del túmulo, sin la requerida confirmación por sondeo arqueológico.

Lo cierto es que, a pesar de lo afirmado por Valdés sobre los túmulos de Larroseta y Txarkueta, tanto los investigadores de la Edad del Hierro en el Cantábrico oriental como las instituciones dedicadas a la gestión del Patrimonio en Bizkaia han dado poco o ningún crédito a estos formidables hallazgos; no siendo recogidos ni en los repertorios de bienes culturales ni considerados en las declaraciones de bienes arqueológicos aprobadas, tales como la resolución por la que se declaran las Zonas de Presunción Arqueológica de Bizkaia (1997) o en la Declaración específica de Estaciones y Monumentos Megalíticos de Bizkaia (2009). Sin embargo, la presencia de estos bienes en el Anexo II, ya citado, de la Ley de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai (1989) supone que desde el punto de vista patrimonial se ha de considerar la gestión de los mismos, a pesar de no haberse confirmado su existencia, dado que tienen establecido un régimen de protección. En esta tesitura, el Servicio de Montes (D.F.B.) solicitó al Servicio de Patrimonio Cultural (D.F.B.) información sobre la naturaleza de estos supuestos yacimientos.

2011ko kanpaina

Eskaera honen aurrean berriro ere arakatu genituen ustez tumuluei leku egiten zieten eremuak. Larroseta I eta II egiturei leku egin behar zien finka baso gabetuta zegoen, ez ordea luberrituta, eta beraz, haren luze-zabalera osoan egiaztatu ahal izan genuen haren ondare izaerako edukia. Xehe-xehe miatu ostean agerian geratu zen bertan ez zegoela eta sekula ere ez zela izan tumulu egitura antropikorik, ez eta bestelako egitura izaerako elementurik ere. Begien bistakoa zen ustezko Larroseta I eta II tumuluak Gastiburu mendialdeko berezko bi formazio zirela.

Nolanahi ere den, ikusitakoa eta Valdések proposatutako mailen sekuentzia egiaztatzeko xedean, zundaketa estratigrafiko bat egin genuen Larroseta II ustezko tumuluan (UTM X530472; Y4794801 [ETRS89]), egileak berak dioenez honakoa delako aztarna antropikoak eskaintzeko aukera gehienak ematen dituena. 1,5 m bider metro beteko zundaketa egin genuen Larroseta II ustezko tumuluaren gainaldean. 0,63 metroko sakonera mailaraino induskatu ahal izan genuen, hortik behera oinarriko maila geologikoa eratzen duen lutitaren gainazala ageri baita. Zundaketaren estratigrafian 0,27 metro lodierako lehen maila bat bereizten da gainazalean, lur buztintsu eta kolorez marroi oso argira bildutako forma askotako hareharri higatuekin. Maila honetan ikatz zati oso txiki batzuk ageri dira tarteka. Maila honen azpian bigarren maila antzu bat ageri da, 0,36 m lodi. Maila buztintsua da, kolorez larua, maila geologikoaren meteorizazioaren emaitza.

Zundaketak eskainitako estratigrafiak zalantzarik gabe baztertzen du Valdések proposatutako 3,2 metro lodierako depositu antropikoak osatutako lehenengo mailaren presentzia. Gainera baliorik gabe geratzen da egon ez dagoen deposituaren egokiera geologiko guztiz bereziaren –«ia ortogonala estratifikazioaren aldean»– argudio morfologikoa. Hau honela izanik, Lr-1 SEVeko 1. maila, 3,2 m lodi, bazterrera utzi behar da, eta egiaztatu egiten da Valdések tumuluaren izaera antropikoa egiaztatzeko xedean erabilitako SEV azterketa analitikoa oker izan zela.

Datu horietatik abiatuta Larroseta III edo Txarkueta tumulua aztertzen hasi ginen haren izaera arkeologikoaren inguruan zeuden zalantzak argitzeko xedean. Alde hau behin eta berriz miatuta, hainbat landare geruza dituen alde hau arakatuta, ez genuen oinplanoan 7.850 m^2 dituen tumulu ikaragarri handi honen presentzia egiaztatuko zukeen aztarna morfologikoen edo egituren arrasto bakar bat ere erregistratu. Aitzitik, itxura guztien arabera Gastiburuko mendialdeko berezko formazioa da, aurkikuntzaren egileak oker interpretatua izan zena.

Ildo honetatik, Valdések Txarkuetako ustezko tumuluaren izaera antropikoa justifikatzeko xedean azaltzen dituen argudioak (depositu antropikoaren egokiera guztiz berezia) agerian utzi dugun bezala zalantzazko emaitzak eskaintzen dituen SEV azterketa analitikoetan oinarritzen dira. Horregatik guztiagatik Valdések Larroseta II tumuluari begira dioena jasotzea baizik ez zaigu geratzen, eta egileak berak aplikatzen

Campaña de 2011

Ante esta demanda, volvimos un vez más a inspeccionar los lugares en los que se suponía se hallaban los túmulos. En esta ocasión la finca que debían contener las estructuras de Larroseta I y II se encontraba deforestada, aunque no roturada, permitiendo comprobar en todo su alcance su contenido patrimonial. Después de una revisión minuciosa quedó patente que ni existía ni había existido indicio alguno de estructuras tumulares antrópicas, ni elementos estructurales de cualquier otro tipo. Era evidente que solo podíamos considerar los supuestos túmulos de Larroseta I y II como dos formaciones naturales del cordal de Gastiburu.

De todos modos, de cara a disponer de una confirmación de lo observado y comprobar la secuencia de horizontes propuesta por Valdés, procedimos a realizar un sondeo estratigráfico en Larroseta II (UTM X530472; Y4794801 [ETRS89]), ya que es éste, tal como señala el propio autor, el que podría mostrar con más probabilidad evidencias antrópicas. Se trazó así un sondeo de 1,5 m x 1 m centrado en la zona alta de la elevación de Larroseta II. Su excavación pudo realizarse hasta una profundidad de 0,63 m que es a la que aparece el afloramiento de lutita que conforma el nivel geológico de base. La estratigrafía del sondeo ofreció un primer nivel superficial de 0,27 m de potencia que contenía piedras areniscas informes, erosionadas, dentro de una matriz de tierras arcillosas de color marrón muy claro. En este nivel aparecen ocasionalmente carboncillos muy pequeños. Bajo éste, un segundo nivel, estéril, de 0,36 m de potencia aparece formado con arcilla de color amarillo pálido procedente de la meteorización del nivel geológico.

Con la estratigrafía aportada por el sondeo queda desmentida, sin género de duda, la presencia de un primer horizonte antrópico de depósito de 3,2 m de grosor tal como proponía Valdés. Queda además sin valor alguno el argumento morfológico de la presencia de una distribución anómala «casi ortogonal a la estratificación» geológica del ahora inexistente depósito. Siendo esto así, el horizonte 1 del Sev Lr-1, de 3,2 m de potencia ha de quedar descartado y se demuestra que la analítica SEV empleada por Valdés para la verificación de la naturaleza antrópica del túmulo fue errónea.

A partir de estos datos pasamos finalmente a inspeccionar el túmulo de Larroseta III o de Txarkueta con la intención de despejar la incógnita de su atribución arqueológica. Revisado el lugar en varias ocasiones y con diferentes capas vegetales, no hemos recogido indicio alguno ni morfológico ni estructural que permitan suponer la existencia de este monumental túmulo de 7.850 m^2 de planta. Al contrario todo apunta a que se trata, una vez más, de parte de la formación natural del cordal de Gastiburu, mal interpretada por su descubridor.

En este sentido, las argumentaciones que aporta Valdés para justificar el carácter antrópico del supuesto túmulo de Txarkueta parten de las mismas consideraciones morfológicas (posición anómala del depósito antrópico) apoyada en una analítica SEV de dudosos resultados, como ha quedado demostrado. Por todo ello solo nos queda recoger lo ya comentado por Valdés a propósito de Larroseta II y darle la credibilidad que el mismo autor le aplica, pero a la in-

duen argudioari sinesgarritasuna ematea, baina alderantziz: «Larroseta II tumuluan lortutako emaitzak segur asko antropikoa den Txarkuetako tumuluan bereizitako mailetan lortutako emaitzen antzekoak dira» (Valdés, 2009: 73). Guk honen inguruan beste deus ez dugu gehitzeko.

Bukatzeko argi eta garbi esan dezagun ustezko tumulu hauei leku egiten dieten lur eremuak kudeatzeko lanetik eratorritako premiagatik aztertu ditugula haiek, Valdések Larrosetako tumuluei begira egindako proposamenak ez baitziren sinesgarriak. Honenbestez Bizkaiko Burdin Aroko materialen corpusetik tumulu guztiz «berezi» hauek kentzea bila dugu, sekula ere ez baitziren tumulutzat hartu behar.

versa: «el resultado obtenido en estos ensayos [de Larroseta II] nos presenta unos horizontes cuyas características son semejantes a las del nivel, posiblemente antrópico, del túmulo de Txarkueta» (Valdés, 2009: 73). Por nuestra parte no hay mucho más que apuntar al respecto.

Para concluir, debemos indicar que de no ser por la necesidad surgida del trabajo de gestión de los terrenos en los que se creían emplazados estos supuestos túmulos, no hubiéramos incidido sobre este asunto, ya que las identificaciones propuestas por Valdés para los túmulos de Larroseta carecían de credibilidad. Con estas líneas hemos buscado retirar del *corpus* de materiales de la Edad del Hierro en Bizkaia estos «excepcionales» túmulos, dado que nunca se debieron considerar como tales.

J.J. Cepeda Ocampo; M. Unzueta Portilla

B.4. **BALMASEDA**

B.4.1. **Errege Bide zaharra**

Zuzendaritza: Daniel Vallo Espinosa
Finantziazioa: Bizkaiko Foru Aldundia. Mendi Zerbitzua

B.4.1. **Antiguo Camino Real**

Dirección: Daniel Vallo Espinosa
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia. Servicio de Montes

Cleaning and documentation of a 15-metre stretch of the old 1827 Royal Road which joined Castro Urdiales and Bercedo, in the vicinity of Balmaseda.

Bizkaiko Aldundiaren Mendi Zerbitzuak eskatuta Errege Bide zaharraren atal txiki bat aztertu dugu. Atal txiki hau Fabio Murga enpresaren parean dago ikusgai, Balmasedako Magdalena Pasealekuko 28. zenbakian.

Galtzada garbitzeko eta dokumentazioa biltzeko lanak

Galtzada hau 15 metro luze eta 4 metro zabal den atalean aztertu genuen, partzialki asfaltatuta dagoen aldean. Kontserbatutako harzolaren hondakinak bereizten ziren atal honetan, eta atalak Castro Urdialestik Bercedora zihoan Errege Bidearekin bat egiten zuela esan behar dugu. Bide atal hau aztertzeko xedean, hasteko altxa egin genuen aztertu nahi genuen bide atala partzialki estaltzen zuen asfaltozko geruza.

11,82 metro luze eta batez beste 2,5 eta 3 metro bitarte zabal den atala egoera onean kontserbatzen zela egiaztatu genuen. Gerora egindako konponketa lan batzuk hautematen ziren hartan.

Bidearen ezaugarriak

Jatorrizko egituratik kontserbatu diren hondakinek aukera ematen digute Errege Bideak Balmasedan barrena izango zuen forma ezagutzeko eta hura nola

A petición del Servicio de Montes de la Diputación de Bizkaia hemos realizado un estudio de un pequeño tramo del antiguo Camino Real que se conservaba visible frente a la empresa Fabio Murga en el paseo de Magdalena nº 28, en Balmaseda.

Trabajos de limpieza de la calzada y documentación

El estudio de la calzada se realizó en un tramo de 15 metros de largo por 4 metros de ancho, en una vía parcialmente asfaltada donde se veían restos de empedrado conservado y que coincidía con la vía del Camino Real de Castro Urdiales a Bercedo. Para el estudio del tramo de calzada se procedió en primer lugar a levantar la capa de asfalto que en parte cubría el tramo de camino que se deseaba estudiar.

Se pudo comprobar que se conservaba en buen estado un tramo de 11,82 metros de largo por unos 2,5 a 3 metros de ancho de media, en el que también se apreciaban algunas reparaciones posteriores.

La fabrica de la calzada

Los restos de la estructura original conservados nos permiten hacernos una buena idea de como se construyó y que forma tenía el Camino Real a su paso

Castro Urdiales eta Bercedo elkartzen zituen Errege Bidea, Balmasedan barrena.

Camino Real que unía Castro Urdiales y Bercedo, a su paso por Balmaseda.

eraiki zuten jakiteko. Dokumentatu ditugun hausturak eta hutsuneak tarteko, agerian geratzen da atal batzuetan bidearen prestakina: buztinezko geruza aski trinkoa eta erregularra, non enkatxu honi dagozkion piezak lurrean sartuta dauden.

Enkatxuaren harrizko egitura hau neurri irregularreko harriek osatua da, denak errekarriak, formaz angeluzuzenak batzuk eta triangeluarrak bestetzuk, baina betiere alde txikia agerian utzita eta alde luzeena bidearen prestakin geruzan sartua, multzoari sendotasun eta iraunkortasun handia emateko.

Pieza gehienak euren alde luzeena bidearen norabidearen perpendikularrean egokitzeko moduan jarrita daude, ez ordea hezurretan egokitutakoak, hauek bidearen paraleloan baitaude. Hezurretako piezak ere irregularrak dira nola neurrietan hala formetan, baina eskuarki enkatxua osatzen duten pieza gehienak baino handiagoak dira.

Bidearen egitura

Dokumentatu dugunaren arabera, egitura erregularra ageri du bideak. Oinplanoan 3 erreitan banatzen da, bidearen paraleloan egokitutako piezek osatutako hezur bik bereizita. Erdiko erreia batez beste 1,35 eta 1,50 m bitarte zabal da. Eta kanpoko erreietan kontserbatutako neurrien arabera gutxienez 1,35 m zabal izango ziren haiek. Errege Bidea, beraz, ez zen 4 edo 4,20 m baino estuagoa izango alde honetan, baliteke are zabalagoa izatea.

Bidea oso ondo berdinduta dagoela esan behar dugu, leunkiro egiten du gorantz hego-mendebaldetik

por la villa de Balmaseda. Debido a las roturas y faltas que hemos podido documentar, queda al aire en algunos tramos la preparación del camino, consistente en una capa de arcilla bastante compacta y regular donde fueron hincadas las piezas correspondientes a este encachado.

La estructura en piedra del encachado esta formada por piezas de irregular tamaño, todas ellas cantos de río, con formas que varían entre rectangulares y triangulares, pero siempre dispuestas de tal forma que el lado menor quedase cara vista, y su parte mas larga clavada en la capa de preparación lo que le da al conjunto una gran robustez y aguante.

La gran mayoría de las piezas se encuentran colocadas con su lado mas largo en perpendicular al sentido de la vía, excepto las piezas colocadas en las espinas que eran paralelas a la vía. Las piezas de las espinas también son irregulares en su forma y tamaño, aunque en general son algo más grandes que las de la mayoría del resto del encachado.

Estructura de la vía

El camino presenta una estructura regular por lo que hemos podido documentar. En planta se divide en 3 carriles separados por dos espinas formadas por piezas paralelas al sentido del camino. El carril central cuenta con un ancho de entre 1,35 y 1,50 metros de media. Y las medidas conservadas de los carriles exteriores nos hacen pensar en un ancho no inferior a 1,35 por cada carril. En total el Camino Real en esta zona no sería inferior en anchura a los 4 o 4,20 metros, pudiendo ser mas ancho incluso.

A su vez el camino esta muy bien nivelado, en general tiende a ascender suavemente de suroeste a

ipar-ekialderantz (atal honetan norabide horretan luzatzen baita bidea), 20 zentimetroko aldea baizik ez dago geuk aztertutako 15 metroetan. Sekzioan, erdiko erreia betiere alboetakoak baino garaiera apur bat goragoan dagoela ikus daiteke, bidearen gainazalak arku arin baten forma hartzen duela. Gisa honetan alboetara isuriko zen euri ura, eta erosoago erabili ahal izango zen Errege Bide hau.

Konklusioak

Ondo eraikitako eta kontserbatutako egituraren aurrean gaudela esan dezakegu. Gerora konponketa batzuk egin bazituzten ere, aspaldian eraikia dela ematen du. Zalantzarik gabe, Castro Urdiales eta Bercedo elkartzen zituen Errege Bidearen atala da, bide honek, besteak beste, Balmasedako hiribildua zeharkatzen baitzuen alderik alde, bertako Erdi Aroko zubi ederrean barrena. Aipatu bidea 1827. urte inguruan eraiki zuten, urte horretako Errege Agindu batean aipatzen baita. Bide honek segur asko alde honetan lehendik izango ziren beste batzuen bidea aprobetxatuko zuen, esate baterako, Flaviobriga-Pisoraca erromatarren garaiko bidea eta Erdi Aroko beste bide batzuk.

noreste (dirección de la vía en este tramo) existiendo tan solo 20 centímetros de diferencia en los 15 metros estudiados. En sección, aunque muy levemente, se puede apreciar que el carril central esta siempre a mayor cota que los laterales, dejándonos una imagen de leve arco en el firme del camino. Esta disposición lógicamente ayudaría a drenar el agua del camino hacia los laterales, facilitando su uso.

Conclusiones

Se puede concluir que estamos ante una estructura bien construida y conservada, con reparaciones posteriores pero que parece haber sido construida en momentos no muy lejanos al actual. Se trata con seguridad de parte del Camino Real que unía Castro Urdiales con Bercedo y que entre otras villas pasaba por Balmaseda (paso obligado del entorno gracias a su excelente puente medieval) fechado hacía 1827 año en que es mencionado en una Real Orden. Muy posiblemente este camino aprovechaba el itinerario de anteriores vías de comunicación que cruzaban la zona y que se remontan hasta la vía romana Flaviobriga-Pisoraca y posteriores caminos medievales.

D. Vallo Espinosa

B.5. **BERRIZ**

B.5.1. **Amezuako San Jorge baseliza**

Zuzendaritza: Román Rodríguez Calleja
Finantziazioa: Berrizko Udala

B.5.1. **Ermita San Jorge de Amezua**

Dirección: Román Rodríguez Calleja
Financiación: Ayuntamiento de Berriz

The project entitled «The new general system of slaughterhouse infrastructures in Erralde and the extension of general sporting equipment systems and recreational areas in Berriz-Buru», established by the Berriz Local Council in the Amezua area, affected the area of presumed archaeological importance which is thought to be the location of the old San Jorge Chapel. As a result, an archaeological intervention was carried out in order to determine whether any remains of the building still survived, or whether any evidence exists attesting to the site's historical past. The results were negative in relation to the established objectives, with no evidence being found of the San Jorge site. This opens up the possibility of the structure being located in another area, outside the zone of presumed archaeological importance in which it was thought to have stood.

Amezuako San Jorge, baseliza galdua

XVIII. mendeko azken urteetan hasi ziren jatorria eta bilakaera historikoa ia guztiz ezezagunak dituen eraikina eraisten. 1793. urteko bisitaldi pastoralean Calahorrako eta La Calzadako apezpiku Francisco Mateo Aguiriano jaunak Berrizko parrokiako hiru baseliza eraisteko agindua eman zuen oso egoera txarrean zeudelako; horietako bat zen Amezuako San Jorge. Hiru baselizetako harriak auzoen artean enkantean salduta lortutako diruarekin San Juan Ebanjelaria parrokian eraiki beharreko hilobi berriak finantzatzea bila zuten.

San Jorge de Amezua, una ermita perdida

Los años finales del siglo XVIII marcan el inicio del proceso de desmantelamiento de una construcción cuyo origen y desarrollo histórico resultan prácticamente desconocidos. En la visita pastoral del año 1793, don Francisco Mateo Aguiriano, obispo de Calahorra y La Calzada, mandó demoler tres ermitas de la feligresía de Berriz por encontrarse en estado ruinoso, una de las cuales era la de San Jorge de Amezua. El objetivo era destinar a la financiación de las nuevas sepulturas que habrían de construirse en la parroquia de San Juan Evangelista, lo que se obtuviera entre los vecinos por la venta de la piedra de las tres ermitas.

Eraikina arin eraitsiko zuten, 1802. urteko *Diccionario Geográfico-Histórico de España* obran soilik hamar baseliza aipatzen baitira Berrizko elizatean, hots, ondorengo historiografiak eskainiko dituen hamarrak. Aipatu mendearen erdialdera Pascual Madozek osatutako Hiztegian, berriz, soilik sei baseliza aipatzen dira elizate honetan.

XVIII. mende amaierako eraikinaren egoera ezin kaskarragoa, hormetako harriak elizateko auzoen artean enkantean saldu izana eta baseliza eraisteko baimena eman zutenetik berrehun urte igaro izana nahikoa arrazoi dira eraikinaren kokalekuari buruzko aztarna material nahiz idatzirik ez kontserbatzeko eta San Jorge baseliza bera zehazki non egon zen erabat ahazteko.

Jarduera eremua: irizpideak eta prozedurak

2009ko maiatzean Planaren Arau Subsidiarioetan aldaketa batzuk egin zituen Berrizko Udalak Berriz Buruko hondakin geldoen hondakindegiaren azpiegituren sistema orokorra kentzeko. Hondakindegiko lanak amaituta udal lurren azalera handia erabilerarik gabe geratu zenez (gutxi gorabehera 7,86 ha), espazio honi probetxua ateratzeko eraikuntza proiektu batzuk abiarazi zituen udalak.

Obren programa hau garatzeko mugatutako eremuaren ertzetako bat Amezuako San Jorge ustezko eremu arkeologikotik gertu zegoenez, esku-hartze arkeologiko bat garatu beharra zegoen aipatu lekuan.

Berrizko auzo honetako ahozko tradizioak balizko bi leku bereizten ditu San Jorge baselizarentzat, horixe geratu zen agerian alde honetan esku-hartze arkeologikoei ekin aurretik burura eramandako ahozko inkestan. Leku bietatik bat ez genuen aintzat hartu, obraren eragin eremutik eta ustezko eremu arkeologikoren izendapenak babestutako eremutik urrutira zegoelako. Beste lekuan betegarri bat bereizten zen ustezko eremu osoan, izan ere, topografia aldapatsuan egokitzen baita.

Aipatu betegarrian sei zundaketa eraman genituen burura arkeologikoki ebaluatzeko. Zundaketak, formaz koadroak, bi metro koadrokoak izan ziren. Adierazitako sei zundaketak egin eta indusketetan lortutako emaitzak negatiboak zirela ikusirik, beste bi zundaketa ireki genituen lubaki moduan, alde honetako aldapan, betegarritik gertu, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultur Ondarearen Zerbitzuak agindu bezala. Lubaki hauek hamar metro luze eta bi metro zabal izan ziren.

Esku-hartze arkeologikoaren emaitzak: interpretazioa eta balorazio historikoa

Mazelako erliebearen osaera baina batez ere bertako espazio berdinduaren sorrera eragin zuten ja-

La demolición del edificio debió cumplirse con cierta rapidez, puesto que el *Diccionario Geográfico-Histórico de España* de 1802, sólo cita ya diez ermitas para la anteiglesia de Berriz, el mismo número que reproducirá la historiografía posterior. El Diccionario compilado por Pascual Madoz, a mediados de esa misma centuria, sólo enumera ya seis ermitas en la anteiglesia.

Un estado ruinoso del edificio a fines del siglo XVIII, el remate de la piedra de la fábrica entre los vecinos de la anteiglesia y los doscientos años transcurridos desde el momento en el que se autoriza la demolición de la ermita, son circunstancias que justifican sobradamente no sólo el hecho de que no se conserven vestigios materiales o documentales de la situación del edificio, sino también de que se haya podido perder la memoria del emplazamiento concreto en el que pudo localizarse la ermita de San Jorge.

El área de actuación: criterios y procedimientos

En mayo del 2009, el ayuntamiento de Berriz procede a la modificación puntual de sus Normas Subsidiarias de Planeamiento para eliminar el sistema general de infraestructuras del vertedero de inertes de Berriz Buru. Al quedar sin uso una amplia superficie de terreno municipal, tras finalizar la actividad del vertedero, (aproximadamente unas 7,86 Ha.), el ayuntamiento decidió acometer diversos proyectos constructivos para el aprovechamiento de ese espacio.

El hecho de que uno de los bordes del enclave acotado para ese programa de obras se localizase en proximidad al área señalada como zona de presunción arqueológica de San Jorge de Amezua impuso la necesidad de actuar arqueológicamente sobre el lugar señalado.

La tradición oral de esa barriada de Berriz propone dos posibles localizaciones para la ermita de San Jorge, como quedó de manifiesto en la encuesta oral que se realizó de forma previa a cualquier actuación arqueológica sobre el enclave. De las dos posiciones, se desestimó la que quedaba más alejada tanto del área de posible afección por obra, como de la superficie protegida por la declaración de zona de presunción arqueológica. La localización elegida, por su parte, ofrecía la única superficie de rellano de toda la zona de presunción, por desarrollarse ésta sobre una topografía de pendiente.

La evaluación arqueológica del citado rellano se efectuó mediante seis sondeos, con forma cuadrangular en planta, de dos metros de lado cada uno. Tras la realización de los seis sondeos citados, y una vez constatados los nulos resultados obtenidos en su excavación en relación a los objetivos marcados, se realizaron dos nuevos sondeos, a modo de trinchera, instalados directamente sobre las pendientes del emplazamiento, en posiciones inmediatas al rellano, como así dictaminó el Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia. Las dimensiones de estas trincheras fueron de diez metros de longitud por dos de ancho.

Resultados de la actuación arqueológica: interpretación y valoración histórica

La secuencia estratigráfica documentada en el enclave del barrio de Amezua que ha sido objeto de

zoeren berri ematen digu esku-hartze arkeologikoaren xede izandako Amezua auzoko alde honetan dokumentatutako estratigrafiaren sekuentziak.

Lan arkeologikoek agerian utzi dute alde honetan ezin egon zitekeela iturri idatziek adierazten duten baseliza. Eta hori horrela da eremu lautu honetan iraganean eraikin bat eraiki zutela adieraziko lukeen zuzeneko edo zeharkako aztarna bakar bat ere aurkitu ez genuelako. Eta ez dugu uste alde honetako zorupea erabat hustu zutenik, bertan eraikitako eraikin zahar baten berri eman liezaguketen balizko aztarnak oro desagerraraziz.

Calahorrako eta La Calzadako apezpikuak 1793. urtean Berrizera egin zuen bisitaldi pastoralean aurri egoeran zegoen eraikin batetik aprobetxatu zitezkeen eraikuntza materialak enkantera ateratzeko erabakia hartu zuen. Baliteke hormetako harriak auzoko eraikin berrietan aprobetxatzeko ekimenak baselizaren zimentarriak erabat arpilatzera eraman izana harrizko material guztia baliatu ahal izateko xedean.

Hustuketa horrek eragindako lubakiak sedimentuekin beteko ziren geroago, leku hau inguratzen duten mazeletako gailurretatik behera berez eta arianarian etorritako buztinekin, edo gizakiak berak beteko zituen alde hau berdintzea bila zuen prozesuan. Baliteke elementu hauek, lubakiak eta betegarriak, Amezuan burura eramandako esku-hartze arkeologikoetan hauteman ez izana. Baliteke landa-lanetan aipatu aztarnak hauteman ez izana lurren osaeraren ezaugarriak direnak direlako eta jarduerari begira planteatutako zundaketak izan zirenak izan zirelako.

Hala eta guztiz ere, geuk aztertu dugun aldean egon balitz San Jorge baseliza, ezagutzeko moduko arrastoren bat utziko zukeen zalantzarik gabe. Arkitektura bat zeharo desmuntatu daiteke, baina hormetan baliatzen diren harri eta zeramika puskak, eraikin berrien eraikuntzan nekez baliatu daitezkeenak eta gainera garraiatzen garestiak direnak, neurri eta kopuru batean kontserbatuko ziren alde honetan. Eta beste horrenbeste esan liteke, esate baterako, eraikineko harrizko egiturako harriak batuko zituzten kareore hondakinei buruz.

Eta ez genuen zeramikazko eraikuntza hondakinik hauteman. Edo ez genuen teilazko teilatu batez hornituriko eraikin zaharrari leku egingo zion tokian haren presentzia salatuko zuten kopuruan dokumentatu. Beraz, esku-hartze arkeologikoan zehar dokumentatutako teila arabiarraren hondakin urriak ezin lotu ditzakegu balizko eraikin zahar harekin. 1., 2., 3., 4., 5. eta 6. zundaketetan eta laututako gainazal osoa ebaluatzeko xedean irekitako beste bietan induskatutako geruza guztietan berreskuratutako hogeita hamarren bat teila zati ez dira nahikoak leku hau harremanetan jartzeko betikoz galdu den baseliza zaharrarekin.

Eta adierazitakoa sendotzen du, hau da, induskatutako eremuan baseliza bat egoteko aukera urria

actuación arqueológica, nos informa principalmente de los acontecimientos que han propiciado la formación de su relieve en ladera y, sobre todo, de los sucesos que han podido favorecer la creación del espacio arrellanado que hoy constatamos en el mismo.

Los trabajos arqueológicos han puesto de relieve que en tal posición no pudo localizarse la ermita que refieren las fuentes documentales. Y tal conclusión parece clara, porque no se ha recuperado ninguna evidencia directa o indirecta de que en ese rellano se levantó una arquitectura en el pasado. A menos, claro está, que se haya procedido a un vaciado completo del subsuelo en ese punto, eliminando cualquier posible rastro que pudiera informarnos de la presencia antigua de una edificación alzada en él.

La visita pastoral del obispo de Calahorra y La Calzada a Berriz en el año 1793, culmina con la decisión de sacar a remate los materiales constructivos que pudieran aprovecharse de un edificio que se declaraba en estado de ruina. Aprovechar la piedra de la fábrica para incorporarla en nuevas construcciones de la barriada, pudo tener como efecto extremo el proceso de socavar completamente los cimientos para aprovechar todo el material pétreo disponible.

Las zanjas resultantes de ese vaciado pudieron rellenarse más tarde con sedimento, bien aportado de manera natural por el paulatino deslizamiento de arcillas desde las cotas altas de las pendientes que circundan el enclave, bien anuladas por el hombre en un proceso que perseguía regularizar la topografía. Tales elementos, zanjas y rellenos de colmatación, es factible que no fueran detectados durante la actuación arqueológica acometida en Amezua. El tipo de sondeos planteados para la actuación y las características compositivas de las tierras pueden haber favorecido la no detección de tales evidencias en los trabajos de campo.

Sin embargo, si la ermita de San Jorge hubiera estado en el lugar que hemos evaluado arqueológicamente, tendría que haber dejado algún rastro reconocible. Una arquitectura puede ser desmantelada de manera completa, pero el ripio cerámico o pétreo que suele incluirse en la fábricas, inservible en muchos casos a efectos constructivos, y costoso de acarrear hasta el lugar donde deba utilizarse, tendría que haber permanecido en el enclave en alguna cantidad y medida. Y lo mismo cabría decir, por ejemplo, de los restos del mortero que seguramente trabó el aparejo pétreo de la construcción.

De la misma manera que tampoco se han detectado restos constructivos de índole cerámica. O al menos no se han documentado en un número tal, que su presencia pudiera delatar la existencia en el lugar de un antiguo edificio provisto de cubierta de teja, descartando así la concurrencia natural de tales elementos en el enclave, que es la interpretación más factible que cabe asignar a los escasos restos de teja curva documentados durante la actuación arqueológica. La recuperación de apenas una treintena de fragmentos de teja en el conjunto total de estratos excavados en los sondeos 1, 2, 3, 4, 5 y 6, aquellos que evalúan la totalidad de la superficie arrellanada, no parecen servir para relacionar este enclave con una antigua ermita desaparecida.

Ahonda también en el sentido apuntado, esto es, la poca probabilidad de que existiera una ermita en el en-

sendotzen du esku-hartze arkeologikoan zehar estratigrafian zalantzarik gabe halako antzinatasuna salatuko lukeen aztarna material bat bera ere berreskuratu ez izanak. Berreskuratutako hondakin materialak urri dira kopuru aldetik, ez dago ukatzerik, baina gure ustez esanguratsua da haietako bakar batean ere ezin hauteman izatea San Jorge baseliza Amezua auzoan egon zeneko une historikoei buruz hitz egiteko modua eskainiko ligukeen arrasto bat bera ere.

Konklusioak

Bertako berriemaileek San Jorge baseliza galdua kokatzen zuten Amezua auzoko bi lekuetatik batean eraman genuen burura esku-hartze arkeologikoa, izan ere, iturri idatziek XVIII. mendeaz geroztik ez dute baseliza hau aipatzen. Berrizko Udalak Berriz Buruko hondakin geldoen hondakindegi zaharrari berriro ere probetxua ateratzeko xedean abiarazitako programak ustezko eremu arkeologikoan izan zezakeen eragin motak eta eragin mailak justifikatzen zuten alde hau aukeratu izana.

Alde honetan burura eramandako zortzi zundaketetan bereizitako estratigrafia eta berreskuratutako aztarnak aztertuta, esan dezagun ebaluatutako lekua ez datorrela bat Aro Modernoko mendeetan zehar eraiki zuten San Jorge baselizari leku egingo zionarekin. Guk bederen ez dugu horrelakorik zalantzarik gabe baieztatzeko moduko hondakin edo arrasto bakar bat ere dokumentatu. Eta alde honetan egiaztatutako aztarna, estratigrafia eta material mota batzuen absentziak ere berretsi egiten du arestian adierazitakoa, horrelakoak egoten baitira eraikin zaharrak egon diren lekuetan, nahiz eta eraikin batzuek San Jorge baselizak bizi izan zuen zorte bera izan zuten azken buruan.

Baseliza hau seguru asko leku honetan egon ez zela baieztatzeaz gainera, denboraren joanean eta leku honetan noizbehinkako jarduera antropiko motaren bat garatu zela erregistratu genuen, nahiz eta jarduera horiek batez ere gure garaian (XIX.-XXI: mendeetan) garatu zirela esan behar dugun.

Burura eramandako esku-hartze arkeologikoak hura programatzeko garaian planteatutako helburuak bete ez baditu ere, aukera ematen du berriro ere Amezuako San Jorge ustezko eremu arkeologikoan eta egun adierazpen administratiboetara bildu ez baina interesgarriak izan litezkeen inguruko eremuetan etorkizunean egin daitezkeen saioak bideratzeko. Orduan iritsiko zaigu aipatu San Jorge baselizari begira proposatzen diren beste lekuak aztertzeko tenorea.

clave excavado, el hecho de que durante la actuación arqueológica no se haya recuperado en la estratigrafía ningún resto material al que pueda referirse, sin rastro alguno de duda, una cierta antigüedad cronológica. Los restos materiales recuperados, no puede negarse, resultan escasos en número, pero, a nuestro parecer, es reveladora la circunstancia de que no pueda rastrearse en ninguno de ellos una huella o atributo que permitan referirlos a los momentos históricos en los que la ermita de San Jorge estuvo emplazada en la barriada de Amezua.

Conclusiones

La actuación arqueológica se programó sobre uno de los enclaves del barrio de Amezua donde los informadores locales situaban el emplazamiento de la desaparecida ermita de San Jorge, de la que no se tiene noticia documental desde fines del siglo XVIII. La elección estuvo justificada a partir del tipo y grado de afección que cabía suponer para la zona de presunción arqueológica por el programa de reaprovechamiento del antiguo vertedero de inertes de Berriz-Buru que perseguía promover el ayuntamiento de la localidad.

De la evaluación de la estratigrafía de los ocho sondeos practicados en el lugar y del análisis de las distintas evidencias recuperadas, parece poder deducirse que el enclave evaluado no corresponde con el solar sobre el que se levantó, durante los siglos de la Edad Moderna, la ermita de San Jorge. Al menos no se ha documentado ningún tipo de huella o resto que permitan sostener con solvencia tal afirmación. Incluso se valora en el sentido apuntado la ausencia constatada en ese enclave de algunos tipos de evidencias, estratigráficas y materiales, que suelen estar asociadas con aquellos lugares en los que se señala la presencia de edificios antiguos, algunos de los cuales corrieron idéntica suerte final que la ermita de San Jorge.

Y no sólo cabría afirmar que la ermita probablemente no se levantó en dicho emplazamiento, sino que éste registra además un tipo de actividad antrópica que puede calificarse de esporádica en el tiempo y con una utilización preferente en estadios de cronología marcadamente contemporánea (siglos XIX-XXI).

Si bien la actuación arqueológica acometida no ha arrojado resultados positivos respecto a los objetivos que se plantearon en el momento de programarla, permiten reconducir futuros esfuerzos de otros proyectos arqueológicos que incidan nuevamente en la zona de presunción de San Jorge de Amezua, o en áreas colindantes no incluidas actualmente en su declaración administrativa y que pudieran resultar de interés. Será entonces el momento de poder pulsar otros lugares que han sido señalados y propuestos como posibles emplazamientos para la citada ermita de San Jorge.

R. Rodríguez Calleja

B.5.2. **Olabarri ola**

Zuzendaritza: Raúl Sánchez Rincón
Finantziazioa: Jesús Díaz de Cerio; Bizkaiko Foru Aldundia

B.5.2. **Ferrería de Olabarri**

Dirección: Raúl Sánchez Rincón
Financiación: Jesús Díaz de Cerio; Diputación Foral de Bizkaia

Intervention carried out in the basement of Olabarri farmhouse, consisting of an assessment trench measuring 5 x 1.5 m in the area in which a new support pillar was to be placed. The results of the intervention were of little or no historical-archaeological interest.

Olabarri baserriko sotoan garatutako esku-hartzea. 5 x 1,5 m-ko erreten bat ireki genuen egiturari eusteko zutarri berri bat jarri behar zuten lekuan. Emaitzak negatiboak izan ziren historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik.

Aitzitik, interesgarria litzateke etorkizunean Olabarri olaren balizko kokalekua xehetasun handiago batez aztertzea, ahozko iturrien arabera baserri honetan ez baizik eta haren ipar-mendebaldeko orube baten egon baitaiteke ola.

Intervención desarrollada en el sótano del caserío de Olabarri, consistente en una zanja de valoración de 5 x 1,5 m allí donde iba a ser colocado un nuevo pilar de sustentación, siendo los resultados de la misma de escaso o nulo interés histórico-arqueológico.

Por último, sin embargo, queremos reseñar cómo sería interesante asimismo en un futuro estudiar con mayor detenimiento la posible ubicación de la ferrería de Olabarri, puesto que fuentes orales nos han transmitido que dicho edificio pudiera no hallarse en este caserío sino en un solar ubicado al NW del mismo.

R. Sánchez Rincón

B.8. **BILBO / BILBAO**

B.6.1. **San Frantzisko Komentua. Mariaren Bihotza plaza**

Zuzendaritza: Mikel Neira Zubieta
Finantziazioa: Bilbao Ría 2000

B.6.1. **Convento de San Francisco. Plaza Corazón de María**

Dirección: Mikel Neira Zubieta
Financiación: Bilbao Ría 2000

As the result of the construction work planned for Corazón de María Square, an urban development monitoring, assessment, support and supervision project was carried out.

Helburu bikoitza zuen proiektuak; aztarnategi arkeologikoa lauzazko egitura batez estaltzea eta ondoren auzoko espazio libreen beharrei leku egingo zien plaza berri batez ingurua urbanizatzea.

Burura eramandako obren artean zuzenean aztarnategia ukitzen zuten lan batzuk egin zituzten, eta horrexegatik kontrol arkeologiko zorrotzagoa eraman genuen burura lan hauek egiten zituzten bitartean.

Zehazki sei zimentarri-egitura eraiki zituzten aztarnategiaren baitako hainbat eremutan, eta ezinbestean desmuntatu behar izan zituzten aurrez zeuden egiturak estalkiari eusten dioten habe nagusiak behar bezala finkatzeko.

Jarraian deskribatuko ditugu aztarnategiaren baitan induskatutako zapatetan lortutako emaitzak.

El proyecto tenía un doble objetivo; cubrir el yacimiento arqueológico con una estructura de losas y posteriormente proceder a la urbanización del entorno con una plaza nueva que diera cabida a las necesidades de espacio libre en el barrio.

Dentro de los trabajos ejecutados en la obra se han desarrollado algunos que afectaban directamente al yacimiento, de ahí que se haya realizado un control arqueológico más exhaustivo durante la ejecución de los mismos.

Concretamente se han ejecutado seis encepados, dispuestos en diferentes zonas del interior del yacimiento que inevitablemente han tenido que desmontar las estructuras existentes para fijar las vigas principales que sujetan la cubierta.

A continuación describiremos los resultados obtenidos en las diferentes zapatas excavadas al interior del yacimiento.

Ezkerretara: Mariaren Bihotza Plazaren airetiko irudia esku-hartze arkeologikoak garatzen ari zirenean. Bilbao Ría 200. Eskuinetara: Mariaren Bihotza Plazaren airetiko irudia urbanizazio lanak amaitu ostean. Bilbao Ría 2000.

A la izquireda: imagen aérea de la Plaza Corazón de María durante la intervención arqueológica. Bilbao Ría 200. A la derecha: imagen aérea tras la obras de urbanización de Plaza Corazón de María. Bilbao Ría 2000.

1. zimentarri-egitura

Zimentarri-egitura hau eliz atariko egituran zegoen proiektatuta. Identifikatutako buztinezko depositua elizaren zimentarriaren mendebaldeko egitura eraikitzeko oinarri lautuarena egiten du.

Eliza gotikoaren eraikuntza aldikoa da zimentarri hau, XV. mende bukaeraren eta XVI. mende hasieraren artekoa. Aztarnek iradokitzen duten bezala, oinarri bat da, eta bertan hartuko zuten atseden eraikin erlijiosoaren egitura nagusietako batzuek.

Lauzadurari dagokionez, eliz atariaren mendebaldeko harrera gelakoa izango zela esan behar dugu, esku-hartze arkeologikoan aterari dagozkion gontzeak aurkitu baikenituen. Espazio honen ekialdera tenpluari sarrera egingo zion zurezko atetzar bikoitza egongo zen, erdialdeko ate gurutzearekin.

2. zimentarri-egitura

1. zimentarri-egiturari begira eskainitako interpretazioarekin gertatzen den bezala, esan dezagun erregistratutako depositua tenpluaren alde honetako egiturak zimendatu aurreko zorua berdintzeko betegarria dela. Beraz, monasterioaren aurreneko mendeetan kokatu behar dugu.

3. zimentarri-egitura

Kaperako adreiluzko zorua egokitzeko azken prestakin maila erregistratu dugu. Bestalde, «Iparraldeko 1. Kaperaren» mendebaldeko itxitura horma identifikatu dugu. Unitate biak monasterioaren garairik oparoenari dagozkio, hau da, XVI. mendetik aurrera kokatu behar ditugu.

4. zimentarri-egitura

Kaperako hilobiak banatzeko egituraren partea osatzen zuen desmuntaturako egiturak. Bestalde,

Encepado 1

Este encaje estaba proyectado en la estructura del recibidor de la iglesia. El depósito de arcilla identificado se ha interpretado como una base de nivelación para la construcción de la estructura occidental de cimentación la iglesia.

La cimentación, pertenece al período constructivo de la iglesia gótica, entre finales del siglo XV, principios del siglo XVI. Del modo que las evidencias la describen, estaríamos ante un componente de base, donde sustentar algunas de las estructuras principales del edificio religioso.

En cuanto al enlosado, formaría parte de la zona del recibidor occidental de la iglesia, tal y como la intervención arqueológica ha podido cerciorar con la identificación de los quicios. A través de éste espacio, se abriría hacia oriente un doble portón de madera con un parteluz central, que permitiría el acceso al templo.

Encepado 2

Al igual que ocurre con la interpretación ofrecida en el encepado 1, el depósito registrado pertenece a la nivelación para cimentar a las estructuras dispuestas en esa zona del templo, por lo que se puede atribuir a los primeros siglos del cenobio.

Encepado 3

Se ha registrado la última preparación para asentar el suelo de ladrillo de la capilla. Por otro lado, hemos identificado como el muro de cierre occidental de la «Capilla 1 Norte». Ambas unidades pertenecen a la fase de apogeo del convento, ubicable cronológicamente a partir del siglo XVI.

Encepado 4

La estructura desmantelada formaba parte de las distribuciones sepulcrales de la capilla. Por otro lado,

buztinez eta hezurrez betetako zuloa hezurtegi bat izan zela esan behar dugu. Seguru asko hilobien azken fasea eraiki baino lehen aurreko obra batzuetan eta zulo handi honetan utzitako hezur nahasiak jasoko zituzten.

Kronologiaren ikuspuntutik XVI. eta XVII. mende bitartean kokatu behar dugu hezurtegia, azken mende horretan eraiki baitzuten hilerriko egitura.

5. zimentarri-egitura

Altxatutako adreiluzko zorua monasterioa erabili zuten azken garaikoa dela esan behar dugu. Adreilu motari erreparatuz gero esan dezagun XVIII. mende amaierako edo XIX. mende hasierako obra dela, monasterioa abandonatu edo hura kuartel bihurtu aurrekoa. Sutegi txiki bat identifikatu dugu, eta haren erabilera edo funtzio ezezagun bazaigu ere, hilerriaren azken fasearen eta zoruaren eraikuntza aldiaren artean kokatu dezakegu, XV. eta XVIII. mende bitartean. Erregistratutako ehorzketa, berriz, XV. eta XVIII. mende bitarteko hilerri aldiari dagokio, monasterioak bere garai oparoena bizi izan zuen aldiari.

6. zimentarri-egitura

Aurreko atalean eskainitako interpretazioarekin bat etorririk, esan dezagun lauzadura hau kapera eraikitzeko azken aldian kokatu behar dugula, seguru asko haren bizitzaren azken mendeetan (XVIII.-XIX. mendeak). Bestalde, monasterioaren bizitzaren erdialdeko mendeetan kokatzen dugu erregistratutako ehorzketa, XVI.-XVII. mende bitartean, garai hartan ezagutu baitzuen hilerriak bere jarduera biziena.

hemos interpretado el agujero, rellenado por la composición de arcilla y material óseo, como un osario. Probablemente, antes de la construcción de la última fase de sepulturas, se procedió a recoger los enterramientos revueltos que se habrían depositado durante alguna obra anterior acumulándolos en esa gran fosa.

Cronológicamente se puede atribuir el osario entre el siglo XVI y el XVII, centuria en la que se proyecta el encajonado cementerial.

Encepado 5

El suelo de ladrillo desmantelado pertenece a la última fase de utilización del cenobio. Probablemente, por el tipo de ladrillo se trata de una obra de finales del siglo XVIII, principio del XIX, antes del abandono o reajuste del cenobio como cuartel. Se ha identificado un pequeño hogar, del que desconocemos su utilidad o funcionalidad, podemos situarlo entre la última fase sepulcral y la construcción del suelo, entre el siglo XV al XVIII. Finalmente, el enterramiento registrado, pertenece a una fase de cementerio ubicable entre el siglo XV y el XVIII, centurias en las que se documenta el mayor apogeo en el convento.

Encepado 6

Al igual que ocurre en la interpretación ofrecida en el anterior apartado, podemos atribuir el enlosado a la última fase de construcción de la capilla, probablemente en torno a los últimos siglos de vida de éste (XVIII-XIX). Por otro lado, el enterramiento identificado podríamos atribuirlo a las centurias intermedias del cenobio, entre el XVI-XVII, momento de mayor actividad cementerial.

M. Neira Zubieta

B.7. **BUSTURIA**

B.7.1. **Goikoetxe leizea**

I. zundaketa kanpaina
Zuzendaritza: Juan Carlos Zallo Uskola
Finantziazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

B.7.1. **Cueva de Goikoetxe**

I Campaña de sondeos
Dirección: Juan Carlos Zallo Uskola
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

In 2011, the 1st season of stratigraphic sondages was conducted in Goikoetxe cave, forming part of the multidisciplinary research project «Palaeo-environmental study of Goikoetxe cave – Malloku System (Busturia, Bizkaia)». The aim of the study was to chart the chronological and palaeo-environmental evolution of the cave using sedimentological and palaeontological techniques.

2009ko maiatzaren 24an zorupeko sistema garrantzitsu bat aurkitu eta esploratu zuen ADES Espeleologia Taldeak (Gernika-Lumo) Peña Foruko karstaldeko azpi-unitatearen baitan, eta elkarren gainean

El día 24 de mayo de 2009, el Grupo de Espeleología ADES (Gernika-Lumo) descubre y explora un importante sistema subterráneo dentro de la subunidad kárstica de Peña Forua, determinando la existencia de

egokitutako eta lotutako hiru maila bazirela egiaztatu zuen. Sistema honetan material paleontologikoa biltzen duten sei depositu bereizten dira, horitatik lau tarteko mailan (DP-2, DP-3, DP-5 eta DP-6). Honako espezie hauek identifikatu ziren: oreina (*Cervus elaphus),* behiaren familiako abelburu handi bat (*Bos primigenius/Bison priscus*), harpeetako hartza (*Ursus spelaeus)* eta errinozeroa (taxonomian gehiago zehaztu gabe).

2011n abiarazi zen I. zundaketa estratigrafikoen kanpaina Goikoetxe leizean, betiere «*Goikoetxe leizearen-Malloku sistemaren azterketa paleoanbientala (Busturia, Bizkaia)*» ikerketa proiektuaren baitan. Proiektu honek erregistro sedimentologikoaren eta paleontologikoaren azterketa diziplina anitza du xede nagusi, leizeko bilakaera paleoanbientalera eta kronologikora hurbiltzeko eta haiek baloratzeko aukera izateko. 2011. urtean Goikoetxe leizeko azterketa paleoanbientalaren proiektua Malloku Sistema modu integralean aztertzeko (karstaldearen geomorfologia, geologia, hidrogeologia, bioespeleologia...) programaren esparrura bildu zen. Euskal Espeleologoen Elkargoak (EEE) koordinatzen du programa hau.

Lehenengo kanpaina honetan zundaketa estratigrafiko bat eraman dugu burura Gela Gorrian (S-1 zundaketa), sistemaren tarteko mailan, itsas mailatik gora gutxi gorabehera 49 metrotara dagoen lekuan. Leizeko sektore honetako sedimentuzko betegarria 150 eta 200 cm bitarte lodi da, eta zuzenean egokitzen da meteorizazio prozesuen ondorioz (batez ere prozesu kimikoak) oso higatuta ageri den harrizko geruzaren gainean. Gela Gorrira iristea aski zaila denez, ADES Espeleologia Taldearen laguntza eta partaidetza behar izan genuen zundaketa estratigrafiko hau burura eraman ahal izateko.

G. Laplacek behin eta berriz eta sistematikoki adierazitako (1971) koordenatu kartesiarren metodoa baliatu genuen zundaketa induskatzeko garaian. 10 zentimetro lodi ziren tailetan altxa genuen depositukо masa, betiere geruza bakoitzaren makurdurari jarraiki eta sakonera mailak ondo erregistraturik. Estratigrafia Analitikoaren printzipioen arabera aztertu genuen sedimentuzko betegarria, eta beraz, frakzio fin, ertain eta handiaren ezaugarriak, matrizearen kolorea, sedimentuen trinkotasun maila eta hondakin paleontologikoen presentzia bereizi eta zehaztu genituen. Induskatutako taila bakoitzetik lagin bana jaso genuen sedimentuok laborategian aztertzeko, eta gainerakoa prozesatu egin genuen (garbitu eta 0,25 mm argiko sare batez bahetu) fauna txikiaren laginak berreskuratzeko xedean.

Goikoetxe leizeko estratigrafia (Gela Gorria)

S-1 zundaketak 0,5 m zabal eta 1,5 m lodi den estratigrafiaren perfila eskaini zuen, eta 15 sedimentu-lagin jasotzeko zutabea. Honako unitate estratigrafiko hauek bereizi genituen zorutik sabaira.

Gsm-4 unitate estratigrafikoa

Unitate honetan nagusi dira legarrak eta harri koskorrak kolorez marroia den matrize hareatsuan. Kareharrizko geruzaren gainean egokitzen da, nahasia/higatua

tres niveles de galerías, superpuestos e interconectados entre sí. A lo largo del sistema se reconocen seis depósitos con material paleontológico, cuatro de los cuales se sitúan en el nivel intermedio (DP-2, DP-3, DP-5 y DP-6), identificando las siguientes especies: ciervo (*Cervus elaphus),* gran bóvido (*Bos primigenius/ Bison* priscus), oso de las cavernas (*Ursus spelaeus)* y rinoceronte (sin concretar la atribución taxonómica).

En el año 2011 se acomete la I campaña de sondeos estratigráficos en Goikoetxe, formando parte del proyecto de investigación «*Estudio paleoambiental de la cueva de Goikoetxe-sistema Malloku (Busturia, Bizkaia)*». El objetivo primordial de este proyecto es el estudio pluridisciplinar del registro sedimentológico y paleontológico como procedimiento de valoración y acercamiento a la evolución paleoambiental y cronológica de la cavidad. En 2011, el proyecto de estudio paleoambiental de Goikoetxe se integra en el marco de un programa de estudio integral del Sistema Malloku (Geomorfología kárstica, Geología, Hidrogeología, Bioespeleología…), coordinado por la Unión de Espeleólogos Vascos (UEV).

En esta primera campaña, se ha realizado un sondeo estratigráfico en la Sala Roja (sondeo S-1), situada en el nivel intermedio del sistema, a *c.* 49 m sobre el nivel del mar. El relleno sedimentario de este sector de la cueva (depósito de cantos de génesis fluvial) oscila entre los 150 y los 200 cm, asentándose directamente sobre un sustrato rocoso profundamente erosionado como consecuencia de procesos de meteorización (sobre todo químicos). Debido a la relativa dificultad en el acceso a la Sala Roja, es necesaria la participación y ayuda del Grupo de Espeleología ADES para la realización del sondeo estratigráfico.

La estrategia de excavación del sondeo se ha regulado por el método de coordenadas cartesianas, expuesto sistemáticamente por G. Laplace (1971). El levantamiento de la masa del depósito se ha ejecutado en tallas de 10 centímetros de espesor, siguiendo el buzamiento de cada capa y con registro de las profundidades. El relleno sedimentológico se ha analizado desde los principios de la Estratigrafía Analítica, definiendo los caracteres de la fracción fina, media y gruesa, la coloración de la matriz, el grado de compacidad del sedimento y la presencia de restos paleontológicos. De cada talla excavada se ha recuperado una muestra para el estudio sedimentológico de laboratorio y el resto se ha procesado (lavado y tamizado con malla de 0,25 mm de luz) con el objeto de recuperar muestras de microfauna.

Estratigrafía de la cueva de Goikoetxe (la Sala Roja)

El sondeo S-1 ha dado lugar a un perfil estratigráfico de 0,5 m de anchura y 1,5 m de potencia, habiendo aportado una columna de 15 muestras sedimentológicas. Se han descrito las siguientes unidades estratigráficas, de muro a techo:

Unidad estratigráfica Gsm-4

Unidad con predominio de gravas y cantos sobre matriz arenosa de color marrón. Se localiza sobre un sustrato calizo con huellas evidentes de alteración/

Goikoetxe leizea. S-1 zundaketaren kokalekua Gela Gorrian, eta agerian utzitako estratigrafiaren perfilaren xehetasunak.

Cueva de Goikoetxe. Emplazamiento del sondeo S-1, en la Sala Roja, y detalle del perfil estratigráfico obtenido.

izan den kareharriaren gainean (uraldiak eragindako lapiaza?). Errekarriak higatu samar ageri dira, baina asko hautsita daude, haien garraio azkarraren erakusgarri, zalantzarik gabe uholde itxurako ezaugarriak izango zituen isuriak ekarriak direlako eta egoera benetan errexistatikoetan.

Slm-Sj unitate estratigrafikoa

Egitura estratigrafiko honetan ia erabatekoa da frakzio finaren nagusitasuna, ia ez dago errekarririk ez eta legarrik ere. Hareazko geruza kolorez marroia da, laranja koloreko (heze dagoenean eta burdina oxidoen prezipitazioaren ondorioz) harea fineko xafla ez horizontalekin tartekatzen dena. Soilik legarrek osatzen dute frakzio handia, baina aztertutakoaren %3,48 baizik ez dira haiek.

Gsm-3 unitate estratigrafikoa

Unitate honen eta azpikoaren artekoa benetan da higaduraren emaitza (V-Slm/Sj), eta bata eta bestea osatu artean desegite aldi bat gertatu zela adierazten digu horrek. Nagusi da frakzio handia (%81,91), nagusi dira hareharri eta lutita txikiak eta ertainak (kareharriak ere ez dira gutxi), baina asko ere dira legarrak (%36,42). Frakzio fina, batez ere hareek osatua, oso urria da.

Csm-2 unitate estratigrafikoa

Unitate honek higadura azalera bat (V-Gsm3) du arestian adierazitako depositua ukitzen. Hemen nagusi dira harri koskorrak kolorez marroi argia den matrize hareatsuan. Osagai handien artean legarrak (%38,71) baino gehiago dira errekarriak (%45,64). Handia da uholde-indizea, garraioa azkarra izan denaren erakus-

erosión (¿lapiaz de arroyada?). Los cantos presentan estigmas de rodamiento, aunque muchos de ellos están rotos, lo que nos sugiere que el transporte ha sido muy enérgico, en el seno de un flujo de características claramente torrenciales y en condiciones francamente rexistásicas.

Unidad estratigráfica Slm-Sj

Estructura estratigráfica con predominio casi absoluto de la fracción fina, estando prácticamente ausentes los cantos y las gravas. Se trata de una capa de arena de tonalidad marrón clara que se alterna con finas laminaciones no horizontales de arenas más finas de color naranja (en húmedo), debido a la precipitación de óxidos de hierro. La fracción gruesa está constituida exclusivamente por gravas, aunque éstas apenas representan el 3,48% del total analizado.

Unidad estratigráfica Gsm-3

El contacto de esta unidad con la subyacente es ciertamente erosivo (V-Slm/Sj), lo que nos indica que entre la deposición de una y otra se ha producido una fase de desmantelamiento. La fracción gruesa es dominante (81,91%), predominando los cantos pequeños y medios de areniscas y lutitas (las calizas alcanzan cierta entidad), aunque las gravas también están bien representadas (36,42%). La fracción fina es muy escasa estando formada, mayoritariamente, por arenas.

Unidad estratigráfica Csm-2

Esta unidad presenta un contacto erosivo (V-Gsm3) con el depósito reseñado anteriormente. Se caracteriza por el predominio de los cantos sobre matriz arenosa de color marrón claro. Dentro de los componentes gruesos, los cantos (45,64%) están mejor representados que las gravas (38,71%). El índice de torrencialidad es eleva-

garri, harriak kolpeen ondorioz baitaude hautsita eta beste batzuek biribilduta baitauzkate ertzak.

Smgt unitate estratigrafikoa

Nagusi dira legarrak (aztertutako guztizkoaren %57,10) eta oso urri errekarriak (%5,99). Aurreko unitatean adierazitako ezaugarri litologiko eta morfometriko bertsuak ageri dituzte, eta beraz, jatorri berekoak direla esango dugu. Hareatsua da frakzio fina, harea lodiak eta ertainak nagusi. Azpiko unitatearekiko ukitze-azalera higatzailea da (V-Csm2), bihurgunetsua eta kanal formakoa.

Gsm-2 unitate estratigrafikoa

Smgt unitatearen gainean kolorez marroi argiko matrize hareatsua egokitzen da, legarrekin baina errekarririk gabe. Hala eta guztiz ere, unitate honen sabai aldean errekarri txikiak eta ertainak bereizten dira, aztertutako guztizkoaren %22,05ean (legarrak %39,52 dira eta frakzio finekoak %38,42). Legarrekin batera harea multzo gogortuak bereizi genituen, itxura guztien arabera emari lasaiko zirkulazio hipodermikoen prozesuen emaitza direnak, abandonatze fasean. Azpiko unitatearekiko ukitze-azalera higatzailea da (V-Smgt), eta horrek unitate hauek osatzeko baldintzetan garrantzizko aldaketa bat gertatu zela adierazten digu.

Csm-1 unitate estratigrafikoa

Unitate estratigrafiko lodiena da estratigrafiaren perfilean, 75-80 cm bitarte lodi da eta inklinatutako xaflak elkarren gainean egokitzen direla ikusten da argi eta garbi (ur korrontearen norabidean). Errekarriak ondo antolatuta ageri dira zolan eta uraz beheiti. Inklinatuta daude, kolorez marroia-horixka den matrize hareatsuak eta hezeak bilduta. Frakzio handia da nagusi perfil osoan, %73,14 eta %85,60 bitarte, eta are gehiago dira unitatearen oinean. Frakzio handiari dagokionez, esan dezagun txandaka ageri direla errekarri-legarrezko azpi-unitateak eta legar-errekarrizkoak. Honenbestez, oinean gehiago dira errekarriak (%65,66) baina deposituaren sabaira hurbildu ahala urrituz doaz.

Gsm-1 unitate estratigrafikoa

Argi eta garbi ukitzen du azpiko Csm-1 maila (ez dago higaduraren arrastorik). Granulometriari dagokionez, nagusi da frakzio handia, %84,86 dira oinean eta %75,02 unitateko sabaian. Errekarriak asko dira oinean (%41,39) baina gora egin ahala erabat murrizten dira, ez dira %25,19 izatera iristen. Legarrak nagusi dira eta hareak, kolorez marroiak eta hori argiak, hezeak, beste unitate batzuetan hartzen duten antzeko portzentajean ageri dira: %15,12 oinean eta %24,98 Gsm-1 unitatearen sabaian.

Estratigrafiaren dinamikaren laburpena eta kronologia

Gela Gorrian aztertutako deposituaren estratigrafiak elkarren gainean egokitutako lau sekuentzia uzten

do, lo que nos indica que el transporte ha sido impetuoso, con fragmentación de cantos por impacto, acompañado de redondeamiento de las aristas.

Unidad estratigráfica Smgt

Se observa un predominio de las gravas (57,10% del total analizado) siendo escasos los cantos (5,99%). Presentan características litológicas y morfométricas similares a las reseñadas en la unidad anterior, lo que apunta hacia un origen común. La fracción fina es claramente arenosa, predominando las arenas gruesas y medias. El contacto con la formación subyacente es erosivo (V-Csm2), de tipo sinuoso/canaliforme.

Unidad estratigráfica Gsm-2

Sobre la unidad Smgt se asienta una estructura estratigráfica de gravas sobre matriz arenosa de color marrón claro, estando ausentes los cantos. Sin embargo, hacia el techo de la serie encontramos cantos pequeños y medios representando éstos el 22,05% del total analizado (las gravas suponen el 39,52% y la fracción fina el 38,42%). Hay que reseñar que, junto con las gravas, encontramos concreciones arenosas cuya formación parece vincularse con procesos de circulación hipodérmica en régimen de flujo tranquilo y en fase de abandono. El contacto con la formación subyacente es erosivo (V-Smgt), lo que nos indica un cambio sustancial en las condiciones deposicionales.

Unidad estratigráfica Csm-1

Es la unidad estratigráfica más potente del perfil estratigráfico, con un grosor de 75-80 cm, presentando un contacto laminar inclinado (en el sentido de la corriente) muy nítido. Los cantos aparecen ordenados en lechos proando aguas abajo. Se disponen inclinados y están empastados por una matriz arenosa de color marrón-amarillenta en húmedo. La fracción gruesa es predominante en todo el perfil, oscilando entre un 73,14 y un 85,6%, alcanzando los porcentajes más elevados en la base de la unidad. Si desglosamos la fracción gruesa en cantos y gravas, advertimos una alternancia de subunidades de cantos-gravas y gravas-cantos. Así en la base predominan los cantos (65,66%), disminuyendo éstos hacia el techo del depósito.

Unidad estratigráfica Gsm-1

Presenta un contacto planar muy nítido con la infrayacente Csm-1 (ausencia de erosión). Granulométricamente, predomina la fracción gruesa con porcentajes que oscilan entre el 84,86% de la base y el 75,02% del techo de la asociación. Los cantos, muy abundantes en la base (41,39%), disminuyen precipitadamente hacia la parte alta de la acumulación, dónde no superan el 25,19%. Las gravas se hacen dominantes mientras que las arenas, de color marrón-amarillento claro en húmedo, presentan porcentajes similares a los observados en otras unidades: 15,12% en la base y 24,98% en el techo de Gsm-1.

Síntesis de la dinámica estratigráfica y cronología

La síntesis estratigráfica del depósito examinado en la Sala Roja acoge 4 secuencias deposicionales

ditu agerian, lauak legarrez eta klastoez osaturiko geruzak, neurri handieneko errekarriak zolaren gainean mugiarazteko gai den eta aldi berean material finagoak garraiatzeko eta eramateko gai den korrontearen erakusgarri. Goikoetxen berreskuratutako fauna hondakinen testuinguru sedimentologikoak jarraian azaltzen ditugun hiru multzo estratigrafiko handi bereizteko aukera ematen digute. Hona hemen hiruak, zaharrenetik hasi eta berrienarekin amaituta:

1) Oraingoz zehaztu gabeko hezur luze bat aurkitu dugu goiko mailako errekako betegarri batean (DP-4 depositua, itsas mailatik gora gutxi gorabehera 77-82 metrotara). Malloku sistemako hondakin paleontologiko zaharrena litzateke.

2) Goikoetxeko erregistro paleontologikoaren parterik handiena (DP-2, DP-3 eta DP-5 deposituak) tarteko mailako errekako betegarrietan dago (itsas mailatik gora gutxi gorabehera 49 metrotara). Hemendik jaso genuen burura eramandako datazioa egiteko lagina. Harrigarriro, betegarriaren goiko partean, Gsm-1 unitate estratigrafikoaren baitan, energia hidrikoa hain azkarra izan ez zen episodioan, azaldu zen tarteko maila honetako hezur handienetako bat (DP-3 edo Gela Gorriko errinozeroaren pelbisa).

3) Bukatzeko, oreinaren familiako animaliaren eta behiaren familiako abelburu handiaren hondakinak, leizearen hasierako atalean aurkituak (DP-1), blokeen arteko arrakala baten barruan azaldu ziren, baina deposizioaren testuinguruari dagokionez, bloke horiek erreka jatorriko betegarriekin zerikusirik ez dutela esan behar dugu. Depositu honek segur asko Goikoetxeko Korta ahoaren inguruan dagoen harpe naturalen batean izango du jatorria. Printzipioz, leizeko fauna hondakin denboran gertuenak direla esango dugu.

Gela Gorriaren gainazalean, segur asko sekuentziaren goiko ataletik etorria baita, berreskuratutako errinozero baten haginarekin eta aminoazidoen errazemizazioaren metodoaren bidez datazio bat lortu dugu. Madrilgo E.T.S.I. Minaseko Estratigrafia Biomolekularren Laborategian lortutako datazioak 211,9 (ka) emaitza eskaintzen du, eta beraz, datari halako hutstarte bat utzita ere, Erdi Pleistozenoaren azken garaietara garamatza. Behin-behinean bada ere, eta eskura dugun datazioa aintzat harturik, Gela Gorriko betegarri detritikoaren osaera 7. Aldi Isotopikoaren (244,0-196,0 ka BP) eta 6. Aldi isotopikoaren (196,0-130,0 ka BP) artean kokatuko dugu.

Goikoetxeko fauna hondakinen metaketen jatorria

Goikoetxeko fauna metaketen jatorriari eta historia tafonomikoari dagokionez, begien bistakoa da Mallokuko sistema luzatzen den 3 kilometroetan ageri diren hondakin paleontologiko guztiek, galerietan barrena barreiatu eta nahasiko ziren hondakin guztiek, ez dutela jatorria metaketa bakar batean. Eskura ditugun datuak aintzat hartuta, huts egiteko beldurrik izan gabe esan dezakegu bi metaketa paleontologiko independentetan dutela jatorria, eta segur asko baita hirugarren metaketa batean ere. Lehenengo biak DP-1 eta DP-6 depositui legozkieke, sistemaren muturretan kokatutako depositui, bietan nagusi oreinaren familiako animalien hondakinak. Haien testuinguru es-

superpuestas, identificándose todas ellas con barras longitudinales de gravas, clasto soportadas, que revelan una corriente capaz de hacer rodar los cantos de mayor tamaño por el lecho, al mismo tiempo que transporta y evacua los materiales más finos. El contexto sedimentológico de los restos faunísticos recuperados en Goikoetxe permite valorar tres grandes conjuntos estratigráficos, que exponemos a continuación, de más antiguo a más reciente:

1) Por el momento, se ha recogido un hueso largo no determinado en un relleno fluvial del nivel superior (depósito DP-4, a *c.* 77-82 metros s.n.m.), que sería el resto paleontológico más antiguo del sistema Malloku.

2) La mayor parte del registro paleontológico de Goikoetxe (depósitos DP-2, DP-3 y DP-5) se ubica dentro de los rellenos fluviales del nivel intermedio (a *c.* 49 metros s.n.m.), de donde procede la datación efectuada. Sorprendentemente, uno de los huesos de mayor porte del nivel intermedio (la pelvis de rinoceronte del DP-3 o Sala Roja) apareció estratigrafiado en la parte superior del relleno, en el seno de la unidad estratigráfica Gsm-1, dentro de un episodio de relativa moderación de la energía hídrica.

3) Por último, los restos de cérvidos y gran bóvido localizados en el tramo inicial de la cueva (DP-1) aparecen dentro de una brecha de bloques que poco tiene que ver, en cuanto al contexto de deposición, con los rellenos de génesis fluvial. Posiblemente, este depósito proceda de una primitiva cavidad natural situada de forma aproximada en el entorno la boca de Goikoetxeko Korta. En principio, se podría valorar como la asociación faunística más reciente de la cavidad.

Disponemos de una datación por el método de racemización de aminoácidos, practicada sobre un molar de rinoceronte recuperado en la Sala Roja, en posición superficial, posiblemente procedente del tramo superior de la secuencia. La datación, realizada en el Laboratorio de Estratigrafía Biomolecular de la E.T.S.I. de Minas de Madrid, aporta un resultado de 211,9 (ka), lo cual, y aún asumiendo el posible margen de error de la fecha, nos sitúa en la parte final del Pleistoceno Medio. De forma provisional, y en función de la datación disponible, proponemos la formación del relleno detrítico de la Sala Roja entre el Estadio Isotópico 7 (244,0-196,0 ka BP) y el Estadio Isotópico 6 (196,0-130,0 ka BP).

El origen de las acumulaciones faunísticas de Goikoetxe

En cuanto al origen de las acumulaciones faunísticas de Goikoetxe y su historia tafonómica, está claro que todos los restos paleontológicos que aparecen a lo largo de los 3 kilómetros de desarrollo del sistema Malloku no proceden de una única acumulación original, que pudiera haber sido removilizada y dispersada a lo largo de sus galerías. Con los datos disponibles, se pueden determinar con seguridad dos acumulaciones paleontológicas independientes, y muy posiblemente una tercera. Las dos primeras corresponderían a los depósitos DP-1 y DP-6, situados en los extremos del sistema y con predominio de cérvidos en ambos casos, cuyos contextos estra-

tratigrafikoek berretsi egiten dute euren jatorri independentea. Eta hirugarren depositua osatzen dute, agian jatorri autonomoko depositua, DP-2ko zuloan metatutako burezurrek. Hauek higatu gabe daude, ez dirudi ur korronteak ekarriak direla, hori bai, ezagun da luzaroan urpean egon direla.

Nola Mallokuko sistemaren osaerak eta bilakaera paleoklimatikoak hala bertako erregistro paleontologikoaren jatorriak eta historia tafonomikoak agerian uzten dute dinamika oso konplexu bat. Antzinatasun handiko karstalde bat, bilakaera geomorfologiko konplexua bizi izandakoa, hautematen hasiak gara, eta bertan fauna hondakinen metaketa ezberdinak eta independenteak daude, baina haien tafozenosian zuzeneko eragina izango zuten berezko tranpek, haragijaleek sorraraziriko deposituek eta baita, kasuren batean, leizera sartu eta bertan hil ziren animaliek ere.

tigráficos certifican su origen independiente. Y un tercer depósito, acaso de origen autónomo, serían los cráneos retenidos en la oquedad del DP-2, carentes de estigmas de rodamiento o transporte fluvial y que manifiestan una situación de prolongado encharcamiento o inundación.

Tanto la formación y evolución paleoclimática del sistema Malloku, como el origen e historia tafonómica de su registro paleontológico, revelan una dinámica de una enorme complejidad. Comenzamos a entrever un sistema kárstico de gran antigüedad y complicada evolución geomorfológica, con diferentes e independientes acumulaciones faunísticas, en cuyas tafocenosis han podido intervenir desde trampas naturales, depósitos originados por carnívoros o, incluso en algún caso, animales que se internaron y murieron en el interior de la cueva.

J.C. López Quintana; A. Guenaga; J.C. Zallo; J.M. Edeso; G. Aranzabal; P. Castaños; J. Castaños; Z. San Pedro; X. Murelaga; T. Torres; J.E. Ortiz; P.J. Uribarri; I. Basterretxea; A. García; R. Gutiérrez

B.8. **DIMA**

B.8.1. **Baltzola leizea**

IV. kanpaina
Zuzendaritza: Lydia Zapata
Finantziazioa: Bizkaiko Foru Aldundia; EHU

B.8.1. **Cueva de Balzola**

IV Campaña
Dirección: Lydia Zapata
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia; UPV

During 2011 we continued the archaeological excavation in the cave of Baltzola (Dima, Bizkaia). During this season, we excavated several stratigraphic units, which reveal a sequence that includes a possible Mousterian context (Middle Palaeolithic). All are rich contexts in terms of lithic and faunal assemblages.

Baltzolako aztarnategiaren interes arkeologikoa eta kontserbazio egoera neurtzeko xedean, 2006. eta 2007. urteetan zundaketa mekanikoak eta arkeologikoak eraman genituen burura bertan. Zundaketa hauek aukera eman ziguten interes arkeologikoko bi alde nagusi identifikatzeko: bata leizeko ezkaratz nagusian, non zeramikak gordetzen dituzten bederatzi unitate estratigrafikok osaturiko sekuentzia bereizten den; eta bestea «El Redil» (Artegia) izenaz ezagutzen den aldean, non Erdi Paleolitoko eta Goi Paleolitoko testuinguruak bereizi genituen, artegi gisa erabili zutela agerian uzten duten gainazaleko maila batzuez, zeramika batzuez eta nahasitako gune batzuez gainera.

2008an abian jarri genuen urtero jardunda lau urte iraungo zuen indusketa proiektua, lan metodologia eta azterketa berriak aplikatuta penintsularen iparraldeko Goi Paleolitoa aztertzeko garaian aniztasun eta potentzialtasun handiko erregistro materiala eta paleoanbientala zehazteko xedean. Lehenengo indusketa kanpaina hura Goi Madalen Kulturaren azken garaiko - Azil Kulturako sekuentziara mugatu zen, ^{14}C AMS bi-

Durante los años 2006 y 2007 realizamos en la cueva de Baltzola sondeos mecánicos y arqueológicos con el objetivo general de valorar el interés arqueológico y el estado de conservación del yacimiento. Estos sondeos nos permitieron definir dos zonas principales de interés arqueológico: una, situada en el vestíbulo principal de la cavidad, que presenta una secuencia de nueve unidades estratigráficas con cerámicas, y otra, en la zona superior de la cueva conocida como «El Redil» en la que hemos diferenciado diversos contextos correspondientes al Paleolítico Medio y Superior, además de algunos niveles superficiales con evidencias de uso como redil, presencia de cerámica y zonas alteradas.

En 2008 inauguramos el proyecto de excavación plurianual a cuatro años vista con el objetivo de definir, a partir de la aplicación de metodologías y análisis de trabajo novedosos, un registro material y paleoambiental de gran variabilidad y potencial para el estudio del Paleolítico superior en el norte peninsular. Esa primera campaña de excavación se centró en la secuencia Magdaleniense Superior Final - Aziliense definida

2011n Baltzolan induskatutako eremuaren ikuspegi orokorra, unitate estratigrafiko nagusiak adierazita.

Vista general del área excavada en Baltzola en 2011 con las principales unidades estratigráficas.

dez datatuta 12440± 60 BP (7. Unitate Estratigrafikoa) eta10270 ± 60 BP (9. Unitate Estratigrafikoa) bitartean kokatutako sekuentziara.

2009. urteko indusketa kanpainak segida eman zion 2008koan hasitako lanari, eta 6. unitate estratigrafikora mugatu zen, kronologiaz Goi Madalen Kulturaren azken garaikoa/Aziliarra, interes arkeozoologiko eta tafonomiko handikoa, ugari baitira animalia ornodun handien hondakinak. Agerikoa da giza taldeek biziki aprobetxatu zituztela abere hauek.

2010. urteko kanpainan amaitu genuen 6. eta 7. unitate estratigrafikoak induskatzen (12.440 ± 60 BP). Testuinguru biak aberatsak dira harrizko materialetan eta fauna hondakinetan. Z57 laukia induskatuta Holozeno eta Pleistozeno aroetako mailen sekuentzia interesgarria identifikatu genuen, Goi Paleolitoan/Azil aldian kokatu beharreko mailak barne, baita ukuiluaren erabileratik ondoz ondo etorritako testuinguruak ere.

2011ko kanpainan aztarnategiaren goiko aldean jarraitu dugu lanean. AF55 eta AG55 laukien inguruan gutxi gorabehera 1,5 m² x 1 m-ko azalera induskatu dugu, eta gainazaletik kontatzen hasita gehienez ere 1,80 metroko sakonera maila iritsi dugu. Kanpaina honek aztarnategiko estratigrafiaren sekuentzia maila beherenetan zehazten jarraitzea zuen helburu, eta beheko maila horietan aspaldiko testuinguru batzuk identifikatu ahal izan ditugula esan behar dugu.

Labur-labur deskribatuko ditugu 2011. urteko kanpainan induskatutako unitate nagusiak. Goi Madalen aldiaren azken garaiko kronologia (12.160 ± 60) duen 8. unitate estratigrafikorik abiatuko gara. Garrantzi txikiagoko 8B unitate estratigrafikoa 8 unitate estratigrafikoa ebakitzen duen zuloa da. Pikor ertaineko sedimentu hareatsua da, trinkotasun apalekoa, kolorez marroi nabarra, kareharrizko klasto txiki eta ertain askorekin eta hezurrezko eta harrizko hondakin handi askorekin. Azpian dago 10. unitatea, pikor oso fineko sedimentu hareatsua, trinkotasun maila oso baxuarekin, lehorra, kolorez okre horia. Harrizko eta hezu-

culturalmente a partir de dataciones de ^{14}C AMS que se sitúan entre 12440± 60 BP (Unidad estratigráfica 7) y el 10270 ± 60 BP (Unidad estratigráfica 9).

La campaña de excavación de 2009 supuso una continuación del trabajo iniciado en 2008 y se centró en la unidad estratigráfica 6 de cronología Magdaleniense Superior Final/ Aziliense, de gran interés arqueozoológico y tafonómico por la alta concentración de restos de animales macrovertebrados con evidencias de un intenso aprovechamiento de la fauna por parte de los grupos humanos.

Durante 2010 se finalizó la excavación de las unidades estratigráficas 6 y 7 (12.440 ± 60 BP). Ambos contextos son ricos en materiales líticos y faunísticos. La excavación de un nuevo cuadro, Z57, reveló una interesante secuencia de niveles holocenos y pleistocenos que incluyen niveles adscritos al Paleolítico Superior/ Aziliense y sucesivos contextos de estabulación.

La campaña de 2011 ha continuado en la zona superior del yacimiento. Entorno a los cuadros AF55 y AG55 se ha excavado una superficie de unos 1,5 m² x 1 m con una profundidad máxima de 1,80 m desde la superficie. El objetivo principal de esta campaña ha sido continuar definiendo la secuencia estratigráfica del yacimiento en los niveles inferiores donde hemos podido reconocer diversos contextos antiguos.

Describiremos brevemente las principales unidades excavadas en 2011. El trabajo se ha retomado en la unidad estratigráfica 8 de cronología Magdaleniense superior final (12.160 ± 60). La unidad estratigráfica 8B, de menor entidad, corresponde a una fosa que corta la unidad estratigráfica 8. Se trata de un sedimento arenoso de grano medio y escasa compactación, color marrón parduzco con abundantes clastos calizos de pequeño-mediano tamaño y numerosos macrorrestos óseos y líticos. Infrapuesto encontramos la unidad 10, con sedimento arenoso de grano muy fino, de muy baja compactación y seco, de color

rrezko materialak gutxi dira, eta kareharrizko klastoak urri. 11. eta 12. unitate estratigrafikoak induskatuta balizko Moustier aldia geratu zen agerian. Aipatu kronologia iradokitzen duten hondakin handiak, lutitan eta sukarrian landuak, topatu genituen, eta Axlorreko aztarnategia gertu dagoela kontuan izanik, guk uste dugu kontu hori oso aintzakotzat hartzekoa dela etorkizunean burura eraman daitezkeen ikerketa lanetan. Maila hauen azpian, 22. unitatea suak kaltetua dago, berreskuratutako material guztia kiskalita dago, eta sedimentu hareatsuak kolore gorria du. Hareharrizko legar eta errekarri heterometrikoek osatutako metaketa da 23. unitate estratigrafikoa, harriok matrize hareatsuak eta limotsuak bildurik. Urri dira lutitan landutako harrizko hondakinak, eta hezurrik ez dago. Bukatzeko, esan dezagun arkeologiaren ikuspuntutik antzua dela 24. unitate estratigrafikoa, harea oso fin eta kolorez horiek osatua, kuartzo askorekin eta xafla kolorez grisaxkekin, trinkotasun oso baxuarekin. Material guztia aztertzen ari gara une honetan, eta datazio erradiometriko batzuen zain gaude. Jasotako laginen sekuentzia zehatzeko orduan A. Polo doktoreak (EHU) eraman ditu burura azterketa mikromorfologikoak, Mª J. Iriarte doktoreak (EHU) azterketa palinologikoak, D. Zurro doktoreak (CSIC) fitolitoen azterketa eta L. Zapata doktoreak (EHU) azterketa karpologikoak eta antrakologikoak.

Indusketa kanpaina amaitutakoan, induskatutako eremua guztiz estali genuen ehunezko sare batekin eta poliespan, harri eta gainazaleko sedimentuez betetako zakuekin. Honenbestez, esku-hartze arkeologikoari ekin baino lehen zegoen bezalatsu utzi genuen leizearen gainazala.

ocre amarillento. Cuenta con escaso material lítico y óseo y poca abundancia de clastos calizos. La excavación de las unidades estratigráficas 11 y 12 evidenció la presencia de un posible Musteriense. Se han hallado restos líticos en lutita de gran tamaño y en sílex que permiten sugerir esta cronología algo que dada la proximidad del yacimiento de Axlor, resulta de doble interés para la investigación futura. Bajo estos niveles, la unidad 22 se encuentra afectada por el fuego, todo el material recuperado está calcinado y el sedimento arenoso presenta una coloración rojiza. La U.E. 23 está formada por la acumulación de gravas y de cantos rodados heterométricos de arenisca englobados en una matriz arenosa-limosa. Los hallazgos líticos -lutita- son muy escasos y el material óseo inexistente. Por último, la unidad estratigráfica 24, arqueológicamente estéril, se corresponde con una brecha de arenas amarillas muy finas con abundante mucho cuarzo y laminaciones grisáceas, de muy baja compactación. Todos los materiales están en proceso de análisis y estamos a la espera de nuevas dataciones radiométricas. La secuencia estratigráfica ha sido muestreada por la Dra. A. Polo (UPV) para el análisis micromorfológico, por la Dra. Mª J. Iriarte (UPV) para el análisis palinológico, por la Dra. D. Zurro (CSIC) para el estudio de fitolitos y por Dra. L. Zapata (UPV para los análisis carpológico y antracológico.

Una vez terminada la campaña de excavación, la zona se ha cubierto en su totalidad con geotextil, sacos de poliespán, piedra y sedimento superficial. El resultado final es una superficie similar a la que existía antes de la realización de la actividad arqueológica.

E. Regalado, Z. San Pedro, L. Zapata, I. Gallaga, M. García, A. Pérez

B.9. **DURANGO**

B.9.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

B.9.1.1. **Artekale, 39**

Zuzendaritza: Belén Bengoetxea
Rementeria
Finantziazioa: Ars-Urumea

B.9.1.1. **Artekale, 39**

Dirección: Belén Bengoetxea
Rementeria
Financiación: Ars-Urumea

During the course of the area excavation of the site, a broad sequence of occupation was documented, originating at the beginning of the Middle Ages and terminating with the last construction built on this site at the end of the 19th century, which later underwent extensive renovations at the beginning of the 20th century. Particularly worth highlighting is the discovery of fish bones and scales in the older phases, which suggest that the excavated area was used for some kind of activity linked to the processing and conservation of fish.

Indusketa bat egin genuen aztergai dugun orubean, luze-zabalean, arteko hormek banatutako orubeek berezko dituzten baldintzapean, kasu honetan zutik kontserbatzen baitziren berriki eraitsitako eraikinari eus-

En el solar objeto de estudio se ha realizado una excavación en área, aunque con los condicionantes propios de los solares entre medianerías, ya que en este caso quedaron en pie algunos de los pies derechos de

ten zioten zurezko zutiko batzuk. Nolanahi ere, ez ditugu gune isolatu batzuk ireki, eta beraz, ez dira horregatik harreman estratigrafikoak galdu. Erdi Aroan hasi eta espazio honetan XIX. mende amaieran eraiki eta XX. mende hasieran berritu zuten azken eraikinarekin amaitzen den okupazio sekuentzia zabala dokumentatu dugu. Jarraian labur-labur aztertuko ditugu dokumentatutako aldi bakoitzaren ezaugarriak.

1. aldia. Erdi Aroko okupazioa

Geruza naturalaren gainean gertatu zen aurreneko okupazioa. Durangoko orube gehienetan hautematen den berezko harri mota ez bezala, funtsean buztin oso plastikoez osatua, kasu honetan urari bide egiten zion aspaldiko ibilgua izan zuten okupazio gune, errekarrien presentzia handia zuen ibilgua.

Lehenengo okupazio aldi honetako mailak eta egiturak nahikoa nahasita daudela esan behar dugu, baina halere artisautza izaerako jardueraren batekin lotutako egitura batzuk aurkitu ahal izan ditugula. Oraindik zehaztu gabe ditugu egiturak, baina ezkataren bat eta arrain hezurrak aurkitu genituela kontuan badugu oso litekeena da arrainak tratatzeko edo kontserbatzeko jardueraren batekin zuzeneko harremana edukitzea.

Aldi honetako egituren artean aipagarria da 61. UE, orubearen iparraldean. 1,10 cm sakon den putzu txiki bat da, eta haren oina aldiro-aldiro betetzen zen urez. Barruko aldetik elkarri lotutako errekarriz egindako lau hormekin sendotuta zegoen. Sendotzeko piezak elkarren gainean egokituta zeuden, lehorrean, baina ertzetako piezak argi eta garbi ageri ziren oreren batez batuta. Oinplanoan 42 x 50 cm ditu. Agerikoa da ura edukitzeko eta bideratzeko balio izan zuela.

Lerro batzuk gorago hizpide genuen artisautza jardueraren beste aztarna da geruza naturalean induskatutako urmael handia. Zutik kontserbatzen diren paldo batzuk daudenez (sarrerako paldoetako lehenaren azpian zehazki), ezin izan genuen erabat induskatu, baina halako fidagarritasun batez aurreratu ditzakegu haren formak eta neurriak zein ziren. Zulo formaz luzanga da, lau angeluduna, 4 metro luze eta gehienez ere 1,5 m zabal, ardatz nagusia ekialdetik mendebaldera. Urmaelaren erpinetako bat biribilduta dago. Zulo handi honen oinean buztin oso trinkoko geruza lodia, kolore griseko zain ohikoarekin, egokitu zuten. Oin osoan kontserbatu ez den arren, harri xabalez eratutako hondoa izango zuen egiturak, haren hondakinak kontserbatu baitira urmaelaren mendebaldean, soilik alde honetan. Zulo honetako betegarrian kolore gris eta berdeko geruza (78. UE) identifikatu genuen, Erdi Aroko lehenengo aldi honetan okupatutako orubeko beste gune batzuetan ere ageri dena, eta hartan arrain hezur batzuk aurkitu genituen.

Erdi Aroan eta zoru naturalean induskatutako beste egitura bat da jatorrian zirkularra izango zen zuloa. Indusketa lanetan partzialki hautsita aurkitu genuen, iparraldeko arteko horma eraiki zutenean hormak Erdi

madera que sustentaban el edificio recientemente demolido. En cualquier caso, hemos conseguido no abrir zonas aisladas, de manera que las relaciones estratigráficas no se han perdido por esa causa. Se ha documentado una amplia secuencia de ocupación, que comienza en la Edad Media y termina con el último edificio que se levantó en este espacio, a finales del siglo XIX, que a su vez sufrió una fuerte reforma a principios del siglo XX. Analicemos brevemente las características de cada una de las fases documentadas.

Fase 1. La ocupación medieval

La primera ocupación se produjo sobre el estrato natural, que a diferencia del tipo de roca natural que se ha venido detectando en la mayoría de los solares de Durango, compuesto fundamentalmente de arcillas muy plásticas, en esta ocasión se trata de un antiguo cauce por el que discurrió el agua, con una alta presencia de cantos rodados.

Hay que señalar que los niveles y estructuras de este primer momento de ocupación se encuentran bastante alterados, pero aún así se han podido localizar algunas estructuras vinculadas con alguna actividad artesanal que aún nos queda por definir, pero que atendiendo a los hallazgos de espinas de pez e incluso alguna escama, sería lógico relacionar con alguna actividad vinculada con la conservación o el tratamiento del pescado.

Entre las estructuras detectadas para este momento destaca la U.E. 61, localizada en la parte norte del solar. Es un pequeño pozo de una profundidad de 1,10 cm., cuya base se inundaba periódicamente. Estaba reforzado en su interior mediante cuatro muros realizados con cantos de río, entrelazados entre sí. Las piezas de refuerzo estaban superpuestas a hueso y las esquinas sí aparecen claramente trabadas. Las dimensiones en planta son de 42 x 50 cm. Parece evidente que sirvió para contener y canalizar agua.

Otro resto de la actividad artesanal de la que hablábamos líneas más arriba es la presencia de una gran piscina excavada en el sustrato natural, que no se ha podido excavar en su totalidad, debido a la presencia de los postes que se han conservado en pie (se localiza concretamente bajo el primero de los postes de la entrada), pero que podemos reconstruir en formas y dimensiones con bastante fiabilidad. Se trata de una fosa alargada, cuadrangular, de 4 m de longitud y 1,5 m de anchura máxima, con el eje mayor de este a oeste. Uno de los vértices de la piscina o pileta aparece redondeado. En la base de esta gran fosa se colocó una capa considerable de arcillas muy compactas, con un veteado gris muy característico. Aunque no se ha conservado en todo el fondo, la estructura debió contar con una base realizada de lajas de piedra, cuyos restos se conservan únicamente en la zona oeste de la pileta. En el relleno de esta fosa se localizó un estrato de color gris verdoso (U.E. 78), presente también en otras áreas del solar ocupadas en esta primera fase medieval, en el que se recuperaron algunas espinas de pez.

Otra estructura medieval excavada en el terreno natural, es una fosa que debió ser circular, aunque en el transcurso de la excavación la hemos localizado rota parcialmente, ya que el medianil norte, cuando se

Aroko zuloa hautsi baitzuen. Iparraldeko arteko hormaren erdialdean dago. Paretak irregularrak ditu eta elkarrengandik urrunduz doazen norabideetan egokituta dagoela ematen du. Hondoa biribila da, eta oinean bada iturburu bat. Hona hemen kontserbatutakoaren neurriak: 1,10 m iparraldetik hegoalderanzko ardatzean eta 0,90 m ekialdetik mendebalderanzko ardatzean. 0,95 m sakon da.

Gibelaldean, berriz, hegoaldeko arteko hormaren ondoan ageri dira Erdi Aroko aztarnak. Kasuren batean aski nahasita dauden geruzak eta mailak diren arren, zalantzarik gabe Behe Erdi Aroan kokatu beharreko zeramikazko materialak berreskuratu genituen, zeramikak ekoizteko moduari eta formei erreparatuz gero aipatu arokoak baitira. 74. UE eta 64. UE dira Erdi Aroko maila agerikoenak. Azken hori arestian deskribatu dugun 78. UEaren oso antzekoa da, urmaelaren formako zuloko betegarriaren partea osatu baitzuen. Kasu honetan ere kolorez grisa eta berdea da, eta honetan ere ezkataren bat eta arrain hezurrak aurkitu genituen. Laginak jaso genituen balizko azterketa arkeometriko batez kronologia absolutua eta geruza hauei emandako erabilera mota hobe zehaztu ahal izateko xedean. Orubearen hego-ekialdeko muturreko Erdi Aroko unitate estratigrafiko hauek ertzaren azpitik luzatzen dira ondoko Artekale 41. zenbakiko oruberantz, eta datu hori garrantzitsua da. Izan ere, Behe Erdi Aroko mailen gainean dago, estratigrafikoki, arteko horma. Puntu honetatik oso gertu ikatzez osatutako maila bat erregistratu genuen, une jakin batean kiskalitako zurezko egitura baten piezetatik etorria. Aldi honetan kokatu behar dugu baita maila hau ere.

Erdi Aroko lehenengo okupazio aldi honi amaiera emateko esan dezagun, hasteko, garai hartako eraikuntzarako orubeak eta egungoak zerikusirik batere ez dutela, ez eta aro modernokoarekin ere, lerro batzuk gorago azaldu bezala Artekale 41eko orubearekiko arteko hormaren azpitik luzatzen baitira Erdi Aroko geruzak. Iparraldean erregistratutako zuloak ere geroagoko zimentarriek ebakita daude. Bestalde, egindako aurkikuntzen argitara, esan dezagun orube honetan uraren erabilerarekin eta arrainaren tratamenduarekin eta kontserbazioarekin lotutako artisautza jardueraren bat garatuko zutela, nahiz eta hori berresteko datu analitikorik ez dugun.

2. aldia. Lehenengo Aro Modernoa

Aztergai dugun orubea une honetan lursail bitan banatu izana da aurreko aldiarekiko aldaketa nagusia. Horretarako horma bat altxa zuten ekialdetik mendebaldera, gerora eraitsi berri den XIX. mendeko zurezko eraikinaren egiturari eutsiko zioten paldoen oinarriarena egingo zuena. Nolanahi ere, zeharkako horma horri leku egiteko erretena eta zimentarriaren aurreneko errenkada dira Aro Modernoaren hasieran (XVI. mendean) eraiki zituzten atalak. Gerora berriro ere eraiki zuten dokumentatu dugun horma osatu arte.

Lehenengo Aro Moderno honetan estali egin zuten Erdi Aroan irekitako zulo zirkularra (76. UE), baina putzu txikia eta bainuontziaren formako zuloa erabiltzen jarraitu zuten.

construyó, vino a romper dicha fosa medieval. Se localiza en la zona central del muro medianil norte. Presenta paredes irregulares y de dirección divergente. El fondo es redondeado, y en la base hay una surgencia de agua. Las dimensiones de lo que se ha conservado son las siguientes: 1,10 m en el eje norte-sur, y 0,90 m en el eje este-oeste. La profundidad es de 0,95 m.

En la zona zaguera los hallazgos medievales se localizan en la zona pegante al medianil sur, y en este caso, se trata de estratos y niveles bastante alterados en algún caso, pero se han recuperado materiales cerámicos adscribibles inequívocamente a un momento bajomedieval, atendiendo al tipo de producción de la cerámica y a las formas. Los niveles medievales más claros son la U.E. 74 y la U.E. 64. Esta última es muy similar a la U.E. 78 que hemos descrito anteriormente, que fue parte del relleno de la fosa en forma de bañera. También en esta ocasión presenta una coloración gris verdosa y se repiten los hallazgos de espinas de pez y alguna escama. Hemos recogido muestras para un posible análisis arqueométrico que ayude a definir mejor la cronología absoluta y también el tipo de actividad al que pueden estar vinculados estos estratos. Un dato importante es que esas unidades estratigráficas medievales localizadas en el extremo sureste del solar se meten por el cantil hacia la finca colindante, Artekalea 41. En realidad, el muro medianil está estratigráficamente encima de estos niveles de época bajomedieval. Muy cercano a ese punto se localizó también un nivel de carbones, concretamente de piezas de una estructura de madera quemada en determinado momento, que también pertenece a esta etapa.

Como conclusión de esta primera ocupación medieval podríamos decir en primer lugar, que la parcela constructiva de aquel momento no tuvo nada que ver con la actual, y ni siquiera con las de la etapa moderna, puesto que como decíamos líneas más arriba, los estratos medievales pasan por debajo del medianil, hacia Artekale 41. También las fosas localizadas en la zona norte están cortadas por las cimentaciones posteriores. Por otra parte, a la luz de los hallazgos, y sin datos analíticos para confirmarlo, se puede decir que en el solar tuvo lugar algún tipo de actividad artesanal asociado al empleo del agua y al tratamiento y conservación del pescado.

Fase 2. La primera Edad Moderna

En este momento el cambio más evidente respecto a la fase anterior es la división del solar que nos ocupa en dos parcelas mediante el trazado de un muro de dirección este-oeste, que posteriormente ha servido de base para la colocación de los postes que sujetaban la estructura de madera del edificio el siglo XIX recientemente demolido. En cualquier caso, lo que se construye a principios de la Edad Moderna (podríamos ceñirlo al siglo XVI) es la fosa y la primera hilada de cimentación de ese muro transversal, que posteriormente se reconstruirá hasta dar lugar al muro que hemos tenido ocasión de documentar.

En esta primera Edad Moderna se procede a anular la fosa circular abierta en época medieval (U.E. 76), mientras que el pequeño pozo y la fosa en forma de bañera siguen en uso.

Indusketaren ikuspegi orokorra, Artekale eta Goienkale arteko karkabatik begiratuta.

Vista general de la excavación tomada desde la cárcava entre Artekale y Goienkale.

3. aldia. XVII. mendea

XVII. mendean zehar aldaketa garrantzitsuak gertatu ziren aztergai dugun orube honetan. Espazioak ondo mugatzen dira. Une honetan eraiki zuten iparraldeko lursailaren gibelaldeko horma (32. UE), ondo egina, baita zutik kontserbatutako paldoei (9., 193. eta 104. UEak) eusten zien horma luzea ere, nahiz eta banaketa aurreko aldian egina izan zen. Era berean, Erdi Aroko putzua eta urmaela amortizatu zituzten.

31. UEko hormaren bidea da espazioen banaketaren beste berrikuntza bat. Partzialki hautsita dago, iparraldetik hegoaldera luzatzen da, eta etxearen aurreko espazioa banatzen du. Guk uste dugu iparraldeko lursaileko ezkaratza mugatuko zuela. Une honetan hemen zegoen etxeak hareharrizko harri xabalezko lauzez osatutako zoladura izango zuen, eta piezak ederrak zirela esan behar dugu: 45x60x8 cm.; 55x65x10 cm.; 50x43x9 cm. Aurpegiak lauak dira, batez ere agerikoak, ifrentzuko aurpegiei ertzak baizik ez baitzizkieten kendu. Ertzak zuzenak dira, baten bat lantzerka landua badu ere. 1,48 m (E-M) bider 1,20 m-ko (I-H) azalera erregistratu genuen. Altuera, 7 eta 12 cm bitartekoa. Harrien artean ez dago kareorerik, lur harro eta kolorez marroia baino ez. Iparraldeko arteko hormaren eraikuntzak nahasi zuen harri xabalez osatutako zorua.

4. aldia. Aro garaikidea. XIX. eta XX. mendeak

XIX. mendean eraiki zuten orube honetan eraitsi berri duten eraikina. Induskatutako orube osoan hautematen dira obra handi honek utzitako arrastoak. Ordura arte bi orube izan baziren ere, une honetan batu eta orube bakar bihurtu zen. Ondorioz suntsitu egin zituzten aurreko mailak: aurreko etxeko harri xabalezko zorua suntsitu zuten, eta ezkaratzaren espazioa mugatzen zuen 31. UEko horma amortizatu zuten egungo Artekale kaleko fatxaden lerroraino iristeko xedean.

Fase 3. Siglo XVII

Durante el siglo XVII se producen cambios importantes en el solar estudiado. En general, los espacios se delimitan con claridad. Así, el muro zaguero de la parcela norte (U.E. 32), levantado con bastante buena factura, se traza en este momento, y lo mismo ocurre con el muro longitudinal que sustenta los postes que quedaron en pie (U.E. 9, 103, 104), a pesar de que la división ya se había producido en la fase anterior. Asimismo, se procede a la anulación de la fosa del pozo medieval y la piscina mediante su rellenado.

Otra novedad en la distribución de los espacios es el trazado del muro U.E. 31, que aparece parcialmente roto, con una dirección norte-sur, dividiendo el espacio delantero de la casa. No sería descabellado pensar que delimitaba un espacio delantero de zaguán en esa parcela constructiva norte. La casa que se levantaba aquí en este momento tuvo un pavimento de losas planas de arenisca de tamaños considerables: 45x60x8 cm.; 55x65x10 cm.; 50x43x9 cm. Sus caras son planas, sobre todo la superficial, mientras que la inferior está toscamente desbastada. Los bordes son rectos, aunque aparece alguna biselada. Se ha detectado una superficie de 1,48 m (E-O) por 1,20 m (N-S). La altura varía entre 7 a 12 cm. Entre las piedras no hay mortero; tan sólo una tierra marrón suelta. El suelo de lajas se vio alterado al realizar el muro medianil norte.

Fase 4. La etapa contemporánea. Siglos XIX y XX

En el siglo XIX se procedió a levantar el edificio que se erigía en el solar y que ha sido recientemente demolido. Las señales de la gran obra que supuso, se observan en todo el solar excavado. Quisiera destacar que si hasta este momento hubo dos parcelas edificatorias, en este momento pasan a unificarse, y el solar es ocupado por uno único. Esto supuso la destrucción de los niveles anteriores: el suelo de lajas de la casa anterior y la anulación del muro U.E. 31 que delimitaba el espacio del zaguán, para llegar a lo que es la línea de fachada actual de la calle Artekale.

Hainbat mende lehenago eraikitako zeharkako horman bermatzen ziren harroinetan oinarritutako zurezko paldoek eutsitako egitura zuen etxeak. Hegoaldeko arteko hormaren gibelaldea harri xabalekin zolatu zuten, eta bertan egokitu zuten sukaldea. Bestalde, iparraldeko arteko hormaren azterketak adierazten digu etxe hau eraikitzean libre zegoela, eraikinik gabe, ondoko lursaila (egungo Artekale kaleko 37. zenbakikoa), leihoak ireki baitzituzten alde horretara. Leiho horiek itsutu egin zituzten gerora, XX. mendean, etxearen hormak goratu egin baitzituzten eta habe eta paldoen sistema guztiz berritu baitzuten. Aspaldiko horma zuloen arrastoak nabari dira iparraldeko horman. XX. mendean ere, berritu egin zituzten behe oineko lokalak, eta haietako batek zurgindegi bati egin zion leku. Berritze lan hauetan hormigoia bezalako materiala erabili zuten. Gibelaldean jarraituko zuen etxeko sukaldean baldosazko zoladura bat egokitu zuten aurreko aldian eraikitako harri xabalezko zoruaren gainean.

Horrekin guztiarekin, orubea induskatuta, hainbat eraikuntza aldiren arrastoak hauteman ditugula esan behar dugu. Eraikuntza aldi hauek ez dira erabat ikusgarriak, partzialki suntsituta daudelako, baina nahikoa informazioa eskaintzen dute orubeko eraikuntzaren historia osatzeko.

El edificio cuenta con una estructura de postes de madera apoyados en basas de piedra que a su vez se apoyaban en el muro transversal trazado siglos antes. La zona zaguera de la crujía sur se reserva para su utilización como cocina, que además se pavimenta con lajas de piedra. Por otra parte, el análisis del muro medianil norte indica también que en ese momento de la construcción de la casa la parcela contigua al norte (la actual Artekale 37) se encontraba libre, ya que se abren ventanas hacia ese lado. Esas ventanas se anularán en un momento posterior, ya en el siglo XX, cuando se produce una reestructuración de las alturas de los forjados de la casa, y su elevación en altura, lo cual trajo consigo la transformación profunda del sistema de vigas y postes. Quedan restos de los antiguos mechinales en la pared norte. Asimismo, en el siglo XX se procedió a reacondicionar los locales de la planta baja, en un caso, para su uso como taller de carpintería. Para ello se utilizó ya material como el hormigón. En la zona de la cocina de la casa, que siguió ubicada en la zaguera, se colocó un nuevo pavimento de baldosas sobre el antiguo, que era de lajas, y que fue realizado en la fase anterior.

Con todo ello, tras la excavación del solar se puede señalar que se han detectado restos de diferentes fases constructivas, que no son en absoluto espectaculares, sino que aparecen parcialmente destruidos, pero que aportan información suficiente para rehacer la historia constructiva del solar.

B. Bengoetxea Rementeria

B.9.1.2. **Barrenkale, 18**

Zuzendaritza: Román Rodríguez Calleja
Finantziazioa: Cristina Peñalba Ubarrechena

B.9.1.2. **Barrenkale, 18**

Dirección: Román Rodríguez Calleja
Financiación: Cristina Peñalba Ubarrechena

Building work carried out in the northern third of the ground floor of the property standing at 18 Barrenkale Street enabled a new archaeological assessment in the historic quarter of the town of Durango. Since the building's walls were not affected, the excavation was necessarily limited, and the results and documentation of the evidence were, in many cases, partial. Nevertheless, new evidence was uncovered of oval and circular cuts in the geological substratum, thus adding to a long series of similar cuts detected during archaeological excavations carried out in different towns in the area. 18 Barrenkale Street was unable to offer any clues regarding their correct interpretation and dating, although our estimates suggest the Late Medieval period. The medieval wall was also documented, thus enabling us to propose certain hypotheses regarding possible layouts of the town's historic quarter.

Barrenkale kalearen iparraldeko atalaren mendebaldea historikoki zehazteko modua eskaini duen etxadi formaz luzangaren baitan dago Barrenkale kaleko 18. zenbakiko orubea.

Tradizioz orube gotiko edo zaku-hondoaren formako orube deituaren ezaugarriak ditu, neurrien aldetik, 19. zenbakiko higiezinari leku egiten dion orubeak: hiriko lursail oinplanoan angeluzuzena da, aurreko eta gibelaldeko fatxadak laburrak baina ardatz nagusia luzea.

Orubeko behe oinaren iparraldeko herenean eraman genuen burura esku-hartze arkeologikoa. Alde hau ez da erregularra, 18,50 m luze da, baina aurreko ataletik gibelalderantz egin ahala estutu

El solar número 18 de Barrenkale se sitúa dentro de la alargada manzana de casas que ha permitido fijar históricamente el trazado occidental del tramo septentrional de Barrenkale.

El inmueble del número 18 se levanta sobre un solar con unas características dimensionales que se han venido asociando tradicionalmente con los denominados solares góticos o de fondo de saco: parcelas urbanas rectangulares en planta, de corto desarrollo en las fachadas delantera y zaguera, y amplia proyección del eje longitudinal.

La actuación arqueológica se ha realizado en el tercio norte de la planta baja del solar. Ésta zona no es regular, tiene una longitud de 18,50 metros y muestra una anchura decreciente desde el tramo delantero hacia el trasero.

egiten da. Ekialdeko atalean, fatxadaren aurrean, 5,33 m zabal den artean, orubearen gibelaldean, oinaren gutxi gorabehera erdia hartzen duen aldean, 3,83 m zabal baizik ez da, eta alde bien arteko erdiko partean, orubea 3,00 metro zabal den partean, are estuagoa da.

Higiezina artean erabiltzen ari zirenez, beren horretan utzi genituen orube osoko alboetako lekukoak, eraikinari eusten dioten egiturei (perimetroko hormei eta zutikoei) leku egiten dietelako eta eraikinaren egonkortasunari eutsi nahi geniolako.

Adierazitako aldeak alde batera utzita, orube osoa induskatu genuen.

Burura eramandako esku-hartze arkeologikoak aukera eman du hiria fundatu zutenetik, Erdi Arotik, gure garaira arteko bilakaera kulturala bereizteko, nahiz eta prozesu historiko guztiak argi identifikatu ez ditugula aurreratu behar dugun.

Emaitzen laburpena eta interpretazioaren hipotesia

Alde honetako hirigintza prozesuaren berri ematen duen aztarna arkeologiko sorta batean islatzen da orube honen historiaren bilakaera. Eraikuntza aldietan eta hiribilduko harresiaren balizko aurkikuntzan hautematen dugu aipatu bilakaera.

Barrenkale kaleko 18. zenbakian dokumentatutako ezaugarri estratigrafiko gehien-gehienak estu lotuta daude orubean gertatutako eraikuntza prozesuekin, horiexek dira historiaren inguruan informazio gehiena eskain dezaketenak eta interpretazio bat egiteko oinarriak eskain ditzaketenak. Prozesu horiez gainera, interpretatzen zail diren beste aztarna batzuk identifikatu ditugu, hauek seguru asko hiriko espazio hau lehenengoz okupatu zuten aldira eramango gaituzte, baina oraindik deus gutxi ziurtatu dezakegu. Zuzenean maila geologikoan egindako ebaki batzuez ari gara, orubearen erdi ekialdean. Eskuarki ebaki zirkular irregularrak edo joera obalekoak dira, espazioan itxuraz antolatu gabe eginak. Erabat dokumentatu gabe daude gehienak, lekukoen azpian garatzen direlako edo hirigintza prozesuek eraginda estratigrafikoki nahasita daudelako.

Haiei kronologia zehatz bat ematea zaila da, areago haiek datatzeko irizpidea berauek betetzen duten geruzatik eta betegarri honetako materialetatik ondorioztatu behar denean. Depositu bakarra da, gure ustez orubeko lehenengo arkitektura uneari dagokiona. Geruza honetan aurkitu genuen materiala da, *a priori*, multzo osoko zaharrena. Bertan hiru ontzi zati, zehaztu gabeko formako ontziei dagozkien hiru zati, aurkitu genituen, eta hauek guztiz bat datoz, ezaugarri morfologiko eta teknikoei dagokienez, Bizkaiko hiribildu batzuen fundazioko mailei lotutako Erdi Aroaren azken garaiko ekoizpenekin. Eta Durangon Erdi Aroaren azken garaiko beiratu gabeko ekoizpenekin ere antz handia dutela esan behar dugu, nahiz eta kasu honetan esmaltatutako ontzi zati batek, beste hiruen balio kronologikoa erlatibizatzen duen zatiak, eskaintzen digun depositu honen kronologia zehazteko modua.

Frente a los 5,33 metros en su tramo más oriental, junto al frente de fachada, la anchura en la zona trasera del solar, que viene a ocupar aproximadamente la mitad de la planta, queda reducida a 3,83 metros, con reducción algo menor en un tramo medio de transición entre ambas zonas, donde el solar alcanza los 3,00 metros.

El hecho de encontrarse el inmueble en uso obligó a dejar testigos laterales en todo el desarrollo del solar, acogiendo las estructuras portantes del edificio (perimetrales y pies derechos) con el fin de mantener la estabilidad constructiva.

La zona de excavación se desarrolló en todo el solar, excepto en los límites señalados.

El trabajo arqueológico realizado ha permitido distinguir una evolución cultural que partiendo desde el momento fundador de la villa en la época medieval, vive hasta el presente, aunque sin identificar con claridad todos los procesos históricos.

Resumen de resultados e hipótesis de interpretación

La evolución histórica del solar se ve en una serie de evidencias arqueológicas que denotan un proceso urbanístico en el enclave. Esto lo detectamos en diferentes fases constructivas-edificatorias, así como en la posible localización de la cerca de la villa.

La mayor parte de los rasgos estratigráficos documentados en el número 18 de Barrenkale tienen que ver sobre todo con procesos constructivos-edificatorios en el solar, siendo los que mayor información pueden dar en clave histórica-interpretativa. Aparte de esos procesos, se han localizado otra serie de evidencias de difícil interpretación que nos llevarían, posiblemente, a los primeros momentos de ocupación de este espacio de la villa, aún no conocidos suficientemente. Se corresponden con una serie de cortes documentados en la mitad oriental del solar efectuados directamente en el nivel geológico. Se trata, mayormente, de cortes circulares irregulares o de tendencia ovalada sin una ordenación clara en el espacio. La mayor parte de ellos se hallan en un estado de documentación incompleta dado que se desarrollan bien bajo los testigos, o bien sufren una alteración estratigráfica motivada por los procesos urbanísticos.

Dotarles de una cronología se entiende que es tarea complicada, más cuando el criterio para su data se debe extraer del estrato que lo colmata y su material. Aquel se trata de un único depósito ligado a lo que interpretamos como el primer momento arquitectónico en el solar. El material que encontramos asociado a dicho estrato es el que evidencia, *a priori*, una mayor antigüedad de todo el conjunto. En él se han localizado tres fragmentos de recipientes, de forma no determinada, que presentan características morfológicas y técnicas, que cuadran perfectamente con aquellas que se vienen identificando para las producciones tardomedievales asociadas a los niveles fundacionales de algunas villas vizcaínas. Y presentan rasgos asimilables a lo que se viene calificando de producciones tardomedievales no vidriadas en Durango. Aunque en este caso, la pieza que nos aporta una cronología al depósito nos la da un fragmento de recipiente esmaltado que nos relativizaría el valor cronológico de los otros tres fragmentos.

Orubearen okupazio arkitektonikoaren lehenengo unea adierazten du geruza honek. Hasteko, geruza geologikoan irekitako ebakiak amortizatzen dituelako; agian gainazala berdintzea bila zuten depositu honekin. Eta bigarrenik, orubearen erdialdean iparraldetik hegoaldera luzatzen den hormaraino iristen delako. Depositu honek alde hau berdintzeaz gainera, depositu isolatzailearena egingo zuen zoru geologikoarekiko, eta egiaztatutako aurreneko eraikineko geletako zoruak berdintzeko ere baliatuko zuten.

Orubearen erdialdean aurkitutako hormaren kokaguneak eta haren eraikuntza izaerako ezaugarriek adierazten digute arteko horma ez baizik eta perimetroko itxiturari dagokion egitura dela, eta beraz, huts egiteko beldurrik gabe esan dezakegu irekitako eremuaren aurreko aldea okupatu zutela lehenik. Gainera ebakiak, eman zieten erabilera edozein izanagatik ere, orubearen aurreko aldean daude, aurreneko eraikin honi leku egiten dion espazio berean, eta itxura batean ez zuten ezertarako baliatu orubearen gibelaldea.

Geroago orubearen mendebaldea okupatu zuten alde hau eraikitzeko xedean, eta eraikina luzatu egin zuten toki honetan egun dagoen eraikineraino iritsi arte.

Lehen ere aipatu bezala jarduera eremua mugatzen duten baldintzetan aurkitutako aztarnen funtzioaren aurreko interpretazioa betiere zaila dela onartuta, esan dezagun hiru modutan dokumentatu genuela orubearen mendebaldeko okupazio mailakatua hirigintzaren garapenaren baitan.

Hasteko, zuzenean geruza geologikoan bermatzen den jatorri antropikoko geruza dugu. Orubearen erdialdeko hormatik egungo higiezinaren gibelaldeko hormaraino luzatzen da. Hirigintza prozesu batekin identifikatu liteke, eta ez bizitoki espazio batekin, ez baitugu hipotesi hori planteatzeko aztarnarik topatu. Itxura guztien arabera zoruaren maila berdintzeko geruza edo depositua da.

Materialen ikuspuntutik esan dezagun depositu honetan halako antzinatasuna salatzen duten zeramika beiratu batzuk identifikatu genituela, agian Aro Modernoko azken garaietakoak, XVII. edo XVIII. mendeetakoak. Baina gisa honetako produktuak ez dira beti kronologikoki zehazten errazak, batez ere herri ekoizpenak direnean eta zatiak askotan txikiegiak direnean zalantzari ateak ixteko moduko irakurketa egiteko.

Prozesu horren ostean bigarren urratsa egin zuten eraikuntza arloan. Izan ere, paldo bati leku egiteko zulo bat identifikatu genuen orubearen ipar-ekialdeko muturrean, baina lehendik alde hau prestatu zutela ematen du. Ez dirudi aurreko geruzarekin harremana duenik, hura ebakitzen baitu eta bien arteko kota aldea handiegia baita garai berekoak izateko.

Orubeko eraikuntzaren bilakaerak azken une bat ezagutuko zuen. Arestian adierazitako zuloa, paldo bati leku egitekoa, amortizatu eta lur eremua prestatzeko prozesua abiarazi zuten. Orube osoan barrena za-

Ese estrato estaría indicando un primer momento de ocupación arquitectónica del solar. Primero porque anula los cortes abiertos en el sustrato geológico, con lo que tal vez se busque la regularización de esa superficie. Segundo porque se prolonga hasta un muro norte sur que se localiza en la zona media del solar. El estrato no sólo podría estar regularizando la superficie, sino que valdría como depósito aislante con respecto al suelo geológico, y como nivelación de los suelos de habitación de lo que se interpreta como primera edificación constatada.

La posición del muro hallado en la zona media, así como sus características constructivas, que no apoyan una interpretación como un muro medianero, sino más bien como una estructura perimetral de cierre, permite determinar que la parte delantera de la zona abierta se ocupó en primer lugar. Resulta coincidente, a su vez, el hecho de que los cortes, sea cual fuese su uso, se localizan en la zona delantera del solar, el mismo espacio que ocupa esa primera edificación, dejando, aparentemente, sin uso reconocido la zona trasera del solar.

Posteriormente se llevaría a cabo la ocupación de la parte occidental con fines edificatorios, alargando la planta hasta llegar a la que actualmente se encuentra levantada en el enclave.

Esa ocupación progresiva de la mitad occidental del solar, como parte del progreso urbanístico dentro del solar, la documentamos de tres maneras -asumiendo siempre la difícil interpretación funcional de las evidencias localizadas cuando están los condicionantes delimitadores del área de actuación, ya mencionados.

Una primera, definida por un estrato de origen antrópico que se apoya directamente en el sustrato geológico. Tiene un desarrollo longitudinal desde el muro de la zona media hasta el muro zaguero del actual inmueble. Se puede identificar con un proceso urbanístico, no pudiéndola ligar a un espacio de habitación determinado, ya que no hay evidencias que lleven a tal hipótesis. Parece que podría tratarse de un estrato de regulación.

Desde el punto de vista material se le asocian una serie de cerámicas vidriadas que denotan cierta antigüedad que quizá pudiera llevarse hasta fines de la Edad Moderna, siglos XVII o XVIII. Pero dichas producciones no siempre son claras respecto a la cronología, sobre todo cuando pertenecen a producciones populares y cuando los fragmentos son muchas veces de pequeño tamaño como para hacer lecturas claras en ese sentido.

Tras este proceso parece darse un segundo paso evolutivo en lo constructivo. Ello se detecta con la presencia de un agujero para poste localizado en el extremo NE del solar para el cual parece que se ha realizado un importante trabajo previo de preparación del terreno. No parece tener relación con el anterior estrato ya que aparece cortándolo y la diferencia de cota entre uno y otro es demasiado grande como para tener cierta contemporaneidad.

La evolución edificatoria del solar parece tener por último un momento, en el que se constata la anulación del agujero de poste mencionado anteriormente, y en el que se produciría un proceso de preparación

baltzen den depositua salatzen digu aipatu prozesua. Egungo arkitekturaren egiturarekin duen harremana oraingoz ezin zehaztu dezakegu hasierahasieratik azaldu ditugun baldintzatzaileak daudelako, lortutako dokumentazioa aztertutako eremuak berak mugatuta dagoelako.

Hori bai, estratigrafiaren ikuspuntutik depositu modernoagoa da, eta materialek ere horixe iradokitzen digute. Urre koloreko toskazko plater baten oinaren eta gorputzaren zati bat azaldu arren (segur asko XVII. mendekoa), berriagoak dira harekin batera azaldutako zatiak, toska fineko ontzien zatiak gehienak, hots, ekoizpen eredua Ingalaterratik inportatu eta Espainian XIX. mendetik aurrera nagusituko zen zeramika moldea da nagusi. Identifikatu gabeko formako ontzi baten hondoa, toska finekoa, Sevillako Pickman fabrikan egina dela esan behar dugu.

Erdi Aroko harresia da orube honi izaera historikoa ematen dion beste elementua. Harresiak berak justifikatzen du Barrenkale kaleko 18. zenbakiko orubea arkeologikoki babestuta egotea. Itxura guztien arabera egungo eraikinaren gibelaldeko hormarekin egiten du bat; beraz, orubearen gibelaldetik luzatuko zen harresia, etxadi bereko beste orube batzuetan, harresia kontserbatu den orubetan, dokumentatu ahal izan den bezala.

Barrenkale kaleko 18. zenbakiko gibelaldeko hormak egitura arkitektoniko baten gainean hartzen du atseden. Alde honetan egungo eraikinaren zimentarriarena egiten duenez, oso litekeena da hiribilduko alde hau inguratzen zuen harresia izatea.

Egitura ikuspuntu deskribatzaile batetik aztertuta saiatuko gara harresiaren aurrean, egungo eraikinaren alde honetako zimentarriaren aurrean ala harresiaren hondakinak baliatu dituen eraikinaren zimentarriaren aurrean ote gauden argitzen.

Sarreratik gutxi gorabehera 18,60 metrotara dago eraikuntza elementu hau, irekitako atal osoan ageri da eta iparraldetik hegoaldera luzatzen da 2,40 metrotan. 0,80 eta 0,88 m bitarte garai da dokumentatutako atala. Gibelaldeko hormatik nabarmentzen da, baina ez dakigu zein den ibairi begira izango zuen aurpegirainoko lodiera. Izan ere eskailera bat dago kanpoko aldera, eta honek ez du horma ikusten uzten.

Harri koskorrez egina da; goiko lehen bi errenkadetan harriak erregularragoak dira formetan, eta modu ordenatuagoan egokituta daude. Oraingoz erresalbuz interpretatu behar da haren erregulartasuna. Izan ere, goiko errenkadez ari gara, eta agian lotura handiagoa dute eraikinaren itxitura hormako zimentarriarekin egituraren hormaren gainerakoarekin baino, eta horrek zalantzak eragiten ditu gibelaldeko hormaren edo harresia izan litekeen beste egitura baten atala den zehazteko orduan. Bestalde, esan dezagun kareorea erabili zutela harriak batzeko, eta leku jakin batzuetan teila arabiarraren puskak sartu zituztela.

Ikuspuntu deskribatzaile honetatik egin daitezkeen interpretazioen esparruan esan dezagun Durangoko hiribilduko Erdi Aroko harresia izan litekeena formaz del terreno. Esto se vería en el depósito que se extiende por todo el solar. Su vinculación con el actual esqueleto arquitectónico quedaría por determinar ya que se cuenta con los condicionantes que desde un primer momento se señalaron: documentación acotada por el área sobre la que se ha actuado.

Sí que se trataría del depósito más moderno en clave estratigráfica y materialmente nos revela esa modernidad. A pesar de contar con un fragmento de base y cuerpo de un plato de loza dorada –siglo XVII, previsiblemente–, el resto de los materiales que acompañan al fragmento tienen cronologías más recientes, quedando marcado todo el conjunto por la presencia de los fragmentos de recipientes de loza fina, producción industrial que arraiga en España a partir del XIX, importado el modelo de producción desde Inglaterra. De hecho uno de los objetos es un fondo de un recipiente de forma no identificada, salido de la fábrica Pickman de Sevilla, de loza fina.

El otro objeto que da un carácter histórico al solar es la cerca medieval. Ésta, justifica en buena medida el hecho de que el solar de Barrenkale 18 tenga protección arqueológica. Se supone que por una parte coincidente con el muro de cierre del actual edificio, en su parte trasera, discurría la línea de la antigua muralla, tal como se ha podido documentar en otros solares de la misma manzana, donde se han conservado restos de la cerca.

El muro zaguero del número 18 de Barrenkale descansa sobre una estructura arquitectónica, que funcionando como cimientos del edificio en este lado de la planta, pudiera identificarse con la cerca que circundaba este lado de la villa.

Analizando desde un punto de vista descriptivo la estructura, se intentará dilucidar si estamos bien ante la cerca, bien ante la cimentación del actual edificio en este lado, o bien si es cimentación del edificio que ha utilizado los restos de la muralla.

El elemento constructivo se halla a unos 18,50 m aproximadamente desde la entrada, localizándose en toda la parte abierta, con desarrollo norte-sur de 2,40 m. El alzado documentado oscila entre los 0,80 y 0,88 m. Sobresale del muro zaguero, no pudiendo definir en su totalidad el ancho hasta la cara que daría hacia el río. Ello es debido a la escalera que se ubica al exterior y que impide su visualización.

El aparejo se define con cantos, diferenciándose las dos primeras hiladas superiores, donde la piedra presenta unos caracteres más regulares tanto en la forma como en disposición. Su regularidad habría que tomarla de momento, con cautela. El hecho de que sean las hiladas superiores, y que puedan tener una relación más directa con la cimentación del muro de cierre del edificio que con el resto del alzado de la estructura, dejaría un margen de duda a describirla, bien como parte del muro zaguero o bien como parte de otra estructura, como pudiera ser la cerca. Por otra parte, el elemento de unión utilizado es la argamasa introduciéndose en ciertos sitios fragmentos de teja curva.

A niveles interpretativos, desde la vertiente descriptiva, la parte documentada de lo que podría ser la muralla medieval de la villa de Durango, dista bastante for-

oso» bestelakoa dela kale honetan arkeologikoki aztertutako orubeetako gibelaldeetan dokumentatutako harresi atalekin alderatuta. Barrenkale kaleko 10., 12. eta 14. orubeetakoak ditugu gertuen. Azken horien bien kasuan esku-hartzeaz arduratu zen arkeologoa 14. zenbakiko orubean kontserbatutako harresi atalera mugatu zen lehenengo txostenean, 12. zenbakikoa «*ia guztiz desmuntatua baitzegoen ekialdeko aurpegiaren hainbat puntutan*». 14. zenbakikoari dagokionez, gisa honetan deskribatzen du egileak atal hau: «*harresiko estekadura harlandu txiki gotiko deituez egina da, hareharrizko piezak zizelaz landuak dira, elementuak ez daude eskuairatuak baina nahikoa modu erregularrean daude horma errenkada erregularretan antolatzeko*[50]».

Era berean, 10. zenbakikoa 14. zenbakiko orubean aurkitutakoaren antzekoa da, gisa honetan deskribatu zuen egileak: «*kalitate oneko harlandu txikiz egina da, blokeak 40 x 35 cm-koak. Errenkadak erregularrak dira, eta kanpoko aldera sei errenkada kontserbatzen ditu, guztira 1,85 m-ko garaierara iritsi arte. Kanpoko aurpegiko azken ukituak zizelaz eginak direla ematen du. Junturak txukun eta sendo eginak dira, kareore oso trinkoa erabili zuten horretarako, karea ugari, eta tarteka ikatzak, karea lortzeko harriaren kaltzinazioaren emaitzak, alegia. Xoborra eta harri txikiak, bloke erregularren artean ziri gisa erabiliak, oso gutxitan baliatu zituzten*» [51].

Egile hauek identifikatutako harresiaren deskripzioa ez dator bat 18. zenbakiko orubean agerian utzitakoarekin, egitura soilik aurreneko bi errenkadetan baita haren antzekoa, eta lehen ere aurreratu baitugu horien inguruan zalantza batzuk sortzen direla.

Horren aurrean hainbat hipotesi planteatu litezke. Baliteke goiko errenkada bi horiek harreman motaren bat edukitzea Barrenkale kaleko 10. eta 14. zenbakiko orubeetan deskribatutako estekadurarekin, harresiarekin identifikatzen denarekin. Hala balitz, haien azpian dauden harri koskorren errenkadak zeri dagozkion argitu beherako litzateke.

Bestalde, baliteke bi errenkada horiek harresiarekin ez baizik eta egungo eraikinaren gibelaldeko hormaren zimentarriarekin lotuta egotea. Hala balitz, harri koskorrez osatutako estekadura zimentarriaren atala ote den, hori bai, ez hain landua, ala beste zerbait ote den, esate baterako harresia berreraikitzeko obra, argitu beharko litzateke.

Hasieratik mugatutako indusketaren ondorioa da arazo horren parte bat, ezinezkoa gertatu baitzaigu irakurketa osoa egitea. Hori bai, hiribilduko harresi zaharra luzatzen zen aldean bereizten den estekaduraren baitan egitura mota hau berria dela esan behar dugu.

[50] Ibarra Álvarez, J.L. (2005): Esku-hartze arkeologikoa Barrenkale kaleko 12. eta 14. orubeetan (Durango, Bizkaia). Memoriaren lehen aurrerapena. Emaitzen laburpena. 21. orrialdea.

[51] Bengoetxea Rementeria, B. (2000): «Barrenkale, 10 (Durango)». *Arkeoikuska 99*. Bilbo, 299. or.

malmente de los tramos documentados en las partes traseras de los solares sobre los que se ha actuado arqueológicamente en esta misma calle. Los más cercanos los tenemos en los números 10, 12 y 14 de Barrenkale. En los dos últimos casos, el arqueólogo que realizó las actuaciones se ciñe en su informe preliminar a la parte de la muralla conservada en el solar del número 14, visto que en el número 12 se encontraba «*prácticamente desmontada en varios puntos de su paramento oriental*». Con respecto al número 14 el autor la describe de la siguiente manera: «*el aparejo de la muralla se asocia a lo que ha dado a denominarse como sillarejo gótico, con piezas areniscas labradas a picón, que no escuadran los elementos pero sí les otorgan la regularidad suficiente como para que la fábrica pueda organizarse en hiladas regulares*"[50].

De igual manera, en el número 10, la parte de muralla registrada se asemeja a la localizada en el 14, describiéndola la autora de la siguiente manera: «*está realizada en sillarejo de buena calidad, con bloques de dimensiones de 40 x 35 cm. Mostrando clara regularidad en las hiladas trazadas, de las que en la cara extramuros quedan hasta seis, alcanzando una altura de 1,85 m. El acabado de la cara externa parece ser realizado a picón. Las juntas están realizadas cuidadosa y sólidamente, empleando argamasa muy consistente, en la que abunda la cal, junto con intrusiones de carbones, producto precisamente de la calcinación de la piedra para conseguir la cal. El ripio y piedras menudas colocadas en forma de cuña entre los bloques regulares, se emplean ocasionalmente*"[51]

Lo descrito por los autores sobre lo que han identificado de la cerca, no se asemejaría a lo localizado en el número 18, donde su tipo de fábrica se identificaría únicamente con las dos primeras hiladas, y ya se ha señalado anteriormente la problemática que hay entorno a ellas.

Ante esto, se pueden lanzar una serie de hipótesis. Pudiera darse el caso de que esas dos hiladas superiores pudieran tener algún tipo de relación con el aparejo descrito en los solares de los números 10 y 14 de Barrenkale, y que se identifican con la cerca. En tal caso, la cuestión a dilucidar es qué son esas hiladas de cantos situadas bajo aquellas.

Por otra parte, también podría ser que esas dos hiladas tengan relación no con la cerca, sino con la cimentación del muro trasero del edificio levantado actualmente. Entonces habría que preguntarse si el aparejo de cantos son parte también de esa base de cimentación, pero más tosco, o bien es otra cosa, como por ejemplo una reconstrucción de la cerca.

Parte de esta problemática es debida a los límites de excavación con los que partimos de base y que impiden hacer una lectura completa. Lo que sí se puede decir es que este tipo de fábrica es algo nuevo dentro del aparejo que se localiza en la zona por donde discurriría la antigua muralla de la villa.

[50] Ibarra Álvarez, J.L. (2005): Actuación arqueológica en los solares nº 12 y 14 de Barrenkale (Durango, Vizcaya). Avance preliminar a la memoria. Resumen de resultados. Página 21.

[51] Bengoetxea Rementeria, B. (2000): «Barrenkale, 10 (Durango)». *Arkeoikuska 99*. Bilbao, p 299.

Konklusioak

Barrenkale kaleko 18. zenbakiko orubean burura eramandako esku-hartze arkeologikoak argitu beharreko kontu batzuk utzi ditu orubearen eta, hedaduraz, Durangoko hiribilduaren historiaren berreraikuntzaren inguruan. Bertan esku-hartzeko proposamenean aurkeztutako helburuak bete gabe geratu dira hein batean. Izan ere, orube hau egiazki noiz okupatu zuten argitu nahi genuen, eta hiriaren fundazio aldiari begira proposatzen den kronologiarekin bat datorren ala ez ikusi nahi genuen; era berean, harresia identifikatu eta ezaugarritu nahi genuen Erdi Aroko hirigunearen baitako elementu gisa, eta gisa horretan argitu nahi genuen hiriaren aurreneko aldiari lotutako harresia ba ote zegoen ala ez.

Nolanahi ere den, ukitu gabeko espazio bat utzi du esku-hartze arkeologikoak, etorkizunean balizko azterketak egiten ez badira esku-hartze arkeologikoa amaituta egiten ditugun galderei erantzun ahal izateko. Galdera hauek, funtsean, aurkitutako aztarna multzoaren aurreko interpretazio irakurketekin zerikusia dute, informazioa oraindik osatu gabe baitago.

Orubearen gibelaldean dagoen egiturari dagokionez, Erdi Aroko harresiaren kokalekuarekin bat egiten duen arren, ezin ziurtatu daiteke harresia denik. Nolanahi ere den, kontu hau luze gabe argituko dugulakoan gaude.

Orube hau interpretatzeko orduan aipagarria da bertan hirigintzaren bilakaera identifikatu izana, nahiz eta datak ezin zehaztu ditzakegun. Bilakaera honek Behe Erdi Aroko uneren batean izan zuen jatorria eta segida izan zuen Aro Modernoan eta aro garaikidean.

Conclusiones

La intervención arqueológica realizada en el número 18 de Barrenkale ha dejado varios interrogantes en la reconstrucción histórica del solar y por ende de la villa de Durango. Objetivos que se presentaron en la propuesta de actuación se han visto incumplidos en parte. Entre ellos estaba el de definir el momento efectivo en el que se realizó la ocupación de este solar y su coincidencia o distanciamiento en relación con la cronología que se viene estimando para la fase fundacional del enclave; así como identificar y caracterizar la cerca como un elemento dentro de la trama urbana medieval, y con ello resolver el problema de la existencia o no de una muralla ligada a la fase primera de la villa.

Aún así, la actuación arqueológica ha dejado un espacio sin actuar, que a falta de un estudio en posibles futuros trabajos, podría dar respuestas a las preguntas que nos hacemos una vez terminada la actuación arqueológica y que tienen que ver sobre todo con las lecturas interpretativas del conjunto de las evidencias halladas, dejando, entre otras cosas, mucha información incompleta.

En referencia a la estructura que se encuentra en la parte zaguera del solar, a pesar de compartir con la cerca medieval su localización, no puede asegurarse con exactitud que sea la muralla. Aún se está a la espera de poder concretar tal identificación.

Lo que se ha podido valorar como un hecho positivo en la interpretación del solar, es que ha habido una evolución urbanística en el enclave, no pudiendo concretar en fechas. Una evolución que presumiblemente tiene su origen en un momento Bajomedieval y que tiene sus transformaciones a lo largo de la Edad Moderna como en época contemporánea.

R. Rodríguez Calleja

B.10. **ELORRIO**

B.10.1. **Zubiaur-Txiki baserria**

Zuzendaritza: Unai Aurrekoetxea Fernández
Finantziazioa: T. Berriozabal Bengoa; Mª A. Arregi Larrabe

B.10.1. **Caserío Zubiaur-Txiki**

Dirección: Unai Aurrekoetxea Fernández
Financiación: T. Berriozabal Bengoa; Mª A. Arregi Larrabe

Intervention documenting the different renovations to the building since its construction during the 16th century. No elements predating this period were uncovered.

Zubiaur Txiki-Arregi baserria Iguria auzoan dago, Elorrioko udal barrutian, eta bertan sagardoa egiten zutela esan behar dugu. XVI. mendean eraiki zuten eta jatorrizko egituraren parte bati eusten dio, nahiz eta, logikoa denez, denboraren joanean burura eramandako berritze lanek ezkutaturik edo haietan urturik dagoen.

El caserío Zubiaur Txiki - Arregi se sitúa en el barrio de Iguria en el término municipal de Elorrio y se caracteriza por haber sido un caserío sidrero. Su construcción se remonta al siglo XVI y mantiene parte de la estructura original, aunque como es lógico, el paso del tiempo ha hecho que se diluya entre las reformas posteriores.

Zubiaur-Txiki baserria. Baserriaren gibelaldeko fatxada.

Caserío Zubiaur-Txiki. Fachada trasera del caserío.

Baserria handitzeko lanak izan ziren hartan burura eramandako lan nagusiak, eta fatxada berriko ataripeko arkuaren giltzarrian ageri den inskripzioari esker badakigu lan horiek 1754. urtean egin zituztela. Berritze lan hauek «XVII. eta XVIII. mendeetan zehar berritutako milaka baserri[52]» berritzeko prozesu orokorrera biltzen dira. Prozesu hau Amerikatik ekarritako labore berriaren, artoaren, laborantzaren orokortzeak abiarazi zuen, ordura arte landutako beste laboreen lekua hartuko zuen artoak bestelako baldintza batzuk eskatzen baitzituen.

Esku-hartze arkeologikoan zehar hautemandako elementuen artean aipagarria da dokumentatutako egitura kaxatua. Egitura honen kokalekuak harremanetan jartzen du egitura hau «dolareko torlojua ainguratzeko eta kontrapisuarena egiteko sistemarekin, funtsezko elementua baita hura egokiro funtzionatzeko»[53]. Zurezko egitura hau, lurperatua eta kaxatua, jatorrizko baserriko lehenengo dolarearen egiturako kontrapisua da.

Sukaldeko lauzazko zoladura agian lehenengo baserriaren eraikuntza aldikoa da, baina ez dugu horrelakorik berresten duen daturik. Hala eta guztiz ere, eta eraikinaren historiaren bilakaerarekin aurrera eginez, guk uste dugu zoladura hau XVIII. mendean burura eramandako berrikuntza lanen esparruan kokatu behar dela. Aipatu datan kokatzera eramaten gaituzten arrazoiek datu enpirikoetan ez baizik eta intuizioan dute jatorria. Gisa honetako eraikuntzetan, esate baterako Ezkio-Itsasoko (Gipuzkoa) Igartubeiti baserrian, jatorrizko zoruak zanpatutako buztinez eginak direla ikus dezakegu. Eta ez dago arrazoirik Zubiaur Txiki-Arregi baserria beste zoladura mota batez egina egongo zela pentsatzeko, antzeko ezaugarriak dituen baserria baita, hots, bizitokiarena egiteko baino nekazaritzaren ekoizpenari emana izateko eraikina baita. Izan ere, gisa honetako eraikinetan bazter izaera du

[52] Santana, A. : «Igartubeiti Baserriaren historia» «IGARTUBEITI: Gipuzkoako baserri bat» liburuan, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003. 83. or.

[53] Sagarzazu, I.: Igartubeiti: Ikerketa arkeologikorako programa berri bat «Igartubeiti: Gipuzkoako baserri bat» liburuan, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003. 141. or.

La reforma más destacada, resulta de la ampliación del caserío, que gracias a la inscripción en la clave del arco del soportal que se abre en la nueva fachada, podemos fechar en 1754. Esta reforma se enmarca en el proceso de reforma generalizado de «miles de caseríos que se renovaron durante los siglos XVII y XVIII"[52], derivado de la popularización del cultivo del nuevo cereal traído de América, el maíz, que exigía unas condiciones de tratamiento diferentes a los cereales a los que vino a sustituir.

Entre los elementos detectados durante la intervención arqueológica, destaca la documentación de una estructura encepada. La ubicación de esta estructura la pone en relación con el sistema «de anclaje y contrapeso del tornillo de la prensa, elemento fundamental para el correcto funcionamiento del mismo».[53] Está estructura lignaria, enterrada y encepada, se corresponde con el contrapeso de la estructura original de lagar del caserío original.

Tal vez el pavimento enlosado localizado en la cocina podría ponerse en relación con la misma construcción del primitivo caserío, aunque carecemos de datos que lo atestiguen. En cualquier caso, y siguiendo el desarrollo histórico del edificio, nos inclinamos más por situar este pavimento en el marco de las reformas efectuadas en el siglo XVIII. La razón que nos lleva a situarlo en estas fechas, nace más de la intuición que de cualquier dato empírico. Siguiendo el paralelo que venimos manejando para este tipo de construcciones, el caserío Igartubeiti en Ezkio-Itxaso, Gipuzkoa, podemos observar que los suelos originales de éste están constituidos por arcilla apisonada. No hay razones para pensar que el caserío Zubiaur Txiki-Arregi fuera dotado de otro tipo de pavimento al tratarse de un edificio de similares características, proyectado prácticamente, más como un edificio vol-

[52] Santana, A. : «Historia del Caserío Igartubeiti» en «IGARTUBEITI: Un Caserío Guipuzcoano», Diputación Foral de Gipuzkoa, 2003. p. 83.

[53] Sagarzazu, I.: Igartubeiti: Un nuevo programa de investigación arqueológica. , en «Igartubeiti: Un Caserío Guipuzcoano», Diputación Foral de Gipuzkoa, 2003. p.. 141.

bizitokiak, eraikinaren bolumenaren parte txiki bat baizik ez zen bizitokiarena egiteko bereiziko. Horrexegatik uste dugu zentzuzkoagoa dela landuagoa den zoru honen eraikuntza eraikin honetan XVIII. mendean burututako berritze lanen esparrura biltzea. Berritze lan hauek eraikina ekoizpen mota berri batera (artoari) eta ingurua ustiatzeko modu berrietara (azienda ukuiluratzeko beharra) egokitzeko beharrak eragin bazituen ere, higiezineko bizitoki espazioak ere hobetu egin zirela esan behar dugu.

Deigarria da esku-hartze honetan bildutako material arkeologikoen urritasuna, ez baikenuen material mota bakar bat ere berreskuratu. Agian zorupeko geruzaren lodiera eskasa da horren arrazoia.

Bukatzeko, esan dezagun esku-hartze arkeologiko honek ez duela baserria eraiki aurreko aldietan kokatu litekeen daturik eskaini, ez duela XVI. mende aurreko aztarnarik eskaini.

cado a la producción agropecuaria que como a residencia en si mismo. Es decir, el papel de vivienda en este tipo de edificios parece residual, destinando una pequeña parte de su volumen a esta función. Por ello, creemos más lógico atribuir la construcción de este pavimento, más elaborado, al programa de reformas realizado en el edificio en el siglo XVIII, que si bien vinieron motivados por la necesidad de adaptar el edificio a un nuevo tipo de producción (maíz) y a una nueva forma de explotación del entorno (necesidad de estabulación del ganado) trajeron consigo una leve mejoría en los espacios habitacionales del inmueble.

Llama la atención la escasez de materiales arqueológicos recogidos en esta intervención, dado que no se ha recuperado material de ningún tipo. Quizá esto obedezca a la escasa potencia arqueológica del subsuelo.

Por último, nos gustaría señalar que la intervención arqueológica no ha proporcionado datos atribuibles a fases anteriores a la construcción del caserío en el siglo XVI.

U. Aurrekoetxea Fernández

B.11. EREÑO

B.11.1. Ereñozar mendia

Zuzendaritza: Mikel Neira Zubieta
Finantziazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

B.11.1. Monte Ereñozar

Dirección: Mikel Neira Zubieta
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

The archaeological intervention carried out in sectors 4000 and 5000 enabled us to identify a series of structures associated with the castle and with the evolution of the defensive construction strategies. The results add to the information already gleaned during previous years.

1. aldia. Gazteluaren egitura nagusiak (dorrea-harresia) (XIII. m.)

Aldi honetan kokatu behar ditugu lau angeluko egitura baten zimentarria, neurri handiko eraikin bati eusteko moduan egokitua, eta terraza naturalaren kontra egokitutako babesteko horma. Lehenengoa mendiaren gailurrean dagoen eta ingurua kontrolatzeko elementu nabarmenena den dorre nagusiaren edo omenaldiaren dorrearen zimentarria da. Bigarrena jatorrizko hesia edo harresia da, eraikuntza kalitate eskasekoa baina oso eraginkorra babesteko funtzioari dagokionez, malkar naturalak baliatzen baititu oinarri gisa egiturak altuera handiagoa edukitzeko.

Honenbestez, bildu dugun informazioari esker, gazteluak aldi honetan izango zuen itxura eskaintzeko moduan gaude. Babesteko barrutiaren goiko partean, gailurrean, eraikin bat egongo zen, segur asko lau angeluduna oinplanoan. Eraikin hau dorre nagusia izan-

Fase 1. Estructuras principales del castillo (torre-muralla) (s. XIII)

En esta fase se ha identificado la cimentación de una estructura cuadrangular, dispuesta para fijar una edificación de gran porte, y un muro defensivo acomodado contra la terraza natural. La primera de dichas obras se ha interpretado como la cimentación de la torre principal o del homenaje, situada en lo alto de la cumbre y siendo el elemento principal de vigilancia. Por otro lado, la segunda obra, se trata del cerco o muralla primitiva, de parca calidad constructiva en el aparejo aunque de enorme eficacia defensiva, debido a su disposición topográfica y la utilización de los escarpes naturales como soporte para aumentar la altura.

Así, con la información rescatada podemos ofrecer la imagen que adquiriría el castillo en esta fase. El recinto defensivo estaría encumbrado con una edificación, probablemente de planta cuadrangular, situada en lo más alto de la cumbre. Dicha construcción podríamos consi-

go zen, gailurraren alde honetan eraikiko zuten lur eremuko irregulartasunetara moldatuta. Lau aldeak agerian edukita, halako autonomia funtzionala izango zuen gazteluko beste jarduera eta espazioen aldean. Orain arte soilik mendebaldeko eta iparraldeko egiturak identifikatu baditugu ere, guk uste dugu oinplano angeluzuzeneko eraikina izango zela. Mendebaldeko horma 11,5 metro luze da, eta beraz, hainbat solairutan antolatuta egongo zen. Ez dakigu zenbat solairu izan zituen, baina beste gaztelu batzuetan egindako azterketek, esate baterako Untzuetakoan eta Oziokoan, kronologia eta eraikuntza ezaugarri bertsuko gazteluak baitira, Ereñozarreko gazteluaren eraikuntzarekin lotu ditzakegun interpretazioak eskaintzen dizkigute. Aipatu gazteluetako esku-hartzeak bideratzen ari diren ikerlariek dorreak hiru solairutan banatzen zirela planteatzen dute; beheko oina, biltegi edo sotoari emana, lehenengo solairua, nagusia, bizitokia, eta bigarren solairua, goikoa.

Harresiaren edo babesteko hesiaren norabideari dagokionez, terraza naturalek eratuko zuten mendebaldeko itxitura lerroa, babesteko egitura hau berezko malkar harritsuaren gainean egokitzen baita, lur eremuaren aldapa zimentarri gisa baliatzeko xedean. Era berean, dorrearen zimentarriaren paraleloan egongo zen hesiaren mendebaldeko muga, eta horrek agerian uzten du gazteluaren barruko aldea murriztuta egongo zela alde honetan, dorrearen eta harresiaren artean bi metroko tarte librea baizik ez baitzen egongo.

5000 sektoreari dagokionez, egitura sorta bat identifikatu genuen hartan, eta artean partzialki induskatuta dauden arren, 2012ko kanpainan ustez berretsiko den interpretazio bat aurreratuko dugu jarraian.

Barrutiaren hego-ekialdeko muturrean (5000 sektorea) bertara sartzeko atea egongo zen, alboetan igarotzeko egitura banarekin. 1,15 m eskaseko zabalera zuen sarrera hau bertako orografia naturala baino apur bat gorago zegoen, zolatutako sarbideak egingo zion sarrera. Mutur batean dagoenez, gailurrera daraman bidetik berex, guk uste dugu isilpeko sarrerak eta irteerak egiteko erabiliko zutela ate hau, horrexegatik dagoela barrutiko bazter ez ageriko batean.

Bestalde, aztarnategiko sektore honetan, arestian deskribatutako bigarren mailako sarreraren paraleloan, bigarren dorre bat egongo zen. Babesteko muinoaren hego-ekialdeko izkinan oinplano angeluzuzeneko (4,8 m^2) eraikin bat altxatuko zen, barruko aldetik harresi nagusiari atxikita. Seguru asko bigarren mailako sarrera babesteko dorrea izango zen, hegoaldeko sarreraren babes maila emendatzea izango zuen xede.

Kronologiari dagokionez, oraindik ez dugu datu eguneraturik behin-betiko arku kronologikoa eskaintzeko. Hala eta guztiz ere, beste kanpaina batzuetan lortutako datuen argitara, etorkizunean ustez berretsiko dugun hipotesi bat aurreratu dezakegu. Ildo honetatik, esan dezagun 2010eko kanpainan zehar C14ren bidezko azterketa analitikoak egin genituela babesteko hesiaren atal batetik hartutako kareorezko laginarekin. Lagin honek XIII. mendearen bigarren erdialde inguruko data eskaini zigun. Harresiaren irakurketa estratigrafiko orokorrak berretsi zain bagaude ere, esan dezagun aldi honetan kokatutako elementuak eraikuntza aldi berekoak direla. Guk uste dugu XIII. mendean kokatu behar dela aldi hau.

derarla como la torre principal, construida en esa zona de la cima y adaptándose a las irregularidades del terreno. Su ubicación exenta le permitiría disponer de cierto grado de autonomía funcional respecto a otras actividades y espacios del castillo. Aunque hasta la fecha, solo hemos identificado las estructuras occidental y septentrional, podríamos pensar en un edificio de planta rectangular. La longitud del muro oeste alcanza los 11,5 metros, por lo que la torre se conformaría en varios pisos. Desconocemos de cuantas plantas podría llegar a disponer, sin embargo, los estudios realizados en otros castillos como Untzueta u Ocio, recintos defensivos con analogías cronológicas y constructivas, nos ofrece interpretaciones que podemos asociar con la construcción de Ereñozar. Los investigadores que dirigen dichas intervenciones, plantean una división de la torre en tres plantas; una planta inferior, para bodega o sótano, una planta primera noble, donde se ubicarían el espacio habitacional y una segunda planta superior.

Respecto a la orientación de la muralla o cerco defensivo, la línea occidental de cierre la marcarían las terrazas naturales ya que la estructura defensiva se levanta sobre el escarpe natural rocoso, para aprovechar el declive del terreno como cimentación. Del mismo modo, el límite oeste del cerco se encontraría paralelo a la cimentación de la torre, lo que demuestra que el área interior del castillo sería reducido en esa zona, ya que simplemente se dispondría de dos metros de espacio librado entre la torre y la muralla.

En cuanto al sector 5000, se han identificado una serie de estructuras, que se bien se encuentran excavadas parcialmente, adelantamos una interpretación que esperamos ser corroborada durante la campaña 2012.

En el extremo suroriental del recinto (sector 5000) se abriría una puerta de acceso flanqueada por dos umbrales o estructuras de paso. Dicha poterna de apenas 1,15 m de anchura, elevada levemente sobre la orografía natural, se accedería a través de un acceso pavimentado. Su ubicación en un extremo sin camino practicable a la cumbre y sus pequeño tamaño, nos hacen pensar en una puerta reservada, destinada a salidas y entradas discretas y poco frecuentadas, de ahí su situación en un sector disimulado del recinto.

Por otro lado en este sector del yacimiento y paralelo a la poterna anteriormente descrita, se dispondría un torreón supletorio. Localizado en la esquina suroriental del cerro defensivo, se alzaría una edificación de planta rectangular (4,8 m^2) adosada al interior contra la muralla principal. Probablemente se trate de una torre de apoyo defensivo a la puerta secundaria con el fin de aumentar la protección del acceso meridional.

Respecto a la cronología, no disponemos de datos actualizados para ofrecer una horquilla definitiva. Sin embargo, con los datos exhumados en otras campañas podemos establecer una hipótesis que esperamos corroborar. En este sentido, durante la campaña 2010 se realizaron analíticas de C14 de mortero de un tramo del cerco defensivo. Dicha muestra nos aportó una fecha en torno a la segunda mitad del siglo XIII. Probablemente y a falta de confirmación en la lectura estratigráfica global del cerco, los elementos descritos y adscritos a esta fase, pertenezcan al mismo momento constructivo. De esta forma, proponemos el siglo XIII como la centuria más factible para situar esta fase.

Ereñozar mendia. Kanpoko harresiaren irudia hura sendotzeko lanak amaitu eta gero. Gailurra inguratzen duen perimetroan korridore bat egokitu da babesteko egitura bere osotasunean ikusi ahal izateko.

Monte Ereñozar. Imagen de la muralla exterior tras las labores de consolidación. Se ha realizado un pasillo perimtetral bordeando la cumbre que permite observar la estructura defensiva en su totalidad.

2. aldia. Berritze lanak barruti gotortuan (XIII.-XIV. mendeak)

Bildu ahal izan dugun informazioak, aldi honetan kokatu beharrekoak, aukera ematen digu barruti gotortuak aldi honetan izango zuen itxura aurreratzeko. Aztarnek berretsi egiten dute une jakin batean gailurra mendebalderantz zabaldu zutela gazteluak baliatu zezakeen eremua handiagoa izan zedin. Orografia naturala moldatu zuten, horretarako lur eremua berdindu egin zuten depositu handi batez, espazio lau handiagoa bila baitzuten. Behin gailurraren mendebaldeko eremua irabazita, alde hori harresi batez inguratzen hasi ziren, eta harresi nagusia eraiki zuten. Harresia eraikitzeko teknikari erreparatuta esan dezagun harresia aldi berean eraiki eta handitu zutela, zuzenean eremua berdintzeko deposituaren gainean zimendatuz, alde hau guztia betetzen eta berdintzen zuten aldi berean.

Deskribatzen ari garen handitzeko lanekin lotuta ageri dira estratigrafiaren ikuspuntutik lehenengo dorrearen zimentarriaren gainean dauden depositu batzuk. Guk uste dugu depositu hauek zuzeneko harremana dutela gailurrak eta, aldi berean, lehenengo dorreak, bizi izan zituen aldaketekin.

Ez gaude behin-betiko interpretazio bat eskaintzeko moduan, estratigrafian hartzen duen lekuak baizik ez du bermatzen hipotesi hau.

Era berean, egitura handitzeko obrari lotuta agertzen da gazteluaren barruko espazioa banatzen duen egituraren eraikuntza. Ikerketaren egungo egoeran oraindik ez dakigu zer funtzio beteko zuen egitura honek, babesteko barrutiaren ipar-mendebaldeko espazioa banatuko zuen eraikin handi baten zimentarriak direla baizik ezin dugu aurreratu

Aldi honetara bildu dugun obra bat identifikatu dugu 5000 sektorean. Horma bat da, baina une honetan zail zaigu haren aurreko interpretazio zehatza egitea. Kontuan izanik estratigrafiaren ikuspuntutik aurreko aldian kokatutako egiturekiko hartzen duen lekua, 1. aldiaren ostekoa dela esan behar dugu.

Fase 2. Reformas en el recinto fortificado (s. XIII-XIV)

La información que hemos podido rescatar y que hemos asociado a esta fase nos permite obtener una visión del recinto fortificado durante este período. Las evidencias han confirmado que en un momento determinado, se procede a ensanchar la cumbre hacía occidente para ampliar el área utilizable del castillo. Se corrige la orografía natural, mediante la nivelación del terreno con un gran depósito, con el fin de disponer de un espacio liso mayor. Una vez ganada el área occidental de la cumbre, se procede a amurallar dicha zona, mediante la construcción del cerco defensivo pricipal. Probablemente, y a la vista de la técnica constructiva de la muralla, la ampliación y la construcción de ésta fueron ejecutadas a la vez, cimentando directamente sobre el depósito de nivelación mientras se iba rellenando la zona.

Asociado con la obra de ampliación que venimos describiendo, hemos relacionado una serie de depósitos que se sitúan estratigráficamente sobre la cimentación del torreón primitivo. Entendemos que dichos niveles estarían relacionados con el cambio de fisonomía que sufre la cumbre, y a su vez, la torre original.

No podemos ofrecer una interpretación definitiva al respecto, únicamente podemos adelantar dicha hipótesis avalada por su situación estratigráfica.

De la misma forma, la obra de ampliación viene asociada con la edificación de una estructura que divide el espacio interno del castillo. En estos momentos de la investigación, desconocemos la funcionalidad de dicha estructura, únicamente podemos adelantar que se trata de los cimientos de una edificación de gran porte que dividiría el espacio noroccidental del recinto defensivo.

En el sector 5000 se ha identificado una obra que hemos vinculado a esta fase. Se trata del muro, cuya interpretación se nos antoja difícil de determinar en estos momentos. Su situación estratigráfica, respecto a las estructuras adscritas al periodo anterior, nos permiten situarla con posterioridad a la fase 1.

Aldi honi begira darabilgun kronologiari dagokionez, babesteko espazioa handitzeko betegarrian berreskuratutako bi txanpon dauzkagu. Txanpon hauek artean aztertzen ari badira ere, Fernando IV.aren agintaldiko (1295-1312) bi pepion direla aurreratuko dugu. Beraz, XIII. mendearen bigarren erdialdean kokatu behar dugu aldi hau.

3. aldia. 1. nekropolia (XIII.-XIV. mendeak)

Aurreko kanpainetan bildutako datuek erakusten duten bezala, gailur honetan hilerri erabilera bizi izan zen une batean. Identifikatutako hilobien tipologia aniztasunak, zenduak uzteko norabide ezberdinek, hilobietako ostilamenduek eta beste batzuek aukera emango digute, ikerketa programa amaitutakoan, balorazio eta interpretazio zehatzagoak eskaintzeko.

Bestalde, hilerriaren mendebaldeko itxitura horma identifikatu ahal izan genuen. Egitura hau harresiaren paraleloan luzatzen da, eta hainbat ehorzketen burualdeko muga eratzen du. Zalantzak zalantza, guk uste dugu proiektu bat abiarazi zutela hilerriaren espazioa mugatzeko xedean.

Nolanahi ere den, hegoaldeko atariko esku-hartzea amaitu eta aurreko kanpainetan lortutako datuak aztertu eta gero, hilerriaren irudi orokorra eskaintzeko moduan egongo garela uste dugu.

Aldi honetako kronologiari dagokionez, oraindik ez ditugu behin-betiko datuak, oraindik aztertzen ari gara datuak. Hala eta guztiz ere, aurreko kanpainetan lortutako datuak kontuan izanik, guk uste dugu XIII. eta XIV. mende bitartean kokatu behar dugula hilerriaren aldi hau.

4. aldia. 1. nekropoliaren amortizazioa (XIV.-XV. mendeak)

1. nekropolia amortizatu zuten unearen identifikazioa da eskain dezakegun interpretazio nagusia. Hilerriaren perimetro osoa biltzen duten hainbat depositutan erregistratu da abandonatzea, batez ere 4000 sektorean, alde honetan agerian geratu baitzen hilerria modu jarraituan erabiltzeari utzi ziotela. 5000 sektorean ere arestian deskribatutako hilerriko hilobiak estaltzen dituen maila bat identifikatu genuen. Geruza honek, 4000 sektorean bezala, hilerriaren espazioa abandonatu zuten unea zehazten du.

Aldi hau zehazteko darabilgun kronologiari dagokionez, esan dezagun une honetan 2011ko kanpainan bildutako datuak ari garela aztertzen, eta beraz oraindik ez dugula ongi kontrastatutako informaziorik. Hala eta guztiz ere, lehendik egindako indusketa lanetatik lortutako datuak eskutan, aldi hau XIV. eta XV. mende bitartera mugatu dezakegu kronologikoki.

5. aldia. 2. nekropolia. Gailurrean lurperatutako azkenak (XV. eta XVI.-XVII. mendeak)

Aldiaren izenak dioen bezala, gailurrean lurperatutako azken gizakiak identifikatu genituen. Eskura ditugun datuen arabera, XV. mende amaieratik eta

En cuanto a la cronología que barajamos para esta fase, disponemos de dos monedas recuperadas en el relleno de ampliación del espacio defensivo. Dichas monedas, a falta de confirmación en el estudio numismático que se encuentra en proceso, corresponden a dos pepiones de Fernando IV (1295-1312). Así, en estos momentos podemos situar la segunda mitad del siglo XIII para delimitar esta fase.

Fase 3. Necrópolis 1. (s. XIII-XIV)

Tal y como los datos exhumados en las diferentes campañas precedentes nos han demostrado, existe un momento de una intensa actividad cementerial en la cumbre. La variedad de tipologías sepulcrales identificadas, la variedad en la orientación del difunto, el ajuar sepulcral, etc. nos permitirá establecer valoraciones e interpretaciones más pormenorizadas tras la conclusión del programa de investigación.

Por otro lado, hemos podido identificar el muro de cierre occidental del camposanto. Dicha estructura, dispuesta paralelamente a la muralla y acomodada como límite de cabecera en varias inhumaciones, nos permite interpretar, no sin la consiguiente cautela, que se había planeado un proyecto para demarcar un espacio cementerial.

No obstante, esperamos tener una imagen global del camposanto tras la intervención en el pórtico meridional y tras el análisis de los datos exhumados en campañas precedentes.

Respecto a la cronología atribuible a esta fase, no disponemos de los datos definitivos, ya que continuamos con el proceso de estudio. Sin embargo, con la información rescatada hasta la fecha en campañas anteriores, podemos adscribir esta fase cementerial entre los siglos XIII-XIV.

Fase 4. Amortización de la necrópolis 1. (s. XIV-XV)

La principal interpretación que podemos aportar es la identificación del momento de amortización de la necrópolis 1. El abandono se ha registrado en varios depósitos que englobaban todo el perímetro del cementerio, principalmente en el sector 4000, evidenciando el cese del uso continuado del camposanto. Por otro lado en el sector 5000, también se ha reconocido un nivel cubriendo las sepulturas asociadas al camposanto anteriormente descrito. Dicho estrato, al igual que ocurre en el sector 4000, marca el momento de abandono del espacio cementerial.

Respecto a la cronología que barajamos para establecer esta fase, en estos momentos continuamos analizando la documentación rescatada en la campaña 2011, por lo tanto no disponemos de información contrastada. Sin embargo, con los datos que disponemos de excavaciones precedentes, podemos acotar cronológicamente esta fase entre los siglo XIV-XV.

Fase 5. Necrópolis 2. Últimos enterramientos en la cumbre (s. XV, XVI- XVII)

Tal y como el nombre de la fase indica, se han identificado los últimos individuos enterrados en la cumbre. Con los datos que disponemos podemos

XV. mendetik hurrengo mendearen erdialdera arte, zehazki 1660. urtera arte, luzatzen den epean kokatu behar dugu aldi hau. Iturri idatzien arabera aipatu datan tenplu honek utzi egin zion elizateko parrokia eliza izateari baseliza bihurtzeko. Une honetan Elexaldeko San Migel eliza bihurtu zen otoitz egiteko tenplu nagusi. 1560. urtean hasi ziren tenplu hau eraikitzen, baina hurrengo mendean amaituko zituzten eraikuntza lanak.

6. aldia. Obra modernoak (XX. m.)

Gailurra egokitzeko balio izan zuen obra moderno sorta baten berri ematen digute aldi honetan erregistratutako datuek. Tximistorratzaren egitura lurperatzeko erretena identifikatu genuen. Bestalde ebaki bat dokumentatu genuen, guk uste dugu baselizan egindako berritze lanen batekin duela zerikusia hark. Bukatzeko, 5000 sektorean erregistratutako betegarriek agerian uzten dute gailurreko alde hau berdintzeko eta goiko partearen, baselizari leku egiten dion partearen, eta ekialdearen artean dagoen aldea ezerezean uzteko lan egin zutela.

Bildutako datuen argitara esan dezagun aldi honetan ingurua eta baseliza txukuntzeko obra txiki batzuk egin zituztela aldi honetan. Aldi hau XX. mendearen bigarren erdialdean kokatuko dugu kronologikoki. Badugu baselizan burura eramandako lan baten berri ematen digun erreferentzia bat. Lehergailu batek suntsitu zuen tenplua 1978ko martxoaren 23an, eta lau urte geroago berreraiki zuten Ereñozarreko San Migel Lagun Elkarteko kideek.

atribuir esta fase a un periodo que va desde finales de los siglos XV-XVI hasta mediados de la centuria siguiente, concretamente 1660. Fecha en la que la documentación nos informa de que el templo deja de ser la iglesia parroquial de la anteiglesia para convertirse en ermita. En ese momento, la iglesia de San Miguel de Elexalde pasa a ser el nuevo centro de culto. Dicho templo, empezó a construirse en 1560, aunque no fue hasta la centuria siguiente cuando se dieron por finalizadas las obras.

Fase 6. Obras modernas (s. XX)

Los datos registrados en esta fase dan cuenta de una serie de obras modernas que sirven para adecuar la cumbre. Se ha identificado la zanja para enterrar la estructura del pararrayos. Por otro lado hemos localizado un corte, cuya función entendemos que pudiera estar asociada con alguna reforma en la ermita. Finalmente los rellenos registrados en el sector 5000, nos indican que se produce una nivelación importante en esa zona de la cumbre para evitar el desnivel existente entre la parte alta, lugar donde se corona la ermita, y la parte oriental.

Con los datos exhumados podemos atribuir esta fase a obras menores destinadas a la adecuación del entorno y de la ermita. Fase que se puede situar cronológicamente en la segunda mitad del siglo XX. Concretamente, disponemos de una referencia que da cuenta de una obra ejecutada en la ermita. El templo fue destruido el 23 de marzo de 1978 por la colocación de un explosivo, siendo reconstruida cuatro años después por los miembros de la Hermandad de Amigos de San Miguel de Ereñozar.

M. Neira Zubieta

B.12. **FORUA**

B.12.1. **Foruko finkamendu erromatarra**

XXVIII. kanpaina
Zuzendaritza: Ana Martínez Salcedo
Finantziazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

B.12.1. **Asentamiento romano de Forua**

XXVIII Campaña
Dirección: Ana Martínez Salcedo
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

The work carried out during the 28th season aimed to excavate right out to the boundary defining structures 11 and 12. The results of the intervention enabled us to fulfil our proposed objective, determining the location of structure 11 and enabling us to confirm that its limits are located within sector III of the site. Furthermore, as regards structure 12, at least three areas were defined, one of which seems to be linked to the metallurgic activity involved in iron forging.

11. egituraren indusketa eta dokumentazio lanak

2008. urtean burura eramandako XXV. kanpainako indusketa lanetan zehar aurkitu genuen 11. egitura. Gerora, 2009. urtean burura eramandako XXVI. kanpainako zundaketei esker, hobe ezagutuko genituen haren ezaugarriak.

Los trabajos de excavación y documentación de la estructura 11

La estructura 11 fue localizada durante los trabajos de excavación de la XXV campaña llevada a cabo en el año 2008. Con posterioridad fue ampliándose el conocimiento sobre ella como resultado de los sondeos llevados a cabo en la XXVI campaña, en el año 2009.

Forua. 11. egitura.

Forua. Estructura 11.

Eraikin hau mugatzeko lanek aukera eman ziguten bederatzi esparru identifikatzeko, nola eraikinaren baitako barrutiak hala kanpoko espazioak bereizteko. Eraikin honen barneko espazioak eratuko zituzten 1., 2., 3., 4., 5. eta 8. esparruek eta kanpokoak 6., 7. eta 9. esparruek.

Garbiketa lanei esker agerian geratu ziren behera etorritako elementuak, egituraren hormetatik nahiz estalkitik etorritakoak –landu gabeko harriak eta hareharrizko harri xabalak, hurrenez hurren–. Barruti hauetako batzuk gela handiak dira, 50 metro koadro inguru dituzte 1. eta 2. barrutiek eta 100 metro koadrotik gora 5. barrutiak. Azken honetan, hegoaldean, zutikoak bermatzeko hainbat oinarri monolitikoen lerrokadura identifikatzen da. 3 barrutia, berriz, espazio angeluzuzena da, alboetan obrako oinarriak dituena, zegozkion zutikoei eustekoak haiek; halatan espazio arkupedun bat sortzen da, hego-ekialdeari begira, eraikinaren hegoaldeko mugak eratzen dituena.

Eraikinaren kanpoko espazioetan, iparraldean eta mendebaldean –6. eta 9. esparruak–, oso gutxi dira behera etorritako elementuak, edo ez dago horrelakorik. Biek elementu komun bat dute, drainatzeko erretena –576. UE–, 11. egituraren mendebaldeko eta iparraldeko hormen paraleloan luzatzen dena bera. Erreten hau muinoko geruza geologikoan ireki zuten, eta geruza hau, mendebaldeko kanpoko espazioan bederen –9. esparrua– buztintsua eta kolorez horia dela esan behar dugu. Oso ondo nabari dira ebakiaren mugak. Hormatik oin erromatar bateko tartera luzatzen da buztinetan induskatutako erretena. Gutxi gorabehera hiru oin zabal da estolda. Datozen kanpainetan elementu hau induskatuta haren mugei eta estratigrafiaren lodierari buruzko kontu guztiak argitu ahal izango ditugu.

Las tareas encaminadas a la delimitación de este edificio permitieron identificar nueve ambientes, tanto recintos interiores como áreas externas inmediatas a él. Los ambientes 1, 2, 3, 4, 5 y 8 formarían parte de los espacios internos de esta construcción, los ambientes 6, 7 y 9 se corresponden con áreas externas.

Las labores de limpieza pusieron en evidencia la presencia de elementos derrumbados procedentes tanto de las paredes como de la cubierta de la estructura –mampuestos y lajas de arenisca, respectivamente–. Algunos de estos recintos se manifiestan como amplias estancias cuyas dimensiones se sitúan en torno a los 50 metros cuadrados en el caso de los ambientes 1 y 2 y en más de 100 metros cuadrados por lo que respecta al ambiente 5. Este recinto muestra en su lado meridional la alineación de varios basamentos monolíticos para el asiento de pies derechos. Por su parte el ambiente 3 se identifica con un espacio rectangular flanqueado por tres basamentos de obra, destinados a la sujeción de sus respectivos pies derechos, creando un espacio porticado orientado hacia el sureste que marca los límites meridionales del edificio.

Los espacios externos inmediatos a la construcción, por sus lados norte y oeste –ambientes 6 y 9– se caracterizan por la escasa o nula presencia en ellos de elementos derrumbados. Ambos comparten un elemento común, una zanja de drenaje –UE 576– que transcurre de forma paralela a los muros oeste y norte de la estructura 11. La zanja fue abierta en el sustrato geológico de la colina que, en el caso del área externa occidental -ambiente 9- se manifiesta de naturaleza arcillosa y coloración amarillenta. Los límites del corte se perciben con nitidez. La zanja se abre en las arcillas a una distancia, con respecto al muro, de un pie romano. El colector tiene una anchura aproximada a tres pies. La excavación en próximas campañas de este elemento permitirá aclarar todos aquellos aspectos relativos tanto a sus límites como a su potencial estratigráfico.

12. egituraren indusketa eta dokumentazio lanak

2009. urteko XXVI. indusketa kanpainan zehar aurkitu genuen 12. egitura, eraikin independentea bera. Urte hartan eraikina iparraldetik ixten zuen horma atal garrantzitsu bat hauteman genuen. Hegoaldeari begira eta 11. egituraren mendebaldean dagoen eraikin honetan zazpi barruti bereizteko aukera eman digute aurtengo kanpainan zehar burura eramandako lanek. Ezin izan genituen guztiak ondo mugatu alde batetik eraikin hau aztarnategiko III. sektoreko indusketa eremuaren barneko zerbitzu eta zirkulaziorako mugetatik harantzago hedatzen delako eta, beste aldetik, hegoaldea partzialki txikituta eta suntsituta duelako.

11. egituran bezalaxe, barruti guztiak zeuden eraikinaren hormetatik eta estalkitik behera etorritako harriez beteta. Haietako batean, 1. barrutian, behera etorritako elementurik ez zegoen aldean, oinplano obaleko labe bat identifikatu genuen, finkamendu honetan identifikatutako burdina lantzeko beste labe batzuen antzekoa bera.

4. esparruan, egituraren iparraldean baina kanpoko aldean, egituraren iparraldeko hormaren paraleloan luzatzen zen drainatzeko erreten bat hauteman genuen zundaketa baten bidez.

11. eta 12. egituren arteko espazioan burura eramandako indusketa eta dokumentazio prozesuaren emaitzak

11. eta 12. egiturak zehazteko eta mugatzeko lanen aldi berean eraikin bien inguruak garbitu genituen, eraikin hauen kanpoko espazioei emandako erabilera zehazteko xedean.

Eraikin hauek ia erabat suntsituta daudela esan behar dugu. 11. eta 12. egiturak Bolialde auzo txikia osatzen duten baserrietatik gertu daudenez, oso litekeena da aipatu egituren desegitea eta baserrion eraikuntza estu lotuta egotea. Bestalde, jarduera honek aipatu bi eraikinetan eragindako suntsipena are handiagoa izango zen inguruko espazioak eratuko zuten elementuetan, eskuarki harri koskorrez, harri hautsiez eta eraikuntzarako zeramikez egindako zoladuretan, aipatu elementuak hauskorregiak baitira gisa honetako ekintza jasateko. Horrexegatik da zaila, ezinezkoa ez esatearren, aztergai dugun inguruan gisa honetako elementuak hautematea.

Aitzitik, agerian geratzen dira eraikin hauei lotutako beste osagai batzuk, esate baterako, 576. UEko drainatzeko erretena, geruza geologikoan induskatua, 11. egituraren kanpoko aldean.

Era berean, zulo baten moduko ebaki bat –683. UE– identifikatu ahal izan genuen argi eta garbi. Iparmendebalderantz luzatzen zen 11. eta 12. egituren arteko espazioan barrena, baina ez zirudien haiekin zuzeneko harremana zuenik.

Batez beste 1,80 metro zabal den egitura honek 0,60 metroko sakonera kontserbatzen du. Horma zeiharreko sekzioa du eta hondo laua, eta hondoaren er-

Los trabajos de excavación y documentación de la estructura 12

La estructura 12 fue localizada e identificada como un edificio independiente durante la XXVI campaña de excavación del año 2009. Fue detectado entonces un importante tramo del muro que cerraba la construcción por su lado norte. En este edificio, orientado al sur y situado al oeste de la estructura 11, los trabajos de la presente campaña han permitido individualizar siete ambientes. Su delimitación no ha podido llegar a completarse en todos los casos, debido, por un lado, a extenderse la construcción fuera de los límites establecidos como márgenes de circulación y servicio, dentro del área de excavación del sector III del yacimiento y, por otro, a encontrarse arrasada y destruida de manera parcial por su lado meridional.

Al igual que sucedía con la estructura 11 todos los recintos se encontraban invadidos por derrumbes procedentes de las paredes y la cubierta del edificio. En uno de ellos, el ambiente 1, en una zona libre de elementos derruidos fue identificado un horno de planta oval, similar a otros reconocidos en el poblado, destinados a la forja de hierro.

Por su parte en el ambiente 4, situado en el espacio inmediato exterior al norte de la estructura, fue detectada, mediante sondeo, la presencia de una zanja de drenaje que discurriría de forma paralela al muro norte de la estructura.

Los resultados del proceso de excavación y documentación en el espacio situado entre las estructuras 11 y 12

Junto a los trabajos destinados a definir y delimitar las estructuras 11 y 12 se fueron llevando a cabo tareas de limpieza, en las áreas circundantes de ambos edificios, con el fin de determinar el comportamiento de sus espacios exteriores.

El grado de arrasamiento de estas construcciones es elevado. La proximidad de las estructuras 11 y 12 a los caseríos que conforman el pequeño barrio de Bolialde invita a entender que el desmantelamiento de aquellas estuvo directamente relacionado con la creación de éstos. Por otro lado la acción devastadora que esta actividad produjo en las dos edificaciones tuvo que ser aún mayor en los elementos que configuraron los espacios de su entorno, por lo general pavimentos construidos a base de cantos, piedras fracturadas y cerámica de construcción, demasiado frágiles para soportar una acción de este tipo. Por ello resulta difícil cuando no imposible detectar elementos de estas características en el entorno que nos ocupa.

Sin embargo sí se manifiestan otros componentes asociados a estos edificios como sucede en el exterior de la estructura 11 con la zanja de drenaje UE 576 abierta en el sustrato geológico.

Del mismo modo pudo determinarse con claridad la presencia de un corte –UE 683– a modo de foso que en dirección noroeste- sureste se situaba en el espacio intermedio entre las estructuras 11 y 12 sin que parezca tener relación directa con ninguna de ellas.

Esta estructura cuya anchura media se sitúa en los 1,80 metros, conserva una profundidad de 0,60 metros. Tiene una sección de paredes oblicuas y su

dialdean gutxi gorabehera 0,30 metro zabal den erretentxoa. Egitura honek, ipar-mendebalderantz, gainditu egiten ditu indusketa eremuaren mugak, eta agian baita aztarnategiko III. sektoreari leku egiten dion lursailarenak ere. Hego-ekialdera, berriz, galdu egiten da aztarnategia oso nahasita dagoelako alde honetan, izan ere, desagertu egin dira erreten honen mugei leku egingo zieten goiko geruzak.

Hori bai, argi dago 11. eta 12. egiturekin inolako harremanik ez zuena. Haren kronologiari dagokionez, esan dezagun eraikin biak erretena eraiki ondorengoak direla. Eraikinok ez dute inolako harremanik erretenarekin, eta 12. egiturari dagokionez, 1. barrutiaren ekialdeko hormatik kontserbatu den atala erretenaren gainean egokitzen dela esan behar dugu.

Gure ustez herrixka honen aurreko okupazio aldi batean kokatu behar da erreten hau, agian leku honetan I. mendearen erdialdean egokitu ziren aurreneko biztanleen garaian. Haren baitan dauden geruzak induskatzeko prozesuan zehar argituko ditugu kontu hauek guztiak, eta lanerako hipotesi hau berretsiko edo gezurtatuko dugu.

fondo es plano intuyéndose en la parte central de su base un pequeño canalillo de unos 0,30 metros de anchura. El recorrido de este foso sobrepasa, hacia el noroeste, los límites del área de excavación y quizá también los de la finca que contiene el sector III del yacimiento. Hacia el sureste su recorrido se pierde ya que el grado de alteración del yacimiento ha hecho que los estratos superiores en los que deberían situarse los límites de esta zanja hayan desaparecido.

Una circunstancia que parece clara es su total desvinculación con las estructuras 11 y 12. Con respecto a su situación en el tiempo podemos afirmar que ambos edificios serían posteriores a su construcción. No guardan ninguna relación directa con ella y, en el caso de la estructura 12, la parte conservada del muro de cierre oriental del ambiente 1, se instalaría sobre su trazado.

En nuestra opinión este foso habría que ponerlo en relación con una fase anterior de ocupación del poblado, tal vez con el momento de instalación del primer contingente de población que se establece en este lugar, en torno a mediados del siglo I. Esperamos que el proceso de excavación de los estratos contenidos en su interior permitan precisar más al respecto y confirmar o desmentir esta hipótesis de trabajo.

A. Martínez Salcedo

B.13. **IBARRANGELU**

B.13.1. **Laida I eta II hondoratutako ontzi atalen ebaluazioa (Mundakako itsasadarra)**

Zuzendaritza: Mercedes Gómez Bravo
Finantziazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

B.13.1. **Evaluación de los pecios Laida I y II (Ría Mundaka)**

Dirección: Mercedes Gómez Bravo
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

At the bottom of the channel in the Urdaibai estuary, near Laida beach, the remains of two wooden vessels were uncovered. These remains were studied without moving the sediments. The wreck known as Laida I carried three canons and the keel, 23 ribs and the mast have all survived, along with part of the outer coating and the anchor. The remains of the wreck known as Laida II are almost totally covered by sand, although 28 ribs were identified along with various other structural elements of the vessel.

Aurrekariak

Orrialde hauetan azalduko dugun jarduera Julián Carlos Pérez Gonzálezek egindako jakinarazpen batean du abiapuntua, izan ere, aipatu hiritarrak zurezko ontzi baten hondakinak eta hiru kanoi aurkitu zituen, ausaz, Laidako hegoaldeko itsas hondoan. Honenbestez Bizkaiko Foru Aldundiak hondakinak aztertzeko eta ebaluatzeko agindu zigun aztarnategia baloratzeko eta hondakinak babesteko xedean hartu beharreko neurriak proposatzeko eta hondakinon azterketa integrala egiteko xedean burura eraman beharreko jarduerak zehazteko. Lanak 2011ko maiatzean eta ekainean eraman genituen burura.

Antecedentes

La actuación de la que damos cuenta en las siguientes páginas vino motivada por la comunicación de un particular –Julián Carlos Pérez González– sobre el hallazgo casual de los restos de una embarcación de madera y tres cañones en el fondo marino de la zona sur de Laida. Este hecho motivó que la Diputación Foral de Bizkaia nos encargase la realización de un estudio y evaluación de los restos a fin de valorar el yacimiento e informar tanto sobre las medidas a adoptar para preservar los restos, como de las actuaciones a realizar para acometer el estudio integral de los mismos. Los trabajos se llevaron a cabo durante los meses de mayo y junio de 2011.

Hondakin arkeologikoei leku egiten dien tokiaren ikuspegia.

Vista de la zona donde se encuentran los restos arqueológicos.

Lanen nondik norakoak

Azterketa honek agerian zeuden hondakinei buruzko ahalik eta datu gehien biltzea zuen xede. Beraz, ez genuen itsas hondoa nahasi, une hartan itsas hondoaren gainazalean ageri zirenak dokumentatu baizik ez genuen egin.

Ildo honetatik, esan dezagun hondakin hauek bokaletik gertu dagoen kanaleko aldean daudela, itsasgora eta itsasbeherako korronte biziak dauden aldean, eta ondorioz lanak izugarri zailak gertatu zirela, itsas hondoko hareak etenik gabe mugituta hondakin arkeologikoak hareaz estalita gertatzen baitira orain eta agerian geratzen baitira gero. Gainera, hareak harrotuta zeharo murrizten da alde honetan ikusteko gaitasuna.

Hasteko topografikoki kokatu genuen ontzia, eta horrek aukera eman zigun orain hondoratuta dagoen aldea azken urteetan duna batek estalita egon dela egiaztatzeko. Duna hau arian-arian zulatu du Arketas izeneko kanalak. Azterketa lan honetan neurtu egin ditugu hondakinak eta marraztu egin ditugu haien oinplanoak; itsas hondoarekiko zuen inklinazioa ezagutzeko xedean zehar ebaki bat egin eta elementu batzuk xehetasun osoz marraztu genituen. Nola itsas hondoan pausatutako elementu arkeologikoak hala haiek dokumentatzeko xedean burututako lanak argazkien eta bideoaren bidez dokumentatu genituen.

Aztarnategiaren neurriak ezagutzeko eta ontzi atalaren inguruan hari atxikiriko beste elementurik ba ote zegoen egiaztatzeko, sakabanaketaren plano bat osatu genuen hondakinetatik abiaturik; ondorioz beste zurezko ontzi baten hondakinak topatu genituen 16 metroko tartera, lehenengoarekin inolako loturarik ez zuena. Atal honetan ez gara aurkitutako hondakin berriak –aurrerantzean Laida II esango diogu– deskribatzen hasiko, ez gara haiek dokumentatzeko xedean burura eramandako lanen berri ematen hasiko, aurrerago atal berezia batean azalduko baititugu horiek guztiak.

Desarrollo de los trabajos

El objetivo del estudio consistía en la obtención de la mayor cantidad posible de datos sobre los restos visibles, razón por la que los trabajos no supusieron la remoción del fondo marino, limitándose a documentar lo que en ese momento afloraba en superficie.

En este sentido, es importante señalar que los restos se encuentran en una zona del canal próxima a la desembocadura, lo que provoca la existencia de fuertes corrientes de flujo y reflujo que, además de dificultar enormemente los trabajos, provocan continuos movimientos de arena en el lecho marino y, consecuentemente, que los restos arqueológicos se vean sometidos a constantes procesos de cubrición y vaciado de arena, además de otros como la falta de visibilidad, etc.

Los trabajos comenzaron con la situación topográfica del barco, lo que nos permitió comprobar que la zona ahora sumergida ha estado durante los últimos años cubierta por una duna, que ha ido siendo socavada paulatinamente por el canal de Arketas. Una parte importante de este estudio fue la toma de medidas y dibujo en planta de los restos; además, se hizo una sección transversal para conocer la inclinación sobre el fondo y dibujos en detalle de algunos elementos. Tanto los elementos arqueológicos depositados en el fondo, como los trabajos desarrollados para su documentación, fueron documentados mediante fotografía y vídeo.

A fin de conocer la extensión del yacimiento y comprobar si en el entorno del pecio había otros materiales asociados al mismo, realizamos una planimetría de dispersión a partir de los restos; el resultado fue la localización, a 16 metros de distancia, de los restos de otra embarcación de madera sin relación con la primera. No nos detendremos en este apartado en la descripción de los nuevos restos localizados, que en adelante denominaremos Laida II, ni en los trabajos realizados para su documentación, puesto que más adelante tendrán un capítulo específico.

Gila gainaren eta Laida I hondoratutako ontzi ataleko jobalten ikuspegi orokorra.

Vista general de la sobrequilla y las varengas del pecio Laida I.

Bukatzeko, metalak hautemateko gailu baten laguntzarekin miaketa elektromagnetiko bat eraman genuen burura aztarnategiaren inguruko zorupean metalezko beste elementurik –nagusiki kanoiak– ba ote zegoen jakiteko; eta bere garaian zundaketa batzuen xede izango diren elementu batzuk hauteman genituela esan behar dugu.

Laida I hondoratutako ontzi atala

Atal honetan deskribatuko ditugu Laida I ontzi atala osatzen duten elementuak, oraingoz zurezko egitura, hiru kanoi eta ingura bat.

Zurezko egitura

«Eskeleto» modura eraikitako ontzia da, zurezkoa. Gainazalean ikus daitekeen egitura 10 metro luze da gehienez eta gutxi gorabehera 4 metro zabal. Gila gaina kontserbatzen du, 7 metro luze eta 24-31 zentimetro zabal den zurezko pieza osoa. Haren gainean mastaren oina bermatzeko karlinga dago; ortoedroaren formako akatsa da (14 x 12 cm eta 7 cm sakon), iparraldean beste ortoedro txikiago batean (5 x 6 cm eta 3 cm sakon) handitzen dena. Gila gainaren beheko aldean forma angeluzuzenean zizelatutako akatsak, jobaltak ahokatzeko akatsak, ageri dira.

Gure ustez ababor den aldean lau angeluko sekzioa duten 23 jobalta kontserbatzen dira (9 eta 15 cm bitarte zabal eta 10 eta 15 cm bitarte garai), eta haietako batzuen azalean sekzio koadroko burdinazko iltzeen eta zurezko larakoen hondakinak identifikatzen dira; azken hauek alboetan ere ageri dira. Jobalten beheko aldean trapezoide itxurako hozka batzuk, groera deituak, bereizten dira; hauek ur geldiak kindurtzaren erdialdera bideratzeko eta ura xukatzeko balio zuten. Istribor aldean itxuraz 5 genol direnen goiko aldea ageri da, genolak bertikalean egokituta baitaude.

Por último, llevamos a cabo una prospección electromagnética con un detector de metales a fin de conocer si en el subsuelo del entorno del yacimiento se encontraban otros elementos metálicos –cañones, principalmente– asociados al mismo; el resultado fue la obtención de una serie de anomalías que en su momento serán objeto de catas de sondeo.

Pecio Laida I

Describiremos en este apartado los elementos que componen el pecio Laida I, que hasta el momento son la estructura de madera, tres cañones y un ancla.

Estructura de madera

Se trata de una embarcación de madera construida «a esqueleto», cuya estructura visible en superficie tiene una longitud máxima de 10 metros y una anchura de 4 metros aproximadamente. Conserva la sobrequilla, que es una pieza de madera completa de 7 metros de longitud y una anchura de 24-31 cm. En la parte superior de ésta se encuentra la carlinga para apoyar el pie de mástil; se trata de una mortaja con forma de ortoedro (14 x 12 cm, y 7 cm de profundidad), que en su lado norte se agranda en otro ortoedro de menor tamaño (5 x 6, y 3 cm de profundidad). La parte inferior de la sobrequilla presenta unas mortajas talladas de forma rectangular para encajar las varengas.

En la banda que hemos considerado de babor se conservan 23 varengas de sección cuadrangular (anchura de 9 a 15 cm., altura de 10 a 15 cm.), en la superficie de algunas de las cuales se aprecian restos de clavos de hierro de sección cuadrada, así como cabillas de madera; estas últimas también aparecen en los laterales. Las varengas presentan unas entalladuras de forma trapezoidal en su parte inferior, llamadas groeras, que servían para que el agua estancada pudiera dirigirse al centro de la sentina y así facilitar su achique. En la zona de estribor asoma la parte superior de lo que parecen ser 5 genoles, dada su disposición vertical.

Ababorreko jobalten beheko aldean kanpoko estalkiaren parte bat kontserbatzen da. Estalkia gutxi gora-behera 30 cm zabal eta 5 cm lodi diren oholek osatuta dago. Ohol hauek elkarri «erabat» lotuta ageri dira zuakerretan sartutako metalezko iltzeen bidez.

Istriborrean barruko estalkiko gutxienez bi ohol kontserbatzen dira, elkarri erabat lotuta eta zuakerrean metalezko iltzetzarrekin iltzaturik. Lehenengo ohola 42 cm zabal da eta 5 cm lodi.

Hondoratutako ontzi atalean masta dirudienaren atala kontserbatzen da, gutxi gorabehera 21 cm-ko diametroarekin eta 2 metrotik gorako luzerarekin, ikus daitekeenaren arabera. Ia bertikalean dago, goiko aldetik puskatuta, eta alboetan bi akats ditu.

Kanoiak

Hondoratutako ontzi atalaren istriborrean burdinazko hiru kanoi ageri dira gila gainaren paraleloan egokituta, altuera ezberdinetan. Itxuraz osorik daude hiruak, hodia eta kaskabiloa kontserbatzen baitituzte; moldadura bina ageri dituzte mutur bietan. Neurriz antzekoak dira hiruak, gutxi gorabehera 2,10 metro luze dira guztira[54], hodiak gutxi gora behera 1,88 m luze. Sekzio zilindrikokoak dira kanoiaren alboko piezak, eta gutxi gorabehera 13 cm-ko diametroa dute. Ahoaren kanpoko diametroa 23 cm-koa da gutxi gorabehera, baina ezinezkoa da barruko diametroaren berri izatea, konkrezionaturik baitute erabat barruko alde hori.

Aingura

Gila gainaren iparraldean burdinazko aingura oso bat dago, itxuraz ontzitik berex, hareazko meta handiena eratzen den lekuan egonik ezinezkoa baita hura osorik ikustea. Arpeu motako aingura da, haren enborretik beso kurbadunak ateratzen dira, haietako bakoitzaren muturrean itxura triangeluarreko azazkala, ia hauteman ere egiten ez dena, pieza osoa erabat konkrezionatuta dagoelako. Enborraren beste muturra loditu egiten da segur asko uztaia kontserbatzen duelako.

Laida II hondoratutako ontzi atala

Laida I hondoratutako ontzia bezala, bokaleko kanalean daude ontzi honen hondakinak, eta beraz, arazo berberak izan genituen ur korronte biziak eta harearen mugimenduak tarteko.

Hondoratutako ontzi atal honen hondakinak aurkituta Laida I ontzi atala dokumentatzeko orduan aplikatutako jardueraren dinamika bera aplikatu genuen. Laida I ontziarekin gertatzen zen bezala, topografia lanek aukera eman ziguten hondakin hauei leku egiten dien aldea azken urteetan Laidako itsasbazterreko hareatzaren baitara biltzen zela egiaztatzeko. Itsas hondoaren gainazalean ikus zitezkeen elementu guztiekin plano orokor bat eta xehetasunez beteriko marrazkiak osatu genituen. Sakabanaketaren planoa osatzeko lanetan ustezko ohol bat, metalezko konkrezioekin, eta

[54] Pieza hauen guztien neurriak gutxi gorabeherakoak dira haien azalak itxuraldaturik eta loditurik daudelako metalaren oxidaziorik eratorritako konkrezioen ondorioz.

Por debajo de las varengas de la banda de babor se conserva parte del forro exterior, formado por tracas de unos 30 cm de anchura y 5 cm de grosor, que se unen entre sí «a tope» y por medio de clavos metálicos a las cuadernas.

En el costado de estribor se conservan al menos dos tracas del forro interior, unidas a tope, y sujetas con clavazón metálica a la varenga. La primera de estas tracas mide 42 cm de ancho y 5 cm de grosor.

En el pecio se conserva parte de lo que parece ser el mástil, con un diámetro de unos 21 cm y una largura visible de algo más de 2 metros. Aparece en posición semivertical, fracturado en su parte superior y presentando dos entalladuras laterales.

Cañones

En la banda de estribor del pecio se encuentran tres cañones de hierro dispuestos de forma paralela a la sobrequilla, en diferentes alturas. Los tres parecen estar completos, ya que conservan la lámpara y el cascabel; en cuanto a las molduras, presentan dos en su zona proximal y otras dos en la parte distal. Son de similar tamaño, con una longitud total de unos 2'10 metros1[54], y un largo de 1'88 m aproximadamente. Los muñones son de sección cilíndrica, y tienen un diámetro aproximado de 13 cm. El diámetro exterior de la boca es de unos 23 cm, mientras que es imposible conocer el diámetro interior debido a que permanece cerrado por la concreción.

Ancla

Al norte de la sobrequilla aparece un ancla de hierro completa y exenta aparentemente, ya que su ubicación en una de las zonas donde se produce mayor acumulación de arena no permite verla en su totalidad. Se trata de un ancla tipo rezón de cuya caña salen brazos curvos, cada uno de los cuales aparece rematado por una uña de forma triangular, que apenas se adivina, debido a que toda la pieza se encuentra muy concrecionada. El otro extremo de la caña se engrosa, seguramente debido a que conserva el arganeo.

Pecio Laida II

Los restos de esta embarcación se encuentran situados, al igual que el pecio Laida I, en el canal de desembocadura de la ría, por lo que presenta la misma problemática en cuanto a las fuertes corrientes y movimientos de arena.

Una vez localizados los restos de este pecio, se decidió seguir la misma dinámica de actuación aplicada en la documentación del pecio Laida I. Al igual que en éste, los trabajos de topografía permitieron conocer que la zona donde se ubica ha sido parte del arenal costero de Laida durante los últimos años. Se hizo una planimetría, consistente en la elaboración de un plano general de todos los elementos de la embarcación visibles en superficie, además de dibujos de detalle. La planimetría de dispersión tuvo como resultado la localización de una posible traca con concreción metálica y un tronco de madera con am-

[54] Todas las medidas relacionadas con estas piezas deben tomarse con cautela debido a las deformidades y engrosamiento que presenta la superficie de éstas como consecuencia de las concreciones derivadas de la oxidación del metal.

zurezko enbor bat, mutur biak lantzerka bikoitzean landuak, aurkitu genituen, eta guk uste dugu ontzi atalaren hondakinak direla biak ala biak. Miaketa elektromagnetikoan seinale ahul batzuk hauteman genituen, baliteke metalezko masa txikiak izatea, agian ontziko metalezko piezak, iltzeak eta gisakoak. Bukatzeko, argazkien eta bideoaren bidez dokumentatu genituen ontzi atalaren hondakinak eta ontzi honetan burura eramandako lanak.

Zurezko egitura

Zurezko egitura da, gainazalera soilik parte txiki bat ateratzen duena, hareatzak ia guztiz estalita baitago; gutxi gorabehera 12 x 2 metroko azalera hartzen du.

Eskeleto modura eraikitako zurezko ontziaren karelaren goiko atala da; gainazalean 28 zuakerren goiko partea baizik ez da agerian geratzen, eta beraz, ez dakigu lehenengo ala bigarren genoleko zuakerraren goiko parteko piezak diren ala ez. Neurri ederreko piezak dira, 16 eta 25 cm bitarte zabal eta batez beste 11-12 cm lodi. Muturretik gutxi gorabehera 32 cm-tara zuakerrek 20 cm luze den zirrikitua dute, segur asko luzeranzko sendogarriarena egingo zuten zerrendari leku egiteko. Zirrikitu horietako gehienen barruko aldean gutxi gorabehera 3 cm-ko zurezko larakoak kontserbatzen dira; hauek aipatu zerrenda zuakerrekin lotzeko eginkizuna beteko zuten.

Barruko luzeranzko egituratik habe etzana baizik ezin da ikusi. 15 cm lodi eta 28 cm zabal den pieza osoa da, zuakerrak batu eta egitura zeiharra bere luzeran sendotzen duena eta, aldi berean, ontziaren gainaldeari eutsiko zioten zutabeei eusten diena. Zutabeak bermatzeko eta elkartzeko koska edo akats batzuk ditu, 3 cm-ko diametroa duten larakoak; asko eta asko kontserbatu egiten direla esan behar dugu.

Kanpoko estalkia kontserbatzen du, oholak 4-4,5 cm bitarte lodi dira, eta oholak kanpoko aldetik iltzatuta daude.

Konklusioak

Laida hondartzako itsas hondoetan ontzi atal biren hondakinak kontserbatzen dira, ontzien artean 16 metroko tartea baizik ez dago; ontzi biak ur azaletik kontatzen hasita 1,9 metroko sakonera mailan daude, eta antzeko ezaugarriak dituen hondoan hartzen dute atseden.

Laida I hondoratutako ontzi atalaren kasuan esan dezagun hondoratu zenean gutxienez hiru kanoi garraiatzen zituen zurezko ontzia izan zela . Haize oihalen bidez bulkatutako ontzia zen kanoiak garraiatzen zituen hau.

Ontzi hau gutxi gorabehera 12-14 metro luze izango zen: askotariko erabilera izango zuen ontzia izango zen, atoi ontzia, itsasbazterreko trafikorako ontzia, arrantzontzia. Laida II hondoratutako ontzi atalari dagokionez, aurrekoa baino handiagoa den zurezko ontzia dela baizik ez dezakegu esan; itxura batean gainalde edo bizkarduna zen, baina ezer gutxiago esan dezakegu haren tipologiari buruz.

bos extremos tallados en doble bisel, elementos ambos que consideramos asociados a los restos del pecio. La prospección electromagnética dio como resultado abundantes señales de carácter débil, que pueden deberse a la presencia de pequeñas masas de metal, quizás correspondientes a piezas metálicas de la embarcación, como clavos, etc. Por último, se hizo una documentación fotográfica y videográfica de los restos del pecio, así como de los trabajos llevados a cabo en el mismo.

Estructura de madera

Se trata de una estructura de madera de la que solo asoma a superficie una pequeña parte, ya que se encuentra cubierta por la arena en su práctica totalidad, y que ocupa un área aproximada de 12 x 2 metros.

Nos encontramos ante la parte alta del costado de una embarcación de madera construida por el principio de esqueleto; en superficie se advierten 28 cuadernas, de las que únicamente se ve su parte superior, por lo que no podemos determinar si se trata de los barraganetes, del primer o segundo genol, etc. Se trata de piezas de considerable tamaño, con una anchura que oscila entre los 16 y 25 cm., y un grosor medio de 11-12 cm. A unos 32 cm de su extremo, las cuadernas presentan un rebaje de 20 cm de longitud, cuya finalidad es probablemente la colocación de una cinta como refuerzo longitudinal. En el interior de la mayoría de esos rebajes, se conservan cabillas de madera de unos 3 cm de diámetro, cuya función sería la unión de la cinta con las cuadernas.

De la estructura longitudinal interna solo es visible el durmiente, pieza enteriza de 15 cm de grosor y 28 cm de ancho, que ciñe las cuadernas y refuerza longitudinalmente la estructura transversal, sirviendo al mismo tiempo de apoyo a los baos que sujetarían la cubierta. Presenta a su vez unas mortajas que servirían de apoyo y unión a los baos, mediante unas cabillas de madera de 3 cm de diámetro, muchas de las cuales se conservan.

Conserva el forro exterior, que parece hacerse firme mediante clavazón desde el exterior, con un grosor de las tablas es de 4-4’5 cm.

Conclusiones

En los fondos marinos de la playa de Laida descansan los restos de dos pecios, separados entre sí por tan solo 16 metros; ambos barcos se encuentran a una profundidad de 1’9 metros respecto al 0 hidrográfico, y descansan en un fondo de características similares.

En el caso del pecio Laida I nos encontramos con una embarcación de madera que en el momento de su hundimiento trasportaba, al menos, tres cañones. La embarcación que transportaba los cañones era una nave propulsada a vela.

Calculamos que su eslora podría ser de 12-14 metros aproximadamente: un barco polivalente tanto para atoaje, como para cabotaje y pesca. Del pecio Laida II no se puede decir más que se trata de una embarcación de madera de mayores dimensiones que la anterior, supuestamente dotada de cubierta, no pudiendo precisar más acerca de su tipología.

B.14. KORTEZUBI

B.14.1. Santimamiñe leizea

VIII. kanpaina
Zuzendaritza: Juan Carlos López Quintana
Finantziazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

B.14.1. Cueva de Santimamiñe

VIII Campaña
Dirección: Juan Carlos López Quintana
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

The 8th season of archaeological excavations in Santimamiñe Cave focused on the Slnc level (upper late Magdalenian) in the area formed by the frontal strips 18, 19 and 20, and by the sagittal strips E, F, G, H, I and J. The intervention forms part of the larger excavation programme and multidisciplinary study of the site.

Santimamiñe leizeko VIII. indusketa kanpainan Slnc (azken Goi Madalen aldikoa) maila aztertu dugu 18., 19. eta 20. zerrenden eta E, F, G, H, I eta J zerrenda sagitalen arteko eremuan. 2007. urteaz geroztik aztarnategi hau bere luze-zabalean etenik gabe induskatzeko eta askotariko diziplinen arabera aztertzeko proiektuaren baitara biltzen da bertan garatutako esku-hartzea. 2011ko egutegian bi hilabete eman ditugu landa-lanetan eta beste bi laborategiko lan osagarrietan (sedimentuak igerian eduki, material arkeologikoa garbitu, sendotu, zigilatu eta zerrendara edo inbentariora jaso).

Slnc maila induskatzen hasi baino lehen Calm eta T4 unitate estratigrafikoak altxa behar izan genituen; hauek, leku jakin batzuetan, Arcp (Azil aldikoa) eta Slnc (azken Goi Madalen aldia) mailak bereizten dituzte.

– Atalka kontserbatzen den Calm unitate estratigrafikoa 20I eta 20J laukietan induskatu genuen; klastoak nagusi dira matrize buztintsuan-limotsuan, kolorez marroian. Hondar izaerako maila hau 2010. urteko kanpainan identifikatu genuen lehenengo aldiz, eta behin-behinean bada ere, Arcp baino Azil aldi zaharrago batean kokatzen dugu, baliteke GS-1 aldian edo M Hoyosen Kantauri aldeko IX. aldian osatu izana.

La VIIIª campaña de excavación arqueológica en la cueva de Santimamiñe se ha destinado al estudio del nivel Slnc (Magdaleniense superior final), en el área comprendida por las bandas frontales 18, 19 y 20, y por las sagitales E, F, G, H, I y J. La intervención forma parte del proyecto de excavación en extensión y estudio pluridisciplinar del yacimiento, en campañas continuas desde 2007. El calendario de 2011 ha ocupado 2 meses de trabajo de campo y otros dos de tareas complementarias de laboratorio (procesado de sedimentos, limpieza, consolidación, siglado e inventariado del material arqueológico).

Antes de comenzar con la excavación del nivel Slnc, fue necesario levantar las unidades estratigráficas Calm y T4, las cuales separan, localmente, los niveles Arcp (Aziliense) y Slnc (Magdaleniense superior final).

– La unidad estratigráfica Calm, conservada de manera fragmentaria, se excavó en los cuadros 20I y 20J, estando caracterizada por el predominio de los clastos sobre matriz arcillo-limosa de tonalidad marrón. Este nivel residual fue identificado por vez primera en la campaña de 2010 y ha sido asignado, de forma preliminar, a una fase aziliense más antigua que Arcp, encuadrable en el estadial GS-1 o fase Cantábrico IX de M. Hoyos.

Santimamiñe leizea. Indusketa eremuaren ikuspegi orokorra, H1-Slnc sutegi faziesa barne (18d taila erdia).

Cueva de Santimamiñe. Vista general del área de excavación, con la facies de hogar H1-Slnc (semitalla 18d).

– 18F eta 18G laukietara mugatzen da T4 geruza estalagmitikoa; 10 cm lodi da. 18G laukiko 8. eta 9. sektoreetan eta 18H laukiko 7. sektorean T4 geruzara luzatzen den gainazal apur bat karbonatua identifikatzen da Slnc eta Arcp mailak ukituz. Estratigrafian hartzen duen lekua eta Kantauri aldeko beste aztarnategi batzuetan (El Pendo, El Otero...) bereizitako mailekin duen parekotasuna kontuan izanik, T4 geruza estalagmitikoa eta arestian deskribatutako gainazal karbonatua M. Hoyosen araberako Kantauri aldeko VIII. aldian kokatzen ditugu (*c.* 11700-10800 BP), hots, Alleröd aldi arte polinikoan.

Slnc maila orokorraren baitan H1-Slnc sutegi faziesa induskatu dugu 2011ko kanpainan, azken Goi Madalen aldiko paketearen goiko aldean. Ateratako sedimentu guztiak igerian edukita prozesatu genituen. Azpi-unitate hau gehienez ere 12 cm lodi zen 17G laukian, erreferentziazko zundaketa estratigrafikoan induskatutako laukian (2005). 2011ko kanpainan 2,5 cm lodierako sei taila laurden altxa ditugu (18a-18f), eta artean altxa gabe dugu beheko atala. H1-Slnc faziesa sedimentu hareatsu-limotsuak osatua da, kolorez beltza, ertz biziko kareharrizko klasto askorekin, grabitazioaren eraginez behera etorritako klastoekin. 18e erdi-tailatik behera eta batez ere 18f tailan sedimentua gris eta trinkoago bihurtzen da (H1-Slgk). H1-Slnc luze-zabalean induskatuta (2011) 3,5 eta 4 metro bitarteko diametroa duen oinplano ia zirkularreko zuloa geratu zen agerian, erdi ipar-ekialdea leizearen barrura egiteko korridoreak ebakia. Errekuntzaren arrastoek eta material arkeologikoaren aberatsak, batez ere fauna hondakinen ugaritasunak, Santimamiñeko ezkaratzaren barruan ondo antolatutako eta mugatutako bizitoki aldea iradokitzen dute.

Santimamiñe leizeari buruzko lehenengo monografian (2011) jada argitaratutako datuetan oinarriturik, esan dezagun H1-Slnc dela sekuentzian aldi hotzena eta lehorrena, giza okupazio biziena izan zuen aldia dela. H1-Slnc sutegi faziesaren C14ren bidezko datazioak artean eskuratu gabe ditugun honetan (oraingoz H2-Slnc barruko faziesaren datazioa baizik ez dugu: 12790 ± 70 BP), guk M. Hoyosen Kantauri aldeko VII. aldiko bigarren atalean kokatzea proposatzen dugu (*c.* 12200 eta 11700 BP bitartean), hots. aldi hotzagoan eta lehorragoan. Lurraldeak eskaintzen dituen baliabide naturalak modu integralean aprobetxatzen zituen eredua baliatzen zuten ehiztari-biltzaileen okupazioa uzten du agerian Slnc maila orokorraren erregistroak. Jarduera zinegetikoa funtsean orein eta ahuntz taldeetan banatzen da, gutxiago ehizatzen zituzten orkatzak eta behiaren familiako abelburu handiak, eta izokinaren familiako arrainekin osatzen zuten bizigaiak eskuratzeko jarduera. Bizirauteko estrategien dibertsifikatze hau estu lotuta dago ustiatzeko lurraldeen murrizketarekin eta leizeko okupazio zikloen emendatzearekin.

– El horizonte estalagmítico T4 se circunscribe a los cuadros 18F y 18G y muestra un espesor de 10 cm. En los sectores 8 y 9 de 18G y en el sector 7 de 18H se ha reconocido una superficie ligeramente carbonatada que prolonga a T4 y coincide con el contacto de los niveles Slnc y Arcp. En base a su posición estratigráfica y al paralelismo con algunos yacimientos cantábricos (El Pendo, El Otero...), el horizonte estalagmítico T4 y la superficie carbonatada descrita se han atribuido a la fase Cantábrico VIII de M. Hoyos (*c.* 11700-10800 BP), correspondiente al interestadio polínico de Alleröd.

Dentro del nivel genérico Slnc, en la campaña de 2011 hemos excavado la facies de hogar H1-Slnc, correspondiente a la parte superior del paquete magdaleniense superior final, habiendo procesado por flotación la totalidad del sedimento extraído. Esta subunidad mostraba una potencia máxima de 12 cm en el cuadro 17G, excavado en el sondeo estratigráfico de referencia (2005). En 2011 se han levantado 6 cuartos de talla (18a-18f), de 2,5 cm de espesor, y todavía resta por excavar el tramo inferior. La facies H1-Slnc está caracterizada por un sedimento areno-limoso de intensa coloración negra, con una representación notable de clastos aristados de litología caliza, de aporte gravitacional. A partir de la semitalla 18e, y sobre todo en la 18f, el sedimento se torna grisáceo y más compacto (H1-Slgk). La excavación en extensión de H1-Slnc (2011) permite definir una cubeta de planta subcircular, de entre 3,5 y 4 metros de diámetro, cortada en su mitad nordeste por el pasillo de acceso al interior de la cueva. Las diversas evidencias de combustión y la riqueza del material arqueológico, especialmente los restos faunísticos, apuntan a un área de hábitat bien organizada y delimitada en la parte interior del vestíbulo de Santimamiñe.

En base a los datos ya publicados en la primera monografía de Santimamiñe (2011), H1-Slnc refiere la fase más fría y seca de la secuencia, siendo el episodio más intenso de ocupación humana. A falta de dataciones C14 para la facies de hogar H1-Slnc (por el momento, disponemos de una fecha para la facies inferior H2-Slnc: 12790 ± 70 BP), hemos propuesto su inclusión dentro de la segunda parte de la fase Cantábrico VII de M. Hoyos (entre *c.* 12200 y 11700 BP), caracterizada como más fría y seca. El registro del nivel genérico Slnc revela una ocupación de cazadores recolectores que practican un modelo orientado al aprovechamiento integral de los recursos naturales que ofrece el territorio. La actividad cinegética se reparte esencialmente entre los rebaños de ciervos y cabras, siendo más secundarias las capturas de corzos y grandes bóvidos, y se complementa con la pesca de salmónidos. Esta diversificación de las estrategias de subsistencia va asociada a una relativa reducción de los territorios de explotación y a una ampliación de los ciclos de ocupación de la cueva.

J.C. López Quintana; A. Guenaga Lizasu

B.14.2. **San Mames baselizaren inguruko nekropolia**

Zuzendaritza: Daniel Vallo Espinosa
Finantziazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

B.14.2. **Necrópolis en el entorno de la ermita de San Mamés**

Dirección: Daniel Vallo Espinosa
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

Continuation of the archaeological work carried out in San Mamés de Santimamiñe cemetery (Kortezubi).

Aurreko indusketa kanpainetan aztarnategi honetan dokumentatutako gainazaleko geruzak induskatu ditugu kanpaina honetan. Gainazaleko betegarriak induskatu ditugu 75 m^2-ko azaleran.

Induskatutako geruzetan material modernoak bereizi ditugu. Indusketa lanak Erdi Aroko eta antzinaroko mailetan eten genituen, datozen kanpainetan induskatuko baititugu horiek.

En esta campaña se realizó una intervención limitada a los estratos iniciales del yacimiento ya documentados en anteriores excavaciones procediendo a la excavación de los rellenos superficiales en una área de 75 m^2.

Los estratos excavados han dado materiales modernos deteniéndose la excavación en los niveles medievales y tardo antiguos que serán excavados en las próximas campañas.

D. Vallo Espinosa

B.15. **LEKEITIO**

B.15.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

B.15.1.1. **Beheko kalea, 10**

Zuzendaritza: Unai Aurrekoetxea Fernández
Finantziazioa: Lekezuma, C.B.

B.15.1.1. **Beheko kale, 10**

Dirección: Unai Aurrekoetxea Fernández
Financiación: Lekezuma, C.B.

Intervention revealing the occupation of this area from at least the 15th century onwards. Particularly worth highlighting are the indications of small-scale ironworking activities, as well as the constant problems caused by moisture and the natural flow of water, which required a number of different measures to be taken. Also, evidence was found of occupation during the Roman era, although unfortunately these remains were located in a secondary position.

Modu antolatuan eta planifikatuan sortu ez zen Lekeitioko Hirigune Historikoaren alde batean dago aztergai dugun orubea. Gerora barruti harresitura bilduko ziren aldiri aldean dago beraz. Agian horrexegatik da irregularra aztertutako orubea, ez baitio hiribilduetako orubeen formari, estuak eta luzeak, erantzuten. Trapezoide itxurako orubea da, eta gure esku-hartzeari ekin baino lehen bi eraikinek okupatuta zegoela esan behar dugu (A eraikina, mendebaldean, eta B eraikina, ekialdean). Eraikin hauexek dira birgaitzeko proiektuaren xede.

Hasteko, esan dezagun Lekeitioko Hiriaren Historia-Hirigintza Azterketaren[55] arabera tokiko aukera arkeologikoak handiak diren arren, ez dugula harresiarekin edo hiribilduko ingurabidearekin harremanetan jartzeko moduko aztarna bat bera ere identifikatu.

El solar a intervenir, se halla situado en una zona del Casco Histórico de Lekeitio, que no surgió de forma ordenada y planificada. Se trata más bien de una zona de arrabales que se integraron a posteriori dentro del recinto murado. Quizá a ello se deba la irregularidad del solar intervenido, que no guarda la traza típica de los solares villanos, estrechos y alargados. En concreto se trata de un solar de forma trapezoidal que en el momento de comenzar la intervención se hallaba ocupado por dos edificaciones (Edificio A, el situado al oeste, y edificio B, el situado al este). Estas edificaciones son las que el actual proyecto de obra pretende rehabilitar.

En primer lugar, nos gustaría destacar que, a pesar de las perspectivas arqueológicas subrayadas en el Estudio Histórico-Arqueológico de la villa de Lekeitio[55], no se ha documentado ningún indicio que pudiera ponerse en relación con la muralla o con el paso de ronda de la villa.

[55] Bengoetxea,B.,Cajigas,S.,Pereda.I.: «Lekeitioko Hiriaren Historia-Hirigintza Azterketa. (G.B.P.B.).» 1994ko abendua.

[55] Bengoetxea,B.,Cajigas,S.,Pereda.I.:"Estudio Histórico–Urbanístico de la Villa de Lekeitio. (P.E.R.I).» Diciembre de 1994.

Beheko kalea, 10.
A eraikineko
indusketa prozesua.

Beheko kale, 10.
Proceso de excavación
en el edificio A.

Hiria fundatu aurreko lehenengo herrixkako harresiak alde honetan behar zuen egile batzuen arabera. Hala eta guztiz ere, itxura guztien arabera lehen unean okupatu ez zuten aldean gaude, hau da, harresitik kanpora, egile batzuek «*Erdi Aroko aldiriak*» deitu duten aldean[56]. Aldiri hauek XIV. mendearen azken urteetan eta XV. mendearen lehen urteetan garatu ziren, geuk erradiokarbonoaren bidez[57] lortutako datazioetako batekin bat etorrita.

Lehen ere azaldu dugun bezala, depositu zehatz bat osatzen zuten zepetako ikatzetatik lortu genuen aipatu datazioa. Baliteke sutegi baten hondakinak izatea, ez baitirudi depositu honetako zepak alde honetan betegarri gisa baliatu zituztenik. Gainera ezaugarri bertsuko zepez osatutako beste depositu bat identifikatu genuen, eta beraz, orubeek hartzen duten espazioan ola bat izan zela iradokitzen digute biek. Jarduera hau, bestalde, oso arrunta zen harresiz kanpoko aldirietan.

Gerora hiribilduaren baitara bilduko zen espazio hau, 1503. urtetik aurrera eraiki zuten hirugarren harresiaren baitara.

Agian garai honetan kokatu beharko ditugu dokumentatutako horma atalak, A eraikina mugatzen dutenak. Esan dugun bezala, estekadura gotiko deitu teknika ezagunaren arabera eraikiak dira.

Seguru asko eraikin hauen jatorrian aurkitu behar dugu hiribilduko ohiko etxeen modura antolatuak ez egoteko azalpena, azken hauek, hiri berrian ondo

[56] Arizaga Bolumburu, B. Martínez Martínez, S.: *Atlas de Villas Medievales de Vasconia. Bizkaia*. Eusko Ikaskuntza, Donostia 2006. 247. or.

[57] Beta Analytic Radiocarbon dating laboratory: Laboratory number: Beta-301155. Conventional radiocarbon age: 500±30 BP. 2 Sigma calibrated results (95% probability): Cal AD 1400 to 1440 (Cal BP 550 to 510).

Según algunos autores, la cerca del primitivo núcleo prefundacional de la villa se desarrollaría por esta zona. Sin embargo, todo parece indicar que nos hallamos en una zona no ocupada en un primer momento, es decir, extramuros, en la zona a la que algunos autores han denominado como «*arrabales medievales"*[56]. El desarrollo de estos arrabales coincidiría con los últimos años del siglo XIV y los primeros del XV, fecha coincidente con una de las dataciones radiocarbónicas[57] obtenidas por nosotros.

Esta datación, como ya se ha explicado, se obtuvo de los carbones de las escorias que componían un depósito muy localizado, y que, pudiera tratarse de los restos de una fragua ya que no parece que las escorias pertenecientes a este depósito se hubieran establecido en el lugar como material de relleno. Además se ha localizado otro depósito de escorias de similares características que parecen testimoniar una actividad ferrona en el espacio ocupado por los solares, actividad, por otra parte, cuyo desarrollo en los arrabales extramuros no es ninguna salvedad.

Este espacio, se integraría dentro de la villa con posterioridad, con la tercera muralla levantada a tal efecto a partir de 1503.

Quizá en esta época tendremos que situar los paramentos documentados limitando en el edificio A que, como ya se ha señalado, se realizan con el denominado aparejo gótico.

Probablemente en el origen de estas edificaciones, levantadas en un solar perteneciente al arrabal medieval, tengamos la explicación de porque no es-

[56] Arizaga Bolumburu, B. Martínez Martínez, S.: *Atlas de Villas Medievales de Vasconia. Bizkaia*. Eusko Ikaskuntza, Donostia 2006. p. 247.

[57] Beta Analytic Radiocarbon dating laboratory: Laboratory number: Beta-301155. Conventional radiocarbon age: 500±30 BP. 2 Sigma calibrated results (95% probability): Cal AD 1400 to 1440 (Cal BP 550 to 510).

asko hauteman daitekeen bezala, orube luzeetan eta estuetan antolatuta baitaude.

Aipagarria da «El Campillo» lehen herrixkako orubeetan dokumentatutako maila geologikoei buruzko dokumentazioa. Maila geologiko honetan depositu buztintsua bereizten da, kolorez berdea, ikatz hondakin askorekin. Kolore berdeko buztin hauek zoru naturala berdintzeko depositu gisa baliatu zituztela ematen du. Hain zuzen ere depositu buztintsu honetan aurkitu genuen, fauna hondakin askorekin batean, Terra Sigillata moldeko zati bat.

Begien bistakoa dena da espazio honek, hasiera-hasieratik, ur isuri eta hezetasun arazoak jasan dituela. Kalbario mendiaren mazelan egonik, egungo Pascual Abaroa kaletik gertu, nola Kalbario mendian hala pareko mazeletan behera etortzen diren ur korronteek bat egiten duten lekuan, uren isuriak arazo handia izango ziren espazio bihurtzen dute honakoa.

Arazo hauei konponbide bat emateko saioa behar du izan esku-hartze honetan dokumentatutako erreten edo ubideen presentziak.

Laburbilduta, esan dezagun gutxienez XV. mende hasieran okupatutako espazioaren aurrean gaudela, eta harrez gero okupatuta egon dela orain arte. Zalantzarik gabe beste eraikin batzuk egongo ziren, edo berritu egingo zituzten zeudenak, baina zaila gertatu da haien arrastoren bat topatzea, 1854. urtean eraiki zuten etxeak zeharo nahasi baitzituen aztarnak oro.

tán organizados en el modo típico de la casa de la villa, en solares alargados y estrechos, cómo se puede apreciar en la zona de la puebla nueva.

Resulta interesante destacar la documentación sobre los niveles geológicos de un depósito arcilloso de color verduzco con abundantes restos de carbones que se ha documentado en solares al interior del núcleo primigenio del Campillo. Estas arcillas de coloración verdosa parecen utilizarse como depósitos para nivelar las desigualdades del terreno natural. Será en este depósito arcilloso donde se localizó, junto con abundantes restos de fauna, un fragmento de Terra Sigilata.

Lo que parece obvio serán los problemas de humedades y flujos de agua que ha sufrido este espacio desde su origen. Su posición, en las faldas del monte Calvario y en las cercanías de la actual calle Pascual Abaroa, donde confluían las aguas provenientes tanto del monte calvario como de las laderas opuestas, convierten a éste, en un espacio donde el paso de las aguas supondrían un importante problema.

A un intento de solucionar estos problemas debemos atribuir la presencia de las diferentes atarjeas que hemos documentado en la intervención.

En definitiva, se puede concluir diciendo que nos encontramos ante un espacio cuya ocupación se debe retrotraer hasta al menos inicios del siglo XV y que se ha mantenido ocupado desde entonces hasta la actualidad. Obviamente, se habrán sucedido diferentes edificaciones o reformas de las mismas, pero ha resultado bastante complicado rastrear las huellas de las mismas, ya que la construcción erigida en 1854 alteró profundamente estos vestigios.

U. Aurrekoetxea Fernández

B.16. **LEMOA**

B.16.1. **Arlanpe leizea**

V. kanpaina
Zuzendaritza: Joseba Rios Garaizar
Finantziazioa: Barandiaran Fundazioa; Bizkaiko Foru Aldundia; Lemoako Udala

B.16.1. **Cueva de Arlanpe**

V Campaña
Dirección: Joseba Rios Garaizar
Financiación: Fundación Barandiarán; Diputación Foral de Bizkaia; Ayuntamiento de Lemoa

The 2011 season of excavations aimed to continue the work initiated in 2008. This season two vital interventions were carried out to try and understand the site's stratigraphic dynamics, the relationship between the different areas excavated and the potential of certain levels excavated for the first time in 2010.

Bi eremutan, berex, ekin genion indusketa prozesuari. Sarrerako sektorean K21.2 eta K21.4 laukiak induskatu genituen 2010eko eta 2011ko uden bitartean behera etorritako ebakia berreskuratzeko xedean. Era berean J21.2, J21.4, K21.1 eta K21.3 laukietan sakontzen jarraitu genuen 2008an iritsitako gainazaletik behera aspaldiko

El proceso de excavación se acometió en dos áreas diferenciadas. En el sector de entrada se excavaron K21.2 y K21.4 para recuperar una caída de corte producida entre el verano de 2010 y el de 2011. También se profundizó en J21.2, J21.4, K21.1 y K21.3 a partir de la superficie alcanzada en 2008 para pro-

sekuentzian sakontzeko xedean (IV.-VIII. mailak), eta harri amaraino iritsi ginen. Erdiko sektorean J25 laukia eta J24 laukiko 1. eta 2. laurdenak induskatu genituen, baina bakar batean ere ez ginen sekuentziaren oinarrira iritsi. Guztira 6 maila arkeologiko bereizi genituen.

Hondoko sekuentziaren eta sarrerakoaren artean egon litezkeen harremanak ikertzeko xedearekin hasi ginen erdiko sektorean induskatzen. Hasieran soilik metro koadroko azalera altxatzea planteatu genuen, baina behera etorritako hareharrizko monolito bat azalduta, J25 laukiko 1. eta 2. koadranteetaraino iristen zena, beste metro erdia altxa behar izan genuen. Gainazaleko mailak induskatuta (1-3), zuloek nahasitako sedimentuzko masa batzuk hauteman genituen. Sedimentu hau berex induskatu genuen, eta lehorrean bahetu genuen.

Konplexua da berreskuratutako estratigrafiaren sekuentzia, eta zehazteke daude oraindik sedimentuaren ezaugarriak, baina gisa honetan laburbildu genitzake:

1. maila

Gutxi gorabehera 20 cm lodi da, eta kareharrizko klasto txikiez eta hareharrizko harri koskorrez osatua da, puntu batzuetan tramarik gabe eta sustraiekin. Gainazalean tumulu baten egitura du, lodiagoa K zerrendan eta meheagoa I zerrendako hormara hurbildu ahala. Tumuluaren mendebaldeko ertzean ipar-mendebalderantz eroritako hareharrizko monolito bat (88x20x20 cm) aurkitu genuen. Monolitoaren egokierak, tumuluaren egituraren bazterrean, neurri handiagoko klastoez inguraturik eta ekialdeko muturrean ziri-harri batekin, zedarri baten modura zoruan sartuta zut egon zela iradokitzen du. Zedarria atera, babestu eta laborategira eraman genuen, eta une honetan Arkeologi Museoan dago garbitzeko eta sendotzeko. Tumulua partzialki baizik ez genuen induskatu eta alderik lodiena induskatu gabe dago K zerrendaren azpian. Klastoek eratutako metaren azpian giza burezur baten zati bat aurkitu genuen, bekokia eta ezkerreko hezur parietala kontserbatzen dituena.

2. maila

Gutxi gorabehera 10 zentimetro lodi da, sedimentu hareatsuak osatua da, sedimentu birrinkorra, kolorez laranja larua karbonatoekin. Urria da material arkeologikoa, baina Goi Paleolitoko harrizko tresnak daude. Gutxi gorabehera 23.130 BP datazioa eskaini du hezur zati batek.

3. maila

Gutxi gorabehera 15 cm lodi da, eta hegoaldetik iparralderantz makurtzen da. Sedimentua hareatsua da, kolorez laranja, klasto gutxi batzuekin. Jariakin estalagmitiko mehea ageri du, oso nahasia oinean. Maila hau segur asko bat etorriko da hondoko sekuentziako D mailarekin.

4. maila

Gutxi gorabehera 10 zentimetro lodi da maila hau. Hegoaldetik iparralderantz makurtzen da apur batean. Limoek osatuta dago, kolorez marroi berdea, lurreko barraskiloekin. Maila hau segur asko bat etorriko da sarrerako VI. mailarekin.

fundizar en la secuencia antigua (niveles IV-VIII) alcanzándose la roca madre. En el sector central se excavó en J25 y en los cuadrantes 1 y 2 de J24. En ninguno se alcanzó la base de la secuencia y se exploraron un total de 6 niveles arqueológicos.

La excavación en el sector central se acometió con el objetivo principal de investigar las relaciones existentes entre la secuencia del fondo y la de la entrada. En un principio se planeó abrir sólo un metro cuadrado pero la aparición de un monolito caído de arenisca que se extendía hacia los cuadrantes 1 y 2 de J25 nos obligó a abrir medio metro más. A lo largo de la excavación de los niveles superficiales (1-3) se detectaron algunas masas de sedimento alterado por madrigueras. Este sedimento se excavó de manera individualizada y se cribó en seco.

La secuencia estratigráfica recuperada es compleja y aún está en fase de definición sedimentológica, pero puede resumirse de la siguiente manera:

Nivel 1

De unos 20 cm de espesor, formado por clastos calizos de pequeño tamaño y cantos de arenisca, con falta de trama en algunos puntos y raíces. Superficialmente su estructura es tumular, más espesa hacia la banda K y más afinada hacia la pared de la banda I. En el margen W del túmulo se ha localizado un monolito de arenisc a caído (88x20x20 cm) hacia el NW. La posición del monolito en el margen de la estructura tumular, flanqueado por algunos clastos de mayor tamaño y con un calce en el extremo situado al E, sugieren que estuvo hincado a modo de hito. El hito fue extraído, protegido y trasladado al laboratorio y actualmente se encuentra en el Arkeologi Museoa a espera de su limpieza y consolidación. El túmulo sólo fue excavado parcialmente y la parte más potente se encuentra sin excavar bajo la banda K. Bajo el montículo de clastos se localizó un fragmento de cráneo humano, que conservaba parte del frontal y del parietal izquierdo.

Nivel 2

De unos 10 centímetros de espesor, presenta un sedimento arenoso, friable, de color naranja pálido con carbonatos. El material arqueológico es escaso pero hay industria lítica propia del Paleolítico Superior. Se ha datado un fragmento de hueso en ca. 23.130 BP.

Nivel 3

Nivel de unos 15 cm de espesor, buza en dirección S-N. El sedimento es arenoso anaranjado, con escasos clastos. Presenta una colada estalagmítica fina y muy alterada en la base. Probablemente este nivel sea asimilable al nivel D de la secuencia del fondo.

Nivel 4

Nivel de unos 10 centímetros de espesor. Con cierto buzamiento S-N. Está compuesto por limos de color marrón verdoso con caracoles terrestres. Probablemente se corresponda con el nivel VI de la entrada.

5. maila

Gutxi gorabehera 10 zentimetro lodi da maila hau, sedimentua kolorez laranja da. Erabat nahasita dagoen zarakar estalagmitikoaren gainean egokitzen da.

6. maila

Sedimentu kolorez gorria, (hidro)oxido eta hainbat zentimetrotako hareharrizko harri koskor ugariez osatua, 5. mailako zarakarraren azpian egokitua. Maila hau segur asko bat etorriko da sarrerako VII. mailarekin eta hondoko E mailarekin.

Sarrerako sektorean 21. zerrendaren ekialdeko hormari atxikiriko sedimentuaren parte bat induskatu genuen. Ondorioz kareharrizko bloke bat geratu zen agerian, I. eta II. mailetako sedimentuek partzialki estalita. Blokearen alde labur batean Paleolito garaiko grabatu figuratibo sorta bat bereiz daiteke, artean aztertzeko eta interpretatzeko prozesuan dagoena.

2008an induskatutako azalera mailatik sakonduta, J21.2 eta 4, eta K21.1 eta 3 laukietan, egiaztatu egin genuen aurreko kanpainetan batez ere Solutre aldiko materialekin betetako zuloetako betegarria azaltzeko planteatutako hipotesia. Zehazki puntu honetan induskatutako metro koadroko azaleraren %60 hartzen zuen zulo bat induskatu genuen, eta haren barruan, kolapsatuta baitzegoen, harri xabal handiak sartu zituztela esan behar dugu.

Zuloak ukitzen ez zuen aldean eta haren azpian, V. eta VI. mailak induskatu ahal izan genituen. VI. mailaren oinean karbonatoek gogortutako sedimentuzko geruza bat identifikatu genuen. Ez zen zarakarra osatzera iristen, baina erdiko sektoreko 5. mailaren oinarriko zarakarraren ezaugarri bertsuak dituela esan behar dugu.

Haren azpian agerian geratu zen 2010ean dokumentatutako oineko sekuentzia antzu berdina. Kasu honetan, baina, VII. mailaren azpian beste maila antzu bat identifikatu ahal izan genuen, VIII.a, harri amaren gainean egokitua.

Lan hauekin amaitutzat ematen dugu 2006. urtean aztarnategi honetan abiarazitako indusketa prozesuaren lehen aldia. Oso interesgarriak izan dira indusketa aldi honetan lortutako emaitzak, aukera eman baitute Euskal Herriaren historiaurreko eta historiako garai ezezagun batzuk dokumentatzeko. Lehen Behe/Erdi Paleolito garaiko okupazioek harrizko tresnen eta fauna hondakinen multzo esanguratsua eskaini dute, eta hauek oso lagungarriak izango dira Kantauri aldeko lehenengo neanderthal taldeen bizimoduak interpretatzeko eta OIS6-5eko ingurumena ezaugarritzeko orduan. Goi Solutre aldiko okupazioak aukera ematen ari dira Solutre eta Madalen aldien artean gertatutako aldaketa prozesua hobe azaltzeko, garai hau hobe zehazteko modua eskainiko duten datazioak, harrizko lanabesak eta apaingarriak dokumentatu baitira. Bukatzeko, erromatarren azken garaiko aztarnek aukera emango digute Erromatar Inperioaren azken aldiko leize honetako okupazioen inguruan planteatzen diren arazoei erantzuteko eta, agian, egungo interpretazio ildoak ez bezalako hipotesiak planteatzeko.

Nivel 5

Sedimento de color naranja oscuro, de unos 10 centímetros de espesor, situado encima de una costra estalagmítica fuertemente alterada.

Nivel 6

Sedimento rojizo con abundantes (hidro)óxidos y cantos centimétricos de arenisca situado por debajo de la costra del nivel 5. Probablemente se corresponde con el nivel VII de la entrada y el nivel E del fondo.

En el sector de entrada se excavó parte del sedimento adherido a la pared E de la banda 21. Esto provocó la liberación de un bloque de caliza, parcialmente cubierto por sedimento de los niveles I y II, que presenta en uno de los lados cortos una serie de grabados figurativos, de cronología paleolítica, aún en proceso de estudio e interpretación.

La profundización a partir de la superficie excavada en 2008, en los cuadrantes J21.2 y 4, y en K21.1 y 3, nos permitió constatar la hipótesis de las madrigueras colapsadas que habíamos planteado en campañas anteriores para explicar el relleno de las madrigueras con materiales fundamentalmente solutrenses. Concretamente en este punto excavamos una madriguera que ocupaba un 60% del metro cuadrado excavado y en cuyo interior, al colapsarse, se habían hincado grandes lajas de piedra.

En la parte no afectada por la madriguera, y bajo ella, pudimos excavar los niveles V y VI. En la base del nivel VI se localizó una capa de sedimento endurecido por carbonatos que no llegaba a formar una costra propiamente dicha, con unas características similares a las de la costra de la base del nivel 5 del sector central.

Por debajo apareció la misma secuencia estéril de base recuperada en 2010, sólo que en este caso por debajo del nivel VII pudimos identificar otro nivel estéril VIII depositado sobre roca madre.

Con estos trabajos se ha dado por concluida la primera fase de excavación del yacimiento iniciada en 2006. Los resultados de esta fase de excavaciones han sido muy interesantes ya que han permitido documentar algunos periodos poco conocidos de la prehistoria y la historia vasca. Concretamente las ocupaciones del Paleolítico Inferior/Medio Antiguo han proporcionado un importante conjunto de industria lítica y de fauna que ayudará a la interpretación de las formas de vida de los primeros grupos de neandertales en el Cantábrico así como a la caracterización del medio ambiente del OIS6-5. Por otro lado las ocupaciones del Solutrense Superior están permitiendo mejorar la explicación mejor los procesos de cambio que se dan entre el Solutrense y el Magdaleniense, aportando dataciones, industria lítica, industria ósea y objetos de adorno que permitirán una mejor definición del periodo. Por último las ocupaciones Tardorromanas nos van a permitir abordar la problemática de las ocupaciones en cueva al final del Imperio Romano aportando tal vez hipótesis alternativas a las corrientes interpretativas actuales.

El ortostato 2 o base del menhir se encontraba caído junto a la fosa, habiendo permanecido *in situ* tras su desplome, acontecido con toda probabilidad en época prehistórica. La fosa (F-Bsn) muestra una planta subcuadrangular, de 1,10 m de lado por 0,70 m de profundidad, y aparece delimitada por una estructura de bloques horizontales, identificada por el momento en el sector NW de la excavación. Está excavada sobre la roca madre arenisca, habiendo identificado algunas huellas (muescas) del trabajo de excavación y fractura de la roca madre. El relleno de la fosa (F-Bsn) se componía esencialmente de bloques de arenisca, con frecuentes posiciones subverticales, sobre todo en su tramo inferior, y matriz arenosa de intensa tonalidad negruzca.

Tras informar de los resultados de esta actuación arqueológica al Gobierno Vasco, el monumento es calificado como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, por Decreto 25/2009, de 3 de febrero, del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

El proyecto de restauración y levantamiento del menhir (2011)

En 2010 se elabora el proyecto de restauración y levantamiento del menhir, que finalmente se materializa en mayo de 2011. Este proyecto es inspirado e impulsado por el entonces Jefe del Servicio de Conservación, Red Natura 2000 y Biodiversidad, Antonio Galera, y en él participa un equipo pluridisciplinar compuesto por J.C. López Quintana, A. Guenaga, P. Bueno y R. de Balbín (Arqueólogos), Oscar Bell (Arquitecto), Diana Pardo (Restauradora de la Diputación Foral de Araba), L.M.

Kurtzegango iruinarria lehengoratzeko eta zutik jartzeko prozesua.

Proceso de restauración e izado del menhir de Kurtzegan.

(Geologoa) eta Enviande S.L. (Eraikuntza), Petra S. Coop. (Zaharberritze lanak) eta Basalan S.A. (hesiak jartzeko eta ingurua egokitzeko lanak) enpresak.

2008. urteko erregistro arkeologikoan oinarritzen da iruinarria berriro ere zutik ipintzeko proiektuaren justifikazioa, hareharrizko bloke handi hau erauzia, landua eta garraiatua izan baitzen Kurtzegango lepoan zutik ipintzeko xedean; asmoa F-Bsn zuloan gauzatu zen, bertan ipini eta zutik egon baitzen artean zehaztu ez dugun epe batean. Honako gauek dira argudio hau egiaztatzen duten datuak: 1) 2. ortostatoaren kokalekua, iruinarriaren oina eta alderik handiena, zuloaren ondoan duela; 2) iruinarriaren oinaren neu-

Martínez Torres (geólogo) y las empresas Enviande S.L. (Construcción), Petra S. Coop. (Restauración) y Basalan S.A. (vallado y acondicionamiento del entorno).

El proyecto de reimplantación del menhir tiene su justificación esencial en el registro arqueológico de 2008, que certifica que este monumental bloque de arenisca fue extraído, labrado y transportado con el propósito de ser izado en el collado de Kurtzegan; y que dicho propósito se materializó en la fosa F-Bsn, donde fue implantado y donde se mantuvo de pie durante un tiempo no determinado. Los datos que prueban este argumento son: 1) la ubicación del ortostato 2, la base y parte más voluminosa del menhir, junto a la

rriaren eta zuloaren diametroaren arteko bat etortzea; eta 3) zuloko betegarriaren beheko aldean ia bertikalean ipinita dauden blokeak, iruinarriaren ziriarenak edo euskarriarenak egiten dituztenak. Lekukotasun arkeologiko hau izan ez bagenu, lan honetan esku hartzen ari den talde diziplina anitza ez zatekeen monumentua zutik ipintzeko planaren alde agertuko.

Iruinarria berriro ere zutik ipintzeko proiektuari aplikatutako beste irizpide garrantzitsua izan da F-Bsn zuloa kontserbazio egoera bikainean dagoen berezitasun handiko egitura arkeologikoa izatea, 2008. urteko esku-hartzean azaldu zen bezala kontserbatu beharra baitzegoen hura inolaz ere. Horrexegatik eraman dugu monolitoa zulotik 15 metrotara, hego eta hegoekialderantz, arkeologikoki antzua den lekura. Leku honetan ere eutsi egin zaio iruinarriaren jatorrizko norabideari, 2008ko lan arkeologikoetan ondo asko dokumentatutako norabideari.

Zaharberritzeko proiektua

Gure aurreneko bisitaldian zoruan etzanda zeuden hiru ortostato, eta haietatik bik (1. eta 2. ortostatoak) iruinarria osatzen zutela esan behar dugu. Hareharrizko material albiarra artean sendo ageri bazen ere, atmosferaren fenomenoek beren lana egina zuten, eta haietan halako higadura eta hareatzea hautemateaz gainera hainbat arrakala nabari ziren, gainazala xaflatan banatzen zela hostore moduan, xaflen artean tarte ez txikia gordez zenbaitetan eta materiala galduta besteetan. Logikoa denez, harrizko lehenengo geruzan ahuldadea eta kohesio falta eragin dituen kolonizazio biologikoko patinak estalita zeuden piezak.

Burura eraman beharreko zaharberritze prozesuen inguruan hartutako erabakiak betiere hartu dira kontuan izanik indarrean dagoen legeria (*Euskadiko Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legea, 1990eko uztailaren 3koa*) eta gaiari buruzko gutunak eta dokumentuak (*Krakoviako Gutuna, 2001; Harrizko Materialekin Jarduteko irizpideak*, Madril 2003), lotesleak ez izan arren gaia sakon ezagutzen duten eta gaiarekin harreman profesionala duten adituen taldeek idatziak direlako. Une honetan nagusi diren kontserbatzeko irizpideek, kultura ondare baten aurreko esku-hartzeari dagokionez, jatorrizkoa errespetatzea lehenesten dute, eta beraz, ahalik eta esku-hartze txikiena burutzea eta material bateragarriak erabiltzea, eta guk ahaleginak egin ditugu irizpide horiei eusteko Kurtzegango iruinarria kontserbatzeko lanetan. Horregatik beragatik, edozein prozesuri ekin baino lehen hausnarketa sakona egin genuen, kasu bakoitzean soluzio egokiena aplikatzeko xedean. Jarraian deskribatuko ditugun zaharberritze prozesu guztiak ondarea zaharberritzeko Petra S. Coop. enpresak burutuak dira.

Nahiz eta beti ez den patina biologikoa kentzeko erabakia hartzen, kasu honetan kendu egin genuen iruinarriaren arrastoak hobe identifikatzeko eta morteroen itsaspena ziurtatzeko xedean. Biozida aplikatu, leunki eskuilatu eta, xixta baten laguntzaz azkeneko hondakinak kendu edo atera genituen.

Iruinarria sendotzeko beharrezkotzat jo genuen arrakala eta laska guztiak ixtea kareorea eta kares-

fosa; 2) las medidas proporcionadas entre la base del menhir y el diámetro de la fosa; y 3) la presencia de bloques subverticales en la parte inferior del relleno de la fosa, utilizados como calces para la sujeción del menhir. Si hubiéramos carecido de este testimonio arqueológico, el equipo pluridisciplinar aquí implicado no hubiera apoyado el plan de izado del monumento.

Otro criterio importante aplicado al proyecto de reimplantación del menhir ha sido la valoración de la fosa F-Bsn como una estructura arqueológica de gran singularidad y excepcional estado de conservación, que debía ser preservada tal y como apareció en la intervención de 2008. Por ello, la ubicación del monolito se ha desplazado 15 metros al S-SE, en un punto determinado como estéril a nivel arqueológico. En este nuevo emplazamiento, se ha mantenido la orientación original del menhir, bien documentada en los trabajos arqueológicos de 2008.

El proyecto de restauración

En nuestra primera visita, se encontraban tumbados en el suelo tres ortostatos, dos de los cuales componían el menhir (ortostatos 1 y 2). A pesar de que el material pétreo, de piedra arenisca albiense, se mantenía consistente, su constante exposición a los fenómenos atmosféricos había hecho su trabajo y, además de cierta erosión y arenización, había numerosas fisuras, desplacaciones en hojaldre con bastante separación entre placas en algunos casos y pérdidas de material. Lógicamente, estaba cubierto de una pátina de colonización biológica que ha producido debilitamiento y falta de cohesión en el primer estrato de la piedra.

Las decisiones tomadas con respecto a los procesos de restauración a seguir han sido siempre teniendo en cuenta la legislación vigente (*Ley 7/1990, de 3 julio 1990, del Patrimonio Cultural Vasco)* y las cartas y documentos referidos al tema (*Carta de Cracovia*, 2001; *Criterios de Intervención en Materiales Pétreos*, Madrid 2003), las cuales, a pesar de no ser vinculantes, han sido elaboradas por grupos de especialistas profundamente conocedores del tema y profesionalmente relacionados con él. Los criterios de conservación genéricos que imperan actualmente, en lo que a la intervención sobre un bien cultural se refiere, son de respeto al original y, por tanto, mínima intervención y empleo de materiales compatibles; a los cuales hemos tratado de ser fieles en la intervención de conservación del menhir de Kurtzegan. Por ello, cualquiera de los procesos ha sido previamente reflexionado hasta elegir, en cada caso, la solución que se ha considerado más adecuada. Todos los procesos de restauración que a continuación describimos han sido realizados por la empresa de restauración de patrimonio Petra S. Coop.

Aunque no siempre se decide eliminar la pátina biológica, sí que se optó por ello en este caso, para poder apreciar mejor las huellas del menhir y asegurar la adhesión de los morteros. Se aplicó biocida, se fue cepillando suavemente y, con bisturí, se fueron quitando los últimos restos.

Para consolidar el menhir, se consideró prioritario el cerrado de todas las fisuras y lascas con inyección de

Kurtzegango iruinarriaren ikuspegia, lehengoratu eta zutik jarri ostean.

Vista del menhir de Kurtzegan, una vez restaurado y puesto en pie.

nea injektatuta; gisa honetan modu eraginkorrean sendotzen da, eta uraren nahiz lurraren sarrera galarazten da, lehenengoak, izozte-urtze zikloan zehar, eta bigarrenak, landareen sustraitzea errazten baitu, monumentua hondatzeko prozesuak bizkortu baitezakete, materiala ahultzen eta zatiak galarazten baituzte.

Kare hidrauliko naturala erabili genuen, kare naturalen artean erresistentzia handienekoa baita atmosferako agenteek eragiten duten degradazioaren aurrean. Kare hau Arabako Foru Aldundiaren Laborategi Nagusian aztertu da, Santa Maria Katedrala Fundazioak katedrala sendotzeko material egokiena eta hura aplikatzeko modua zein izan zitekeen aztertzeko xedean batzorde bat osatu eta kontu hau ikertzen hasi zirenean. Izan ere, aipatu Laborategiak proposatutako dosietan oinarritu dira lan honetan baliatutako kareoreak eta karesneak. Probak egin dira hainbat aridorekin, iruinarria osatzen duen hareharri albiarraren antzeko kolorea eta ehundura dituen kareorea erdietsi arte.

Zatiak barrutik batzeko, berriz, osagai biko erretxina epoxidikoa erabili genuen, hezetasunari ongi egiten baitio aurre, baita kare hidrauliko naturaleko karesnea ere, lehen ere esan dugun bezala, AFAren Laborategiak formulatua bera. Kareore hidraulikoaz eta karesneaz gainera, ondarea zaharberritzeko materialen azterketan adituak diren laborategiek aztertutako materialak izan dira baliatutako beste produktuak.

Lan prozesuak hainbat alditan banatu behar izan genituen: hasteko, irisgarria den aurpegian egin genuen lan, lurrak atera eta arrakalak zigilatu genituen; iruinarriari buelta eman eta gero, aipatu lanekin jarraitu

lechadas y morteros de cal; de este modo, se logra un eficaz trabajo de consolidación, se impide la entrada tanto de agua como de tierra, las cuales, durante el ciclo hielo-deshielo la primera, o el enraizamiento de vegetación la segunda, puedan acelerar procesos de degradación del monumento con el consiguiente debilitamiento del material y la pérdida de fragmentos.

La cal empleada fue la cal hidráulica natural, por ser, entre las cales naturales, la más resistente a la degradación producida por los agentes atmosféricos. Ésta ha sido analizada en el Laboratorio General de la Diputación Foral de Araba, investigación que comenzó al crear la Fundación Catedral Santa María una comisión que estudiase el material más adecuado para la consolidación de la catedral y su procedimiento de aplicación. De hecho, los diferentes morteros y lechadas empleados en este trabajo están basados en las dosificaciones propuestas por dicho Laboratorio. Se han realizado pruebas con diferentes áridos hasta conseguir un mortero de color y textura similar a la arenisca albiense que constituye el menhir.

En la unión interna de los fragmentos se empleó resina epoxídica de dos componentes, resistente a la humedad, y lechada de cal hidráulica natural, formulada, como ya hemos comentado, por el Laboratorio de la D.F.A. Además de las lechadas y morteros de cal hidráulica, el resto de productos empleados han sido materiales ya analizados por laboratorios especializados en el estudio de materiales para la restauración de patrimonio.

Ha sido preciso realizar los procesos de trabajo en diferentes fases: en primer lugar, se trabajó por la cara accesible, eliminando las acumulaciones de tierra y sellando las fisuras; tras dar la vuelta al menhir, se conti-

genuen ezkutuan egon zen aldean, eta zoruan etzanda zegoen ortostato handiaren zati biak itsatsi genituen; behin iruinarria altxa eta zutik ipini ondoren, ortostato biak itsatsi genituen karesne hidraulikoarekin, kareorez itxi genituen haustura guztiak, kareorezko azken zigilatzea egin genuen eta pieza mugitzean gerta zitezkeen kalteak konpondu genituen; eta, bukatzeko, monumentuaren bolumenak osatu genituen kareorez, bolumen falta hori kaltegarria izan baitzitekeen iruinarria egokiro kontserbatzeko, haietan ura metatu zitekeelako edo monumentuaren irakurketa orokorra zailtzen zutelako.

Alde honetako klimaren zorrotzak baldintzatuta egon zen lan hauek burura eramateko proiektua, klimak zaildu egiten baitu material batzuen funtzionamendua. Gainera ez da erraz iristen iruinarria dagoen lekuraino. Honenbestez ezinbestekoak izan ziren lanak *in situ* egin dituzten enpresen arteko koordinazio handia eta elkarlana.

Proiektu arkitektonikoa

Ez da egiteko erraza eraikitako ondarean esku-hartzea, areago milaka urte lehenago eraikitako elementua denean. Arkitekturaren ikuspuntutik, hainbat zatitan banatutako harrizko pieza bat berreraiki eta altxatu beharra genuen, eta honek haizearen bultzadatik eratorritako baldintza jakin batzuei egin behar zien aurre.

Ugari ziren piezak barrutik batzeko barren soluzioaren aurrean sortzen zitzaizkigun zalantzak, horien artean hainbat galdera garrantzitsu: monumentuaren barruan txertatutako barrek gure garaira arte iritsitako iruinarriak bezainbeste iraun dezakete? ba al dago epe luzera behin betikoak diren soluzioak ez baizik eta aukera itzulgarriak planteatzerik? Eta bukatzeko, iruinarriarekin berarekin bateragarriagoak diren materialak baliatuta gainditu dezakegu arazo hau?

Esku-hartzearen irizpide orokorrek material bateragarrien erabilera eta esku-hartzearen itzulgarritasun handiagoa lehenesten dute. Gisa honetan, behin zaharberrituta, multzoaren iraunkortasuna eta kalitatea bermatu nahi dira, betiere hura sortzeko eraikuntzaren eta arkitekturaren filosofia ahalik eta gutxien aldatuta.

Planteatutako arazoak gainditzeko eta aldi berean beste garaietako elementuetatik bereizteko modua eskaintzen duten egungo teknikak baliatuta eramaten dira burura lehengoratze lan hauek. Horrexegatik, hain zuzen, teknika tradizionalak erabiltzen dira gure garaian aplikatzen diren moduan: harri naturala zenbaki kontrolaren bidez programatutako xerretan moztua, pletinak brontzezkoak eta kare hidraulikoa naturala. Gainera kontserbazio egoera kaskarrean dauden elementu guztien estetika eta eraikuntza izaerako funtzioa berreskuratu nahi genituen, eta horiek garbitu, konpondu, sendotu eta finkatuko genituen, kasuak kasu.

Aukeratutako soluzioa

Hasteko, zati handi bitan puskatutako harrizko monumentu baten aurrean geunden. Baina bazen 2. or-

nuaron estos trabajos por la zona que había permanecido oculta y se pegaron los dos fragmentos del ortostato grande en el suelo; una vez levantado y colocado el menhir, se procedió al pegado de los ortostatos, introducción de lechada de cal hidráulica, cerrado de toda la rotura con morteros, último sellado con morteros y reparación de aquellos que podían haberse dañado durante el movimiento; y, para terminar, reconstrucción de volúmenes con mortero en aquellas zonas donde su falta, bien podría ser perjudicial para la conservación del menhir por ser zonas susceptibles de acumulación de agua, o bien dificultaba su lectura general.

Las condiciones para realizar estos trabajos han estado marcadas por la dureza del clima de la zona, lo cual complica el funcionamiento de algunos materiales, y la dificultad para llegar al lugar en que está ubicado el menhir. Esto ha hecho que fuera imprescindible una gran coordinación y colaboración entre las empresas que han realizado los trabajos *in situ*.

El proyecto arquitectónico

Abordar cualquier obra de intervención en el patrimonio edificado supone una tarea delicada, más si se trata de un elemento construido con varios miles de años de historia. Desde el punto de vista arquitectónico, nos encontrábamos ante la necesidad de reconstruir y levantar una pieza de cantería dividida en varios fragmentos, que tiene que hacer frente a unas solicitaciones importantes derivadas del empuje del viento.

Muchas eran las dudas que nos asaltaban respecto a soluciones con barras internas de unión, pero, entre ellas, varias preguntas importantes: ¿pueden durar las barras introducidas en el interior del monumento tanto como ha durado el menhir llegando hasta nosotros? ¿sería posible plantear soluciones menos definitivas a largo plazo y buscar alternativas más reversibles? Y por último, ¿podríamos resolver el problema utilizando materiales más compatibles con el propio menhir?

Los criterios generales de intervención están intrínsecamente relacionados con la utilización de materiales compatibles y la mayor reversibilidad de la actuación. De este modo, se pretende asegurar la durabilidad y calidad del conjunto una vez restaurado, tratando de alterar lo mínimo posible la filosofía constructiva y arquitectónica con la que fue concebido.

La rehabilitación se realiza mediante técnicas actuales que permiten resolver las problemáticas planteadas y, al mismo tiempo, dejan constancia y se diferencian de los elementos de otras épocas. Por ello, se emplean técnicas tradicionales aplicadas de manera contemporánea, como la piedra natural cortada en sierras programadas por control numérico, las pletinas de bronce o la cal hidráulica natural. Finalmente, se pretende recuperar la función estética y constructiva de todos aquellos elementos que se encuentren en un estado de conservación insuficiente, limpiándolos, reparándolos, consolidándolos y afianzándolos, según sea el caso.

Solución adoptada

Por un lado, nos encontrábamos ante un monumento de piedra fracturado en dos grandes partes, además

tostatoaren edo iruinarriaren erdiko-beheko aldearen bolumena osatuko zuen beste zati txikiago bat. Piezak zoruaren gainean eta horizontalean etzanda zeuden, agerian zegoen arrazoiren batengatik, segur asko lepo honetan jotzen duen haize zakarrak larriturik, iruinarria behera etorri eta erortzean hautsi egin zela. Susmoak baizik ez daitezke izan, baina planteatu beharreko eraikuntza soluzioak bi premisa nagusi hartu behar zituen kontuan: behin iruinarria zutik ipini eta gero haren erortzea saihestu beharra zegoen, eta neurri handieneko pieza bien arteko elkartzea bermatu beharra zegoen harria bera epe ertainean eta luzean nahasi gabe.

Bestalde, prozesu osoa baldintzatzen zuen beste kontu bat zen Orozkotik iruinarriraino iristeko bide luzea eta zaila. Gainera, alde hau guztia agerian egonik, haize bolada zakarrek eten gabe jotzen dute, eta lan egiteko baldintzak zailtzen. Gutxienera eraman behar genuen Kurtzegango lanen iraupena, eta beraz, tailerrean lan gehiago egitea eta *in situ* muntatze lan azkarragoa egitea erraztuko zuten soluzioak planteatu genituen.

Harrizko eraztuna

Iruinarria behera ez etortzeko beheratu egin genuen multzoaren grabitate zentroa, xede horretarako nahikoa pisua zuen zimentarri berri bat egokitu genuen. Zimentarriak hartuko zuen eremua metodologia arkeologikoa aplikatuta induskatu genuela esan behar dugu. Berretsi egin zen monumentuaren kokaleku berrian egitura edota material arkeologikorik ez zegoena.

Harri naturala material egokia da eta erabat bateragarria kateatu baten modura funtzionatzen duen harrizko eraztuna sortzeko. Hau da, katearen mailek edo begiek norabide guztietatik tiratzeko ahalmen handia dute, haietakoren bat hausten ez den bitartean, horretan datza katearen funtsa. Ideia berari eutsita, piezen arteko elkartze geometrikoek kate begien antzera edo, hobe esanda, arku kurbatu itxi baten gisara funtzionatzeko moduko soluzioa diseinatu genuen. Honenbestez 5 mm lodierako brontzezko pletinak erabili genituen kateatuko 12 piezak batzeko. Material harikorra eta iraunkorra da brontzea, formaz aldatu egingo dena harrian tentsio handiegirik sorrarazi gabe. Iruinarria eraztunaren barruko perimetroaren erdialdean paratu behar zen, hari eusteko jatorrizko ziri harriarekin batean, eta harri hauen eta kateatuaren arteko hutsunea *NHL-5* kare hidrauliko naturaleko hormigoiz bete genuen geroago, iruinarriaren atal lurrean sartua geotextil batez babestu ostean. Jatorrian lurrean 85 cm-tan sartzen bazen ere, iruinarria 120 cm-tan sakondu beharra zegoen egonkor geratzeko. Gainera, kateatuaren eta hormigoiaren artean 10 tona baino gehiagoko materiala sartuta, grabitate zentro berria azpiko oinetik kontatzen hasita 90 cm-ko altueran geratzen zen, hau da 0 kotatik behera geratzen zen, eta beraz, ez zituen alde honetan orduko 100 km-ko abiadura erraz hartzen duten haizeen bultzadaren eraginak nabarituko.

Metalezko eraztuna

Pieza nagusi biak (1. eta 2. ortostatoak) batzeko garaian bi arrazoirengatik saihestu genuen bien artean eta barrutik metalezko barrak sartzea. Hasteko, altzaide otro fragmento menor, que completaría el volumen del ortostato 2 o parte meso-inferior del menhir. El hecho de que las piezas se encontrasen en posición horizontal sobre el suelo era una evidencia clara de que por algún motivo, posiblemente agravado por el fuerte viento del collado, el menhir había volcado, rompiéndose en la caída. Pueden ser tan solo conjeturas, pero la solución constructiva a plantear pasaba inevitablemente por dos premisas principales: evitar que se produzca el vuelco una vez izado de nuevo el menhir y garantizar una unión entre las dos piezas de mayores dimensiones, sin alterar la propia piedra a medio-largo plazo.

Por otro lado, uno de los condicionantes principales de todo el proceso consistía en el complicado y largo acceso al menhir desde Orozko. Además, debido a lo expuesto de la zona, los vientos son constantes y fuertes, creando unas condiciones de trabajo un tanto desagradables. Teníamos que minimizar el tiempo de trabajo en Kurtzegan, planteando soluciones que implicaran más preparación en taller y un montaje rápido *in situ*.

El encadenado de cantería

La solución planteada para evitar el vuelco ha consistido en bajar el centro de gravedad del conjunto, con la introducción de una nueva cimentación de peso suficiente para este fin. Subrayar que la excavación del área de cimentación se hizo aplicando la metodología arqueológica, confirmando la ausencia de estructuras y/o materiales arqueológicos en la nueva ubicación del monumento.

La piedra natural es un material idóneo y perfectamente compatible con el que se crea un anillo pétreo que funcione como un encadenado. Es decir, una cadena se basa en que la unión de sus eslabones permite tener una gran capacidad a tracción en todas las direcciones siempre y cuando no se produzca la rotura de alguno de ellos. Con la misma idea, se ha diseñado una solución para que las uniones geométricas entre las piezas funcionen de la misma manera que los eslabones de la cadena, o mejor dicho como un arco curvo cerrado. De este modo, la solución final pasa por la utilización de pletinas de bronce de 5 mm de espesor para unir las 12 piezas del encadenado. El bronce es un material dúctil y duradero, que se deformará sin generar tensiones excesivas en la piedra. El menhir se debía colocar en el centro del perímetro interior del anillo, junto con la pieza original de estabilización, y el hueco entre estas piedras y el encadenado se rellenaron posteriormente con hormigón de cal hidráulica natural *NHL-5*, previa protección de la parte empotrada del menhir con un geotextil. A diferencia de la solución de empotramiento original, de unos 85 cm, el menhir debía empotrarse para ganar estabilidad unos 120 cm. Además, el nuevo centro de gravedad, con la introducción de algo más de 10 tn de peso entre el encadenado y el hormigón, se situaba a unos 90 cm de la base inferior, lo que significa que queda por debajo de la cota 0 y sin influencia del empuje del viento que con facilidad puede alcanzar los 100 km/h en esta zona.

El anillo metálico

Para la unión de las dos piezas principales (ortostatos 1 y 2), se ha evitado la introducción de barras metálicas interiores entre ambas, por dos moti-

ru herdoilezina izan arren, metalezko barra batek beti izango du denboraren joanean herdoiltzeko joera. Eta bigarrenik, pieza bien batasun puntuaren zeharkako sekzio txikiak tentsio handiak jasango lituzke, barrak inguratuko lituzketen harrizko paretek berek nekez jasango lituzketenak. Gainera soluzio oldarkorragoa eta ez hain itzulgarria planteatzen zuen barrak sartzeko aukerak, zulatu egin behar baitzen kontserbatu beharreko pieza eta, ondorioz, haren beraren materiala galduko baitzen.

Horiek guztiak kontuan izanik, piezak itsastea eta kanpoko aldetik metalezko eraztun bat jartzea beste aukerarik ez zegoen. Metalezko eraztuna hodiaren formako barrekin, 20 x 20 mm-ko *INOX* altzairuzko barra mazizoekin, eta material bereko kableekin, 5 mm-koak, diseinatu genuen, tenkatzeko gailuak barne, pieza biak elkartu eta besarkatzen dituen kanpoko gerriko gisa. Barrak harriaren geometria irregularrari egokitzeko xedean, *in situ* eta barruko aldera soldatutako pieza batzuk baliatu genituen multzoa estuturik edukitzeko, eraztunak lasaierarik ez edukitzeko eta monumentuaren kanpoko azalaren geometria aldakor eta konplexuari behar bezala egokitzeko.

Materialak eta azken ukituak

Materialei dagokienez, esan dezagun hasierako planteamenduaren arabera iruinarriaren antzeko hareharria erabiliko genuela, kateatuaren goiko aldea babesteko zokalo baten gisara agerian gera zitekeelakoan. Kateatua landare lurrez estaltzeko erabakia adostu ondoren, bestelako hareharri bat erabiltzeko hautua egin genuen. Bestelako harri bat erabilita argi geratzen da jatorrizko piezan zein den gure esku-hartzearen emaitza.

Bukatzeko, esan dezagun oraingoz ez dela kalterik eragin duen ez kanpoko ez barruko (balizko akatsak aukeratutako soluzioan) ezustekorik gertatu. Beraz, iritsi da metalezko eraztunaren gaineko kontrol lan zorrotzak egiteko unea, hura noiz desmuntatu daitekeen jakiteko. Ez dugu esan nahi kasu guztietan metalezko eraztun bat eraiki behar denik, baina eraikuntza elementu bakoitzaren berezitasunak eta konplexutasunak kontuan izanik soluzio itzulgarriak lehenetsi behar dira ahal denean. Historian zehar gertatu den bezala, segur asko orain ez gara etorkizunean beste batzuek zuzendu beharko dituzten akatsez jabetzen.

vos. En primer lugar, una barra metálica, aunque sea de acero inoxidable, tenderá a oxidarse con el tiempo. Y, en segundo lugar, la escasa sección transversal de unión entre ambas piezas concentraría tensiones que las propias paredes de la piedra, que bordearían las barras, difícilmente las podrían soportar. Además, la introducción de barras se antojaba una solución más agresiva y menos reversible, al tener que perforar y, por tanto, perder material de la propia pieza a conservar.

Con todos estos condicionantes, no quedaban muchas más opciones que colar las piezas y colocar un anillo metálico por el exterior. Éste, está diseñado con barras tubulares de acero *INOX* de 20 x 20 mm, macizas, y cables del mismo material, de 5 mm, con tensor incorporado, a modo de cinturón exterior que abrace y acople ambas piezas. Para ajustar las barras a la geometría irregular de la piedra, se disponen unas piezas soldadas *in situ* hacia el interior, que actúen a modo de prisioneros, evitando que el anillo tenga holguras y se ajuste a la compleja y variable geometría de la superficie exterior. El contacto entre las piezas de fijación con los tensores metálicos y el cable, se han planteado con elementos de goma y/o neopreno para no dejar marcada la pieza al entrar en tensión.

Materiales y acabado

En cuanto a los materiales, tan solo señalar que el planteamiento inicial pasaba por utilizar piedra arenisca similar a la del menhir, pensando que la parte alta del encadenado pudiera quedar vista a modo de zócalo de protección. Tras consensuar la solución final de tapar el encadenado con tierra vegetal, se optó por una piedra caliza totalmente diferenciable. La incorporación de una piedra diferente no deja lugar a dudas de cuál es la intervención actual con respecto a lo existente.

Cabe, por último, señalar que, de momento, no ha habido ningún contratiempo que haya provocado desperfectos, bien por acciones exteriores, bien por posibles fallos de la solución ejecutada. Es, por tanto, momento de seguir un control exhaustivo del anillo metálico para valorar cuándo se puede proceder a su desmontaje. No se quiere decir que las soluciones pasen por la ejecución de un anillo metálico en todos los casos, pero entendiendo la singularidad y complejidad de cada elemento constructivo, han de primar soluciones reversibles en la medida de lo posible. Seguramente, como ha venido sucediendo históricamente, ahora no seamos conscientes ahora de errores que otros tendrán que corregir en el futuro.

J.C. López Quintana; O. Bell; D. Pardo; A. Galera

B.23. OTXANDIO

B.23.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

B.23.1.1. **Andikona plaza eta 5. zenbakiko orubea**

Zuzendaritza: Iñaki Pereda García
Finantziazioa: Otxandioko Udala

B.23.1.1. **Plaza Andikona y solar nº 5**

Dirección: Iñaki Pereda García
Financiación: Ayuntamiento de Otxandio

During the archaeological intervention a medieval pit was uncovered, believed to have been used as an irrigation ditch leading to Mañaerrota mill. During the 16th century, the course of the flow was modified by means of two stone walls. Underneath plot 5, a large number of post holes and pits were discovered, belonging to different wooden structures and craft activities.

XX. mendean zehar aldaketa handiak bizi izan dituen hiriko espazioan dago Andikona Plaza. Gerra Zibilean hiri honek 1936ko uztailaren 22an jasan zuen bonbardaketaren eremu kaltetuena izan zen. Geroago, 50. urteen amaieran edo 60. urteen hasieran, bertatik igarotzen zen *Mañaerrota edo Manurta* errotarako ubidea itsutu zuten. Egun desagertuak diren elementuak deskribatzen dituzten XIX. mendeko dokumentu batzuek baizik ez digute aurreko antolamenduaren berri ematen. Halatan, 1819. urteko dokumentu batek etxebizitza txiki baten eraikuntza eta sutegi bat aipatzen ditu, eta 1843. urteko beste batek plazatxoko horma batean, bertan dagoen zubiaren azpian, egindako konponketa bati egiten dio erreferentzia.

Bestalde, Enrique Guineak 1920. urte aldera egindako argazki batek aukera ematen digu plazan zeuden elementu batzuk bistaratzeko: aipatu errotarako ubidea, 1-3. zenbakietako Urigoiena etxearen azpiko zubi txikia, kanalaren ondoko garbitegietako harriak, eta ubidera iristeko mailadia.

Plaza honen kokalekuak ere galdera bat planteatzen zuen, hots, hiribilduaren barruan ala kanpoan ote zegoen. Udal dokumentazioak eta 1789ko erroldak ez dute hiriko beste kaleetatik bereizten, eta ez dute harresia aipatzen. Soilik XIX. mendearen bigarren erdialdeko eta XX. mende hasierako dokumentu batzuek egiten diete erreferentzia *Urigoienako hesiei edo Basabagiko hesiei* (egungo plaza inguratzen duen bidea). Beraz, hiribildua mugatuko zuen elementuren bat, harresia bera edo atea, aurkitu ahal izateko aukera eskaintzen zigun esku-hartze honek. Eta ez dugu ahaztu behar J.R. Iturrizak «*Andionako Dorreari*»[58] eginiko aipamena, artean ez baitakigu zehatz non dagoen.

Azterketa arkeologikoa

2001ean, Otxandio hiriko Historia eta Arkeologia Azterketaren esparruan, esplorazio izaerako lubaki bat ireki zuten ondoko 1-3. zenbakietako orubearen erdial-

[58] Iturriza y Zabala, J.R. *Hª General de Bizkaia y Epítome de las Encartaciones*, Bilbo, 1987, II. liburukia, 39. or.

La Plaza Andikona es un espacio de la villa que ha sufrido una importante transformación a lo largo del S.XX. Durante la guerra civil fue la zona más afectada por el bombardeo que sufrió esta villa el 22 de julio de 1936. Posteriormente, a finales de la década de los 50 o principios de los 60 se procedió a cegar el canal del molino de *Mañaerrota o Manurta* que discurría por ella. De su configuración anterior, tan sólo hemos encontrado una serie de documentos del s. XIX que nos describen elementos en la actualidad desaparecidos. Así, en 1819 se cita la construcción de una pequeña casa de vivienda y una fragua y en 1843 se hace referencia a la reparación de una pared de la plazuela debajo de un puente existente en la misma.

Por otra parte, una fotografía de hacia 1920 de Enrique Guinea nos permite visualizar algunos de los elementos existentes en la plaza como eran: el canal del citado molino, un pequeño puente bajo la casa de Urigoiena nº 1-3, diversas piedras de lavaderos ubicadas junto al cauce del canal y unas escalinatas de acceso al cauce.

La ubicación de esta plaza también planteaba la interrogante de si dicho espacio se localizaba inicialmente fuera o dentro de la villa. La documentación municipal y las fogueraciones de 1789 no hacen ninguna distinción con el resto de calles de la villa ni se menciona en ningún momento a la muralla. Tan sólo en algunos documentos de la segunda mitad del siglo XIX y principios del siglo XX se hace referencia a las *cercas de Urigoiena o las cercas de Basabagui* (camino que bordea la actual plaza). Por tanto, la presente intervención ofrecía la oportunidad de poder localizar algún elemento delimitador de la villa, bien sea muralla o puerta de acceso. Sin olvidar tampoco la mención que realizó J.R. Iturriza a la «*Torre de Andiona*»[58] cuya ubicación exacta se desconoce.

Análisis arqueológico

En el 2001 en el marco del Estudio Histórico-Arqueológico de la villa de Otxandio se realizó una trinchera de exploración en la zona central del cercano solar de

[58] Iturriza y Zabala, J.R. *Hª General de Bizkaia y Epítome de las Encartaciones*, Bilbao, 1987, T.II, p.39

dean, eta bi zundaketa ireki zituzten plazan[59]. Urigoiena kaleko 1-3. zenbakietan Mañaerrotako eiherako ziria aurkitu genuen zorupean. 1581. urteko dokumentu baten arabera hirian zegoen errota. Plazan emaitzak ez ziren oso esanguratsuak gertatu, dokumentatutako unitate gehienak gure garaikoak zirelako. Honenbestez, kontrol arkeologiko bat egitea planteatu genuen, makina baten laguntzaz eta eskuz induskatuz.

Hiru sektoretan banatu genuen jarduera eremua: Andikona Plaza, Andikona Plazako 5. zenbakiko Etxea eta Artekale kalearen eta Andikona Plazako 5. zenbakiko Etxearen arteko kantoia.

Okupazio aldiak

Erdi Aroko lehenengo okupazioa

1. aldia. Mañaerrota edo Manurta errotarako erretenaren indusketa

Dokumentatutako aurreneko aztarnak 5. zenbakiko etxearen hego-ekialdeko angeluaren azpian daude, etxearen kanpoko aldera, plazaren erpin berdineranzko bidean. Mañaerrota edo Manurta errotarako ubideari dagokion erreten handia da, geruza naturalean induskatua. 1,50 metro sakon eta, kalkuluen arabera, gutxienez 4 metro zabal den lubaki handia da. Ubide honen iparraldea baizik ezin izan genuen identifikatu, partzialki gainera. Urrunduz doan pareta da, aski irekia goiko aldean, baina malda emendatu egiten da oinera egin ahala, eta zuzena izatera iristen da hondora hurbiltzean. Oina, hondoratua, laua da, baina lehen ere esan dugun bezala partzialki baizik ezin izan genuen induskatu horma batzuek ibilgua amortizatzen dutelako eta haiek ezin desmuntatu izan genituelako. Lubakiaren hegoaldea, bere aldetik, egungo kantoiaren azpian egongo da, baina gure garaiko kronologiako obrek erabat nahasita egongo dela esan behar dugu.

2. aldia. Ubidea egokitzeko lanak

Erdi Aroko lubakiko iparraldeko pareta eta kanalaren hondoa lur zepadunen geruzekin egokitu zituzten. Hondoa erabat zarakartua dago, eta alboetako paretetan lurrezko betegarriak daude, kolorez gorriak, beltzak eta marroiak. Oso trinkoak dira erretenaren oinean eta harroagoak goiko aldean. Kanalaren hondoan Behe Erdi Aroan kokatu beharreko material sorta txiki bat aurkitu genuen. Hitz gutxitan esateko, agerian utzitako Erdi Aroko erretenak funtzio bikoitza bete zuten eraiki zutenean. Batetik, Mañaerrota errotarako ura bideratzeko balio zuen, eta bestetik, hiribilduaren eta hiribildutik kanpoko eremuaren arteko muga eratzen zuen.

3. aldia. Zurezko eraikina

Erretenaren kanpoko aldean zurezko eraikin txiki bat altxa zuten. Horixe iradokitzen digu geruza naturalaren gainean aurkitutako zuloen errenkadak, iparraldetik hegoaldera luzatzen denak, zulo hauek paldoei leku egitekoak baitira. Zulo batzuetan lurrean sartutako harriak daude, zurezko zutoinen oinari hobe eusteko harriak. Zulo bik oinplano obala dute (18x22x12 cm), beste batek

[59] Pereda, I (2002). «Otxandio hiriko Historia eta Arkeologia Azterketa». *Arkeoikuska´01*. Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila. Vitoria-Gasteiz, 48-55. orr.

Urigoiena 1-3 y dos sondeos en la plaza[59]. En Urigoiena 1-3 pudimos localizar en su subsuelo el calce del Molino de Mañaerrota. Molino documentado en 1581 como perteneciente a la villa. En la plaza los resultados no fueron excesivamente relevantes ya que la mayoría de las unidades documentadas eran de adscripción contemporánea. Retomando los análisis anteriores planteamos la realización de un control arqueológico mediante excavación con máquina y métodos manuales.

El área de intervención quedó dividida en tres sectores: Plaza Andikona, Casa Plaza Andikona nº 5 y cantón entre Artekale y casa Plaza Andikona nº 5.

Fases de ocupación

Primera ocupación medieval

1ª Fase. Excavación de la acequia del molino de Mañaerrota o Manurta

Los primeros vestigios documentados se localizan bajo el ángulo SE. de la casa nº 5 y al exterior de la misma hacia ese mismo vértice de la plaza. Corresponden a la excavación sobre el estrato natural de un gran foso perteneciente a la acequia del molino de Mañaerrota o Manurta. Se trata de una gran zanja de 1,50 m de profundidad y una anchura total estimada de al menos 4 m. De él tan sólo hemos podido identificar parcialmente el lado situado hacia el norte. Éste es una pared divergente bastante abierta hacia la cumbrera pero cuya pendiente aumenta hacia la base e incluso llega a ser recta en la zona de contacto con el fondo. La base rehundida es plana aunque como ya indicamos sólo se ha podido excavar parcialmente por la existencia de unos muros que amortizan el cauce y que no han podido ser desmontados. Por su parte, el lado sur del foso se situaría bajo el actual cantón pero está muy alterado por obras posteriores de cronología contemporánea.

2ª Fase. Acondicionamiento de la acequia

La pared norte de este foso medieval y el fondo del canal fueron acondicionados con el vertido de diversos manteados de tierra escoriosa. El fondo está muy costrificado y las paredes laterales presentan rellenos alternos de tierras de tonalidades rojizas, negruzcas y marrones. Son muy compactos hacia la base del foso y más sueltos hacia la cumbrera. En la base del cauce se localizó un pequeño conjunto de materiales de adscripción bajomedieval. En definitiva, el foso medieval descubierto realizó una doble función en el momento de su construcción. La primera la de permitir la alimentación de agua al molino de Mañaerrota y la segunda la de marcar un área de delimitación entre la villa y el espacio externo a ella.

3ª Fase. Edificación de madera

En el exterior del cauce se construyó una pequeña edificación de madera. Así hemos interpretado una alineación de cuatro agujeros de poste en dirección norte-sur y localizados sobre el estrato natural. Algunos de ellos presentan piedras hincadas para fijar mejor la base de pies derechos de madera. Dos de planta oval de (18x22x12) cm, otro de planta rectangular de (12x10x12)

[59] Pereda, I (2002). «Estudio Histórico-Arqueológico de la villa de Otxandio». *Arkeoikuska´01*. Gobierno Vasco. Departamento de Cultura. Vitoria-Gasteiz, p..48-55.

Andikona Plaza eta 5. zenbakiko orubea. Induskatutako eremuaren ikuspegia. Erretenaren iparraldeko paretaren erdian eta haren ezkerretara kanalaren hormak eta bertara iristeko mailadia.

Plaza Andikona y solar nº 5. Vista del área excavada. En el centro la pared norte del foso y a su izquierda los muros del cauce con la escalinata de acceso.

angeluzuzena (12x10x12 cm) eta bada beste bat are handiagoa (28x20x24 cm). Ez dugu baztertzen ondoan dauden beste zulo batzuek zurezko egitura honetan baliatu izana, baina ikerketaren egungo egoeran horiek denboran kokatzen zaila dela esan behar dugu. Eskuarki arruntak dira Otxandioko geruza arkeologikoan paldoei leku egiteko zuloak, baina hauek zail dira kronologikoki zehazten, eta ez dago argi zer funtzio betetzen zuten.

Lehenengo Aro Modernoa (XVI. mendea)

4. aldia. Errotarako ubide zaharra eratzen zuten horma paralelo biren eraikuntza

Geroago, erretenaren iparraldeko inflexio puntutik hurbil, horma bat altxatu zuten, trauskil landutako hareharriekin, harriok kolore horiko kareoreaz batuak. Induskatutako eremuan gutxi gorabehera 12,50 m luze da eta 0,60 zabal horma hau. Horma honen paraleloan, erretenaren beste aldean eta egungo kantoiaren azpian, landu gabeko harrizko beste horma bat eraiki zuten. Hegoaldeko aurpegia trauskil landutako errekarriz eta hareharriz egina da, altuera aldakorreko errenkada bat kontserbatzen da. Aitzitik, hobe landuta du iparraldeko aurpegia, eta bertan ondo asko hautematen da neurri handiko harri xabalez osatutako errenkada bat. Gutxi gorabehera 10 m luze da, eta 0,90 m zabal izatera iristen da. Ez dugu uste hiribilduko harresia denik, txikiegia baita horretarako, baizik eta hiribildua balizko uholdeez babestuko zuen horma.

5. aldia. Hiriko etxe baten iparraldeko eta mendebaldeko hormen eraikuntza

Errotarako kanalaren iparraldean, ondo-ondoan, egitura bertsuko perimetroko bi hormek osatutako eraikina altxa zuten, harriak kolore horiko kareore hareatsuak batuak. Hormetako bat, iparraldetik hegoaldera luzatzen dena, gutxi gorabehera 6 m luze da, 5. zenbakiko etxebizitzaren mendebaldeko mugan dago. Bestea aurrekoaren perpendikularrean luzatzen da 7,80 metrotan. Hasiera batean ekialdeko itxitura hormarik izango ez zuen eraikina izango zen, eta mendebaldean zurezko itxitura izango zuen, horixe bera salatzen baitu arestian aipatutako kanalaren paretaren ondoko hiru zulok, paldoei leku egiteko hiru zulok, eraturiko errenkadak.

e incluso uno de mayores dimensiones de (28x20x24) cm. No se descarta que otros agujeros cercanos pudieran pertenecer a esta estructura de madera pero su adscripción resulta muy dificultosa en el momento actual de la investigación. En general, son habituales la presencia de agujeros de poste en el sustrato arqueológico de Otxandio pero respecto a su adscripción cronológica y funcionalidad resultan problemáticos.

La primera Edad Moderna (Siglo XVI)

4ª Fase. Construcción de dos muros paralelos que formaron el antiguo cauce del molino

Posteriormente, próximo a la zona de inflexión norte del foso se levantó un muro formado por piedras areniscas toscamente labradas y trabadas con un mortero de color amarillo y que en lo excavado es de unos 12,50 m de longitud y 0,60 m de anchura. Paralelamente a este muro en el otro lado de la acequia y bajo el actual cantón se levantó otro muro de mampostería. Su cara sur está formada por cantos y areniscas toscamente labradas que constituye una hilada de altura arbitraria. Por el contrario, la cara norte es de mejor factura y en ella se aprecia una hilada de lajas de arenisca de gran tamaño. Su longitud es de unos 10m aproximadamente y su anchura llega a alcanzar unos 0,90 m. No lo interpretamos como la muralla de la villa dada su escasa entidad sino como un muro del calce que protegió a la villa de posibles crecidas e inundaciones.

5ª Fase. Levante de los muros norte y oeste de una casa de villa

Yuxtapuesto al lado norte del cauce del molino se construyó una edificación formada por dos muros perimetrales de igual factura y con un mortero arenoso de color amarillento. Uno de dirección N-S es de unos 6 m de longitud y se localiza en el límite oeste de la casa nº 5. El otro perpendicular al anterior es de 7,80 m de longitud. Debió de tratarse de una edificación que inicialmente no contó con muro de cierre por su lado este y hacia el oeste pudo disponer de un cerramiento de madera tal y como interpretamos una alineación de tres agujeros de poste cercanos al citado muro del cauce.

XVII.-XVIII. mendeak

6. aldia. Eraikinaren ekialdeko itxituraren eraikuntza eta barruko kubeten indusketa

Gutxi gorabehera 4,50 m luze da aurreko aldian eraikitzen hasi ziren eraikinaren ekialdeko horma. Geroago bukatu zuten eraikitzen, mendebaldeko eta iparraldeko hormak ez bezalakoa delako eta baliatu zuten kareorea ere bestelakoa zelako, buztintsuagoa eta kolorez grisa. Ekialdeko perimetroko hormari atxikita 1,15 m bider 0,90 m-ko eta 0,40 m sakoneko kubeta bat dago, eta mendebalderago beste kubeta zaharrago bat, 0,80-0,90 m-ko diametroarekin, honen ekialdeko pareta bestea induskatzean ebaki baitzuten. Ez dakigu zehazki zer funtzio betetzen zuten, baina gogora ekartzen digute Durangoko hiribilduan (Kalebarria kaleko 6. zenbakiko orubea) aurkitutako beste kubeta bat, upel bat zeukana eta ehunak edo larruak tindatzeko tailer batekin lotu genuena[60].

XIX. mendea

7. aldia. Hiriko etxearen berreraikuntza eta forja lanen hasiera

Aurreko artisautza jarduera abandonatu zutenean ekialdeko perimetroko horma eta eraikinaren hegomendebaldeko erpina berritu zituzten. Barruan forja tailer bat antolatu zuten XVIII. mende amaieran edo XX. mende hasieran. Tailer honi dagozkio sutegi-hondo bat, lur karbonotsuek osatutako geruza batzuk, buztinean induskatutako erretentxo batzuk, forja lanetatik eratorritako zepazko depositua eta zoruan bereizten diren tipologia askotako eta diametro txikiko zulo kopuru handia, paldoei leku egitekoak.

8. aldia. Aldaketak kanalean, etxea hegoalderantz handitzea, kanalaren gainera, eta artisautza izaerako beste jarduera batzuk

Arian-arian galdu egin zuen kanalak bere jatorrizko egitekoa, eta inguruko etxeetako ur zikinak biltzeko karkaba bihurtu zen. XIX. mendearen erdialdera aldaketa batzuk egin zituzten kanalaren bidean. Hegoaldeko horma zaharraren gainean beste horma bat eraiki zuten mortero hidraulikoarekin, eta iparraldeko lehenengo hormaren ondo-ondoan, hegoaldeko aurpegian, beste horma bat altxa zuten. Kanalaren oinean harri xabal handiak jarri zituzten, eta kanalaren alboetako horma berri biak lauza handi batzuekin estali zituzten. Plazaren hego-ekialdeko erpinean mailadi bat eraiki zuten kanalera iristeko eta hura garbitu ahal izateko. Aldi honetan ere ubidearen gailurra betetzen amaitu zuten segur asko Artekale kaleranzko igarobide laburrago bat gaitzeko xedean. Etxeari dagokionez, hegoalderantz handitu zuten, eta haren zorupera bilduko zen kanal zaharra. Barruko aldean kareharrizko zapata bat eraiki zuten, sarrera berriak ireki zituzten, ekialderantz harrizko enkatxu bat antolatu zuten eta beste aldaketa batzuk burutu zituzten.

Eutsi egin zioten burdina jotzeko lanari, baina zehazten zailagoak diren beste jarduera batzuei ireki zizkieten ateak. Horien artean kokatzen dugu zulo obal bat, mendebalderantz oinplano zirkularreko espazio hondoratua duena, erdian harri xabal inklinatu bat eta ekialderantz

[60] Pereda, I (2003). *Kalebarria, 6 (Durango). Arkeoikuska´02*. Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila. Vitoria-Gasteiz., 347-357. orr.

Siglos XVII-XVIII

6ª Fase. Cierre de la edificación por su lado este y excavación de cubetas en su interior

El muro este de la edificación que empezó a construirse en la fase anterior es de unos 4,50 m de longitud. Fue levantado posteriormente ya que tanto su factura como el mortero empleado (más arcilloso y de color gris) son diferentes a los utilizados para los muros oeste y norte. Adosado al muro perimetral este se identifica una cubeta de 1,15 m por 0,90 m y 0,40 m de profundidad y hacia el oeste otra más antigua de 0,80-0,90 m de diámetro y cuya pared este fue cortada al excavar la cubeta anterior. Desconocemos exactamente su funcionalidad pero nos recuerdan a otra pileta con barril localizada en la villa de Durango (solar de Kalebarria, 6) y que asociamos a un taller para teñir telas o cueros[60].

Siglo XIX

7ª Fase. Reconstrucción de la casa de villa e inicio de la actividad de forja

Abandonada la actividad artesanal anterior se reformó el muro perimetral este y el vértice suroeste de la edificación. En su interior se inició la actividad de forja posiblemente entre finales del siglo XVIII y principios del siglo XIX. A ella corresponden un fondo de hogar, diversos niveles de tierras carbonosas, pequeños canalillos excavados en la arcilla, depósitos de escorias de forja y un gran número de agujeros de poste de diámetro pequeños (menores a 15 cm) y de diversa tipología en planta.

8ª Fase. Modificaciones en el canal, ampliación de la casa hacia el sur sobre el canal y nuevas actividades artesanales

- Dagoeneko ezagunak diren eta argitara emanak diren unitate grafikoak (UG) aurkitu eta identifikatu genituen.
- Sistematikoki miatu genituen apaindutako panelak eta ondoko atalak, ordura arte ikusi ez ziren adierazpen grafikoak ba ote ziren jakiteko.
- Datuak berex eta hiru mailetan bildu genituen: Unitate Grafikoen arabera, panelen arabera eta eremu topografikoen arabera.
- Argazkiak egin genizkien dokumentazio grafikorik ez zuten edo gure azterketarako dokumentazio eskasa zuten motiboei.
- Laborategian osatu ostean, egiaztatu egin genituen kalkoak.
- Azterketa funtzionalaren aurreneko esperientziak egin genituen Paleolitoko lan prozesua berrosatzeko xedean, hau da, grafiekin dekoratu baino lehen horma atalak nola prestatzen zituzten argitzen saiatu ginen.

Laburbilduta, «miaketa, identifikazioa eta datuen erregistro» gisa definitu genezake lehenengo kanpaina honetan burura eramandako azterketa.

Lehen emaitza nagusiak

Datuak artean zehatz aztertu ez badira ere, emaitza aipagarri batzuk lortu genituen. Hasteko, amaitu egin genituen (edo amaitzear daude) arestian adierazitako landa-lanei zegozkien egitekoak II., III., IV., VI. eta VII. Taldeetan eta Leizean (Altunaren eta Apellánizen antolamenduaren arabera[64]).

Talde hauetako panel ezagunak xehe-xehe miatuta, animalien formako beste 8 irudi berri eta hamarretik gora unitate grafiko ez figuratibo aurkitu genituen. Haiek *in situ* identifikatu eta irudiak programa espezia-

[64] Altuna, J. eta Apellániz, J.M., 1976. «Las figuras rupestres paleolíticas de la cueva de Altxerri (Guipúzcoa)». *Munibe XXVIII*, 1-3 .

Alcance de las actuaciones

En la presente campaña, se han desarrollado un total de 12 jornadas de trabajo de campo en la cavidad de Altxerri. Durante las mismas, se han realizado las siguientes tareas:

- Localización e identificación de las unidades gráficas (UG) ya conocidas y publicadas.
- Prospección sistemática de los paneles decorados y lienzos inmediatos en busca de manifestaciones gráficas inéditas.
- Recogida individualizada de datos a tres niveles: por UG, por paneles y por zonas topográficas.
- Toma de fotografías de aquellos motivos para los que no existe documentación gráfica o ésta resulta insuficiente para nuestro estudio.
- Verificación de calcos una vez realizados éstos en el laboratorio.
- Primeras experiencias de análisis funcional, orientadas a reconstruir el proceso de trabajo paleolítico, en concreto, la preparación de lienzos antes de ser decorados con grafías.

En resumen, en esta primera campaña, el estudio ha estado orientado a lo que podríamos definir como «prospección, identificación y registro de datos».

Principales resultados preliminares

Por el momento, y a falta del análisis y tratamiento de los datos, se han obtenido algunos resultados reseñables. En primer lugar, las tareas correspondientes al trabajo de campo que enumerábamos anteriormente, se han concluido (o están próximas a ello) en los Grupos II, III, IV, VI, VII y Sima (de la ordenación de Altuna y Apellániz[64]).

La prospección de los paneles conocidos en esos grupos ha permitido la localización de un total de 8 representaciones zoomorfas inéditas y de más de una decena de UG no figurativas. Por su parte, la

[64] Altuna, J. y Apellániz, J.M., 1976. «Las figuras rupestres paleolíticas de la cueva de Altxerri (Guipúzcoa)». *Munibe XXVIII*, 1-3 .

III. Aldea 1.eko «Sabai Handiaren» berrosatze grafikoa, argazkien muntaketatik eta kalko digitaletatik abiaturik.

Restitución gráfica del «Gran Techo» de la zona III.1, a partir de montaje fotográfico y calcos digitales.

lizatuen bidez modu digitalean aztertuta, hogeitik gora irudiren aurreko interpretazioa aldatu behar izan genuen (kasuren batean beste espezie batean sailkatu dugu irudia, atal anatomikoen eta sail grafikoen kopuru handiagoa bereizi dugu, etab).

Datuak biltzeko orduan, 73 unitate grafikori, 14 paneli eta apaindutako 6 alderi dagozkien fitxa estandarrak bete genituen. Lehen ere esan dugun bezala, unitate grafiko bakoitzeko berrogeita hamarren bat parametro erregistratu dira berex, hau da, haiek ezaugarritzeko 150 aldagai baino gehiago bereizi dira. Une honetan informazio hau ari gara datu-base informatiko batera igortzen, datuok behar bezala prozesatzeko, sakon aztertzeko eta estatistika osatzeko xedean.

Laborategian, topografia modernoagoak lagun eta Paleolitoko irudigintza hobe ezagutzen dugun honetan (gogora ekarri behar baita aurreko proposamena Barandiaranek 1964an egina dela eta ondorengo lanek hura errespetatu dutela), banaketa topografiko berri bat egiteko eta motibo grafikoak berriro ere kontatzeko proposamena egin zen.

Era berean, kalko digitalak egiteko prozesuari ekin diogu. Une honetan amaituta dauzkagu 65 unitate grafikori dagozkienak, eta erdia baino gehiago dagoeneko *in situ* egiaztatu ditugu. Gainera, irudi gehienak biltzen dituzten panel esanguratsuetako batzuk berrosatu eta haiekin muntaketa batzuk egin ditugu.

Jarraian labur-labur azalduko ditugu apaindutako aldeetan lortutako emaitza garrantzitsuenak. Geuk baliatu ditugun izenak darabiltzagu lan honetan, baina

identificación *in situ* unida al tratamiento digital de imágenes con programas especializados, nos ha permitido modificar la interpretación (reasignar la identificación de especie en algún caso, observar un mayor número de partes anatómicas y convenciones gráficas, etc…) en más de una veintena de figuras.

Durante la recogida de datos, se han rellenado las fichas estandarizadas correspondientes a 73 UG, 14 paneles y 6 zonas decoradas. Como ya hemos apuntado, para cada UG se han registrado, de forma individualizada, casi una cincuentena de parámetros, lo cual supone un «abanico» de más de 150 variables de caracterización. En estos momentos se está transfiriendo esa información a una base de datos informática, para su procesamiento y tratamiento cualitativo y estadístico.

En el laboratorio se ha realizado una nueva propuesta de división topográfica y enumeración de los motivos gráficos, ayudados por topografías más modernas y un más profundo conocimiento de la actividad gráfica paleolítica (debe recordarse que la anterior propuesta parte de Barandiarán, 1964, ya que las obras posteriores la respetan).

Se ha comenzado también el proceso de realización de calcos digitales. En el actual estado del trabajo, se han concluido los correspondientes a 65 UG y más de la mitad de ellos han sido ya verificados *in situ*. Además, se han realizado montajes y reconstrucciones de algunos de los paneles con mayor relevancia y/o de acumulación de figuras.

De forma breve, presentamos a continuación los principales resultados en las distintas zonas decoradas. Utilizamos las denominaciones propias que he-

parentesi artean adierazten ditugu J.M. Barandiaranen[65] eta J. Altunaren eta J.M. Apellánizen[66] lanetako izen baliokideak.

II. Aldea.1 (II. Taldea)

21 unitate grafiko aztertu genituen guztira. Haietatik hiru artean ezagutu gabeko irudiak dira (2 bisonte eta alegiazko animalia bat). Bestalde, berriro ere interpretatu genituen dagoeneko argitara emanak diren 8 unitate grafiko. Haietako batean hartz baten irudi partziala identifikatu genuen, benetan aurkikuntza interesgarria leizean identifikatutako lehenengoa delako eta, honenbestez, Euskal Herriko Madalen kultura aldiko multzo harpetar ezagunei (Ekain, Santimamiñe; Venta Laperrakoa bazterrera utziko dugu kronologia askoz ere lehenagokoa delako) batzen zaielako Altxerrikoa. Hartza ote zen garbi ez zegoenez, Elena Man-Estier doktorearen laguntza eskatu genuen (*Centre National de Prehistoire* Zentroko doktorea, Paleolitoko horma-irudietako hartzen irudietan aditua[67]), eta honek berretsi egin zuen gure interpretazioa. Era berean, landa-lanei zegozkien fitxak bete eta unitate grafiko guztien kalko digitalak osatu genituen.

II. Aldea.2 (III. Taldea)

3 unitate grafiko aztertu genituen guztira. Guztiak zeuden lehendik argitaratuak, baina haietako bi berriro ere interpretatu eta osatu genituen. Landa-lanei zegozkien fitxak bete eta unitate grafiko guztien kalko digitalak osatu genituen.

II. Aldea.3 (IV. Taldea)

17 unitate grafiko aztertu genituen guztira. 1976. urteko obran adierazten direnak baino hiru gehiago dira, baina hori aurkikuntza berrien emaitza ez baizik eta dagoeneko ezaguna zenaren aurreko interpretazio berriaren ondorioa da. Aitzitik, ugari dira interpretazio berriak, 8 irudi ukitzen dituzte, baina hori ez da harritzekoa kontuan badugu alde honetako irudi gehienak egun kontserbazio egoera oso kaskarrean daudela (paretako altxatuak, graffitiak...). Landa-lanei zegozkien fitxa guztiak bete eta 15 unitate grafikoen kalkoak osatu genituen.

II. Aldea.4 (V. Taldea)

Paretak miatzen hasi eta beste 4 unitate grafiko aurkitu genituen, haietatik bi ez figuratiboak eta beste biak bisonteen irudiak. Hala eta guztiz ere ez genituen landa-lan hauei zegozkien fitxak, argazkiak eta kalkoak egin alde honetan. Bestalde, kolore beltzeko marra bat dokumentatu genuen, C14-AMS teknikaren bidez datazio bat eskain lezakeena bera.

[65] Barandiaran, J.M., 1964. «La cueva de Altxerri y sus figuras rupestres». *Munibe XVI*, 3/4, 91-141. orr.

[66] Altuna, J. eta Apellániz, J.M., 1976. «Las figuras rupestres paleolíticas de la cueva de Altxerri (Guipúzcoa)». *Munibe XXVIII*, 1-3 .

[67] Man-Estier, E. 2009. *Les Ursidés au naturel et au figuré pendant la Préhistoire*. Museum National d´Histoire Naturelle

mos establecido, pero incluimos entre paréntesis la equivalencia en los trabajos de J.M. Barandiarán[65] y de J. Altuna y J. M. Apellániz[66]:

Zona II.1 (Grupo II)

Se ha revisado un total de 21 UG. Tres de ellas son figuras inéditas (2 bisontes y un animal imaginario). Por otro lado, hemos reinterpretado 8 UG ya publicadas. En uno de los casos hemos identificado una representación parcial de oso, lo que resulta interesante por ser la primera documentada en la cavidad, y por añadirse su presencia en Altxerri a lo conocido en otros conjuntos parietales magdalenienses del País Vasco (Ekain, Santimamiñe, al margen de Ventalaperra, de una cronología muy anterior). Al no ser muy evidente, solicitamos la colaboración de la Dr. Elena Man-Estier (especialista en representaciones parietales paleolíticas de oso del *Centre National de Prehistoire*[67]) quién confirmó nuestra interpretación. Se han realizado también las fichas de campo y los calcos digitales de todas las UG.

Zona II.2 (Grupo III)

Se ha revisado un total de 3 UG. Todas ellas se encontraban ya publicadas con anterioridad, si bien hemos podido reinterpretar 2 de ellas, completándolas. Se han realizado las fichas de campo y los calcos digitales de todas las UG.

Zona II.3 (Grupo IV)

Se ha revisado un total de 17 UG. Son tres más de las que aparecen en la obra de 1976, pero este número se debe a reinterpretaciones de lo ya conocido más que a hallazgos nuevos. Sin embargo, las reinterpretaciones si son numerosas y afectan a 8 de las figuras, lo cual no sorprende teniendo en cuenta el deficiente estado de conservación que presentan en la actualidad la mayoría de las figuras de la zona (desconchados, *graffiti*…). Se han realizado todas las fichas de campo y calcos de 15 de las UG.

Zona II.4 (Grupo V)

Se ha comenzado la prospección de las paredes, localizándose hasta el momento 4 UG nuevas, dos de ellas no figurativas y las otras dos correspondientes a figuras de bisontes. Sin embargo, no se han realizado fichas de campo, fotografías ni calcos de esta zona. También se ha documentado un trazo de color negro que posiblemente sea susceptible de permitir una datación de C14-AMS.

[65] Barandiaran, J.M., 1964. «La cueva de Altxerri y sus figuras rupestres». *Munibe XVI*, 3/4, pp. 91-141.

[66] Altuna, J. y Apellániz, J.M., 1976. «Las figuras rupestres paleolíticas de la cueva de Altxerri (Guipúzcoa)». *Munibe XXVIII*, 1-3 .

[67] Man-Estier, E. 2009. *Les Ursidés au naturel et au figuré pendant la Préhistoire*. Museum National d´Histoire Naturelle

II. Aldea.5 (VI. Taldea)

16 unitate grafiko aztertu genituen guztira. Haietatik bi ez ziren ordura arte ezagutzen: ustezko bisonte bat eta zehaztu gabeko lauoineko bat. Interpretazio berriek ia irudi guztiak ukitzen dituzte, eta gainera aspaldikoa ez den faltsutze baten presentzia aurkitzeko parada eskaini dute. Landa-lanei zegozkien fitxak bete eta unitate grafiko guztien kalko digitalak osatu genituen.

III. Aldea.1 (VII. Taldea)

13 unitate grafiko aztertu genituen guztira. Haietatik bi ez ziren ordura arte ezagutzen: ustezko bisonte bat eta zehaztu gabeko lauoineko bi. Interpretazio berriek aurrez ezagutzen genituen 5 irudi ukitu dituzte, eta haietatik bi berriro ere identifikatu behar izan genituen. Batean *Capra pyrenaica* baten irudia bereizten dugu lehen ustezko hegazti formako irudi gisa sailkatutakoan. Landa-lanei zegozkien fitxak bete eta unitate grafiko guztien kalko digitalak osatu genituen.

III. Aldea.2 (Leizeko Taldea)

Irudi figuratibo bi aztertu genituen. Biak aurrez argitaratuak ziren eta ez dugu haien identifikazioan aldaketarik proposatzen. Hala eta guztiz ere, irudiak argazki bidez aztertzeko teknika berriei esker irudien xehetasun anatomiko batzuk interpretatu behar izan ditugu berriro ere. Landa-lanei zegozkien fitxak bete eta unitate grafiko guztien kalko digitalak osatu genituen.

Konklusioa

Burura eramandako kanpainak berretsi egiten ditu Altxerriko Madalen kultura aldiko multzo harpetar honi buruzko ezagutzaren aurreko gure aurreikuspen batzuk: landa-lanen inguruko azterlan oso sakonak argitaratu dira, grafiak egokiro aurkeztu dira (lehenengo kanpainan hautemandako berri batzuk iradokitzen badira ere, nahiz eta ez diren batere ikusgarriak), eta irudikatutako espezieen azterketa paleontologiko bikaina osatu da. Guk dokumentazio eguneratua osatu nahi dugu, apur bat sakonagoa, eta bazterrera utzitako kontu batzuk jaso nahi ditugu hartara: multzoaren azterketa espaziala (Paleolitoko zirkulazioa, motiboen ikusgarritasuna, ostatatzeko gaitasuna), prozedura teknikoen azterketa, irudien antolamenduaren azterketa (gaien eta irudi multzoen banaketa, gaien arteko harremanak...). Eta Altxerriko irudien ezaugarri estilistikoak modu zehatzago batean definitu nahi ditugu Bizkaiko Golkoko Madalen kultura aldiaren azken garaiko biztanle multzoen irudiei emandako erabileran, Bizkaiko Golkoak Kantauriko eta Pirinioetako lurralde artistikoen arteko loturarena egingo baitzuen[68].

Zona II.5 (Grupo VI)

Se ha revisado un total de 16 UG. Dos de ellas son figuras inéditas: un posible bisonte y un cuadrúpedo indeterminado. Las reinterpretaciones afectan a casi la totalidad de las figuras e incluso han permitido descubrir la presencia de una falsificación reciente. Se han realizado las fichas de campo y los calcos digitales de todas las UG.

Zona III.1 (Grupo VII)

Se ha revisado un total de 13 UG. Tres de ellas son figuras inéditas: un bisonte y dos cuadrúpedos indeterminados. Las reinterpretaciones han afectado a 5 de las figuras conocidas, y en dos casos afectan a su identificación. En uno de ellos hemos podido reconocer una figura de *Capra pyrenaica* antes clasificada como un posible signo aviforme. Se han realizado las fichas de campo y los calcos digitales de todas las UG.

Zona III.2 (Gupo de la Sima)

Se ha revisado un par de motivos figurativos. Ambos se hallaban ya publicados y no hemos modificado su identificación. Sin embargo, y gracias de nuevo a los tratamientos gráficos sobre fotografías, hemos podido reinterpretar algunos detalles anatómicos de las figuras. Se han realizado las fichas de campo y los calcos digitales de todas las UG.

Conclusión

La campaña desarrollada, finalmente, confirma algunas de nuestras previsiones respecto al conocimiento disponible sobre este conjunto parietal magdaleniense de Altxerri: se han publicado muy buenos estudios de campo, con una adecuada relación de grafías (aun cuando se apuntan algunas nuevas, detectadas en la primera campaña, ciertamente muy poco espectaculares) y un más que notable análisis paleontológico de las faunas representadas. Nuestro objetivo reside en una documentación actualizada y un poco más exhaustiva, y en incorporar algunos aspectos desatendidos: análisis espacial del conjunto (circulación paleolítica, visibilidad de los motivos, capacidad de albergue), análisis de los procedimientos técnicos, análisis de la organización del dispositivo (distribución de la temática y carga gráfica, correspondencias entre temas …), y en una integración más precisa de los caracteres estilísticos de las figuras de Altxerri en los usos gráficos de las poblaciones del Magdaleniense reciente (*ca.* 14.500-11.8 ka BP) en el área del golfo de Bizkaia, entendida como bisagra entre las regiones artísticas Cantábrica y Pirenaica[68].

A. Ruiz Redondo; C. González Sainz

[68] González Sainz, C. eta Ruiz Idarraga, R. 2010. «Una nueva visita a Santimamiñe. Precisiones en el conocimiento del conjunto parietal paleolítico». *Kobie*, 11. eranskina, Bilbo.

[68] González Sainz, C. y Ruiz Idarraga, R. 2010. «Una nueva visita a Santimamiñe. Precisiones en el conocimiento del conjunto parietal paleolítico». *Kobie*, Anejo nº 11, Bilbao.

C.2. ALEGIA

C.2.1. Papera egiteko Arterreka errota

Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea
Finantziazioa: Calcinor, S.A.

C.2.1. Molino papelero de Arterreka

Dirección: Alfredo Moraza Barea
Financiación: Calcinor, S.A.

This intervention failed to produce any results of archaeological interest. The old mill was a pioneering facility in the paper production industry in Gipuzkoa (1803), although it was later used for other production activities (wire factory, flour mill, hydroelectric power station).

Arterreka errota zaharra behera etortzeko arriskuan zegoen, eta jabeek hura eraisteko eta desmuntatzeko proiektua aurkeztu zuten. Kontuan izanik kokaleku honen ezaugarri historikoak, aldez aurretik elementua historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik dokumentatzeko lana eraman genuen burura.

Izan ere, bertan gaitu zuten papera egiteko Gipuzkoako lurraldeko aurreneko errota, hortik haren garrantzi historikoa. Instalazio aitzindari hau berritik eraiki zuen udal jabetzako lursail batean Juan Ibar zuberotarrak, XIX. mende hasieran (1803). Instalazio honek papera ekoizteko teknika aski oinarrizkoa baliatzen zuen: «*zatarrak*» (ehunkiak eta oihal hondakinak, kotoia eta arropa zaharrak) urarekin nahasi eta xehatu egiten zuten aurreneko paper orriak eskainiko zituen orea osatzeko. Papera ekoizteko errota honen bizitzak ez zuen luze jo, 1806. urtean ondoko beste herri batera (Ibarra) eraman baitzuten bertako makineria guztia (zortzi ontziko bi gurpil eta harrizko treska, bere zurezko dolarearekin). Une horretatik aurrera jarduera ezberdinak garatuko ziren alde honetan, baina beti ekoizpenerako azpiegitura hauek aprobetxaturik (alanbreak egin zituzten 1806 eta 1808 bitartean, irina egiteko errota izan zen 1808tik XIX. mende bukaerara arte; eta zentral hidroelektrikoa 1898. urtetik aurrera).

Guk ekoizpen aldi ezberdin hauetako bakoitzetik eratorritako balizko eraikuntza edota arkeologia hondakinak dokumentatzea genuen xede. Tamalez, ahalegin honek ez zuen fruiturik eskaini, eraikinaren historia laburrean zehar berritze lan ugari egin baitira higiezin honetan, batez ere 1929an abiarazitako berrikuntza orokorraren ostean, orduan baserri bihurtu baitzuten, inolako industria ekoizpenari emanda egongo ez zen baserri. Bestalde, higiezina bera behera etortzeko arriskuan zegoenez, ezin izan ginen haren barruko aldera sartu.

Bertan garatutako dokumentazio lanak, funtsean, multzo osoaren planoaren eta argazkien erregistroan oinarritu ziren. Baserriaren kasuan, kanpoko horma atalen parte bat baizik ezin izan genuen dokumentatu, baserria kontserbazio egoera oso txarrean dagoelako eta teilatua erabat eroria duelako, baita barruko egituraren parte handi bat ere. Horrexegatik izan zen erabat ezinezkoa haren barruan sartzea, horrexegatik mugatu

El antiguo molino de Arterreka se encontraba en la actualidad en un peligroso estado de ruina por lo que sus propietarios presentaron un proyecto de derribo y desmontaje. Teniendo en cuenta las peculiaridades históricas del emplazamiento fue preciso realizar previamente una labor de documentación histórico-arqueológica del elemento.

Su relevancia histórica radica en el hecho de haber estado allí habilitado el primer molino papelero del territorio guipuzcoano. Esta instalación pionera fue levantada de nueva planta a principios del siglo XIX (1803) por el zuberotarra Juan Ibar sobre una parcela de propiedad municipal. Esta instalación empleaba una técnica de fabricación de papel bastante rudimentaria, mediante el uso de «*trapos*» (retales y desperdicios de tela, algodón o ropas viejas) que mezclados con agua y triturados permitían conformar una pasta que daría lugar a las primeras hojas de papel. Su vida productiva como tal molino papelero será bastante breve, puesto que hacia 1806 toda su maquinaria (dos ruedas de ocho pilas y una tina de piedra con su prensa de madera) será trasladada a otra localidad cercana (Ibarra). A partir de este momento el emplazamiento conocerá diferentes dedicaciones aprovechando siempre unas mismas infraestructuras productivas (manufactura de alambre entre 1806 y 1808; molino harinero 1808-fines del XIX; central hidroeléctrica a partir de 1898).

El objetivo de nuestra labor era el de reconocer los posibles restos constructivos y/o arqueológicos derivados de cada una de estas distintas fases productivas. Lamentablemente este esfuerzo no ha cumplido con sus expectativas iniciales debido a las importantes reformas operadas por el inmueble a lo largo de su breve historia, y en especial tras la amplia reforma abordada en torno a 1929 y ya con su transformación en un caserío sin dedicación industrial alguna. Asimismo el avanzado estado de ruina del propio inmueble ha imposibilitado el acceso al interior del mismo.

Los trabajos de documentación desarrollados han consistido básicamente en el registro planimétrico y fotográfico de todo el conjunto. En el caso del caserío la documentación se ha podido realizar únicamente sobre parte de sus paramentos exteriores debido al deficiente estado de conservación del mismo con su cubierta totalmente caída al igual que buena parte de su estructura interior, de ahí que haya resultado completa-

Arterreka baserriaren (Alegia) hegoaldeko fatxadaren ikuspegia, eraitsi aurretik osorik kontserbatzen zuen horma bakarraren ikuspegia.

Vista de la fachada meridional del caserío Arterreka (Alegi), la única conservada en su integridad, antes de su derribo.

ginen kontserbatutako perimetroko hormak aztertzera. Eta hegoaldeko fatxadan aipagarria da ondo landutako harrizko bloke sorta baten presentzia. Pieza hauek apur bat irtenda daude, eta zulatuta, haietatik soka edo kateren bat igarotzeko moduan; zalantzarik gabe, arestian deskribatutako ehotzeko jarduerarekin jarri behar ditugu harremanetan harri hauek.

mente imposible acceder al mismo limitándose su análisis a los muros perimetrales conservados. Entre los elementos más destacados están, la antigua presa de derivación y parte del canal de derivación. Y asimismo en la fachada meridional destaca la presencia de una serie de bloques de piedra labrados ligeramente sobresalientes que se encuentran perforados con el fin de permitir el paso de algún tipo de cuerda o cadena, y que sin duda están relacionados con la anteriormente descrita actividad de molienda.

A. Moraza Barea; J.C. Mora Afan

C.3. ANDOAIN

C.3.1. Zumalakarregi gotorlekua

Zuzendaritza: Javier Buces Cabello
Finantziazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia

C.3.1. Fuerte de Zumalakarregi

Dirección: Javier Buces Cabello
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa

The place known as Zumalakarregi fort is located in the Andoain neighbourhood of Sorabilla, southwest of the town centre. The site occupies a small hill, which despite its insignificant size was nevertheless of great strategic importance, since it provided an excellent view of the access routes to the town of Andoain and the meeting point of the Rivers Leitzaran and Oria. The archaeological intervention carried out enabled us to gain a more detailed and complete knowledge of this specific type of defensive building structures.

2011ko martxoan eta apirilean eraman genituen burura Zumalakarregi gotorlekuaren hondakinei leku egiten dien tokiari buruzko dokumentazio xehea osatzen duten esku-hartze arkeologikoak, iturri historikoak berrikusteko lanak eta beste azterlan batzuk.

Los trabajos de intervención arqueológica, revisión de fuentes históricas y otros estudios que complementan la documentación detallada del enclave en el que se localizan los restos del fuerte de Zumalakarregi, se llevaron a cabo durante los meses de marzo y abril de 2011. En lo que respecta a los sondeos arqueológicos, se eje-

Zundaketa arkeologikoei dagokienez, guztira zazpi ireki genituen alde honetako beste hainbeste tokitan. Zundaketa hauen bidez elementuaren mugak eta haren ezaugarriak hobe zehaztea bila genuen, eta haien kontserbazio egoera aztertzea, etorkizunean aplikatu beharreko neurri zuzentzaileak proposatzeko xedean. Honako konklusio hauek ondorioztatu daitezke burura eramandako esku-hartzetik:

Hasteko, orain arte aintzat hartutako aztarnak egiazki Zumalakarregi Gotorlekuaren hondakinei dagozkiela egiaztatu ahal izan genuen. Izan ere, funtsezko egitura izan zen indar karlistek Lehenengo Gerra Karlistan zehar eraiki zuten babes lerroan.

Bigarrenik, argi eta garbi esan dezagun esku-hartze honetatik lortutako datuen bidez ondo asko argitu ahal izan direla babesteko elementu honen eraikuntza ezaugarriak, nahiz eta burura eramandako zundaketa gehienetan argi eta garbi dokumentatzen den gotorlekua abandonatu ostean alde honetan burura eramandako laborantza lanek eta denboraren joanak hura nabarmen kaltetu dutela, haren hego-ekialde ia osoa betikoz galaraziz. Iparraldeko eta hego-mendebaldeko muturretan induskatutako 6. eta 7. zundaketek baizik ez zituzten eraikuntza aztarna garrantzitsuak eskaini.

Ikus-eremu zabala eskaintzen duen muino natural baten gainean egokitu zuten, ustez, babesteko gotorleku hau. Oso egitura soila zuen, lau angeluko oinplanoaren perimetroan zanpatutako lurrez osaturiko parapetoa altxa zuten. Horma honetatik gutxi gorabehera metro beteko altuera kontserbatu da barruko aldetik. Kanpoko aldean zoru naturalean induskatutako lubanarroa, ateratako lurrez eratua, izango zuen. Lur hori arestian adierazitako parapetoan baliatuko zuten gero, benetakoa baino altuera handiagoa emateko, iparraldeko muturrean gehienez ere 2,50 metroko altuera dokumentatu ahal izan baikenuen. Bere garaian marraztutako grabatuaren arabera metro bete zabal izango zen, eta seguru asko pendoitz bat izango zuen kanpoko aldera. Gisa honetan defendatzaileak babestuta egongo ziren etsaiek botatako jaurtigaien inpaktuek eragin zitzaketen kalteetatik. Parapeto honen gainean forma erdizirkularreko gorputz bana egokitzen zen lau izkinetan, haietan egongo ziren artilleria piezak. Alderdi hauek, kartografia historikoan islatuak, aztarna fisikoen bidez baino airetiko argazki historikoen bidez (batez ere 1954. urtean egindako argazkiaren bidez) bereizi ahal izan dira garbiro.

Barruti gotortuaren barruan, kontserbazio egoera oso kaskarrean zegoen eta finean zimentarrietara mugatzen zen iparraldeko fronteko horma atal baten presentzia (603. UE) eta, zalantzak zalantza, barrutiaren hego-mendebaldeko beste horma atal bat baizik ezin izan genituen dokumentatu. 6. zenbakiko zundaketan identifikatutako zimentarria, arestian adierazitako kartografiaren arabera, parapetoari atxikita barruko perimetro ia osoan zehar luzatuko zen bankua izango zen segur asko, fusilarien lana erraztea izango zuen xede, bertatik tiro egiteko behar zuten altuera eskaintzen baitzien. Banku horri atxikita trauskil landutako zolata antzeko bat dokumentatu genuen (604. UE), ustez Gotorlekuaren barruko espazio osoan zehar hedatzen zena, bai bederen arkeologikoki erregistratutako alcutaron un total de siete en diferentes puntos del emplazamiento. A través de ellos, se pretendía definir con claridad los límites del elemento, definir sus características, y determinar el estado de conservación de los mismos con el fin de arbitrar las medidas correctoras pertinentes en fechas futuras. Con todo de la intervención realizada se pueden extraer las siguientes conclusiones:

En primer lugar, se ha podido confirmar que los indicios manejados hasta el momento se corresponden realmente con los restos del denominado Fuerte de Zumakalarregi. Siendo, una de las piezas clave de la línea defensiva levantada por las fuerzas carlistas durante el desarrollo de la Primera Guerra Carlista.

En segundo lugar, cabe destacar que a través de los datos obtenidos en la intervención se han podido esclarecer las características constructivas de este elemento defensivo. A pesar de que en la mayor parte de los sondeos practicados se han documentado que las labores agropecuarias desarrolladas en la zona, tras su abandono y el propio transcurso del tiempo, lo han dañado de manera considerable, arrasando prácticamente toda su mitad sureste. Únicamente en los sondeos 6 y 7, situados en los extremos norte y suroeste respectivamente, se han podido registrar evidencias constructivas de cierta relevancia.

El recinto defensivo fue presumiblemente dispuesto sobre una colina natural de amplia visibilidad. Presentaba una factura muy sencilla, habiendo sido ejecutado mediante un parapeto perimetral de tierra apelmazada que definía su planta cuadrangular. De este muro se ha conservado una altura aproximada de 1 m por su cara interior, mientras que por la exterior dispondría de una especie de foso excavado en el terreno natural formado por la tierra extraída y que posteriormente sería empleada en ese señalado parapeto, dándole al mismo una altura mayor que la real, de la que hemos podido documentar hasta un máximo de 2,50 m en el extremo norte. Su anchura, según el grabado levantado en la época, oscilaría en torno a 1m disponiendo presumiblemente de una sección en forma de terraplén hacia el lado de campaña. De esta manera, los defensores quedaban cubiertos de los posibles daños causados por los impactos de proyectiles enemigos. Este parapeto estaba rematado en sus cuatro esquinales con unas caponeras de forma semicircular donde se habilitarían las piezas de artillería a barbeta. Estos aspectos, reflejados en la cartografía histórica, se han podido perfectamente apreciar a través de las ortofotos históricas (especialmente la de 1954), más que por las evidencias físicas en sí.

En el interior del recinto fortificado, tan sólo se ha podido documentar la presencia de un tramo de muro en el frente norte muy deficientemente conservado y reducido prácticamente a sus cimientos (UE 603), y con más dudas, otro en el frente suroeste del recinto (UE 703). Con respecto al muro de cimentación del sondeo número 6, siguiendo la referida cartografía histórica, se correspondería muy presumiblemente con la banqueta que recorría prácticamente la totalidad del perímetro interior de la fortificación pegada al parapeto, y que facilitaba la labor de los fusileros dándoles la altura necesaria para poder disparar sobre el mismo. Adherida a esa banqueta, se ha podido documentar la presencia de una especie de solera de factura muy sencilla (UE 604), que se extendía presumiblemente por prácticamente la

Zumalakarregi gotorlekua. Ezkerretara: Aztarnategi arkeologikoaren airetiko ikuspegia (Aeroclick). Eskuinetara: 6. zenbakiko zundaketaren ikuspegi orokorra.

Fuerte de Zumalakarregi. A la izquierda: vista aérea del yacimiento arqueológico (Aeroclick). A la derecha: vista general del sondeo nº 6.

dean. Zolata honek Gotorlekuaren barruko desplazamenduak erraztea izango zuen xede, egiteko horiek zailduko lituzketen putzuak saihestuz artilleria piezak eta zegozkien hornidurak eta munizioak batetik bestera egokiro eramateko eta soldadu armatuen joan-etorriak azkartzeko.

Esku-hartze honetan egiaztatu egin genuen nola lehen adierazitako 1840. urteko planoan islatzen diren eraikuntza egitura ia guztiak betikoz desagertu diren, esate baterako, kanoiei leku egiteko plataformak, fusilarien bizkarrak babesteko hormak, barrutiaren baitan soldaduek atseden hartzeko egongo zen eraikin motaren bat edo hornidurak eta munizioak gordetzeko biltegia. Azken kontu hau hainbat dokumentutan dago jasoa, esate baterako, 1838ko batean, hainbat konponketa egiteko iltzeak eta zurak erosi zituztela adierazten baita hartan.

Laburbilduta, Lehenengo Gerra Karlistaren azken urteetan karlisten Andoaingo fronteko lerroaren defentsan egiteko garrantzitsua bete zuen arren, eraikin oso xumea izan zen Zumalakarregi Gotorlekua, hormak lurrezkoak zituen. Kontuan eduki behar da gotorlekua oso arin eraiki zutela, hilabete gutxi batzuetan, gatazkak berak hartaraturik. Horrexek azalduko luke gotorlekuaren hormen estekadura xumea. Hala eta guztiz ere, irudi kartografikoek eta gure garaiko airetiko argazkiek gotorleku handiagoa iradokitzen ziguten, edo gutxienez eraikin sofistikatuago bat hartan erabilitako materialei dagokienez

Eraikuntzaren bakuntasun honek, igarotako denborak (170 urte baino gehiago joan dira hura eraiki zutenetik) eta alde honetan burura eramandako nekazaritza lanek zeharo desitxuratuko zituzten haren oinplanoa eta hondakinak, haiek desagerraraziko zituzten edo erabat nahasi.

Hala eta guztiz ere, burura eramandako esku-hartze arkeologikoak aukera eman digu babes izaerako eraikuntza egitura mota zehatz hau hobe eta

totalidad del espacio interior del Fuerte, o al menos en la zona registrada arqueológicamente. Esta solera tenía la función de facilitar las labores de desplazamiento en el interior del Fuerte, tanto de las piezas de artillería y sus pertrechos y municiones, como del mismo personal armado, evitando la presencia de zonas encharcadas que harían más complicada esa labor.

La intervención ha corroborado la desaparición de la casi totalidad de las evidencias constructivas que aparecen reflejadas en el mencionado plano de 1840, tales como las plataformas de los cañones, los muros traveses o espaldones destinados a proteger las espaldas de los fusileros, o la presencia de algún tipo de construcción en el interior del recinto destinada al descanso de los soldados y a la custodia de los pertrechos y municiones. Un aspecto éste último que ha quedado recogido a través de diversos documentos, tales como uno de 1838, en el que se especifica la adquisición de una partida de clavos y maderamen para distintos arreglos.

En definitiva, el Fuerte de Zumalakarregi, a pesar de jugar un papel destacado en la defensa de la línea carlista del frente de Andoain durante los últimos tramos de la Primera Guerra Carlista, era una construcción de fábrica sumamente sencilla con muros de tierra. Es necesario recordar que su construcción se llevó a cabo de una manera muy acelerada, en apenas unos meses, por las circunstancias propias del conflicto. Un hecho que explicaría lo relativamente sencillo de su fábrica constructiva. Sin embargo, las representaciones cartográficas y las ortofotos históricas nos habían llevado a la suposición de encontrarnos ante una fortificación de mayor envergadura, o al menos ante una construcción más sofisticada en cuanto a los materiales empleados.

Esta sencillez constructiva, unida al transcurso del tiempo (más de 170 años desde su ejecución), y a las propias labores agropecuarias desarrolladas en la zona, habrían terminado por desvirtuar su planta y los restos del mismo, borrando diferentes aspectos del mismo o trastocándolos de una manera casi total.

A pesar de ello, la intervención arqueológica desarrollada nos ha permitido avanzar en el mejor y más completo conocimiento de este tipo tan específico de

modu osoagoan ezagutzeko. Egitura hauei buruzko era askotako informazio iturriak dauzkagu eskura (kartografiak, dokumentuak eta baita argazkiak ere), ezaugarrien irudi aski argigarriak eskaintzen dizkigute, baina gisa honetako gotorlekuak erregistratzeko landa-lanak aski urriak izan dira orain arte.

Oraindik mugatua da, antza, eraikin mota hauei buruz dakigunaren maila, bazterrera utzitako arkitektura militarra izan da, edo haren garrantzia hutsaren hurrengoa izan da gure lurraldearen baitan. Horri kontrajarrita, Zumalakarregi Gotorlekuaren inguruan egindako lanei esker, txosten honetan deskribatuei esker, leku berezi hauetako baten dokumentazio guztiz zehatza osatu ahal izan dugu. Hala eta guztiz ere, berriro ere esan behar dugu prebentziozko lan honek (inolaz ere beharrezkoa inguruan ustez lurrak altxa behar zituztelako) Zumalakarregi Gotorlekuaren kokalekua egokiro kokatzeko aukera eman arren, berretsi egin duela, aldi berean, kontserbatutako hondakinen garrantzi guztiz xumea.

estructuras constructivas de carácter defensivo. Sobre ellas disponemos de una serie de fuentes de información de muy diferente tipo (cartográficas, documentales, e incluso fotográficas), las cuales nos proporcionan una imagen bastante clara de sus posibles características, aunque los trabajos de campo destinados al registro de este tipo de fortificaciones han sido hasta el momento bastante escasos.

El nivel real de conocimiento que sobre éstas construcciones se tiene aún parece muy limitado, hasta el punto que ha sido una arquitectura militar marginada o minimizada su importancia dentro de nuestro territorio. En contraposición a este hecho, mediante los trabajos efectuados en torno al Fuerte de Zumalakarregi, y que se describen en este documento, se ha podido realizar una documentación exhaustiva de uno de estos característicos emplazamientos. No obstante, debemos reiterar una vez más, que este trabajo preventivo, necesario ante posibles movimientos de tierra en el entorno, si bien ha permitido definir la correcta ubicación del emplazamiento del fuerte Zumalakarregi, también nos ha confirmado la escasa entidad de los restos conservados.

J. Buces Cabello; A. Moraza Barea

C.4. **ANOETA**

C.4.1. **Basagain herrigunea**

XVII. kanpaina
Zuzendaritza: Xabier Peñalver
Finantziazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia; Anoetako Udala

C.4.1. **Poblado de Basagain**

XVII Campaña
Dirección: Xabier Peñalver
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa; Ayuntamiento de Anoeta

The archaeological intervention provided information about the constructive elements corresponding to the structures located on the eastern terrace, as well as the specific agricultural, metallurgic and ceramic products belonging to this protohistoric settlement.

Azaroan zehar eraman genuen burura 2011. urteko kanpaina, ekialdeko terrazan jardun genuen, baina kanpaina honetako baldintzak mugatuagoak izanik azalera txikiagoa aztertu genuen.

Eremu honetan ekialdetik mendebaldera, terrazaren zeiharrean, dagoen desnibeletik iparralderantz zabaltzen den aldea aukeratu genuen.

Barrutiaren alde honetan estratigrafian sakondu nahi genuen alde honetako kata lan batean hautemandako zurezko egitura handiei leku egiten dien mailaraino hurbiltzeko. Honako lauki hauek induskatu genituen; 16T, 16U eta 16V.

Geruza hauek altxatzean harri ugari geratu ziren agerian 16U eta 16V laukietan, 2010. urtean induska-

La campaña correspondiente al año 2011 se ha desarrollado a lo largo del mes de noviembre afectando los trabajos a la zona correspondiente a la terraza este, aunque en una superficie más restringida dadas las condiciones más limitadas de la presente campaña.

Dentro de esa zona se ha elegido la parte situada a partir del desnivel existente en sentido este-oeste, transversal a la terraza, en dirección hacia el norte.

El objetivo era el de descender estratigráficamente en esa parte del recinto para acercarnos al nivel de las grandes estructuras de madera detectadas en una de las catas de la zona. Los cuadros excavados han sido los siguientes: 16T, 16U y 16V.

La tónica general de ese movimiento de tierras ha sido la presencia de piedras abundantes en los cua-

tutako aldean bezala. Aitzitik ez zegoen harririk 16T laukian, aldapan dagoen laukian.

Bestalde, 16U eta 16V laukietan, haien erdi hegoaldean, ugari dira kiskalitako lastodunak eta landare hesien hondakinak. Alde honetan osoan barreiatuta daude zeramikak, metala (burdina), zepa eta ziztada meheak dituzten harri xabalak.

dros 16U y 16V, tal y como sucedía en la parte abierta en 2010 y la ausencia total de piedras en el cuadro 16T, dentro de la zona de pendiente.

Por otra parte, en los cuadros 16U y 16V, en su mitad sur, continúa saliendo abundante zarzo y gramíneas calcinadas. La cerámica, el metal (hierro) y la escoria, además de las piedras (lajas) con finas incisiones, se reparten por toda la zona.

X. Peñalver

C.5. ARETXABALETA

C.5.1. Osinbaltzaga-Tubos Reunidos lursaila

Zuzendaritza: Miren Garcia Dalmau
Finantziazioa: Promociones Ortubos, S.L.; Gipuzkoako Foru Aldundia

C.5.1. Parcela Osinbaltzaga-Tubos Reunidos

Dirección: Miren Garcia Dalmau
Financiación: Promociones Ortubos, S.L.; Diputación Foral de Gipuzkoa

This intervention failed to produce any results of archaeological interest. All that was documented was part of the infrastructure belonging to the industrial activity of the site at the end of the 19th century.

Aspaldi honetan jardunean ez den Tubos Reunidos enpresaren fabrikako instalazioek hartzen zuten, partzialki bada ere, Osinbaltzagako lursaila. Alde honetan hainbat lan eramaten ari ziren burura lursail honetan ikastetxe berri bat egokitzeko eta gainerakoari bizileku erabilera emateko xedean. Arkeologiaren ikuspuntutik interesgarria zen albiste batzuen arabera ustezko giza hezurren hondakinak azaldu zirelako orain dela urte batzuk bertan burutu zituzten lur mugimenduetan eta alde honetan Osinbaltzaga errota zaharrari zegozkion hondakinak azaldu zirelako.

Horren guztiaren aurrean ustezko hezur hondakin horien presentzia egiaztatu ez zuen lehenengo eskuhartze bat eraman genuen burura 2010eko udan, baina segurtasun kontuak tarteko lursail osoa ezin aztertu izan genuela esan behar dugu (Ikus *Arkeoikuska* 2010). 2011n segida eman genien lan horiei eta lursailaren gainerakoa altxa genuen, baina etsigarriak izan ziren emaitzak, ez baikenuen balizko ehorzketa haiei legokiekeen lekukorik aurkitu.

Zaborrak kenduta modu zehatzagoan dokumentatu ahal izan genituen Osinbaltzaga errota zaharreko uren irteerako kanala eta bertan XIX. mendeko azken hamarraldietan gaitutako fabrikako (Sarrailak egiteko fabrika zaharra) instalazioetako uren hustubideari eusten zion arku handia.

La parcela de Osinbaltzaga estaba ocupada parcialmente por las instalaciones fabriles de la empresa Tubos Reunidos, ya fuera de actividad desde hace varios años. La zona estaba siendo remozada con motivo de las obras de acondicionamiento de la parcela como nuevo centro de enseñanza y el resto para un uso residencial. Su interés desde el punto de vista arqueológico estribaba en las noticias que apuntaban a la aparición de una serie de supuestos restos óseos humanos durante la ejecución de unas obras hace ahora unos años, así como por la presencia en la zona de los restos pertenecientes al antiguo molino de Osinbaltzaga.

En función de ello en el verano de 2010 ya se efectuó una primera intervención en la zona que no pudo confirmar la presencia de esos supuestos restos óseos, aunque por circunstancias de seguridad no pudo revisarse la totalidad de la parcela (Vide *Arkeoikuska 2010*). De esta manera en este presente año se han continuado esas labores procediéndose a la apertura del resto de la parcela con unos resultados igualmente frustrantes al no haberse podido localizar testimonio alguno de esas posibles inhumaciones.

La retirada de los escombros ha permitido documentar de una manera más completa el canal de salida del antiguo molino de Osinbaltzaga y asimismo el gran arco sobre el que se sustentaba la galería de salida del agua de las instalaciones fabriles allí habilitadas en las últimas décadas del siglo XIX (antigua Cerrajera).

M. Garcia Dalmau; A. Moraza Barea

C.6. ARRASATE / MONDRAGÓN

C.6.1. Goikobalu gaztelua, Santa Barbara mendian

Zuzendaritza: Mertxe Urteaga Artigas
Diru-laguntza emailea: Gipuzkoako Foru Aldundia

C.6.1. Castillo de Goikobalu, en el monte Santa Bárbara

Dirección: Mertxe Urteaga Artigas
Subvención: Diputación Foral de Gipuzkoa

As assessment sondage was carried out at the summit of Santa Bárbara hill, in the place known as Goikobalu, where in 1994, the existence of a medieval fortification was confirmed. The fortification is believed to have had a square floor plan with circular turrets at the corners. In the zone analyzed, the remains of the fortification had been reduced to a negative print of the western wall, which had been thoroughly despoilt. The work also extended to the lower part of the hill.

Goikobalu da Arrasateko hirigune historikoaren gaineko Santa Barbara mendiaren goiko plataforma inguratzen duen eraztunaren leku-izena. XX. mende hasierako planoetan ikusten da eraztun hau, eta antza alde honi parkearen erabilera emateko gaitutako instalazioa da. Aipatu izenarekin bataiatu genuen 1993. urtean muinoaren gainean aurkitu genuen Erdi Aroko gotorlekua.

1987 eta 1992 urte bitartean egin ziren aipatu aurkikuntza gauzatzeko urratsak; hasteko, aintzat hartu genituen leku honetan gaztelu bat izan zela zioten albisteak, areago gailurrean gaitutako behatoki bien oinetan horma zaharrago batzuk ikusi genituenean; izan ere, dorre bati legozkiokeen hormen gainean egokitu zuten herensugearen iturria. Geroago, 1992an, zundaketa batzuk ireki genituen hipotesia berresteko, eta gotorlekuaren horma biren elkargunea, angeluan, agerian geratu zela esan behar dugu.

1994an, parkea berritzeko lanen harira, esku-hartze arkeologiko zabalago bat planteatu genuen, eta gotorlekuaren forma zehaztu ahal izan genuen: lau angeluko eraikina zen, izkina bakoitzean kubo bana zuela. Kuboetako bik behatokien atalak osatzen zituzten, baina beste biak zorupean zeuden eta, horregatik beragatik, kontserbazio egoera hobean. Hainbat puntutan utzi genituen agerian itxitura hormak, gisa horretan berrosatu ahal izan genuen oinplano orokorra. Egiturak puntu jakin batzuetan agerian uztera mugatu ziren lan arkeologikoak, sedimentu arkeologikoak beren horretan uzten saiatu ginen etorkizuneko esku-hartzeetan aztertuak izateko, baina sedimentua altxa behar izan genuen tokietan Erdi Aroko erregistroak jaso genituen; horien artean Aragoiko Alfontso I.aren garaiko txanpon bat.

Iturri idatzietan ez dago gotorleku honi buruzko aipamenik, ezezaguna da Nafarroako nahiz Gaztelako dokumentuetan. Tradizioaren arabera Nafarroako errege Antso Abarkak eraikiarazi zuen, eta hori egiaztatzen zaila bada ere, Nafarroako fundazioa dela iradokitzen dute esku artean darabiltzagun datuek. Erdi Aroko hiribilduen osaeraren azterketan aurrera egin ahala (hasiera batean Gipuzkoan hasi ginen kontu hau aztertzen baina gero baita beste lurraldeetan ere), egiaztatu genuen nola Gaztelako fundazio asko eta asko lehendik Nafarroako koroa-

Goikobalu es el topónimo utilizado para referirse al anillo de la plataforma superior del monte Santa Bárbara que domina el casco histórico de Mondragón. Este anillo aparece en los planos de principios del siglo XX y parece corresponder a instalaciones de recreo habilitadas en el lugar para su uso como parque. En 1993, los restos de la fortificación medieval que descubrimos en el alto de la colina fueron bautizados con este nombre.

El hallazgo se fue fraguando entre 1987 y 1992; primero se dio crédito a las noticias que hablaban de un castillo en el lugar, sobre todo a la vista de fábricas de muros más antiguas en la base de los dos miradores habilitados en la cima; en el que se coloca la fuente del dragón se reconocieron muros que podían pertenecer a una torre. Más adelante, en 1992, se llevaron a cabo varios sondeos con el objeto de confirmar la hipótesis; se saldaron con la aparición del encuentro en ángulo de muros pertenecientes a la cortina de la fortificación.

En 1994, con motivo de la reforma del parque se planteó una intervención arqueológica más amplia que permitió trazar la forma de la fortificación: una construcción cuadrangular con cubos en las esquinas. Dos de ellos formaban parte de los miradores, pero los otros dos se encontraron enterrados y, por esa razón, mejor conservados. Los muros de cierre fueron desenterrados en varios puntos y, de esta manera se reconstruyó la planta general. Los trabajos arqueológicos se limitaron a exhumar puntualmente las estructuras, intentando preservar los sedimentos arqueológicos para intervenciones futuras, aunque en los casos en los que fue preciso hacerlo se obtuvieron registros de cronología medieval; entre ellos, una moneda de Alfonso I de Aragón.

No hay menciones en las fuentes a esta fortaleza; es desconocida en la documentación de Navarra y también de Castilla; la tradición, por su parte, indica que fue levantado por el rey navarro Sancho Abarca y, aunque este extremo es difícil de probar, los argumentos que se manejan apuntan a una fundación navarra. Conforme avanzamos en el estudio de la formación de las villas medievales, cuestión que abordamos inicialmente en Gipuzkoa pero que luego hemos trasladado a otros territorios, constatamos que un buen número de fundaciones castellanas se

ren mende egondako herriak ziren; halaxe gertatu zen Donostian, Hondarribian, Getarian, Zarautzen, Gasteizen, Lapuebla de Labarcan, Lagranen, Guardian eta beste batzuetan.

Arrasaten hiri-gutuna bera da aurreko okupazio batez mintzo zaiguna, arestian adierazitakoei gehitu behar zaie. 1260. urtekoa da hiri-gutuna, Nafarroak Gaztelaren aurkako gerra galdu eta urte gutxi batzuk geroagokoa, 1200. urtean jabetu baitzen Gaztela Gipuzkoaz.

La actuación en Ekain se enmarca en un proyecto de revisión de las representaciones de zoomorfos en visión frontal –principalmente cabras–, que constituyen un tema clásico del arte, esencialmente mueble, del final del Magdaleniense, tanto en el Cantábrico como en el sur de Francia. Los exhaustivos catálogos de I. Barandiarán y de Mª S. Corchón dieron buena cuenta, para el caso cantábrico, de esta realidad; y en trabajos posteriores, de síntesis o relativos a hallazgos concretos, no faltan referencias a ese tipo de figuraciones. No obstante, el incremento del corpus de motivos desde los años 1980 aconsejaba una puesta al día de ese tipo de grafías, dado que las nuevas técnicas de análisis posibilitan lecturas más

Goian: Auntzei galerian identifikatutako grafia, orain arte ezezaguna. Behean: aurreko ikuspegitik ikusitako ahuntzen irakurketa teknologikoa (ezkerretik eskuinera, 6b, 6c eta 7. irudiak).

Arriba: grafía inédita identificada en la galería Auntzei. Abajo: lectura tecnológica de las cabras en visión frontal (de izquierda a derecha representaciones nº 6b, 6c y 7).



tako edo margotutako motiboen irakurketa kontrastatuagoak egitea ahalbidetzen baitute. Aldi berean, arte higikorraren azterketan ikuspuntu teknologikoa baliatuta –Frantzian 1990. urteetan aplikatuta–, aurreramendu handiak egiten ari gara aztertzen ari garen gaia ondo ulertzeko. Kate operatiboen ikuspuntutik aztertutako artearen erregistroak aukera ematen digu elementu apaingarri hauek osatzean egindako keinuen sekuentziak identifikatzeko eta zerrendaratzeko. Eta horrexek ahalbidetzen du, estiloen antzekotasunaren azterketarekin batean, «kultura nortasun» batekin eta berarekin identifikatzeko edo ez identifikatzeko aukera.

Eta hori garrantzitsua da hizpide dugun gaiari gagozkionean, aurreko ikuspegitik ikusitako ahuntzen irudiak Kantauri aldearen eta Frantziaren hego-mendebaldearen arteko distantzia handiko harremanen zentzuan interpretatu baitira orain arte. EAEri dagokionez, Arkeologi Museoan (Bilbo) eta material arkeologikoak eta paleontologikoak Kontserbatzeko eta Ikertzeko Gipuzkoako Zentroan (Donostia) dauden arte higikorreko objektu batzuk aztertu genituen 2011n. Ekain leizean aurkitu ziren Kantauri aldeko eta Frantziaren hego-mendebaldeko eremuan ezagutzen diren aurreko ikuspegitik ikusitako animalien formako irudi harpetar urrietako batzuk, eta horrexek eragin zuen geure esku-hartzea leizean.

Aurreko ikuspegitik ikusten diren ahuntzen irudien azterketa izan zuen xede leizean burutu genuen esku-hartzeak. Motiboak, beltzez pintatuak, 5bis, 6b, 6c eta 7 zenbakien bidez identifikatzen ziren bibliografian (Altuna eta Apellániz, 1978), hiru ahuntz identifikatzen ziren eta balizko beste bat, azken hau oso eskematizatuta. Grafien formak aztertu genituen, eta haien azterketa tipometrikoa eta teknologikoa eraman genuen burura. Ikuspegi orokorrak eta testuingurua argazki digitalen bidez dokumentatu genituen, eta makro-argazkiak eta lupa binokularra baliatu genituen aztergai genituen grafien xehetasun teknologikoak zehazteko xedean. Kasu guztietan aztertu ahal izan genituen grafien forma eta tipometria. Aitzitik, kontserbazio arazoak tarteko, soilik hiruren azterketa teknologikoa burutu ahal izan genuen.

Aztergai genituen irudiei leku egiten dieten panelak aztertuta –alboko Auntzei galerian–, bost unitate grafikotan egin genuen lan. Gaiari dagokionez, haietatik bik ez diote zirrikiturik uzten zalantzari, aurreko ikuspegitik ikusten diren ahuntzen irudiak dira. Grafia horietatik bakar bat (7.a) dago osorik, burua, adarrak eta belarriak aurrera begira, eta gorputza perfilean. Bigarren irudiak (6b) aurrera begira ditu burua, belarria eta adarrak, baita apur batean kakotutako gorputzaren abiapuntua ere.

Bibliografian adierazten diren beste bi irudiek (5bis eta 6c) formatu oso sinplea dute, baina lerro soil batzuen bidez antzeko grafiak irudikatzen dituzte, hau da, animaliaren adarrak eta burua edo gorputza iradokitzen duten marrak dira. Bosgarren grafia marra oso lauso batzuez osatua da, marrak beltzak dira, baina orain arte ez dira aintzakotzat hartu. Marra hauek aurreko ikuspegitik ikusitako ahuntz bat osa lezakete, adarrak (bat kakotuta) eta belarrien antzeko luzakin bi iradokitzen baitituzte; era berean, animaliaren burua edo

contrastadas de los motivos grabados o pintados. Al tiempo, la incorporación del enfoque tecnológico al estudio del arte mueble –introducido en Francia en los años 1990– está suponiendo un avance cualitativo en la comprensión de la temática estudiada. El registro artístico, estudiado desde el punto de vista de las cadenas operativas, nos permite identificar y relacionar las secuencias gestuales seguidas durante la realización de los elementos decorativos. Dichas observaciones posibilitan, junto al análisis de las analogías estilísticas, una aproximación a la identificación, o no, de una misma «identidad cultural».

Lo comentado cobra especial interés en relación al tema que nos ocupa, no en vano las figuraciones de cabras en visión frontal se han venido interpretando en clave de relaciones a larga distancia entre el Cantábrico y el suroeste francés. Por lo que a la CAPV se refiere, en 2011 estudiamos una serie de objetos de arte mueble depositados en el Arkeologi Museoa (Bilbao) y en el Centro de Conservación e Investigación de los materiales arqueológicos y paleontológicos de Gipuzkoa (San Sebastián). La cueva de Ekain incluye algunas de las escasas representaciones parietales de zoomorfos en visión frontal conocidas en el área franco-cantábrica, circunstancia que motivó nuestra intervención en la cavidad.

La actuación tuvo por objeto el estudio de las representaciones parietales de cabra en visión frontal conservadas en la cueva. Los motivos, pintados en negro, habían sido identificados como 5bis, 6b, 6c y 7 en la bibliografía (Altuna y Apellániz, 1978), habiéndose identificado tres cabras y otra posible muy esquematizada. El estudio consistió en el análisis formal, tipométrico y tecnológico de las grafías. La documentación se llevó a cabo mediante la fotografía digital de vistas generales y del contexto, y mediante la macrofotografía y lupa binocular para detalles tecnológicos de las grafías a estudio. En todos los casos se pudo estudiar la forma y la tipometría de las grafías. En cambio, el estudio tecnológico solamente ha sido posible en tres de ellas, por motivos de conservación.

Tras la inspección de los paneles que albergan las representaciones objeto de estudio –situados en la galería lateral Auntzei–, la actuación se desarrolló sobre cinco unidades gráficas. Por lo que respecta a la temática, dos de ellas no ofrecen duda alguna respecto a su identificación como figuraciones de cabra en visión frontal. Sólo una de esas grafías está completa (nº 7), con la cabeza, cuernos y orejas de frente, y el cuerpo de perfil. La segunda figura (nº 6b) presenta la cabeza, orejas y cuernos de frente, así como el arranque del tronco ligeramente arqueado.

Las otras dos representaciones mencionadas en la bibliografía (nº 5bis y 6c) cuentan con un formato muy sintético, pero que reproduce las líneas básicas en grafías similares, es decir, trazos que sugieren los cuernos y la cabeza o cuerpo del animal. La quinta grafía consiste en una serie de trazos muy desvaídos, también pintados en negro, no considerados hasta el momento. Dichos trazos podrían componer una figuración de cabra en visión frontal, con indicación de los cuernos, uno de ellos arqueado, y de dos apéndices a modo de orejas; al tiempo, una masa de color podría represen-



Urtiaga leizeko konpresorea (erref. UR 2D.235), aurreko ikuspegitik ikusitako ahuntzaren grabatuaz apainduta.

Compresor de la cueva de Urtiaga (ref. UR 2D.235) decorado con una representación grabada de cabra en visión frontal.

gorputza irudikatu lezakeen masa koloreduna dago. Laburbilduta, aurreko ikuspegitik ikusitako bi ahuntz daude Ekain leizean, baita itxura batean kontzeptu berari erantzuten dioten beste hiru irudi gehiago, baina hauek oso sinpleak dira, eta ez digute gehiago zehazteko aukera ematen.

AdarrenAdarren okerra bestelakoa da grafia bakoitzean, eta azterketa zehatzago bat egiten ez den eta beste kasu batzuekin erkatzen ez diren artean, esan dezagun ez zaizkiola eredu jakin bati jarraitzen. Irudien tipometriari dagokionez, irudiak txiki samarrak dira, baina proportzioaren ikuspuntutik koherenteak dira elkarren artean. Osorik dagoen irudia (7.a) da guztietan handiena (18 cm luze), eta grafia sinpleetako batean (6c) soilik 5 cm-koa da balizko adarren arteko tartea.

Analisi teknologikoa burutu ahal izan genuen hiru kasuetan marren ordena eta norabidea zehaztu ahal izan genituen, eta aztertutako hiru irudietan (6b, 6c eta 7) *modus operandi* bat eta bera dokumentatu genuela esan behar dugu. Irudiak goitik behera marraztu zituzten, adarretatik hasi eta gorputzean amai. Marren norabidea ere bera da, hau da, adarrak goiko muturretatik marrazten hasten ziren eta beherantz egiten zuten. Datu hauek guztiek adierazten digute irudiak betiere hasten zirela goitik marrazten (adarrak), gero belarriak marrazten zituztela, eta burua edota gorputza osatzen zituzten marrekin amaitzen zutela, gorputz atal horiek dauden kasuetan.

Txosten honen aurreneko ataletan adierazitakoarekin bat etorrita, esan dezagun Ekain leizeko grafiak maila teknikoan eta estilistikoan aurreko ikuspegitik ikusitako beste ahuntz irudiekin –nola labar irudiekin hala irudi higikorrekin (ikus ondoko Urtiagako kasua)– erkatuta aukera izango dugula aztertutako arte fenomenoa hobe ulertzeko. Fenomeno honek eragin garrantzitsuak ditu antropologikoki, gizarte ehiztarien tarte labur eta luzeko mugikortasunaren berri eman baitiezaguke.

tar la cabeza o tronco del animal. En síntesis, la cueva de Ekain incluye dos representaciones seguras de cabra en visión frontal y tres figuraciones que parecen responder al mismo concepto, pero el carácter sintético de las mismas impide determinarlo con certeza.

El arqueamiento de los cuernos varía en cada grafía, sin que quepa determinar un patrón, a falta de un estudio más exhaustivo y de comparación con otros casos. La tipometría de las figuras nos indica una preferencia por representaciones de pequeño tamaño, pero coherentes entre sí desde el punto de vista de la proporción. La representación completa (nº 7) es la de mayor tamaño (18 cm de longitud), mientras que en una de las grafías sintéticas (nº 6c) la distancia entre los posibles cuernos es de tan solo 5 cm.

En los tres casos en los que el análisis tecnológico resultó factible, pudo determinarse el orden y sentido de ejecución de los trazos, habiéndose documentado un mismo *modus operandi* en las tres figuraciones estudiadas (nº 6b, 6c y 7). Las representaciones se trazan de arriba hacia abajo, desde los cuernos hasta el tronco. El sentido de los trazos es también el mismo, es decir, los cuernos se comienzan a trazar en el extremo superior y se prolongan hacia el inferior. Estos datos indican que las figuras se comienzan siempre por la parte superior del motivo (cuernos), siguiendo por las orejas y finalizando por los trazos que conforman la cabeza y/o tronco, en los casos en los que estas partes anatómicas existan.

En sintonía con lo apuntado en los primeros párrafos de esta memoria, la comparación, a nivel técnico y estilístico, de las grafías de Ekain con otras representaciones de cabras en visión frontal –tanto parietales como muebles (véase el cercano caso de Urtiaga)– favorecerá una mejor comprensión del fenómeno artístico estudiado. Éste cuenta con relevantes implicaciones antropológicas, como las relativas a la movilidad, a corta y larga distancia, de las sociedades de cazadores.

M.A. Fano; O. Rivero; D. Garate

C.9.4. **Goikola Berri leizea (Lastur)**

I. zundaketa kanpaina
Zuzendaritza: Miriam Cubas
Finantziazioa: Eusko Ikaskuntza

C.9.4. **Cueva de Goikola Berri (Lastur)**

I Campaña de sondeos
Dirección: Miriam Cubas
Financiación: Eusko-Ikaskuntza

The archaeological intervention carried out in Goikola Berri cave during 2011 focused on a 2m^2 sondage located in the access zone, which reached a depth of 60 cm. During this 1st season of sondages, the upper part of the archaeological sequence was documented. This part appears to date from the Chalcolithic Period - Bronze Age.

Proiektu handiago batera biltzen da Goikola Berri leizean planteatutako esku-hartze arkeologikoa, Erdi Holozenoan zehar Lastur haranean egokitu ziren giza taldeen ereduak ezagutzea bila duen proiektu zabalagora. Linatzeta leizean dokumentatutako sekuentzia arkeologiko garrantzitsuak eragin zuen proiektu honen planteamendua, leize biak unitate geografiko berean baitaude. Goikola Berri aztarnategiko esku-hartze arkeologikoak leizean izandako giza okupazioen sekuentzia erregistratzea eta aztertzea eta Linatzetakoan eta haraneko beste leizeetan dokumentatutakoekin erkatzea bila ditu. Eskuragarri dauden aurretiko informazioei zor diegu leku hau hautatu izana zundaketa programa abiarazteko. 1970. hamarraldian leizearen sarreratik gutxi gorabehera 3 metrotara zundaketa bat ireki zuen Antxieta Jakintza Taldeak, eta horrek hondakin arkeomalakologikoak eskaini zituen funtsean. Gainera material batzuk jaso zituzten gainazaletik: harrizko tresna (laska edo printza 1), zeramikazko materiala (itxuragabeko zati 1) eta fauna hondakinak (*Capra*

La intervención arqueológica planteada en Goikola Berri se inserta en un proyecto más amplio cuyo objetivo es conocer los patrones de asentamiento de los grupos humanos en el valle del Lastur durante el Holoceno Medio. El planteamiento de este proyecto se ha visto motivado por la importancia de la secuencia arqueológica documentada en la cueva de Linatzeta, situada dentro de esta misma unidad geográfica. La actuación arqueológica en el yacimiento de Goikola Berri tiene el objetivo de registrar y analizar la secuencia de ocupaciones humanas acontecidas en la cavidad e intentar establecer una correlación con las documentadas en Linatzeta y el resto de cavidades del valle. La elección de este emplazamiento para iniciar el programa de sondeos se debe a las informaciones previas disponibles. El grupo de Antxieta Jakintza Taldea realizó en la década de 1970 una cata situada aproximadamente a unos 3 metros de la entrada de la cueva que proporcionó fundamentalmente restos arqueomalacológicos. Además se recogió una serie de materiales superficiales: industria lítica (1 lasca), material cerámico (1 fragmento informe) y restos faunísti-

Goikola Berri leizea (Lastur).
Leizeko sarrera.

Cueva de Goikola Berri (Lastur).
Entrada de la cavidad.

hircus, Capra hircus/Ovis aries, *Canis*, *Meles meles)*. Dokumentatutako materialak kontuan izanik, depositu honek Paleolito osteko kronologia zuela adierazi zuten. Aurretiko informazio hauek eraman gintuzten aztarnategian kata bat irekitzeko planteamendua egitera, haren kronologia zehazteko eta multzo arkeologikoak ezaugarritzeko xedean.

Bi alditan eraman genuen burura aurreneko kanpaina hau: lehenengoa 2011ko otsailean; eta bigarrena urte bereko urrian. Leizeko sarreran 2m^2-ko zundaketa bat egin genuen, ipar-ekialdetik hego-mendebaldera, hau da, leizearen beraren norabidearen arabera. Lehenengo kanpaina honetan zehar aurreneko 10 taila edo unitate artifizial induskatu genituen 60 cm-ko sakonera mailaraino iritsi arte. Ateratako sedimentu guztia 2 mm sareko galbahe batetik bahetu genuen, lehorrean, eta lagin batzuk jaso genituen uretan igeri edukita aztertzeko. Taila eta lauki bakoitzeko sektore jakin bateko sedimentua bereizi genuen, hau da, guztira 20 lagin bereizi genituen igeri egon eta ondoren aztertzeko.

Itxura uniformea ageri du depositu arkeologikoak, baina sustrai askoren eragina hautematen da hartan. Nola sedimentuen ikuspegitik hala sekuentzia honen goiko aldeko multzo arkeologikoaren ikuspuntutik oso homogeneoa da, eta beraz, maila arkeologiko baten eta bakarraren aurrean gaudela uste dugu guk.

Multzo arkeologikoari dagokionez, nagusi dira zeramikazko materialak. Beti dira eskuz landutako piezak, neurri handiko desgrasanteekin eta dekoraziozko motiborik gabeak. Antzera eginda dauden ontziak dira, handiak, pareta lodikoak. 1. tailan aurkitutako teila zati biak bazter utzita, ez genuen material modernoaren presentzia dokumentatu, ez eta tornuan landutako zeramika zatirik ere.

Goikola Berri aztarnategian burura eramandako I. zundaketa kanpaina honek aukera eman digu sekuentzia arkeologikoaren goiko partea dokumentatzeko. Erregistratutako multzo arkeologikoa, batez ere zeramika, Kalkolito-Brontze Aroan kokatu liteke, baina datazioen absentzia eragozpena da adierazitakoa zalantzarik izan gabe berresteko.

cos (*Capra hircus, Capra hircus/Ovis aries*, *Canis*, *Meles meles)*. En función de los materiales documentados, se consideró que el depósito tenía una cronología postpaleolítica. Estas informaciones previas nos han llevado a plantear la realización de una cata en el yacimiento con la finalidad de determinar su cronología y caracterizar los conjuntos arqueológicos.

Esta primera campaña se ha desarrollado en dos fases: la primera de ellas tuvo lugar durante el mes de febrero de 2011; y la segunda a lo largo del mes de octubre del mismo año. Los trabajos arqueológicos se han centrado en la realización de un sondeo de 2m^2 en la zona de acceso a la cavidad, con una orientación NE-SO, es decir, dispuesto en sentido longitudinal al desarrollo de la propia cavidad. Durante esta primera campaña se han excavado las 10 primeras tallas o unidades artificiales hasta alcanzar una profundidad de 60 cm. Se ha revisado todo el sedimento extraído mediante cribado en seco con malla de 2mm y se ha realizado un muestreo para su tratamiento mediante flotación. Se ha seleccionado el sedimento de un sector por cada talla y cuadro, lo que supone un total de 20 muestras para flotación.

El depósito arqueológico presenta un aspecto uniforme, en el que se observa la afección de numerosas raíces. En general, se observa una gran homogeneidad tanto a nivel sedimentológico como del conjunto arqueológico en esta parte superior de la secuencia, lo que induce a considerar que nos encontramos ante un único nivel arqueológico.

El conjunto arqueológico está caracterizado por un predominio del material cerámico. En todos los casos se trata de material elaborado a mano, con desgrasantes de gran tamaño y sin motivos decorativos. Se trata de recipientes con una manufactura similar, de grandes dimensiones y paredes gruesas. No se ha documentado la presencia de material moderno, exceptuando dos fragmentos de teja en la talla 1, ni cerámica realiza a torno.

La I campaña de sondeos en el yacimiento de Goikola Berri ha permitido documentar la parte superior de la secuencia arqueológica. El conjunto arqueológico registrado, especialmente el cerámico, parece adscribirse al Calcolítico-Edad del Bronce, si bien la ausencia de dataciones nos impide sostener con rotundidad esta afirmación.

M. Cubas; J. Tapia

C.9.5. **Urkulu leizea (Lastur)**

Katen bidezko II. miaketa kanpaina
Zuzendaritza: María José Iriarte; *Antxieta Arkeologi Taldea*
Finantziazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia

C.9.5. **Cueva Urkulu (Lastur)**

II Campaña de prospección con catas
Dirección: María José Iriarte; *Antxieta Arkeologi Taldea*
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa

The various soil pits dug confirm the existence of different sedimentation processes in Urkulu cave, and its occupation during the Middle Palaeolithic.

2010. urtean altxatzen hasitako katan induskatzen jarraitu dugu kanpaina honetan. Alde honetako katan erregistratutako sedimentua lehendik ondoan egin-

En la campaña de este año hemos continuado con la cata iniciada en 2010 caracterizada por el diferente registro sedimentario que presenta respecto a

dako zundaketan erregistratutakoa ez bezalakoa da. Arian-arian murriztu egiten da harririk gabeko buztin trinkoko sedimentu maila (arkeologiaren ikuspuntutik ia erabat antzua), eta berretsi egiten da aspaldiko zundaketaren alboetako zerrendetara metatzen dela material arkeologikoa (harrizko tresnak eta fauna hondakinak). Kata honen gainera ura zuzenean ez sartzeko xedean egokitu genuen estalkiak (ura izan baitzen 2010. urtean aurkitutako ertza behera etortzea eragin zuena) ondo asko bete du bere egitekoa, eta arkeologikoki emankorra den aldean kalterik ez izatea lortu da. Hala eta guztiz ere, sabaitik iragazten den urak zeharo baldintzatzen ditu lanak kata honetan, areago eguraldia lagun ez denean. Horrexegatik daude lanak apur bat atzeratuta zundaketa honetan.

Oraingoz 2,05 metrotan sakondu dugu batez beste, baina oraindik beste 0,5 metro geratzen dira altxatzeko. Hala eta guztiz ere, kontuan izanik aurreko zundaketan ez ginela harri amaraino iritsi, oso litekeena da induskatzeko dagoen sedimentuzko geruza are lodiagoa izatea. Beraz, induskatutako azken geruzan hautemandako sedimentuzko maila berria zehaztea eta Urkulu leizeko estratigrafiaren sekuentzia osatzea izango ditugu bete beharreko helburu nagusiak. Aspaldiko zundaketako zoruaren maila iristen dugunean 2 metro koadro izango ditugu lan egiteko eta harri amairaino iristeko (induskatutako azaleraren txikiak eta iritsitako sakonera maila apalak ez zuten helburu hau betetzen utzi aspaldiko zundaketan).

Kontuan izanik egungo leizeko sarreraren ondoko aldea sabaitik behera etorritako blokeek desitxuratuta dagoela eta adierazitako zundaketan hautemandako estratigrafiaren bilakaera ezberdina dela, beste kata bat ireki genuen egungo leizearen kanpoko aldean (P1 kata); ez genuen hondakin arkeologikorik erregistratu. Honenbestez beste kata bat ireki genuen (P2) leizearen barruan, baina gainazaletik gertu geratu zen agerian harri ama. Egoera horren aurrean beste kata bat (P3) zundatu genuen lehenengo kataren hegoaldean. Hemen neurri ederreko bloke batzuk izan ziren induskatu beharreko eremua nabarmen mugatu zutenak. Hala eta guztiz ere, hemen eta lehenengo katan berreskuratutako materialen (fauna hondakinak eta harriak) arteko homogeneotasun handiak itxura batean berretsi egiten du alde honetan maila arkeologikoaren parte bat kontserbatzen dena. Egun darabiltzagun datuen arabera, Erdi Paleolitoan kokatu behar dugu maila hau. Katetan lortutako emaitzak ikusirik, katetako batean lanak (datazioak barne) amaitu gabe daudela kontuan izanik, guk uste dugu 2012ko kanpainan aztarnategi honetako estratigrafiaren sekuentzia osoa eskaintzeko moduan egongo garela.

las antiguas catas contiguas existentes. Progresivamente el nivel de sedimento arcilloso compacto sin piedras (arqueológicamente prácticamente estéril) se va reduciendo y se confirma que en las bandas colindantes a la cata antigua es donde se concentra el material arqueológico (industria lítica y restos faunísticos). La cubrición que se realizó sobre la cata para impedir la acción directa de la entrada de agua sobre la cata (causante del derrumbe de cantil encontrado en 2010) ha cumplido su función evitando nuevos deterioros de la zona arqueológicamente fértil. No obstante, la existencia de esta filtración de agua desde el techo condiciona el trabajo en esta cata en los periodos de climatología adversa, circunstancia por la que el trabajo en esta cata está más retrasado.

Por el momento, hemos bajado una media de 2’05 m de profundidad y todavía restan unos 0’5 m. Sin embargo, teniendo en cuenta que en la cata anterior no se llegó a la roca madre, es posible que la potencia de sedimento que resta por excavar sea mayor. Los dos principales objetivos a culminar son definir el nuevo nivel sedimentario que se ha detectado en la última capa excavada y completar la secuencia estratigráfica de la cueva de Urkulu. Cuando alcancemos el nivel de suelo de la cata antigua, dispondremos de 2 metros cuadrados para poder trabajar y alcanzar la roca madre (la reducida superficie de excavación y la profundidad alcanzada, no permitió conseguir este objetivo en la cata antigua).

Teniendo en cuenta que el desprendimiento de bloques del techo en la zona más cercana a la entrada actual de la cavidad desvirtúa su configuración original y la diferencia de la evolución estratigráfica observada en la cata mencionada, se decidió efectuar otra cata en el exterior de la cavidad actual (cata P1) en la que no hay registro del nivel arqueológico. Ante este resultado se realizó otra cata (P2) en el interior de la cavidad en la que la roca madre apareció cerca de la superficie. Dada esta situación, comenzamos una tercera cata (P3) al sur de la cata inicial. En este caso, la aparición de algunos bloques de considerable tamaño es la que ha limitado considerablemente el área de excavación. No obstante, la gran homogeneidad de los materiales (faunísticos y líticos) recuperados con los de la cata inicial parecen confirmar que en esta zona se conserva parte del nivel arqueológico, que con los datos actuales se adscribe al Paleolítico medio. A la vista de los resultados de las diferentes catas, y lo que queda de trabajo en una de ella (dataciones incluidas), consideramos que durante la campaña de 2012 podremos disponer de la valoración de la secuencia estratigráfica completa de este yacimiento.

Antxieta Jakintza Taldea; María José Iriarte

C.10. DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

C.10.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

C.10.1.1. **Fermin Calbeton, 23**

Zuzendaritza: Ander Arrese
Finantziazioa: Ikena S.L.

C.10.1.1. **Fermín Calbetón, 23**

Dirección: Ander Arrese
Financiación: Ikena S.L.

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Orubearen azaleraren parte handi bat hartu zuen eskuhartze arkeologikoak. Agortu egin genituen bertan beste ikerketa bat abiarazteko aukerak oro, emaitzak negatiboak izan baitziren historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik.

Intervención desarrollada en buena parte de la extensión del solar, agotando la posibilidad de una nueva investigación, siendo los resultados de escaso o nulo interés histórico arqueológico.

A. Arrese

C.10.2. UDAL BARRUTIA / TÉRMINO MUNICIPAL

C.10.2.1. **Lasarte-Hendaia tren-lerroa. Herreratik Loiolarako tartea**

Zuzendaritza: Luis Valdés
Finantziazioa: Loiola-Herrera ABEE

C.10.2.1. **Línea ferrocarril Lasarte-Hendaia. Tramo de Herrera a Loiola**

Dirección: Luis Valdés
Financiación: U.T.E. Loiola-Herrera

The monitoring and control of the stretch of the well-known «topo» train that runs between Loiola and Herrera have so far failed to reveal any data of interest. The area through which the train runs has been seriously affected by humans and no indication of occupation during Classical times has been found in prior archaeological documents.

Lasarte - Hendaia trenbide-lerroa Loiola eta Herrera arteko atalean bitan banatzeko obren gaineko jarraipen lanek oso emaitza kaskarrak eskaini zituzten. Atal honen parterik handiena lurpean dago, eta beraz soilik eremu txiki batzuetan izan zen beharrezkoa kontrola. Eremu hauek guztiek inguru hau aspaldian sakon nahasi zuten jardueren ondorioak nozitu dituzte. Jarraipen lanen xede izandako lau eremuetatik soilik batean kontrolatu ahal izan genuen nahasi gabeko gune txiki bat, Intxaurrondoko tunelaren sarrera inguruan, Herrerara bidean. Negatiboak izan ziren miaketa arruntaren eta makineriaren bidezko indusketa lanen gaineko jarraipen lanen emaitzak. XX. mendearen bigarren erdialdeko ontzi eta baxera zatiak baizik ez genituen ikusi.

Zilegiak deitu parkean eta Zarategi ibilbidearen irteeran, auzoa eraikitzean gainazal osoa galarazi zutenaren susmoa berresteko baizik ez zuen balio izan jarraipen lanak. Leku bietan argi eta garbi ikusi ahal izan genuen parkea eta ibilbidea zolatzeko azpiko betegarriaren azpian zuzenean erregolitoa edo harri ama azaltzen zela.

Zandargirako zerbitzu sarreran, GI-20 autobidearen ondoan, Donostiara bidean, argi eta gari ikus zitekeen zorua behin eta berriz nahasia izan dela harri naturalaren mailaraino, ez zegoen nahasita ez zegoen

El seguimiento del tramo del desdoblamiento de la línea del «Topo» Lasarte - Hendaia entre Loiola y Herrera ha sido muy pobre en resultados. La mayor parte del tramo va soterrado, por lo que el control solo ha sido necesario en pequeñas zonas. Estas áreas se encontraban todas ellas afectadas de antiguo por actuaciones que habían alterado el entorno de forma profunda. De las cuatro zonas en las que se ha hecho seguimiento solo en el entorno de la entrada del túnel en Intxaurrondo dirección a Herrera se pudo controlar un reducido espacio no alterado. El resultado de la prospección pedestre y el seguimiento de la excavación con maquinaria fue negativo. Restos de recipientes y loza de la segunda mitad del s. XX, ha sido todo lo recuperado.

En la zona del parque de los Montes Francos y de la salida del paseo de Zarategui el seguimiento sirvió para confirmar la sospecha de que toda el área había sido arrasada en superficie cuando se construyó el barrio. En ambas zonas se pudo ver que el subsuelo bajo las capas de nivelación para pavimentar el parque y el paseo es el regolito o directamente la roca natural.

En la zona de entrada de servicio de Zandargui junto a la autovía GI-20 dirección a San Sebastián, las sucesivas alteraciones del suelo hasta la roca natural se han producido con tal intensidad que no era posi-

ezer hautematerik. Ondorioz, ondarearen ikuspuntutik ez dira batere interesgarriak izan aurkitutako hondakinak, ia egungoak dira.

Herrerako tren geltokirako sarbidea desmuntatzeko prozesuan ikusi genuen hutsaren hurrengo zirela nahasi gabe kontserbatutako guneak. Lur mugimenduen gaineko eta geltoki modernoari eta sarrera berriei leku egiteko indusketen gaineko jarraipen lanak egin genituen. Herrera ibilbidetik antolatutako sarrera baten eta inguruan lurperatutako ur hodiei leku egiteko ebakia dokumentatu genuen. Sakontzen hasi eta zentimetro gutxi batzuetara harria azalduta alde honetako gainazala erabat nahasia izan zela ikusi genuen. Ez genituen geltokitik gertuko alde honetaraino iritsiko zen senaiaren muturreko balizko depositua aurkitu.

ble apreciar nada que no hubiese sido removido. Por lo que de los restos hallados nada presentaba un interés patrimonial, siendo subactuales.

En el proceso de desmontaje de acceso a la estación de tren de Herrera se ha comprobado que las zonas que se conservaban no alteradas eran mínimas. Se siguió el movimiento de tierra y la excavación de los nuevos accesos y de la estación moderna. Se documentó el corte de un acceso desde el paseo de Herrera y de las conducciones de agua soterradas en su proximidad. La presencia de roca desde los primeros centímetros mostró el intenso arrase superficial de la zona. Los posible depósitos de la cola de la ensenada, que debió llegar hasta una zona próxima a la estación no han sido hallados.

L. Valdés

C.11. ELGETA

C.11.1. **Abridio etxea**

Zuzendaritza: Pía Alkain Sorondo
Finantziazioa: Igor Azkarate

C.11.1. **Casa Abridio**

Dirección: Pía Alkain Sorondo
Financiación: Igor Azkarate

The archaeological intervention failed to discover any evidence linked to the history of Casa Abridlo or the Urrupain House-Tower.

Abridio Etxea XVI. mendeko eraikina den Urrupain dorretxearekin identifikatzen bada ere, esku-hartze arkeologikoak ez zuen haren historiari lotutako aztarna bakar bat ere erregistratzeko aukera eman.

Geruza naturalak ia gainazaleraino azaleratzen zirela esan behar dugu. Beraz, lur eremu hau eraikina hobe egokitzeko eta gibelaldeko gorputza eraikitzeko aldez aurretik induskatu egin zutela ondorioztatu behar dugu guk. Ondorioz betikoz galdu dira, horrelakoak izan baldin baziren, dorretxeari loturiko hondakin arkeologikoak oro.

Aunque la Casa Abridio se identifica con la casa-torre Urrupain que corresponde a una construcción del siglo XVI, la intervención arqueológica no permitió registrar ningún indicio asociado a su trayectoria histórica.

Hay que decir que los sustratos naturales afloraban prácticamente en superficie por lo que se deduce que el terreno fue excavado para un mejor asentamiento del edificio y la construcción del añadido trasero, habiendo desaparecido, en el caso de existir, los restos arqueológicos asociados a la casa-torre.

P. Alkain Sorondo

C.12. ELGOIBAR

C.12.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

C.12.1.1. **San Bartolome, 30**

Zuzendaritza: Pía Alkain Sorondo
Finantziazioa: Manuel Amaro

C.12.1.1. **San Bartolomé, 30**

Dirección: Pía Alkain Sorondo
Financiación: Manuel Amaro

The archaeological intervention carried out at num. 30 San Bartolomé Street revealed the presence of a wall, identified as the old town wall. It is a 0.90 metre thick structure built from stone and limestone and sand mortar and surrounded by a moat.

Elgoibarko harresiko zimentarriaren ikuspegia, San Bartolome kaleko 30. zenbakiko orubean.

Vista del cimiento de la obra de la muralla de Elgobar, localizada en el solar nº 30 de la calle San Bartolomé.

Berriro ere San Bartolome kalean burututako esku-hartze arkeologiko batek eman du hiribilduko harresiarekin identifikatzen den horma bat dokumentatzeko aukera. Horma hau gutxi gorabehera 0,90 metro lodi da, harrizkoa da, harriak kareorez batuak, eta haren kanpoko aldean lubanarroa identifikatu dugu.

Lehendik egindako esku-hartze batzuetan bezala, ezin izan genuen lubanarroaren zabalera zehaztu Aita Agirre plazaren azpitik galtzen delako, eta haren sakonera maila soilik zundaketa geotekniko baten bidez egiaztatu genuen, higiezin berrirako zimentarriari leku egiteko obrak ez baitzuen San Bartolome kaleko sestratik behera kontatzen hasita 0,50 metroko kota gainditzen.

Orubearen gainerakoan erregistratutako estratigrafiak aukera eman zigun aspaldiko zoladuren hondakinak eta aro garaikideko eta modernoko depositua dokumentatzeko, azken hauen artean aipagarri buztin ez naturaleko betegarri baten gainean egokitutako betegarri limotsua, material organikoekin. Material organikoa biltzen zuen maila limotsuaren presentzia, lubanarroan erregistratutako mailaren antzeko ezaugarriak dituen mailaren presentzia, orubea amortizatzeko betegarria da, eta ez, lubanarroko mailetan gertatzen den bezala, *in situ* gertatutako sedimentazioa.

Bukatzeko, esan dezagun zimentarriko lauza instalatzeko harresiaren goiko bi errenkadak desmuntatu behar izan zirela eta lubanarroko sedimentuen gainazaleko geruza mehe bat altxa behar izan zela. Ondorioz eraikinaren zimentarriko zolarriaren azpian kontserbatzen dira elementu biak.

Nuevamente una intervención arqueológica en la calle San Bartolomé ha permitido documentar la presencia de un muro identificado con la muralla de la villa, una estructura de unos 0'90 metros de espesor realizado en piedra trabada con mortero de cal y arena, en cuyo exterior se ha localizado el foso.

Al igual que intervenciones anteriores la anchura del foso no ha podido ser definida debido a su continuidad bajo la plaza Aita Agirre y su profundidad únicamente se constató en un sondeo geotécnico, ya que las obras de cimentación del nuevo inmueble no superaban la cota -0,50 metros desde la rasante de la calle San Bartolomé.

En el resto del solar la estratigrafía registrada permitió localizar restos de antiguos pavimentos y depósitos de época contemporánea y moderna, destacando entre ellos un relleno de limos con material orgánico sobre un relleno de arcillas no naturales. La presencia de un nivel de limos con material orgánico y características similares al localizado en el foso, se entiende como consecuencia de rellenos de amortización del solar y no como una sedimentación in situ como sucede con los niveles del foso.

Por último indicar que para la instalación de la losa de cimentación únicamente fue necesaria la eliminación de las dos hiladas superiores de la muralla y la extracción de una capa superficial y mínima de los sedimentos del foso conservándose, por lo tanto, ambos elementos bajo la solera de cimentación del edificio.

P. Alkain Sorondo

C.13. ESKORIATZA

C.13.1. Aitxorrotz gaztelua (lehen 'Aitzorrotz' deitua)

Zuzendaritza: Itsaso Egizabal
Finantziazioa: Eskoriatzako Udala; Gipuzkoako Foru Aldundia

C.13.1. Castillo de Aitxorrotz (antes denominado 'Aitzorrotz')

Dirección: Itsaso Egizabal
Financiación: Ayuntamiento de Eskoriatza; Diputación Foral de Gipuzkoa

Excavation carried out at Aitzorrotz 2011, one of the holdings of Navarra in the area of Deba until the fall of the western lands in 1200. This season, work focused on the restoration of the wall and the tank (one of the most characteristic elements of the castle), with a new excavation area being opened up in the adjoining rock, in the hope of finding an advance post that would cover a blind spot of the castle, always bearing in mind that the purpose of this location was strategic. The restoration of the wall revealed a rough-hewn rock surface held together with mortar. The restoration was carried out with care, respecting the original construction methods, and uncovered one of the wall's drains. In the «annexed» rock, the dig discovered a cracked natural rock surface, perhaps the result of some kind of temporary construction. We found ceramic tipped springs and gold-plated fixtures - objects already in the castle that had been found during previous excavations. This reinforces the hypothesis established and the possibility of the archaeological area being larger than expected.

Kanpaina hau nagusiki harresia eta uraska (gazteluko elementu aipagarrienetakoa) berritzen eman dugu. Gainera beste indusketa bat abiarazi dugu ondoko haitzean, bertan gazteluaren puntu itsu bat babestuko zuen gorputz aurreratua topatzeko itxaropena baikenuen, betiere kontuan edukita kokaleku honek xede estrategiko garbia zuela.

Harresia berritzean agerian geratu zen trauskil zizelatutako harriaren azalera, kareorez batua; lan hauek kontu handiz eraman genituen burura, jatorrizko eraikuntza metodoak zainduta, eta aukera eman ziguten harresian zeuden hustubideetako bat aurkitzeko.

«Atxikiriko» haitzean egindako indusketan agerian geratu zen harri naturalaren azalera arrakalatua, agian behin-behineko eraikin motaren baten oinarria izan zena bera. Bertan zeramikak, baleztaz jaurtikitzeko gezi muturrak, belarri urreztatuak eta beste aurkitu genituen, gazteluan lehendik egindako indusketetan aurkitutako objektuen antzekoak. Honek guztiak sendotu egiten ditu azaldutako hipotesia eta interes arkeologikoko eremua uste baino zabalagoa izateko aukera.

Gazteluaren perimetro osoan burutu beharreko esku-hartze arkeologikoek eta zaharberritze lanek bermatuko dute indusketen eta gazteluaren beraren etorkizuna, azken hau Eskoriatzako ondare gisa ulertua. Ahaleginak egingo ditugu jatorrizko egitura agerian uzteko eta hura egokiro mantentzeko eta kontserbatzeko.

III. aldia (2011)

Hirugarren indusketa aldi honetarako –2011. urtea– esku-hartzea planifikatzeko garaian lau helburu nagusi zehaztu genituen:

- Uraskaren ondoko eremua, aurreko urteko indusketa lanari jarraipena emanez (4. sektorea).
- Mendebaldea, edo 1968. urteko indusketak egin ziren eremua (1. sektorea).

En esta campaña, los trabajos se han centrado en la restauración del muro y el aljibe (uno de los elementos más característicos del castillo). Además se ha abierto una nueva excavación en la peña contigua, esperando encontrar en ella una avanzadilla que cubriese un punto ciego del castillo teniendo en cuenta siempre que el objeto de este emplazamiento era estratégico.

La restauración del muro nos ha descubierto una superficie de roca toscamente tallada unida con mortero, estos trabajos se realizan con cuidado y respetando los métodos de construcción originales y han permitido descubrir uno de los desagües con los que contaría el muro.

En la peña «anexa» la excavación descubre una superficie fisurada de roca natural, quizá base para algún tipo de construcción temporal. Encontramos cerámicas, puntas de ballestas, apliques bañados en oro... objetos que ya se encontraron en el castillo en excavaciones anteriores. Todo esto refuerza la hipótesis expuesta y la posibilidad de que la zona de interés arqueológico sea más amplia de lo esperado.

El futuro de las excavaciones y del castillo como parte del patrimonio de Eskoriatza se basarán en continuar las intervenciones arqueológicas y restauraciones por todo el perímetro del castillo descubriendo en lo posible la estructura original centrándonos asimismo en su mantenimiento y conservación.

Fase III (2011)

La planificación de la intervención para la tercera fase de excavación –año 2011– se ha centrado en cuatro objetivos diferenciados:

- Zona anexa al aljibe, continuando con la excavación del año anterior (Sector 4).
- Zona oeste o punto donde se desarrollaron las excavaciones en 1968 (Sector 1).

– Ondoko haitza, non gazteluko soldadu taldeari zegozkion hondakinak azaldu ziren.
– I. kanpainan –2009. urtea– aurkitutako harresia sendotzea. Harresi atal hau berariaz egon da jatorrizko geruzan ezkutaturik (6. sektorea).

Esku-hartzea hobe antolatzeko xedean sektoretan banatu genuen aztarnategia eta zenbaki bana eman genien sektore horiei, gero zuzenean lotzeko identifikatutako unitate estratigrafikoekin.

6. sektorea: Aztarnategiaren hegoaldea.

4. sektorea: Uraskari, itxitura hormari eta sarrerari leku egiten dien aztarnategiaren ekialdea.

1. sektorea: Aztarnategiaren mendebaldea, unitate estratigrafikoak zenbakien bidez adieraziak, aurrenekoa 10.000. UE.

4. sektorea: Uraska

Aurreko urtean uraskaren barruan burututako esku-hartzea zabaldu egin genuen ur deposituaren ondoko aldera. «L» formako zundaketa bat ireki genuen uraskaren eta itxitura hormaren ingurua aztertu ahal izateko. Izan ere, harresiari atxikiriko balizko egiturak eta ur depositurako sarbidea ahalbidetzeko harrian egin zitzaketen lanak identifikatu eta erregistratu nahi genituen; aitzitik, eskasa zen lodiera, harriari itsatsitako kareorezko geruza bat geratu baitzen agerian, itxura batean uraskaren hegoaldeko pareta sendotzeko balio zuena. Ez genuen geruza altxa, diaklasa edo arrakala handiak zituenez arriskuan jar baitzitekeen uraskaren itxitura hormaren egonkortasuna.

Uraskako estalkitik gora dago kareorezko xafla edo geruza, goragune txiki bat balitz bezala; irregularra da oso eta segur asko bi erabilera eman zioten beste hainbeste garaitan. Harri amaren eta uraskako pareten artean bloke bat osatzen duenez, baliteke konponketa edo sendotze lan baten emaitza izatea, hainbat alditan landutako egiturak egonkortzeko xedea izango zuena, xaflak bestelakoak baitira kolorez eta osaeraz, hondakin buztintsu gehiago dituela hasierako xaflaren azpian aurkitutakoak, hura askoz ere zuriagoa eta karedunagoa baita. Bestalde, paldo bati leku egiteko zulo txiki bat identifikatu genuen xaflan zulatuta, uraskaren ondoan, eta horrek teilatu edo estalki bati eusteko zurezko egitura bat izateko aukera iradokitzen du.

4. sektoreko zundaketa honetan aurkitutako materialei dagokienez, aipagarri dira baselizako teilatuan egindako konponketetatik etorritako teila puska ugariak, fauna hondakinak, beira zatiak, zeramika arrunta edo toska, garai askotako iltzeak eta baleztaz jaurtikitzeko gezi muturrak. Horiek denek agerian uzten dute eremu hau nahasi egin zutela, noiz ez dakigula. Berreskuratutako elementu guztien artean aipagarria da XVII. mendeko marabedi bat, oraindik zehazki datatu gabe badago ere.

Babesteko haitz bakartua

2010. urtean ondoko haitzean abiarazitako ikerketa lanari jarraipena ematea genuen bigarren helburua. Okupazioen geruzak aztertzen jarraitu genuen, baita haiei atxikiriko balizko egiturak ere. Hasteko, sarbi-

– La peña cercana donde aparecieron restos asociados a la guarnición del castillo.
– Consolidación de la muralla localizada en la I campaña –año 2009–, la cual se mantuvo oculta intencionadamente en su estrato original (Sector 6).

Para un mejor orden de la intervención dividimos el yacimiento en sectores con una numeración que guardara relación posteriormente con las UU.EE.

Sector 6 - Zona sur del yacimiento.

Sector 4 - Zona este del yacimiento donde se sitúa el aljibe, el muro de cierre y la entrada.

Sector 1 - Zona oeste del yacimiento con numeraciones de UUEE comenzando por 10.000

Sector 4 - Aljibe

Se amplía la intervención realizada el año anterior en el interior del aljibe a la zona anexa al depósito con un sondeo en forma de «L» cuyo fin es el de abarcar la proximidad de la cisterna y el muro de cierre. El objetivo era el de analizar posibles estructuras anexas al muro además de los trabajos que pudieran existir en la roca para permitir el acceso al depósito de agua; sin embargo, la potencia fue escasa al encontrar una placa de argamasa adherida en la roca que aparentemente sirve para el refuerzo de la pared sur del aljibe, por lo que evitamos extraerla ya que podría alterar la estabilidad de la pared de cierre de la cisterna al presentar esta unas diaclasas o fisuras importantes.

La placa de argamasa se sitúa por encima del cierre del aljibe como si fuera una pequeña elevación; es muy irregular y posiblemente tuvo dos adaptaciones de diferente cronología. Lo cierto es que su disposición haciendo bloque entre la roca madre y las paredes del aljibe nos sugiere que pudo ser una reparación o refuerzo con el fin de estabilizar las estructuras labradas en diferentes fases ya que las placas difieren de tonalidad o composición teniendo restos más arcillosos la encontrada bajo la placa inicial, mucho más calcárea y de color blanquecino. Por otra parte, el hallazgo de un pequeño agujero de poste horadado en la propia placa de argamasa y situado junto al aljibe nos sugiere así mismo la posibilidad de que existiera una estructura de madera de apoyo para un tejado o cierre.

En cuanto a los materiales encontrados en este sondeo del sector 4 podemos mencionar la gran cantidad de fragmentos de tejas de las diferentes reparaciones del tejado de la ermita además de algunos huesos de fauna, fragmentos de vidrio, cerámica común o loza, clavos de diferentes épocas y alguna punta de ballesta que evidencia un revuelto de tierras en algún momento determinado. Entre ellos destacaría una moneda maravedí del siglo XVII, aún sin datar con exactitud.

Peña defensiva exenta

El segundo objetivo se centró en continuar con la investigación iniciada en el año 2010 en la peña cercana, siguiendo con el análisis de los diferentes estratos ocupacionales además de posibles estructuras

deari eta babesteko berezitasunei buruzko azterketa txiki bat egin genuen.

Aipatu goragunea, gogora dezagun, gaztelutik 70 metrotara dago, haren hegoaldean, eta gazteluaren behatoki aurreratuarena betetzen zuen. Beraz, soldadu talde txiki bat egongo zen bertan beti edo aldi batez, horixe berresten du Erdi Aroko zeramikaren, arma hondakinen eta aipatu gizonak elikatzeko fauna hondakinaren aurkikuntzak.

Landutako sarbide bertikala

Aurpegietako batean, hegoaldean, bada itxura batean oso modu trauskilean zizelatuta dagoen igarobide bertikal bat, puntu batzuetan harria beheratuta dagoela sarbidea babesteko asmo garbiarekin, soilik banan-banan igotzeko aukera eskaintzeko eta une oro sarbide erosoa saihesteko xedearekin. Hori oso arrunta da haitzetako gazteluetan: sarbide erosoa saihestea bila zuten eta gizon gutxi batzuekin hura modu errazean babestu ahal izatea.

Sarbide honen neurriei dagokienez, esan dezagun 12 m luze edo garai dela oinetik gaineraino eta 2 metro zabal dela atalik irekienean. Kareharri batzuen ertzak trauskil landuta daude mailaren eta heldulekuaren funtzioa betetzeko.

Zundaketa haitzean

2010. urtean bi bider bi metroko zundaketa txiki baten bidez hasi ginen alde hau aztertzen, eta hirugarren aldi honetan hiru bider hiru metroko beste zundaketa bat ireki dugu aurrekoaren ondoan ikerketa lan honetan sakontzeko asmoarekin. Metro koadroko laukiak altxatzen hasi ginen iparralderantz, bata bestearen atzetik, zundatutako laukiak oso meheak baitziren une oro. Landare geruza eta humus ilunak eta kareharriaren deskonposiziotik etorritako kareharrizko klasto batzuek osatutako unitatea altxatuta geruza gorri bat geratzen zen agerian, hezetasunaren kondentsazioaren ondorioz apur bat buztintsua, kareharrizko harri amari itsatsita. Batez beste 15-30 zentimetro lodi zen zundaketan erregistratutako geruza, eta beraz lauki gehiago altxatu genituen harriaren fisonomia aztertzen jarraitu ahal izateko.

Karst sistema osatu aurreko meteorizazio prozesuan disolbatutako karbonatoek eragindako arrakalak zituen, baina zorua nahikoa berdinduta kontserbatzen zuen, eta horrek bizitzeko moduko puntu gisa erabiltzea errazten zuen.

Zundaketan eta berau behin eta berriz handitzeko lanetan fauna hondakinak erregistratu genituen: ardi eta ahuntzaren familiakoak eta txerriaren familiakoak (letaginak eta masailezurren atalak); Erdi Aroko zeramika zatiak, orain arte gaztelu nagusian aurkitutakoen antzekoak: sukaldeko baxerari dagozkion pareta fineko zeramika arruntak, suaren arrastoekin eta apaingarri gutxi batzuekin, ildaskak lepoetan –XII-XIII. mendeetako zeramika arrunta[70]–; iltze batzuk, baleztaz jaurtikitzeko gezi mutur batzuk eta urreztatutako belarriak, bigarren kanpainan aurkitutako objektuen tipologiaren antzekoak denak.

[70] José Luis Solaun Bustinza. (2005). «*Erdi Aroko zeramika Euskal Herrian (VIII.-XII. mendeak)*». EKOB, 2. Eusko Jaurlaritza/EHU.

asociadas. Se inició el trabajo con un pequeño estudio sobre el acceso y sus particularidades defensivas.

Cabe recordar que dicha elevación, situada a 70 metros del castillo en su lado sur, cumplía una función de atalaya adelantada respecto al castillo y que por tanto, debió de contar con alguna pequeña guarnición permanente o temporal, como así lo confirmó el hallazgo de cerámica medieval, restos de armas y fauna para alimentación de dichos hombres.

Acceso vertical labrado

En una de sus caras, parte sur, existe un paso vertical que parece estar parcialmente tallado de forma muy tosca, rebajando la roca en algunos puntos como apoyo y con un claro interés defensivo al buscar un acceso sólo posible ascendiendo de uno en uno evitando el paso cómodo en todo momento. Algo muy común en castillos roqueros: impedir un acceso cómodo y conseguir con pocos hombres una defensa sencilla.

En cuanto a sus medidas se documenta una longitud o altura de 12 m desde su base hasta la parte superior y 2 m de ancho en su parte más abierta. Algunas piedras calizas están desbastadas toscamente para cumplir su función de peldaño o agarra manos.

Sondeo Peña

En el 2010 se comenzó el estudio con un pequeño sondeo de dos por dos metros por lo que procedimos en esta tercera fase a seguir ampliando la investigación abriendo un sondeo de tres por tres metros a continuación del realizado el año anterior. La intervención en cuadrantes se fue ampliando sucesivamente en cuadriculas de 1 por 1 metro tomando dirección norte debido a la poca potencia que presentaba el sondeo en todo momento. Apenas se retiraba el estrato inicial vegetal junto con una unidad compuesta por humus oscuro y algunos clastos calizos de descomposición de la roca caliza, se llegaba a un estrato rojizo, algo arcilloso por condensación de humedad, adherido a la roca madre caliza. El sondeo evidenciaba una potencia de 15-30 centímetros de promedio por lo que se ampliaba el trabajo con el fin de seguir estudiando la fisonomía de la roca.

Esta presentaba fisuras por disolución de carbonatos en su proceso de meteorización, paso previo de un sistema kárstico, si bien mantenía una cierta nivelación en su suelo lo que facilitaba su utilización como punto habitable.

En el sondeo y sus sucesivas ampliaciones apareció fauna animal: ovicápridos y Sus domesticus. (colmillos y partes de mandíbula), fragmentos cerámicos medievales, semejantes a los encontrados hasta el momento en el castillo principal: paredes finas que corresponden a vasijas de cocina de tipo común con manchas de fuego y con apenas algunos adornos de cuellos estriados –típico en cerámica de los siglos XII-XIII[70]– algunos clavos, puntas de ballesta y apliques sobredorados de una tipología semejante a los encontrados en la segunda campaña.

[70] José Luis Solaun Bustinza. (2005). «*La cerámica Medieval en el País Vasco. (Siglos VIII-XIII)*». EKOB, 2. Gobierno Vasco/UPV.

Hasierako sektorea handituta eremu apur bat sakonagora iritsi ginen. Baliteke alde hau sakonagoa izatea bertan ura metatu eta honek harria higatu duelako karbonatoak diluitu eta arrakalak sorraraziz. Puntu honetan paldo bati leku egiteko balizko zulo bat geratu zen agerian, hutsune natural bat inguratzen zuten harri txikiekin eta beste harri handiago batzuekin. Beharbada soldadu taldeak baliatutako balizko estalpe bati eusteko paldoaren oinarri gisa erabili zuten, horixe iradokitzen baitute iltzeek eta harriaren formek.

1. UEaren eta 2. UEaren arteko interfazean edo harri amari itsatsitako geruza gorrixkan aurkitutako azken materialen artean aipagarria da Nafarroako errege Antso Jakitunaren (1150-1194) garaiko txanpon bat, estratua datatzeko aukera ematen baitugu, haitz hau XII. mendean edo Aitzorrotz Nafarroako erresumako tenentzia zen garaian babesteko erabili zutela adierazten baitigu. Datu honek uste baino babes sistema konplexuagoa iradokitzen du, gaztelutik edo babesteko eraikinaren epizentrotik gertu hainbat behatoki egongo baitziren.

Harresia sendotzen

6. sektorea: Hegoaldeko harresia sendotzeko lanak

Proiektuaren hirugarren aldiak hegoaldeko eta mendebaldeko harresi atalak (6. sektorea.10.000) sendotzea zuen helburu nagusia. 4. eta 1. sektoreko eta ondoko haitzeko ikerketa lanak amaituta harresian hasi ginen lanean, lehenik garbitu egin genuen eta jarraian jatorrizko itxura berreskuratzeko lanak eraman genituen burura, harrien egoera eta egokiera bananbanan azterturik.

Hasteko altxa egin genuen bere garaian harresia babesteko xedean berariaz utzitako geruza. 600. UE esango diogu garbiketa honi, eta hartatik behiaren familiari eta hausnarkari txikiei dagozkien fauna hondakinak, zeramikazko hondakin batzuk eta gerra zibilaren garaiko jaurtigaien zorroak atera genituen.

Garbiketa lanak amaituta sendotu beharreko horma neurtu genuen: 10 metro luze, 2,5 metro zabal eta 2 metro garai kanpoko aldetik eta 70 cm eskas barruko aldetik. Landu gabeko eta neurri askotako kareharriz eginda da estekadura. Bi kareore mota bereizi genituen, agian eraikuntza aldi biri dagozkie, eta beraz laginak jaso genituen haien datazioa zehazteko xedean.

Gure harridurarako agerian geratu zen hormako hustubide bat, kontserbazio egoera bikainean, kanala 1,3 metro sakon. Harriak ezin hobe egokituta zeuden ura husteko funtzioa ondo betetzeko. Barruko aldetik kareore horiko geruza batek sendotzen zuen oinarria, eta saihestu egiten zuen hormaren egonkortasuna arriskuan jar zitzaketen errenkadetako harriek kapilarizazioa edo ura xurgatzeko efektua nozitzea.

Ondoren hegoaldeko edo 6. sektoreko horma sendotzen eta zaharberritzen hasi ginen zaharberritzeen esparruko profesionalen laguntzarekin eta haien ikuskaritzapean. Era berean, kareoreak eta hormaren egoera aztertu genituen eta aplikatutako sendogarrien bilakaera jarraitu genuen.

La ampliación del sector inicial nos condujo a una zona algo más profunda por una posible concentración de agua en este punto que ha erosionado la roca al diluir los carbonatos provocando fisuras. En este punto apareció un posible agujero de poste con pequeñas piedras que rodeaban un hueco natural y otras más grandes que pudo ser aprovechado como apoyo de poste de sujeción de un posible cobertizo usado por la guarnición. Los clavos y las formas de la peña sugieren esta posibilidad.

Entre los últimos materiales localizados en la interface UE1 y UE2, o estrato rojizo adherido en roca, apareció una moneda del rey de Navarra Sancho el Sabio (1150-1194) que nos dan una datación del estrato y un uso de la peña como elemento defensivo en el siglo XII o momento en que Aitzorrotz era tenencia del reino pirenaico. Dato que sugiere un sistema defensivo más complejo de lo que se suponía y que debió estar conformado por un sistema de atalayas próximas al epicentro defensivo o castillo.

Consolidación muro

Sector 6 - Consolidación de la muralla sur

Sin duda la tercera fase del proyecto tuvo como principal objetivo la consolidación del muro en su parte sur y oeste (sectores 6-10.000) por lo que tras finalizar la investigación de los sectores 4,1 y peña cercana, se procedió a intervenir en la muralla comenzando por una limpieza cuidadosa y una recuperación de su estado original analizando piedra a piedra su estado y disposición en el aparejo.

Inicialmente se procedió a retirar el estrato que se dejó intencionadamente en su momento para proteger el muro. Esta pequeña limpieza la denominamos UE 600 y se extrajeron restos de fauna correspondiente a ganado vacuno, pequeños rumiantes y algunos restos cerámicos además de casquillos de bala de la guerra civil.

Tras la limpieza medimos el muro a consolidar: 10 metros de longitud, por 2,5 de anchura y una altura exterior de 2 metros por apenas 70 centímetros en su interior. El aparejo está realizado en mampostería de piedra caliza con tamaños diversos. Se localizan dos tipos de argamasa que quizás puedan corresponder a dos fases de construcción por lo que tomamos una muestra para datación.

Para nuestra sorpresa, apareció un vierte aguas del muro en perfecto estado y con una profundidad de canal de 1,3 metros. Sus piedras están perfectamente situadas para cumplir la función de evacuar el agua. En su parte interior el basamento estaba reforzado con una placa de cal amarillenta que evitaba el efecto de capilarización o absorción del agua a las hileras del muro que pudieran poner en peligro su estabilidad.

Posteriormente comenzamos la consolidación y restauración del muro sur o sector 6. Con la supervisión y colaboración de profesionales de restauración en el seguimiento así como en los análisis de argamasas, estado del muro y visitas de la evolución de las consolidantes aplicados.

Hasteko, horma saneatu genuen, lurrak eta belarrak atera eta harriak solte zeuden lekuak bereizi genituen.

Alde hauskorrenak sendotzeko garaian kareore hidraulikoa erabili genuen «artisautza» izaerako ukituarekin, jatorrizkoaren itxura edukitzeko xedean antzeko ezpurutasunak gehitu baikenizkien piezei kanpoko aldetik. Bestalde, halako aldeak nabaritu genituen kareoreetan, argiagoa kanpoko aldekoa eta «gorringoaren» antzeko kolore horikoa kanpokoa. Beraz, aldeen araberako nahasketak lortzen saiatu ginen. Garbitze lanetan «hustubide» bat aurkitu genuen, formaz angeluzuzena, horma alderik alde zeharkatzen duena, aldapan, kanpoko alderaino. Bertan harri inklinatu handi bat du uren irteera errazteko.

Horma garbitzeko eta sendotzeko lanetan zehar artean induskatu gabe dauden azalerak identifikatu genituen. Haiek induskatu eta jasotako materialak gorde eta garbiketa teknikoari esleitutako UE berean sailkatu genituen.

Bukatzeko eta alde hau erosoago egiteko, enkatxu bat eraiki genuen hormaren barruko aldean, 2009ko kanpainan identifikatutako Goi Erdi Aroko zoruaren itxurak egiteko eta alde hau sendoago bihurtzeko (era berean silikatoa aplikatu genuen alde honetan, baina emaitzaren zain gaude oraindik).

Eta azkenik tratatutako zurezko hesia jarri genuen hormaren inguruan haitzera igotzen den ganadutik babesteko eta hainbat gunetan belarrari hazten uzteko.

Jarraian Ignacio Barandiaranen taldeak iragan mendearen erdialdera induskatutako 1. sektorea induskatzen hasi ginen.

10.000. UEko landare geruza altxatuta orain dela 40 urte osatutako betegarria, 10.001. UE, atera genuen alde honetatik. Hemen ez dago humusik, bai ordea nahasitako lurrak edo betegarriak, oso lodiak eta geruzetan bereizi gabe. Betegarriaren parte bat altxatuta, harri naturalak eta buztin hori eta oso plastikoko konkrezioak azaleratzen ziren zundaketaren iparraldean. Era berean, kareorearen hondakinak zituzten harrizko bloke handiak, 10.003. UE osatzen dutenak, geratu ziren agerian. Sektore honen oinean, hegoaldean, harrizko metaketa bat bereizi genuen (horma osatzen duten piezen antzekoak, agian hormatik behera etorriak): 10.002. UE edo behera etorritako harriek osatutako unitatea da.

Sektorearen mendebaldean hormaren luzapena induskatu genuen (6. sektorea). Alde honetan kontserbazio egoera oso kaskarrean dago, eta beraz hura estali egin genuen. Horretarako alboetan bi horma txiki eraiki genituen geotextil sare batez babestu beharreko jatorrizko horma estaltzeko lurrezko betegarriari leku egiteko. Honenbestez babestuta utzi genuen etorkizuneko kanpainetan alde hau zaharberritzeko eta sendotzeko xedean.[71]

Horma erabat zaharberritzen hasi baino lehen zaharberritutako atalen bilakaera eta etorkizunean egin daitezkeen hobekuntzak aztertu nahi ditugu.

[71] Alde hau etorkizunean museo bihurtu nahi denez, nola 10.000. sektorean hala 6. sektorean ezponda artifizialak eraiki genituen induskatutako hormaren eta estalitako hormaren aurrean, alde honen estetikari eusteko xedean.

Comenzamos por el saneamiento del muro limpiando la tierra y hierba y localizando las zonas de piedra suelta.

Para la consolidación de las zonas más frágiles utilizamos una argamasa hidráulica con un cierto toque «artesanal», al ser mezclada para asemejarse a la original, añadiendo impurezas semejantes en su parte externa. Por otra parte notamos diferencias en las argamasas, la exterior seria mas clara y la interior tendría un color amarillento «huevo» y por tanto se procedió a buscar las mezclas diferentes según zonas. En esta limpieza se localiza un «desagüe» de forma rectangular que atraviesa el muro en pendiente hasta su exterior donde cuenta con una gran piedra inclinada para facilitar la salida de aguas.

Durante este proceso de limpieza y consolidación, cabe destacar que se localizan superficies aún pendientes de excavación. Se procede a la excavación de las mismas, guardando y clasificando el material recogido como la misma UE de limpieza técnica.

Y por ultimo, y para hacer la zona mas cómoda, se construye una encachado en la parte interna del muro, queriendo simular el suelo alto medieval encontrado en la campaña 2009 y hacer la zona mas sólida (también aplicamos silicato sobre esta zona y quedamos pendiente del resultado).

La última fase fue la colocación de un vallado de madera tratada para proteger el muro del ganado que sube a la peña y poder recrecer zonas de hierba.

Procedemos a la excavación del sector 1 ya excavado por el equipo de Ignacio Barandiaran, a mediados del pasado siglo.

Tras retirar el manto vegetal UE 10.000, libramos la zona del relleno que se creó hace 40 años la cual nombramos UE 10.001. En este caso no hay humus y si restos de tierra removida o relleno, con una gran potencia y sin diferencia de estratos. Tras retirar parte del relleno, en la parte norte de este sondeo afloran las rocas naturales y concreciones de arcilla amarillenta muy plástica. Así mismo encontramos bloques de piedra de gran tamaño con restos de argamasa que denominamos UE 10.003. En la base del sector, zona sur, localizamos una concentración de piedras (similares a las que forman el muro, quizá parte destruida de él) le damos la UE 10.002 o derrumbe.

En la zona oeste del sector, excavamos la prolongación del muro (sector 6), en este caso se encuentra muy deteriorado así que decidimos cubrirlo para protegerlo construyendo a sus lados dos pequeños muros para el relleno de tierra que cubriría el muro original que habríamos protegido con una malla de geotextil. Así lo dejamos protegido para acometer en posteriores campañas la restauración y consolidación de la zona.[71]

Antes de acometer la restauración completa queremos estudiar la evolución del muro restaurado y las futuras mejoras.

[71] Tanto en el sector 10000 con en el sector 6 dada la futura musealización de la zona se decidió crear taludes artificiales frente al muro excavado y el muro cubierto para mantener la estética de la zona.

Ezkerretara: horma sendotu aurretik, geruzak babestuta. Eskuinetara: harresia sendotuta eta erantsitako zorua ibilbide txiki bat osatzeko. Jatorrizko enkatxua imitatzen du zoruak.

A la izquierda: muro antes de consolidar, protegido por su estrato. A la derecha: muralla consolidada y suelo añadido para crear un pequeño paseo. El suelo imita al encachado original.

Kontsiderazio batzuk azken konklusio gisa

Esku-hartze arkeologiko honen garapena eta emaitzak asetzeko modukoak izan direla esan behar dugu, gazteluaren eraikuntzaren eta haren tenentzia izaerako erabileraren bilakaera ondo ezagutzeko funtsezkoak izango diren aurrerapen garrantzitsuak egin baititugu.

Horma garbituta argi eta garbi aztertu ahal izan dugu haren bidea, eta ikusi dugu nola angeluak probestu zituzten haietan etxebizitzak eraikitzeko, 2009. urteko esku-hartzean puntu horietan aurkitu ere baikenituen zurezko paldoak. Hain zuzen ere puntu horretan aldatu egiten da hormaren norabidea haitza eta bertan egindako hozka aprobetxaturik. Horma berreskuratu, zaharberritu, sendotu eta hura mantentzeko programa itxuratuta, osatu egingo dira museo bihurtzeko Gipuzkoako aurreneko gazteluko lanak.

Aldi berean aurrera egin dugu uraskaren eraikuntza ezaugarriak aztertzeko ikerketa lerroan. Uraskaren ondoan irekitako espazioan agerian geratu zen kareorezko eta landutako harriz osatutako plataforma. Plataforma honek landutako hormaren sendogarria izateko eta ura ateratzen lagunduko lukeen polea sistema bati edo teilatu bati eusteko zurezko egitura bat eraikitzeko oinarri izateko plataformaren eraikuntza zuen xede. Horixe bera berresten du uraskaren ekialdeko muturrean aurkitutako zuloak, paldo bati leku egitekoak.

Algunas consideración a modo de conclusión final

Consideramos que el desarrollo y los resultados de esta intervención arqueológica han sido satisfactorios, ya que se han logrado importantes avances que resultarán de gran trascendencia para el conocimiento de la evolución constructiva del castillo y de su uso como tenencia.

La limpieza del muro ha supuesto un estudio claro de su trayectoria y del aprovechamiento de sus ángulos para la construcción de viviendas que coinciden con la situación de postes de madera hallados en la intervención del año 2009. Justo en ese punto hay un cambio de trayectoria aprovechando la roca y un entallaje de la misma. La recuperación del muro, su restauración-consolidación y la planificación sobre su mantenimiento completa la intervención enfocada a la musealización del primer castillo de Gipuzkoa.

Paralelamente se ha continuado con la investigación enfocada al estudio de las características constructivas del aljibe. El espacio abierto anexo a la cisterna da como resultado una plataforma de argamasa y roca labrada que tenía como función la construcción de una plataforma que sirviera como consolidante de la pared labrada y como base para la construcción de un entramado de madera que pudo servir para el apoyo de un tejado o de un sistema de polea que ayudara para la extracción del agua. El agujero de poste encontrado en el extremos este del vértice del aljibe así lo confirma.

2010. urtean abiarazitako ikerketari segida emanez, gaztelurik 100 metrotara dagoen haitz bakartuan jarraitu dugu lanean. Bertan aurkitutako zeramikazko materialak, faunak eta arma hondakinek berretsi egiten dute soldadu talde txiki eta armatu batek alde hau modu iraunkorrean erabili zuena.

Haitzeko Erdi Aroko geruza hauetatik eta aurreko urteetan gaztelu nagusiaren barruan aztertutako geruzetatik laginak jaso genituen Karbono 14ren bidez aztertzeko.

Datazio horiek oso lagungarriak izango dira gotorlekuko okupazio aldi aspaldikoenak ikertzeko eta Erdi Aroko geruzetako erromatarren azken garaiko zeramiken koexistentzia aztertzeko.

Landa-lanak amaituta aztertutako bi puntuetan, gazteluan eta ondoko haitzean, identifikatutako geruzetako fauna hondakinak bereizteko irizpidea finkatu genuen. Emaitza guztiz logikoa izan zen. Askoz ere sarbide konplexuagoa duen haitzean berreskuratutako fauna hondakinak animalia txikiei eta ertainei dagozkie, hau da, ez genuen *sus domesticus* eta *bos taurus* espezieen hondakinik aurkitu, bai ordea *bovinae* eta *ovicáprido* espeziei dagozkienak. Neurri handieneko hezurrek ebakiak dituzte, animaliak piezatan zatituko zituztela iradokiz, haitzaren gailurreraino neke handiegirik gabe igotzeko.

Metalei dagokienez, ez daude aztarna garrantzitsu asko. Baleztaz jaurtikitzeko hamarren bat gezi mutur eta 30 iltze baino gutxiago. Urri dira zurezko eraikin garrantzitsua iradokitzen duten aztarnak. Segur asko haitzaren bazterrak eta paldoari leku egiteko erdiko zuloa probestuko zituzten zurezko txabola baten oholeriari eusteko. Alde honetan lan egitea oso garrantzitsua izan da, Erdi Aroko nahasi gabeko geruzak aztertu ahal izan ditugulako eta azterketa hauek orain arte gaztelu nagusian aztertutakoarekin erkatzeko aukera izan dugulako. XII. mendeko txanponaren aurkikuntzak, Karbono 14ren bidez aipatu txanponaren datazioa berresteko xedean jasotako laginek eta aukeratutako zeramikek datu garrantzitsuak eskain diezazkiekete aipatu garaiari dagozkien azterlanei.

Continuando con la investigación iniciada en el año 2010 se ha continuado trabajando en la peña anexa del castillo, sita a 100 metros de distancia y que por su material cerámico, fauna y restos de armas confirma su utilización permanente por parte de una pequeña guarnición armada. La moneda encontrada en su estrato medieval sirve para datar su utilización en el siglo XII puesto que pertenece al monarca navarro Sancho el Sabio (1133-1194).

Se tomaron muestras para análisis de Carbono 14 en estos estratos medievales de la peña así como en los estudiados en años anteriores dentro del castillo principal.

Estas dataciones ayudarán a indagar sobre las fases de ocupación más arcaicas de la fortificación así como analizar la coexistencia de cerámica tardoromana en estratos medievales.

Tras finalizar el trabajo de campo, se estableció un criterio de selección de fauna de los diferentes estratos en los dos puntos estudiados: castillo y peña próxima. El resultado guarda lógica. Los huesos de fauna recuperados de la peña, con un acceso mucho más complicado, corresponden a pequeños animales o de tamaño mediano, no encontrando restos de otros como *sus domesticus* o *bos taurus* y si de *bovinae* y *ovicáprido*. En cuanto a los huesos de mayor tamaño, aparecen con cortes que pueden evidenciar un despiece para subirlo sin dificultad hasta la cima de la peña.

En cuanto a los metales no hay grandes evidencias. Una decena de puntas de ballesta y un número de clavos que no supera el número de 30. Pocos rastros que sugieran una construcción importante de madera. Posiblemente aprovecharan los recovecos de la peña y el agujero de poste central como apoyo de tablazón de alguna chabola de madera. La importancia de trabajar en este lugar ha sido la de analizar estratos medievales sin alteración alguna y comparar dichos análisis con lo ya estudiado hasta el momento en el castillo principal. El hallazgo de una moneda del siglo XII, las muestras tomadas de carbono 14 para corroborar la datación numismática y la selección de cerámica, puede aportar datos en cuanto a los estudios referentes a esa época.

I. Sagredo Garde

C.13.2. **Mendibe baserria, 1**

Zuzendaritza: Ander Arrese
Finantziazioa: JM Larrañaga

C.13.2. **Caserío Mendibe, 1**

Dirección: Ander Arrese
Financiación: JM Larrañaga

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Orubearen azaleraren parte handi bat hartu zuen esku-hartze arkeologikoak. Agortu egin genituen bertan beste ikerketa bat abiarazteko aukerak oro, emaitzak negatiboak izan baitziren historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik.

Intervención desarrollada en buena parte de la extensión del solar, agotando la posibilidad de una nueva investigación siendo los resultados de escaso o nulo interés histórico arqueológico.

A. Arrese

C.14. GETARIA

C.14.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

C.14.1.1. Hirigune historikoaren Historia eta Arkeologia azterketa: San Roke, 15; Iribarrena, 3 eta Aldamar, 14 (gibelaldeak denak)

Zuzendaritza: Jesús Manuel Pérez Centeno
Finantziazioa: Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren Kultura-Ondarearen Zentroa; Getariako Udala

C.14.1.1. Estudio Histórico-arqueológico del Casco Histórico: San Roque, 15; Iribarrena, 3 y Aldamar, 14 (todas traseras)

Dirección: Jesús Manuel Pérez Centeno
Financiación: Centro de Patrimonio Cultural del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco; Ayuntamiento de Getaria

During the course of this year, we carried out the activities established in the Historical-Archaeological Study of the Historic Quarter of Getaria, consulting the historical, cartographic and photographic material located in different archives. We also analysed the archaeological reports from previous interventions, as well as the results of diverse archaeological sondages linked to this project.

Getariako Hirigune Historikoaren Historia eta Arkeologia Azterketan aurreikusitako lanak eraman ditugu burura 2011. urtean zehar. Artxiboko lanei dagokienez, Gipuzkoako Artxibo Orokorraren Korregimenduko funtsean gordetako auzi zibilak, kriminalak, exekutiboak eta lehiaketak kontsultatu eta aztertu ditugu, baita Tolosako Udal Artxiboko eta Valladolideko Archivo de la Real Chancillería artxiboko funtsetan gordetako beste dokumentu batzuk ere. Era berean, argitara emandako eta artxiboetan gordetako argazki eta kartografia bildumak kontsultatu ditugu.

Dokumentazio arkeologikoari dagokionez, Getariako Hirigune Historikoan burura eramandako esku-hartze arkeologikoei dagozkien memoriak kontsultatu ditugu. Txosten hauek Gipuzkoako Foru Aldundiaren arkeologia artxiboan, Gipuzkoako Ondare Arkeologiko Higikorra Gordetzeko Zentroaren artxiboan eta Zehazten ZK enpresaren artxiboan daude, eta horiexek baliatu ditugu bildutako informazioa aztertzeko eta txosten hauetako informazio partziala oinarri planimetriko bateratura biltzeko xedean.

Era berean, lau zundaketa arkeologiko eraman genituen burura hirigune historikoan, lehendik izandako esku-hartzeetan azaletik ikertutako bi eremutan, hauek orain arte hirigintza izaerako presio apala nozitu baitute: hiribilduaren ekialde eta mendebalde muturreko labarretan jardun genuen beraz. San Roke kaleko 15. zenbakiko orubean –San Roke kaleko 35. zenbakiko gibelaldea–, Iribarrena kaleko 3. zenbakikoan –gibelaldea– eta Aldamar kaleko 14. zenbakikoan –gibelaldea– induskatu genituen zundaketak. Esku-hartze hauen lehen emaitza gisa, esan dezagun alde honetan ebaki handi batzuk egin zituztela eta bertara betegarriak ekarri zituztela espazio lauak edo aldapa txikikoak gaitzeko inguru topografiko malkartsuan egokitutako hiribilduaren inguruan. Ondorioz betikoz galdu dira aspaldiko depositua, edo lekuz aldatuak izan dira, edo betegarri modernoek estalita daude.

A lo largo de este año hemos desarrollado los trabajos previstos en el Estudio Histórico-Arqueológico del Casco Histórico de Getaria. Respecto a los trabajos de archivo, se ha consultado y extractado documentación procedente de pleitos civiles, criminales, ejecutivos y concursos del fondo del Corregimiento del Archivo General de Gipuzkoa, y documentación de otros fondos del Archivo Municipal de Tolosa y el Archivo de la Real Chancillería de Valladolid. Así mismo, también se han consultado diversas colecciones fotográficas y cartográficas publicadas y de archivo.

En cuanto a la documentación arqueológica, se han consultado memorias arqueológicas de intervenciones realizadas en el Casco Histórico de Getaria depositadas en los archivos de arqueología de la Diputación Foral de Gipuzkoa, del Centro de Custodia del Patrimonio Arqueológico Mueble de Gipuzkoa y del archivo de empresa de Zehazten ZK, para analizar la información recogida y armonizar en una base planimétrica unitaria la información parcialmente contenida en estos informes.

Así mismo se han efectuado cuatro sondeos arqueológicos para evaluar el potencial arqueológico de dos zonas insuficientemente investigadas por intervenciones previas en el casco histórico, al ubicarse en dos áreas con escasa presión urbanística hasta la fecha, el extremo de los farallones oriental y occidental de la villa. Los sondeos se han practicados en los solares San Roke 15 –trasera, San Roke 35 –trasera, Iribarrena 3 trasera y Aldamar 14 –trasera. Como resultado preliminar de las intervenciones cabe destacar la comprobación de importantes labores de acarreo y recortes del terreno para habilitar espacios llanos o con ligeras pendientes en el entorno de una villa ubicada en un marco topográfico muy complicado, lo que ha generado el arrasamiento de depósitos antiguos, su desplazamiento, o su cubrición por aportes modernos.

J.M. Pérez Centeno

C.15. HONDARRIBIA

C.15.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

C.15.1.1. **Harresia. Mendebaldeko atala**

Zuzendaritza: Miren Ayerbe Irízar
Finantziazioa: Eusko Jaurlaritza;
Gipuzkoako Foru Aldundia;
Hondarribiko Udala

Erreginaren Baluartea eta San Nikolasena batzen ditu Hondarribiko harresiaren mendebaldeko atalak. Hegoaldeko atalarekin batean, Hondarribian 1530. urtetik aurrera Karlos V.a enperadorearen aginduz eta Gipuzkoako Kapitain Nagusi Sancho Martínez de Leyvaren agintepean eraikitako gotorleku errenazentistaren atal garrantzitsuenetakoa da, artean zutik dirauena. Lope de Isturízaga maisuak eta Pedro del Peso Artilleriako kontulariak eraiki zituzten aipatutako bi atalak.

Hondarribiko Plaza Gotortuko (XVI. m) barruti gotortuaren mendebaldeko atala zaharberritzeko, kontserbatzeko eta berreskuratzeko proiektua hainbat alditan ari da garatzen. Hasteko, 2009. urtean, egitura garbitu eta aztertu genuen, eta horrek ateak ireki zizkien Alberto Ustarroz eta Manuel Iñiguez arkitektoei burura eraman beharreko proiektua idazteko.

2011. urtearen erdialdetik aurrera eta 4 hilabetez eraman zituzten burura proiektuaren 1. aldian aurreikusitako lanak, hau da, harresi atala eta San Nikolas Atea zaharberritu zituzten, eta guk obra horien gaineko jarraipen arkeologikoa egin genuen. Teusa S.A. enpresak eraman zituen burura arestian adierazitako zaharberritze lanak.

Hasteko, harresi atala bera sendotu zuten eta hari segurtasun handiagoa eman, batez ere gailurrari, harlanduzko atalaren estaldura galduta zuenez gailurrean agerian baitzegoen harri koskorrez eta kareaz osatutako betegarria. Ondorioz oso azkar ari zen harresiaren barruko aldea hondatzen, klimatologiak eta kanpoko giroak hondatzen, eta arriskutsua gerta zitekeen harresiaren oin aldea, harri koskorrak eta beste eror baitzitezkeen goiko aldetik.

Beste kontu bat zen, aurrekoarekin estu loturik eta haren ondorioa bera, aipatu gailurra sendotzeko xedean aplikatu beharreko soluzioa. Betegarriaren atal hondatuenak eta solteenak kareorez sendotzeaz gainera, aipatu sendotze lanak harresi atal honen gailurraren jatorrizko perfila berreskuratuz burutzea zen proiektuaren helburu nagusia, harresi atal honen eta atearen irakurketa osoa egin ahal izateko, obrei ekin aurretik eskaintzen zuten irudi kaskarra hobetu ahal

C.15.1.1. **Muralla. Cortina oeste**

Dirección: Miren Ayerbe Irízar
Financiación: Gobierno Vasco;
Diputación Foral de Gipuzkoa;
Ayuntamiento de Hondarribia

The archaeological intervention carried out in the western wall of the renaissance walled precinct of Plaza Fuerte in Hondarribia enabled us to record the constructive characteristics and evolution of both this wall and the San Nicolás Gate set into it.

La cortina oeste de las murallas de Hondarribia une el Baluarte de la Reina con el de San Nicolás siendo uno de los lienzos más completos junto al lienzo sur, importantes y en pié, de la fortificación renacentista emprendida en Hondarribia a partir de 1530, por voluntad del emperador Carlos V, bajo el mandato de Sancho Martínez de Leyva Capitán General de Guipúzcoa, siendo construidos por el maestro Lope de Isturízaga y Pedro del Peso contador de Artillería.

El proyecto de restauracion, conservación y recuperación de la cortina oeste del recinto fortificado de la Plaza Fuerte de Hondarribia (s. XVI) se está desarrollando en distintas fases. Una inicial de limpieza y reconocimiento de la estructura llevada a cabo en el año 2009 que permitió la redacción del proyecto de ejecución por parte de los arquitectos Alberto Ustarroz y Manuel Iñiguez.

Desde mediados del 2011 y durante 4 meses se ha desarrollado la 1ª Fase de ejecución del proyecto que ha consistido en la restauración propiamente dicha tanto del lienzo como de la Puerta San Nicolás realizándose un seguimiento arqueológico de dichas obras. Los trabajos de restauración fueron ejecutados por la empresa Teusa S.A.

El primer criterio importante fue la consolidación y seguridad del propio lienzo sobre todo en su coronación que se encontraba debido - principalmente a la falta de recubrimiento de la fábrica de sillería- con el relleno de cal y canto al descubierto. Este hecho provocaba que el deterioro del interior de la fábrica, muy expuesta al azote de la climatología y al ambiente exterior, fuera muy acelerado y pusiera en peligro la seguridad de la base de la muralla por desprendimientos y caída de cascotes.

El segundo, muy ligado con el primero y consecuencia del mismo, era la manera en la que se adoptaba la solución de consolidar dicha coronación. Además de consolidar con mortero de cal las partes más deterioradas y sueltas del relleno, la decisión de mayor calado del proyecto consistía en asegurar dicha consolidación recuperando el perfil original de la coronación del lienzo permitiendo así conseguir su lectura íntegra y el de la puerta mejorando la imagen de

izateko eta hiriko babes egituraren atal garrantzitsu honen bikaintasuna berreskuratzeko xedean.

Hareharrizko estalduraren errenkaden kanpoko aurpegia berreskuratu nahi zen jatorrizko garaieraraino. Altuera hau ondo ezagutzen zen eta zehatz erregistratuta zegoen San Nikolas atean kontserbatutako hondakinetan eta harresi atal honen muturretako Erreginaren eta San Nikolas baluarteekiko elkartze puntuetan. Era berean, Luis Langot ingeniariaren aginduei jarraiki XVIII. mendean konpondutako arrakala eta kanoi zuloak bazeudela egiaztatzen zuen aurkikuntzak –lehendik egindako kontrol eta zundaketa arkeologikoen fasean (2009)– ematen zuen segurtasunarekin, aipatu kanoi zuloak partzialki berreskuratzeko lanei ekin genien.

San Nikolas ateari dagokionez, mendebaldeko harresi atal honetako elementu garrantzitsuena baina aldi berean ezezagunena baita, XVI. mende hasieratik nozitutako artilleria erasoen ondorioz galdutako bolumena eta tipologia berreskuratzea bila genuen.

Metodologia

Mendebaldeko atalaren kanpoko aldeko aurpegiari atxikirik aldamioak jarri eta gero, harlanduzko estaldurari atxikiriko kolonizazio biologiko ugariak desagerrarazteko produktu biozida bat aplikatu zen, eta ondoren kontrolatutako presiopeko uraz garbitu zen dena. Lehen lan honek aukera eman zuen harlanduzko errenkadak xehetasun handiz aztertzeko, gune batzuk artilleriako jaurtigaien inpaktuen ondorioz hautsita baitzeuden (zenbaitetan hutsunean bertan zegoen jaurtigaia bera), eta kaltetutako guneak sendotzeko, zaharberritzeko edo jatorrizko egoeran edukitzeko lanen irizpideak zehazteko.

Lanak harresi atalean

Errenkaden zuinkatze lanekin hasi ginen harlanduak berreskuratzen, betiere kontuan izanik galduta zeuden errenkadetan kontserbatzen ziren harlanduen altuerak eta jarraipena errespetatzeko beharra. Horretarako soka batzuk luzatu genituen haien egokiera ikusteko, eta harresiaren luzera osoan zehar lerrokatzea bikaina ez zela ikusi genuen, izan ere nabarmenak ziren puntu batzuetan harresiaren oinarriek erakusten zuten desitxuratzea. Galdutako errenkadetako harlanduak zuzenean zeuden harrien gainean egokitzeko irizpidea baliatu genuen, azpiko errenkadek zeuzkaten desitxuratzeak eta irregulartasunak «kopiatuz», errenkadak zuinkatze bikain batez berreraikita bat ez etortze larriak gertatuko bailirateke harresi atal berrien eta aurrez zeudenen artean. Harlanduzko estaldura egokitu baino lehen arkubarnerak garbitu genituen, denboraren joanean landare lurrezko deposituak eta landareak pilatu baitziren horietan eta kendu egin behar baitziren piezak egokiro paratzeko.

Kanoi zuloen egiturak izan ziren lan egiteko gune konplexuenak. Mendebaldeko harresi atalaren erdialdean Luis Langot ingeniariak 1723. urtean zuzendu-

la ruina existente antes de las obras y recuperando el esplendor de esta parte tan importante del recinto defensivo de la ciudad.

Se establecía como necesidad la recuperación del alzado exterior de las hiladas del forro de sillería arenisca hasta la altura original, por otro lado conocida y debidamente registrada, en los restos conservados en la puerta de San Nicolás y en los extremos del lienzo en contacto con los baluartes adyacentes de la Reina y de San Nicolás. Del mismo modo, y con la certeza que daba el hallazgo –en una fase de control y sondeo arqueológicos anteriores (2009)– que constataba la existencia de cañoneras asi como la brecha abierta en el lienzo y reparada en el siglo XVIII bajo las directrices del ingeniero Luis Langot, se procedió a la recuperación parcial de dichas cañoneras.

En cuanto a la puerta de San Nicolás, si duda el elemento más importante y a la vez, más desapercibido del lienzo oeste, el criterio fue la recuperación de su volumen y tipología perdidos por las embestidas y ataques de artillería sufridos desde principios del siglo XVI.

Metodología

Instalados los andamios pegantes al alzado exterior de la cortina oeste, se procedió a la aplicación general de un producto biocida con el fin de eliminar la multitud de colonizaciones biológicas adheridas al forro de sillería para proceder, a continuación, a la limpieza con agua a presión controlada. Este trabajo previo permitió realizar una inspección detallada de las hiladas de sillería, afectadas algunas por roturas debido a impactos de proyectiles de artillería (en algunos casos encontrando además el propio proyectil dentro del hueco) para establecer los criterios de actuación como son la consolidación, restauración o el mantenimiento en su estado original de las zonas lesionadas.

Actuación en el lienzo

Los trabajos de recuperación de los sillares comenzaron con el replanteo de las diferentes hiladas, teniendo en cuenta la necesidad de respetar alturas y continuidad de los restos de sillares existentes en las hiladas ausentes. Para ello, se colocaron cuerdas, para ver el desarrollo de las mismas comprobando que la alineación a lo largo de la longitud total de la muralla no era del todo perfecta, ya que las deformaciones y asientos de la muralla en determinados puntos eran considerables. Ello llevó a establecer el criterio en obra de montar los sillares de las hiladas ausentes directamente sobre las existentes «copiando» las deformaciones e irregularidades que éstas tenían, ya que la reconstrucción de las hiladas con un replanteo perfecto hubiera supuesto una grave discondarcia entre las preexistencias y los nuevos paños. La colocación de la camisa de fábrica de sillería pasaba por un trabajo previo de la limpieza del intradós de la misma, ya que con el paso del tiempo existian depósitos importantes de tierra vegetal y plantas que debían retirarse para el correcto apoyo de la fábrica.

Las áreas más complicadas de actuación fueron las estructuras de las cañoneras. La cortina o lienzo oeste muestra, en su tramo central, las huellas de la

San Nikolas Atearen (XVI. m) kanpoko itxura esku-hartzeari ekin baino lehen eta ondoren.

Alzado exterior de la Puerta de San Nicolás (s. XVI) antes y después de la intervención.

tako berreraikitze lan handiaren arrastoak nabari dira. Aipatu arrakala XVII. mendeko setioak eta XVIII. mende hasierako Ondorengotza Gerrak eragin zuten. Arestian adierazitako berreraikuntza lanetan sei kanoi zulo ireki zituzten, XX. mende hasierako argazkietan ikus daitezkeenak eta aurreko esku-hartze arkeologikoan berriro ere aurkituak (haien arrastoak, abiapuntuak eta lauzadurak). Kanoi zulo hauetan egongo ziren artilleriako piezak harresi atalaren aurkubarneran egokitutako lurrezko betegarriz antolatutako aldapan barrena ekarriko zituzten. Kanoi zuloen bolumena soilik hirugarren errenkadara arte berreraiki zen, bigarren aldirako utzi zen gainerakoa.

Lanak San Nikolas Atean

XVI. mendean gotortutako barrutian irekitako San Nikolas Atea, hiribildura sartzeko bi ateetako bat, osorik zegoen, baina haren egiturak nahasita edo «zaurituta» zeuden mendeetan zehar jasan zuen artilleriaren inpaktuen ondorioz. Elementu nagusienen jatorrizko hondakinak kontserbatu ditu, esate baterako bere egitura kontserbatu du, eta horiek atal hau, hein handi batean bederen, zintzoki berreraikitzeko aukera eman dute lan gaitza egin ostean, eta aldi berean aukera eman dute une honetan nahasita ageri den multzo osoa ulertzeko lekukotasuna berreskuratzeko.

Landa-lanak gogorrak eta konplexuak gertatu ziren, atetik kontserbatutako hondakinen formen eta geometriaren ikuspuntutik egiaztatu ahal izan baikenuen bat ez etortze handiak gertatzen zirela, haren aurreko interpretazioa zailduz. Horrexegatik eta kirurgia lan bat balitz bezala harlanduz harlandu zaharberritu genuen atal hau, haren elementu bereziak banan-

gran reconstrucción llevada a cabo por el ingeniero Luis Langot a partir de 1723, tras la brecha provocada por los grandes sitios del siglo XVII y la Guerra de Sucesión a comienzos del siglo XVIII. La reconstrucción supuso el añadido de seis cañoneras, visibles en fotografías de los primeros años del siglo XX y redescubiertas, tanto sus huellas, arranques y enlosado, en la intervención arqueológica previa. El acceso y ubicación de las piezas de artillería relacionadas con estas cañoneras se realizaba a través de una escarpa de relleno de tierra que se localizaba en el intradós del lienzo. Se llevo la reconstrucción volumétrica de estas cañoneras, sólo hasta la tercera hilada, dejando para una segunda fase su acabado final.

Actuación en la Puerta de San Nicolás

La puerta de San Nicolás, una de las dos entradas a la ciudad, abierta en el recinto fortificado del siglo XVI, se encontraba entera pero con sus estructutas alteradas y «heridas» por la fuerte artillería que debió impactar en su alzado durante siglos. Ha conservado restos originales de sus elementos más característicos como su molduración que han permitido, tras un arduo trabajo de dirección de obra y ejecución, la reconstrucción con certeza del alzado, al menos en gran parte, como testimonio que ayude a comprender la totalidad ahora alterada.

El trabajo de campo fue duro y complicado pues se pudo comprobar que desde el punto de vista geométrico y formal los restos conservados de la puerta presentaban una gran discordancia que complicaba en gran manera su interpretación. Por ello, y como si de un trabajo de cirujía se tratara se fue restaurando el paramento, sillar a sillar, recuperando cada uno de sus

banan berreskuratuz eta betiere kontserbatutako aztarnei zintzoki jarraituz. Honenbestez berreskuratu ziren ertzetako moldadura kurbatuak, harresi atal honetako sokaren lerrokadurari jarraitzen zaion alfiza, inpostak eta goiko gailurreko erlaitza.

Lan honen osagarri, mendebaldeko harresi ataletik ateratako harri eta kareorezko lagin biren azterketa petrografikoa eraman zuen burura Zaragozako Unibertsitateak (Lurreko Zientzia Departamentua) haien ezaugarriak eta berezitasunak zehazteko xedean. Datu hauek funtsezkoak izan ziren obraren proiektua burura eramateko garaian baliatu beharreko materiala aukeratzeko orduan.

Bestalde, zundaketa arkeologiko bat (4,30 m x 2 m) ireki genuen mendebaldeko hormak eta San Nikolas baluarteak bat egiten duten puntuaren kanpoko aldeko horma atalari atxikiriko lubanarroan. -4,70 metroko sakonera mailaraino iritsi ginen, harresiak atseden hartzen zuen harri naturalaren mailaraino. Lurrez, neurri askotako harriez (harri txikiak, harlandu handiak...) eta teila puskez osaturiko betegarrien geruzak erregistratu genituen. -3,70 metroko sakonera mailan kolore beltzeko lurrezko geruza bat dokumentatu genuen, oso trinkoa eta 40 cm-ko lodierarekin.

Oro har eta konklusio gisa esan dezagun burura eraman dela Hondarribiko Plaza Gotorreko barruti gotortuaren mendebaldeko harresi atal errenazentista birgaitzeko proiektuaren 1. aldia. Izan ere, historian zehar jasandako erasoen arrastoak desagerrarazi gabe zaharberritu eta konpondu dugu atal hau, eta burura eraman ditugu egindako aurkikuntzek –kanoi zuloak– eta etorkizunean ere haren kontserbazioa –gailurrak eta San Nikolas atea– bermatzeko lanek eskatzen zituzten zaharberritze eta konpontze lanak ere, jatorrizko elementu guztiak babestu baikenituen egun gisa honetakoak zaharberritzeko xedean Europan nagusi diren teoria eta praktiken arabera.

elementos singulares siempre siguiendo rigurosamente la guía de las huellas conservadas. De esta manera, se recuperaron las molduras curvas de las esquinas, el alfiz que continua formalmente la alineación del cordón del lienzo de la muralla, las impostas y la cornisa de la coronación superior.

Como parte complementaria a esta trabajo se llevó a cabo un estudio petrográfico de dos muestras de piedra y mortero procedentes de la cortina oeste a cargo de la Universidad de Zaragoza (Dpto. de Ciencias de la Tierra) con el fin de determinar sus características y propiedades. Estos datos fueron determinantes para realizar la selección del material a emplear en la ejecución del proyecto de obra.

También se llevó a cabo un sondeo arqueológico (4,30 m x 2 m) en el foso pegante a la base del alzado exterior del lienzo oeste en la unión con el baluarte de San Nicolás. Se alcalzó una profundidad de - 4.70 m llegando hasta la roca natural donde cimentaba la muralla. Se registraron estratos de relleno compuesto por tierra y piedras de tamaños diversos (pequeñas, grandes sillares,…) y fragmentos de tejas. A -3.70 m se registro un estrato de tierra, de color negro, muy compacto de 40 cm de potencia.

En líneas generales y a modo de conclusión, podemos afirmar que se ha llevado a cabo la 1ª Fase del proyecto de rehabilitación del lienzo oeste del recinto fortificado renacentista de la Plaza Fuerte de Hondarribia que ha consistido en una acción combinada de restauración y reparación conservadora sin borrar las huellas de las peripecias históricas sufridas, incluyendo aquellas reconstrucciones obligadas tanto por los descubrimientos realizados –cañoneras– como por asegurar su conservación –coronaciones y puerta de San Nicolas– en el futuro, protegiendo del deterioro todos sus elementos originales, según la teoría y práctica en uso en la mejor restauración europea actual.

M. Ayerbe Irízar

C.150.2. UDAL BARRUTIA / TÉRMINO MUNICIPAL

C.15.2.1. **Zubieta finka**

Zuzendaritza: Mertxe Urteaga
Diru-laguntza emailea: Gipuzkoako Foru Aldundia

C.15.2.1. **Finca Zubieta**

Dirección: Mertxe Urteaga
Subvención: Diputación Foral de Gipuzkoa

In the Zubieta plot (Hondarribia), located on a hill overlooking the old tidal plain of the Bidasoa estuary, evidence has been found indicating the presence of a flint workshop and a period of occupation with ceramic remains dating from the protohistoric period. On the surface, Roman ceramic remains have also been found.

Zubieta du izena Gipuzkoako Foru Aldundiak Hondarribiko udal barrutian eta Jaitzubiako auzotik gertu, Madriletik Irunerako I. Errepide Nazionalaren ondoan, duen finka. Lur hauetan esperimentuak egiten dira aldatutako sailekin, eta nekazaritza izaerako programa berritzaileak garatzen dira. Gutxi gorabehera 150.000 metro koadro hartzen ditu, eta larreetan,

Con el nombre de Zubieta se conoce una finca, propiedad de la Diputación Foral de Gipuzkoa, situada en término municipal de Hondarribia y en las inmediaciones del barrio de Jaizubia, junto a la Nacional I, Madrid-Irun. En estos terrenos se realizan plantaciones experimentales y se llevan a cabo programas agropecuarios innovadores, contando con una exten-

lur landuetan eta fruitu arbolek hartutako eremuetan banatzen da. Lur hauek biltzen zituen aspaldiko baserriaren izena hartzen du. Baserria muinoaren goiko aldean zegoen, egun ukuiluek eta makineria gordetzeko biltegiek hartzen duten lekuan.

Egun lehortuta eta baratze eta larre bihurtuta dauden padurako eremu zaharren gaineko muino biribildua hartzen du finkak. Padurek muinoa inguratzen zuten Puiana auzoko lur garaiekin lotzen zuen ekialdeko sektorean izan ezik. Iparraldean, itsasgoran urpean geratzen ziren eremuetan, mareen eraginpeko errota zahar bati legokiokeen dike zahar baten arrastoak hautematen dira.

Eta aspaldiko baserriari leku egiten zion tokian harri lubeta batez sendotutako lur-berdinketa bat hautematen da. Eraikuntza izaerako ezaugarri interesgarriak ditu aipatu egiturak.

Kokalekuagatik, jatorrian urpean geratzen ziren eremuetan sartzen baita, eta duen garaieragatik, muinoaren gailurra itsas mailatik gora 25 metrotara baitago, miaketa arkeologikoen xede izan da. Miaketa lan hauek erromatarren garaiko Oiasso finkamenduaren inguruan garatzen ari garen ikerketen esparrura biltzen dira, aipatu hirigunea Irungo hiriaren erdialdean ezagutu baita, udaletxearen eta Beraungo muinoaren muturraren arteko zabalgunean; Oiasson portu instalazio garrantzitsuak geratu dira agerian, eta inguruetan zilarra, kobrea eta burdina mearen ustiakuntzari emandako meategi barruti osoa.

Miaketa arkeologikoak

Lehen une batean, 2007an, gainazaleko miaketa lanak egin genituen Zubieta finkan laborantza lurren gainazalek eskaintzen zituzten baldintzak aprobetxaturik, makineria txikiak iraulitako lurrak miatzeko aukera izan baikenuen. Orduan zeramika zati batzuk berreskuratu genituen, eta horien artean erromatarren garaiko zeramika zati bat identifikatu genuen, COIXIB moldekoa (Zeramika Oxidatzailea Inklusio Zuriekin)[72]. Aurkikuntzak akuilaturik, esku-hartze arkeologiko anbiziotsuago bat antolatu zen. Hondeatzeko makina txiki baten laguntzaz eta eskuz metro koadroko indusketak egin genituen. Miaketa lanak finkako sektore guztietara hedatu genituen; mendebaldeko eta hegoaldeko mazeletan bitarteko mekanikoak baliatuta (1. irudiko mapako 1. sektorea); hego-mendebaldeko mazelan (2. sektorea) begi bidezko eta katen bidezko miaketak egin genituen. Hego-mendebaldeari begira dagoen erdiko sektorean ez beste guztietan emaitza negatiboak eskaini zituzten lan guztiek.

Erdiko sektore honetan metro koadroko zazpi kata ireki genituen eskuz. Alde honetan batez beste 50 cm lodi da lurrezko paketea, larre erabilera ematen zaio. 10 x 30 cm-ko dadoetan atera genuen landare geruza, baina gero, ateratako lurrarekin kata estali eta gero, berriro ere utzi genituen lur puska horiek beren

[72] Urteaga, M., Amondarain, L., 2003. «Estudio de las cerámicas procedentes del puerto romano de Irun. Avance de las investigaciones». *Boletín Arkeolan*, 11, 59-104 orr.

sión de unos 150.000 metros cuadrados, repartidos en zonas de pradera, cultivos y frutales. Conserva el nombre del antiguo caserío al que pertenecieron los terrenos. Este caserío se situaba en la parte elevada de la loma, en el lugar hoy ocupado por los establos y almacenes de maquinaría.

La finca ocupa una loma redondeada adelantada sobre los antiguos terrenos de marisma hoy desecados y convertidos en huertas y pastizales. Las marismas rodeaban la loma, a excepción del sector oriental por donde enlaza con las tierras altas del barrio de Puiana. Por el norte en lo que fueron zonas inundadas por la pleamar, se observan las huellas de un antiguo dique que bien pudo corresponder a un antiguo molino de marea.

Y, en el emplazamiento del antiguo caserío, también se observa una explanación reforzada con un muro de escollera que presenta características constructivas de interés.

Tras la puesta en valor del ferrocarril minero Mutiloa- Ormaiztegi, cuyas obras contaron con el oportuno control arqueológico se realizó una prospección del área de tratamiento de mineral en la zona comprendida entre Barnaola, Mañastegizar y Troi errota. Junto al caserío Mañastegizar, donde se concentraba el mineral procedente del área extractiva, se ha registrado la vertedera, el lavadero con su masera, el taller-fragua, una caseta auxiliar, un depósito de agua y un plano inclinado que transportaba el mineral, tras ser lavado hasta Barnaola donde era cargado en los vagones del ferrocarril. La prospección concluyó que los trabajos de consolidación debían comenzar en las estructuras de la vertedera y del lavadero de mineral que han contado igualmente con el oportuno control arqueológico.

La documentación arqueológica y planimétrica ha determinado en la zona de tratamiento o lavado del mineral dos etapas. En 1899 únicamente estaba construida la vertedera, utilizada como área de almacenamiento y expedición. Y ya en 1917 se había levantado el lavadero de mineral.

La vertedera de mineral

Es una estructura excavada en el terreno que dibuja una forma de tronco de cono invertido orientado de suroeste – noreste desde la cota superior de 427 m hasta la cota de 416 m. Sus dimensiones aproximadas son 12 m x 20 m de largo. Aparece forrada con fábrica de mampuesto y sillarejo con apenas argamasa o bien en seco. La rampa de carga de la vertedera, al suroeste, es de sección cóncava fabricada con sillarejo en seco y tiene un largo 6 m y un ancho de 3 m. Un camino de 2 m de ancho separa esta rampa de la gran vertedera.

En la base de la vertedera, hacia el noreste se dibuja la salida de la vertedera, a modo de embudo: más estrecho hacia la estructura de vertido y abriéndose hacia la salida. Presenta muros de mampuesto y sillería bien escuadrados. Al noreste incluso aparecen sillares en esquinales, con almohadillado, similares a los registrados en el viaducto del ferrocarril minero en Potxueta por lo que presumiblemente de la misma época cronológica y similar ejecución. Estos muros reforzados con argamasa alcanzan unas dimensiones de 6 m de largo y una altura de 1,80 m - 1,70 m. Además cuentan con agujeros de 20 cm X 30 cm a una distancia de entre 80 cm y 50 cm. La parte interior tiene una luz de 2 m y la exterior 2,30 m. En la parte superior de estos muros aparece una estructura construida a base de argamasa y pequeñas piedras irregulares cuyo exterior presenta una superficie lisa de argamasa a modo de cierre que pertenecería a una estructura superior que cubría esta zona.

En el año 2010 se realizó la consolidación de la vertedera llevada a cabo en la mayor parte de su desarrollo exceptuando su base donde se encontró mineral endurecido y que no fue retirado. Los trabajos arqueológicos

Ezkerretara: burdin mea bideratzeko egituraren ahoa. In situ kontserbatu dira errei bat eta plano makurtuaren buruarekin bat egiten duen irteerako bideko trebesak. Eskuinetara: Garbitegiko biltegiaren ikuspegi orokorra. Ondo asko hautematen dira egiturak ezagutu zituen handitze lanak eta zoruan iltzatutako metalezko xaflez osatutako oina.

A la izquierda: boca de descarga de la vertedera de mineral de hierro. Ha permanecido in situ un raíl y las traviesas de la vía de salida que marcan la conexión con la cabeza del plano inclinado. A la derecha: vista general de la masera del lavadero. Se observan las diferentes ampliaciones que sufrió la estructura y la base de chapas metálicas atornilladas al terreno.

irteera eta garraio sistemekiko eta mea garbitzeko eremuarekiko loturak erregistratzea izan zuten xede nagusia.

Mea bideratzeko egituraren irteera puntutik kendu egin genuen hura betetzen zuen materiala. Goiko egituratik behera etorritako materialez eta ondorengo metaketez osaturiko geruza lodia zen. Guztia landare hondakinekin eta zaborrekin nahasita. Geruza hau gutxi gorabehera 50 cm lodi zen kanpoko aldean, baina 2 m lodi barrukoan. Geruza honetan bikain eskuairatutako harlanduak, batzuk kuxindurarekin, eta antza hutsune honetara jausitako arkua zena, ziri-harrien gisara egokitutako hiru bloke handi, erregistratu genituen. Geruza hau altxatuta landu gabeko edo trauskil landutako zortzi enbor azaldu ziren, eta haien perpendikularrean 90 cm-ko ohol bat. Ohol hau metalezko xafla bateko kakoari lotuta zegoen, zaborren azpira eroritako ate bat balitz bezala. Oholak 30 eta 15 cm bitarte zabal ziren, eta enborrak 1,80, 1,10 eta 0,75 m luze. Lurra altxatuta balastozko eta galipotezko geruza oso gogorra geratu zen agerian, eta hartan trebesa hondakinak bereizten ziren. 2011. urtean geruza hori altxa dugu ahoaren ekialdean dauden erreiak eta trebesak guztiz agerian uzteko. Lau trabesa angeluzuzen dira, neurriz ezberdinak, lau aldeak landuak dituztenak. 1,34-1,90 m bitarte luze dira, 19-17 cm bitarte zabal eta 9 cm garai. Metalezko kako ugari eta iltzeak edo iltzeek utzitako zuloak dituzte, haietako bakoitzean 75 cm-ko zabalera marraztuz. Mea bideratzeko egituraren barruko alderantz azkeneko trebesatik 1,90 metroko tartera du abiapuntua errei batek, trebesen perpendikularrean eta ahoaren paraleloan: 1,47 m luze da, 5 cm zabal eta 5 cm garai, eta egituraren hego-ekialdeko hormatik 63 cm-ko tartera dago. Errei honen paraleloan, 75 cm-ko tartera, arrakala bat hautematen da zoruan. Egitura honetako irteera bidea osatuko zuen ezaugarri bertsuko erreiak utzitako arrastoa da.

posteriores se centraron en el registro de la salida de la vertedera y sus conexiones con los sistemas de transporte y el área de lavado del mineral propiamente dicho.

En la salida de la vertedera se retiró el material que la colmataba. Se trataba de una potente capa de derrumbe proveniente de las estructuras superiores y de acopios posteriores. Todo ello mezclado con restos de vegetación y de materiales de deshecho. Esta capa alcanzaba unos 50 cm de espesor en la parte más externa y en la parte interna llegaba a los 2 m. En ella se encontraron sillares perfectamente escuadrados, algunos con almohadillado y lo que pareció ser el arco que se había desplomado sobre el hueco con tres grandes bloques dispuestos a modo de dovelas. Tras retirar esta capa aparecieron ocho toscos maderos apenas trabajados con una tabla perpendicular de 90 cm y que a su vez estaba cosida al enganche de una chapa metálica, simulando una puerta caída bajo los escombros. El ancho de las tablas oscilaba entre los 30 cm y los 15 cm. Las dimensiones de estas maderas eran muy distintas: 1,80 m, 1,10 m o 0,75 m. Una vez retirada la tierra apareció una capa de balasto y alquitrán muy dura en la que aparecieron los restos de traviesas. En el año 2011 se ha levantado esta capa para descubrir completamente los raíles y las traviesas situadas en el remate este de la boca. Son cuatro traviesas rectangulares de diferentes dimensiones, trabajadas en sus cuatro caras. Sus dimensiones oscilan desde los 1,34 m-1,90 m de largo y 19-17 cm de ancho con una altura 9 cm. Cuentan con numerosos enganches metálicos y clavos o huecos de clavos describiendo una anchura de 75 cm en cada una de ellas. A una distancia de 1,90 m de la última traviesa en dirección hacia el interior de la vertedera, arranca un raíl perpendicularmente dispuesto a las traviesas y paralelo a la boca que alcanza una longitud de 1,47 m, con un ancho de 5 cm y una altura de 6 cm, a una distancia de 63 cm del muro sureste de la vertedera. Paralelamente a este raíl, a una distancia de 75 cm se observa una hendidura en el terreno. Es la huella que debió dejar un raíl de las mismas características y que completaría la vía de la salida de la vertedera.

Jarraian eskuz atera genuen egituraren barneko mendebaldean metatutakoaren parte bat aipatu egituraren oinaldea aztertzeko xedean. Halatan agerian geratu zen harlanduz eta partzialki landutako harriz osatutako estaldura. Ondoan material irregularra azaldu zen, eta puntu honetatik aurrera neurri handiko harlandua erregistratu genuen, pieza bakoitzean 1,03 m-ko zabalera hartzen zuena. Itxura guztien arabera material honetaz osatua da mea bideratzeko egitura honen oinaldea. Egitura honen ahoaren abiapuntuan, egituraren barruko alderantz, nola iparraldeko hala hegoaldeko hormetan, itxitura edo garraio egiturei leku egingo zieten zuloak bereizten dira, eta haietan sendotzeko kareore hondakinak aurkitu genituen, baita egurrak ere. Horrexegatik uste dugu egitura honetako itxitura zurezkoa izango zela.

Egitura honi lotuta mea deskargatzeko bi balkoi erregistratu genituen. Balkoi hauetaraino iristen ziren mea ateratzeko guneetatik abiarazten ziren bi burdinbide. Balkoi angeluzuzen hauek landu gabeko harriz eginak dira, ia kareorerik gabe. Troi meatokitik iristen zen bidearen muturrean dagoen balkoia 435 metroko garaieran dago eta 2 m-ko frontea du; egituraren mendebaldeko mea bideratzeko egituraren arrapalaren gainean egokitzen da. Troi errota ondotik iristen dena, berriz, mea bideratzeko egituraren iparraldean, 424 m-ko garaieran dago eta 2,40 metroko frontea du.

Garbitegia

Ondo bereizten diren bi alde ditu egitura honek. Iparraldean mea garbitzeko garbitegia bera dago, eta hegoaldean txirta biltegia, buztinarekin nahasitako mea biltegia. Espazio bien artean arteko horma bat dago, mea eta ura igaroarazteko ahoarekin, meei atxikiriko lohia kentzeko tromeletara bideratzeko, azken hauek egituraren iparraldean egokituak. Alde honetan aurkitu genituen tromel biei leku egiten zieten hutsune bien hondakinak. Lehenengoa biltegiko ahoaren lerroan eta bigarrena aurrekoaren ekialdean, tarteko horma baten bidez lotua. Partzialki landutako harriz eta landu gabeko harriz eginak dira hutsune edo espazio hauek. Lehenengoaren oina espazio ahurra da, adreiluz egina eta zementuz estalia, tromelari leku egingo zion ohatzearen modura. Metro bete goratuta dago. Ekialdean espazio angeluzuzen bat dago, landu gabeko harriz egina, eta bertako hormetan tromela kakotzeko hutsuneak nabari dira.

Tromelei leku egiteko eremua, tarteko horma eta biltegiko hormak sendotzeko lanek eskatzen zuten multzoaren hego-mendebaldea hustu beharra. Lan hauek kontrol arkeologikoen pean eraman zituzten burura. Trapezoidearen forma zuen alde honek. Aurreko horma 6,10 m garai zen, oina 11 m-taraino iristen zen, eta iparraldean 6,5 metroko horma zeiharra altxatzen zen, hegoaldean 9 m-koa zena. Aurreko hormaren muturra 2,10 eta 3 m bitarteko sakonera mailaraino iristen zen. Ateratako materiala, parterik beteenean 3 m-ko lodiera zuena, funtsean lur buztintsuaz osatua zen, burdin mearekin; material hau biltegiratua zegoen noiz garbitu izan. Harlanduz eta soilik partzialki landutako harriz eraikitako aurreko horma hau gutxienez 6 m garai da bere hegomendebaldean. Eskantzuak hobe landutako harriz sendotuta daude, baina gailurrak piezak galdu ditu. Aho buruduna du, 1,85 m garai eta 1,37 m zabal da. Oinean 70 cm-ko kaxadura du, biltegia eta garbitegia lotzen zi-

A continuación se procedió a la retirada manual hacia el oeste de parte del acopio existente en el interior de la vertedera con el fin de analizar la base de la citada estructura. Se descubrió así un forro de sillares y sillarejo. Inmediatamente se halló un material muy irregular y a partir de aquí arrancaba un sillar de grandes dimensiones que alcanzaba 1,03 m de ancho en cada pieza. Todo parece indicar que la base de esta vertedera está construida en este material. En el arranque de la boca de la vertedera hacia el interior de esta estructura, tanto en el muro norte como en el sur, se observan diferentes agujeros que acogerían estructuras de cierre o de transporte vinculados a ella en los que se encontraron restos de argamasa a modo de refuerzo y madera en su interior. Por ello entendemos que el cierre de esta estructura correspondería a un ingenio de madera.

Asociados a la vertedera se registraron dos balcones de descarga conectados con dos vías de arrastre procedentes de las zonas extractivas. Ambas estructuras rectangulares están construidas en mampuesto muy burdo con apenas argamasa como aglutinante. La que remataba la vía de arrastre de la zona de la mina Troi se alza a una cota de 435 m con un frente de 2 m, sobre la rampa de la vertedera al oeste de la estructura. La procedente de la zona extractiva cercana al molino Troi al norte de la vertedera, con un frente de 2,40 m lo hace a 424 m.

El lavadero

Esta estructura cuenta con dos partes diferenciadas. Al norte se desarrolla el área de lavado propiamente dicho y en la zona sur, la masera o almacén de chirta, mineral mezclado con arcilla. Entre ambos espacios se alza un muro de separación con una boca por donde pasaba el mineral y el agua hacia los tromeles deslodadores ubicados al norte de la estructura. En esta área se encontraron los restos de dos huecos que acogían los dos tromeles. El primero alineado con la boca de la masera y el segundo comunicado a través de un muro intermedio al este del anterior. Estos huecos o espacios están construidos con sillarejo y mampuesto. La base del primero es un espacio cóncavo definido por ladrillo y recubierto por cemento a modo de cama que acogería el tromel. Está sobreelevado a una altura de 1 m. Al este se describe un segundo espacio rectangular construido a base de mampuesto en cuyos muros se observan oquedades que corresponderían a enganches del tromel.

Las obras de consolidación del área de los tromeles, el muro intermedio y de los muros de la masera implicaron el vaciado de la parte suroeste del conjunto, que contó con el oportuno control arqueológico. Esta zona tenía una forma trapezoidal. El muro frontal presentaba una altura de 6,10 m, su base alcanzaba los 11 m, y en el lado norte se dibujaba un muro oblicuo de 6,5 m, que en su lado sur era de 9 m. La profundidad en el extremo del muro frontal llegaba a los 2,10 m - 3 m. El material retirado, que en la zona más colmatada alcanzaba los 3 m era principalmente tierra arcillosa con mineral de hierro que estaba almacenada para su lavado. El muro frontal construido con sillería y sillarejo con argamasa tiene una altura mínima en su lado suroeste de 6 m. Los esquinales están reforzados con mejor fábrica, mientras que la cumbrera ha perdido material. Presenta una boca adintelada de 1, 85 m de alto y 1,37 m de ancho. En su base presenta un enca-

tuena bera. Jatorrian zurezkoa zuen ateburua, baina egoera txarrean zegoenean aldatu behar izan zuten hura. Ateburu honetatik 1,52 metroko tartera, biltegiko itxitura horman, lau zulo edo hutsune bereizten dira. Itxura guztien arabera hego-mendebalderantz egongo zen goiko egiturari edo estalkiari eusteko habeak ahokatuko zituzten zulo hauetan. Sarreraren parean, mendebalderantz, metalezko xafla batzuk azaldu ziren zoruaren gainean.

Itxitura horma handi honek, lehen aipatutako iparraldekoarekin eta hegoaldekoarekin batean, trapezoide itxurako biltegia mugatzen dute. Landu gabeko harriz eginak dira hormak, kareorerik gabe, harriak lehorrean ipiniak, eta horri esker handitu egin zuten biltegiaren espazioa. Zoruaren oinean eta itxitura hormako ahoaren lerroan 3 mm-ko burdinazko xaflekin osaturiko azalera geratu zen agerian. Xafla hauek 1,40 m X 1,60 m-ko iltzeekin zeuden zoruan iltzatuta, era berean trapezoide bat itxuratuz. Ahoaren ondoan errei baten bidez batzen dira xaflak. Alderik estuena, ahoaren ondoan, 1,40 metrokoa da, eta zabalena, mendebaldeko muturrean, 5,20 metrokoa. Agerian utzitako xaflazko zorua biltegiaren erabilera aldiaren amaierakoa da, aurrez zegoena nahikoa ez zela iritzi zutenekoa.

Hala eta guztiz ere, ez genituen gisa honetako egituretan ohikoak izaten diren hodiak identifikatu, ez eta kontuan izanik ere hurbil dagoela ur depositua. Desegindako materialek utzitako hutsuneak baizik ez genituen ikusi.

Egitura hau sendotzeko lan arkeologikoei esker agerian geratu zen mea bideratzeko egituraren eta biltegiaren arteko lotura. Troi errotako erauzketa eremuko mea garraiatzeko bidearekin, aldi berean mea bideratzeko egitura ebakitzen zuen bidearekin, bat egiten zuen zabalgunea biltegiko alde honetaraino iristen zen. Halatan, aurreko hormaren goiko aldeko soliboei leku egiteko zuloen parean iraulitako U formako egitura baten zimentarria geratu zen agerian. Partzialki landutako harriz eta harri landu gabeez eraikia zen. 6,40 metroko frontea du, eta aldeak 4 m eta 3,15 m luze dira hurrenez hurren, gehienez ere 50 cm garai. Aipatu zuloen parean zegoen geroagoko jarduerek guztiz nahasitako egitura hau. Itxura guztien arabera biltegia hornitzeko eraikin motaren baten oina zen, balkoi edo estalpe antzeko baten oina.

Plano makurtua

Mañastegizarreko mea tratatzeko eremuaren iparraldeko muturrean, 413 eta 337 m bitarteko kotan, alde hau garbitzeko eta induskatzeko lanen ostean, elementu isolatu batzuk kontserbatzen zituen plano makurtu bat erregistratu ahal izan genuen. 230 m luze da, eta atal batzuetan balastoa identifikatu ahal izan genuen. Mea tratatzeko aldea eta mea bidaltzeko eremua lotzen zituen, azken hau Barnaola baserriaren inguruan. Planoaren burua, Mañastegizarreko garbitegiko terrazaren oinetan, mazelara egokitzen den hormak mugatutako laugunea da. Horma landu gabeko harriz egina da, harriak lehorrean ipiniak, eta irekiune bat du ipar-ekialdean, kotarik baxuenean, 50 cm zabal. Gainera mazelari eusteko hego-ekialdetik iparekialderako hormaren hondakinak kontserbatzen ditu; kotarik beherenean 4 m luze da horma hau. Guk uste dugu alde honetan eraikitako planoaren burua baizik

jonamiento de 70 cm que comunicaba el área de la masera con el área de lavado. Originariamente el dintel era de madera que debido a su mal estado tuvo que ser sustituido. A una distancia de 1,52 m de este dintel se abren cuatro orificios o mechinales en el muro de cierre de la masera. Todo apunta a que albergaron una cubierta o estructura superior hacia el lado suroeste. Enfrente de la boca, hacia el oeste aparecieron planchas metálicas sobre el terreno.

Este gran muro de cierre, junto con los ya citados al norte y al sur delimitan un espacio de almacenamiento trapezoidal. Construidos en mampuesto y argamasa, ambos presentan levantes en mampostería en seco gracias a lo cual se amplió el espacio de almacenamiento de la masera. En la base del terreno y alineado con la boca del muro de cierre apareció una superficie de chapas de hierro de 3 mm cosidas al terreno con clavos 1,40 m X 1,60 m dibujando una forma también trapezoidal. Junto a la boca se unen mediante un raíl. La parte más estrecha, lógicamente junto a la boca es de 1,40 m, con un máximo en el extremo oeste de 5,20 m. La superficie de chapas descubierta data de la última etapa de utilización de la masera, una vez que se estimó que la existente era insuficiente.

Sin embargo no se localizó tubería alguna, algo habitual en este tipo de estructuras teniendo en cuenta, además, la cercanía del depósito de agua. Tan solo aparecieron huecos de materiales que se han desintegrado.

Las actuaciones arqueológicas y de consolidación establecieron la conexión entre la vertedera de mineral y la masera. La explanación que conectaba con la vía de arrastre del área extractiva de Troi errota y que a su vez cortaba la vertedera llegaba hasta esta zona de la masera. Así en frente de los orificios de los solivos existentes en la zona superior del muro frontal se encontró la cimentación de una estructura en U, invertida construida a base de sillarejo y mampuesto. Tiene un frente de 6,40 m y sus lados llegaban a los 4 m y 3,15 m respectivamente con una altura máxima de 50 cm. Esta estructura muy alterada por actuaciones posteriores se encontraba enfrente de los citados orificios. Todo apunta a que se trata de la base de algún tipo de construcción que se utilizaría para la carga de la masera a modo de balcón o cubierta de la misma.

El plano inclinado

En el extremo norte de la zona de tratamiento de Mañastegizar, entre las cotas 413 m y 337 m se ha podido registrar tras las labores de limpieza y excavación un plano inclinado del que quedan elementos aislados. Tiene una longitud de 230 m de longitud y en algunos tramos se ha podido identificar balasto. Comunicaba la zona de tratamiento del mineral con la zona de expedición cercana al caserío Barnaola. La cabeza del plano, situada a los pies de la terraza del lavadero de Mañastegizar se describe como una explanación delimitada por un muro que se adapta a la ladera. Este muro es de mampuesto en seco y describe una apertura hacia el noreste, en su cota más baja, con una potencia de 50 cm de ancho. Además cuenta con restos de muro que contienen la ladera de sureste a noreste con una longitud en su cota inferior de 4 m. Entendemos que lo descubierto, es tan solo

Esku-hartze arkeologikoaren xede izandako eremuaren ikuspegi orokorra: Mañastegizarreko mea tratatzeko eremua.

Vista general del área de intervención arqueológica: área de tratamiento de mineral de Mañastegizar.

ez dela agerian utzitakoa. Antzeko egitura bat behar luke ipar-mendebaldean, baina geroagoko eraikuntzek betikoz nahasi dute alde hau.

Mañastegizarreko mea bideratzeko egituran eta biltegian burututako lan arkeologikoek aukera eman digute mea tratatzeko eremuko instalazioen eta, hedaduraz, bertako ekoizpen prozesuaren sekuentzia kronologikoa zehazteko.

XIX. mende bukaeran Troi zaharreko mea erauzteko eremuari loturiko mea bideratzeko egitura eraiki eta gero, beste alde bat hasi ziren ustiatzen, Troi errota izeneko aldea. Ondorioz aldatu ere egin zen ekoizpen prozesua, instalazio berriak eraiki zituzten erauzketa jardueraren kokaleku berriari erantzun ahal izateko. Orduan eraiki zuten Mañastegizarreko garbitegia, XX. mendeko aurreneko hamarraldian hain zuzen.

Lan hauek aukera eman digute meatze azpiegituraren tipologia guztiz berezia identifikatzeko eta aztertzeko; mea garbitzeko garbitegiaz ari gara. Ondorioz, Mañastegizarreko garbitegia erreferentzia garrantzitsua izango da etorkizunean Euskal Herriko kronologia bertsuko (XIX. mende amaiera eta XX. mende hasiera) instalazioetan egin litezkeen esku-hartzeetan.

Etorkizunean Mutiloako Meategi Barrutian egingo diren azterketa arkeologikoak mea erauzteko eremura mugatuko dira: Troi galeriara eta haren eragin eremura, eta «Gezurmuño» deitu meategi-ustiategi handiko txirta biltegira. Berriro ere meategiko egiturak eta elementuak identifikatzea eta alde bien arteko espazioen eta barneko nahiz kanpoko funtzioen arteko harremanak zehaztea izango ditugu helburu nagusi.

parte de la cabeza de plano que se erigió en esta zona. Debería existir una estructura similar al noroeste pero construcciones posteriores han alterado definitivamente el área.

Los trabajos arqueológicos llevados a cabo en la vertedera y en la masera del lavadero de Mañastegizar han posibilitado el establecimiento de una secuencia cronológica en las instalaciones del área de tratamiento del mineral y por ende su proceso productivo.

Tras la construcción de la vertedera a finales del siglo XIX, vinculada a la extracción minera de la zona de Troi zaharra, la explotación se modificó y comenzó la extracción en la zona conocida como Troi errota. Con ello también se transformó el proceso productivo levantando nuevas instalaciones para responder a la nueva orientación de la actividad extractiva. Fue entonces cuando se construyó el lavadero en Mañastegizar ya en la primera década del siglo XX.

Estos trabajos han permitido identificar y analizar una tipología específica de infraestructura minera: el lavadero de mineral. Ello posibilitará que futuras intervenciones en similares instalaciones de la misma cronología (finales del siglo XIX y principios del XX) en el País Vasco tengan en el lavadero de Manastegizar una importante referencia comparativa.

Los próximos estudios arqueológicos del Coto Minero de Mutiloa se centrarán en la zona extractiva: en la galería Troi y su área de influencia y en la gran chirtera de la concesión minera «Guezurmuño». El objetivo fundamental será, una vez más, identificar las estructuras y elementos mineros y determinar las relaciones espaciales y funcionales internas y externas de ambas zonas.

B. Herreras Moratinos; J. Zaldua Goena

C.23. OÑATI

C.23.1. Zumeltzegi dorrea

Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea
Finantziazioa: Torre Zumeltzegi, S.L.; Gipuzkoako Foru Aldundia

C.23.1. Torre de Zumeltzegi

Dirección: Alfredo Moraza Barea
Financiación: Torre Zumeltzegi, S.L.; Diputación Foral de Gipuzkoa

The archaeological work carried out in Zumeltzegi Tower failed to detect the presence of previous construction phases on the site. The tower appears to have been built at the end of the 14th century, and subsequently underwent a series of modifications.

Oñatiko Larraña auzoan dago Zumeltzegi Dorrea, ia haran osoa mendean hartzen duen ordokian. Eraikin honen jabeek egungo instalazioak birmoldatu nahi zituzten hirugarren sektoreko erabilerarekin lotutako egiteko berri bati egokitzeko xedean. Proiektuaren arabera eraitsi egingo zuten eraikin nagusiari atxikiriko eraikin sorta bat, hauek desitxuratu egiten baitzuten eraikin nagusiaren jatorrizko irudia. Aipatu eraikinak eraisteko lanak aprobetxatuz horma atalen irakurketa fotogrametrikoa egin genuen haien kontserbazio egoera eta eraikina birmoldatzeko prozesu honen aurreko balizko eraikuntza aldiak islatzeko frogak jasotzeko xedean.

Zumeltzegi dorre zaharrak oinplano koadroa du (aldeak 13,50 m luze), egun bost solairu ditu baina jatorrian gutxiago izango zituen. Partzialki landutako harriz eginak ditu perimetroko hormak, baina eskantzuetan harlanduak erabili zituzten. Behe oinean 1,75-2 m zabal da horma baina mehetu egiten da gora egin ahala. Jatorrian eraikin honek aski itxura itxia izango zuen, bao gutxi, gehienak gezi-leihoak, solairuetan erabat edo partzialki kontserbatuek erakusten duten modukoak. Ekialdeko fatxadan dago egungo sarrera, hormari atxikiriko eskailerak dira, itxuraz ez aspaldikoak. Jatorrizko sarrera, egun itsutua bera, eraikinaren mendebaldeko horman zegoen, arku zorrotz burudun batek eratuta zegoen, eta haren goiko giltzarrian Gebaratarren leinuaren armarria txertatzen da, leinu garrantzitsu honena baitzen eraikina.

Egile batzuek XII. mendean kokatzen dute dorre honen jatorria, baina aztarna guztien arabera XIV. mende amaierakoa da. Antza berreraikuntza garrantzitsuaren xede izan zen eraikina XV. mendearen erdialdera, dokumentu baten arabera «*fizo quitar lo que era de madera e subir e labrar de cal e canto y almenar la dicha cassa*». Guk pentsatzen dugu une horretan egungo behe oina izango zela harrizkoa, 3,50 metroko garaierarekin, eta haren gainean egokituko zirela zurezko beste solairuak, ezagutzen ez dugun altueraraino. XV. mende amaierako berreraikuntzaren ondorioz eraikina guztiz berritu zuten, horma guztiak harrizkoak izango zituen ordutik aurrera, baina egun lehenengo solairua eta bigarrenaren atal bat baizik ez dira orduko berreraikuntzatik kontserbatu. Geroago, oraingoz noiz ez dakigula, berriro ere berritu zuten eraikina, ordukoak dira haren barruan kontser-

El edificio de Zumeltzegi Torrea está situado en el barrio oñatiarra de Larraña, en un rellano desde el que se domina prácticamente todo el valle. Los propietarios del edificio pretendían llevar a cabo una remodelación de las actuales instalaciones con el fin de readecuarlo a una nueva función relacionada con un uso terciario. El proyecto conllevaba la eliminación de una serie de construcciones anexas al edificio principal que degradaban su imagen original. Coincidiendo con el derribo de esas construcciones se procedió a efectuar una lectura fotogramétrica de los diferentes lienzos de pared de manera que quedara testimonio fehaciente del estado de conservación y posibles fases constructivas antes del presente proceso de remodelación.

La antigua torre de Zumeltzegi presenta una planta cuadrangular (13,50 metros de lado), disponiendo en la actualidad de un total de cinco alturas aunque originalmente su número sería menor. Su muro perimetral está aparejado en sillarejo y sillares en los esquinales, presentando en la planta baja una anchura de 1,75-2 metros que se va reduciendo en las plantas superiores. El edificio, al menos en su traza original, presentaría un aspecto bastante hermético con escasos vanos, mayormente saeteras como las conservadas de una manera total o parcial en las distintas plantas. El actual acceso está situado en la fachada oriental mediante unas escaleras adosadas al muro cuya traza aparentemente es reciente. El original, actualmente cegado, estaba situado en el lienzo meridional del edificio con un arco apuntado adovelado sobre cuya clave superior se encuentra empotrado el escudo del linaje de los Gebara, importante linaje al que pertenecía.

Algunos autores sitúan el origen de esta torre en pleno siglo XII, si bien todos los indicios retrotraen esa fecha hasta finales del siglo XIV. El edificio, al parecer, fue reconstruido de una manera importante en la segunda mitad del siglo XV cuando se apunta que «*fizo quitar lo que era de madera e subir e labrar de cal e canto y almenar la dicha cassa*». Se supone que en estos momentos la parte pétrea de la construcción se correspondería con la actual planta baja, con una altura de unos 3'50 m, y que sobre ella se alzarían el resto de pisos de madera en una altura desconocida. La reforma operada en este momento dará lugar a un edificio completamente renovado y ejecutado todo él con materiales pétreos, aunque a este momento constructivo parece que únicamente se corresponderían las actuales planta primera y parte de la segunda. En un momento posterior, y por el momento desconocido, se



Ezkerretara: Zumeltzegi Dorrearen iparraldeko fatxada, hari atxikiriko eraikinak eraitsi eta gero. Eskuinetara: Zumeltzegi Dorrean 2009 eta 2012 bitartean egindako zundaketa arkeologikoen oinplanoa.

A la izquierda: fachada norte de la Torre de Zumeltzegi) tras el derribo de las distintas edificaciones anexas. A la derecha: plano en planta de los distintos sondeos arqueológicos realizados en la Torre de Zumeltzegi entre 2009 y 2012.

batutako eraikuntza elementu batzuk (toro laurdenen gaineko ate burudunak, leiho burudunak ertz moldatuekin, jarleku-leihoak eta barruko kargari eusteko harriz eta karez egindako horma). Egile batzuek diotenaz beste, ez dirudi eraikin honek bere perimetroan harresi bat izan zuenik, are gutxiago eraikin nagusia inguratuko zuen lubanarrorik. Aitzitik, badaude ukuilu batzuen eta dorreari atxikiriko edo hartatik gertu egongo zen baseliza bati buruzko albisteak.

Obren bilakaerari berari egokitu zaio jarduteko plana, horrexegatik ari gara 2009. urteaz geroztik luzatzen ari diren prozesuetan murgildurik. Oraingoan zortzi zundaketa induskatu ditugu eraikin nagusiaren barruan nahiz kanpoan, eta etxebizitza berriak gaitzeko xedean burututako lur mugimenduen gaineko kontrol lanak egin ditugu. 1., 2., 4. eta 6. zenbakiko zundaketek ez zuten datu interesgarririk eskaini, gainazaletik zentimetro gutxi batzuetara agerian geratu baitzen lur eremu naturala.

3. zundaketa, «L» formakoa, dorrearen ipar-mendebaldeko ertzari atxikita ireki genuen, eraikinaren kanpoko aldean. Gainazaletik kontatzen hasita 25 cm eskasera, zementuzko zolarriaren eta betegarri erabat antzuaren azpian, elementu esanguratsu bakarra dokumentatu genuen, horma egitura bat, oinplano gutxi gorabehera erdizirkularrekoa, oso egoera txarrean kontserbatua. Partzialki landutako kareharrizko

procedería a efectuar una nueva reforma del edificio a la cual se corresponden algunos de los elementos constructivos conservados en su interior (las puertas adinteladas sobre cuartos de bocel, las ventanas adinteladas con aristas naceladas, los vanos con sus conversadores o la presencia en el interior de un muro de carga interno de cal y canto). No parece, sin embargo, que la construcción dispusiera de una muralla a lo largo de su perímetro y menos aún de un foso rodeando el edificio principal tal y como señalan algunos autores. Sí se tiene noticia de diversas cuadras y una ermita adosada o en las proximidades de esa torre.

El plan de actuación se ha ido adecuando a la propia evolución de las obras, de ahí que el mismo se haya prolongado desde el año 2009 en distintas procesos. Consistió en la realización de una serie de sondeos, en número de 8, tanto en el interior como el exterior del edificio principal, así como en el control de los movimientos de tierra efectuados para la habilitación de las nuevas viviendas. Los sondeos nº 1, 2, 4 y 6 no aportaron datos de relevancia alguna aflorando el terreno natural a los pocos centímetros de la superficie.

El sondeo nº 3 se realizó pegante a la esquina NO exterior de la torre en forma de «L». A escasamente 25 cm de la superficie y bajo la solera de cemento y un relleno totalmente estéril se pudo documentar el único elemento significativo compuesto por una estructura muraria de planta aproximadamente semicircular y muy deficientemente conservada. Estaba ejecutada mediante una serie de grandes bloques

Ezkerretara: Zumeltzegi Dorrean egindako 3. zundaketan dokumentatutako egitura erdizirkularra, erakin baten oinarriarena egingo zuena edo, besterik gabe, eraikinaren inguruko zolarria izango zena. Eskuinetara: Zumeltzegi Dorrean egindako 7. zundaketan dokumentatutako egiturak, horma hondakinak, zolarriak eta erreten edo kanal bat.

A la izquierda: estructura en forma semicircular documentada en el sondeo 3 de la Torre de Zumeltzegi (perteneciente a la base de algún edificio o simplemente un encachado perimetral del edificio. A la derecha: estructuras documentadas en el sondeo nº 7 de la Torre de Zumeltzegi, con restos de muros, encachados y una atarjea.

blokeez egina zen kanpoko aldetik, barrura betegarri itxuragabeagoa kontserbatzen zuen. Gutxi gorabehera 2x2,10 metrokoa zen, lur eremuko buztin naturalaren gainean zuzenean bermatzen zen errenkada bakarra eta dorrearen zimentarriko zokaloa baizik ez zituen kontserbatzen. Egitura hau, itxura guztien arabera, erabat moztua izan zen eta gutxienera murriztua, eta beraz zaila da zer funtzio betetzen zuen azaltzea (dorrera edo atxikiriko beste eraikin batera igotzeko kanpoko balizko eskailera baten oina izan liteke, eraikinaren babesa hobetzeko xedean hari atxikiriko dorretxo edo garitatzar antzeko baten oina izan liteke edo, besterik gabe, lauzadura edo antzeko zerbait).

Zundaketa honetan, gainera, eraikin nagusiaren zimentarriak dokumentatu ahal izan genituen. Erdi eskuairatutako harrizko bloke handiek osatzen zituzten, harriok lehorrean jarriak edo, gehienez ere, buztinez batuak. Zapata hau ia ez da fatxadaren lerrotik nabarmentzen (12 cm iparraldean eta 16 cm hegoaldean), 45 cm garai da iparraldeko fatxadan eta 25-28 cm garai hegoaldekoan.

5. zundaketa eraikin nagusiaren barruan induskatu genuen, tradizioaren arabera aspaldi presondegiko gela gisa eta egun ukuilu gisa erabiltzen den barrunbearen hego-mendebaldeko izkinan. Zundaketa honetan (1x2,10 m) agerian geratu ziren dorrearen zimentarriak, horiexek izan ziren elementu aipagarrienak. Antzera eraikiak ziren, elkarren gainean egokitutako bi errenkada identifikatu genituen gutxienez, hormaren lerrotik gutxi gorabehera 30-35 cm nabarmentzen ziren eta gutxienez 1,10 metroko garaiera kontserbatzen zuten. Zimentarriak lur eremuaren aldapari egokitzeko beharrak eragiten zuen garaiera aldea.

7. zenbakiko zundaketa, 2,80x3 metrokoa, eraikinaren ipar-ekialdeko izkinan ireki genuen, eraikinaren kanpoko aldean. Zundaketa horren barruan eta hormari atxikirik hainbat eraikuntza egituren presentzia dokumentatu genuen. Iparraldeko muturrean, ekialdetik mendebaldera, erreten edo kanal bat erregistratu genuen; kanalaren ertzak neurri ertaineko harrizko

semilabrados calizos en su perímetro exterior, mientras que al interior presentaba un relleno más informe. Sus dimensiones aproximadas eran de 2x2,10 m, habiéndose conservado solamente una única hilada que se apoyaba directamente sobre la arcilla natural del terreno y el zócalo de cimentación de la torre. La estructura aparentemente había sido completamente desmochada y reducida a su mínima expresión resultando sumamente complicado determinar su posible función (la base de una posible escalera exterior de ascenso al edificio u otra construcción anexa, la base de una especie de torreta o garitón adosado para mejorar la defensa del edificio o simplemente una especie de enlosado o similar).

En este sondeo además se pudieron documentar también los cimientos del edificio principal compuesto por grandes bloques de piedra semiescuadrados y dispuestos en seco, o a lo sumo trabados con arcilla. Esta zapata apenas si sobresalía de la línea de fachada (12 cm por el lado N y 16 por el O), con una altura de 45 cm en la fachada N y 25-28 en la O.

El sondeo nº 5 fue realizado en el interior del edificio principal, en la esquina SO de una estancia antiguamente empleada, según la tradición, como celda carcelaria y en la actualidad como cuadra. En ese sondeo (1x2,10 m) se puso al descubierto, como elemento más destacado, los cimientos de la torre. Estaban ejecutados de una manera muy similar, habiéndose documentado al menos dos hiladas superpuestas que sobresalían unos 30-35 cm respecto a la línea de la pared y presentaban una altura de al menos 1,10. Esta diferencia estaba motivada por la necesidad de adoptar los cimientos a la propia pendiente natural del terreno.

El sondeo nº 7 fue realizado en la esquina NE del edificio por su parte exterior con unas dimensiones de 2,80x3 m. En el interior de ese sondeo y adosado al muro se pudo determinar la presencia de distintas estructuras constructivas. En el extremo más septentrional y con una dirección E-O se registró la presencia de un canal o atarjea ejecutado con bloques de piedra de un

blokeekin eginak dira eta harri xabalez egindako estalkia zuen. Erdialdean, eraikinaren mendebaldeko hormaren lerroan eta haren luzapena balitz bezala, iparralderantz egiten zuen horma baten abiapuntua dokumentatu genuen. Horma hau suntsituta zegoen nola altueran (gerora haren gainean gaitutako eraikinak suntsitua) hala luzeran (segur asko arestian adierazitako kanalaren eraikuntzak moztua). Alde bietara zolarri bana identifikatzen zen, itxura guztien arabera dorrearen kanpoko perimetro osoan zehar luzatuko zirenak berak. Ekialderago dagoena beste izkinan erregistratutakoaren oso antzekoa da, baina neurri handiagoko blokeez egina da, bestea neurri txikiagoko blokeez egina den eta erregularragoa den bitartean.

8. zenbakikoa izan zen datu interesgarriren bat eskaini zuen azkeneko zundaketa, 2012ko urtean egindako azkenekoa. Hego-ekialdeko izkinan ireki genuen, dorretxera sartzeko ataritxo zaharrari leku egiten zion gunearen azpian. Zundaketaren neurriak, 1x2 metrokoak. Gainazaletik kontatzen hasita 10 cm-ko sakonera mailan dorrearen zimentarriak edo zapata geratu ziren agerian. Beste zundaketetan bezala, erdi eskuairatutako bloke handiez osaturiko hormak, blokeak buztinez batuak, eratzen zuen. Zapata hau gutxi gorabehera 25 cm nabarmentzen zen fatxadaren lerrotik, baina 10 cm garai baizik ez zen. Hari atxikirik erabat suntsitutako horma bat, ekialdetik mendebaldera luzatzen zena, dokumentatu genuen. Gure ustez urte batzuk lehenago eraitsitako egituren hondakinak dira, dorreari atxikiriko egituren hondakinak.

Laburbilduta, esan dezagun burura eramandako lanek ez dutela eraikin berezi honen jatorriarekin harremanetan jartzeko moduko eraikuntza nahiz bizitoki elementurik dokumentatzeko aukerarik eman, ez eta eraikinaren eraikuntza aldiak zehazteko modukorik ere.

tamaño medio en los bordes y lajas cubriéndolo. En la parte central y alineado perfectamente con el lienzo de la pared oeste de la casa y como prolongación de la misma se pudo documentar el arranque de un muro en dirección norte. Este muro se encontraba completamente arrasado tanto en altura (arrasado por la construcción posteriormente habilitado sobre el mismo) como en su desarrollo longitudinal (cortado seguramente por la ejecución del anteriormente descrito canal). A ambos lados se disponían sendos encachados o soleras que recorrerían presumiblemente todo el perímetro exterior de la torre. El situado más hacia el E presentaba una traza muy similar al registrado en la otra esquina con grandes bloques de mayor tamaño, mientras que el otro era de una traza más regular y bloques de menor tamaño.

El último sondeo que ofreció algún dato de interés y el último en realizarse en este presente año 2012, será el sondeo nº 8. Está será ubicado en la esquina SE bajo el emplazamiento del antiguo patín de acceso. Presentaba unas dimensiones de 1x2 metros. En el mismo se pudo documentar a apenas 10 cm de la superficie nuevamente los cimientos o zapata de la torre. Como en los casos anteriores estaba conformado por un muro mediante grandes bloques semiescuadrados y trabados con arcilla. Esta zapata sobresalía de la línea de fachada unos 25 cm., presentando una potencia de escasamente 10. Adosado al mismo se pudo documentar la presencia de un muro completamente arrasado dispuesto en una dirección E-O, y que fue interpretado como parte de las estructuras constructivas adosadas a la torre derribadas años atrás.

En líneas generales los trabajos desarrollados no han permitido documentar elementos constructivos ni de habitación que nos puedan poner en relación con los orígenes de este singular edificio ni sus distintas fases constructivas.

A. Moraza Barea; J. Buces Cabello; M. Garcia Dalmau

C.24. ORMAIZTEGI

C.24.1. Meatze instalazioak

Zuzendaritza: Beatriz Herreras Moratinos; Josune Zaldua Goena
Finantziazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia

C.24.1. Instalaciones mineras

Dirección: Beatriz Herreras Moratinos; Josune Zaldua Goena
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa

The recovery of historical mining structures in Ormaiztegi was preceded by an analysis and the work itself was subject to archaeological monitoring. This enabled us to register the storage and dispatch structures built by the mining companies in Zerain and Mutiloa at the beginning of the 20th century, as well as, in short, to learn more about the presence and activity of the mining industry in the region.

Ormaiztegin, Norteko Trenbidetik gertu egonik leku estrategikoan dagoenez, meategietako jardueraekin lotutako egitura interesgarriak eraiki zituzten XIX. mende bukaeraren eta XX. mendeko lehenengo here-

En Ormaiztegi, dada su situación estratégica junto al Ferrocarril del Norte, entre finales del siglo XIX y el primer tercio del siglo XX se levantaron interesantes estructuras relacionadas con la actividad minera: el último

naren artean: Mutiloako Barnaolatik abiatzen zen meatze burdinbidearen azken kilometroa eta Zeraingo eta Mutiloako mea aberastasuna ustiatu zuten meatze konpainien biltegiak eta mea igortzeko azpiegiturak. Aipatu egiturak berreskuratzeko eta sendotzeko lanak 2005. urtean abiarazi ziren, ondarea metodologia arkeologikoaren bidez aztertu da, eta hori funtsezkoa gertatu da Goierriko meategietako jardueraren ikuspegi orokorra edukitzeko.

Lointzi errekastoak Artxintxurretakopunta, Balkoia eta Mugeta mendien mazeletan marrazten duen ibarbidea izan genuen jarduteko eremua. Ibar mehar honetan, meatze burdinbidearen eta Norteko trenbidearen artean, daude mea biltegiratzeko, tratatzeko eta igortzeko azpiegiturak: 12 hektarea 300 metroko garaieran dagoen Danborre terrazaren eta 209 metroko garaieran dagoen ibarraren hondoko Lointzi errekastoaren alboko terrazaren arteko espazioa aprobetxatuz.

Danborre terraza

Mutiloatik Ormaiztegira iristen den meatze burdinbidearen azken ataleko instalazioak eta Mutiloako eta Zeraingo barrutiko meategiak ustiatu zituzten konpainien mea biltegiak eta mea igortzeko azpiegiturak daude bertan. Erabilerarako espazioa ondo bereizita eduki zuten meatze konpainiek, eta horrexegatik identifikatu eta erregistratu ahal izan ditugu horiek kontrol arkeologikoak egitean.

Mutiloa-Ormaiztegi meatze burdinbidearen azken atalaren jarraipena osatzen dute Mutiloako meatze Konpainiaren instalazioek. Bertan egongo ziren burdinbideren azken ataleko laugunea, Danborretik mazelan behera eta aldapa handian marrazten den plano makurtuaren burua eta lubakia. 122 metroko tartea hartzen du, 296 m-ko kotatik abiatzen da. 250 m-ko kotan bat egiten du hura ebakitzen duen baso bidearekin. Azken partean, baso bidetik gertu, lubaki nabarmen batean ahokatzen da plano makurtua. Plano makurtuaren danborraren presentziari egiten dio aipamen Danborre leku-izenak. Arizmendi baserrira daraman baso bidearen eraikuntzak desagerrarazi zuen hura, baina lan arkeologikoek haren zimentarria utzi zuten agerian: bi horma sendo dira, 5,50 m eta 6,60 m bitarte luze eta 1,70 m zabal. Partzialki landutako harriz eginak ziren, harriak kareorez batuak, baina errenkada bat baizik ez zuen kontserbatzen haietako bakoitzak.

Mutiloako konpainiaren instalazioen hegoaldean dago Aizpeako meategi barrutia ustiatzen zuten konpainiek okupatutako eremua. Meatze burdindegiaren azken ataleko laugunea nabarmen nahasi zuten landa bideak eraikitzeko lanek. Alde honetan egindako zundaketek ez zuten emaitza positiborik eskaini. Beheraxeago terraza bat dago, eta bertan mea biltegiratzeko eremua aurkitu genuen: kargategia edo mea zamatzeko nasa eta mea biltegia. Egitura hauetan biltegiratuko zuten mea gero Lointzi errekastoaren ibarbideko beste aldera eramateko airetiko kable baten bidez. Kable honen abiapuntua aztertu ahal izan genuen egitura sendotzeko lanetan zehar.

Danborre terrazaren hegoaldean dago kargategia edo mea zamatzeko nasa. Ondo eta xehe-xehe garbi-

kilómetro del ferrocarril minero que partía de Barnaola en Mutiloa y los elementos de almacenaje y expedición de las compañías mineras que explotaron la riqueza minera de Zerain y Mutiloa. Los trabajos de recuperación y consolidación de las citadas estructuras, iniciados en 2005, han contado con el análisis patrimonial en el que la metodología arqueológica ha estado presente, lo que ha resultado imprescindible para obtener una visión global de la actividad minera en el Goierri.

El área de actuación se sitúa en la vaguada que el arroyo Lointzi dibuja en las faldas de los montes Antxintxuretakopunta, Balkoia y Mugeta. En este angosto valle, entre el ferrocarril minero y la línea del ferrocarril del Norte, se hallan las estructuras de almacenaje, tratamiento y expedición: 12 hectáreas ubicadas aprovechando el desnivel del terreno entre la terraza Danborre a 300 m de altura y la terraza de Lointzi, en el fondo del valle a 209 m.

La terraza de Danborre

Acoge las instalaciones del remate del ferrocarril minero Mutiloa-Ormaiztegi y las primeras estructuras de expedición y almacenaje de las compañías mineras de Mutiloa y de aquellas que explotaron el coto de Zerain. El uso del espacio estuvo talmente diferenciado por parte de las empresas mineras lo que ha podido ser identificado y registrado tras los controles arqueológicos.

Las instalaciones de la Compañía minera de Mutiloa constituyen la continuación natural del remate del ferrocarril minero de Mutiloa-Ormaiztegi. Efectivamente acogería la explanación del final del ferrocarril, la cabeza y trinchera del plano inclinado que desde Danborre se describe ladera abajo con una potente pendiente. Cubre una distancia de 122 m, partiendo de una cota de 296 m. En la confluencia con la pista que lo corta alcanza la cota de 250 m. En el tramo final, en las cercanías de la pista, el plano inclinado se encaja en una marcada trinchera. Su anchura oscila entre los 5 m de la zona superior y los 2 m en la zona de confluencia con la pista. El topónimo Danborre alude a la existencia en el lugar del tambor del plano inclinado. La construcción de la pista al caserío Arizmendi hizo que desapareciera, sin embargo los trabajos arqueológicos descubrieron su cimentación: dos potentes muros de una longitud que va de los 5,50 m a los 6,60 m y una anchura que alcanza 1,70 m. Estaban ejecutados en sillarejo con argamasa pero apenas se conserva una hilera en cada uno de ellos.

El área ocupada por las compañías explotadoras del coto minero de Aizpea se halla al sur de las instalaciones de la compañía de Mutiloa. La explanación del remate del ferrocarril minero presenta una significativa alteración por la construcción de caminos rurales. Las catas realizadas no han podido dar resultados positivos. En la cota inmediatamente inferior, se dibuja una terraza donde se han podido localizar el área de almacenamiento: un cargadero o puerto de mina y un almacén de mineral. En estas estructuras se almacenaría el mineral para posteriormente ser trasladado al otro lado de la vaguada de Lointzi, a través de un cable aéreo cuyo arranque también ha podido ser analizado durante los trabajos de consolidación.

El cargadero o puerto de mina está ubicado al sur de la terraza de Danborre. Tras una limpieza exhaustiva

Ezkerretara: *The Cerain Iron Ore Company Limited* konpainiak XX. mende hasieran Danborre terrazan eraikitako mea zamatzeko nasaren oinaren ikuspegi orokorra. Eskuinetara: Compañía Minera de Mutiloa S.A. konpainiak XX. mende hasieran Lointzi aldean eraikitako kargategia.

A la izquierda: vista general de la base del puerto de mina que la compañía *The Cerain Iron Ore Company Limited* construyó en la terraza de Danborre a principios del siglo XX. A la derecha: cargadero de la Compañía Minera de Mutiloa S.A., construido a principios del siglo XX en Lointzi.

tu ostean lur eremuan induskatutako espazio formaz ahur bat geratu zen agerian, gutxi gorabehera 25 x 20 m-ko azalera hartzen zuena 12 metroko kota aldea erakusten zuen ezpondan. Haren oinean paraleloan egokitutako bost horma altxatzen dira iparraldetik hegoaldera. Harlanduz eta partzialki landutako harriz eginak dira, harriak kareorez batuak, eta atal batzuk kareberrituak. Alboetako bi hormek, behera etorritako harriz eta meaz estaliek, ezpondei eusteko hormenak betetzen dituzte. Ezpondaren hondoraino guztiz erregistratzerik izan ez bagenuen ere, horma hauek 12,20 m eta 15 m bitarte luze direla esan behar dugu. Metro bete eta 1,05 m bitartekoa da hormen arteko tartea. Metro bete zabal dira eta 1,80 metro garai. Horma hauen barruko aurpegietan metalezko kakoak ageri dira, 7 kako batzuetan eta 5 besteetan. Zoruaren mailatik kontatzen hasita 1,40 – 1,50 metroko garaieran daude, binaka ageri dira, bata bestearen parean. Kako hauetan zurezko elementuen hondakinak erregistratu genituen, kontserbazio egoera oso kaskarrean; guk uste dugu itxitura egituraren parte direla. Indusketa lanetan zehar, hormen barruko espazioan, bagonetak ibiltzen ziren erreiak identifikatu genituen. Bagoneta hauetan pilatzen zuten goiko kotatik etorritako mea, eta grabitatearen poderioz mazelan behera jaisten ziren. Hormen arteko espazioaren erdialdean kokatuta, 46 cm-ko burdinbide zabalerarekin, erreiak 3 cm zabal dira eta, kontserbatutako atalean bederen, 2,20 m luze. Kiskalitako burdin meak erdi lurperatuta zegoen egitura hau.

Kargategiaren iparraldean dago biltegia, 285 m-ko kotan. Zulo bat da, iraulitako kono-enbor erdiko formarekin, lur eremuan induskatua, kargategia deskribatzeko garaian azaldutakoaren antzeko ezaugarriak dituena. Gutxi gorabehera 20 x 20 metroko espazioa hartzen du, eta 10-11 metroko kota aldea du. Iparraldean nabarmenagoa den ezponda marrazten du. 14 metro sakon eta 12 metro zabal da biltegia. Induskatutako espazio ahurraren ezpondan zuzenean azaleratzen da harkaitza. Alde honetan ez genuen mea bideratzeko egiturarik aurkitu, ez harrizkorik, ez zurezkorik,

y minuciosa, se ha descubierto un espacio cóncavo excavado en el terreno que abarca un área aproximada de 25 m x 20 m y una diferencia de cota de 12 m en talud, en cuya base se levantan cinco muros paralelos dispuestos de norte a sur. Son de fábrica de sillería y sillarejo, y muestran argamasa como aglutinante y revoque en algunos tramos. Los dos muros laterales, cubiertos por derrumbes y mineral funcionan como muros de contención de los taludes. La longitud de estos muros, y teniendo en cuenta que el fondo de contacto con el talud no se ha podido registrar totalmente llega desde los 12,20 m a los 15 m. El espacio entre los muros es de 1 m - 1,05 m. La anchura de los mismos es de 1 m y su altura alcanza 1,80 m. En las caras interiores de estos muros aparecen enganches metálicos, en número de 7 a 5 según el muro. Ubicados a una altura de 1,40 m – 1,50 m desde el suelo están situados en parejas, uno frente al otro. En ellos se han encontrado restos de elementos de madera en muy mal estado por lo que interpretamos que éstos formaban parte de una estructura de cerramiento. Durante los trabajos de excavación, en el espacio interior de los muros se encontraron raíles por donde circulaban las vagonetas, que se introducían para cargar el mineral procedente de la cota superior y que por gravedad se deslizaba ladera abajo. Situados en el centro del espacio entre muros, con un ancho de vía de 46 cm, los raíles tienen una anchura de 3 cm y la longitud del tramo conservado alcanza los 2,20 m. Esta estructura estaba semienterrada por mineral de hierro calcinado.

El almacén se ubica al norte del cargadero a una cota de 285 m. Se trata de una oquedad, a modo de un medio tronco de cono invertido excavado en el terreno de similares características a las que se han señalado en la descripción del cargadero. Ocupa un espacio aproximado de 20 m x 20 m y una diferencia de cota de 10-11 m. Describe un talud que es más pronunciado en la parte norte. Este almacén presenta una base con una profundidad de 14 m y una anchura de 12 m. En el talud del espacio cóncavo excavado la roca aflora directamente. No se ha encontrado tampoco en este lugar ver-

ez metalezkorik. Oina guztiz laua da, eta bertan kiskalitako eta kiskali gabeko mea hondakinak erregistratu genituen; material honek, denboraren joanean, oin trinkoa osatu du. Hasieran landaretza trinkoak hartzen zuen alde hau guztia. Kata batzuk egin behar izan genituen egin beharrekoak zehaztu ahal izateko, baina soilik landare geruza altxatzeko erabakia hartu genuen. Espazio hau ixteko-edo, partzialki landutako harriz eta kareore ugariz egindako horma bat altxatzen da ekialdean. 15 m luze da, 25 eta 40 cm bitarte garai eta 75 cm eta metro bete bitarte zabal. Metalezko kakoak bereizten ere dira horma honetan.

Biltegiaren ekialdean egitura multzo bat bereizten zen. Terraza hau eta ibarbidearen beste aldean eraikitako mea deskargatzeko egiturak lotzen zituen airetiko kablearen abiapuntuari zegozkion elementuak ziren. Lan arkeologikoek aukera eman ziguten lur eremuaren mailan txertatutako metalezko kakoekiko zimentarria erregistratzeko. Zimentarrian partzialki landutako harriz eta kareorez osatutako hiru errenkada bereizten dira. Errenkada bakoitzak egitura sendoago bat du erdialdean, oinplano angeluzuzenekoa, eta bakoitzaren alboetan oinplano koadroko beste egitura txikiago batzuk bereizten dira. Guztiek dituzte metalezko kakoak. Biltegiaren ekialdeko zimentarri hauetaz gainera, mazelan behera, airetiko kablearen egitura bereizten da, paraleloan egokitutako sei horma sendoren oinarriek eratua; aldapa gaindituta horma hauek osatzen zuten ekialderanzko airetiko kablearen abiapuntua. Horma horietatik lauk metalezko kakoak zituzten gailurrean. Harlanduz eta partzialki landutako harriz egindako hormak dira, harriak kareore ugarirekin batuak. Hormen artean 3 metroko tartea gordetzen da, erdiko enbor-piramide formako zutarriaren kasuan izan ezik.

Lointziko terraza

Lointzi errekastoaren ibarbidearen hondoan dago terraza hau, 234 m-ko garaieran. Zuzenean ukitzen du Norteko Trenbidearen lerroa. Haren ezkerraldean zeuden Mutiloa S.A. Meatze Konpainiak bere mea Europako fabriketara esportatzeko xedean eraikitako biltegi, labe eta garraio egiturak.

Mea edukitzeko biltegitik 82 m luze eta 1,20 m garai den horma bat baizik ez da kontserbatzen. Landu gabeko harriz eta harlanduz egina da, gailurrean 80 cm zabal da, eta 7-10 m sakon izango zen biltegiaren espazioa ixten du. Horma honen ekialdera eta haren oinetan 90 m luze eta gehienez ere 5 m zabal den laugunea dago, alde hau eta Norteko trenbidearen eremua lotzen zituen bidea zen. Biltegi honen iparraldean labe baten hondakinak aurkitu genituen. Labearen oina eratuko zuten bi edo hiru errenkada baizik ez genuen hartatik identifikatu, errenkadak material erregogorrez osatuak. Era berean, labea kargatzeko goiko sarrera abiapuntua, partzialki landutako harriz eta harri landu gabeez egina, identifikatu genuen. Kontsultatutako dokumentazioari esker badakigu oinplano zirkularrekoa zela labe hau. Mazela honetan bertan, iparralderago baina, garbitze eta induskatze lanak egin eta gero, kargategi bat identifikatu genuen, beheko aldetik elikatzeko bi sarrerarekin, hauek ere lur eremuan induskatuak

tedera alguna, ya sea de obra de fábrica, madera, metal, etc. La base es totalmente plana y se han localizado restos de mineral tanto calcinado como no calcinado, material que ha formado, tras el paso del tiempo un solado compactado. En origen, toda esta zona apareció colmatada con abundante vegetación. Se tuvieron que hacer diversas catas para poder establecer las actuaciones a seguir, y se decidió tan solo eliminar la capa vegetal. A modo de cierre de este espacio, al este, se levanta un muro de fábrica de sillarejo y abundante argamasa que tiene 15 m de largo, una altura que oscila entre los 25 cm y los 40 cm y una anchura entre los 75 cm y el metro. Enganches metálicos aparecen sobre el mismo.

Al este del almacén se observa el conjunto de estructuras de fábrica que correspondían al inicio del cable aéreo que comunicaba esta terraza con las estructuras de descarga que se levantaron al otro lado de la vaguada. Los trabajos arqueológicos nos han permitido registrar la cimentación con los enganches metálicos embutidos en ellos a nivel de terreno. En la cimentación se observan tres hileras de sillarejo y argamasa. Cada una de estas tres hileras cuenta con una estructura central, de planta rectangular, más reforzada y a cada lado de ellas, otras de menores dimensiones de planta cuadrangular. Todas ellas con enganches metálicos. Además de las cimentaciones justo al este del almacén, ladera abajo, se describe la estructura del cable aéreo formada por las bases de seis potentes muros paralelos que salvando la pendiente completaban el inicio del cable aéreo hacia el este. Cuatro de estos muros presentan enganches metálicos en su cumbrera. Son muros de fábrica de sillería y sillarejo con abundante argamasa de revoque dispuesto de manera burda situados a una distancia de 3 m entre ellos, salvo en el caso del pilar troncopiramidal central.

La terraza de Lointzi

Esta terraza se extiende en el fondo de la vaguada del arroyo Lointzi a 234 m, conectada directamente con la línea del Ferrocarril del Norte. En su margen izquierda acogía las estructuras de almacenaje, calcinación y transporte que la Compañía Minera de Mutiloa S.A. edificó para lograr exportar su mineral rumbo a las siderurgias europeas.

Del almacén de mineral se conserva tan solo un muro de 82 m de longitud y una altura de hasta 1,20 m de fábrica de sillarejo y sillares con argamasa con una anchura en la cumbrera de 80 cm que cierra el que sería un espacio de almacenamiento de 7-10 m de profundidad. De este muro hacia el este y a sus pies se describe una explanación de unos 90 m de largo y una anchura máxima de 5 m que correspondería a la vía que comunicaba esta área con el ferrocarril del Norte. Al norte de este almacén se descubrieron los restos de un horno de calcinación, del que solamente se han identificado de dos a tres hileras de material refractario que corresponderían a su base, así como el arranque de la pasarela superior de carga del horno en fábrica de mampuesto y sillarejo. Sabemos, por la documentación consultada, que este horno era de planta circular. En esta misma ladera, más hacia el norte, tras los trabajos de limpieza y excavación se ha identificado un cargadero de dos vías de carga inferiores excavadas también en el terreno y re-

eta harri xabalez sendotuak. Karga-bide hauek iraulitako kono-enbor formakoak dira. Kargategiak artean kontserbatu egiten du itxitura, 2,30 metro garaierako horma; bi aho burudun irekitzen dira bertan.

Lointzi errekastoaren ibarbidearen iparraldeko mazelan daude The Cerain Company Limited konpainiak XIX. mende bukaeran eta Compañía Minera Aralar S.A. elkarteak XX. mendearen 30. urteetan eraikitako mea biltegiratzeko eta igortzeko instalazioak. Instalazio biek elkar ezkutatzen dute, eta egun 1939. urtean hormigoi edo betoi armatuz eraikiriko mea biltegiratzeko egitura harrigarriak daude ikusgai. Biltegiaren ondoan antolatu zuten depositu hau Norteko trenbidearekin lotzen zuen meatze burdinbiderako laugunea. Oso litekeena da alde honetan egotea XIX. mendean eraiki eta Danborre aldetik iristen zen airetiko kablearen muturraren hondakinak eta konpainia alemanak 1939. urtean Aizpeako meategi barrutitik abiarazita instalatutako airetiko kablearenak. Luze gabe burutuko diren azterlanetan aztertuko dugu alde hau.

forzadas con lajas, con forma de tronco de cono invertido. El cargadero conserva todavía el cerramiento, un muro que alcanza 2, 30 m de altura en el que se abren dos bocas adinteladas.

En la ladera norte de la vaguada de Lointzi se alzan las instalaciones de almacenamiento y expedición que fueron construidas por The Cerain Company Limited a finales del s. XIX, y en los años 30 del s. XX, por la Compañía Minera Aralar S.A. Ambas instalaciones se han solapado y en la actualidad son visibles las impresionantes estructuras del depósito de mineral, construido en hormigón armado en 1939. Junto al almacén se construyó la explanación del ferrocarril minero que comunicaba el depósito con el ferrocarril del Norte. Es probable también que en la zona se encuentren restos del remate del cable aéreo construido a finales del siglo XIX procedente de Danborre y de la línea del cable aéreo instalado por la compañía alemana en 1939 desde el Coto minero de Aizpea. Esta zona se analizará en próximos estudios.

B. Herreras Moratinos; J. Zaldua Goena

C.25. ORIO

C.25.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

C.25.1.1. **San Nikolas parrokia-eliza. Ingurua. III. aldia**

Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea
Finantziazioa: Orioko Udala

C.25.1.1. **Iglesia parroquial de San Nicolás. Entorno. Fase III**

Dirección: Alfredo Moraza Barea
Financiación: Ayuntamiento de Orio

The archaeological intervention carried out near San Nicolás Church enabled us to document a possible ossuary which appears to date from the second half of the 17th century.

Bariko San Nikolas parrokia-elizaren inguruan burututako esku-hartze arkeologikoak esparru berezi hau hobetzeko xedean alde honetan abiarazitako urbanizazio lanetan izan zuen jatorria. Horren harira 2006. eta 2008. urteetan bi alditan garatutako obren gaineko jarraipen arkeologikoak egin genituen (Ikus *Arkeoikuska*).

Hirugarren eta azken aldi honetan abiarazitako lan arkeologikoak estu lotuta daude elizaren mendebaldeko arkuteriaren oinetan azaldutako giza hondakin sortarekin. Alde honetan zeuden eraikin txiki batzuk eta aipatu elizaren zimentarriei atxikiriko 1,80 metro zabaleko erlaitz txiki bat eraitsi ostean ari ziren alde hau guztia berriro ere urbanizatzen.

Aipatu erlaitza eraisteko prozesuan 75 cm lodierako depositu bat dokumentatu genuen gainazaleko zementuzko zolarriaren azpian. Lur harroaz eta oso hareatsuaz osatua zen, tartean harrizko bloke itxuragabeak eta giza hezur kopuru handia, hezurrok tes-

La intervención arqueológica desarrollada en el entorno de la iglesia parroquial de San Nicolás de Bari tiene su origen en las obras de reurbanización emprendidas en la zona con objeto de mejorar ese singular ámbito. Con ese motivo se han llevado a cabo un seguimiento arqueológico de las obras en sus dos fases precedentes desarrolladas durante los años 2006 y 2008 (Vide *Arkeoikuska*).

Las labores arqueológicas emprendidas en esta tercera y última fase están relacionadas con la aparición de una serie de restos humanos justo al pie de la arcada occidental de la iglesia. La zona estaba siendo reurbanizada tras el derribo de varias edificaciones menores habilitadas en la zona, así como de una pequeña repisa de 1,90 metros de anchura adosada a los cimientos de la referida iglesia.

El proceso de derribo de esa repisa permitió documentar bajo la solera superficial de cemento un depósito de unos 75 cm de potencia compuesto de una tierra muy suelta y sumamente arenosa entremezclada con diversos bloques informes de piedra y un gran

tuinguruetatik kanpora eta inolako lotura anatomikorik gabe. Betegarri honek zuzenean hartzen zuen atseden lur eremuko buztin naturalaren gainean.

Depositu hau elizaren zimentarriari atxiki zioten, eta bloke eta harri koskor irregularrez osatutako hormak mugatuta zegoen; harriok erresistentzia handiko kareharrizko oreaz batuta zeuden. Horma hau gutxi gorabehera 80 cm zabal zen, eta aipatu betegarriaren antzeko garaiera zuen. Partzialki kontserbatzen zen (60 cm-ko luzera baizik ez zuen erakusten), espazio hau mugatzen zuen bigarren hormaren eraikuntzarekin lotutako lanek suntsitu baitzuten geroago. Bigarren horma hau trauskila zen oso, blokeak irregularrak eta harriak harea asko zuen kareorez batuak. 42 cm zabal baizik ez zen.

Betegarri horretan, hezurrez gainera, testuingurutik erabat kanpora zegoen material arkeologiko higikorra berreskuratu genuen. Horien artean aipagarri 13 txanpon, irakurri ezina bat eta XV. eta XVII. mende bitartekoak besteak: Gaztelako eta Aragoiko Koroaren zuri bat (XV. m); Portugalgo Erresumako hiru zeitil (XV. m); Nafarroako Erresumako bi kornadu (XVI. m); Biarnoko Bizkonderriko hiru baketa; eta Gaztelako Koroaren hiru marabedi.

Labur-labur esanda, San Nikolas parrokia-elizaren oinean dagoen espazio txikian burututako esku-hartzeak aukera eman digu tenplu honetako aspaldiko hezurtegi izango zenarekin identifikatu genitzakeen hondakinak dokumentatzeko. Landu gabeko harriz osatutako horma batek mugatzen zuen espazioa. Gerora partzialki eraitsi eta berreraiki zuten horma hori alde honetan burutuko zituzten obra batzuen harira. Azaldutako hezurtegiaren kronologiari dagokionez, betegarritik jasotako txanpon modernoenek eskaintzen dizkigute data gertukoenak, 1650. urteak, baina txanponak argitara eman ostean osatu zitekeen aipatu hezurtegia, une honetan ezagutzen ez dugun unean.

número de huesos humanos totalmente descontextualizados y carentes de cualquier tipo de conexión anatómica entre si. Relleno éste que se disponía directamente sobre la arcilla natural del terreno.

Este depósito fue adosado a los cimientos de la iglesia y estaba delimitado por un muro de mampostería ejecutado con bloques irregulares y cantos ligados con una argamasa calcárea sumamente resistente. Este muro presentaba una anchura de unos 80 cm y una altura similar al relleno referido. Este muro estaba conservado de una manera parcial (sólo con un desarrollo longitudinal de 60 cm), al haber sido posteriormente arrasado por las obras relacionadas con la construcción de un segundo muro que delimitada ese espacio. Este segundo muro presentaba una factura muy deficiente con bloques irregulares de piedra ligados con una argamasa con un alto contenido arenoso, y con una anchura de escasamente 42 cm.

En ese relleno, aparte de los huesos, se pudo recoger diverso material arqueológico mueble aunque totalmente descontextualizado. Entre el mismo destacan 13 monedas, de las cuales una era ilegible y las otras su acuñación oscilaba entre los siglos XV y XVII: una blanca de la Corona de Castilla y Aragón (s. XV); tres ceitiles del Reino de Portugal (s. XV); dos cornados del Reino de Navarra (s. XVI); tres baquetas del Vizcondado de Bearne; y tres maravedíes de la Corona castellana.

En resumen, la intervención realizada en el reducido espacio situado al pie de la iglesia parroquial de San Nicolás ha permitido documentar los restos de lo que podemos identificar muy seguramente con un antiguo osario de ese mismo templo, ejecutado en un espacio periférico del mismo. Ese espacio estaba perfectamente delimitado por un muro de mampostería, posteriormente parcialmente derribado y reconstruido quizás con motivo de algunas de las obras operadas en la zona. Respecto a la posible cronología de este osario las fechas más aproximadas nos la proporcionan las monedas más modernas recogidas en el relleno y que nos sitúan en la década de 1650, pudiéndose haber ejecutado en un momento posterior a las mismas, momento que actualmente desconocemos.

A. Moraza Barea

C.25.1.2. **Nagusia, 9**

Zuzendaritza: Ander Arrese
Finantziazioa: Dugatrin, S.L.

C.25.1.2. **Nagusia, 9**

Dirección: Ander Arrese
Financiación: Dugatrin, S.L.

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Orubearen azaleraren parte handi bat hartu zuen esku-hartze arkeologikoak. Agortu egin genituen bertan beste ikerketa bat abiarazteko aukerak oro, emaitzak negatiboak izan baitziren historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik.

Intervención desarrollada en buena parte de la extensión del solar, agotando la posibilidad de una nueva investigación siendo los resultados de escaso o nulo interés histórico-arqueológico.

A. Arrese

C.25.1.3. **Nagusia, 29 eta alboetako orubeak**

Zuzendaritza: Mertxe Urteaga
Finantziazioa: Lurra Promociones y Gestión. S.L.

C.25.1.3. **Nagusia, 29 y solares anexos**

Dirección: Mertxe Urteaga
Financiación: Lurra Promociones y Gestión. S.L.

The most important finding during this archaeological intervention was the location of a casting pit for manufacturing two bells at the rear of the plot on which the town's old pilgrims' hospital was located. No remains of the hospital itself were found. Throughout the result of the plot, the archaeological stratigraphy registered was very simple and of little archaeological value.

Kale Nagusiaren 29. zenbakian burutu beharreko proiektu arkitektonikoak hirigintza jarduera bat aurreikusten zuen orube honetan eta alboetako espazioetan. 2.350 m^2 hartuko zituen jarduera eremuak. Bertan aurreikusitako esku-hartze arkeologikoa hainbat alditan garatuko genuen eraikitzeko obren araberako erritmoari egokitzeko xedean.

Kontrol arkeologikoa

Hasteko, baratzeei emandako orubearen gibelaldeko indusketa lanen gaineko kontrol lanak eraman genituen burura. Lan hauek aukera eman ziguten ia orube osoan zehar estratigrafia oso xumea zela ikusteko. Gainazaleko geruza organikoa buztinezko maila baten gainean egokitzen da, eta buztineko geruza honetan eraikuntza material gutxi batzuk baizik ez genituen berreskuratu. Geruza honen azpian harkaitz naturala azal-tzen zen.

Finkaren hego-mendebaldeko muturrean partzialki erregistratu genuen zulo handi bat, buztinezko maila batek betea. Bertan brontzezko zepak, ikatz kopuru handia eta material erregogorraren hondakinak berreskuratu genituen. Aztarna hauek finkako itxitura hormaren azpian galtzen ziren, baina arrazoi teknikoak eta segurtasun izaerako arrazoiak tarteko, beste aldi baterako utzi genuen egitura hori induskatzeko lana.

Ebaluazioa egiteko zundaketa arkeologikoak aparkalekuan

Proiektu arkeologikoan aurreikusi bezala, bigarren aldian zundaketa arkeologiko batzuk egin genituen 29. zenbakiko orubearen ondoko orubean. Aparkaleku publikoaren erabilera zuen lanei ekin baino lehen.

Bitarteko mekanikoak baliatuta ebaluazioa egiteko hiru zundaketa arkeologiko induskatu genituen. Zundaketak kokatzeko garaian kontuan izan genituen orubearen neurriak, eraikuntza izaerako aurrekariak eta baratze aldean aurkitutako aztarnak.

1. zundaketaren estratigrafia

Orubearen iparraldean ireki genuen lehenengo zundaketa, alde honetako perimetroko hormatik gertu, iparraldetik hegoaldera. Zundaketa leku honetan irekitzeko orduan gibelaldeko baratzeetan aurkitutako aztarnek jarraipena ote zuten, ospitaleko eraikin zaharreko itxitura hormaren hondakinak erabat eraitsi ote zituzten ala ez, eta harekin loturiko testuinguru arkeo-

El proyecto arquitectónico del nº 29 de Kale Nagusia contemplaba una actuación urbanística en el solar y en sus espacios anexos, constituyendo un área de actuación de 2.350 m^2. La intervención arqueológica prevista para el mismo ámbito se estableció en varias fases adaptadas al ritmo de las obras de edificación.

Control arqueológico

Como primera actuación arqueológica se llevo a cabo el control de la excavación del solar trasero destinado a huertas. Estos trabajos permitieron comprobar que prácticamente en todo el solar la estratigrafía era muy sencilla registrándose un nivel superficial orgánico que asentaba sobre un nivel de arcilla en el que tan sólo se recuperó de forma residual material de construcción y, bajo éste, el afloramiento rocoso natural.

Como elemento destacable citar el registro parcial, en el extremo SW de la finca, de un hoyo de grandes dimensiones que estaba colmatado por un nivel de arcillas en el que se recogía escorias de bronce, gran cantidad de carbones y restos de material refractario. Los vestigios se introducían bajo el muro de cierre de la finca quedando su excavación –por razones técnicas y de seguridad- pospuesta para una siguiente fase.

Sondeos arqueológicos de evaluación en el parking

Tal como se había establecido en el proyecto arqueológico, en una segunda fase se procedió a la ejecución de sondeos arqueológicos en el solar anexo al nº 29 y que hasta el momento de la actuación estaba destinado a parking público.

Los trabajos arqueológicos supusieron la ejecución de tres sondeos de evaluación, que se realizaron con medios mecánicos. A la hora de situar los sondeos se tuvieron en cuenta las dimensiones del solar, sus antecedentes constructivos y los vestigios localizados en la zona de huertas.

Estratigrafía sondeo 1

El primer sondeo se localizó en la zona norte del solar junto al muro perimetral de ese sector, con una orientación norte-sur. A la hora de su situación primó la necesidad de corroborar si las evidencias localizadas en las huertas traseras tenían continuidad y si los restos constructivos del muro de cierre del antiguo edificio del hospital, habían sido desmantelados total-

logikoak kontserbatzen ote ziren egiaztatzeko beharra lehenetsi genuen. Zundaketa honetako estratigrafiaren sekuentziak aukera eman zuen lursailaren iparraldeko sektorean dagoen hormaren paraleloan luzatzen zen horma bat dokumentatzeko. Era berean, eraitsitako eraikinaren gibelaldeko itxitura hormaren zimentarriaren presentzia egiaztatu genuen. Estratigrafiaren gainerakoa oso xumea zen, garrantzirik gabea.

2. zundaketaren estratigrafia

Orubearen ekialdeko perimetroan ireki genuen 2. zundaketa. Estratigrafiaren sekuentziak ez zuen informazio interesgarririk eskaini arkeologiaren ikuspuntutik.

3. zundaketaren estratigrafia

Azkeneko zundaketa honetako estratigrafiaren sekuentziak ez zuen ustekabekorik eskaini. Besterik gabe eta lur eremuren orografiak hartaratuta, maila geologikoaren kota beste zundaketetan baino gorago ageri zela esan behar dugu.

29. zenbakiko eraikinari atxikiriko gorputza eraisteko lanen gaineko kontrol arkeologikoa

29. zenbakiko eraikinari gibelaldetik atxikiriko gorputza eraisteko lanetan zehar kontrol arkeologiko zorrotzak egin genituen. Prozesu honetan, eraitsi aurreko txostenean aurreratu bezala, eraikinaren atal hau aro garaikidean atxikiriko gorputza zela egiaztatu genuen, higiezinaren gibelaldeko fatxadari atxikiriko eraikina. Hura eraitsi ondoren, agerian geratu zen aztergai dugun eraikinaren gibelaldeko fatxada. Leiho konopial txiki bat kontserbatzen zuen.

Prozesu honetan ere bitarteko mekanikoak baliatuta induskatu genuen orubearen gibelaldea, eta estratigrafia oso xumea zela egiaztatu genuen: hormigoizko zolarria altxatuta harea horiek osaturiko maila, aipatu zoruaren ohatzearena egiten zuena, erregistratu genuen; betegarri horren azpian lur marroi beltzezko depositua azaldu zen, ikatz askorekin. Geruza hau ez zen batere trinkoa, batez beste 15 cm lodi zen, eta lur naturalaren gainean hartzen zuen atseden.

Indusketa lanak kanpaiak egiteko metala urtzeko zuloan

Eraikina eraitsi eta gero, baratze aldean burura eramandako kontrol arkeologikoetan erregistratutako lekuko garrantzitsuenak induskatu genituen. Alde hau induskatuta, baratze aldean erregistratutako gainazaleko mailen azpian agerian geratu zen oinplano obaleko zulo bat, ardatz nagusia 2,50 metro luze eta ardatz txikia 1,80 metro luze, gutxi gorabehera 1,20 m-ko sakonerarekin; lur eremu naturalean induskatuta zegoen. Buztin horiko mailak beteta zegoen zuloa, eta bertan ikatz kopuru handia, kobrezko zepak, harri txikiak eta kiskalitako material erregogorren hondakinak erregistratu genituen, gehiago betegarriaren kota beherenetan.

Zuloa betetzen zuen lehenengo betegarria altxatuta buztin hareatsuak osatutako depositua erregistratu mente, o no, y si quedaban contextos arqueológicos relacionados con el mismo. La secuencia estratigráfica de este sondeo permitió documentar la existencia de un muro que discurría de forma paralela al actual en el sector norte de la parcela y se constató la presencia de la cimentación del muro de cierre trasero del edificio demolido. El resto de la estratigrafía era muy sencilla y de escaso interés.

Estratigrafía sondeo 2

El sondeo 2 se situó en la zona perimetral este del solar. Podemos indicar que la secuencia estratigráfica no aportó ninguna información relevante desde el punto de vista arqueológico.

Estratigrafía sondeo 3

Este último sondeo no deparó ninguna sorpresa en cuanto a su secuencia estratigráfica. Tan sólo citar como dato reseñable que la cota topográfica del nivel geológico era superior a la del resto de sondeos, debido a la orografía del terreno.

Control arqueológico del derribo del anexo del edificio nº 29

Durante las obras de derribo de la ampliación trasera del edificio nº 29, se procedió al control arqueológico de las mismas. A lo largo de éste proceso, tal y como se había adelantado en el informe previo al derribo, se comprobó que ésta parte del edificio era una ampliación de época contemporánea, adosándose a la antigua fachada trasera del inmueble. Tras el derribo, la fachada trasera original del edificio, en la que se conservaba una pequeña ventana conopial, quedó a la vista.

En el mismo proceso se excavó mecánicamente la parte trasera del solar comprobándose que la estratigrafía era muy sencilla: tras la eliminación de la solera de hormigón se registró un nivel de arena amarillenta que servía de asiento al mencionado suelo; bajo este relleno, surgía un depósito de tierra marrón negruzca con gran cantidad de carbones, que conformaba un nivel muy poco compacto y con una potencia media de 15 cm, situándose sobre terreno natural.

Excavación del foso para la colada de campanas

Una vez derribado el edificio se procedió a la excavación de los testimonios más interesantes registrados durante el control arqueológico de la zona de huertas. La excavación de éste área permitió descubrir, tras los niveles superficiales registrados en la zona de huertas, la existencia de un hoyo de planta ovalada con 2’50 metros de eje mayor y 1’80 metros conservados de eje menor que, con una profundidad aproximada de 1,20 m, excavado en el terreno natural. Este foso estaba colmatado por un nivel de arcilla amarilla, en el que se registraba gran cantidad de carbones, escorias de cobre, pequeñas piedras y restos de material refractario quemado, siendo mayor su presencia en las cotas más bajas del relleno.

Tras la eliminación del primer relleno de colmatación de la fosa se registró un depósito de arcilla are-

Bi kanpai egiteko metala urtzeko zuloa.

Fosa de colada para fabricación de dos campanas.

genuen, kolorez horia, batez beste 15 cm lodi; aski maila trinkoa zen. Maila honetan buztin erregogorraren puska txiki batzuk baizik ez genituen aurkitu, beste material arkeologikorik bat ere ez.

Betegarri honek erretako eta gogortutako buztinezko beste geruzari bide ematen zion, kolorez gorria eta laranja, belztutako orban batzuekin. Depositu hau ondo berdinduta zegoen, 5-8 cm bitarte lodi zen. Zuloaren erdian eta kota berean gurutze grekoaren formako bi negatibo erre gabe erregistratu genituen. Buztinak erreta ez zeuden espazioak buztin griseko deposituak estaltzen zituen, buztin horiekin, ikatz gutxi batzuekin, material erregogorraren hondakinekin eta harriekin nahasitako deposituak.

Deskribatutako mailak induskatu ondoren beste depositu bat erregistratu genuen, kolore horiko buztin hareatsuak osatua, batez beste 15 cm lodi, aski maila trinkoa eratuz. Horixe zen zuloko azken betegarria, harri naturalaren gainean bermatua.

Aurkikuntzen aurreko interpretazioa

Kale Nagusiko 27. eta 29. zenbakiko eraikinen arteko orube hustuak –egun aparkalekuaren erabilera ematen zaio– Erromesentzako hiriko ospitale zaharrari eta Pietatearen Ama Birjina baselizari leku egin bazien

nosa de tonalidad amarilla, con una potencia media de 15 cm, constituyendo un nivel bastante compacto. En éste nivel como único material arqueológico se localizaron pequeños fragmentos de arcilla refractaria.

Este relleno daba paso a un nivel de arcilla quemada, endurecida, de tonalidad roja anaranjada con zonas ennegrecidas. Este depósito se localizaba de forma nivelada con una potencia de 5-8 cm. En el centro del hoyo y a la misma cota se registraron dos negativos en forma de cruz griega, que no estaban quemados. Los espacios donde la arcilla no estaba quemada estaban colmatados por un depósito de arcilla gris, mezclada con arcilla amarilla, algo de carbón, restos de material refractario, y piedras.

Tras la excavación de los niveles descritos se reconoció un depósito, compuesto por arcilla arenosa de tonalidad amarilla, con una potencia media de 15 cm, constituyendo un nivel bastante compacto. Éste era el último relleno del foso y apoyaba sobre la roca natural.

Interpretación de los hallazgos

A pesar de que en el solar vacío situado entre los edificios nº 27 y 29 de Kale Nagusia –hoy en día destinado a parking- era donde se situaba el antiguo hospital para peregrinos de la villa y la ermita de Ntra. Sra.

ere, zundaketa arkeologikoek orubearen okupazioari lotutako aztarna gutxi batzuk aurkitzeko parada baizik ez zigun eskaini. Soilik 1. zundaketan erregistratu genuen oraindik arteko horma kontserbatzen zuen eraikinaren itxitura hormaren zimentarriaren parte bat.

80. urteetan eraikina eraitsi eta orubea aparkaleku gisa gaitu zuten, eta horrek guztiak eragingo zuen lehen aipamen idatzia 1586. urtekoa zuen eraikinaren okupazio mailak betikoz galtzea.

Gure esku-hartze arkeologikoan interesgarriena bi kanpai egiteko metala urtzeko zuloaren aurkikuntza izan da. Zulo hau orubearen gibelaldean dago, ospitale zaharrak hartzen zuen aldean.

Hemen kanpaiak egiteko zulo bat baldin badago, baseliza bat egon behar du ondoko orubean. Kontuan eduki behar da kanpaiak egiteko tailerrak batetik bestera aldatzen zirela, obraren oinetara mugitzen zirela.

Aztergai dugun honetan bi dira gure arreta pizten duten kontuak: batetik, baliteke labe bikoitza izatea, aldi berean bi kanpai egiteko metala urtzeko prestatua. Eta bestetik, baliteke zuloan arraren oinaren arrastorik kontserbatu ez izana, Gipuzkoako lurraldean induskatutako metalak urtzeko labeetan guztiz arrunta dena.

Lehenengo kontuari dagokionez, baliteke hurbil egongo zen beste tenplu erlijioso batentzat bigarren kanpai bat eraikitzeko labea izatea. Bariko San Nikolas eliza eta San Martin baseliza dira gertuen dauden bi eraikin erlijiosoak; hala eta guztiz ere, ezinezkoa da jakitea –ez baitago idatzizko erreferentziarik– bigarren kanpaia baselizarentzat berarentzat ala aipatutako beste bi eraikin erlijiosoetako batentzat eraiki ote zuten. Nolanahi ere den, kanpaiaren neurriak kontuan baditugu, gehiegizkoa ematen du Pietatearen baselizak halako bi eduki izanak. Kontuan eduki behar da kanpaiaren barruko moldea kontserbatu ez bada ere, hura bermatzeko zuren negatiboen neurriak eta zuloko betegarrian berreskuratutako molde hondakin batzuen bidez lortutako diametroak adierazten digutela kanpaia horien diametroa gutxi gorabehera 1,10-1,20 metrokoa izango zela.

Baliatu zuten molde motari lotuta dago bigarren kontua. Aurkitutako aztarna arkeologikoak eta ezagutzen diren antzeko beste batzuk kontuan izanik, pentsa liteke kanpaia egiteko moldea zuloaren kanpoko aldean eraiki eta erre zutela, eta gero zurezko euskarrien gainean garraiatu eta zuloaren hondoan egokitu zutela berau garraiatzeko zurezko piezen gainean. Instalatu ostean eta kanpaien pisuak presionatuta zurezko ohol horiek buztin gordinean sartu ziren, metala urtzeko beroaren ondorioz labearen oin osoa erre eta gogortu baino lehen. Honenbestez labearen hondoko negatiboak dira elementu hauen lekuko bakarrak.

Bukatzeko, elementuaren kronologia geratzen zaigu zehazteko. Metala urtzeko zuloko betegarrietan material arkeologikorik aurkitu ez genuenez –moldeko material erregogorra kontuan hartu gabe– eta kanpaia egiteko moldeari atxikiriko ikatzen dataziorik ez dugunez, oraindik ezin zehazta dezakegu kanpaia egiteko metala urtzeko zuloaren data.

de la Piedad, los sondeos arqueológicos sólo permitieron localizar escasos vestigios asociado a la ocupación del solar. Únicamente en el sondeo 1 se localizó parte de la cimentación del muro de cierre del edificio del que aún se conservaba parte en el muro de medianil.

Probablemente el derribo del edificio en los años 80 y su adecuación como parking pudo provocar la desaparición de los niveles de ocupación de un edificio del que su primera cita documental data de 1586.

Lo más destacado de la intervención arqueológica, ha sido la localización de una fosa de colada para la fabricación de dos campanas en la parte trasera del solar donde se situaba el antiguo hospital.

La existencia de un foso de campana en éste lugar se entiende por la existencia de una ermita en el solar contiguo. Hay que tener en cuenta que los talleres para la elaboración de campanas eran móviles desplazándose a pie de obra.

En el caso que nos ocupa hay dos cuestiones que llaman la atención: la primera es que se trate de un horno doble, preparado para la fundición de dos campanas a la vez. Y la segunda que no haya quedado en el foso de colada la huella de la base del macho, algo habitual en los hornos de campana excavados en el territorio de Gipuzkoa.

La primera cuestión podría estar relacionada con la posible fundición de una segunda campana para otro recinto religioso cercano. Los dos edificios religiosos próximos son la Iglesia de San Nicolás de Bari y la ermita de San Martín; sin embargo, es imposible saber -sin referencias documentales- si la segunda pieza se construyó para la propia ermita o para alguno de los otros edificios religiosos citados. Sin embargo, por las dimensiones de la campana parece excesivo que la ermita de la Piedad contará con dos campanas. Hay que tener en cuenta que aunque no se ha conservado el molde interior de la campana, por las dimensiones de los negativos de las maderas de apoyo de la misma y del diámetro extraído a través de la traza de algunos restos de molde recuperados en el relleno que colmata la fosa, podemos saber que las campanas podría tener un diámetro aproximado de 1'10-1'20 metros.

La segunda cuestión ésta asociada al tipo de molde utilizado. Por los vestigios arqueológicos localizados y por otros paralelos conocidos, se puede pensar que el molde de campana se construyó y coció en el exterior de la fosa, transportándose sobre un soporte de madera e instalándose en el fondo del hoyo sobre los apoyos lígneos utilizados para su transporte. Tras su instalación y debido al peso de la campana estos tablones de madera penetraron en la arcilla cruda antes de que toda la base del horno se quemara y endureciera como consecuencia del calor de la colada de metal, quedando como único testigo de éstos elementos los negativos en la base del horno.

Por último, queda por resolver la cronología del elemento. La ausencia de material arqueológico –a excepción del material refractario del molde– en los rellenos de colmatación de la fosa de colada, y la falta de una datación de los carbones asociados al molde de campana, no permite una datación precisa de la fundición de la campana.

M. Urteaga

C.25.2.1. **Lusarbeaundi baserria**

Zuzendaritza: Xabier Alberdi Lonbide
Finantziazioa: Jabekideen komunitatea

C.25.2.1. **Caserío Lusarbeaundi**

Dirección: Xabier Alberdi Lonbide
Financiación: Comunidad de propietarios

Intervention carried out in the northern area of the constructed site, making any further intervention unnecessary, since the results were of little or no historical-archaeological interest.

Eraikitako orubearen iparraldeko sektorea hartu zuen esku-hartze arkeologikoak. Agortu egin genituen bertan beste ikerketa bat abiarazteko aukerak oro, emaitzak negatiboak izan baitziren historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik.

Intervención desarrollada en el sector norte del solar construido, agotando la posibilidad de nueva investigación en esta zona, siendo los resultados de la misma de escaso o nulo interés histórico-arqueológico.

X. Alberdi Lonbide

C.26. GIPUZKOA ETA ARABAKO PARTZUERGO NAGUSIA / PARZONERIA GENERAL DE GIPUZKOA Y ÁLAVA

C.26.1. **San Adriango tunela edo Lizarrateko Igarobidea**

Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea
Finantziazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia; Lanbide

C.26.1. **Túnel de San Adrián o Paso de Lizarrate**

Dirección: Alfredo Moraza Barea
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa; Servicio Vasco de Empleo

The archaeological work carried out in San Adrián Tunnel enabled us to confirm a sequence of human occupation ranging from the Bronze Age–Chalcolithic to the beginning of the 20th century. Evidence of this occupation includes diverse constructions (settlement inside the Cave-Tunnel, a castle, chapel and inn, etc.).

Gipuzkoako Foru Aldundiak San Adriango igarobidea (antzina Lizarrateko Igarobidea izenaz ezaguna) eta gaztelua berreskuratzeko eta haiei balio handiagoa emateko xedean sustatutako proposamenarekin lotutako lan arkeologikoak egin dira aurreko urteetan. Lan hauekin batean galtzada eta ingurua berreskuratzeko xedean era berean aipatu foru erakundeak sustatutako beste jarduera batzuk eraman dira burura.

Aurreko kanpainetan burura eramandako lan arkeologikoek aukera eman dute multzoaren estratigrafiaren sekuentzia zehazteko. Izan ere, giza okupazioaren sekuentzia luzea egiaztatzen da bertan, orain arte egindako hainbat zundaketa arkeologikoren bidez dokumentatu ahal izan denez.

A lo largo de los años precedentes se han ido desarrollando distintos trabajos arqueológicos relacionados con la propuesta promovida desde la Diputación Foral de Gipuzkoa para la recuperación y puesta en valor del paso y castillo de San Adrián (conocido antiguamente como Paso de Lizarrate). Esta labor se ha ido desarrollando de una manera paralela a otra serie de actividades promovidas asimismo por el ente foral encaminadas a la recuperación de la calzada y su entorno.

Los trabajos arqueológicos desarrollados en las campañas precedentes han permitido establecer una secuencia estratigráfica del conjunto que han permitido certificar una prolongada secuencia de ocupación humana, tal y como se ha podido documentar a través de una serie de distintos sondeos arqueológicos practicados hasta el momento.

2011ko urte honetan aurrerapauso handiak egin ditugu beste arrazoi batzuengatik. Izan ere une ezberdinetan lan egin ahal izan dugu alde honetan, IV. eta V. kanpainak eraman ditugu burura. Aldi berean, galtzada eta tunelaren ingurua berreskuratzeko lanetatik eratorritako lur mugimenduen gaineko kontrol lanak egin ditugu.

Galtzada eta tunelaren ingurua berreskuratzeko lanen gaineko kontrol arkeologikoa

2009. urtean abiarazitako prozesuari segida emateko lanak eraman ziren burura 2010. urtean zehar. Azken hamarraldietan zehar inguru honek jasandako abandonatze egoeraren ondorioz elementu horien osotasuna zuzenean kaltetzen zuten arazoak konpontzea zen aipatu prozesuaren helburu nagusia.

III. lanaldia, San Adriango galtzada eta ingurua berreskuratzea eta haiei balio handiagoa ematea bila zituena, batez ere San Adriango tunelaren beraren barnean eraman genuen burura. Alde honetan daude multzoaren eraikin esanguratsuenak, ostatua edo benta, Mikeleteen etxea eta Erdi Aroan zehar eta Aro Modernoaren hasieran igarobide estrategiko hau babestu zuen lehenengo gotorlekuarekin zerikusia duten egiturak.

Aspaldiko ostatuari eta Mikeleteen etxeari zegozkien hormak eta tunelaren ekialdeko itxitura horma hustea, berreraikitzea eta sendotzea izango zituen helburu nagusi 2011ko esku-hartze arkeologikoak.

Ekialdeko itxitura horma berreraikitzen eta sendotzen

Landu gabeko harrizko horma batek osatzen du tunelaren ekialdeko itxitura. Horma eskuarki iparraldetik hegoaldera luzatzen da, eta haren muturrek leizearen horma naturalean hartzen dute atseden. Hegoaldeko muturrean zegoen elementurik bereziena, arku ziri-harridun apur bat zorrotzak eraturiko sarrera, azken mendean gutxienez hiru aldiz moldatua eta berreraikia izan dena bera. Aipatu horma 12,70 metro luze da guztira, muturretik muturrera; horietatik 9,50 metro bertan gaitutako eraikinari edo eraikinei zegozkien, eta gainerakoa sartzeko baoari.

Ondo asko bereizten diren bi sektoretan banatzen da horma hau, bakoitza bere barruan dokumentatutako gela banari dagokiola. Erdi iparraldeko atala 5,20 metro luze da eta 110 eta 140 cm bitarte zabal, eta eraikuntzaren kalitatea eskasa dela esan behar dugu. Horma atal honen gainean egokitu zuten, zehazki noiz ez dakigula (XVII. ala XVIII. mendean?), bentako horma berritua, harrizko leihoburuekin eta balkoi luzearekin. Azken pareta hau apur bat meheagoa da, 70-80 cm bitartekoa. Itxitura hormaren hegoaldeko atala 4,30 metro luze da eta askoz ere meheagoa, 70 cm ingurukoa, baina askoz ere kalitate hobea du. XIX. mende bukaeran aspaldiko Mikeleteen Etxearen eraikinean abiarazitako berreraikuntza (kontserbazio egoera oso kaskarrean baitzegoen, lur jotzeko arriskuan) prozesuaren emaitzak azal ditzake horma atal

En este presente año 2011 los trabajos han experimentado un impulso importante por circunstancias diferentes, lo cual ha permitido trabajar en la zona en momentos diferentes, dando lugar a las IVª y Vª Campaña de sondeos arqueológicos junto a las labores de control de los movimientos de tierra derivados de las labores de recuperación de la calzada y el entorno del túnel.

Control arqueológico de las labores de recuperación de la calzada y el entorno del túnel

Durante el año 2010 se dieron continuidad a las labores de, como una continuidad al proceso ya iniciado en el año 2009. Su objetivo último era el de subsanar una serie de problemas que afectaban directamente a la integridad de esos elementos como fruto del abandono experimentado por ese entorno durante las últimas décadas.

La IIIª fase de trabajo encaminada a la recuperación y puesta en valor de la antigua calzada de San Adrián y su entorno centró sus actuaciones mayormente en el interior del propio túnel de San Adrián. En ese entorno se ubicaban algunos de las edificaciones más significativas del conjunto, la posada o venta y la casa de Miqueletes, además de las estructuras relacionadas con la primitiva fortaleza que protegió durante la Edad Media y parte de la Edad Moderna este estratégico paso.

La actuación tenía como objetivo principal el vaciado, reconstrucción y consolidación de los muros correspondientes a las antiguas posada y casa de Miqueletes, así como del muro de cierre este del túnel.

Reconstrucción y consolidación del muro de cierre este

El cierre oriental del túnel está compuesto por un muro de mampostería con una orientación general N-S, apeándose en sus extremos en la propia pared natural de la cueva. El elemento más singular estaba situado en su extremo meridional, conformado por un acceso en arco adovelado ligeramente apuntado, el cual había sido remozado y reconstruido en al menos tres ocasiones durante el último siglo de existencia. Este muro presenta una longitud total de 12,70 metros, de extremo a extremo, correspondiendo exclusivamente al edificio o edificios habilitados en la zona 9,50 metros y el resto al referido vano de acceso.

Este muro presentaba claramente dos sectores bien diferenciados, correspondientes a cada una de las dos estancias documentadas al interior. La mitad septentrional presentaba una longitud de 5,20 metros y una anchura entre los 110 y 140 cm, presentando una calidad constructiva deficiente. Sobre ese muro se dispondrá en un momento indeterminado (¿siglo XVII o XVIII?) la pared reformada de la venta con sus dinteles de piedra para los ventanales y la balconada corrida. Este último muro presentaba una anchura ligeramente menor, unos 70-80 cm. El sector meridional de ese muro de cierre presentaba una longitud de unos 4,30 metros y una anchura sensiblemente menor, rondando los 70 cm, si bien su factura es de mucha mejor calidad. Esta diferencia de paramentos puede explicarse como parte del proceso de reconstrucción abordada a fines del siglo XIX en el edificio de la

San Adriango tunelaren ekialdeko muturreko zaborrak ateratzeko eta egiturak sendotzeko lanen azken emaitzaren ikuspegi orokorra.

Vista general del resultado final de los trabajos de desescombro y consolidación de las estructuras en el extremo oriental del túnel de San Adrián.

bien arteko aldeak. Geroago, 1950. urteetan, berriro ere eraiki zituzten aipatu hormaren gailurra eta ondoko sarrerako arkua: zementuz batu zituzten harriak orduan burutu zituzten berrikuntza lanetan, eta sarrerako galtzadari egungo itxura eman zioten orduan ere.

Guk, gure aldetik, aipatu hormaren goiko aldea desmuntatu genuen, solte edo behera etortzeko arriskuan zeuden harriak atera, eta ondoren berriro ere goratu genuen horma.

Aspaldiko ostatuari eta Mikeleteen etxeari zegozkien barrutiak husten, sendotzen eta berreraikitzen

Arestian deskribatutako jardueraren osagarriak ziren tunelaren barruan burura eramandako eskuhartzearen helburuak, eta sektore honetako atal batek jasaten zuen zama arintzea eta prozesu honetan zehar dokumentatu zitezkeen egiturak berreraikitzea bila zuten.

Alde honetan zabortegi handi bat zegoen, zaborrak nagusiki bertan zeuden eraikinen sute, hondamen eta ondorengo eraispenetik etorriak. 1950. urteetan eraitsi zituzten aipatu eraikinak. Bitarteko mekanikoak baliatuta eraman ziren burura zaborrak kentzeko lanak, baina lan hauek bertatik bertara jarraitu zituen balizko aztarna arkeologikoak erregistratzeko eta dokumentatzeko ardura zuen teknikari arkeologoak.

Burura eramandako garbitze lanak aukera eman du tunelaren ekialdeko mutur honetan izan ziren eraikin bien oinplanoa, aspaldiko ostatu zaharra edo bideko benta eta Mikeleteen Etxea, osorik dokumentatzeko, baita bertan lehendik gaitutako gotorlekuarekin zerikusia izango duten aztarnak dokumentatzeko ere. Horma hauek garbitu eta dokumentatu eta gero sendotu eta berreraiki egin ditugu haiei sendotasun han-

antigua Casa de Miqueletes debido a su ruinoso estado de conservación. Más recientemente, a mediados de la década de 1950, una buena parte de la cimera de este muro y el adyacente arco de acceso serán nuevamente reconstruidos y ligados con cemento como parte de la reforma operada en ese concreto momento, dándole también a la calzada de acceso su aspecto actual.

C.29.1. **Caserío Arane (Barrio Esteban)**

Director: Ander Arrese
Financiación: Tolosa-Hernialde UTE

Prior to the beginning of the work to be carried out on the Tolosa-Hernialde stretch of the High-Speed Rail Link, an archaeological intervention was commissioned at Arane Farmhouse. The results obtained failed to provide any new information to add to that contained in existing documents; both the pottery pieces and the coins found indicate that the building dates from the modern era. The cuts and constructive remains found on the northern face suggest the presence of a cider press, used until relatively recently.

Esku-hartze arkeologikoa

Eraikina eraitsi eta zaborrak atera ostean, 2011ko ekainaren 20an abiarazi ziren baserri honetan zundaketa estratigrafikoak egiteko lanak. Guztira 32 metro koadroko azalera altxa genuen.

Hasteko 2x4 metroko lubaki bat egin genuen eraikinaren iparraldeko fatxadaren erdialdetik abiatuta hegoalderantz. Alde honetan soilik gure garaiko materialez betetako zulo bat, paldo bati leku egiteko zuloa, eta ekialdetik azaltzen zen erreten ez txikia topatu genituen. Induskatu beharreko eremua handitzeko erabakia hartu genuen eta antzeko neurriak izango zituen beste zundaketa bat ireki genuen, honakoa ekialdetik mendebaldera. Lehenengo zundaketan identifikatutako erretena ekialderantz luzatzen zen, ezin izan genuen osorik erregistratu. Bestalde, horma egitura bat aurkitu genuen buztin trinkoko geruza batek (segur asko zoru bat izango da) amortizaturik. Ikusirik aurkitutako eraikuntza elementuen kopuru handia, 6x4 metroko zalera induskatu genuen guztira.

Hasieran aurkitutako erretena angeluzuzena da, 2x1 metro ditu oinean eta gutxi gorabehera 80 cm sakon da. Eraikinaren iparraldeko hormari atxikita dago, eta puntu honetan horma nahasia izan dela hautematen da (segur asko aipatutako erretena egitean). Haren barruan, ekialdean, induskatutako beste zulo bat erregistratu genuen, 40x80 cm-koa oinean eta gutxi gorabehera 40 cm sakon.

Intervención arqueológica

Los trabajos de sondeo estratigráfico en este caserío, dieron comienzo el día 20 de junio de 2011 una vez realizada la demolición y desescombro de la edificación, abriendo un total de 32 metros cuadrados de superficie.

Comenzamos abriendo una zanja de 2x4 m a partir de la parte media de la fachada N del edificio y en dirección S. En este área nos encontramos con un agujero de poste relleno con materiales exclusivamente contemporáneos y una zanja de considerables dimensiones que asomaba en su lado E. Decidimos ampliar el área de excavación realizando otro sondeo de similares dimensiones esta vez E-W. La zanja localizada en el sondeo original se ampliaba en dirección E no pudiendo registrarla en su totalidad. Además encontramos un estructura muraria amortizada bajo un nivel de arcillas compactas (posiblemente un suelo). En vista de la cantidad de elementos constructivos localizados decidimos abrir la superficie de excavación hasta un total de 4x6 m.

La zanja localizada inicialmente se define como un rectángulo de 2x1 m en planta y aprox. 80 cm de profundidad. Se sitúa pegado al muro N del edificio que en este punto presenta una evidente alteración en su estructura (posiblemente asociado a la citada zanja). En su interior (en su lado E) localizamos, a su vez, una nueva excavación de 40x80 cm en planta y aprox. 40 cm de profundidad.

Arane baserrian egindako indusketa lanen airetiko ikuspegia.

Vista aérea de la excavación en el caserío Arane.

Arestian azaldutako horma egituraren paraleloan paldoei leku egiteko hiru zulo txiki (8-10 cm-ko diametroak), segur asko egiturari berari dagozkionak, eta egitura estaltzen duen material berdinez osaturiko betegarriak erregistratu genituen.

Tokiko estratigrafiak agerian uzten zuen baserriaren hegoaldeko frakzio finaren lodiera eskasa, baina zalantzak uxatzeko beste bi metro koadro ireki genituen hegoaldean. Lauki bi hauek baserriaren hegoaldea harrizko geruzaren kotatik behera zegoela berresteaz gainera, fatxada bien arteko kota alde handia (harriaren kotari gagozkio) utzi zuten agerian. Alde honetan harria sendoa eta homogeneoa ez denez, hainbat hutsune daude, batzuk buztin naturalez beteak, baina multzo osoa beherantz, iparraldetik ekialdera, nabarmen makurtzen dela esan behar dugu. Tokiko orografiak eragindako irregulartasunak harrizko blokeez osaturiko betegarriekin berdindu zituzten, eta betegarri horietan Alfontso XII.aren agintaldiko (1874-1885) txanpon bat eta kalibre handiko jaurtigai bat aurkitu genituela esan behar dugu.

Iparraldeko fatxadaren kanpoko aldeko gainazala induskatu genuenean ere beste txanpon bat aurkitu genuen. Felipe V.aren agintaldiko (1744) bi marabedikoa da, indusketa lanetan aurkitutako hondakin aspaldikoena. Hala eta guztiz ere, estratigrafiaren ikuspuntutik testuingurutik at aurkitu genuenez, mugatua da oso eskaintzen digun informazioa.

Harreman estratigrafikoak

Antzinatasunaren ordenari jarraiki, hasteko trinkotasun apaleko geruza naturala topatzen dugu, margez eta kareharriez eta haien deskonposiziotik eratorritako buztinez osatua. Geruza natural honen gainazala oso irregularra da, eta iparraldetik ekialdera makurtzeko joera du.

En paralelo a la estructura muraria mencionada anteriormente, localizamos tres agujeros de poste de dimensiones reducidas (8-10 cm de diámetro) probablemente asociados a el y rellenos del mismo material que lo cubre.

La estratigrafía local presentaba evidentes muestras de la escasa potencia de fracción fina que presentaba la parte S del caserío, pero para confirmarlo abrimos dos metros cuadrados más en dirección S. Estos dos nuevos cuadros, además de confirmar que el suelo de la parte S del caserío se encontraba bajo la cota del sustrato rocoso, nos presentaron un importante cambio de cota (en cuanto a cota de roca) entre las dos fachadas. La escasa consistencia y homogeneidad de la roca en esta zona presenta vacíos, rellenos en ocasiones por arcillas naturales todo ello con un notable buzamiento descendente en dirección N-E. Las irregularidades causadas por la orografía local se habían solucionado nivelándolos con rellenos de bloques, donde localizamos una moneda perteneciente al reinado de Alfonso XII (1874-1885) y un proyectil de gran calibre.

Recogemos otra moneda al excavar el nivel superficial en la parte exterior de la fachada N. Se trata de 2 maravedíes correspondientes al reinado de Felipe V (1744), siendo este el resto más antiguo localizado en la excavación. Este hallazgo sin embargo al encontrarse estratigráficamente descontextualizado la información que nos ofrece es limitada.

Relaciones estratigráficas

En orden de antigüedad, en primer lugar nos encontraríamos con un sustrato natural de baja consistencia compuesto por margo calizas y arcillas derivadas de la descomposición de estas. Este nivel natural muestra una superficie altamente irregular con tendencia a buzar en dirección N-E.

Maila naturalaren gainean elkar eragiten duten unitate estratigrafiko batzuk erregistratzen dira, batzuek elkarren arteko harremanik ez dutela. Ebakiei dagokienez, 2 unitate mota erregistratu genituen, paldoei leku egiteko zuloak eta segur asko dolarearen egiturarekin zerikusia izango zuten erretenak. Paldoei leku egiteko 4 zulo bereizi genituen; bi multzotan banatzen dira. Lehenengoa 3 unitatek osatzen dute (116., 117. eta 118. UEak), eta induskatutako eremuaren erdi ekialdean daude (segur asko 104. UEari atxikita). Gutxi gorabehera 10 cm-ko diametroa du eta 30-35 cm sakon da. Paldoari leku egiteko laugarren zuloa (012. UE) indusketa eremuaren ipar mendebaldean dago. Dezente handiagoa da (18 cm-ko diametroa) eta hartan sakondu ahala iparraldetik ekialdera makurtzen dela ikus dezakegu. 108. UE gisa identifikatutako ebakitik gertu dago (segur asko dolarearen egiturarekin izango du zerikusia).

Gutxi gorabehera 180 x 100 cm-ko neurriak ditu 108. UEak, eta 80 cm sakon da. Baserriaren iparraldeko fatxadari atxikita egin zuten, eta haren baitan beste ebaki bat (109. UE) erregistratu genuen, 80 x 45 cm-koa eta 45 cm-ko sakonerarekin. Iparraldeko fatxadaren egitura puntu honetan (hain zuzen ere 109. UEaren parean) oso nahasita dagoela nabarmendu behar dugu.

Egiturak eta betegarriak dira geruza naturalaren gainean atseden hartzen duten deposituak. Bi dira geruza naturalean bermatzen diren egiturak; lehenik 104. UE, aztarnategiaren erdialdean L formako angelu zuzena marrazten duen pareta. Ez da 10-15 cm baino garaiagoa, tamaina erdiko blokeez osaturiko errenkada bakarra du, harriak batu gabe. 104. UEaren gainean (eta beraz geroagokoa da), 115. UE dago. Tamaina handiko 3 blokek osatuta dago, eta interpretatzen zaila den errenkada irregularra marrazten dute.

Arestian deskribatutako unitateak estaliz 3 betegarri mota erregistratu genituen, bakoitza bere unitate estratigrafikoekin. Hasteko, blokeek eta buztin gorriek osatutako maila bat bereizten dugu. Maila honek indusketa eremuaren hego-mendebaldeko muturrean dagoen sakonune bat eta 115. UE estaltzen ditu. Hain zuzen ere unitate horretan aurkitu genituen Alfontso XII.aren agintaldiko txanpona eta kalibre handiko jaurtigaia. 115. UE eta partzialki 104. UE estaliz buztin trinkoko geruza bat erregistratu genuen, segur asko 104. UE amortizatu ostean antolatutako zoruarekin zerikusia izango du. Bukatzeko 108. eta 109. UEetako betegarriak dokumentatu genituen. Ebaki biak betegarri berdinarekin estali zituzten, blokeez eta harea aski solteez osatutako betegarriarekin, eta horrexegatik uste dugu guk ebaki biak aldi berean amortizatu zituztela, segur asko eraikinaren iparraldeko fatxada (120. UE) nabarmen nahasi zuen ekintza baten eta beraren emaitza direla.

Aztertutako azalera ia osoan barrena hedatzen den buztinezko maila bat (102. UE) erregistratzen da gainazaleko hormigoizko zolarriaren (101. UE) azpiko prestakin gisa.

Konklusioak

Esku-hartze honetan erregistratutako eraikuntza elementuek eta materialek ez dute hasieran proposatutako kronologia atzeratzen; areago, ez dugu XVIII. mendeaz haratagoko erabilera iradokitzen duen aztarnatik aurkitu. Aurkitutako txanpon aspaldikoena (testuingurutik kanpora baina) antza Felipe V.aren

Sobre el nivel natural interactúan diferentes unidades estratigráficas en algunos casos sin relaciones directas entre sí. En cuanto a cortes, registramos 2 tipos de unidades, agujeros de poste y zanjas probablemente asociadas a la estructura de lagar. Los agujeros de poste localizados son 4 y se distribuyen en dos grupos; el primero se compone de 3 unidades (UE116, UE117 y UE118) y se sitúa en la parte oriental media del área de excavación (probablemente asociados a UE104). Su diámetro aproximado es de 10 cm y su profundidad de 30-35 cm. El cuarto corte identificado como agujero de poste (UE012) se sitúa en el cuadrante noroccidental de la excavación. Sus dimensiones son notablemente mayores (18 cm de diámetro) y su progresión en profundidad buza en dirección N-E. Se sitúa próximo al corte identificado como UE108 (posiblemente asociado a estructura de lagar).

UE108 presenta unas dimensiones aprox. de 180 cm x 100 cm con una profundidad de 80 cm. Se realizó contra la fachada N del caserío y en su interior se encuentra un nuevo corte (UE109) de 80 cm x 45 cm y 45 cm de profundidad. Es de destacar que la estructura de la fachada N en este punto (justo frente a UE109) se encuentra muy alterada.

Los depósitos que se apoyan sobre el nivel natural se registran como estructuras y rellenos. Encontramos dos estructuras apoyada sobre el sustrato natural; en primer lugar, UE104 se define como una pared que dibuja un ángulo recto en forma de L en la zona media del yacimiento. La potencia que alcanza no supera los 10-15 cm y se compone de una sola hilera de bloques sin trabar de tamaño medio. Contra UE104 (por tanto, posterior) se adosa UE115. Se compone de 3 bloques de gran tamaño que dibujan una línea irregular de difícil interpretación.

Cubriendo las unidades anteriormente descritas encontramos 3 tipos de relleno a los que se les adjudican sus correspondientes unidades estratigráficas. En primer lugar nos encontramos con un nivel de bloques y arcillas rojizas que cubren tanto una depresión natural situada en el extremo S-W del área de excavación como a UE 115. Es en esta UE donde encontramos una moneda correspondiente al reinado de Alfonso XII y un proyectil de gran calibre. Cubriendo parcialmente UE115 y UE104 encontramos un nivel de arcilla compacta, probablemente relacionada con un suelo realizado tras la amortización de UE104. Por ultimo nos encontramos con el relleno de UE108 y UE109. Se rellena los dos cortes con el mismo relleno de bloques y arenas relativamente sueltas, de lo que se desprende que ambos cortes fueron amortizados al mismo tiempo, probablemente respondiendo a la misma acción que afecta notablemente al lienzo de la fachada N del edificio (UE120).

Como preparación a la solera superficial de cemento (UE101) encontramos un nivel de arcillas que se extiende a la práctica totalidad de la superficie estudiada (UE102).

Conclusiones

Los elementos tanto constructivos como materiales registrados en esta intervención, no retrasan la cronología propuesta inicialmente, es más no encontramos indicios que sugieran una utilización más allá del siglo XVIII; la moneda más antigua recogida (fuera de contexto estratigráfico) se identifica preliminarmen-

agintaldiko bi marabedikoa da, 1744. urte inguruan egindakoa.

Erregistratutako egiturei dagokienez, baserriaren iparraldeko fatxadaren oinetan egindako erretena da gure arreta berezia pizten duena. Kontuan izanik haren kokalekua, neurriak eta forma (fatxadan bertan altuera honetan nabari den nahasmenaz gainera), oso litekeena da dolare baten egituraren euskarria kendu ostean geratutako hutsunea izatea. Fatxada beheko erretenean horizontalean jarritako habe baten gainean pausatuko zen, eta bertan txertatuko zen dolareko ardatza. Habearen gainean (goiko erretenean) zurezko edo harrizko kontrapisua egongo zen. Guk uste dugu hauxe dela teoria onargarriena, baina badago gisa honetako egiturak instalatzeko lekurik ohikoena ez dela argudiatzea, eskuarki baserriaren sarrera nagusitik gertu egokitzen baitira horrelakoak.

te como 2 maravedíes correspondiente al reinado de Felipe V, acuñado en torno a 1744.

En cuanto a las estructuras registradas, la que mayor interés nos suscita es la de la zanja realizada contra la fachada N del caserío. Teniendo en cuenta su ubicación, dimensiones y forma (además de la afección localizada a esta altura en la propia fachada), podría tratarse de hueco dejado tras la retirada del cepo de una estructura de lagar. La fachada se apoyaría sobre una viga colocada horizontalmente en la zanja inferior y en esta se insertaría el tornillo del lagar. Sobre esta viga (en la zanja superior) se dispondría un contrapeso bien de madera o piedra. Concluimos que esta seria la teoría más plausible, aunque también podría argumentarse que no parece la ubicación más común para este tipo de estructura, ya que lo habitual es encontrarla cerca de la entrada principal del caserío.

A. Arrese Vitoria; X. Padin

C.30. ENIRIO-ARALAR ELKARTEA
UNIÓN ENIRIO-ARALAR

C.30.1. Miaketak Arritzaga meatze gunean

Zuzendaritza: Mertxe Urteaga
Diru-laguntza emailea: Gipuzkoako Foru Aldundia

C.30.1. Prospecciones mineras en Arritzaga

Dirección: Mertxe Urteaga
Subvención: Diputación Foral de Gipuzkoa

In the area around the old Arritzaga mine, in the Aralar mountain range, prehistoric remains have been found of copper mining activity. The complex includes galleries, shafts, trenches and open-air pits. The dating tests carried out so far indicate that the site was active during the Bronze Age, although objects from the Roman period have also been recovered.

Neolitikotik geroztiko giza okupazioaren aztarnak biltzen dituen mendialde honetan kobrezko mearen azaleratzeak egoteak adierazten zigun aukerak bazeudela aipatu mea erauzteko lanak aspaldiko garaietan kokatzeko. Bestalde, kontserbatutako balizko aztarnak aztertzeko eta gisa horretan garai ezberdinetako meatzaritza teknikei buruzko ezagutzak osatzeko gonbita ziren XVIII. mendeko meatze lanak dokumentatzen dituzten agiriak.

Historiaurreko meatzaritzaren arrastoei dagokienez eta kontuan izanik alde honetan kobrea ugari zela, guk uste dugu gainazalak ustiatu eta mea metaketak hustuko zituztela, beste meatze barrutietan egin zuten bezala.

Eloseguiren lanera[75] jasotako deskripzioen arabera, meatzarien herrixkan eraman genituen burura lehenengo miaketa lanak. Hondakinak haranaren hondoan identifikatu genituen, batez ere Arritzagako larrean. Alde honetan kanalizatuta dago errekastoa,

La existencia de afloramientos de mineral de cobre en un enclave de montaña en el que hay evidencias de ocupación humana desde el Neolítico, indicaba la posibilidad de remontar la extracción de esos minerales a tiempos remotos. Por otra parte, los trabajos mineros documentados del siglo XVIII, invitaban a estudiar los posibles vestigios conservados y completar de ese modo los conocimientos sobre técnicas mineras en las diferentes épocas.

Respecto a las huellas mineras prehistóricas, partíamos del planteamiento de explotaciones superficiales y de vaciado de monteras, como consecuencia de un beneficio local de cobre, a semejanza de lo que se conoce en otros cotos mineros.

Los primeros trabajos de exploración se realizaron en el poblado minero, valiéndonos de las descripciones recogidas en el trabajo de Elosegui [75]. Los restos se identificaron en el fondo del valle, principalmente en la majada de Arritzaga. En ese lugar existe una canalización de la

[75] Elosegi, J. (1974). *Las minas de cobre de Aralar (1732-1904).* Soc. Gipuzkoana de Ediciones y Publicaciones. Donostia.

[75] Elosegi, J. (1974). *Las minas de cobre de Aralar (1732-1904).* Soc. Gipuzkoana de Ediciones y Publicaciones. San Sebastián.

terraza artifizial bat sortzen da. Terraza honetan mea erretzeko hiru laberen hondakinak eta kobre mea prozesatzeko eta eraldatzeko fabrikako azpiegiturei dagozkien eraikin askoren hondakinak daude. Uraz beheiti, hurbil, urtegiko presa zegoen (badakigu zurezkoa zela), baita kanalak eta mea lantzeko fabrikak ere. Hainbat eremu bereizten dira errekaren ibilguak marrazten duen ardatzaren luzerako espazio honetan. Goiko partean zeuden labea eta «Menor Parte» elkartearen tailerrak; beherago zeuden beste bi labe eta «Mayor Parte» elkartearen eraikinak, konpainia biek partekatzen zituzten eraikinekin batean, horien artean tenplu erlijiosoa eta bi ostatu. Jatorrian enpresa bakarra izan zen baina 1752. urtean bereizi eta *Menor Parte* eta *Mayor Parte* izena hartu zuten hurrenez hurren. Meategiko lanak eta mea murrizteko lanak partekatu egiten zituzten konpainia biek, eta lortutako produktua adostutako proportzioan banatzen zuten elkarren artean.

Errekastoaren ardatzari jarraiki artzainen artegiak daude, mea urtzeko lanetik eratorritako zepadi zabalen gainean eraikiak, eta uraz beherago, arestian adierazitako urtegiaren hondakinak. *Bocarte* edo mea txikitzeko makineria mugiarazten zuten gurpil hidraulikoei eragiteko ura biltzeko eta haren maila goratzeko balio zuen urtegiak. Lurrean, eskuinaldean irekitako kanalean barrena bideratzen zuten ura gurpilen gaineko jauziraino. Oraindik ere bertatik bertara ondo asko hautematen da non egon ziren haiek.

Meatzarien herrixkaren hondakinak identifikatzeko lan hauen ostean, Buruntzusinetik Uakorriko gaineraino luzatzen den meategi eremua mendebaldetik ekialdera sistematikoki miatzeko lanei ekin genien. Zerrenda batera jaso genituen haize zabaleko ustiategiak eta meatzeetako ahoak, eta mea metaketa hustu askok utzitako arrastoak identifikatu genituen. Labar harritsuen oinetan, harrizko lubeta lodien gainean, hainbat zabaldegi hauteman genituen. Altuera ertaineko beste mendialde batzuetan[76] pilatutako eskarmentuari esker bagenekien horrelakoak eskuarki historiaurreko habitatak prestatzeko lekuetan burututako jardueren emaitza direla. Horrexegatik hainbat kata egitea planifikatu genuen, eta eskuz egindako zeramikak, kobre karbonatoak, zepa puska txikiak eta beste tresna batzuk berreskuratuta, berretsi egin zen Kalkolitoaren eta Burdin Aroaren arteko garaikoak zirela. Deskribatutako hondakinei atxikiriko ikatzezko lagin batzuekin eta C14ren bidez lortutako datazioaren arabera K.a. 930 eta 810 urte bitartean[77] kokatu behar dira haiek.

Katak ireki genituen zelaigunea leku menderatzailean eta estrategikoan dago, Arritzaga haranaren gainean: hainbat plano ditu maila ezberdinetan, plataformek eta atal mailakatuek elkarturik, eta tamaina handiko eustormak. Ageriko mea ustiategi txiki bat hauteman genuen lapiazaren ondoan dago. Arrakala txiki batean, kareharrizko geruzen artean sartutako poltsa batetik mea erauzi zutela ikusi ahal izan ge-

[76] Gandiaga, B; Ugalde, Tx; Urteaga, M., (1992). «Prospecciones arqueológicas en Urbia: Yacimientos catalogados en las campañas de 1990 y 1991». *Kobie*, 20, Bizkaiko Foru Aldundia, 57-86.

[77] Ua-37188: 2730 +-30; CAL 2 sigma: 930-810 BC.

regata, formando una terraza artificial que alberga las ruinas de tres hornos de calcinación de mineral y numerosos edificios correspondientes a las infraestructuras fabriles de procesado y transformación del mineral de cobre. Aguas abajo del enclave, y a corta distancia del mismo se encontraba la presa del embalse que sabemos era de madera, los canales y fábricas de elaboración del concentrado. En este espacio de trazado longitudinal en torno al eje marcado por el cauce se distinguen varias áreas. En la zona más alta se encontraban el horno y los talleres de la sociedad «Menor Parte"; mas abajo se hallaban dos hornos y edificios de la sociedad «Mayor Parte» junto con los edificios comunes a ambas compañías, entre los que se encontraban el centro religioso y dos tabernas. En origen se trataba de una única empresa minera, pero en 1752 se dividieron en dos, recibiendo los nombres de *Menor Parte* y *Mayor Parte* respectivamente. Los trabajos de minería y concentrado de mineral, eran comunes para las dos compañías, repartiéndose el producto extraído en una proporción pactada.

Siguiendo el eje de la regata se encuentran las majadas pastoriles levantadas sobre amplios escoriales de desecho de las fundiciones y, más abajo, los restos del embalse ya comentado. Servía para recoger y elevar el agua que se utilizaba para accionar las ruedas hidráulicas que movían la maquinaria con la que se trituraba el mineral o *bocarte*. El agua discurría por un canal abierto en el terreno en la margen derecha hasta el salto sobre las ruedas, cuya posición todavía se reconoce en el terreno.

Tras estas primeras labores de identificación de los restos del poblado minero, se inició una prospección sistemática en el área minera que se extiende de oeste a este, desde Buruntzusin, hasta la cima de Uakorri. Inventariamos las extracciones al aire libre y las bocas de minas, localizando además numerosos vaciados de monteras. Al pié de los escarpes rocosos se detectaron varias explanadas sobre potentes escolleras. Por experiencia acumulada en otras zonas de media montaña[76], sabíamos que, por lo general, son resultado de intervenciones para preparación de lugares de hábitat prehistórico. Por esta razón se planificaron varias catas de prospección que, efectivamente, confirmaron con la recuperación de material cerámico elaborado a mano, carbonatos de cobre, pequeños fragmentos de escorias y otros ajuares que pertenecían al período comprendido entre el Calcolítico y la Edad del Hierro. Una datación de C14 sobre muestras de carbón asociadas a los restos descritos vino a concretar las fechas entre los años 930 y 810 BC[77].

La explanada donde se realizaron las catas de prospección se sitúa en una posición dominante y estratégica sobre el valle de Arritzaga; cuenta con planos a diferentes niveles, unidos con plataformas y tramos escalonados, además de muros de contención de gran porte. Ocupa un emplazamiento inmediato al lapiaz en el que, además, se detectó una pequeña explotación minera a cielo abierto. En una pequeña brecha se pudo

[76] Gandiaga, B; Ugalde, Tx; Urteaga, M., (1992). «Prospecciones arqueológicas en Urbia: Yacimientos catalogados en las campañas de 1990 y 1991». *Kobie*, 20, Diputación Foral de Bizkaia, 57-86.

[77] Ua-37188: 2730 +-30; CAL 2 sigma: 930-810 BC.

nuen. Torrefakzioaren teknikaren bidez erauzi zuten mea, eta suaren ekintzaren emaitza diren ohiko kupulak kontserbatu direla esan behar dugu.

Aspaldiko meatzaritzaren lekuko hau egiaztatu ostean, espazioaren ikuspuntutik Brontze Aroko okupazioarekin lotuta dagoen lekuko hau egiaztatu eta gero, miaketa sistematikoak egin genituen inguruetan, eta ondorioz aspaldiko meatzaritzaren beste bi lekuko aurkitu genituen, neurriz apartak biak.

Uakorriko gaineraino igotzen diren Jurasikoaren azken garaiko kareharrizko barraren erdiko eta goiko aldeetara mugatu genuen miatu beharreko eremua. Airetiko argazkien bidezko eta tokian tokiko miaketa sistematikoaren bidezko metodoak baliatu genituen sektore honetan. Miatutako eremuan txandaka ageri dira lapiazaren azaleratzeak nahiz kareharrizko geruzak eta larreak nahiz betegarri artifizialak dituzten egiturak. Azken hauek positiboki baloratu bagenituen ere, kareharrizko guneak eta hustutako balizko mea poltsak zituzten guneak izan genituen miaketa lanen xede nagusiak.

Hiru taldetan banatzen dira miaketa lanen emaitzak:

- Putzuak.
- Galeriak.
- Erretenak.

Putzuak

Mea bertikalean erauzteko lanak dira, 5 eta 10 metro sakon, sekzio irregularrekoak; oraindik kontserbatu egiten dira mea arrastoak paretetan. Putzu batzuek segida dute hainbat metroko garaiera duen galeria oso estu batean.

Galeriak

Meategi nagusia, ARR 21, guztira 74 m luze da, irregularra eta oso-oso bihurria. Beherantz egiten du, eta konplexuko sabaian gutxi gorabehera 20 cm-ko mearen zaina hautematen da. Alboetan hainbat galeria mehe ditu, horietan metatzen zituzten harri antzuak galeriak ustiatzen zituztenean. Hormetan ondo asko nabari dira torrefakzioaren metodoaren bidez egindako indusketa lanak eta pikotxek zainetan utzitako arrastoak. Zulo honetan zundaketa arkeologiko bat egin genuen eta hormei atxikita ikatz ugari erregistratu genuen. Ikatzak datatu eta gutxi gorabehera 3200 BP urteko kronologiak eskaini dituzte[78]. Zundaketa horretan bertan, karraskariek egindako zulo ugariek nahasitako mailan, erromatarren garaiko zeramika arruntaren zati bat aurkitu genuen, Bizkaiko Golkoa motakoa[79].

Erretenak

Ustiatzeko modalitate honetan aspaldiko meatzariek hustu egin zituzten karstaldeko aspaldiko bideak kobre mearen noduluak ateratzeko xedean. Ikusga-

[78] Datazio garaikideak eskaintzen dituzten bi lagin dira:
Ua-41239: 3181 +_33 BP; CAL 2 sigma: 1520-1425 BC.
Ua-41240: 3245+-33 BP; CAL 2 sigma: 1610-1440 BC.

[79] Urteaga Artigas, M.;Amundaray Gangoitia, L., (2003). «Estudio de la cerámica procedente del puerto romano de Irun. Avance de las investigaciones», *Boletín Arkeolan* 11, 59-103.

observar la extracción de mineral de una bolsa incrustada en los estratos calizos mediante la técnica de torrefacción, habiéndose conservado las características cúpulas resultantes de la acción del fuego (ARR3).

A partir de la constatación de este testimonio de minería antigua, relacionada espacialmente con una ocupación de la Edad del Bronce se llevaron a cabo prospecciones sistemáticas en los alrededores que se han saldado con el descubrimiento de otros testimonios de minería antigua de dimensiones sobresalientes.

El área de las exploraciones se centró en las zonas medias y altas de la barra calcárea del Jurásico final que ascienden hasta la cumbre de Uakorri. En este sector se utilizaron métodos de prospección por fotografía aérea y batidas sistemáticas sobre el terreno. La zona prospectada se caracteriza por combinar afloramientos de lapiaz y estratos de roca caliza con zonas de pasto y pequeños reductos con rellenos artificiales. Si bien estos últimos fueron valorados positivamente, el objetivo principal de las exploraciones se centró en las zonas de caliza y los posibles vaciados de bolsas de mineral.

Los resultados de las exploraciones se reparten en tres grupos:

- Pozos.
- Galerías.
- Zanjas.

Pozos

Se trata de trabajos de extracción verticales de 5 a 10 m de profundidad de sección irregular, donde todavía se encuentran trazas de mineral en las paredes. En algunos casos, los pozos tienen su continuación en una galería muy estrecha y de varios metros de altura.

Galerías

La mina principal, ARR 21, tiene un desarrollo total de 74 m de recorrido irregular y laberíntico. El recorrido es descendente y se aprecia el filón de mineral de unos 20 cm en el techo del complejo. Existen varias galerías laterales muy estrechas donde se depositaron los estériles durante la explotación. En sus paredes se aprecia claramente los trabajos de excavación realizados por el método de torrefacción, así como las improntas de los picos sobre el filón. En esta cavidad se ha realizado un sondeo arqueológico, hallándose abundantes carbones adosados a las paredes. Han sido datados y han proporcionado cronologías de unos 3200 años BP[78]. En esa misma cata y en un nivel revuelto por numerosas madrigueras de roedores, se halló un fragmento de cerámica común romana del tipo Golfo de Bizkaia[79].

Zanjas

En esta modalidad de explotación, los mineros antiguos vaciaron los antiguos conductos kársticos, para extraer nódulos de mineral de cobre. La impronta sobre

[78] Se trata de dos muestras con dataciones contemporáneas:
Ua-41239: 3181 +_33 BP; CAL 2 sigma: 1520-1425 BC.
Ua-41240: 3245+-33 BP; CAL 2 sigma: 1610-1440 BC.

[79] Urteaga Artigas, M.;Amundaray Gangoitia, L., (2003). «Estudio de la cerámica procedente del puerto romano de Irun. Avance de las investigaciones», *Boletín Arkeolan* 11, 59-103.

rriak dira bertan utzitako arrastoak, airetiko argazkian ere hautematen dira. Lapiazeko arrakalak hustu zituzten hamarnaka metroko luzeran eta 6 m bitarteko sakoneran. Erretenetatik ateratako buztinak ondoan utzi zituzten korridore paralelo bat eratuz; bertan osatu da larrea, berau inguratzen duen kareharrizko lapiazarekin kontraste bizia egiten duena (ARR 7, ARR 8 eta ARR 15).

Erreten hauetatik hurbil, ARR8 erretenetik gertu zehazki, egitura txiki batzuen hondakinak identifikatu genituen. Burura eramandako katek aukera eman zuten haren baitan kobre mea eta ikatz asko erregistratzeko. Kasu honetan Erdi Arora garamatzate datazioek[80].

el terreno es espectacular, apreciándose su huella incluso en la foto aérea. Se tratan de vaciados de grietas en el lapiaz que alcanzan decenas de metros de longitud con una profundidad de hasta 6 m. Las arcillas extraídas de las zanjas, fueron depositadas junto a las mismas, dejando un pasillo paralelo donde se ha formado un pastizal que contrasta vistosamente con el lapiaz de caliza desnuda que le rodea (ARR7, ARR8 y ARR15).

En las inmediaciones de estas zanjas, concretamente junto a la zanja ARR8, se han reconocido restos de pequeñas estructuras. Las catas de prospección realizadas han permitido reconocer en su interior mineral de cobre y abundantes carbones. Las dataciones en este caso corresponden al período medieval[80].

T. Ugalde

C.30.2. **Aralar mendikatea: Ondarre eta Pagabe**

Zuzendaritza: J. A. Mujika Alustiza
Diru-laguntza emailea: Gipuzkoako Foru Aldundia

C.30.2. **Sierra de Aralar: Ondarre y Pagabe**

Dirección: J. A. Mujika Alustiza
Subvención: Diputación Foral de Gipuzkoa

Throughout 2011 we continued to prospect in the Aralar mountain range with sondages being carried out in the Ondarre depression, specifically in a cist and alignment near Pagabe.

Azken urteetan miaketa eta zundaketa batzuk egin ditugu Aralar aldeko beste hainbeste tokitan. Hala eta guztiz ere, 2011ko kanpainan batez ere Ondarre aldera mugatu gara, esku-hartze arkeologikoek elkarren artean loturarik ez zuten informazioak eskaini baitzituzten eta informazio horiek interesgarriak izan zitezkeelako giza taldeek populatutako ingurua hobe ulertzeko. Izan ere, hainbat azterketa abiarazi dira HAR2008-03976/HIST eta HAR2008-05797/HIST Proiektuen esparruan. Lan hauek burura eramateko garaian Gasteizko Letra Fakultateko ikasleak eta Azkoitiko Munibe Taldeko kideak izan ditugu lagun.

Aralar mendikatearen (Gipuzkoa) hego-mendebaldeko sektorean dago Ondarreko sakonunea, Jurasikoko nukleoaren itxitura periklinalaren eta Aralarreko antiklinalaren hegoaldeko adarraren artean. Alde honetan eskuarki hegoaldetik iparraldera egiten duen ibaiko-karstaldeko sakonune bat eratu da. 1275 metro luze da eta gehienez ere 540 m zabal. Halatan sakonune luzea da, hondoa partzialki beteta duena ibai eta uhar jatorriko material detritikoekin, gainazala aski laua da eta iparralderantz makurtzen da, 772 eta 766 metroko koten artean. Ondarreko zuloa edo hustubidea da punturik beherena, 749 metroko garaieran dago.

Ondarreko ibaiko-karstaldeko sakonuneko betegarri detritikoa gutxi gorabehera 17 metro lodi da ikus daitekeenaren arabera. Sedimentua bi alditan pilatu da hemen, lehenengoa gutxi gorabehera 30120 ± 248 eta

Durante los últimos años se han prospectado y practicado sondeos en distintas áreas de Aralar. Sin embargo, durante la campaña de 2011 nos hemos centrado preferentemente en la zona de Ondarre, donde las distintas intervenciones arqueológicas habían aportado informaciones puntuales desconexas que pudieran ser de interés para la comprensión del medio habitado por distintos grupos humanos, habiéndose iniciado varios estudios en el marco de los Proyectos HAR2008-03976/HIST y HAR2008-05797/HIST. En estos trabajos se ha contado con la colaboración de alumnos de la Facultad de Letras de Vitoria-Gasteiz y miembros del Grupo Munibe de Azkoitia.

La depresión de Ondarre se localiza en el sector suroccidental de la Sierra de Aralar (Gipuzkoa) y, más concretamente, entre el cierre periclinal del núcleo Jurásico y el flanco meridional del anticlinal de Aralar. En esta zona se ha desarrollado una depresión fluvio-kárstica, de dirección general S-N. Tiene una longitud de 1275 m oscilando su anchura máxima en torno a los 540 m lo que determina el desarrollo de una depresión alargada cuyo fondo está parcialmente colmatado por materiales detríticos de origen fluvio-torrencial, configurando una superficie relativamente plana e inclinada hacia el N, desarrollada entre los 772 y los 766 m. El punto más bajo lo constituye la sima sumidero de Ondarre, la cual se localiza a 749 m.

El relleno detrítico de la depresión fluvio-kárstica de Ondarre presenta una potencia máxima observable de unos 17 metros. Su deposición se ha producido en dos fases diferentes, una situada cronológicamente en torno

[80] Ua-38760: 866+-31 BP; CAL 2 sigma: 1040-1100 (15.1%). 1120-1260 (80.3%).

[80] Ua-38760: 866+-31 BP; CAL 2 sigma: 1040-1100 (15.1%). 1120-1260 (80.3%).

25.434 ± 326 cal. BP bitartean, eta bigarrena gutxi gorabehera 15980 eta 13050 cal. BP bitartean. Alubioizko sorta heze batek eratzen du multzo basala, barra luze batzuek eta gainezka egindako deposituek eta abandonatutako kanaleko betegarriek osatzen dute hura. Haren gainean bigarren metaketa bat egokitzen da, depositu finek eratua. Depositu hauek, antza, Ondarre I zuloa edo hustubidea ixtean sakonunearen parterik handiena hartu zuen aintziraren mailan dute jatorria. Zuloa edo hustubidea irekitzean sakonunea hustu eta Ondarre aldeko egungo sare hidrografikoa itxuratu zen, eta egun sedimentua ebakitzen duten 2 haran osatu ziren. Berriki lortutako datazio baten arabera 12840-12700 cal. BP daten ingururako gauzatua zen aipatu ebakia.

Oraingoz trikuharriak dira Aralar mendikatean aurkitutako giza presentziaren hondakin aspaldikoenak, baina badira hamarraldi bi baino gehiago Argabi trikuharritik metro gutxi batzuetara Azil kultura aldian kokatu litekeen gezi mutur bizkardun bat aurkitu genuela. Aurten, Esnaurretatik Ondarreko zulora jaisten den bidean, levallois teknikaren arabera landutako harri printza edo laska oso bat, higatu gabea, berreskuratu dugu; mendikate honetan Erdi Paleolitoan zehar izandako gizakien presentziaren aurreneko froga litzateke. Aurkikuntza hau bat letorke hurbil dagoen Urbasako mendialdean egindako aurkikuntza ugariekin. Bestalde, zista induskatzean Argabikoaren antzeko beste gezi mutur bizkardun bat aurkitu dugu, baita beste harri printza edo laska batzuk ere, toki honetan, agian Azil kultura aldian, gizakiaren behin-behineko presentzia iradokitzen dutenak.

Aurtengo urtarrilean, Munibe Taldeko kideak lagun (J. Alberdi, J. Arruabarrena, M. Sasieta) Ondarre aldera egin genuen irteeran, Esnaurretarantz igotzen den mazelaren oinetan eta zuloaren-hustubidearen ertzetik gertu, oteen artean, paraleloan egokitutako bi lauza eta bloke batzuk aurkitu genituen. Zalantza batzuk planteatzen zituen haien izaerak artzainen egiturekin partekatzen dutelako espazioa; zista bat izan zitekeen edo artzainen egitura txiki baten hondakinek osatutako multzoa. Tokiaren ezaugarriak kontuan izanik, haranaren hondoan eta zuloaren-hustubidearen ertzean, ez zuen sinesgarritasun handirik eskaintzen lehenengo hipotesiak.

Esku-hartze arkeologikoak, hasieran bederen, gutxi gorabehera 3 m^2-ko landare geruza altxatzea zuen xede harrizko mailaraino iristeko, gero, hala behar izanez gero, haietakoren batean sakontzeko. Horretarako laukitan banatu genuen 9 m^2-ko azalera, eta paraleloan egokitutako lauzek itxuraz mugatzen zuten espaziotik kanpora hasi ginen zotala altxatzen. Hala eta guztiz ere, giza hondakinak azaltzen hasi ziren lauzen iparraldeko laukiaren gainazaleko mailan. Hezur hauek, agian, «ganbararen» hustetik etorriak dira, eta horrexegatik erabaki genuen hasieran planteatutako eremua zabaltzea. Horri esker ikusi genuen nola paraleloan egokitutako lauzek, itxura batean jatorrizko hilobia osatzen zutenek, zista baten hegoaldea osatu zuten, egun erabat desitxuratuta dagoen zistaren hegoaldea. Zundatutako eremua zabalduta hainbat prozesu mekanikok alboetako lauzak lekuz aldatu zituztela ikusi genuen, hilobiko estalkia haren barrura erorarazi zutela, eta prozesu kriptokorrosiboek zuzeneko eragina izan zutela haietan, beren berreraikuntza guztiz zailduz edo ezinezko eginez.

al 30120 ± 248 y 25.434 ± 326 cal. BP y otra alrededor del 15980 y 13050 cal. BP. El conjunto basal se define como un abanico aluvial húmedo configurado por una serie de barras longitudinales junto con depósitos de desbordamiento y rellenos de canal abandonado. Sobre él se desarrolla un segundo nivel de acumulación, constituido por depósitos finos cuya génesis parece relacionarse con un nivel lacustre que ocupó la mayor parte de la depresión al cerrarse la sima sumidero de Ondarre I. La apertura de la sima sumidero provocó el vaciado de la depresión y el encajamiento de la actual red hidrográfica de Ondarre, modelándose los 2 valles que actualmente inciden el sedimento. Una reciente datación pone de manifiesto que dicha incisión ya había ocurrido en el 12840-12700 cal. BP.

Hasta el momento, los restos de presencia humana más antiguos descubiertos en la Sierra de Aralar son los dólmenes, aunque a unos pocos metros del dolmen de Argarbi hace más de dos décadas habíamos recogido una punta de dorso que podría encajar bien en el aziliense. El presente año, en la senda que desciende de Esnaurreta a la sima de Ondarre hemos recuperado una lasca levallois completa y no rodada, que vendría a ser la primera prueba de presencia humana durante el Paleolítico Medio en esta sierra. Este hallazgo estaría en consonancia con otros producidos en la cercana sierra de Urbasa, donde son abundantes. Por otro lado, durante la excavación de la cista fue recuperada otra punta de dorso similar a la de Argarbi, además de otras lascas que parecen indicar una eventual presencia humana en el lugar, quizás durante el Aziliense.

El mes de enero del presente año, en visita realizada a la zona de Ondarre en compañía de miembros del Grupo Munibe (J. Alberdi, J. Arruabarrena, M. Sasieta), descubrimos en la base de la ladera que asciende hacia Esnaurreta, y junto al borde del sumidero-sima, un par de losas paralelas entre unas árgomas, además de algunos bloques. Su naturaleza no era neta ya que comparte el espacio con estructuras pastoriles, pudiendo ser una cista o restos de una pequeña estructura pastoril desmantelada. La primera de las hipótesis era bastante lejana por las características del emplazamiento, en un fondo de valle y al borde de un sumidero-sima.

La intervención arqueológica, inicialmente, tenía por objeto levantar la capa vegetal en unos 3 m^2 hasta el nivel de piedras, para a continuación, si era necesario, profundizar en alguno de ellos. Para ello se procedió a cuadricular una superficie de 9 m^2, acometiendo la labor de levantar el tepe fuera del espacio que aparentemente delimitaban las losas paralelas. Sin embargo, en el cuadro situado al norte de las losas comenzaron a aparecer restos humanos a nivel superficial, quizás como consecuencia del vaciado de la «cámara», lo que nos llevó a ampliar el área inicialmente planteada. Sin embargo, a raíz de ello comprobamos que las losas paralelas que, aparentemente, conformaban el recinto sepulcral en origen habían constituido el lado meridional de una cista, en la actualidad totalmente desfigurada. La ampliación nos mostró que diversos procesos mecánicos habían provocado el desplazamiento de las losas laterales, la caída de la cubierta en el interior del recinto funerario, y que procesos criptocorrosivos habían actuado profundamente sobre ellas dificultando o imposibilitando su reconstrucción.

Zistaren kokalekua Ondarreko hustubidearen ertzean.

Emplazamiento de la cista en el borde del sumidero de Ondarre.

Hona hemen mugatutako ganberaren neurriak: 130 (luze) x 90-110 (zabal) x 60 cm (garai). Hura eratzen zuten lauzetatik kareharrizko lauak ia jatorrizko lekuetan daude. Iparraldean dagoena atzerantz erori zen eta ipar-ekialdeko angeluan dagoena aurrerantz; desagertu egin da ekialdekoa (antza haren zatiak kontserbatzen dira), eta hegoaldean bata bestearen ondoan ageri da, baita hareharrizko beste bloke bat ere horma bularrarena eginez. Lauzek mugatutako espazioaren barruan estalkiko lauza zegoen, disoluzio prozesuek oso nahasita eta hainbat puskatan. Haren azpian eta pusken artetik edo haien ingurutik azaleratzen, gutxienez 3 norbanakori zegozkien giza hezurrak aurkitu genituen, baita zeramika zatiak eta sukarriak ere.

Ganberan, aipatu hezurrak atera eta gero, zenduei lur eman aurreko orban karbonotsu bat erregistratu genuen. Antzeko monumentu batzuk gogoan eta erradiokarbonoaren bidezko datazioen zain gauden honetan, guk uste dugu monumentu hau Brontze Aroaren hasieran eraiki eta erabili zutela.

Hilobia oso hondatuta zegoenez, Giorgio Studer adituaren laguntza izan genuen lauzak sendotzeko eta, indusketa lanak amaitu eta gero, monumentua berreraikitzeko balizko prozesua aztertzeko.

Era berean, kata batzuk ireki genituen zistaren inguruan hileta izaerako egitura aztertzeko lanetan zehar berreskuratu genituen harrizko hondakin batzuk interpretatzeko xedean. Horien artean aipagarria da gezi mutur bizkardun bat, zalantzarik gabe aurreko kronologia batekoa dena. Beraz ez dugu baztertzen denboran gutxi iraungo zuen finkamendu batekin lotutako geruza mehe bat, agian Azil kulturaren aldikoa, egotea.

Bestalde, Ondarreko sakonunean berean, zundaketa bat abiarazi genuen blokeek eraturiko errenka-

Las dimensiones de la cámara delimitada son: 130 (L) x 90 a 110 (z) x 60 cm (alt.). De las losas que la conformaron las cuatro de caliza no han sufrido grandes desplazamientos. La situada en el lado norte cayó hacia atrás y la del ángulo noreste hacia delante; la del lado oriental ha desaparecido (al parecer se conservan trozos de ella) y, finalmente, en el lado sur, una a continuación de otra, además de otra de arenisca a modo de contrafuerte. En el interior del espacio delimitado por las losas se identificaba la de cubierta, muy alterada por procesos de disolución, en varios trozos. Bajo ella y sobresaliendo entre los trozos, o en la periferia de ellas, se recuperaron restos humanos correspondientes al menos a 3 individuos, además de trozos cerámicos y sílex.

En la cámara, tras la exhumación de dichos restos, se definió una mancha carbonosa previa a las inhumaciones. Provisionalmente, a la luz de otros monumentos similares situamos su construcción y uso durante el Bronce Antiguo, a la espera de dataciones radiocarbónicas.

Dado el grado de deterioro del sepulcro, se contó con la colaboración de Giorgio Studer para consolidar las losas, así como para analizar un posible proceso de reconstrucción del monumento una vez finalizada su excavación.

También se realizaron otra serie de catas alrededor de la cista con el fin de interpretar algunos de los restos líticos recuperados durante la intervención en la estructura funeraria. Entre ellos destaca una punta de dorso, de cronología claramente anterior, por lo que no descartamos la posible existencia de algún débil horizonte relacionable con una efímero campamento, quizás aziliense.

Por otra parte, en la misma depresión de Ondarre, se inició un sondeo en un pequeño alineamiento de

da txiki batean. Heldu den kanpainan saiatuko gara haren izaera argitzen.

Bukatzeko, emaitza negatiboak eskaini zituzten kata batzuk ireki genituen Pagabe aldean. Pagabeko Koban, lapiazaren erdialdean dagoen leizean, 2x1 metroko zundaketa bat abiarazi genuen, baina sakontzeko zailtasunak eta deposituaren ezegonkortasunak sorrarazten zuen arriskuak eraman gintuzten hura bertan behera uztera. Depositua oso arriskutsua zen estratigrafia lur karbonotsuek eta ez hain karbonotsuek partzialki batutako harri koskorrez eta blokeez eratuta zegoelako hein batean. Garai historikoetan kokatu litezke depositu honetan berreskuratutako hondakin arkeologiko urriak.

bloques cuya naturaleza trataremos de dilucidar la próxima campaña.

Finalmente, en la zona de Pagabe, se han practicado varias catas con resultados negativos. En Pagabeko Koba, cavidad situada en medio del lapiaz se practicó un sondeo de 2x1 metros, que se abandonó por la dificultad de ahondar y por la peligrosidad que engendraba la inestabilidad del depósito. Este presentaba una gran peligrosidad por estar la estratigrafía constituida parcialmente por cantos y bloques parcialmente cohesionados con tierra más o menos carbonosa. Los escasos restos arqueológicos recuperados pueden atribuirse a fechas históricas.

J.M. Edeso Fito; A. Lopetegi Galarraga; J.A. Mujika Alustiza

C.31. URNIETA

C.31.1. **Atxetilun gotorlekua**

Zuzendaritza: Ander Arrese
Finantziazioa: Urnietako Udala

C.31.1. **Fortificación de Atxetilun**

Dirección: Ander Arrese
Financiación: Ayuntamiento de Urnieta

During this first archaeological assessment season, in which sondages were carried out in Atxetilun fort (Urnieta), we documented part of the external defensive structures, along with some remains of internal structures. From a quantitative point of view the material recovered was scarce and failed to provide all the expected information. Consequently, a second season will be carried out in the future in order to define the site more precisely.

Barrutiaren itxitura hormak arkeologikoki aztertzeko lanak izan dira kanpaina honetan helburu nagusiak. Beraz, harresia dagoen lekuan planteatu genuen aurreneko zundaketa. Emaitzak positiboak izan ziren, baina babesteko egituraren kontserbazio egoera kaskarra zen. Harresi hau bertako kareharrizko errenkadek osatua da, harrien artean hartxintxar txikiak eta lurra. Lehenengo zundaketa honetan ez genuen material arkeologiko askorik erregistratu.

Babesteko harresiak mugatutako barrutiaren barnean planteatu genuen bigarren zundaketa, egituren hondakinak topatu genituen aldean. Alde honetako estratigrafia mehea da (10 cm), eta 1. zundaketan bezalaxe, horrek neurri handian baldintzatzen zituen emaitzak, erregistratutako materialen kopuruari bagagozkio. Eta ez genuen sutegi edo paldoei leku egiteko zuloak bezalako bizitokiko egituren arrastorik hauteman.

Guk uste dugu 2011ko kanpaina honetan bete egin direla aurreikusitakoak eta aurrez planteatutako helburuak, burura eramandako zundaketak lagungarriak izan baitira barruti gotortu honetan baliatutako eraikuntzaren teknika eta forma identifikatzeko garaian.

Esta campaña se ha centrado en el análisis arqueológico de los muros de cierre del recinto. Por lo tanto, el primer sondeo se planteó junto al lugar donde se encuentra el paso de la muralla. Los resultados fueron positivos, aunque el nivel de conservación de la estructura defensiva no sea notable. Encontramos que la construcción se realiza, superponiendo líneas de piedra caliza local con ripios de piedra menuda y tierra. En este primer sondeo, no recuperamos gran cantidad de material arqueológico.

El segundo sondeo se planteó en el interior del recinto delimitado por construcción muraría defensiva, donde encontramos restos de estructuras. La zona seleccionada, posee escasa potencia estratigráfica (10 cm) esto condiciona en gran medida los resultados en cuanto a la cantidad de materiales recogidos, igual que en el sondeo 1. Tampoco localizamos evidencias de estructuras de habitación tales como hogares o agujeros de poste.

Consideramos que esta campaña de 2011 ha cumplido con las expectativas y objetivos establecidos, ya que los sondeos realizados nos han ayudado, a identificar la forma y la técnica de construcción empleada en este recinto fortificado.

A. Arrese; X. Padin

C.32. **USURBIL**

C.32.1. **Urdaiaga jauregia**

Zuzendaritza: Xabier Alberdi Lonbide
Finantziazioa: Jabekideen komunitatea

C.32.1. **Palacio Urdaiaga**

Dirección: Xabier Alberdi Lonbide
Financiación: Comunidad de Propietarios

Prior to the work scheduled for the palace in this phase of the project, a documentary study was carried out, along with the stratigraphic documenting and analysis of the walls, in order to help with the decision-making process during the restoration of this historic building. The work carried out enabled us to identify the evolution of the construction phases, from the end of the 15th century to the present day.

Jauregi honetan proiektu aldiari ekin baino lehen, dokumentuak aztertu eta hormak dokumentatu eta haien estratigrafia aztertu genuen eraikin historiko hau berritzeko orduan erabaki egokienak hartzeko xedean. Burura eramandako lanak aukera eman digu eraikin honen eraikuntza aldien bilakaera identifikatzeko. Jarraian azalduko ditugu aldi hauek:

1. aldia: jauregiaren eraikuntza

Eskuratutako dokumentuetako datuek eta eraikinaren ezaugarri fisikoek adierazten duten bezala, XV. mende bukaeran proiektatu eta 1490. eta 1520. urte bitartean eraiki zuten jauregi hau. Eraikina «ex novo» altxa zuten berariaz aukeratutako orube batean, eraikinik ez zuen orubean. Lehenengo aldi honetan oinplano koadroko jauregi handi bat eraiki zuten, 20 x 20 metrokoa, barrutik eta erditik suhesi-horma batek bitan banatua, perimetroko hormak 1,13 metro zabal. Eraikin handi honetara garamatzate XVI. mende erdialdeko deskripzio batzuek; segur asko 1594. eta 1600. urte bitartean itxuratutako eta marraztutako oinplanoak eta hormak Hijarreko dukearen artxiboan kontserbatzen dira. Iturri mota bi hauen arabera behe oinaz eta elkarren gainean egokitutako solairu biz osaturiko eraikin handia zen. Gailurrean lau garita edo ertzetako kubo izango zituen, eta fatxada nagusiaren erdialdean, jauregira sartzeko ate handiaren gainean, arkabuzez tiratzeko matakan bat. Estilistikari dagokionez, gotikoaren formak zituen, eta gotorleku baten edo kutsu militar nabariko eraikinaren itxura zuen (ingurabide batez inguraturiko gainaldea, garitak ertzetan, matakana, suhesi-horma, euskarrietan bermatutako urkamendia, etab). Hala eta guztiz ere, eraikinaren jabea zen leinuaren antzinatasuna (hortik eraikinaren estilo gotikoa) eta izaera noblea (babesteko elementuen eta izaera militarreko elementuen erabilera) modu sinboliko batez agerian uzteko eraikuntza programa baten partea osatzen zuten elementu horiek guztiek egiazki. Gipuzkoako beste jauregi batzuetan ere dokumentatuta dago antzeko helburuak izan zituzten baliabide arkitektoniko hauen erabilera.

2. aldia: arian-arian hondatzen

1594. urtetik aurrera Urdaiagako oinordekotzaren titularrak utzi egin zioten jauregi honetan bizitzeari. Hurrengo hamarraldietan hainbat aldiz alokatu zuten

Con carácter previo a abordar la fase de proyecto en este palacio se ha realizado un estudio documental y la documentación y análisis estratigráfico de los paramentos para facilitar la toma de decisiones destinadas a la reforma de esta edificación histórica. El trabajo desarrollado nos ha permitido identificar la evolución de las fases constructivas de este edificio que pasamos a desarrollar:

Fase 1: construcción del palacio

Fue proyectado a finales del siglo XV y erigido entre las décadas de 1490 y 1520, según indican los datos documentales obtenidos, así como sus características físicas. La edificación se realizó «*ex novo*», en un solar vacío expresamente escogido para ello. Durante esta primera fase se completó la construcción de un gran palacio de planta cuadrada, de 20 x 20 m, dividido en su mitad por un muro cortafuegos interno, y con muros de 1,13 m de espesor. A este imponente edificio remiten algunas descripciones de mediados del siglo XVI y cuyas plantas y alzados, trazados probablemente entre 1594 y 1600, se conservan en el archivo del duque de Híjar. De acuerdo con ambos tipos de fuentes, se trataba de un gran edificio con planta baja y dos plantas elevadas superpuestas. Estaba rematado por una crestería dotada de cuatro garitones o cubos esquineros, y un matacán con arcabuceras en el centro de la fachada principal, sobre la gran puerta de acceso al palacio. Estilísticamente, el edificio seguía las formas del gótico y contaba con diversos elementos constructivos que le conferían un marcado aire militar o defensivo (crestería con paso de ronda, garitones esquineros, matacán, muro cortafuegos, cadalso sobre ménsulas, etc.). No obstante, estos elementos formaban parte en realidad de un programa constructivo destinado a poner de manifiesto de manera simbólica la antigüedad (de ahí el uso del estilo gótico) y el carácter noble (uso de elementos de carácter defensivo-militar) del linaje propietario. El empleo de estos recursos arquitectónicos con fines similares se ha documentado en otros palacios de Gipuzkoa.

Fase 2: progresivo deterioro

A partir de 1594, los titulares del mayorazgo de Urdaiaga dejaron de habitar el palacio. En las décadas siguientes el edificio se arrendó en varias ocasiones,

higiezina, baina maizterrek nahi zuten nekazaritza erabilerarako egokia ez zenez, erabilerak eta denboraren joanak eragindako matxurak konpontzeko gastuak ordaintzeko adina errenta ere ez zuen eskaintzen. Horren ondorioz, arian-arian hondatu egin ziren jauregiko egiturak.

3. aldia. nekazaritza erabilerei egokitzeko aurreneko berritze lanak

1664. urtean izenpetu zen kontserbatutako eraikina alokairuan uzteko kontratuetako bat. Haren arabera maizterrek ate bat ireki beharra zuten ekialdeko horman, behe oinean ukuiluratu beharreko azienda ezkaratzetik eta ate handitik, ordura arte zegoen sarrera bakarretik, pasa ez zedin.

4. aldia: baserri bihurtzeko berritze lanak

XVIII. mende amaieran jabeak eraikina erabat berritzeko erabakia hartu zuen mende bat lehenagotik jasaten zuen degradazio prozesua gerarazteko eta behin betikoz nekazaritza egitekoetara egokitzeko. Eraikinak galdu egin zuen altueran, gainaldea eraitsi zuten, eta suhesi-horma euskarri nagusia izango zuen teilatu berri bat eraiki zuten. Hori guzti hori hondamen prozesua gerarazteko eta eraikina nekazaritza izaerako beharretara egokitzeko. Baliteke aldi honetan erabaki izana eraikinaren ekialdeko sektorea desmuntatzea, ordutik aurrera estalpe bihurtu baitzen, aspaldiko suhesi-hormari atxikita. Horma hau eraikinaren ekialdeko fatxada bihurtu zen. Honenbestez bihurtu zen egungo itxuraren jabe, dorre angeluzuzena, oinean 20 x 10,5 metroko azalerarekin.

5. aldia: estalpearen suntsipena

Jaso ditugun lekukotasunen arabera, XIX. mendearen erdialdera uholde handi bat izan eta eraikinaren ekialdeko hormari atxikiriko estalpea suntsitu zuen luizia gertatu zen. Logikoa denez, kalte gehiago jasan zituzten aipatu estalpea eraikitzeko xedean baliatu zituzten jatorrizko jauregiaren eraikuntza hondakinek.

6. aldia: berritze lanak baserrian

XIX. mendearen bigarren erdialdean garatutako aldi honetan egungo itxuraren jabe egin zen eraikina. Ekialdeko fatxadako teilapea desagerrarazita, beste bi estalpe eraiki zituzten mendebaldeko eta hegoaldeko fatxadetan, hurrenez hurren. Mendebaldeko fatxadan ageri diren mentsulei eta horma zuloei erreparatuta, oso litekeena da alde honetako estalpea hainbat aldiz berritu izana. Ekialdeko fatxadan itsutu egin zuten behe oinari sarrera egiten zion atea, eta beste ate bat ireki zuten, estuagoa, iparraldeko herenean. Aldi berean hainbat leiho ireki zituzten eraikinaren fatxada guztietan.

aunque, al no ser propicio para el uso agropecuario que pretendían sus arrendatarios, no producía siquiera las suficientes rentas para sufragar el arreglo de los desperfectos ocasionados por el uso y el paso del tiempo. A consecuencia de ello se desencadenó un progresivo proceso de deterioro de sus estructuras.

Fase 3: primeras reformas para adecuarlo a usos agropecuarios

En 1664 se firmó uno de los contratos de arrendamiento del edificio que se han conservado. En él, se explicitaba la obligación de que dichos arrendatarios abrieran una puerta en la pared este, para que el ganado que fueran a alojar en la planta baja no tuviera que salir por el zaguán y la entrada monumental, único acceso existente hasta el momento.

Fase 4: reforma para su conversión en caserío

A finales del siglo XVIII el propietario decidió acometer una reforma en profundidad del edificio que pusiera fin al proceso de degradación que arrastraba desde hacía más de un siglo, y lo adecuara definitivamente a sus funciones agropecuarias. El edificio perdía altura, con la eliminación de su crestería, y se planteaba la instalación de una nueva cubierta de la que el muro cortafuegos sería la principal estructura sustentante. Todo ello, con el propósito de detener su proceso de deterioro y adecuar el edificio a las labores agrarias. Es probable que durante esta fase se decidiera el desmontaje del sector oriental del edificio, de manera que en adelante ese sector se transformó en un cobertizo anejo al antiguo muro cortafuegos, que en adelante pasó a convertirse en la fachada este del edificio. De esta forma, adquirió su actual fisonomía de torre rectangular, de 20 x 10,5 m de superficie en planta.

Fase 5: destrucción del cobertizo

De acuerdo con los testimonios que hemos recogido, hacia mediados del siglo XIX se produjo un episodio de inundación y corrimiento de tierras que destruyó el cobertizo adosado al muro este del edificio. Lógicamente, los restos constructivos del primitivo palacio 1, usados para construir dicha tejavana, sufrieron nuevas destrucciones.

Fase 6: reformas del caserío

En esta fase, desarrollada durante la segunda mitad del siglo XIX, el edificio adquirió la fisonomía que presenta en la actualidad. Eliminado el cobertizo de la fachada este, se construyeron dos nuevos cobertizos en las fachadas oeste y sur. Es probable que el del oeste fuese reformado en varias ocasiones, a juzgar por las diferentes líneas de mechinales y ménsulas que se observan en la fachada occidental. En la fachada oriental se procedió al cegado de la puerta que daba acceso a la planta baja y se abrió un nuevo acceso, más estrecho, en su tercio septentrional. Al mismo tiempo, se abrieron nuevas ventanas en todas las fachadas del edificio.

Urdaiaga jauregiaren iparraldeko fatxada.

Fachada norte del palacio Urdaiaga.

7. aldia: azken berritze lanak

XIX. mende amaieratik eta XX. mendean zehar hainbat aldaketa egin dira eraikinean: sukaldea berritu zuten, bainugela eraiki, mendebaldeko fatxadako estalpea berriro ere berritu, hegoaldeko fatxadako terraza moldatu eta ur-putzu batez hornituriko etxola bat eraiki zuten eraikinaren ipar-ekialdeko angeluan.

Konklusio gisa, esan dezagun dokumentuak aztertu eta hormak irakurrita ondo asko identifikatu dugula Urdaiaga Jauregiaren historiaren eta eraikuntzaren bilakaera. Era berean, XVI. mende amaieran dokumentatutako jauregi bikain hau egungo eraikinarekin identifikatzen da Manso de Zúñigak argitara emandako planoetan. Gainera, estiloaren aldetik gotikoari dagozkion eraikuntza elementuen erabilera aski berantiarreko (babesteko izaerakoa edo izaera militarrekoa) beste kasu interesgarri bat dokumentatzeko aukera izan dugu, XVI. eta XVII. mendeetako beste eraikin batzuetan egiaztatu bezala. Urdaiaga Jauregiaren kasuan badakigu XVI. mende hasierako urteetan amaitu zituztela hura eraikitzeko lanak, hau da, eraikin zibiletan eta erlijiosoetan estilo gotikoa artean indarrean zegoen garaian. Bestalde, babesteko elementu multzo oso bat (urkamendiak, almenez babestutako ingurabidea, kuboak ertzetan, matakana eta arkabuzez tiratzeko leihoa) aurreikusten zuen eraikuntza programa aplikatu zuten hura eraikitzean, baina militarra baino izaera ideologikoa eta adierazgarria zuen hark. Jabeen antzinatasuna eta noblezia erakustea zuen xede.

Fase 7: ultimas reformas

Desde fines del siglo XIX y a lo largo del siglo XX se han realizado diversas modificaciones, como la reforma de la cocina, la construcción del baño, la del nuevo cobertizo en la fachada oeste, la de la terraza en la fachada sur, y la construcción de una chabola en el ángulo noreste del edificio, con un pozo para agua.

Como conclusiones cabe destacar que la investigación documental y la lectura de paramentos ha permitido reconocer la evolución histórico-constructiva de Urdaiaga Jauregia e identificar el actual edificio con el magnífico palacio documentado a finales del siglo XVI en los planos y alzados que fueron publicados por Manso de Zúñiga. Y así mismo, nos ha permitido documentar otro interesante caso de uso relativamente tardío de elementos constructivos estilísticamente pertenecientes al gótico y de carácter defensivo-militar, hecho constatado en otros edificios de los siglos XVI y XVII. En el caso de Urdaiaga Jauregia, sabemos que sus obras concluyeron en las décadas iniciales del siglo XVI, en una época en la que el gótico aún permanecía en vigor en las construcciones civiles y religiosas. Por otro lado, en su edificación se aplicó un programa constructivo que incluía todo un conjunto de elementos defensivos (cadalsos, paso de ronda con almenado, cubos esquineros, matacán y arcabucera), pero cuya función era de carácter ideológico y representativo, más que militar. Su propósito era manifestar la antigüedad y nobleza de sus propietarios.

X. Alberdi Lonbide

C.33. ZARAUTZ

C.33.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

C.33.1.1. **Nagusia, 21. Zazpi aretoa**

Zuzendaritza: Alvaro Arrizabalaga
Finantziazioa: CÑD Estudio de Arquitectura; Gipuzkoako Foru Aldundia

C.33.1.1. **Nagusia, 21. Sala Zazpi**

Dirección: Alvaro Arrizabalaga
Financiación: CÑD Estudio de Arquitectura; Diputación Foral de Gipuzkoa

Carried out during 2010, this project lowered the floor level of the Zazpi exhibition room by a couple of centimetres. No archaeological remains of importance were found.

2009. urtean gure laguntza eskatu zuten Zarauzko Zazpi erakusteka aretoaren barruan zorua altxatzeko lanetan zehar kontrol arkeologikoak egin genitzan. Orube hau Herriko Barra aztarnategi neolitikotik gertu dagoenez eta lanaren kota maila arriskutsura iritsiko zenez, prebentziozko proiektu bat idatzi genuen. Hainbat zundaketa ireki genituen aretoaren barruan eta haren kanpoko patioan, baina ez genuen material arkeologikorik identifikatu. Hasieran planteatutakoaren arabera burutu genuen Zazpi aretoko zorua altxatzeko lanen gaineko jarraipen arkeologikoa, landa-lan guztietan ohikoak diren egokitzapen eta eragin txikienak sorraraziz. Ez genuen Erdi Aroaren aurreko gizakien presentziaren aztarnarik aurkitu, ez genuen aipatu aroan kokatzen dugun egitura sorraren (segur asko aspaldiko putzu baten hondoa) aurreko aztarnarik identifikatu.

Durante 2009, fue solicitado nuestro apoyo para el control de una obra de rebaje de suelo en el interior de la sala de exposiciones Zazpi, de Zarautz. Como quiera que el solar se ubicaba relativamente cerca del yacimiento neolítico de Herriko Barra y alcanzaba una cota de riesgo, elaboramos un proyecto preventivo. Fueron abiertas diferentes catas en el interior de la sala y en el patio anexo a la misma, en las que no fueron encontrados materiales arqueológicos. El seguimiento arqueológico del rebaje de la sala Zazpi se desarrolló conforme a lo inicialmente planteado, con las mínimas incidencias y adaptaciones usuales en todas las ejecuciones de campo. No han sido recuperadas evidencias de presencia humana anteriores al periodo medieval, al que se adjudica una estructura latente (posiblemente, el fondo de un pozo antiguo).

A. Arrizabalaga

C.33.2. UDAL BARRUTIA / TÉRMINO MUNICIPAL

C.33.2.1. **Herriko Barra, 6**

Zuzendaritza: Pía Alkain Sorondo
Finantziazioa: Biziportu S. Coop.; Gipuzkoako Foru Aldundia

C.33.2.1. **Herriko Barra, 6**

Dirección: Pía Alkain Sorondo
Financiación: Biziportu S. Coop.; Diputación Foral de Gipuzkoa

Although the main site of reference is located near to the Neolithic Herriko Barra site, the sondages carried out confirmed that the remains associated with the area are located much lower than those foreseen in the excavation plan, with the building's foundations not affecting any elements of historical interest.

Zolarria eta aro garaikideko betegarria kendu eta gero, lauzez egindako zoladura zahar bat eta hari atxikiriko horma bat, espazioa banatzeko horma, erregistratu genituen orube osoan. Era berean, arkeologiaren ikuspuntutik antzuak diren betegarriak identifikatu genituen. Betegarri hauek orube eraikigarria saneatzeko baliatu zituzten, antzina zingirak hartutako espazioan baitzegoen orubea. Aspaldiko zingiraren azpian behar dute, ustez, neolitikoko lekukoak.

En todo el solar tras la eliminación de la solera y un relleno de época contemporánea, se registraba un antiguo pavimento de losas y un muro de compartimentación asociado al mismo, además de rellenos estériles desde el punto de vista arqueológico utilizados para sanear el espacio edificable, al situarse el solar en un antiguo espacio de ciénaga, bajo el cual presumiblemente deberían de localizarse los testimonios neolíticos.

P. Alkain Sorondo

C.33.2.2. **Elizaurre, 2. Narros jauregia**

Zuzendaritza: Xabier Alberdi Lonbide
Finantziazioa: Jabeak

C.33.2.2. **Elizaurre, 2. Palacio Narros**

Dirección: Xabier Alberdi Lonbide
Financiación: Propietarios

Archaeological monitoring of the construction work for laying the new waste water pipe in Narros Palace. The intervention enabled the identification and documentation of diverse construction phases of this emblematic building, which was built on the coast of Gipuzkoa in 1536.

Narros jauregiaren barruko aldean eta lorategian barrena hondakin urak biltzeko hartune berriaren eraikuntza lanen gaineko kontrol arkeologikoa aukera interesgarria izan da Gipuzkoako arkitekturan garrantzi aparta duen eraikin honen eraikuntza aldiak dokumentatzen eta ezagutzen jarraitzeko. Izan ere, dokumentuen azterketa sakonarekin batean jauregiaren hormak xehe-xehe aztertu beharko lirateke eraikinaren eraikuntza prozesua nolakoa izan zen jakiten hasteko. Hainbat eraikuntza aldi bereizi ahal izan genituen, batzuk jauregiaren gorputz nagusiaren mendebaldeko fatxadan, beste batzuk erdiko patioan. Gainera beste jarduera independente batzuk identifikatu genituen, aipatu gorputz nagusiaren mendebaldeko fatxadarekin eta erdiko patioarekin zerikusia duten egiturekin harreman estratigrafikoak ez dutenak. Luzapenak eta behar ez diren zailtasunak saihestearren, ongien dokumentatutako eraikuntza aldiak deskribatuko ditugu jarraian.

Jauregiaren gorputz nagusiaren mendebaldeko fatxadarekin eta mendebaldeko hegalarekin zerikusia duten eraikuntza aldiak

1. aldia

Jauregiaren gorputz nagusiaren eraikuntza: 1536. urtean abiarazia. XVI. menderen lehen erdialdean Gipuzkoan nagusi ziren arkitektura eta estilo joerak biltzen zituen eraikina zen. Elementu argi eta garbi gotikoak (leiho konopialak, gainaldea...) eta berpizkundekoak nahasten zituen, batzuk Gaztela kutsukoak (erdiko patioa) eta beste batzuk Gipuzkoan puri-purian zeudenak (esate baterako, iparraldeko fatxadako nasa, ibai ertzetan eta itsasbazterretan eraikitako eraikin batzuek dauzkaten portu azpiegituren antzekoa, ibai portuetako azokek eta errenteriek eta Pasaiako portuko etxeek dutenen modukoa)

Gorputz nagusiaren mendebaldeko hormaren zimentarriko zapata identifikatu genuen egun olatuen mende dagoen hondartzaren mailatik gora 3 metroko kotan. Horrexek eramaten gaitu jauregiaren zimentarria mailakatua izango zela proposatzera, itsasbazterrera hurbildu ahala sakonagoa eta alderantziz.

2. aldia

Bao batzuk ireki zituzten mendebaldeko lorategiari begira: leihoez gainera, ate burudun bat ireki zuten gorputz nagusiaren behe oinetik (egungo sotoa) mendebaldeko lorategira igaro ahal izateko.

El control arqueológico de las obras de construcción de la nueva acometida de aguas residuales a través del interior y los jardines del palacio de Narros ha constituido una interesante oportunidad para avanzar en la documentación y conocimiento de las fases constructivas de este edificio de primer orden en la arquitectura guipuzcoana. Realmente sería necesario un profundo estudio documental junto con un exhaustivo análisis de los paramentos del palacio para alcanzar conclusiones definitivas al respecto. Con todo, esta obra ha constituido una importante oportunidad para acercarse al conocimiento del proceso constructivo del palacio. Se han podido discernir diversas fases constructivas, unas relacionadas con la fachada occidental del cuerpo central del palacio y otras con el patio central. Además se han identificado otras actividades independientes, sin que hayamos localizado relaciones estratigráficas con las estructuras relacionadas con la citada fachada occidental del cuerpo central y con el patio central. Para evitar dilaciones y complicaciones innecesarias, nos centraremos en la descripción de las fases constructivas mejor documentadas.

Fases constructivas relacionadas con la fachada occidental del cuerpo central del palacio y con el ala oeste

Fase 1

Construcción del cuerpo central del palacio: iniciado en 1536. Era un edificio que amalgamaba diversas tendencias arquitectónicas y estilísticas vigentes en Gipuzkoa durante la primera mitad del siglo XVI. Combinaba elementos claramente gotizantes (ventanas conopiales, crestería...), con soluciones renacentistas, algunos de gusto castellano (caso del patio central) y otros en pleno auge en Gipuzkoa (caso del muelle de la fachada norte, infraestructura portuaria presente en diversos edificios construidos en las riberas de los ríos y del mar, como las lonjas y renterías de los puertos fluviales o las casas del puerto de Pasaia).

Cabe destacar la localización de la zapata de cimentación del muro oeste del cuerpo central que se sitúa en una cota de 3 metros por encima de la playa actualmente batida por el oleaje. Este hecho nos induce a barajar la hipótesis de que la cimentación del palacio debe ser escalonada, más profunda cuanto más nos acercamos a la orilla y viceversa.

Fase 2

Apertura de vanos que dan al jardín oeste: además de diversas ventanas, se abrió una puerta adintelada para acceder desde la planta baja (actual planta sótano) del cuerpo central al jardín oeste.

3. aldia

Jauregiaren mendebaldeko hegalaren eraikuntza: 2. aldian aipatutako atea ireki eta gero, jauregiaren mendebaldeko hegala eraiki zuten.

4. eta 5. aldiak

Mendebaldeko lorategia moldatzeko lanak: saneamendu sare berriak eraiki zituzten, lorategian espazioak banatzeko hormak altxa zituzten, eta 2. aldian irekitako atera iristeko eskailerak eraiki zituzten. Lan hauek guztiak XIX. mende amaieraren eta XX. mendearen artean eraman zituzten burura.

Jauregiaren gorputz nagusiaren mendebaldeko fatxadarekin eta mendebaldeko hegalarekin zerikusia duten eraikuntza aldiak

1. aldia

Jatorrizko patioa eraiki zuten. Patioko balkoiek enbor zilindrikoez eta sekzio koadroko kapitel xumeez (dekorazio xume gisa ertzak lantzerka landuak dituztela esan behar dugu) hornituriko zutabeetan eta sekzio koadroko zutarrietan hartzen zuten atseden. Une honetan ez dakigu eraikinak patioa hasieratik izan zuen ala ez, ez dakigu patioaren lehenengo eraikuntza aldi hau eta jauregiaren gorputza nagusiarena aldi berean gertatu zen ala ez, eta ez dakigu jatorrian zein izan zen patioaren luze-zabalera.

2. aldia

Patioaren erdiko arkuteriaren eraikuntza: Ondo landutako harlanduzko arkuteria (elkarren gainean egokitutako zirkulu erdiko hiru arku maila) izan zuen patioak. Egitura hau 1. aldiko kanpoko oinarriekiko (zutabeak eta zutarriak) kokagune zentrokidean zegoen, eta modu honetan azalera txikiagoa izango zuen erdiko espazio irekiak, solairu bakoitzean eta perimetro osoan egokitutako korridore arkupedunak inguratuta egongo baitzen. Egun ez dakigu noiz eraiki zituzten arkuak. Soilik irizpide estilistikoetan oinarriturik, izaera soil eta klasizistaren itxura baitu, esan dezagun ez datorrela bat 1. aldiko zutabeen ezaugarriekin. Baliteke eraikuntza aldi hau hegoaldeko fatxadan irekitako leihoak ireki zituzten aldi berean gertatu izana. Leiho handi hauek harrizko xaflak eta belarriak dituzte, Gipuzkoako jauregietan XVII. mendeko lehen hamarraldietatik aurrera oso arrunta izan zen dekorazio barrokoaren erakusgarri.

3. aldia

Lanak patioaren ekialdeko, iparraldeko eta mendebaldeko sektoreetan: landu gabeko harrizko hormak eraikita, baoez hornituriko hormak eraikita behe oinaren ekialdeko, iparraldeko eta mendebaldeko galeriak eta trantsituak bereizi zituzten, eta aipatu trantsituen banaketa berria antolatu zuten gelak banatzeko trenkadak eraikita. Gela hauetako zolarria hareharrizko harlanduekin osatu zuten.

4. aldia

Hegoaldeko korridorea berritu zuten: landu gabeko harrizko hormekin itxi zuten hegoaldeko korridorea

Fase 3

Construcción del ala oeste del palacio: con posterioridad a la apertura durante la Fase 2 de la citada puerta, se construyó el ala oeste del palacio.

Fases 4 y 5

Diversas obras de acondicionamiento del jardín oeste: consistieron en la construcción de nuevas redes de saneamiento, de muros de separación de distintos espacios en el jardín y de las escaleras de acceso a la citada puerta abierta durante la Fase 2. Todas estas obras se acometieron entre fines del siglo XIX y a lo largo del siglo XX.

Fases constructivas relacionadas con la fachada occidental del cuerpo central del palacio y con el ala oeste

Fase 1

Construcción del patio original, cuyas galerías se sustentaban sobre columnas (se han documentado tres columnas y los restos de un cuarto) dotadas de fuste cilíndrico y sencillos capiteles cuadrados con las aristas biseladas a modo de sencilla decoración, así como sobre pilares (se ha documentado un único pilar) de sección cuadrada. A día de hoy desconocemos si el edificio estaba originalmente dotado de patio, si esta primera fase constructiva del patio es coetánea al cuerpo central del palacio y, ni siquiera conocemos la extensión primitiva del patio.

Fase 2

Construcción de la arquería central del patio: El patio fue dotado de una arquería (tres niveles superpuestos de arcos de medio punto), construida en sillería bien labrada. Esta estructura, se levanta en posición concéntrica respecto a los soportes exentos (columnas y pilares) de la Fase 1, delimitando, de este modo, un espacio abierto central de menor superficie, rodeado en su perímetro de un corredor porticado en cada planta. A día de hoy desconocemos la fecha de construcción de esta arquería. Por criterios meramente estilísticos, su carácter sobrio y clasicista no se adecúa a las características de las columnas de la Fase 1. Se podría especular que esta fase constructiva fuese contemporánea a la apertura, en la fachada meridional, de grandes ventanas de placa y orejetas, tipología decorativa barroca muy habitual en los edificios palaciegos guipuzcoanos a partir de las décadas iniciales del siglo XVII.

Fase 3

Obras en los sectores este, norte y oeste del patio: se procedió a la separación de los corredores y de las crujías este, norte y oeste de la planta baja, mediante la construcción de muros de mampostería dotados de vanos (puertas y ventanas) y a la construcción de una nueva distribución de las citadas crujías mediante tabiques de separación entre distintas estancias. Estas estancias fueron dotadas de una solera construida a base de sillería de arenisca.

Fase 4

Reforma del corredor sur: consistió en el cierre con muros de mampostería del corredor sur y en la construc-

eta jauregiko lehenengo solairutik behe oinera (egungo sotoa) iristeko eskailera berri bat eraiki zuten. Eskaileraren zangoetako bat hegoaldeko korridorean dagoen aspaldiko erdiko zutabearen (1. aldia) enborrean egindako hozkan edo erretenean txertatu zuten. Eta beste zutabe baten hondakinak baliatu zituzten eskailera berriaren oinarria edo idulkia eraikitzeko.

5. aldia

Eskaileraren eraispena: eskailera eraitsi eta beste bao bat ireki zuten hegoaldeko korridoreko itxitura horman, eta atera egin zuten patioaren perimetro osoan zehar hedatutako betegarria, hondartzako hareaz osatua. XIX. mendean eraman zituzten burura lan hauek.

6. aldia

Estali egin zuten patioaren erdialdeko espazioa: patioaren erdian zegoen putzuaren karelaren gainean harlanduzko zutarri huts handi bat eraiki zuten patioa itxiko zuten lau kanoi gangei eusteko. Ordutik aurrera soto bihurtu zen jauregiaren behe oina.

7. eta 8. aldiak

XIX. mende bukaeran eta XX. mendean hormigoizko eta zeramikazko lauzez osaturiko zolarri berriak eraiki zituzten sotoaren mendebaldeko trantsituan.

ción de una nueva escalera de acceso desde la primera planta a la planta baja (actual sótano) del palacio. Una de las zancas de la escalera fue alojada en una regata o entalladura practicada en el fuste de la antigua columna central (Fase 1) presente en el corredor sur. Además los restos de otra columna fueron empleados para la construcción de la peana o base de la nueva escalera.

Fase 5

Eliminación de la escalera: la obra de eliminación de la escalera coincidió con la apertura de un nuevo vano en el muro de cierre del corredor meridional y en el relleno con arena de playa extendido por todo el perímetro del patio. Esta obra se acometió durante el siglo XIX.

Fase 6

Cubrición del espacio central del patio: sobre el brocal del pozo situado en el centro del patio se construyó un gran pilar hueco de sillería para sostener las cuatro bóvedas de cañón con las que se cegó el patio. En adelante, la planta baja del palacio se transformó en sótano.

Fases 7 y 8

Construcción de nuevas soleras de hormigón y de losetas de cerámica en la crujía occidental del sótano, entre fines del siglo XIX y a lo largo del siglo XX.

X. Alberdi Lonbide

C.34. ZEGAMA

C.34.1. Altzibarreko ola-errota

Zuzendaritza: Jesús Manuel Pérez Centeno
Finantziazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ingurumen Departamentuko Zuzendaritza Nagusia

C.34.1. Ferrería-Molino de Alcibar

Dirección: Jesús Manuel Pérez Centeno
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa. Dirección General de Medio Ambiente

Intervention carried out all over the site, making any further intervention unnecessary, with the principal result being the documentation of the remains of the old Alcibar ironworks and the transformation processes of this hydraulic infrastructure.

Oinezkoentzako eta bizikletentzako bidegorri bat handitzeko lanak tarteko, obrak ukituko zituen Altzibarreko errota eta ola zaharraren hondakin arkeologikoak dokumentatu behar izan genituen gero industria aurreko instalazioa hauetako antapararen azpiegitura eta urez hornitzeko kanalaren parte bat desmuntatzeko.

Burura eramandako dokumentazio lanak aukera eman digu industria aurreko konplexu hau Altzibarreko olakoarekin identifikatzeko. Ola hau 1387. urteko dokumentu baten jasotzen da, «altzairua lantzeko Altzibarreko ola» gisa azaltzen da, eta gutxienez XVIII. mende amaiera arte jardunean izan zela esan behar

Con motivo de la ampliación de una vía ciclista-peatonal se han tenido que documentar los restos arqueológicos del antiguo molino y ferrería de Alcibar que se ven afectados por la obra, para el posterior desmontado de la infraestructura de la antepara de estas instalaciones preindustriales y parte del canal de alimentación.

El trabajo de documentación realizado nos ha permitido identificar este complejo preindustrial como correspondiente al de la ferrería de Alcibar, ya citada en 1387 como «ferrería de raya de acero de Alcibar», y en uso, al menos, hasta finales del siglo XVIII. Hasta el momento de esta intervención se desconocían la lo-

Kontrol arkeologikoko lanak Altzibarreko olako antapararen barruan.

Labores de control arqueológico en el interior de la anterpara de la ferrería de Alcibar.

dugu. Esku-hartze honi ekin genion arte ez genekien ola hau zehazki non zegoen, ez genituen haren antolamendu espaziala ez eta eraikuntza ezaugarriak ezagutzen. Aitzitik, zutik zirauen aipatu olako antapararen parte bat Errotatxiki baserriko ukuiluko paretetan txertaturik. Era berean, arkeologikoki dokumentatu genuen nola olako azpiegitura honi gero errotaren erabilera eman zioten, eta errotako estoldako pareten eraikuntzaren ezaugarriei erreparatuz gero, industria aurreko konplexu hau XVIII.-XIX. mendeetan berregituratu zutela esan behar dugu. Orduan emendatu zuten ur deposituaren gaitasuna, horma berriak eta kanoi bat eraiki zuten, eta egitura erabilera berriari, errotari, egokitu zioten. Egun Errotatxiki baserriaren eraikinera bilduta dago.

XIX. mende bukaeran errotaren jarduna eten zenean, egungo Errotatxiki baserriko ukuilu eta estalpe bihurtu zuten antapara. Estolda, bere aldetik, biltegi bihurtu zuten, eta hustubide zaharrak egingo zion sarrera, ondorio horretarako partzialki bete zuten hustubideak.

Konklusio gisa esan dezagun aipagarria dela XIV. mendean dokumentatutako Altzibarreko olako antapararen eta estoldaren hormak aurkitu izana. Esku-hartze arkeologiko honi ekin baino lehen elementu hauek Errotatxiki baserriko azpiegiturek estaltzen zituzten edo inguruetako zorupean ezkutaturik zeuden.

calización exacta de esta ferrería, su organización espacial y sus características constructivas. Sin embargo, parte de la obra de la antepara de la referida ferrería seguía en pie, integrada en las paredes de la cuadra del caserío Errotatxiki. Así mismo, se han documentado arqueológicamente la adaptación de esta infraestructura ferrona a nuevos usos molineros, y atendiendo a las características de la construcción de las paredes de la estolda del molino, la reestructuración de este complejo preindustrial se podría fechar en el siglo XVIII-XIX. Sería en ese momento cuando el depósito de agua amplía su capacidad con la construcción de nuevos muros y un cañón, adecuando su estructura a su nuevo uso como molino, hoy en día integrado en la edificación del caserío Errotatxiki.

Tras el cese de la actividad molinera a finales del siglo XIX, su antepara se acondiciona como cuadra y cobertizo del actual caserío Errotatxiki y la sala de molienda se transforma en una dependencia más de la vivienda. Así mismo, la estolda se convierte en almacén y se accede al mismo a través del antiguo canal de desagüe, que se rellena parcialmente a estos efectos.

A modo de conclusión, cabe destacar el descubrimiento de los muros de la antepara y de la estolda de la ferrería de Alcibar, documentada en el siglo XIV, las cuales, hasta el momento de esta intervención arqueológica se encontraban encubiertas por infraestructuras del caserío Errotatxiki y ocultas en el subsuelo de sus inmediaciones.

O. Artetxe Fernández; J.M. Pérez Centeno

C.35. ZERAIN

C.35.1. Aizpeako meatze barrutia

Zuzendaritza: Miren Garcia Dalmau
Finantziazioa: Zeraingo Udala;
Gipuzkoako Foru Aldundia

C.35.1. Coto minero de Aizpea

Dirección: Miren Garcia Dalmau
Financiación: Ayuntamiento de Zerain;
Diputación Foral de Gipuzkoa

This intervention failed to produce any results of archaeological interest.

2008. urtean miaketa arkeologikoko lan batzuei ekin genien antzina meatze barruti garrantzitsua izandako Aizpeako mea ekoizpenarekin zerikusia duten eraikuntza hondakin batzuen presentzia egiaztatzeko xedean. Lan prozesuan zehar mea Ormaiztegiko burdinbideko geltokiraino garraiatzeko airetiko kablearen ("ingelesen kablea» deitua) abiaburuarekin zerikusia zuten kontu batzuk argitu ahal izan genituen.

Aurten burura eramandako kanpainak tamalez ez du, ezaguna dena alde batera utzita, elementu berri interesgarririk dokumentatzeko aukerarik eman.

En el año 2008 dieron comienzo una serie de trabajos de prospección arqueológica destinados a certificar la presencia de una serie de restos constructivos relacionados con la producción minera en el antaño importante coto de Aizpea. Durante el proceso de trabajo se han podido determinar distintos aspectos relacionados con el arranque del cable aéreo destinado al transporte del mineral hasta la estación del ferrocarril de Ormaiztegi (el conocido como «cable inglés»).

La campaña desarrollada este año lamentablemente no ha permitido documentar elementos nuevos de interés al conjunto ya conocido.

M. Garcia Dalmau; B. Herreras Moratinos



Aizpeako meatze barrutian eta 2008 eta 2011 urte bitartean burututako lan arkeologikoen kokalekuak islatzen dituen planoa.

Plano de localización de los trabajos arqueológicos desarrollados en el coto minero de Aizpea entre 2008 y 2011.

C.36. **ZESTOA**

C.36.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

C.36.1.1. **Eliz kalea, 3**

Zuzendaritza: Mertxe Urteaga Artigas
Finantziazioa: Obra sustatzailea

C.36.1.1. **Eliz kalea, 3**

Dirección: Mertxe Urteaga Artigas
Financiación: El promotor de la obra

This intervention failed to produce any results of interest.

Esku-hartze honek ez zuen emaitza interesgarririk eskaini.

Esta intervención no ha presentado resultados de interés relevante.

C.36.2. UDAL BARRUTIA / TÉRMINO MUNICIPAL

C.36.2.1. **Irikaitz. Aztarnategi paleolitikoa**

XIII. kanpaina
Zuzendaritza: Alvaro Arrizabalaga
Finantziazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia

C.36.2.1. **Irikaitz. Yacimiento paleolítico**

XIII Campaña
Dirección: Alvaro Arrizabalaga
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa

Due to adverse economic circumstances, the excavation plan for the season had to be redesigned, with the possibilities of the Luebaki sector not being exhausted as we had hoped. A good density of Gravetiense material was found during the course of the excavation season.

2010. urtean Irikaitzen garatu beharreko kanpaina Luebaki eremuko indusketaren azalera ahalik eta gehiena handitzeko moduan eta sektore hau (eta Irikaitzeko bigarren ikerketa aldi hau) gehienez ere beste bi kanpaina gehiagotan (2011n eta 2012an) agortzeko moduan diseinatu genuen. Aurreko urteetan bezalaxe, hiru jarduera astetan aurrera eramateko planifikatu genuen indusketa kanpaina, batik bat abuztuan, eta Euskal Unibertsitateetako eta Espainiako nahiz nazioarteko hainbat unibertsitatetako Arkeologia arloko doktore, lizentziatu eta ikasle talde handi baten laguntza izan genuen gure lanak burutzeko. Zailtasun ekonomikoak tarteko, soilik bi astetara mugatu behar izan genuen lan egiteko egutegia, eta emaitzak ere kaskarragoak izan ziren ondorioz.

Bizi-bizi lan egin genuen 2010. urtean irekitako hamasei metro koadroko azaleraren III. eta IV. mailak induskatzen (12. eta 14. zerrendak). 2010. urteko kanpainaren ildotik, zerrenda hauetan ez genuen aurkikuntza askorik egin. Aitzitik, aipagarria da sukarrian landutako tresnen hondakinen presentzia, eta hauek Behe Paleolitoan baino agian Gravette aldian kokatu behar ditugu. Indusketa lan hauek burura eramateko xedean erakundeek ematen duten diru-laguntzak murriztu egin dire-

La campaña 2010 en Irikaitz fue diseñada para ampliar al máximo la superficie de excavación en el área Luebaki y agotar este sector (y la segunda fase de la investigación en Irikaitz) en el máximo plazo de dos campañas más (2011 y 2012). Como en años anteriores, la campaña de excavación fue planificada para tres semanas de actividad, principalmente durante el mes de agosto, y contó con el apoyo de un numeroso grupo de doctores, licenciados y estudiantes de arqueología de universidades vascas, españolas e internacionales. Dificultades económicas sobrevenidas obligaron a reajustar el calendario de actuación a dos únicas semanas, con la consiguiente merma de resultados.

Hemos trabajado con intensidad en la excavación de los niveles III y IV de la superficie de dieciséis metros cuadrados inaugurada en 2010 (bandas 12 y 14). Manteniendo la tónica de la campaña 2010, no se ha registrado una gran densidad de hallazgos en ambas bandas y se observa una especial presencia de restos en sílex que ponemos en relación con el establecimiento gravetiense, más que con el del Paleolítico inferior. El recorte de la ayuda institucional para la excavación ha redundado también en que

nez, 2011ko kanpainari begira aurreikusitakoak –2008. urteaz geroztik induskatutako egiturak geo-radarraren bidez eta 3D-ko scannerraren bidez dokumentatzeko lanak– atzeratu egin behar izan genituen ezinbestean, oso garesti ateratzen baitira.

Bestalde, Irikaitzeko nola Gravette aldian kokatutako materialak hala lehen Achel aldikoak, argitalpen baten xede izan ziren 2011n. 2012. urteko kanpainaren zirkunstantziak kontuan izanik, edo aipatu kanpaina ez egiteko aukerak badaudela kontuan izanik, 2010. urteaz geroztik estalita eta amortizatuta dagoen Geltokiko indusketa eremuari buruzko monografia (1998-2003) idatziko dugu luze gabe.

dos de los planes que debían ejecutarse en 2011 –el levantamiento con georadar y la documentación por scanner 3D de las estructuras excavadas desde 2008– deban ser aplazados, debido a su elevado coste económico.

En otro orden de cosas, tanto los materiales adjudicados al Gravetiense, como los más antiguos achelenses de Irikaitz, han sido objeto de publicación a lo largo de 2011. Atendiendo a las circunstancias en que se produzca la campaña de 2012, o incluso, a la eventualidad de que no haya tal campaña, procederemos a elaborar en breve plazo la monografía relativa al área de excavación Geltoki (1998-2003), ya cubierta y amortizada desde 2010.

A. Arrizabalaga

C.36.2.2. **Urbieta Txikiko presa txikia**

Zuzendaritza: Miren Ayerbe Irízar
Finantziazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia

C.36.2.2. **Azud Urbieta Txiki**

Dirección: Miren Ayerbe Irízar
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa

During the archaeological monitoring work carried out as the result of the partial demolition of the Urbieta Txiki irrigation water wheel (Zestoa), the constructive characteristics of said wheel, associated with the now abandoned Txiki Urbieta mill, were recorded. The most striking thing about this wheel, which was built from limestone brickwork, with a crown of limestone slabs, is the wooden containment structure made from carved oak panels.

Urbieta Txikiko presa txikia eraisteko obraren sustatzaile Gipuzkoako Foru Aldundiak (Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza) eskatuta kontrol arkeologiko bat eraman genuen burura 2011ko azaroan.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko ibaietako ekologia berreskuratzeko programaren baitara biltzen da proiektu hau. Proiektuak ibaietako habitata berreskuratzea du xede, eta horretarako arrainen migrazio mugimenduentzat oztopo diren elementuak desagerraraziko ditu. Ildo honetatik, ugari dira Urola ibaiaren arroan, Gipuzkoako beste ibai arroetan bezala, arrainen joan-etorria eragozten edo mugatzen duten presa txikiak.

Presa txiki hauen artean badago erabileraren araberako sailkapen bat egitea: batzuek ura desbideratzeko balio dute egun, beste batzuk abandonatuta daude eta galdu egin dituzte beren aspaldiko instalazio hidraulikoak, eta beste batzuk azpiegiturak gurutzatzeko erabiltzen dituzte. Kasu honetan, Altzolarats ibaiko Urbieta Txikiko presa txikia zerbitzutik kanpora eta behera etortzeko arriskuan dago egun, aspaldiko ustiategi bati (errota) dagokio.

Gipuzkoako Foru Aldundiak aginduta Altzolarats (Zestoa) errekako Urbieta Txikiko presa txikia partzialki eraisteko proiektua idatzi zuen Gingeringenieros S.L. enpresak. Eta presa partzialki eraisteko erabakia hartu zen haren balio arkeologikoa aintzat hartu eta gero. Honenbestez presa txikia partzialki eraitsiko zuten haren paramentuan 4 metroko hozka bat eginez oinetik kontatzen hasita metro beteko garaieran, alboetan ezpondak egokituko zituzten, gero eman beharreko perfila emango zioten eta hondakinak aterako zituzten.

A petición de la Diputación Foral de Gipuzkoa (Dirección General de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas) promotor de las obras de demolición del Azud de Urbieta Txiki, en noviembre de 2011 se llevó a cabo un control arqueológico.

Este proyecto se enmarca en el programa de recuperación ecológica de los ríos del Territorio Histórico de Gipuzkoa cuyo objetivo es la recuperación del hábitat fluvial mediante la remoción de aquellos elementos que suponen un obstáculo para los movimientos migratorios de las especies piscícolas. En este sentido en la cuenca del río Urola como en otras cuencas guipuzcoanas, existen numerosos azudes que limitan el paso de los peces.

Dentro de estos azudes se puede realizar una clasificación en función de su uso, existiendo azudes que sirven actualmente de derivación de agua, otros que se encuentran abandonados con pérdida de sus antiguas instalaciones hidráulicas y otros azudes que sirven de cruce de infraestructuras. En este caso, el azud de Urbieta Txiki sobre el río Altzolarats corresponde a una antigua explotación (molino) actualmente fuera de servicio y en estado ruinoso.

A tal efecto, y por encargo de esta Diputación Foral, la empresa Gingeringenieros S.L., redactó el proyecto de demolición parcial del azud de Urbieta Txiki en la regata de Altsolarats (Zestoa). Se optó por la demolición parcial del azud dado su valor arqueológico. La solución proyectada ha consistido en la demolición parcial del azud mediante la ejecución de una entalladura en su paramento de 4 m de anchura a aproximadamente un metro de la base, con taludes laterales y posterior reperfilado y retirada de los acarreos.

Urbieta Txikiko presa txikiaren ikuspegi orokorra hura partzialki eraitsi baino lehen.

Vista general del azud de Urbieta Txiki antes de la demolición parcial.

Ez zen ertzak harri-lubetekin babestea aurreikusi, errekak arian-arian eta berez egin beharreko bidea egin dezan.

Urbieta Txikiko presa txikia landu gabeko kareharriz egina da, era berean landu gabeko kareharrizko bularrak ditu, eta ura Urbieta Txikiko errotako kanalerantz desbideratzea zuen egiteko nagusia. Aipatu errota errekaren eskuinaldean dago, uraz beheiti 200 metrotara. Egun abandonatuta dago.

Kontserbazio egoera onean dago presa txikia, gutxienez 3,35 m garai da gailurretik uraz beheitiko perfileraino. 12,80 metrokoa da ura isurtzeko ezpainaren zabalera.

Kronologiaren ikuspuntutik XVI. mende hasierakoak dira errotari buruzko lehen aipamen idatziak. 1507. urtean eraitsi egin zuten errotako presa, eta urte batzuk geroago beste presa berri bat eraiki zuten.

Presa txiki hau partzialki eraisteko lanetan zehar, haren erdialdean, zurezko oholez osatutako egitura bat topatu genuen uraz goitik, 55º-ko inklinazioarekin (102. UE). Egitura hau behar bezala erregistratzeko xedean alboko kanala ireki genuen (lanean hasi ginenean erabat beteta zegoen) errekako ura desbideratzeko, jarduera eremu hau «lehor» utzi eta datuak jasotzeko eta aipatu zurak ahalik eta modu egokienean ateratzeko.

Presa txikiaren erdialdeko oholak erregistratu genituen. Denei zenbaki bana eman genien (1etik 12ra) eta gehienak atera egin genituen (1etik 10era), kontu handiz, alboko zelaian uzteko eta Arkeolanek egin beharreko azterketa dendrokronologirako laginak hartzeko. Azterketa hauek eginda esan dezagun haritzaren ge-

No se han previsto protecciones de las márgenes con escollera ya que se ha optado por dejar que el río evolucione de forma natural.

El azud de Urbieta Txiki construido en mampostería de caliza y con estribos, también en mampostería, tenía como fin la derivación del agua hacia el canal del molino de Urbieta Txiki, situado a 200 m aguas abajo en su margen derecha. Dicho molino está en desuso y abandonado.

El azud está en buen estado de conservación y cuenta con una altura mínima de 3,35 m desde la coronación al perfil normal de aguas abajo. La anchura en el labio de vertido es de 12,80 m.

Desde el punto de vista cronológico, tenemos noticias documentales sobre el molino a principios del siglo XVI y también de la demolición de la presa del molino en 1507 y posterior construcción de una nueva presa unos años más tarde.

Durante la ejecución de las obras de demolición parcial, en la parte central del azud se descubrió una estructura formada por tablas de madera dispuestas con inclinación de 55º aguas arriba (UE.102). Para realizar el correcto registro de esta estructura se procedió a abrir el canal lateral (en el momento de la actuación se encontraba colmatado) con el fin de desviar el agua de la regata de dejar la zona de actuación «en seco» para la toma de datos y ejecutar la correcta extracción de las maderas.

Se llevó a cabo el registro de las maderas en la zona central del azud. Se numeraron todas (nº 1 al nº 12) y se procedió a su extracción (nº 1 al nº 10) con extremada delicadeza para su realojo en la pradera colindante donde se realizaron el muestreo para el estudio dendrocronológico realizado por Arkeolan. De dicho estudio se extrae la conclusión de que se trata

neroko (*Quercus*) oholak direla, eta haritzak 1711-1741 bitartean moztu zituztela.

Presa txiki hau partzialki eraisteko lanetan zehar, era berean, betegarriaren egitura erregistratu ahal izan genuen; betegarri hau kareorez eta igeltsuz batuta ageri zen (103. UE).

Kontrol arkeologikoko lanetan zehar egun abandonatuta dagoen Urbieta Txikiko errotari lotutako presa txikiaren eraikuntza ezaugarriak erregistratu ahal izan genituen. Landu gabeko kareharriz egindako presa txiki honetan, gailurrean kareharrizko lauzak dituen presa honetan, aipagarria da zurezko egitura, eustormarena egiten duena, ondo landutako haritzezko oholez egina. Azterketa dendrokronologikoaren arabera, 1711-1741 urte bitartean moztu zituzten ohol hauek eskainiko zituzten haritzak. Iturri idatziei esker badakigu Urbieta Txikiko errota berritu egin zutela XVII. mende bukaeran; beraz, oso litekeena da presa txikiaren eraikuntza orduan burutu izana.

Presa txikia partzialki eraisteko lanetan zehar kontrol arkeologikoko lanak egin genituen, hots, obren gaineko jarraipen lanak egin genituen. Honenbestez elementu interesgarri batzuk erregistratu ahal izan genituen. Horien artean aipagarria da presa txikiaren kanpoko horma (errekaren behe aldean), landu gabeko kareharriz eraikitako unitatea (100. UE), gainaldea burdinazko kortxetekin lotutako kareharrizko lauza handiak dituena (101. UE).

de maderas de tipo roble, género *Quercus* y su análisis da un intervalo de tala para las fechas 1711-1741.

Del mismo modo, en las obras de demolición parcial de la presa se pudieron comprobar la estructura de relleno aparejada con una argamasa de cal y yeso (UE.103).

Durante las labores de control arqueológico se pudo registrar las características constructivas del azud asociado al molino de Urbieta Txiki, actualmente en desuso y abandonado. En este azud, construido en mampostería de caliza y con la coronación con losas de caliza, destaca la estructura de madera, de contención, realizada con tablas de roble trabajadas. Según el análisis dendrocronológico esta estructura de madera tiene un intervalo de tala para las fechas 1711-1741. Por referencias documentales sabemos que el molino de Urbieta txiki es objeto de una reparación a finales del siglo XVII por lo que es posible que la construcción de este azud coincida con este momento.

Durante el transcurso de la demolición parcial del azud, se llevó a cabo un seguimiento consistente en la realización de un control arqueológico. De este modo se pudieron registrar varios elementos de interés. De una parte, el alzado exterior del azud (zona baja del río), unidad constructiva realizada con mampostería de caliza (UE. 100) que se encontraba coronada por grandes losas de caliza unidas con grapas de hierro (UE.101).

M. Ayerbe Irízar

Urbieta txikiko presa txikiari lotutako zurezko-haritza--egitura erregistratzen, hura atera baino lehen.

Registro de la estructura de madera (roble) asociado al azud de Urbieta Txiki antes de su extración.

C.37. BESTE BATZUK / VARIOS

C.37.1. MEGALITO-GUNEAK / ESTACIONES MEGALÍTICAS

C.37.1.1. Aizkorriko megalito-gunea (1. zenb.). Txabola baten eraikuntza Laskaolatzako artzainen finkamenduko Ttonttor artegian (Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Nagusia)

Zuzendaritza: Luis del Barrio Bazaco
Finantziazioa: Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Nagusia

C.37.1.1. Estación megalítica de Aizkorri (Nº 1). Construcción de una cabaña en la majada Ttonttor del asentamiento pastoril de Laskaolatza (Parzonería General de Gipuzkoa y Álava)

Dirección: Luis del Barrio Bazaco
Financiación: Parzonería General de Gipuzkoa y Álava

This intervention failed to produce any results of interest.

Laskaolatzako artzainen finkamenduko Ttonttor artegian, Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren esparruan, Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Nagusiaren La Reserva izeneko Probetxu Publikoko Mendian (3.070.3 zenb.), esnetarako txabola bat eraikitzeko lanen aurreko kontrol arkeologikoa. Obra eta haren gaineko jarraipen arkeologikoa baimenduta, xehe-xehe kontrolatu genituen lur mugimenduak ekarri zituzten ekintzak oro. Emaitzak negatiboak izan ziren historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik, eta agortu egin genituen beste ikerketa bat abiarazteko aukerak oro.

Intervención de control arqueológico ante la construcción de una cabaña destinada a lechería en la majada Ttonttor del asentamiento pastoril de Laskaolatza, en el MUP nº 3.070.3 La Reserva, perteneciente a la Parzonería General de Gipuzkoa y Álava, en el ámbito del Parque Natural Aizkorri-Aratz. Autorizada la obra y su seguimiento arqueológico, se controlan exhaustivamente las acciones que suponen remoción de suelo, siendo los resultados de escaso o nulo interés histórico-arqueológico, agotando la posibilidad de nueva investigación.

L. del Barrio Bazaco

C.37.1.2. Andatzako megalito-gunea (3. zenb.). Zuren probetxua Irisasi izeneko Probetxu Publikoko Mendiko (1.073.1 zenb.) A4 eta B6a kantoietan (Usurbil)

Zuzendaritza: Luis del Barrio Bazaco
Finantziazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia

C.37.1.2. Estación megalítica de Andatza (Nº 3). Aprovechamiento de maderas en los cantones A4 y B6a del MUP 1.073.1 Irisasi (Usurbil)

Dirección: Luis del Barrio Bazaco
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa

This intervention failed to produce any results of interest.

Andatzako Megalito-guneko Monumentu Multzoa eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Done Jakue Bideko atal bat, Saiatzeko Bidea izeneko adarra, har-tzen dituen Irisasi izeneko Probetxu Publikoko Mendiko (1.073.1 zenb.) A4 eta B6a kantoietan zura baso soilketaren bidez aprobetxatzeko lanen gainean bideratutako kontrol arkeologikoko lanak. Ustiakuntza esparruaren gainazala miatuta arkeologiaren gaineko eraginari buruzko derrigorrezko txostena idatzi genuen. Arkeologiaren ikuspuntutik emaitzak negatiboak izan zirela esan behar dugu. Etorkizunean, baso soilketa burura eramaten denean, Andatza I, Andatza II eta Andatza II megalitoen inguruan egingo diren mozketak kontrolatu beharko dira eta finkamenduei leku egiteko egokiak diren orografia eremuak ebaluatu beharko dira.

Intervención de control arqueológico ante el aprovechamiento de maderas a corta a hecho (matarrasa) en los cantones A4 y B6a del MUP nº 1.,073.1 Irisasi, implicando el Conjunto Monumental de la Estación Megalítica de Andatza y un tramo del Conjunto Monumental del Camino de Santiago a través de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en el ramal denominado Camino de Saiatz. Reconocido superficialmente el ámbito de la explotación, se redacta el preceptivo informe previo de impacto arqueológico, siendo los resultados de escaso o nulo interés arqueológico. Resta a futuro, en el momento efectivo de la corta a hecho, controlar las actuaciones de tala en torno a los megalitos de Andatza I, Andatza II y Andatza III y evaluar diversos puntos de orografía favorables para contener asentamientos.

L. del Barrio Bazaco

C.37.1.3. **Aralarreko megalito-gunea (4. zenb.). Intzensaroerdiko artzain guneko txabolen eraispena eta ordezko finkamendu baten eraikuntza Kotaleku izeneko aldean (Enirio-Aralar Elkartea)**

Zuzendaritza: Luis del Barrio Bazaco
Finantziazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia

C.37.1.3. **Estación megalítica de Aralar (Nº 4). Derribo de las cabañas del establecimiento pastoril de Intzensaroerdi y construcción de un asentamiento supletorio en el paraje de Kotaleku (Unión Enirio-Aralar)**

Dirección: Luis del Barrio Bazaco
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa

This intervention failed to produce any results of interest.

Intzansaroerdiko artzain guneko txabolen eraispenaren eta Kotaleku aldean finkamendu berri bat eraikitzeko lanen aurreko kontrol arkeologikoa, Aralarreko Parke Naturalean, Enirio-Aralar elkartearen Mankomunitateko 3.076.1 zenbakiko Probetxu Publikoko Mendian. Obra planaren araberako espazioak miatu eta eragin arkeologikoari buruzko derrigorrezko txostena idatzi ondoren, eta obrak baimendu eta gero, zorua altxatzeko lanen gaineko kontrol xehe-xehea eraman genuen aurrera. Emaitzak negatiboak izan ziren historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik, eta agortu egin genituen alde honetan beste ikerketa bat abiarazteko aukerak oro.

Intervención de control arqueológico ante el derribo de las cabañas del asentamiento pastoril de Intzensaroerdi y la construcción de un nuevo establecimiento en el paraje de Kotaleku, en el ámbito del MUP nº 3.076.1 Enirio-Aralar, perteneciente a la Mancomunidad homónima, en el ámbito del Parque Natural Aralar. Reconocidos superficialmente los espacios objeto de los planeamientos de obra y redactado el preceptivo informe previo de impacto arqueológico, una vez autorizadas las obras se lleva a cabo un exhaustivo control de los trabajos que implican apertura de suelo, siendo los resultados de escaso o nulo interés histórico arqueológico, agotando la posibilidad de nueva investigación.

L. del Barrio Bazaco

C.37.1.4. **Igoin-Akolako (13. zenb.) eta Txoritokietako (26. zenb.) megalito-guneak. (Astigarraga, Donostia, Errenteria, Hernani)**

II. kanpaina
Zuzendaritza: Jesús Tapia eta Manuel Ceberio
Diru-laguntza emailea: Aranzadi Zientzia Elkartea; Gipuzkoako Foru Aldundia

C.37.1.4. **Estaciones Megalíticas de Igoin-Akola (Nº 13) y Txorikokieta (Nº 26) (Astigarraga, San Sebastián, Errenteria, Hernani)**

II campaña
Dirección: Jesús Tapia y Manuel Ceberio
Subvención: Sociedad de Ciencias Aranzadi; Diputación Foral de Gipuzkoa

During this second season, visual prospecting was carried out once again at the Txoritokieta Megalithic Site, and an archaeological soil pit was dug. This intervention enabled the recovery of new stone working remains and the location of a structure in the Berrozpin area.

Aurreko kanpainan (2010) lortutako emaitzek aukera eman zuten Berrozpinen, Txoritokietako Megalito-gunean, sukarrian landutako multzo xumea baina aldi berean interesgarria aurkitzeko.

Kanpaina honetan gainazala miatzen jarraitu dugu, eta ondorioz emendatu egin da berreskuratutako objektuen kopurua. Guztira ia 100 objektu erregistratu ditugu.

Los resultados de la campaña anterior (2010) permitieron localizar un modesto pero interesante conjunto de industria lítica en sílex en el área de Berrozpin, en la Estación Megalítica de Txoritokieta.

En esta campaña se ha continuado con la prospección de superfice, que ha incrementado el número de objetos recuperados hasta un total cercano a los 100 elementos.

Aurkikuntzak emendatu ahala, alde honetan hondakinak gero eta modu sarriagoan eta uniformeagoan azaltzen direla esan behar dugu. Egun eremu honek ia erabat hartzen du Berrozpin aldea, Berrozpin I, II eta III eta Aitzetako Txabala trikuharrietatik gertu.

Bestalde, zundaketa bat induskatu genuen lur eremuaren goragune txiki batean, Berrizpin II trikuharritik hurbil. Han, gainazaleko lurrek eraturiko mailaren azpian, hareharrizko bloke ertainek osaturiko egitura bat erregistratu genuen lauza handi baten inguruan; dokumentatu gabeko beste monumentu megalitiko bat izan zitekeen. Induskatutako eremua zabalduta ez genuen material hondakinik berreskuratu, eta orain arte ezin izan dugu hilobiaren ganberarekin identifikatu litekeen eraikuntza elementu bakar bat ere erregistratu.

Datozen kanpainetan, beraz, zabaldu egingo dugu indusketa eremua eta xehetasun osoz erregistratuko dugu aurkitutako egitura, bere izaera eta kronologia zehaztu ahal izateko.

La distirbución de restos por la zona se presenta cada vez más tupida y uniforme a medida que aumentan los hallazgos, y actualmente abarca casi por completo el área de Berrozpin, junto a los dólmenes de Berrozpin I, II y III, y de Aitzetako Txabala.

Por otra parte, se ha excavado una cata exploratoria en un pequeño resalte del terreno, junto al dolmen de Berrozpin II. En ella, bajo un nivel de tierras superficiales, se ha podido localizar una estructura de bloques medianos de arenisca dispuestos en torno a una gran losa, y que podría constituir un nuevo monumento megalítico. La ampliación del área de excavación no ha permitido recuperar restos materiales, y hasta el momento no hemos podido reconocer ningún elemento constructivo que pueda ser identificado como la cámara sepulcral.

Queda pues, para las próximas campañas, la ampliación del área de excavación y el registro detallado de la estrcutura localizada, de modo que podamos precisar su naturaleza y su cronología.

J. Tapia; M. Ceberio

C.37.1.5. **Pagoetako megalito-gunea (24. zenb.). Pagoetako Parke Naturaleko (Aia) Altzolako ganadu kontzesioko Arrain hazkuntzarako Habitat eta Baliabideen Kudeaketa Planaren inplementazioa**

Zuzendaritza: Luis del Barrio Bazaco
Finantziazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia

C.37.1.5. **Estación megalítica de Pagoeta (Nº 24). Implementación del Plan de Gestión de los Hábitats y Recursos Pascícolas de la concesión ganadera de Altzola, Parque Natural Pagoeta (Aia)**

Dirección: Luis del Barrio Bazaco
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa

This intervention failed to produce any results of interest.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren titularitatepeko Pagoetako Parke Naturaleko 1.016.1 Pagoeta Probetxu Publikoko Mendiko Altzolako ganadu kontzesioko Arrain hazkuntzarako Habitat eta Baliabideen Kudeaketa Plana inplementatzeko jardueren gaineko kontrol arkeologikoko esku-hartzea. Aurreikusitako ekintzen xede ziren espazioak miatu genituen: horien artean aipagarri baltsa baten eraikuntza, kanalizazioak, aziendarentzako lur-zerrenden instalazioa, lursailak ixteko lerroak desmuntatzeko eta berriro ere instalatzeko lanak, zeuden bideak egokitzeko lanak eta beste bide berri batzuk irekitzeko lanak. Eta miaketa lan horien ondorioz itxura batean etxola-hondo bat zena aurkitu genuen, haren gainazalean harrizko tresnen hondakinak erregistratu genituela. Arkeologiaren gaineko eraginari buruzko derrigorrezko txostena idatzi eta lanak eta lanen gaineko kontrol arkeologikoak baimendu zituztenean, zoruak altxatzeko lanen gaineko kontrol arkeologiko zorrotza eraman genuen burura. Emaitzak negatiboak izan ziren historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik. 2012. urtean obrek aurrera egin ahala beste kontrol arkeologiko batzuk egin beharko dira.

Intervención de control arqueológico ante diversas actuaciones para la implementación del Plan de Gestión de Hábitats y Recursos Pascícolas de la concesión ganadera de Altzola, en el MUP 1.016.1 Pagoeta, propio de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en el Parque Natural Pagoeta. Se reconocen superficialmente los espacios objeto de las acciones planeadas: construcción de una balsa, tendido de canalizaciones, instalación de mangadas ganaderas, desmontado y reinstalación de líneas de cierre de parcelas, adaptación de viarios existentes y apertura de nuevos, entre otras acciones, localizando lo que parece constituir un fondo de cabaña, con restos de industria lítica en superficie. Se redacta el preceptivo informe previo de impacto arqueológico, y una vez autorizadas las obras y su seguimiento arqueológico, se lleva a cabo un exhaustivo control de los trabajos que implican apertura de suelo, siendo los resultados de escaso o nulo interés histórico arqueológico, quedando pendientes nuevas intervenciones de control arqueológico a la par que continúen las obras en 2012.

L. del Barrio Bazaco

C.37.1.6. **Gipuzkoako megalitoen inbentarioaren eguneratzea**

Zuzendaritza: Luis del Barrio Bazaco
Finantziazioa: Kultura-Ondarearen Zentroa. Kultura Saila. Eusko Jaurlaritza

C.37.1.6. **Puesta al día del inventario megalítico de Gipuzkoa**

Dirección: Luis del Barrio Bazaco
Financiación: Centro de Patrimonio Cultura. Departamento de Cultura. Gobierno Vasco

During the 2002-2011 period, we registered 34 new megaliths (12 dolmens, 5 cists, 2 mounds, 13 Pyrenean cromlech and 2 menhirs) in the province of Gipuzkoa. Of these, some are located in known megalithic series (Ermañalde, Etzela and Kauso II), while a further 5, which were thought to have disappeared during the middle of last century, were re-catalogued. In all, this brings the number of recorded megaliths in Gipuzkoa up to a total of 393.

1979. urtean abiarazitako ikerketa ildoari segida emanez, 1982., 1990. eta 2002. urteetan argitaratutako Gipuzkoako Megalitoen Karta Arkeologikoak osatzeko lanetan zuzenean esku hartu eta gero, lurralde historiko honetako megalitoen inbentarioa eguneratuta edukitzen jarraitzen dugu, elementu hauek guztiak babesteko eta haiei halako balioa emateko xedean.

Ildo honetatik, 2002-2011ko epean beste 34 megalito erregistratu ditugu (12 trikuharri, 5 zista, 2 tumulu, 13 harrespil piriniar eta 2 iruinarri Amezketa, Andoain, Asteasu, Astigarraga, Azkoitia, Beizama, Bergara, Errenteria, Hernani, Hondarribia, Legazpi, Enirio-Aralar Mankomunitatea, Oiartzun, Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Nagusia eta Villabonan), haietatik 4 ezagunak diren megalito multzoetan (Ermañalde, Etzela eta Kauso II), eta berriro ere katalogatu ditugu iragan mendeaz geroztik galdutzat jotako beste 5 megalito (trikuharri 1, 3 tumulu eta harrespil piriniar 1 Berastegi, Bergara, Elgoibar eta Errezilgo udal barrutietan). Honenbestez 393 dira Gipuzkoan orain arte zerrendaratutako megalitoak.

Funtsean Gipuzkoako geografia bihurriaren luzezabaleran osoan zehar gure kabuz eta erakundeen babesean burura eraman ohi ditugun miaketa metodikoen, miatzaileen eta partikularren eskutik jasotzen ditugun jakinarazpenei eskainitako arretaren (megalito berrien kokalekuei buruzko kontsultak egin baitizkigute) eta beste arkeologoekin batera (euren ikerketa lanen berri eman baitigute) burura eramandako lanen emaitza izan dira aurkikuntzak.

Ibilbide honetan funtsezkoa gertatu da iragan 2011. urtean Eusko Jaurlaritzaren Kultura-Ondarearen Zentroak emandako bultzada, 2002-2011ko epean bildutako informazio guztia eguneratzeko eta megalitoak banan-banan fitxetan jasotzeko lanak burura eramateko erraztasunak eman baitzituen, megalito hauek Euskadiko Kultura-Ondarearen Inbentario Orokorrera biltzeko eta dagozkien kalifikazio espedienteak irekitzeko xedean.

Hazkunde kuantitatibo eta kualitatibo honek eta kokaleku batzuen berezitasunak berekin batera eskatzen dute azken honetan ikerlari batzuek fenomeno hau agertzeko orduan azaldutako hipotesiak eta azterketak berriro ere aztertzea, eta beste miaketa lan batzuk egiteko ateak irekitzen dituzte aldi berean.

2002-2011 epean katalogatutako megalito berrien zerrenda:

Continuando la línea de investigación emprendida en 1979, tras haber participado activamente en la elaboración de las Cartas Arqueológicas Megalíticas de Gipuzkoa editadas en 1982, 1990 y 2002, seguimos manteniendo al día el inventario megalítico de este territorio histórico, impulsando la salvaguarda y la puesta en valor de sus integrantes.

En esta línea, en el período 2002-2011 hemos registrado 34 nuevos megalitos, (12 dólmenes, 5 cistas, 2 túmulos, 13 cromlechs pirenaicos y 2 menhires enclavados en los municipios y entidades de Amezketa, Andoain, Asteasu, Astigarraga, Azkoitia, Beizama, Bergara, Errenteria, Hernani, Hondarribia, Legazpi, Mancomunidad de Enirio-Aralar, Oiartzun, Parzonería General de Gipuzkoa y Álava, y Villabona), 4 de ellos en conjuntos megalíticos conocidos (Ermañalde, Etzela y Kauso II), y recatalogado otros 5 dados por desaparecidos desde mediados del siglo pasado (1dolmen, 3 túmulos y 1 cromlech pirenaico, emplazados en los municipios de Berastegi, Bergara, Elgoibar y Errezil), con todo lo cual, se amplía hasta 393 el número de megalitos censados hasta la actualidad en Gipuzkoa.

Estos hallazgos han sido principalmente fruto de las prospecciones metódicas que regularmente llevamos a cabo, de *motu proprio* y bajo auspicio institucional, a lo largo y ancho de la intrincada geografía guipuzcoana, y asimismo de la atención que venimos prestando a los avisos que recibimos de prospectores y particulares, consultándonos la localización de nuevos megalitos, y de la colaboración de diversos arqueólogos, poniéndonos al corriente de sus trabajos de investigación.

En esta marcha ha resultado fundamental el impulso recibido el pasado 2011 desde el Centro de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco, propiciando la puesta al día de toda la información recabada en el periodo 2002-2011 antes aludido y la elaboración de fichas megalíticas individualizadas, a fin de proceder a su inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco y la apertura de los expedientes de calificación correspondientes.

Este incremento cuantitativo y cualitativo, y lo novedoso de algunos de los emplazamientos, impone una revisión de las hipótesis y analíticas expuestas últimamente sobre este fenómeno por diversos investigadores, y abre nuevas perspectivas de prospección.

Listado de nuevos megalitos catalogados en el período 2002-2011:

Amezketa
- Ormatza I trikuharria (Aralar)
- Ormatza II trikuharria (Aralar)

Andoain
- Munttoko zista (Onyi-Mandoegi)

Asteasu
- Palankalekuko trikuharria (Andatza)

Astigarraga/ Errenteria
- Mariolako zista (Txoritokieta)

Beizama
- Illaun II trikuharria (Murumendi)

Berastegi
- Abadekurutzeko harrespila (Onyi-Mandoegi)

Bergara
- Arribiribilleta trikuharria (Elosua-Plazentzia)
- Frantsesbasoko trikuharria (baita Azkoitia ere) (Elosua-Plazentzia)
- Irutontorreta mendebaldeko tumulua (Udala-Intxorta)

Elgoibar
- Kanpaizuloko tumulua (Kalamua)
- Olaburuko trikuharria (Kalamua)

Errezil
- Basagaingo tumulua (Murumendi)

Hernani
- Urteagako Zabalako zista (Onyi-Mandoegi)

Hondarribia
- Jaizkibel V harrespila (Jaizkibel)
- Zioso trikuharria (Jaizkibel)

Legazpi
- Aizaleku II trikuharria (Brinkola-Zegama)
- Maribidaurre trikuharria (Brinkola-Zegama)
- Muñazorrotxikiko tumulua (Brinkola-Zegama)

Enirio-Aralar Mankomunitatea
- Igaratza IV iruinarria (Aralar)
- Olasoroko trikuharria (Aralar)
- Ondarreko zista (Aralar)
- Supitaitz II tumulua (Aralar)

Oiartzun
- Algorrietako harrespila (Oiartzun)
- Guardiko Lepoko harrespila (Oiartzun)
- Zaria I harrespilak (Oiartzun)
- Zaria II harrespilak (Oiartzun)
- Zaria III harrespilak (Oiartzun)

Oñati/ Asparrena
- Urkitzako Lepoko trikuharria (Elgea-Artia)

Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Nagusia
- Pagarreta II iruinarria (Aizkorri)
- Pagomakor trikuharria (Aizkorri)
- Abilletako zista (Altzania)

Villabona
- Oindolar IV trikuharria (Belabieta)

Amezketa
- Dolmen de Ormatza I (Aralar)
- Dolmen de Ormatza II (Aralar)

Andoain
- Cista de Muntto (Onyi-Mandoegi)

Asteasu
- Dolmen de Palankaleku (Andatza)

Astigarraga/ Errenteria
- Cista de Mariola (Txoritokieta)

Beizama
- Dolmen de Illaun II (Murumendi)

Berastegi
- Cromlech de Abadekurutz (Onyi-Mandoegi)

Bergara
- Dolmen de Arribiribilleta (Elosua-Plazentzia)
- Dolmen de Frantsesbaso (también Azkoitia) (Elosua-Plazentzia)
- Túmulo de Irutontorreta Oeste (Udala-Intxorta)

Elgoibar
- Túmulo de Kanpaizulo (Kalamua)
- Dolmen de Olaburu (Kalamua)

Errezil
- Túmulo de Basagain (Murumendi)

Hernani
- Cista de Urteagako Zabala (Onyi-Mandoegi)

Hondarribia
- Cromlech de Jaizkibel V (Jaizkibel)
- Dolmen de Zioso (Jaizkibel)

Legazpi
- Dolmen de Aizaleku II (Brinkola-Zegama)
- Dolmen de Maribidaurre (Brinkola-Zegama)
- Túmulo de Muñazorrotxiki (Brinkola-Zegama)

Mancomunidad de Enirio-Aralar
- Menhir de Igaratza IV (Aralar)
- Dolmen de Olasoro (Aralar)
- Cista de Ondarre (Aralar)
- Túmulo de Supitaitz II (Aralar)

Oiartzun
- Cromlech de Algorrieta (Oiartzun)
- Cromlech de Guardiko Lepoa (Oiartzun)
- Cromlechs de Zaria I (Oiartzun)
- Cromlechs de Zaria II (Oiartzun)
- Cromlechs de Zaria III (Oiartzun)

Oñati/ Asparrena
- Dolmen de Urkitzako Lepoa (Elgea-Artia)

Parzonería General de Gipuzkoa y Álava
- Menhir de Pagarreta II (Aizkorri)
- Dolmen de Pagomakor (Aizkorri)
- Cista de Abilleta (Altzania)

Villabona
- Dolmen Oindolar IV (Belabieta)

C.37.2.1. **Gipuzkoako finkamendu protohistorikoak**

Zuzendaritza: Xabier Peñalver
Finantziazioa: Arkeolan Fundazioa

C.37.2.1. **Asentamientos protohistóricos de Gipuzkoa**

Dirección: Xabier Peñalver
Financiación: Fundación Arkeolan

The archaeological prospecting aimed at locating protohistoric sites in Gipuzkoa, based on both laboratory and field work, failed to find any results of interest.

2011ko urtarriletik ekainera arteko sei hilabeteetan eta Gipuzkoako lurraldean miaketa proiektu bat eraman genuen burura Azken Brontze Aroko eta Burdin Aroko finkamenduak aurkitzeko xedean. Lan hauek batez ere lurraldearen ipar-ekialdeko eremuan eraman genituen burura.

Proiektu hau bi alditan gauzatu genuen, hiru hilabete iraungo zuten bi alditan. Lehenengo aldia era guztietako kartografiak eta irudiak aztertzen eman genuen, eta bigarrena landa-lanetan eman genuen, hainbat zundaketa ireki genituen.

Laborategi lanei dagokienez, interesgarritzat jotako ehunen bat leku bereizi genituen. Landa-lanei dagokienez, berriz, haietatik ia denetan izan ginen, eta aurrez bereizitako lekuen gutxi gorabehera herenean zundaketak induskatu genituen. Ez genuen emaitza esanguratsu bakar bat ere lortu.

A lo largo de los seis meses comprendidos entre enero y junio de 2011 se ha llevado a cabo un proyecto de prospección dentro del territorio de Gipuzkoa encaminado a la localización de asentamientos correspondientes al Bronce Final y Edad del Hierro, aunque centrado con mayor intensidad dentro de la zona más nororiental del territorio.

El mismo se ha realizado en dos fases de tres meses cada una de ellas, una de laboratorio, basada en la revisión de diferentes tipos de cartografía e imágenes y otra de campo, consistente en la realización de catas.

En lo que se refiere al trabajo de laboratorio se han seleccionado en torno a un centenar de puntos considerados de interés. En cuanto a los trabajos de campo, se han practicado visitas a gran parte de ellos, practicándose catas en aproximadamente un tercio de los seleccionados previamente. No se ha obtenido ningún resultado significativo.

X. Peñalver

C.37.2.2. **Oria eta Urola ibaien haranak (Aia, Orio)**

XVI. miaketa kanpaina
Zuzendaritza: Xabier Alberdi Lonbide
Finantziazioa: Zehazten ZK.

C.37.2.2. **Valles del Oria y el Urola (Aia, Orio)**

XVI Campaña de prospecciones
Dirección: Xabier Alberdi Lonbide
Financiación: Zehazten ZK.

New prospecting season in which the most important results were those found around Lusarbeerdi in Orio, where the remains of the old Lusarbetxiki farmhouse were discovered.

Miaketa kanpaina honetan aipagarria izan da aspaldiko Lusarbetxiki baserriaren kokalekua aurkitu izana Orioko egungo Lusarbeerdi baserriaren inguruan.

En esta campaña de prospecciones cabe destacar el hallazgo del emplazamiento del antiguo caserío Lusarbetxiki, en el entorno del actual caserío Lusarbeerdi de Orio.

X. Alberdi Lonbide; I. Etxezarraga Ortuondo

C.37.2.3. **Anoeta eta Irurako errotetako presa (Anoeta, Irura)**

Zuzendaritza: Jesús Manuel Pérez Centeno
Finantziazioa: Gipuzkoako Ur Kontsortzioa

C.37.2.3. **Presa de los molinos de Anoeta y de Irura (Anoeta, Irura)**

Dirección: Jesús Manuel Pérez Centeno.
Financiación: Consorcio de Aguas de Gipuzkoa

During the archaeological intervention, the constructive characteristics of a dam were recorded (archaeologically speaking). The dam was probably built during the 18th century, originally to serve Irurako mill, although later on it also served Anoeta mill.

Esku-hartze arkeologiko hau aukera interesgarria izan da segur asko XVIII. mendean eraiki zuten presa baten eraikuntza ezaugarriak arkeologikoki dokumentatzeko. Presa honek, hasieran bederen, Irurako errotari eskaintzen zion zerbitzua, baina denboraren joanean Anoetako errotari ere egingo zion mesede.

Esku-hartze honetan zehar grabitate moldeko eta trapezoide eskalenoaren formako presan dokumentatutakoaren arabera hiru atal bereizten dira: kareore hidraulikoko matrizea duen egitura, kortxetek lotutako zurezko egitura, aurrekoaren gainean egokitua, eta hormigoi ziklopeozko kanpoko eta barruko lanak eta gainaldekoa, azken hau kareharriz egina. Karezko eta zepazko kareore hidraulikoko egitura ibaiaren ibilguko ohatze harritsuaren gainean egokitzen da, eta kareore hidraulikoaren bidez, karez eta burdina murrizteko lanetik eratorritako zepazko zati txikituez osaturiko kare-

Esta intervención arqueológica ha proporcionado una interesante oportunidad para documentar arqueológicamente las características constructivas de una presa, erigida muy probablemente durante del siglo XVIII para servir, inicialmente a Irurako errota, y que con el tiempo también sirvió al molino de Anoeta.

En el curso de esta intervención se ha documentado que en la obra de la presa, del tipo de gravedad, con traza de trapecio escaleno, se distinguen tres partes: estructura matriz de mortero hidráulico, estructura de madera con grapas, superpuesta a la anterior, y obras interior y exterior de hormigón ciclópeo y de coronación, esta última de piedra caliza. La estructura de mortero hidráulico de cal-escoria está asentada sobre el lecho rocoso del cauce, y constituye el núcleo matriz cimentado mediante mortero hidráulico a base de cal y escorias de reducción de hierro trituradas. La estructu-

Irurako Errotako eta Anoetako Errotako presa.

Presa de los molinos de Irurako Errota y Anoetako Errota.

ore hidraulikoaren bidez, zimendatutako matrizearen nukleoa eratzen du. Kareore hidraulikoko matrizearen egituraren gainean egokitzen den goragunea eratzen du uraz goitiko mailan ahokatutako zurezko egiturak. Elkarren gainean egokitutako haritzezko habeek eraturiko hiru errenkada dira, habeak luzeran paratuak eta alde zabalenetik bermatuak, landutako burdinazko pletinek sendotuak, kabila sartzeko berno handiekin elkartuak, batzuk azkoinak finkatzeko hariarekin hornituak eta beste batzuek kabilak sartzeko zirrikituekin hornituak. Hormigoi ziklopeozkoa da presaren estaldura, harriak kareore ugariz batuak, tokiko kareharri eta hareharri askorekin. Barruko planoa ongi zarpiatua du, eta kanpoko aurpegia partzialki landutako kareharriz eta hareharriz egina da, harriok kareorez batuak. Gainaldea kareharrizko harlanduekin egina da, harriak luzeran eta zeharka paratuak biko eta hiruko sailetan, kanpora eta barrura (uraz goiti eta uraz beheiti) dauden harriak lantzerka landuak, uren hustubidea erraz-te aldera.

Laburbilduta, ur emari handiko atal batean kokatutako presa da, zabala eta aldapa handikoa, erronka tekniko handia planteatuko zuena eraikitzeko garaian. Ibaiaren atal honen ezaugarri fisikoak eragozpen handiak ziren, presa eraiki zutenek oso kontuan izan zituztenak, nola haren diseinua itxuratzean hala bera eraikitzeko moduak planteatzeko orduan, izan ere, nahikoa gaitasuna behar zuen bildutako uraren presioari, ur korrontearen bultzadari eta haren ahalmen urratzaileari aurre egiteko.

ra de madera constituye una elevación apoyada sobre la estructura matriz de mortero hidráulico, alojada en el escalón que presenta aguas arriba. Está constituida mediante la superposición de tres hiladas de vigas de roble, dispuestas longitudinales y asentadas de ancho armadas mediante bastidores de pletinas de hierro forjado, unidas mediante grandes pernos pasantes, algunos con roscado final para fijar tuercas y otros dotados de ranuras para encaje de pasadores. Por último, el forro de la presa se constituye por una construcción de hormigón ciclópeo aglomerado por un cuantioso mortero de cal, con un masivo agregado de bloques de caliza y arenisca del lugar, con terminación del plano interior raseado y el exterior por un encachado de sillarejos de piedra caliza y arenisca trabados con el propio mortero. El coronamiento se encuentra constituido por sillares de caliza dispuestos de plano en series de dos y tres a soga y a tizón, con los cantos al interior y exterior (aguas arriba y abajo) biselados, a fin de facilitar su rebose por las aguas.

En definitiva, se trata de una presa dispuesta en un tramo de importante caudal y de destacada anchura y pendiente, lo que supuso un importante reto técnico. Las características físicas de este tramo del río constituyen serios obstáculos que los constructores de la presa tuvieron muy en cuenta, tanto a la hora de calcular su diseño, como a la de planear el procedimiento de su construcción, a fin de que tuviese la capacidad de resistencia suficiente para contrarrestar el empuje, no sólo del agua embalsada, sino de la corriente, además de su poder abrasivo.

X. Alberdi; J.M. Pérez Centeno; L. del Barrio

C.37.2.4. **Gipuzkoako eremu erlijiosoak (Albiztur, Beizama, Bidegoian, Errezil)**

II. miaketa kanpaina
Zuzendaritza: Iosu Etxezarraga Ortuondo
Finantziazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia

C.37.2.4. **Puntos religiosos de Gipuzkoa (Albiztur, Beizama, Bidegoian, Errezil)**

II Campaña de prospecciones
Dirección: Iosu Etxezarraga Ortuondo
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa

During this 2nd season, prospecting was carried out in the municipalities located to the south of Hernio, between Rivers Urola and Oria, with special attention being paid to medieval churches. The results obtained were excellent since, among other findings, we identified what may be the first abandoned settlement in Gipuzkoa.

2011. urtean segida eman diogu Gipuzkoako eremu erlijiosoak ikertzeko xedean iaz abiarazitako programari. Bigarren kanpaina honetan Hernio mendiaren hegoaldean, Oria eta Urola ibaien artean dauden udalerrietan, Albiztur, Beizama, Bidegoian eta Errezilgo hainbat elizatan, jardun dugu batik bat.

Bila ditugun helburuak eta baliatutako metodologia iragan urtekoen antzekoak izan dira aurtengoan, baina oraingoan ahalegin handiagoa egin dugu artxiboko lanetan. Dokumentazio aldi honek aukera eman digu informazio gehien eskain zezaketen puntuak aukeratzeko. Hona hemen aztertu beharreko elementuen zerrenda:

Este año de 2011 se ha continuado el programa de investigación sobre puntos religiosos de Gipuzkoa iniciado el año pasado y que en esta segunda campaña se ha centrado en los municipios situados al sur del monte Hernio, entre los ríos Oria y Urola, concretamente en varias iglesias de Albiztur, Beizama, Bidegoian y Errezil.

Los objetivos perseguidos y la metodología empleada han sido similares a los del año pasado, aunque se ha procedido a realizar un mayor trabajo de archivo. Esta fase de documentación ha permitido seleccionar los puntos que más información podían aportar, de forma que la lista de elementos en los que intervenir fue la siguiente:

– Albiztur: Argisaingo Santa Marina parrokia, XIX. mendearen bigarren erdialdean eraikia jada Behe Erdi Aroan dokumentatutako baselizaren gainean.
– Beizama: Aginamendiko San Lorentzo baseliza
– Bidegoian: Iromendiko San Pedro baselizaren eta Bidaniko hilerriaren jatorrizko kokalekua (parrokia zaharraren orubea).
– Errezil: San Migel Garrazakoa edo Bekoa, San Migel Leteakoa edo Goikoa eta Argaineko San Esteban baselizak.

Aurreneko landa-lanak egin eta gero, proiektatutako gune gutxi batzuetan baizik ezin izan genuen zorupean jardun, kasu batzuetan oso nahasita ageri baitziren inguruko lur zerrendak. Ondoko lerro hauetan xehetasun osoz azalduko ditugu lortutako emaitzak.

San Pedroburuko muinoa –Iromendiko San Pedro– (Bidegoian)

Beizama eta Bidegoian arteko errepidearen (GI-3720) gainean altxatzen den muinoan dago, udalerri bien arteko mugatik hurbil. Belardiek eta pinudiek hartutako mendixka da, kilometro erdiko erradioan herri bakar bat ere ez dagoela. Horrexegatik hain zuzen ere XIX. mendean desmuntatu egin zuten haren gailurrean zegoen baseliza, Elolako egungo San Pedro baseliza bera eraikitzeko, izen bereko auzoan.

Gailurrean, lur eremuaren erliebeak tenpluari leku egin ziezaioketen hainbat toki iradokitzen zituen aldean, 1'5x0'5 m-ko zundaketa bat ireki genuen, gero 1'5x1 m-tara handituko genuena. Terraza baten muturrean ireki genuen, eta haren ardatz nagusia iparralderantz bideratu genuen. Zundaketa honen hegoaldeko erdian agerian geratu zen harri xabalez egindako hilobi bat, ekialdetik mendebaldera, haur baten ehorzketari zegokiona. Hezurrezko hondakinek lotura anatomikoari eusten zioten oso egoera txarrean bazeuden ere. Bestalde, paldoei leku egiteko bi zulo identifikatu genituen, sekzio angeluzuzenekoak, haietako bat suak gorritutako lurrezko orban baten azpian, ikatz ugari zituen lurraren azpian. Deigarria da aro modernoko eta garaikideko materialen kopuru urria, XIX. mendera arte zerbitzua eskaini zuen baseliza baita. Animalien hezur eta hortz batzuk eta teila kopuru txiki bat baizik ez genituen aurkitu. Trauskil landutako zeramika zati bat da salbuespena: segur asko tornu motelean egina da, mika eta kuartzozko desgrasanteak dituen orearekin. Astigarribiako San Andres elizan (Mutriku) aurkitutako beste zati bat da hemen aurkitutako puskarekin berdindu litekeen pieza bakarra.

Aurkikuntza hau egiazki berezia da gure ustez, itxura guztien arabera ehorzketaren aurkikuntzak adieraziko bailuke Iromendiko San Pedro baselizak parrokia batek berezko dituen funtzioak betetzen zituela 1000. urte osteko mendeetan (ez dugu datazio absoluturik). Haren inguruan egun habitat mota bakar bat ez dagoela kontuan izanik, lehenengo kasua da Gipuzkoan Goi Erdi Aroko komunitate bateko eliza populatu gabeko alde batean egokitzen dena. Aztarnategi honen ezaugarriek bertan lanean jarraitzera eramaten gaituzte.

– Albiztur: parroquia de Santa Marina de Argisain, erigida como tal durante la segunda mitad del siglo XIX a partir de una ermita ya documentada en la Baja Edad Media.
– Beizama: ermita de San Lorenzo de Aginamendi.
– Bidegoian: ubicación original de la ermita de San Pedro de Iromendi y cementerio de Bidania (solar de la antigua parroquia).
– Errezil: ermitas de San Miguel de Garraza o Bekoa, San Miguel de Letea o Goikoa, San Esteban de Argaine.

Tras las primeras visitas de campo, finalmente la intervención en el subsuelo solamente pudo llevarse a cabo en algunos de los puntos proyectados, debido al alto grado de alteración del terreno circundante en algunos casos. Se detallan los resultados en las siguientes líneas.

Colina de San Pedroburu –San Pedro de Iromendi– (Bidegoian)

Se sitúa en una colina que domina la carretera entre Beizama y Bidegoian (Gi-3720), cerca de la frontera entre ambos municipios. Se trata de un altozano de herbazales y pinares sin poblamiento alguno en un radio de medio kilómetro. Fue esta la razón por la que en el siglo XIX se desmontó la ermita situada en su cima y que no es otra que la actual ermita de San Pedro de Elola, en el barrio del mismo nombre.

Se practicó un sondeo de 1'5x0'5 m, ampliado después a 1'5x1 m, en la cima, en un terreno donde el relieve del terreno señalaba varias zonas donde pudiera haberse ubicado el templo. De hecho, se ubicó en un extremo de un aterrazamiento y su eje mayor se orientó hacia el norte. Dicho sondeo, en su mitad sur, reveló una tumba de lajas, en orientación este oeste, correspondiente a una inhumación infantil, con los restos óseos aún en posición aunque muy degradados. Por otro lado, se localizaron dos agujeros de poste, de sección rectangular, uno de ellos bajo una mancha de tierra enrojecida por el fuego y rica en carbones. Llama la atención la escasez de materiales moderno-contemporáneos, siendo una ermita en pleno uso hasta el siglo XIX. Solamente se han hallado algunos fragmentos de hueso y dentición animal y una discreta cantidad de tejas. La excepción es un fragmento de cerámica de factura tosca, hecha probablemente a torno lento, compuesta de una pasta con desgrasantes de micas y cuarzos, cuyo único paralelismo sea, casi con total seguridad, un fragmento hallado en la iglesia de San Andrés de Astigarribia (Mutriku).

Consideramos este hallazgo de especial relevancia, ya que a todas luces, el hallazgo del enterramiento indicaría que la ermita de San Pedro de Iromendi contaba con las funciones propias de una parroquia en los siglos inmediatos al año 1000 (a falta de una datación absoluta). La ausencia en la actualidad de cualquier tipo de hábitat en su entorno cercano nos sitúa en el primer caso en Gipuzkoa en el que se halla una iglesia de una comunidad altomedieval en un espacio despoblado. Las características de este yacimiento nos animan a seguir interviniendo en él.

Bidaniko hilerria

Bidaniko hilerria, San Bartolome parrokia zaharreko orubea, hirigunearen gain batean dago, herriaren mendebaldean, Iriarte Jauregia hoteletik hurbil. XVIII. mendean utzi zion parrokia izateari, hura desmuntatu eta ordokian berreraiki zutenean. Orube hartan Santa Anaren omenezko baseliza eraiki zuten, eta oinplano angeluzuzenaren gainerakoan egokitu zuten udal hilerria. Artean zutik kontserbatzen diren hormetan gotikoaren azken garaiko elementuak bereizten dira, eta elementu horiek eta harlanduzko horma atal batek gutxi gorabehera XVI. mendearen lehen erdialdera garamatzate.

Baselizaren ingurua oso nahasita dago, ekialdea eta hegoaldea asfaltatuta eta urbanizatuta daudelako eta iparraldean eta mendebaldean ugari direlako betegarriak eta obratik etorritako zaborrak. Hala eta guztiz ere, traba hauek gainditzen saiatu ginen eta kata iparraldeko hormatik gutxi gorabehera 2 metrotara ireki genuen, desnibelaren eta ekarpen gehienak egiaztatzen ziren zerrendaren arteko zelaigunean, hilerriko hormari atxikirik. Uste ez bezala, sumatu baino askoz ere lodiagoa zen betegarria, eta bistakoa zen bitarteko mekanikoak baliatuta osatu zutela hura; horrexegatik oso zaila zen eskuz induskatzea. Eragozpen hauen aurrean amaitutzat eman genuen esku-hartzea gehienez ere 0,70 m sakoneko kota iritsi genuenean. Nolanahi ere den, ez dugu baztertzen betegarri geruza hauen azpian aspaldiko mailak egotea.

San Migel Leteakoa edo Goikoa (Errezil)

Errezil eta Bidegoian elkartzen dituen errepidetik (GI-2634) metro gutxi batzuetara dago baseliza hau, Aritzeta Goikoa eta Ibarguren baserrien artean. Kareharrizko harlanduz egindako horma sendoak ditu tenplu honek, denak hegoaldekoa izan ezik, azken honetan aldaketa ugari nabari baitira jatorrizko fatxadan. Hegoaldeko egungo sarrera nagusiaz gainera, aro moderno-garaikideko itxurakoa, arku zorrotzeko atea du mendebaldeko horman, eta leiho konopial bat haren gainean.

Leku interesgarriena zelako eta eroso lan egin genezakeelako, hegoaldeko hormari atxikita ireki genuen zundaketa. Parrokia izaerako balizko erabileren arrastoren bat aurkitzeaz gainera, aipatu fatxadan gertatutako aldaketak identifikatu nahi genituen. Ezin lan egin izan genuen absidean, lur eremuko drainatze kaskarraren ondorioz urpean baitzegoen. Identifikatutako geruzak garai batean atari estalkidunari leku egingo zion laugunea eratzeko xedean egindako ondoz ondoko ekarpenak ziren. Gutxi gorabehera 0,7 metroko sakonera mailan ageri zen harri naturala. Argi eta garbi ikusi genuen hormaren zimentarriak ere aipatu geruzaren gainean hartzen zuela atseden. Aurkikuntza aipagarri bakarra, kobrezko txanpon bat, segur asko *zeiti* bat; aipatu zimentarriko zapataren irtengune baten gainean egokituta, tenpluko elementu estilistiko aspaldikoenen ondoan, esan dezagun XV. mende amaieran eta XVI. mende hasieran eraiki zutela tenplu hau.

Baseliza honetan egindako aurkikuntzak xumeak izan arren interesgarriak dira gure ustez, antzeko beste aztarnategietan identifikatutakoekin harremanetan jartzen baldin badira.

Cementerio de Bidania

El cementerio de Bidania, solar de la antigua parroquia de San Bartolomé, se sitúa en un alto sobre el núcleo de la localidad, al oeste del mismo y cerca del hotel Iriarte Jauregia. Su uso como parroquia se interrumpió en el siglo XVIII, cuando fue desmontado y se erigió en el llano. En su solar se construyó una ermita dedicada a Santa Ana y el resto de la planta rectangular se destinó a cementerio municipal. Algunos de los paramentos aún en pie conservan elementos tardogóticos y un paramento de sillería que lo datan aproximadamente en la primera mitad del siglo XVI.

El entorno de la ermita se encuentra fuertemente alterado, ya que las partes este y sur se encuentran asfaltados y urbanizados y las del norte y el oeste cuentan con abundantes rellenos y escombros de obra. No obstante, pretendimos salvar en lo posible estos inconvenientes, ubicando la cata a unos 2 metros de su pared norte, en un llano entre el desnivel y la franja donde se constataba mayor cantidad de aportes, contra la pared del cementerio. En contra de lo que habíamos supuesto, nos encontramos con que el relleno era bastante más potente y que había sido realizado por medios mecánicos, por lo que su excavación manual resultaba muy dificultosa. Ante estos inconvenientes, la intervención se dio por terminada a una cota máxima de 0’70 m. De todas formas, no descartamos la existencia de niveles antiguos bajo esos estratos de relleno recientes.

San Miguel de Letea o Goikoa (Errezil)

Esta ermita se sitúa a escasos metros de la carretera que comunica Errezil con Bidegoian (GI-2634), entre los caseríos Aritzeta Goikoa e Ibarguren. Se trata de un templo de sólidos muros de sillería caliza, a excepción de la pared sur, en la que se evidencian numerosas modificaciones de la fachada original. Además de la actual entrada principal al sur, de factura moderno-contemporánea, cuenta en la pared oeste con una puerta ojival y una ventana conopial sobre ella.

Se realizó un sondeo pegante al muro sur, por ser la ubicación de mayor interés y donde podíamos trabajar con mayor comodidad. Se pretendía, además de hallar algún indicio de los posibles usos de tipo parroquial, identificar las modificaciones sufridas por dicha fachada. El ábside era impracticable, por estar inundado a causa del mal drenaje del terreno. Los estratos identificados consistieron en sucesivos aportes con objeto de crear la explanada que en otro momento serviría de atrio cubierto, que se interrumpían a unos 0’7m, apoyándose en la roca natural del terreno. Se pudo observar claramente que la cimentación de la pared se apoyaba también sobre dicho sustrato. El único hallazgo relevante fue una moneda de cobre, probablemente un *ceití* que, por hallarse directamente apoyado en un saliente de dicha zapata de cimentación, y junto a los rasgos estilísticos más antiguos del templo, nos permite establecer una fecha aproximada de su construcción: finales del siglo XV y primera mitad del siglo XVI.

Estimamos que, aunque discretos, los hallazgos realizados en esta ermita son de interés, si se ponen en relación con otros yacimientos similares.

Argaineko San Esteban (Errezil)

Errezilgo udal barrutiaren mendebaldean dago, Azpeititik Errezilera igotzen den errepidetik (GI-2634) hurbil, Domusa enpresaren ondoan. Oinplano angeluzuzeneko eraikina da, azpimarratzeko moduko eraikuntza elementu gutxi dituena.

Kata bat ireki genuen absidetik gertu, hormaren eta amildegi txiki baten artean geratzen den zerrenda estuan. Zundaketa honek aukera eman zigun zimentarria zuzenean eremu honetako harri naturalaren gainean egokitzen zela ikusteko. Harri natural irregularreko hutsuneak harriz bete zituzten hormako zapata behar bezala finkatzeko. Ez genuen material interesgarririk aurkitu.

Oso positiboa izan da kanpaina hau, batetik San Pedroburuko muinoan egindako aurkikuntzagatik. Proiektu honi begira diseinatutako metodologia oso eraginkorra izan dela egiaztatu dugu. Bestalde, burura eramandako esku-hartzeei esker areago findu edo doitu ahal izango ditugu etorkizuneko kanpainetan miatu beharreko guneak bereizteko irizpideak. Horrexegatik, hain zuzen ere, oso aberastu dute aurkikuntza hauek etorkizuneko kanpainen aurreko diseinua. Fruitu emankorrak emango dizkigutelakoan gaude, aurtengo kanpainakoak bezain.

San Esteban de Argaine (Errezil)

Se sitúa en la parte oeste de la jurisdicción municipal de Errezil, cerca de la carretera que asciende de Azpeitia a esta localidad (Gi-2634), al lado de la empresa Domusa. Se trata de un edificio rectangular de escasos elementos constructivos a reseñar.

Se realizó una cata junta al ábside, en una estrecha franja de terreno que queda entre la pared y un pequeño barranco. La cata permitió reconocer que la cimentación se apoyaba directamente sobre la roca natural del terreno, de por sí irregular, cuyos huecos habían sido colmatados con piedra con la que asentar la zapata del muro. No se halló ningún material de interés.

Valoramos muy positivamente esta campaña, por un lado, por los hallazgos realizados en la colina de San Pedroburu. Más que nunca, evidenciamos la eficacia de la metodología que se ha diseñado para este proyecto. Por otra parte, gracias a las intervenciones practicadas se podrán afinar aún más los criterios de los puntos en los que prospectar en futuras campañas. Por ello, el diseño de las campañas futuras se ha visto muy enriquecido por todos estos hallazgos y esperamos que sigan dando frutos tan interesantes como los del presente año.

I. Etxezarraga Ortuondo

C.37.2.5. **Munoaundi herri harresitua (Azkoitia-Azpeitia)**

VI. kanpaina
Zuzendaritza: Sonia San Jose Santamarta
Finantziazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia; Azkoitiko eta Azpeitiko Udalak

C.37.2.5. **Poblado fortificado de Munoaundi (Azkoitia-Azpeitia)**

VI campaña
Dirección: Sonia San Jose Santamarta
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa; Ayuntamientos de Azkoitia y Azpeitia

The work carried out during the 6th season of excavations in the Munoaundi Iron Age fortified settlement (Azkoitia-Azpeitia, Gipuzkoa) focused on area 1, continuing the excavation of the access zone to the precinct and the towers or defensive structures which flank the entrance. We were able to demarcate the inner part of the defensive structure located to the north.

2011ko uztailean eta abuztuan eraman genuen burura Munoaundiko seigarren ekinaldia. Aurrera jarraitu genuen 1. zenbakiko indusketa eremuan lan egiten, herri harresituaren sarbidea eta bertako babes egiturak ikertzen jarraitzeko asmoz. 2011ko aurkikuntzen artean aipagarria da iparraldeko babes egituraren barruko mugak aurkitu izana nola haren mendebaldean hala ekialdean. Hegoaldean ere harresiaren kanpoko atala identifikatzen hasiak gara.

Material arkeologikoari dagokionez, aipagarri dira berreskuratutako zeramika hondakinak, tornuan egi-

La sexta campaña de Munoaundi se ha realizado entre los meses de julio y agosto de 2011. Se han continuado los trabajos en el área de excavación nº 1, dedicados a estudiar las estructuras defensivas relacionadas con la zona de acceso al recinto. Entre los descubrimientos de este año debemos mencionar la localización de los límites interiores de la estructura defensiva situada al norte, tanto en su lado oeste como en el este. En la zona sur, asimismo, hemos comenzado a identificar el lienzo exterior de la muralla.

Respecto al material arqueológico, hay que destacar los restos de cerámica a torno recuperados, entre

Munoaundiko herrixkaren iparraldeko babes egituraren ikuspegia.

Vista de la estructura defensiva norte del poblado de Munoaundi.

nak; horien artean azpimarratzekoak dira ontzi handi bati dagokion ertz molduratu baten zati bat eta pareta fineko ontzi txiki bati dagokion ertz ireki baten beste zati bat.

ellos un fragmento de un borde moldurado perteneciente a un recipiente de gran tamaño, y otro de un borde abierto correspondiente a un pequeño recipiente de paredes finas.

S. San Jose

C.37.2.6. **Murumendi herrixka (Beasain, Itsasondo)**

Zuzendaritza: Ander Arrese
Finantziazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia

C.37.2.6. **Poblado de Murumendi (Beasain, Itsasondo)**

Dirección: Ander Arrese
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa

3rd archaeological assessment with sondages of the protohistoric Murumendi site, and approach to the archaeological analysis of the evidence of the construction of a room in the settlement's upper precinct. Surface evidence such as collapses or dips in the terrain which suggests the presence of cabin floors or remains of structures was confirmed following the sondages carried out, although not completely defined. Ceramic material of diverse types was recovered, with manually turned articles being the most common. Metal elements were also found, such as part of a circular hand mill. In future seasons, we will try to define these living structures more completely.

Hirugarren kanpaina hau Murumendi herrixkako goiko barrutian bizitoki egituren hondakinak bilatzen eman genuen. Izan ere, kanpoko harresiak eta ekialdeko amildegi sakonak mugatuta dago aztarnategi hau. Harresiok babesteko bi lerro zentrokide eratzen dituzte, eta lerrook gailurra inguratzen dutela esan behar dugu, haren iparraldea izan ezik (alde honetan harritsuagoa eta malkartsuagoa baita orografia).

Goiko harresiak mugatutako barrutiaren barruko aldean planteatu genuen aurreneko zundaketa, mazelan

Esta tercera campaña se ha centrado en la búsqueda de restos de estructuras de habitación dentro del recinto superior del asentamiento de Murumendi. El yacimiento esta delimitado por la muralla exterior y un profundo acantilado en su cara oriental. Los restos de las murallas conforman dos líneas defensivas concéntricas que rodean la cima a excepción de su flanco N (donde la orografía se torna más rocosa y abrupta).

El primer sondeo se planteó en el interior del recinto delimitado por la muralla superior, donde encon-

hainbat sakonune hautematen genituen aldean. Gutxi gorabehera 12 x 3,5 metroko angeluzuzena marrazten du berezitako eremuak, eta 3 x 3 metroko zundaketa koadro bat induskatzea planteatu genuen haren ekialdeko muturrean. Kareharrizko harri koskorrez eratutako gainazal horizontal samarra da, baina ez dira gutxi kanpotik ekarritako hareharriak. Estratigrafiaren lodiera apalak (20 cm) hein handian baldintzatzen ditu emaitzak, jasotako materialen kopuruari bagagozkio. Zeramika oso zati txikitan agertzen da, eta gehienak eskuz eginda badaude ere, badira tornuan egindakoak ere, ore kolorez laranjaz edo grisaz eginak. Era berean, metalezko zati bat erregistratu genuen, mozteko tresna edo arma baten ahoaren zatia, eta eskuko errota zirkular baten zati bat.

Goiko barrutiaren hego-mendebaldean ireki genuen bigarren zundaketa, harresitik oso gertu, 3 x 5 metrokoa. Harresiari berari atxikiriko egitura batetik behera etorriak izan litezkeen klastoez eta blokeez osatutako metaketa bat erregistratu genuen. Tornuan egindako zeramika zatiak eta brontzezko hainbat elementu aurkitu genituen bertan.

Guk uste dugu 2011ko kanpaina honetan bete egin direla aurreikusitakoak eta aurrez ezarritako helburuak; izan ere, burura eramandako zundaketek bizitoki izaerako balizko bi egitura mota iradokitzen dizkigute aztarnategiaren goiko barrutiaren baitan. Etorkizuneko kanpainetan saiatuko gara kontu hau berresten.

tramos diversas depresiones sobre la ladera. La zona seleccionada, dibuja un rectángulo de unos 12 m x 3,5 m y el sondeo se planteó en su extremo oriental a modo de rectángulo de 3 m x 3 m. Nos encontramos con una superficie relativamente horizontal de cantos calcáreos con una notable presencia de areniscas aportadas. La escasa potencia estratigráfica (20 cm) condiciona en gran medida los resultados en cuanto a la cantidad de materiales recogidos. La cerámica aparece muy fragmentada y aunque encontramos fragmentos de cerámica a mano la mayor parte corresponde a piezas elaboradas a torno de pasta anaranjada o grisácea. También se registra un fragmento metálico identificado preliminarmente como fragmento de filo de herramienta o arma de corte así como parte de un molino de mano circular.

El segundo sondeo se realiza en la zona S-W del recinto superior, muy próximo a la muralla con unas dimensiones de 3 m x 5 m. Localizamos una acumulación de clastos y bloques que podrían responder al derrumbe de una estructura adosada a la propia muralla. Se encontraron fragmentos de cerámica realizada a torno, así como diversos elementos realizados en bronce.

Consideramos que esta campaña de 2011 ha cumplido con las expectativas y objetivos establecidos, ya que los sondeos realizados nos sugieren dos posibles tipos de estructuras de habitación dentro del recinto superior del yacimiento que trataremos de confirmar en futuras campañas.

A. Arrese; X. Padin

C.37.2.7. **Miaketak Berastegi, Gaztelu, Lizartza eta Orexan**

III. miaketa kanpaina
Zuzendaritza: Manu Ceberio Rodriguez
Finantziazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia

C.37.2.7. **Prospecciones en Berastegi, Gaztelu, Lizartza y Orexa**

III Campaña de prospección
Dirección: Manu Ceberio Rodriguez
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa

Sondages were carried out in San Sebastián chapel in Berastegi, with no results of interest being found.

2011. urtean begi bidezko miaketak egin ditugu Erroizpe-Uli mendialdean eta zundaketa estratigrafikoak Berastegiko San Sebastian baselizan. Aipatu baselizaren kanpoko aldean, iparraldean, metro koadroko bi zundaketa ireki genituen baina ez zuten emaitza arkeologiko interesgarririk eskaini; bata baselizaren hormari atxikita, eta bestea bertako plataforman. Begi bidezko miaketek aukera eman ziguten gutxienez bi tumulu egitura identifikatzeko. 2012. urteko kanpainan ikertuko ditugu azken hauek.

Los trabajos desarrollados en 2011 han consistido en prospecciones visuales en el cordal Erroizpe-Uli y en sondeos estratigráficos en la ermita de San Sebastián de Berastegi. En el exterior de dicha ermita, en la zona norte, se han practicado 2 sondeos de 1 m^2 sin resultados de interés arqueológico: uno contra el muro de la ermita y otro en la plataforma existente en el lugar. Las prospecciones visuales han permitido la identificación de al menos dos estructuras tumulares que serán investigadas en 2012.

M. Ceberio Rodriguez; N. Sarasola Etxegoien

C.37.2.8. **Gipuzkoako portualde zaharrak (Donostia)**

III. miaketa kanpaina
Zuzendaritza: Xabier Alberdi Lonbide
Finantziazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia

C.37.2.8. **Antiguos espacios portuarios de Gipuzkoa (San Sebastián)**

III Campaña de prospecciones
Dirección: Xabier Alberdi Lonbide
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa

Intervention carried out in Irudieta, Tximistarri, Biasolbi-Munabe, Galeraserano-Lapabide, Ergai and Agiti coves, and La Concha bay. Again, the results were very satisfactory as regards documenting the characteristics of port areas prior to the construction of the large factory bays.

Hirugarren miaketa kanpaina honen bidez jarraipena eman zaio «Gipuzkoako Kostaldeko Portualde Zaharrak» ikertzeko programaren barnean programatutako landa-lanei, Xabier Alberdi Lonbide doktore jaunaren zuzendaritzapean. Ikerketa programa honen helburu nagusia da Behe Erdi Aroan hasitako portu ereduaren aurretik portu gipuzkoarrek izan zituzten ezaugarriak dokumentatzea. Hirugarren kanpaina honetan berriro ere aplikatu dugu hain emaitza onak eskaini zizkigun metodologia, jada *Arkeoikuska 09* argitalpenean deskribatua izan zena.

Alde batetik, arkeologikoki dokumentatu ditugu Donostiako portuko harri-lubeta zahar baten ezaugarriak; harri-lubeta hau hegoaldeko kaian eraikitako harri-lubeta berriaren azpian kontserbatzen da egun. Haren morfologia eta eraikuntza ezaugarriak aurreko kanpainetan Pasaiako portuan eta Jaizkibelgo hainbat itsasartetan dokumentatutako azpiegituren antzekoak direla esan behar dugu. Haren antzinatasuna gehiago zehazterik izan ez badugu ere, badakigu XVII. menderako aspaldiko azpiegituratzat zutela, hau da, ez zutela haren jatorriaren berri. Etorkizuneko ikerketek haren izaera eta jatorria zehazten lagunduko digutelakoan gaude.

Beste itsasarteetan (Irudieta, Tximistarri, Biasolbi-Munabe, Galeraserano-Lapabide, Ergai, Agiti) emaitzak negatiboak izan ziren portuko erabilerekin zerikusia duten aztarna antropikoen presentziari bagagozkio.

Con la tercera campaña de prospecciones se ha continuado con los trabajos de campo programados dentro del programa de investigación «Antiguos Espacios Portuarios de la Costa de Gipuzkoa», bajo la dirección del Dr. Xabier Alberdi Lonbide. El objetivo general de este programa de investigación es la documentación de las características que pudieran tener los puertos guipuzcoanos con anterioridad al modelo portuario iniciado durante la Baja Edad Media. Durante esta tercera campaña, hemos vuelto a aplicar con éxito la metodología, descrita ya en *Arkeoikuska 09*, que tan buenos resultados ofreció durante la primera.

Por una parte, se han documentado arqueológicamente las características de una antigua escollera en el puerto de San Sebastián; escollera actualmente soterrada bajo la nueva escollera que se ha construido en el muelle sur. Cabe destacar que sus características morfológicas y constructivas son similares a otras infraestructuras documentadas durante las campañas precedentes en el puerto de Pasaia y en varias calas de Jaizkibel. Aunque no se ha podido precisar más su antigüedad, sabemos que en el siglo XVII era calificado como antiguo, es decir, de origen desconocido. Esperemos que futuras investigaciones nos permitan aquilatar más su naturaleza y origen.

Por otra, las restantes calas (Irudieta, Tximistarri, Biasolbi-Munabe, Galeraserano-Lapabide, Ergai, Agiti) han generado resultados negativos en cuanto a la presencia de evidencias antrópicas relacionadas con usos portuarios.

X. Alberdi Lonbide; L. del Barrio Bazaco; J.M. Pérez Centeno

C.37.2.9. **Oria ibaiaren Behe Arroa: Andatza, Garate, Belkoain, Zarate mendiak (Donostia)**

IX. miaketa kanpaina
Zuzendaritza: Manu Ceberio Rodriguez
Finantziazioa: Berak finantzatua

C.37.2.9. **Cuenca Baja del Oria: montes Andatza, Garate, Belkoain, Zarate (San Sebastián)**

IX Campaña de prospecciones
Dirección: Manu Ceberio Rodriguez
Financiación: Propia

A sondage was carried out in San Esteban de Urdaiaga chapel in Usurbil, with no results of archaeological interest being found.

2011. urtean 1x2 metroko zundaketa estratigrafiko bat egin genuen baselizaren burualdearen kanpoko aldean dagoen plataforman. Arkeologiaren ikuspuntutik ez genuen emaitza positiborik lortu.

Los trabajos desarrollados en 2011 han consistido en la realización de un sondeo estratigráfico de 1x2 en la plataforma existente en el exterior de la cabecera de la ermita no habiéndose obtenido resultados de interés arqueológico.

M. Ceberio Rodriguez

C.37.2.10. **Jaizkibel-Elordi ur hornidurarako lanak (Hondarribia-Irun)**

Zuzendaritza: Jesús Manuel Pérez Centeno
Finantziazioa: Ekos Estudios Ambientales S.L.U.

C.37.2.10. **Obras del abastecimiento de agua Jaizkibel-Elordi (Hondarribia-Irun)**

Dirección: Jesús Manuel Pérez Centeno
Financiación: Ekos Estudios Ambientales S.L.U.

During the archaeological monitoring process carried out during the development of the Jaizkibel-Elordi water supply system, in the area around the Urdanibia Complex (palace-smithy-mill) an iron mineral calcination furnace was found, dating from the late middle ages.

Jaizkibel eta Elordi arteko ur hornidurarako sare berri bat eraikitzeko lanak tarteko, lan horien gaineko kontrol arkeologikoa eraman genuen burura. Aldez aurreko eraginari buruzko azterketan interes arkeologikoko, historikoko eta etnografikoko 8 atal edo eremu identifikatu genituen obrak ukituko zuen aldean, eta 7 puntutan emaitza negatiboa izan bazen ere, aipagarriak dira Urdanibia inguruan (Irun) egindako aurkikuntzak. Puntu honetan potentzial arkeologikoa handia izango zela aurreikusten genuen, aukerak baitzeuden garai bateko portu, bizitoki eta ekoizpen izaerako azpiegiturekin zerikusia zuten aztarnak topatzeko. Errekuntza egitura bat aurkitu genuen bisitaldietako batean.

Buztinean egindako kubeta batek eta zepa, mea eta ikatz hondakin askok eratutako egitura hau mea erretzeko labe bat da, Erdi Arokoa. Oinplano zirkularreko labe honek, gibelaldea kontserbatu duen labe honek, lur eremuko buztin naturalean induskatutako barrunbea du. Barrunbearen hondoan errekuntzaren kargaren parte bat kontserbatzen du, zepak, mea eta ikatz hondakinak. Aztarna hauek datatuta jarduera honen kronologia Behe Erdi Aroan kokatu behar dela esan behar dugu.

A raíz de una nueva red de abastecimiento de aguas entre Jaizkibel y Elordi, se ha desarrollado un control arqueológico de la obra. En el estudio de impacto previo se identificaron 8 tramos o zonas de interés arqueológico, histórico y etnográfico en el área afectada por la obra, y aunque en 7 de los puntos el resultado ha sido negativo, cabe destacar los hallazgos realizados en el entorno de Urdanibia (Irun). En este punto preveíamos un alto potencial arqueológico por la posibilidad de localizar evidencias relacionadas con antiguas infraestructuras portuarias, habitacionales y productivas, y en una de las visitas cursadas se localizó una estructura de combustión.

Esta estructura, conformada por una cubeta, construida en arcilla, y abundantes restos de escoria, mineral y carbón, se corresponde con un horno de calcinación de mineral de cronología medieval. Este horno de calcinación, de planta circular y del que se ha conservado la parte zaguera, presenta una cámara excavada en la arcilla natural del terreno. En el fondo del interior de la cámara se conserva parte de la carga de combustión constituida por escoria, restos del mineral y carbón, que una vez datado ha ofrecido una cronología bajomedieval para el desarrollo de esta actividad.

Irungo Urdanibia auzoan aurkitutako burdina erretzeko labea, ur-eroalea instalatzeko xedean irekitako erretenaren ertzean azaldua.

Vista del horno de calcinación de hierro hallado en el barrio de Urdanibia de Irun, aparecido en el cantil de la zanja abierta para la instalación de la conducción de aguas.

Konklusio gisa esan dezagun oso interesgarria gertatu dela mea erretzeko Erdi Aroko labe bat aurkitu izana Urdanibiako olako aldi aspaldikoenei lotua. Aurkikuntza hauek, urriak Gipuzkoako lurraldean, Gipuzkoako historian ekonomia jarduera estrategiakoa izandakoari buruzko informazioa aberasten laguntzen dute, Urdanibiakoa (Irun) bezalako aurkikuntza arkeologikoei esker berriki osatzen hasiak garen informazioa aberasten laguntzen dute.

A modo de conclusión queremos destacar el interesante hallazgo de un horno medieval de calcinación, asociado a las fases más antiguas del complejo ferrón de Urdanibia. Estos hallazgos, escasos en el territorio guipuzcoano, vienen a incrementar la información sobre una actividad económica estratégica en la historia de Gipuzkoa, la explotación y transformación del hierro, una importante actividad documentada a través de documentos escritos y que recientemente estamos empezando a completar con hallazgos arqueológicos como el de Urdanibia (Irun).

J.M. Pérez Centeno: X. Alberdi Lonbide: L. del Barrio Bazaco

C.37.2.11. **Oiartzun eta Urumea ibaien haranak (Oiartzun)**

X. miaketa kanpaina
Zuzendaritza: Xabier Alberdi Lonbide
Finantziazioa: Zehazten ZK.

C.37.2.11. **Valles del Oiartzun y el Urumea (Oiartzun)**

X Campaña de prospecciones
Dirección: Xabier Alberdi Lonbide
Financiación: Zehazten ZK.

New prospecting season in which the most noteworthy results were those obtained around the Karrika-erreka and Zorrola rivers, where two slag heaps were found which may correspond to medieval metalworking activities.

Kanpaina honetan egindako jardueren artean aipagarria da zepadi biren aurkikuntza. Oiartzungo Karrika erreka eta Zorrola errekastoen inguruko Erdi Aroko haizeolen hondakinak izan litezke.

Entre las actuaciones emprendidas dentro de esta campaña destaca el hallazgo de dos escoriales que podrían corresponder a los residuos de ferrerías de monte de época medieval, en el entorno de los cursos fluviales de Karrika-erreka y Zorrola, en Oiartzun.

X. Alberdi Lonbide: I. Etxezarraga Ortuondo

D. OROKORRA AUTONOMIA ERKIDEGOA
GENERAL COMUNIDAD AUTÓNOMA

D.1. ABIADURA HANDIKO TREN-LERROA GASTEIZ-BILBO-DONOSTIA / LÍNEA DE TREN DE ALTA VELOCIDAD VITORIA-BILBAO-SAN SEBASTIÁN

D.1.1. Abadiño-Durango atala (Bizkaia)

Zuzendaritza: Luis Valdés
Finantziazioa: Mañaria ABEE

D.1.1. Tramo Abadiño-Durango (Bizkaia)

Dirección: Luis Valdés
Financiación: U.T.E. Mañaria

The monitoring of the High-Speed Rail Link section between Abadiño and Durango failed to provide any results of archaeological interest. Nevertheless, contact was established with an un-catalogued 17th or 18th century road which is at risk of being partially destroyed. The importance of the modifications made by this project to the landscape has resulted in attention being paid to an important historical element, namely boundary stones, whose initial dating has yet to be carried out.

Neketsua gertatu zen Abadiño eta Durango arteko atalean abiadura handiko trenerako (AHT) plataforma antolatzeko lanen gaineko jarraipena. Emaitzek berretsi egin zuten lanek ez zutela eraginik izango katalogatutako ondare elementuetan. Ondare intereseko puntu gisa zehaztutako leku gehienak obren eragin eremutik kanpora geratzen ziren, trena zirkulatzeko plataformatik urrutira zeuden nola horizontalean hala bertikalean. Agerian ez dauden balizko elementuei dagokienez emaitza negatiboa izan zen, baita proiektuaren arabera ustezko finkamenduak edo zorua okupatzeko edota ustiatzeko ustezko formak izan zitezkeen lekuetan ere.

Bi jarduera mota aurreikusten zituen proiektuak: zundaketak aurrez aukeratutako lekuetan eta jarraipen lanak burura eraman beharreko lur mugimenduetan. Bi kasuetan ohiko metodologia aplikatu genuenez, ez dugu artikulu honetan hura azalduko. Orografiaren ikuspuntutik, tunelak zulatu eta zubi-bideak eraiki behar zituztenez, eragina gutxienera murriztuta geratzen zen obraren hasiera-hasieratik teorian bederen aukera gehiena zuten lekuetan, hauetan oso azalekoa baitzen beren topografiaren morfologia.

Tunel faltsuak ziren eremu arriskutsuenak, bi arrazoirengatik: haiek planifikatu ziren aldearen morfologiagatik eta iragarritako aldearen suntsipenagatik. Proiektuaren arabera bi ziren inpaktu handia jasango zuten aldeak, bi ziren alde arriskutsuak. Bi alde hauek Mendilibar baserriaren eta Eguskitzako tunelaren ahoaren artean daude, Abadiñon. Alde honetan daude hondakin geldoak biltzeko zabortegietako bat eta makineria eta bulego parke handi bat.

Aztertutako eremuak ez zuen antzinaroko ez eta historiaurreko okupazioari buruzko daturik eskaini. Begi bidezko miaketak balio oso eskaseko datuak eskaini zituen, XIX. mendeko eta XX. mende hasierako zeramikazko material gutxi batzuk baino ez. Metalak urtzeko jardueratik etorritako zepen zabortegia eta

El seguimiento de las obras de la plataforma del tren de alta velocidad (TAV) en el tramo entre Abadiño y Durango ha sido laboriosa. Los resultados confirman la falta de afección a elementos patrimoniales catalogados. La mayor parte de los lugares marcados como puntos de interés patrimonial no han sido afectados por el desarrollo de las obras al encontrarse alejados de la traza de la plataforma de circulación, tanto en la horizontal, como en vertical. En cuanto a posibles elementos no visibles el resultado ha sido negativo, aún en las dos zonas que se habían señalado en el proyecto como susceptibles de asentamiento o de formas de ocupación-explotación del suelo.

El proyecto contemplaba dos formas de actuación: el sondeo en zonas marcadas y el seguimiento de los movimientos de tierra. La metodología, huelga exponerla en este artículo ya que es la usual para ambos casos. Los resultados sí deben ser reseñados por lo escasos. Desde un punto de vista orográfico y por el sistema de perforación de túneles y de viaductos el impacto quedaba minimizado desde el inicio de la obra en las zonas con la mayor posibilidad teórica por su morfología topográfica superficial.

Los falsos túneles eran las zonas de mayor riesgo, por dos motivos: la morfología de la zona en la que se habían planificado y la anunciada destrucción del paraje. En el proyecto son dos los lugares con este alto impacto y que a la vez se señalaban como de mayor riesgo. Se corresponde con el trazado entre el caserío Mendilibar y el emboquille del túnel de Eguskiza en Abadiño. En esta zona se ubica uno de los vertederos de inertes y un amplio parque de maquinaria y oficinas.

La zona afectada no proporcionó datos de ocupación antigua ni prehistórica. La prospección pedestre reportó datos de muy escaso valor circunscritos a unos pocos materiales cerámicos del s. XIX y principios del XX. Un vertedero de escorias de fundición y restos de materiales de plástico y caucho son lo más

plastikozko eta kautxuzko materialen hondakinak dira aipagarrienak. Era berean antzuak izan ziren adierazitako aldeetan egindako zundaketen emaitzak. Salbuespenak izan ziren 2. eremuko 11. eta 14. erretenetan irekitako zundaketak. Lehenengo erretenean, kultura hondakinik gabeko buztin garbiek estalian, betegarri bat identifikatu genuen, eta alde honetako azaleratze natural bat berdintzeko saioa. Oso modu sinplean kanalizatu zuten eta hareharriekin estali zuten hura erretena estali baino lehen. Aspaldian ez dela egingo zuten, alde hau bazkarako baino laboreak aldatzeko terraza handitan antolatu zutenean.

14. erretenean, X: 530736; Y: 4777589,65 kokalekuan, hareharrizko birlen metaketa bat identifikatu genuen, 25 eta 30 cm bitarteko lodierarekin, apur bat obala, ardatzak 110 eta 140 cm-koak. Egitura honetan ez genuen kultura hondakinik ez eta ikatzik aurkitu. Zaila da interpretatzen eta kronologikoki zehazten, baina guk uste dugu aro modernokoa dela. Drainatzeko sistema baten antzeko itxura du, baina ezin horrelakorik ziurta dezakegu. Hura induskatuta haren azpiko zorupea nahasi gabe zegoela ikusi genuen.

Obraren proiektuan aurreikusitako 800 m^2-ak hartu zituzten alde bietan burututako zundaketek.

Karlistaren bidea

Atal hau eraikitzeko enpresa elkarte esleipendun Mañaria ABEEak jakinarazi zuen alde honetan «Karlistaren bidea» izenaz ezagutzen den atal bat dagoela, inguru honetako jendeak oso estimatzen duena. Obraren proiektuan elementu arkeologiko-arkitektonikoen katalogotik kanpora geratzen da. Baina obren gaineko jarraipen lanak egin genituen inguruko baserrietako auzoek eskatutako babesari erantzunez Ingurumen teknikariak egindako oharra aintzakotzat hartu eta gero. Bide honek Mendilibar baserriaren ingururik, BI-4335 errepide ondotik, zabortegi, bulego eta makineria parkera desbideratzeko punturantz egiten du, eta Abadiñorantz luzatzen da, mazelaren garaiera ertainean, agian harrobitik gora.

Harriz zolatutako bidea da, halako antzinatasuna duena. Segur asko XVII. mende amaieran edo XVIII. mende hasieran eraikiko zuten. Bidearen atal bat ondoko errekasto batek arrastaka ekarritako materialek eta gure garaiko isuriek estalita dago. Atal honetan, Mendilibar baserriaren parean, bidea ez zegoen agerian, eta beraz ezin dugu haren presentzia egiaztatu eta ezin dugu haren kontserbazio egoeraren berri eman, eremu hau berdintzeko xedean aspaldi egokitu zituzten betegarrien azpian galduko baita. Lanetan ez zuten bertan sakondu, eta eremua berdintzeko beste betegarri bat egokitu zuten eta gero hormigoizko zolata bat antolatu zuten haren gainean, artean agerian dagoena.

Blokeek osaturiko alboetako errenkada bien arteko zerrendak osatzen du bidea. Errenkada bien artean 2 metroko tartea gordetzen da, eta bidearen erdian blokeez osaturiko nerbioa nabari da. Tarteko espazioak birlekin trinkotu zituzten. Bidearen atal bat mugarri baten oinetik igarotzen da, baina luiziek partzialki estali dute hura. Errekastoa gertu egonik, bidearen oinarriaren atal bat higatu eta galdu egin du hego-ekialdeko zerrendaren atal bat. Obrek irauten

reseñable. Los sondeos realizados en las zonas señaladas fueron igualmente estériles. Hay que hacer una salvedad en los sondeos zanja 11 y zanja 14 de la zona 2. En la primera zanja, cubierta por arcillas limpias de restos culturales, se localizó un relleno y acondicionamiento de una surgencia natural. Se canalizó de manera muy simple y se cubrió con arenisca del lugar antes de ser tapada. Debió hacerse en un tiempo reciente, cuando se prepara la zona con amplias terrazas para cultivo, más que para pasto.

En la zanja 14, en la posición X: 530736; Y: 4777589,65 se localizó una acumulación de bolos de arenisca de 25 a 30 cm de potencia y de forma ligeramente ovalada de ejes de 110 y 140 cm. Es una estructura en la que no se han encontrado restos culturales o carbones. Su interpretación es difícil al igual que su aproximación cronológica, que consideramos puede ser moderna. Su apariencia es similar a un drenaje, pero mantenemos todas las reservas. Una vez excavada, bajo ella, no apareció ninguna alteración del subsuelo.

Los sondeos de ambas zonas cubrieron los 800 m^2 que se estipula en el proyecto de obra.

El Camino del Carlista

En esta zona, la U.T.E. Mañaria, concesionaria del tramo, advirtió la existencia de un camino conocido como «del Carlista» y apreciado por la gente de la zona. Este camino se encuentra fuera del catálogo de elementos arqueológicos-arquitectónicos del proyecto de obra. Su incorporación al seguimiento es debido a la advertencia de la técnico de Medioambiente respondiendo a la demanda de protección pedida por los vecinos de los caseríos próximos. El camino se desarrolla desde cerca del caserío de Mendilibar, próximo a la carretera BI-4335, hasta la desviación hacia el vertedero, oficinas y parque de maquinaria, y se dirige hacia Abadiño, a media ladera, quizá por encima de la cantera.

Se trata de una vía empedrada con una cierta antigüedad, posiblemente de finales del siglo XVII o inicio del XVIII. Parte del camino se hallaba cubierto por acumulaciones de arrastre de un arroyo que circula junto a él y vertidos recientes. El camino en esta parte del trazado, frente a Mendilibar, no estaba a la vista, por lo que no se puede certificar su existencia y grado de conservación bajo añadidos de nivelación hechos desde un tiempo inmemorial. En obra no se ha actuado sobre él y se procedió al añadido de relleno de nivelación y posteriormente una solera de hormigón, que aún permanece en el sitio.

El camino consta de una banda de firme entre dos alineaciones laterales de bloques, separadas 2 m, con un nervio central de bloques. El espacio intermedio se maciza con bolos. Parte del trazado discurre al pie de una muga que con los corrimientos lo ha tapado en parte. La proximidad del arroyo ha erosionado parte del apoyo del camino, perdiéndose parte de la banda sureste. La propuesta de un sistema para su preservación y conservación durante las obras se

Karlistaren Bidea babesa kendu eta gero.

Camino del Carlista tras la retirada de la protección.

zuten bitartean hura babesteko eta kontserbatzeko sistema baten proposamenak zerbitzu-bidearen ondoko 10 metroko tartea babestea aurreikusten zuen. Gainerakoan ez zuen eraginik izango, eta agerian utzi ziren. Halatan geotextil bat egokitu genuen zuzenean bide atalaren gainean, gero hareazko geruza batez estali eta berdindu genuen hura, hartxintxarrezko beste geruza batez estaltzeko eta, azkenik multzo osoa zagorrezko geruza batez zigilatzeko. Geruza guztiak gutxienez 15 cm lodi izango ziren. Bide berritik bide zaharrerainoko beheranzko atal bat bere horretan utzi zen auzoen ohiko joan-etorriak ez eragoztearren.

Obraren iraupenak ez zion kalterik eragin babestutako atalari. Obra amaituta estalita uztea proposatu zen, baina Bizkaiko Aldundiak eskatuta agerian utzi zen. Beraz, garbitu egin genuen aurkitutako atala, atera egin genuen bertan metatutako lohia eta agerian utzi genituen kanpoko zerrenda, errekastoaren ondokoa, eta erdiko nerbioa.

Bide hau ez dago katalogatuta ez eta zerrendaratuta ere, eta beraz egoera hau profitatu nahi dugu Udalari, Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzeko hura kalifikatu dezala.

hizo para los 10 m próximos al trazado del camino de servicio. El resto del camino no podía verse afectado y se dejan al descubierto. La propuesta consistió en extender geotextil directamente sobre el trazado, cubrirlo con una capa de arena y nivelarla, cubrir con una capa de graba y ésta con una capa de todouno. Ninguna de las capas debía tener menos de 15 cm. Se deja un tramo descendente desde la nueva vía hasta el camino, facilitando el transito habitual de los vecinos.

El tiempo de obra ha sido inocuo para el trazado protegido. Finalizada la obra se propuso dejarlo cubierto, pero se retiró a instancias de la Diputación de Bizkaia. En el proceso se procedió a una limpieza superficial del tramo descubierto, retirando el lodo acumulado y dejando vista la banda exterior, junto al arroyo, y el nervio central.

Este camino no se encuentra catalogado ni inventariado, por lo que aprovechamos esta ocasión para solicitar que se proceda a ello por parte del Ayuntamiento, Diputación y Gobierno Vasco.

Eguskitzatik Mendigaingo tunelaren iparraldeko ahorainoko tartean ez zen ondarea arriskuan egon zitekeen eremurik aipatzen. Hala eta guztiz ere, badira aurreikusi eta deskribatu ez ziren elementu batzuk, arriskuan egon zitezkeenak. Errekaren ezkerraldeko Aremokola olako presaz eta ubideaz ari gara. Ola honetako eraikin zaharra, Aratabilako zubia, eta eraikin moderno bat, Tabirako ola, daude jasota. Elementu bi hauek ez dute eraginik jasan, ABEEk haiek babesteko neurri zuzentzaileak aplikatu baitzituen. Alde batetik bere horretan utzi da ubidea, eta ibaia zubi berri baten bidez gainditu da, eskuinaldea betegarri bat aprobetxatuta goratu eta gero. Ezkerraldean, presa txikiaren eta zubiaren artean, zubi-bideko zutarrietako bat dago, ubideko hormigoizko pantailatik 1,5 metrotara. Puntu honetan eustorma bat eraiki zuten zutarri txikien bidez. Eustorma honek eutsi egiten zion ubideari 6. zenbakiko zutarriko zapata induskatzeko lanetan zehar.

Urpean geratzen ziren gainerako zapatak induskatzeko lanen gaineko jarraipena antzua gertatu zen. Ez genuen ondare intereseko aztarnarik aurkitu. Ezkerraldeko gainazala erabat nahasita dago azken mendeko industria jardueraren eta jarduera zibilaren ondorioz. Hala eta guztiz ere, argi eta garbi ikusi genuen nola, noiz ez dakigula gaineko maila desagertu delako, errekarriz eta harri koskorrez eraturiko aldeak buztinez bete zituzten ibaiaren ertzean laborantzarako lurrak irabazteko xedean.

Era berean antzuak gertatu ziren Mendigaingo tunelaren irteeran eta Larrinagatxuko zabortegian egindako obren gaineko jarraipen lanen emaitzak, ez baikenuen historiaurreko ez eta garai historikoko ondarearen informaziorik lortu.

Saroiak edo kortak

Bada AHTren proiektu honetan eta neuk ezagutzen ditudan besteetan aintzat hartu ez den kontu bat: paisaian fosilduta dauden ageriko elementu tradizionalez ari naiz, saroiez edo kortez. Hauek zalantza ugari planteatzen dituzte kronologiari bagagozkio.

Abeltzaintza eta laborantza intereseko elementu hau fosil ugaria da egungo paisaian. Bizkaiko herrialdean egiteke dago haien banaketa eta zerrenda. Herri lurrak salduta, lursailak zatitu eta luberrituta, lursailak bilduta, mendietan luberritze sakonak eginda, industrialdeak eta bide azpiegiturak eraikita, desagertu egin da informazioaren parte bat.

Atal honetan, kontrolpeko atalean ukitutako saroien zerrenda bat osatu dugu. Saroi hauek artean ikusgai daude paisaian, airetiko argazkietan islatzen den bezala. 2006. urte aurreko hegaldietan hartutako irudiak eta 2009. urteetakoak eta 2010. hegaldian hartutakoak erkatu ditugu. Haietan ondo zehaztu ditugu zirkunferentziaren laurdenetik gorako informazioa kontserbatu duten saroiak. Aztarnetan aberatsa da alde hau. 2 km-ko zabalera duen zerrendan egindako azterketak hogeita hamarretik gora unitate eskaini ditu, gehienak partzialki kontserbatuak. Horietatik 8 saroi ebaki edo kaltetu dira.

El tramo desde Eguskiza hasta el final del tramo en la boca norte del túnel de Mendigain, no tenía señalada ninguna zona de riesgo patrimonial. Sin embargo, si existen elementos con posible riesgo que no fueron contemplados ni descritos. Es el caso de la presa y caz de la ferrería de Aremokola, en la margen izquierda del río. De esta ferrería si se recogen el edificio antiguo y el puente Aratabila, además de un edificio moderno, la ferrería Tabira. Esos dos elementos no se han visto afectados, ya que se han implementado medidas correctoras de protección por parte de la U.T.E. Por un lado, se ha salvado el caz y el río con un puente nuevo, recibido con un relleno de elevación en la margen derecha. En la margen izquierda, entre el azud y el puente, se localiza una de las pilastras del viaducto, a 1,5 m escasos de separación de la pantalla de hormigón del caz. En ese punto se realizó una pantalla de contención mediante micropilotaje, que sujeta el caz en la excavación de la zapata de la pilastra nº 6.

El seguimiento de la excavación de las restantes zapatas en la llanura de inundación resultó estéril. No se encontraron indicios de interés patrimonial. La margen izquierda se encuentra completamente arrasada en el nivel superficial por la actividad industrial y civil del último siglo. Sin embargo, se ha visto como se rellenaron, en un tiempo que no podemos precisar por la eliminación del nivel superior, las cascajeras y playas de cantos del río con arcillas para ganar terrenos de cultivo en la margen del río.

El seguimiento de la salida del túnel en Mendigain y del vertedero de Larrinagatxu han sido igualmente estériles, sin ninguna información patrimonial ni histórica, ni prehistórica.

Seles o cortas

Hay un interesante aspecto que no ha sido tenido en cuenta en este proyecto del TAV, ni en otros que yo conozca, que interesa a elementos tradicionales y superficiales fosilizados en el paisaje que plantean muchas incógnitas sobre su profundidad cronológica, como es el sel o corta.

Este elemento de interés ganadero y agrícola, resulta ser un fósil abundante en el paisaje actual. Su distribución e inventario en la provincia de Bizkaia está por ser realizado. La desaparición de parte de la información se ha ido produciendo a lo largo de la venta de los terrenos comunales, la parcelación y roturación, la concentración de parcelas, las roturaciones intensas de montes, los polígonos industriales y las infraestructuras viarias.

En el caso de este tramo, hemos hecho un inventario de los seles afectados en el tramo controlado, de los que aún es posible ver y descubrir en el paisaje, tal como revela la ortofotografía aérea. Se ha usado un método basado en la comparación de imágenes de vuelos anteriores al 2006, y el de 2009 con el 2010. Sobre ellas se han situado las marcas de los seles de los que se conserve información superior a una cuarta parte de su circunferencia. Se trata de una zona rica en evidencias. El examen de una banda de hasta 2 km de ancho devuelve un número mínimo de evidencias que sobrepasa las treinta unidades, la mayoría conservadas de forma parcial. De estas se han cortado o afectado un total de 8 seles.

Hiru modulu daudela ikusi genuen, topografian banaketa eredu esanguratsuari erantzuten ez diotenak, oraingoz bederen. Modulu hauen artean Pedro-Bernardo Villareal de Berrizek[81] (1736) planteatzen duen harreman baliokidea dago, hau da, neguko saroia edo korta osoa 126 estatu edo besoko[82] erradiokoa dela zioen. Udako saroiari dagokionez, bi modulu daudela zioen, txikiena negukoaren erradioaren erdikoa, eta handiena neguko erradioaren bi herenekoa. Airetiko argazkitik abiatuta bereizi dugun proportzioak ez dio zehazki arestian azaldutakoari erantzuten, baina hori ez da esanguratsua kontuan baditugu proportzioen arteko hurbiltasuna eta haiek neurtzeko garaian egindako akatsak zuzendu ez direla, ez baitira bertatik bertara eta sistematikoki kontrastatu. Ormaetxeak eta Zabalak[83] Bizkaiko 1483ko saroiei buruz egindako lanak (1988) bi modulu baizik ez ditu jasotzen, negukoa eta udakoa, Legarçak 1400. urteko eta aurreko saroiei begira egindako azterketan jasotzen duen modura. Ziortza-Bolibar, Dima eta Ibarruri aldean soilik udako saroiak aipatzen dituzte, eta hauetan proportzio handiena aldatu egiten zen besteekiko, hau da, neguko saroien erradio hipotetikoaren hiru laurden hartuko zuen.

Se ha visto que hay tres módulos sin una distribución topográfica relevante para su significación, por el momento. Entre estos módulos hay una relación equivalente a la que plantea Pedro-Bernardo Villareal de Berriz[81] (1736) donde establece que el sel de invierno o cortaofoa es de 126 estados o brazas[82] de radio. Para el de verano recoge que hay dos módulos, el menor es la mitad del radio de invierno y el mayor de ellos es dos tercios del radio de invierno. Esta proporción no es exactamente la que hemos hallado a partir de la medida hecha sobre la ortofoto, lo que no es significativo dada la proximidad entre las proporciones y la falta de corrección de error de medida, ya que no están contrastadas sistemáticamente en campo. El trabajo de Ormaetxtea y Zabala[83] (1988) sobre los seles de Vizcaya de 1483 solo presentan dos módulos, invierno y verano semejante al resultado que se obtiene en Legarça para el año 1400 y anteriores. En la zona de Cenarruza, Dima e Ibarruri citan solo seles de verano donde el mayor de ellos cambiaría la proporción respecto al otro, pasando a ser tres cuartos del hipotético radio de invierno.

L. Valdés

D.1.2. **Zornotza-Lemoa atala (Bizkaia)**

Zuzendaritza: Román Rodríguez Calleja
Finantziazioa: Corsán-Corviam Construcción S.A

D.1.2. **Tramo Amorebieta-Etxano-Lemoa (Bizkaia)**

Dirección: Román Rodríguez Calleja
Financiación: Corsán-Corviam Construcción S.A

Intervention carried out all over the site, leaving no room for further investigation, since the results proved to be of scarce historical-archaeological interest.

2009ko urritik 2011ko abenduan amaitu arte burura eramandako lur mugimenduen gaineko kontrol arkeologikoa. Emaitzak ez ziren batere interesgarriak izan historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik.

Control arqueológico de los movimientos de tierra llevados a cabo desde octubre del año 2009 hasta su finalización, en diciembre de 2011. Los resultados del mismo han sido de escaso interés histórico-arqueológico.

R. Rodríguez Calleja

---

81 *Maquinas hidraulicas de Molinos y herrerias y govierno de los arboles y montes de vizcaya*. Bigarren liburukia. Sociedad Guipuzcoana de Edición y Publicación elkartearen 1973ko fakzimilaren argitalpenetik hartua.

82 Estatu edo beso bakoitza 7 oin arruntaren baliokidea da, 0,28 m luze.

83 Ormaechea Hernaiz, A. Mª eta Zabala Uriarte, A., «Espacios ganaderos en la Vizcaya del Antiguo Régimen» Filosofia eta Letrak fakultatearen 25. urteurrenean. II Estudios de Geografía e Historia, Deustuko Unibertsitatea 1988, 401-428.

81 *Maquinas hidraulicas de Molinos y herrerias y govierno de los arboles y montes de vizcaya*. Libro segundo. De la edición facsimil de 1973 de la Sociedad Guipuzcoana de Edición y Publicación.

82 Cada estado o braza es de 7 pies comunes equivalentes a 0,28m.

83 Ormaechea Hernaiz, A. Mª y Zabala Uriarte, A., «Espacios ganaderos en la Vizcaya del Antiguo Régimen» en 25 años de la Facultad de Filosofía y Letras. II Estudios de Geografía e Historia, Universidad de Deusto 1988, 401-428.

D.1.3. **Durango-Zornotza atala (Bizkaia)**

Zuzendaritza: Luis Valdés
Finantziazioa: Durango-Amorebieta ABEE

D.1.3. **Tramo Durango-Amorebieta-Etxano (Bizkaia)**

Dirección: Luis Valdés
Financiación: UTE Durango-Amorebieta

The monitoring of the High-Speed Rail Link section between Durango and Amorebieta-Etxano failed to provide any results of archaeological interest. The importance of the modifications made to the landscape by this project has resulted in attention being paid to an important part of our heritage, namely boundary stones, which have yet to be accurately dated.

Durango eta Zornotza arteko abiadura handiko trenbide (AHT) atalaren gaineko kontrol arkeologikoa, haren hego-ekialdean. Lan hauek ez dute inolako eraginik izan obrarako proiektuan aurreikusitako ondare elementuen multzoan.

Arkeologikoki antzua da Mendigaingo irteera ahoaren eta San Andres tunelaren ahoaren arteko zubi-bideari leku egiten dion eremua, aldapa handiko ibar estuan kokatua. San Andres tunelaren ahora iristeko bidea oso txiroa zen kultura hondakinetan, toska zuriko zati bi eta burdinazko zepa hondakin txiki eta itxuragabe bat baino ez. Uraz goiti aurreko ataleko zabortegia kontrolatzeko lanetan hautemandakoarekin bat datoz emaitza hauek.

Tunelaren irteera aldapa handiko mazelan dago, zoruaren lodiera oso apala den aldean (35 cm baino gutxiago). Miaketa lanetan ez genuen emaitza interesgarririk lortu, eta berdin gertatu zen haranaren hondoa okupatzen duen Etxenako zubi-bideko zutarrietako zapatekin. Haren balizko interes arkeologikoaz mintzatu behar bagenu, XX. mendearen bigarren erdialdeko industria hondakinak jasotzeko zabortegi handi bat dela esan beharko genuke. Nagusiki ibilgailuen gurpilak pilatu zituzten alde honetan, baziren beste elementu isolatu batzuk haien artean, baina deus aipagarririk ez. Beraz, ingurumen izaerakoa zen arazoa, ez ondare izaerakoa. Zutarriei eusteko Urtzelaiko ahorainoko zapatak induskatuta, pneumatikoen pakete lodia atera eta gero, zoruko A eta B geruzen lodiera oso apala zela ikusi genuen, eta eragin antropiko orotatik libre zeudela.

Urtzelaiko zubi-biderako sarbidea alde honetan dauden kareharria ustiatzeko harrobietarako sarbidearen atal bat aldatuta eraman da burura. Alde honetan bereizten diren erretenak, Bizkaiko Aldundiaren 1:5000 eskalako planoan partzialki kartografiatuta daudenak, ez dira funtsean ukitu. Proiektuan proposatutako bidea aldatu eta bide berria laburragoa gertatu da. Ez da azpimarratzekoa bertako arkeologiaren (industria) garrantzia. Urtzelaiko tuneleko irteera ahoan eta Olabarrieko tuneleko sarrera ahoan bada zer nabarmendu. Olabarrieko tunelaren ahoko berdintze lanek, Iparragirreko mazelan, obrarako proiektuan adierazten ez ziren hiru egituretan izan zuten eragina.

Horien inguruko kontsulta bat egin genion Bizkaiko Aldundiari, haietako bat oinplano angeluzuze-

El control arqueológico del tramo del tren de alta velocidad TAV entre Durango y Amorebieta-Etxano, en su trazado sureste, ha presentado nula incidencia en el conjunto de los elementos patrimoniales consignados en el proyecto de obra.

El viaducto entre el emboquille de salida de Mendigain y el emboquille del túnel de S. Andrés, en Larrinagatxu, es una zona arqueológicamente estéril, localizada en un estrecho valle de pendientes pronunciadas. El camino de acceso al emboquille de S. Andrés resultó muy pobre en restos culturales que se circunscriben a dos fragmentos de loza blanca y un resto informe de escoria de hierro de tamaño pequeño. Resultados coincidentes con lo observado durante el control del vertedero del tramo anterior, situado aguas arriba.

La salida del túnel se produce en una ladera de pendiente pronunciada, con muy escaso suelo <35 cm. La prospección no dio resultados de interés, al igual que sucedió con las zapatas de las pilastras del viaducto de Etxena que ocupan el fondo del valle. La ladera opuesta es un asunto diferente. Si tuviésemos que hablar de su posible interés arqueológico, habría que establecerlo en su señalización como un gran vertedero de residuos industriales de la segunda mitad del siglo XX. El tipo de material vertido es, principalmente, cubiertas de vehículos, entre las que se veía algún otro elemento aislado, pero nada reseñable. Por tanto, la problemática se estableció desde el aspecto medioambiental y no patrimonial. La excavación de las zapatas para las pilastras hasta el emboquille de Urzelai mostró, una vez eliminando el potente vertido de neumáticos, una escasa potencia del horizonte edáfico A y B, limpios de impacto antrópico.

El acceso hasta el emplazamiento del viaducto de Urzelai se ha hecho sobre la modificación de un tramo del camino de acceso a las canteras de caliza existentes en la zona. El sistema de zanjas que se reconocen en la zona y que están cartografiados parcialmente en el plano 1:5000 de Diputación de Bizkaia, no se ha visto sustancialmente alterado. El camino propuesto en proyecto ha sido modificado y reducido su trazado nuevo. La relevancia arqueológica (industrial) es poco destacable. En la zona de los emboquilles de salida del túnel de Urzelai y entrada al de Olabarrie, hay algo más que destacar. La zona de desmonte del emboquille de Olabarrie, en la ladera de Iparraguirre, afectó a tres estructuras que no se habían señalado en el proyecto de obra.

Sobre las mismas se hizo una consulta a la Diputación de Bizkaia ya que una de ellas era el resto de

Saroien banaketa trenbide lerrotik gertu.

Distribución de los seles en la proximidad del trazado.

neko (11,5 x 5,5 m) eraikin baten hondakina baitzen; landu gabeko harriz eta harlanduz egindako hormak zituen, kartografiatu gabe zegoen eta bertakoek ere ez zekiten zer erabilera eman zioten egitura honi lehendik. Honako koordenatu hauetan dago eraikinaren erdialdea: X: 527168,79; Y: 4780852,64 ; Z: 174. Birlen metaketa batek osaturiko egitura da bigarrena, formaz luzanga da, tunelaren ahoko berdintze lanen mugak gainditzen ditu. Eta 2,7 m zabal eta 2 m sakon den erretena da hirugarren egitura. Multzo honetan ez da ondare izaerako baliorik hautematen, eta ondorioz obraren gaineko kontrol lanetik kanpora utzi dira.

Beraz, ageriko elementuak garbituko genituen gero haien ondare interesa baloratzeko xedean. ADIFek diseinatutako Kultura Ondarearen fitxetan adierazten denez (2011ko abuztuko txostenaren I. Eranskina), honako hau da hasierako interpretazioa: «*Pendiente de valoración y de la limpieza. No aparece en documentación escrita. En el estado de su detección el edificio presenta un muro de cabecera ligeramente curvo. Edificio rural de pequeñas dimensiones ± 11,5 x 5,5 m*». Aintzat hartu genuen ekialdetik mendebalderako norabide kanonikoaren kontrako norabidea izan zezakeen baseliza bat izateko aukera.

Kontsultatutako kartografia zaharrenak, 1923. urtekoak, ez du honakoa jasotzen. Eta ez dute jasotzen Gurutzi Arregi Azpeitiak Bizkaiko baselizen inguruan

una edificación de planta rectangular (11,5 x 5,5 m), con gruesos muros de sillar y mampostería, no cartografiada y sin memoria de su uso en la gente del lugar. Se localiza su centroide en las coordenadas X: 527168,79; Y: 4780852,64 ; Z: 174. La segunda es una estructura por acumulación de bolos, de forma alargada que rebasa los límites de actuación del desmonte del emboquille y la tercera, una zanja de 2,7 m de ancha y 2 m de profundidad. Estos completan el conjunto, no apreciando valor patrimonial alguno en ellas, por lo que han quedado fuera del control necesario en obra.

La intervención se planteó bajo la consideración de limpieza de los restos emergentes para valoración de su interés patrimonial. Según consta en las fichas de Patrimonio Cultural diseñadas por ADIF (Anexo I del informe de agosto de 2011) la interpretación de inicio es la siguiente: «*Pendiente de valoración y de la limpieza. No aparece en documentación escrita. En el estado de su detección el edificio presenta un muro de cabecera ligeramente curvo. Edificio rural de pequeñas dimensiones ± 11,5 x 5,5 m*». Se consideró incluso la posibilidad de que pudiese ser una ermita con orientación contraria a la canónica E-W.

La cartografía más antigua consultada, de 1923, no recoge esta presencia. Los estudios sobre ermitas de Bizkaia, de Gurutzi Arregi Azpeitia; La arquitectura

egindako azterlanak, Alberto Santana doktoreak Euskal Herriko baserriaren arkitekturari buruzko egindakoak, eta Iñaki García Camino doktoreak Bizkaiko Arkeologiari eta populazioari buruz (VI.-XII. mendeak) osatutakoak.

Eraikinaren hondakinak garbituta, ustez burualde apur bat kurbatua zuen eraikinean horrelakorik ez zela ikusi genuen, deformazio hori ertzetatik eta frontetik jasandako presioaren emaitza baitzen, aurriak estaltzen zituzten zuhaitzen motzondoak kentzean gertatutako presioen emaitza.

Hondakinak garbituta segur asko XVIII. mende amaierako edo XIX. mende hasierako baserria dela esango dugu. Esku-hartzea amaituta Aldundiaren Arkeologia zerbitzuak haren ondare balioa AHTren obrak atzeratzeko nahikoa ez zela iritzi zion. Honenbestez, hura mekanikoki arakatu eta erabat berdindu zuten kontrol arkeologiko zorrotzen pean.

Burura eramandako zeharkako ebakiek bi kontu egiaztatu eta utzi zituzten agerian. Hasteko, eraikin hau oinplano berrikoa dela esan behar dugu, ez dago aurreko eraikin baten arrastorik. Bigarrenik, hura eraikitzeko modua dugu. Lauzek estaltzen zuten zorua azaleraren gutxienez bi herenetan, baina hura arpilatu edo altxa zuten lauzak beste leku batean egokitzeko. Hormak ere desmuntatu zituzten, eraikinaren inguru osoan eta barruko aldera oso urriak baitira hondakinak. Ekialdeko hormaren hondakinen egokierari eta iparraldeko eta hegoaldeko hormen luzapenei erreparatuta, estalpe bat izango zuela esan behar dugu.

Bertan kontserbatzen diren harlanduen neurriak nahikoak dira hormaren zabalera (>0,5 m) estaltzeko. Aipagarria da iparraldeko eta hegoaldeko hormen lodieran nabari den aldea, lehenengoa eta mendebaldeko horma 10 cm lodiagoak baitira. Hormak, altueran, landu gabeko harriz eta eraikinaren gibelaldean agerian dauden ertzetan bakarrik baliatu ez zituzten harlanduez eraiki zituzten aurpegi bietan, bien artean betegarriak. Ertzak berdinduta dauzkaten piezei dagokienez, ez da neurri edo formaren eredu zehatzik hautematen.

Etxeko baxerarik, iltzerik edo bestelako tresnarik ez egoteak agerian uzten du alde hau desmuntatu eta berriro ere aprobetxatu zutela. Teila zaharren zatiek, ehun eskas, gehienak ertzetako batean aurkituak, aukera ematen digute arestian adierazitako kronologiara hurbiltzeko. Identifikatutako elementu bakar batek ere ez digu borda batera eramaten, baina aldi berean ez digute hura hobe ezaugarritzeko aukera eskaintzen.

Saroi edo korten gaineko eragina

